

## *Eskoriatza*



Aurkibidea

### **Udalerria: Eskoriatza**

#### **Sarrera**



Debagoieneko udalerria. Leintz bailarako beste herrieekin hartu-eman handia izan du mendeetan zehar, eta oso lotuta daude hainbat arlotan, baita hizkeran ere. Azken urteetan indar handia egin da herriko hizkera eta ahozko ondarea jasotzeko. (Argazkia [Wikipediatik hartua](#))

- **Biztanleak:** 4.043
- **Euskaldunak:** %57,4

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **78**
- Zintak: **98**
- Pasarteak: **1.312**
- Transkribatutakoak: **218**
- Audioak: **236**
- Bideoak: **1.058**

## Proiektuak

- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- AED elkarte
- Arantzazu Sagarzazuren fonoteka
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- Dialektologia-EHU
- Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- Eskoriatzako ohiturak
- Eskoriatzan hika
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen historia soziala Bergaran
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaitzi motzak
- Leintz bailarako ahozko ondarea
- Loramendi Euskara Elkarte

## Hizlariak

### **Cruz Abarrategi Leaniz-Barrutia (1917-2007)**



Ama Eskoriatzako Apotzaga elizatekoa eta aita Arrasatekoa. Aitak Soraluzeko "Real Fábrica de Cañones" fabrian egiten zuen lan eta Cruz bertan jaio zen. Soraluzen egin zituen lehenengo ikasketak, maristen ikastetxean. 11 urterekin seminarioan sartu zen eta abade izendatu zuten 1942an. Eskoriatzako Bolibar elizateko abade izan da azken 60 urteotan.

### **Anbrosio Abasolo Beloki (1928-2016)**



1928an jaio zen Eskoriatzan. Ama Marulanda auzoko (Zarimutz elizatea) Gorosarri baserrikoa zuen eta aita, berriz, Errotakoa. 4 urterekin hasi zen eskolan mojekin (mesedetakoetan); 7 urterekin eskola nazionalera pasa zen, Beheko eskolara, eta horren ondoren, "maistro kojuarekin" ibili zen Goiko eskolan.

### **Edurne Abasolo Jauregi (1964)**



Andereñoa eta dantza taldekoa, San Agedako dantzak erakusten ibili da hainbat urtean. Santa Agedako ohiturak jasotzeko elkarrizketatu genuen, eta inauteriei buruz ere hitz egin zigun.

### **Agustin Agiriano Arenaza (1921-2017)**



Intxaurtxueta auzoko Galartzaetxe baserrian jaio zen 1921ean. Ama Oro auzoko San Juan etxekoa zen. Mesedetakoekin hasi zen eskolan; geroago Don Ismael "Republikanuarekin" ikasi zuen. 1938. urtean Benardiño Zubiaren fabrika hasi zen lanean, kanoientzako espoletak egiten, baina sei hilabete besterik ez zituen egin bertan. Bizi guztia baserrian eman du, baina bere jaiotetxea bota egin zutenez, Atxorrotz bidean eraiki zuten etxe berrian bizi izan zen. Arrasateko Gesalibar auzoko Zabolaineko Dorotea Jauregirekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten.

### **Andres Agiriano Zubia (1906-2011)**



Eskoriatzako Bolibar elizateko Karoi baserrian hazitakoa. Aita auzo bereko Otsaibe baserrikoa zuen, eta ama Karoi baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean 96 urte zituen. Baserrian lan egiteaz gain, egur-tratuan ere ibilia.

### **Anton Agirre Eraña *Bekorrota* (1924)**



Eskoriatzan jaioa, baina hainbat tokitan bizi izandakoa, aita mikeletea zuelako: Gatzagan eta Santa Agedan. Eskoriatzara bueltatu zirenean, Bekorrota etxean bizi izan ziren; argi-erota zen. Zalduena etxera ezkondu zen. Santa Agedako eta inauterietako ohiturak jasotzeko elkarrizketatu genuen.

### **Karmele Agirregabiria Agirre (1964)**



Guraso biak baserritarak izanagatik -aita Larulandakoa eta ama Beheko Errotakoa- umetatik kalean bizi izan da Karmele. Aitak hika hitz egiten zien batzuetan. 15 urterekin Goñi euskal udalekuetara joan zen, eta bertan bere mutil-laguna eta ondoren senarra izango zena ezagutu zuen, Jesus Elortza bergararra. Halaxe hasi zen hika hitz egiten. Bergarako Ubera auzoan bizi da ezkondu zenetik. Leintz euskaltegiko irakaslea da eta hika ikastaroak eman izan ditu Aretxabaletan eta Eskoriatzan. [Axun Garai](#) lagunarekin batera elkarrizketatu genuen, hitanoari buruz.

**Nikolas Akixu (1927-2016)**

**Luis Alaba Zubia (1949)**

Eskoriatzako Bolibar auzoko Otzaibe baserrikoa. Beti baserrian bizi izan da. 14 urterekin hasi eta jubilatuta arte lantegian lan egin zuen, lehenbizi Zerrajeran eta gero kooperatiban (Coprecin).

**Carmen Altuna Errasti (1931-2021)**

**Jon Apraiz Ansola (1971)**



San Juanetan Eskoriatzako plazan tantaia jasotzeko mekanismoaren bilakaera kontatu zigun. 1988an gertatutako istripuaren ondorioz (Jon berari tantaia hanka gainera jausi zitzaion) eskuz jasotzetik poleak erabiltzera pasa ziren.

**Euxebio Arejolaleiba Saez de Cámara (1955)**



Gatzikarro (Gatzekoarroa) baserrian jaioa, Aramaioko Azkua auzoan, baina sentimenduz marindarra, bizimodua Marinen (Eskoriatzan) egiten zutelako: eskolara eta elizara Marinera joaten ziren. Aita bertakoa zuten, artzaina, eta ama Gasteiz ondokoa; euskara eta gaztelania, umetatik biak ikasi zituzten bost anai-arrebek. 1969an trena kendu zutenean, Maringo biztanle asko inguruko herrietara joan ziren bizitzera. 1971n Euxebio ere Arrasatera joan zen bizitzera, hara ezkonduko arreba baten etxera, bertan ikasketekin jarraitu ahal izateko. Gero Teologia ikasi zuen eta Euxebio irakaslea izan da, erretiroa hartu duen arte. Hikazalea eta hika hiltuna, Eskoriatzako hitanoa jasotzeko elkarriketatu genuen, Oñatin: noka egin zuen elkarriketa.

### **Luziano Arenaza Aginagalde (1930-2018)**



Mendiola auzoko Txarena baserrian jaio zen. Ama etxekoa eta aita auzo bereko Atxurdi baserrikoa zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Marianistekin sei urte eta San Viator ikastetxean beste urtebete ikasi eta gero, Arabako Gamiz herriko baserri batean urtebete pasa zuen erdara ikasten. Soldadutza egin eta gero, hiru urtez basolanetan jardun zuen. Gero eraikuntzako pioigintzan hasi, eta etxeak egiten ikasi zuen. Egurrezko teilatu egiturak ere egiten zituen. Zazpi urtez jardun zuen eraikuntzan. Gero Copreci kooperatiban sartu zen eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte.

### **Mertxe Armendariz (1941)**



1944an jaio zen eta 13 urte ingururekin hasi zen dantza-taldean dantzan. Dantza-taldeari buruzko kontu ugari aipatzen ditu.

### **Pedro Mari Armendariz Zubizarreta (1938-2020)**



San Juan kaleko "Felix Ubidena" kale-baserrian jaio zen. Bederatzi anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Aita Bizkaiko Ubide herrikoa zen eta ama, berriz, Bolibar auzoko Jausoro baserrikoa. Hamahiru urterekin hasi zen lanean Zubizarreta lantegian sarrailagintzan. Gero Aretxabaletako Iturbe lantegian doitzaille gisa jardun zuen bederatzi urtez. Handik Ederlan lantegira pasatu eta bertan hartu zuen erretiroa. Gau-eskolan solfeoa ikasi zuen, eta gero Eskoriatzako musika-bandan aritu zen. Berrogei urterekin ezkondu zen "Patxikopaulo" kale-baserriko Purirekin.

### **Maritxu Arrese Letona (1945)**



Maringo Bidegoitia (Bidebeitia Goikoa) baserrikoa, guraso biak marindarrak zituen. Maringo eskolan ibili zen eta 19 urterekin Coprecin hasi zen lanean. Gurasoek etxean zuka hitz egiten zioten arren, anai-arreben artean eta auzoko lagunekin hika egiteko ohitura du; baita lankide batzuekin ere. Bi alabei ere hika egiten die. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Ramon anaiarekin batera, Maringo elkartean.

#### **Ramon Arrese Letona (1949)**



Maringo Bidegoitia (Bidebeitia Goikoa) baserrikoa, guraso biak marindarrak zituen. Maringo eskolan ibili zen eta 12 urterekin Arrasatera joan zen ikastera, gero eskola profesionalera joateko. Amak hika egiten zion, aitzak zuka. Anai-arreben artean hika egiteko ohitura du; baita beste hainbat mutilekin ere. Semeei ez die hika egiten. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Maritxu arrebarekin batera, Maringo elkartean.

#### **David Arrieta Armendariz (1964)**



Kaletarra, gurasoak ere kaletarrak zituen, aita 10 urte bete arte San Prudentzian bizitakoa bazen ere. Etxean zuka hitz egiten zieten. 17-18 urte zituela baserri girora hurbildu zen, Mendiolara asko joaten hasi zen, eta halaxe ikasi zuen hitanoa. Geroztik hika hitz egiteko ohitura du, mutilekin. [Antton Lezeta](#)arekin batera elkarrizketatu genuen.

#### **Jota Arrieta Armendariz (1958)**



[Eskoriatzako ohiturak](#) proiekturako egindako elkarrizketa, besteak beste Santa Agedari buruz; urtero parte hartzen du, txistulari moduan. Bere testigantza [Santa Ageda Eskoriatzan](#) ikus-entzunezkoa osatzeko erabili genuen.

#### **Esteban Arrieta Gallastegi (1924-2021)**



Aita Gatzagako semea zen eta ama, berriz, Oñatikoa. Aitaren lana zela eta, Esteban Bergarako San Prudentzio auzoan jaio zen 1924an. Hala ere, 11 urte inguru zituenean, familia osoa Eskoriatzara joan zen bizitzera. Txirrindularitza eta dantza izan dira bere zaletasun handienak: 80 urtera arte ibili da bizikletan. 46 urtez TESA lantegian ibili zen. Buru argikoa, gai horietaz eta antzinako bizimoduaz, oro har, azalpen interesgarriak eman ditu.

#### **Guadalupe Atxaga Romaratezabala (1938)**



Aretxabaletako Leizabal baserrian jaioa, 22 urterekin Eskoriatzara ezkondu zen. Guraso biak aretxabaletarrak zituen. Guztira 15 anai-arreba izan ziren familian, baina hiru ama desberdinenak.

Guadalupek San Juan jaiei buruzko ohiturak kontatu zizkigun, horietako batzuk oraindik ere bere familian mantentzen dituzte.

### **Jose Azkarate Arejolaleiba (1915-2012)**



Marin auzoan jaio zen 1915ean. Aita bertakoa zuen eta ama Aramaioko "Gatxikarro" (Azkoaga) baserrian jaio zen. Gasteizko seminarioan ikasi zuen eta bertan Barandiaran eta Lekuona izan zituen irakasle, besteak beste.

### **Eustakio Barandiaran Elorza (1933-2018)**



Eskoriatzan jaio zen "Bernabena" baserrian. Kale-baserria zenez, herriko bizimodua eta gorabeherak oso ongi gogoratzen ditu. 18 urterekin kalean hasi zen lanean, lehenengo TESAn eta ondoren Aretxabaletako Coprecin.

### **Pepe Barandiaran Zaldibar (1924)**



Eliza ondoan jaioa. Ama Bilbokoa zuen, eta aita bertakoa. Bost anai-arreba ziren. Urte eta erdi egin zituen Afrikan, soldadu. Santa Ageda eta inauterietako ohiturak jasotzeko elkarrizketatu genuen, eta beste hainbat kontu ere esan zizkigun, besteak beste gerrakoak.

### **Pilar Beitia Arejolaleiba (1931-2018)**

### **Tomas Beitia Arejolaleiba (1933-2018)**



Emalditxiki baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Ortueta baserrikoa. Hamabi anai-arrebatatik bigarrena izan zen. Ganaduaz gain, ehun erletik gora ere izan izan zituzten. Maringo eskolan ikasi zuen seitik hamabost urtera arte. Juan Lopez de Lazarraga maisu arabar falangistak euskaraz egiteagatik ematen zituen belarrondokoak gogoan ditu. Ikazkin eta basolanetan jardun zuen gaztetan. Egurra eta ikatza trenean nola kargatzen zuten kontatzen du. Roneo lantegian urtebete egin zuen, eta gero Ulgor eta Copreci kooperatibetan jardun zuen erretiroa hartu arte. Garaikoa baserrira ezkondu zen, bertako Josefina Azkaraterekin eta bi alaba izan zituzten.

**Klaudio Belategi Pagaldai (1922-2017)**



San Juan kaleko Arbe kale baserrian jaioa. 14 urterekin hasi zen lanean. Santa Agedari buruzko informazioa jasotzeko elkarrizketatu genuen. Herriko hainbat ohiturari buruzko azalpenak eman zizkigun. Errepublika garaiko eta gerra sasoiko kontuak ere kontatu zituen.

**Antonio Beloki Altuna (1936-2011)**



Eskoriatzan jaio zen 1936an elizaren ondoko kale batean. Gurasoak ere bertakoak ziren, baina baserrikoak. 13 urterekin musika-bandan sartu zen eta klarinetea jotzen ikasi zuen. Zinerako zaletasuna ere izan du gaztetatik eta pelikulak botatzen ibiltzen zen.

**Barbara Bengoa Argarate (1926-2015)**



1925. urtean Marulanda auzoko (Zarimutz Elizatea) Bentazar baserrian jaioa, baina ezkondu ondoren auzo bereko Zurun baserrira bizitzera joandakoa. Aita Marulandako Etxebarri baserrikoa (Zarimutz) zuen eta ama Mendibe baserrikoa. Baserrian egin du lan bizitza osoan. Elkarrizketa egin zitzaionean 77 urte zituen.

**Gregoria Bengoa Argarate (1911-2009)**



Marulanda auzoko (Zarimutz Elizatea) Bentazar baserrian jaio zen 1911n. Ama auzo bereko Mendibe baserrikoa zuen. 16 urterekin joan zen eskolara Aretxabaletara, mojen eskolara. 20 urterekin Mazmela elizateko Urazandi baserrira ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituen.

**Francisco Biteri Azurmendi (1933-2018)**



Francisco Biteri Azurmendi eskoriatzarra. Elkarrizketa egin zitzaionean 78 urte zituen.

**Patxi Diaz Jausoro (1936)**



Mazmela auzoko Iramain baserrikoa. Mutikoa zela aita hil zitzaion. Amarekin eta arrebarekin bizi izan zen. Baserritik ateratzen zuten bizimodua. Txofertzan ibilia, kamioiarekin, erretiroa hartu arte.

### **Mari Karmen Eraña Eraña (1933)**



'Tokartuena' esaten diote, Tokartueneko etxean jaio baitzen. Gero San Juan kalera joan ziren bizitzera. Mojetan ibili zen eskolan. Santa Agedako eta inauterietako ohiturak jasotzeko elkarrizketatu genuen, [Begoña Eskibel](#) lagunarekin batera. Eskoriatzako beste hainbat kontu ere esan zizkiguten, besteak beste orduko entretenimenduekin lotutakoak: zinema, jolasak....

### **Gadea Errasti Diaz de Gereñu (1990)**



[Eskoriatzako ohiturak](#) proiekturako egindako elkarrizketa: herriko neskek Santa Agedako dantzetan parte hartzen noiz eta nola hasi ziren kontatzen du. Bere testigantza oinarri hartuta, [Santa Ageda Eskoriatzan: nesken parte-hartzea](#) bideoa prestatu genuen.

### **Bernabe Errasti Ibarzabal (1910-2014)**



Eskoriatzako Zapategi baserrian jaiotakoa 1910ean. Eskolara joatea gustuko zuen, baina laster utzi behar izan zuen familiaren egoera ekonomikoa zela eta. 10 urterekin morroi joan zen inguruko baserri batera. XX. mendean zehar egon diren hainbat aldaketa zuzenean bizi izan ditu eta oso azalpen interesgarriak eskaintzen dizkigu.

### **Jon Errasti Iriarte (1957)**



[Eskoriatzako ohiturak](#) proiekturako egindako elkarrizketa, besteak beste Santa Agedari buruz; urtero parte hartzen du, txistulari moduan. [Gadea Errasti](#) alaba ere elkarrizketatu genuen gai horrekin lotuta. Bere testigantza besteak beste [Santa Ageda Eskoriatzan](#) ikus-entzunezkoa osatzeko erabili genuen.

### **Begoña Eskibel Arriola (1925-2019)**



San Juan kalean jaioa. Mojetan ibili zen eskolan. Santa Agedako eta inauterietako ohiturak jasotzeko elkarrizketatu genuen, [Mari Karmen Eraña](#) lagunarekin batera. Eskoriatzako beste hainbat usadio ere kontatu zizkiguten.

### **Santi Eskibel Larrañaga (1943)**



Lete baserrian jaio zen 1943an. Bost urte zituela ama hil zitzaien eta bederatzi anai-arreba amarik gabe geratu ziren. Urte batzuetara aita berriz ezkondu zen eta une batez 16 pertsona bizi izatera iritsi ziren Lete baserrian. Mutikotan artzain ibiltzen zen mendian, baita 14-15 urterekin Tesa lantegian hasi eta gero ere. 22 urterekin Gasteizera joan zen soldadutza egitera. Handik itzultitakoan, Tesan jarraitu zuen lanean. Leintz Gatzagako emaztearekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituzten.

### **Higinio Etxabe Getaria (1933)**



Getariako Garate kale-baserrian jaio zen. Jaioberri zela Fraisoroko sehaska etxean utzi zuten. Eskoriatzako Mendiola auzoko Uxarte (Uriarte) baserrian jaioberri zen umea galdu zuten, eta Higinio jaso zuten Fraisoron. Aita Uxartekoa eta ama Lete auzoko Letegaraikua zen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, Higinio hirugarrena zelarik. Marianistekin 13 urte eta gero San Viatorren beste urtebete bat eskolatu zen. Azbe lantegian 11 urtez lan egin eta gero, "Fundiciones Esteibar" sortu zuen lagun batzuekin. Comet lantegiarekin lehenengo, eta Ulgorreko galdategiarekin elkartuta geroago, Ederlan kooperatiba sortu zuten 1963. urtean. Aretxabaletako Arkarazo auzoko Mendibitzu baserriko Benita Leterekin ezkondu zen. Lau seme dituzte. Mendiolako abade etxean bizi dira azken 45 urtetan. Etxea erosi eta Garate izena jarri zioten.

### **Jesus Fernandez de Arroiabe Pagoaga (1934-2021)**



1934an jaio zen Marulanda tabernan (Zarimutz elizatea). Ama Leintz Gatzagakoa zen; aita, berriz, Argentinan jaio zen Jesusen aitajauna hara joanda zegoelako, baina 5 urterekin etorri zen berriz Marulandara. Amak Marulandako tabernan denda ere jarri zuen. Marulandako eskolan hasi zen ikasten Jesus. Geroago, 14 urtera arte Eskoriatzan ikasi zuen "Hermano" Luisekin. Handik Bergarako Elemental eskolara joan zen bi urterako. Bergaran txirrindulari "karrera" atera omen zuen. Espainiako ziklo-kros txapelketan parte hartu zuen Sabadellen (1953). Munduko txapelketan ere egon zen, Luxenburgon (1956). Plater-tiroan oso ona da. Errusiako olinpiadetan (1980), Moskun, brontzezko domina lortu zuen Espainiako taldearekin.

### **Kontxita Fernandez de Arroiabe Pagoaga (1921)**



Marulandako Potajena etxean jaio zen. Aita Argentinan jaio eta bost urterekin etorri zen; ama gatzagarra zen. Hamar anai-arreba izan ziren, bera hirugarrena. Gurasoek tabernadenda-ostatua jarri zuten Marulandako etxean. Gatzagan hasi zen eskolan bost urterekin. Gerran eskola eten eta Gatzagara lehenengo eta Langraitzera (Nanclares de la Oca) geroago, joan behar izan zuten gordeleku bila. Gerra ostean Marulandako euren etxean jarri zuten eskola. Doña Petrarekin ikasi zuen han hamahiru urte arte. Gero gau-eskolak hartu zituen etxean, euren apopilo zen "Señorita Conchita Perez" maistrarekin. Aita ganadu tratantea zen eta Kontxik ezkondu arte jardun zuen etxean lanetan. Gerra ostean estraperloan ere jardun zuen. Dorletan ezkondu zen Eskoriatzako Tokuartona etxeko Eujenio Erañarekin. Lau seme-alaba izan zituzten. Kontxitaren semea Aitor elkarrizketan egon zen. Bergaran bizi da ezkondu ezkerotik.

### **Pako Fernandez de Arroiabe Pagoaga (1923-2014)**



Marulandako (Zarimutz elizatea) tabernan jaio zen 1923an. Ama Leintz Gatzagakoa zen. 5 urtegaz Zarimutzeko eskolan hasi zen ikasten Jose Lizarralde abadearekin; gero Marulandako eskolara pasatu zen. Gau-eskolan ere ibilitakoa da. Aita hiltegiatarako ganadu-tratantea zen eta Pako aitari laguntzen ibili zen umetatik. Txirrindularitza-proba askotan hartu zuen parte. Motorren tailerra eduki zuen eta, geroago, kamioiarekin garraiolari gisa ere ibili zen. Bere azkenengo 46 lan urteetan taxi-gidaria izan da.

### **Axun Garai Errasti (1939)**



Aretxabaletan jaioa, ama Eskoriatzakoa zuen; aita, berriz, Aretxabaletako Galartzako Bazterralde baserrikoa. Guraso biek hika egiten zioten eta anai-arreben artean hika egin dute umetatik. Eskoriatzara ezkondu zen. [Karmele Agirregabiria](#) lagunarekin batera elkarrizketatu genuen, hitanoari buruz.



### **Maria Goiz Urgumez (1909-2004)**

Umetatik Eskoriatzako Bolibar elizateko Karoi baserrian bizi izan zen. Elkarrizketa egin zitzaionean, 93 urte zituen. Andres Agirianoren emaztea zen.

### **Isabel Guridi (1941-2015)**

### **Encarna Ibabe Uribeetxebarria (1921-2010)**



Apotzaga elizateko Altunena baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zarratxiki baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean, 81 urte zituen. Auzo bereko Gaztañadui baserrira ezkondu zen; Maximo Lezeta da bere gizona.

### **Juan Felix Iregi Lete (1960)**

Lete auzoko Santa Lutzia baserrikoa. Lete auzoari buruz eta San Juan jaiekin lotutako ohituren inguruan hitz egin zigun, batez ere. [Aintzane Ortiz de Zarate](#) emaztearekin batera, etxe-aurrea ira eta loreekin apaintzearen ohitura erakutsi zigun.

### **Timoteo Izurategi Zubia**

### **Segundo Lete Madinabeitia (1923-2014)**

### **Antton Lezeta Abasolo (1964)**



Apotzagako Arane Behekoa baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama Arientzakoa. Eskoriatzara joan zen eskolara eta han erdaraz egin zituen ikasketak. Etxean jaso zuen hitanoa eta anaien artean hika egiten dute. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, [David Arrieta](#) lagunarekin batera.

### **Maria Lezeta Errasti (1933-2022)**



Eskoriatzako Zapategi baserrian jaiotakoa 1933. urtean. Baserriko bizimodua eta lanak zuzenean ezagutu zituen eta antzinako bizimoduari buruzko azalpen interesgarriak ematen ditu (umetako kontuak, ohitura zaharrak, etab.).

### **Maximo Lezeta Madinabeitia (1917-2010)**



Gaztañadui baserrian jaioa, Apotzaga elizatean. Elkarrizketa egin zitzaionean, 85 urte zituen. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zelaikoa baserrikoa. Gasteizen morroi izandakoa, gaztelania ikasi zuen. Artzaina eta baserritarra, oraindik ere galtzerdiak egiten ditu eskuz. Encarna Ibabe da bere emaztea.

### **Dominika Madinabeitia Elorza (1938)**



Areano baserrian jaioa, Mendiola auzoan. Aita bertakoa zuen eta ama Oñatiko Araotz auzokoa. Hamabi senidetan bederatzigarrena izan zen. Gurasoak baserritik bizi ziren, baina seme-alaben ikasketei garrantzia eman zieten (Japonian ibilitako osaba baten eraginez, besteak beste). Zazpi urterekin Gasteizera bidali zuten, osaba-izeben etxera, eta hantxe egin zituen ikasketak. Magisteritza ikasi zuen. Hasieran gaztelaniaz eman zituen eskolak, Aretxabaletan ireki berri zuten eskola batean eta klase partikularrak Arrasaten. Bergarako gerraosteko lehen ikastolako lehenengo andereñoa izan zen gero, Elbira Zipitriarekin ikastaroa eginda, Donostian. Hizkuntzak ikastea eta erakustea zen bere griña, eta Bergaratik Parisera joan zen, eta handik Alemaniara. Bueltan, hizkuntzak erakusten ibili zen: CIM-en sortzaileetako bat izan zen (gaur egun Mondragon Lingua), euskarari ere tokia egin zion kooperatiba, Debagoienan eragin handia izan zuena.

### **Iñaki Madinabeitia Elorza Joxe (1946)**



Iñaki Madinabeitia Elorza, etxekoentzat "Joxe". Eskoriatzako Mendiola elizateko Areano baserrian jaioa, 12 anai-arrebetan gazteena. Aita bertakoa zuen eta ama Oñatiko Araotz auzokoa. Udaleko zinegotzi eta eskola profesionaleko irakasle izan zen. Mendiola elizateari eta batez ere bertako jaiak diren San Juanei buruzko hainbat kontu kontatu zizkigun.

### **Fermin Munduate Beitialarringoitia (1929-2023)**



Zarimutz auzoko Erromarate baserrian jaio zen. Aita auzoko Uriarte (Uxarte) baserri zaharrekoa zen eta ama Aramaioko Oleta auzokoa. Ezkondu zirenean erosi zuten Erromarate baserria. Zortzi anai-arreba izan ziren, bera bigarrena. Marulandako eskolan hasi zen zortzi urterekin. Hamahirurekin Eskoriatzako eskola nazionaletan ikasi zuen urtebetez. Bizi guztia eman du baserrian, ganaduak eta ardiak zaintzen.

### **Joxe Ramon Okaranza Otadui (1946)**



Apotzaga elizateko Okaranza etxe esanguratsukoa. Aita bertakoa eta ama arrasatearra. 23 urterekin fabrika lanean hasi zen, ordura arte baserriko lanetan aritu zen. Apotzaga auzoari eta San Juan jaiari buruz galdetu genion batez ere elkarrizketan.

**Andres Olabe Arriolabengoa (1921)**

Eskoriatzako Gellao auzoa izan zuen sorleku Andresek eta Arrasateko Gesalibar auzoko Enuzketa baserria, berriz, bere bizilekua.

**Maria Esther Oregi Uribetxebarria (1938-2017)**



Soraluzen jaioa, umetan joan zen Eskoriatzara bizitzera. Moja ikastetxean ikasi zuen. Batxilergoa ikasi zuen, eta Idazkaritza ikasketak egin zituen. Eskoriatzako Musika Eskolaren sortzaileetako bat da.

**Aintzane Ortiz de Zarate Oianguren (1962)**



Eskoriatzako Dorleta auzoan jaioa. Ama eskoriatzarra zuen, aita berriz Otxandiokoa. Lete auzoko [Juan Felix Iregire](#)kin ezkondu eta bertako Santa Lutzia baserrian bizi dira. San Juan egunarekin lotutako ohituren inguruan hitz egin zigun, batez ere. Lore-sendorrak egin zizkigun eta etxe-aurrea ira eta loreekin apaintzearen ohitura erakutsi zigun.

**Teodoro Otxoaizpurua Oyanguren (1931-2011)**



Gaztañadui kalean jaio zen 1931n. Aita eta ama biak Bolibar auzokoak ziren. 15 urte zituela hasi zen Unión Cerrajeran lanean.

**Mario Padilla Maguregi (1928)**



1928an jaio zen Otxandion. Aita Zarimutz auzokoa zen. 1965 inguruan etorri zen Eskoriatzara bizitzera. Umetan korura joaten hasi eta musika eta txistua ikasi zituen. Bandako zuzendaria, txistulari- eta dantzari-taldeen sortzailea eta ikastolaren bultzatzailea izan da.

**Jose Pagaldai Iñurrategi (1930-2009)**



Bolibar auzoko Pagaldai baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama auzo bereko Jausoro baserrikoa. Hamaika anai-arrebatatik hamargarrena, bere gurasoak etxe lanetan ibiltzen ziren. 6 urterekin auzoko eskolan hasi zen eta bertan egon zen 13 urtera arte. Gero Eskoriatzara joan zen ikastera eta bi urte egin zituen Hermano Luis Mujikan. 20 urterekin fabrika sartu arte etxean egon zen bertako lanak egiten.

### **Jose Pagalday Garro (1927-2010)**



Arana kalean jaio zen, gurasoak Bolibar auzokoak izan arren. Eskolan hiru urterekin hasi eta sei urtera arte mojekin ibili zen, eta geroago "Beheko eskolan". Gerra garaia gurasoen baserrian pasa zuten, Bolibar auzoan. Gerra ostean, 13 urterekin, Deustuko salesiarretan barneko ikasle izan zen industri maisutza ikasten zuen bitartean; eta handik Bilbora pasa zen industri peritu izateko ikastera. Eskoriatzara itzuli eta aitak (beste bazkide batzuekin batera) sortutako TESA lantegian hasi zen lanean 1952an. Ordutik bidaia ugari egin izan du Europako hainbat herrialdetara, baita Amerikara ere. TESA lantegiari buruzko eta sarrailagintzari buruzko hainbat azalpen eman ditu elkarrizketa honetan.

### **Mari Carmen Pagalday Garro Polleruena (1930)**



Bolibar auzoko Olagoiti baserrian jaio zen, baina 7-8 urterekin kalera etorri zen. Aita Bolibar auzoko Esibei baserrikoa zuen eta ama auzo bereko Garruena baserrikoa. Bolibarko eskolan ibili zen urtebetez eta gero Eskoriatzako mesedetakoetan 14 urtera arte. Arrasaten eta Bilbon brodatzaile ikasketak egin zituen eta lan horretan jardun izan du bizi guztian. Aitak oilo-granja jarri zuen baserrian; gerora kalean eta baserrian hazi zituen oilook. 2000 oiloko granja izatera iritsi zen. Arrautzak saltzera Donostiara eta Gasteizera joaten zen. Etxeko dendan denetik saltzen zuten, baita euren arrautzak eta oilaskoak ere.

### **Maritxu Romaratezabala Badiola (1935)**



Marin elizatean jaiotakoa 1935ean. Baserriko bizimodua eta lanak zuzenean ezagutu zituen eta antzinako bizimoduari buruzko azalpen interesgarriak ematen ditu (umetako kontuak, ohitura zaharrak, etab.).

### **Rosalina Maria**

### **Rufino Segura Errasti (1937)**



Eskoriatzako Zarimutz elizateko "Segurena" baserrian jaio zen. 26 urtera arte baserrian bizi eta bertan lanean jardundakoa; baserrian etorkizun gutxi zegoela ikusita, Eskoriatzara joan zen lan egitera.

**Milagros Ugalde Lezeta (1920-2014)**



Erkotx kale-baserrian jaio zen. Ama bertakoa zuen eta aita Aramaiokoa. Sei anai-arreba ziren, Milagros bigarrena. Hamabost urterekin eskola bukatu eta lanean hasi zen. Ezkondu arte Arruenean (Beroa) egin zuen lan. Kamiñokua kale-baserriara ezkondu zen, bertako Juan Larrañagarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten.

**Esperanza Uribarren Liziaga (1922-2007)**



Eliza ondoko etxe batean jaio zen 1922an. Ama bertakoa zuen eta aita, berriz, Garagartza auzokoa. Mojetan ibili zen eskolan lehenbizi, eta gero eskola nazionaletan 13 urtera arte. 13 urterekin neskame joan zen Arrasatera. Bergaran eta Eibarren ere ibili zen neskame lanetan geroago, 19 urte ingurura arte. Senarra aguazila zenez, ezkondu ostean udaletxean bizi izan ziren 32 urtez.

**Saioa Uribe Barandiaran (2002)**



Eskoriatzako dantza taldeko partaidea txiki-txikitatik. San Juan dantzari buruz hitz egin zigun, batez ere, elkarrizketan; urteetan galdua egon ondoren, suaren inguruan dantza hau egitea berreskuratu duten ohitura da Eskoriatzan.

**Juanita Uribe Urrutia (1929-2022)**



Gatzagan jaiotakoa. Ezkondu ondoren Eskoriatzara joan zen bizitzera.

**Mari Carmen Viteri (1944-2020)**

### **Andresa Zabala Abasolo (1929)**

Andresa Zabala 1929an jaio zen, Eskoriatzako Bolibar auzoan. Batxilergoa Gasteizen ikasi zuen eta gero Bilbon erizain eta emagin ikasketak egin zituen. Eibarren, lehenik emagin bezala lanean ibili zen amategia sortu aurretik eta geroago erizain bezala. Etxeetan bisitak egiten zituen eta anbulategian ere kontsulta pasatzen zuen. ALFA-ko lantegiak langileen seme-alabentzat zabaldu zuen kontsultategiko erizaina ere izan zen.



*Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa.*

### **Margarita Zabala Arkauz (1906-1994)**

1906an Eskoriatzako Bolibar auzoan jaio zen Esibei baserrian. Demetrio Oianguren Oiangurenekin ezkondu zen, Bolibarko Etxebarri baserrikoa. Ezkondu eta gero kalera jaitsi eta denda jarri zuten.

### **Miren Zubia Zabala (1923-2016)**

Eskoriatzako Bolibar auzoko Ezibei baserrian jaio zen. Baserriko lanak eta bizimodua zuzenean ezagutu izan ditu. Auzoko abadearen laguntzaile eta elizako serora ere bada. Oso hiltun ona da, euskara zoragarria darabil eta etnografi gaiez ere oso azalpen interesgarriak ematen ditu.



### **Benedicta Zubillaga Zubizarreta**

#### **Pedro Mari Zubizarreta Iregi (1932)**

Eskoriatzako San Juan kalean jaio zen 1932an. Ama San Juan kaleko Iregi etxekoa zen, eta berak jarri zuen Eskoriatzako lehenengo arrandegia. Pedro Mari, mutikotan, Leintz Gatzagara joaten zen aitarekin arraina saltzera. Eskola nazionalen egin zituen urte pare bat eta horren ostean San Viatorren ibili zen 13 urtera arte. Geroago Zerrajerako "Escuela de Aprendizicesen" ikasi zuen lau urtez. AZBEn hamar urte egin zituen lanean; gainerako lan-urteak Zerrajeran eman zituen.



## Cipriano Zubizarreta Zubia (1918-2009)



Bolibar elizateko Eraña auzunean jaio zen. Baserrian ume-umetatik lanean aritu ondoren, 14 urterekin Eskoriatzako lantegi batean hasi zen lanean. Gerora, TESAn ere lan egin zuen. Elkarrizketan bere emaztea ere agertzen da (Pakita Alegria Uribe-Etxebarria)

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Familia eta harremanak

#### 1.1. Ardiak menditik baserrira

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/001
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Ardiak menditik noiz jaisten zituzten.

#### Transkripzioa

- Hillan hamarra ezkerro behera.
- Etxera [ekarten gittuen].
- Bueno, egualdixan gorabeheran be bai, ezta?
- Bai, bai. Mendira lehenao ez gittuen eruten. Nik hamabi bat urte edo, ze eukiko nauan. Bestela, lehen hemen ibiltten [gittun] ardixek. Hamabi bat urte edo holakon [batekin] mendire. Ta batzen be... batu-ta be lehenao hementxe eitten zien. Bai. Etxien be ez, hor goixen batu, hemen basuen batu. Goixien egunsentixen fan ta batzen gittuen ardixek.
- Jeixteko edo?
- Jexteko.
- Bai, goixien ta illunkaran.

#### 1.2. Eskola gutxi ikasitakoak

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:30:04. **Bukatu:** 00:31:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Eskolaren inguruko kontuak. Aitak zerbait ikasi zuen baina amak ez zuen eskolarik bat ere ez. Ezkondu artean neskame ibilitakoa zen ama.

### Transkripzioa

- Bai, eskolie... Eskolaik ez auen. Gure amak bape ez zakixen eskolaik, bapez. Ta [erderaz] be ez, bapez. Lana ikesi auen lehen... Bera zaharrena [be] ta kriada urten ta ezkondu artien, ba, kriada. Ta gero, ba, honaxe etorri ta akabo. Ez erderaz, ta ez eskolaik ta ezebe ez zakixen. Aittek apur bat bai, baiña amak ez zakixen bape be.

- Kriada kanpuen ibili zan edo...?

- E?

- Nun egon zan kriada?

- [Aroztegin] egon zan.

- A! [Aroztegin] egon zan, e?

- [Aroztegin]. Lehen esan dotena, maiorazkotxuak [Aroztegin] [be] beste hainbeste, lehen esan doune, erreterue be bai, ta [honenak] eta horreik diferente. Erreteruek ta horreik diferente. [Aroztegin] egon zan kriada ta handik hona ezkondu zan. Ta ez zakixen erderaz ta euskeraz ta ezebez. Bueno, euskeraz [...] erderaz, ta leiduten ta ezebe ez zakixen. Bapez baiña, e! Bapez.

### 1.3. Auzoan errota

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-003/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:07:49. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Baserría » Baserriko lanak » Garia  
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Auzoan errota bat zuten; bera mutikoa zenerako eginda zegoen. Errota desberdinak. Hainbat sozio ziren eta bertan garia, artoa... jotzen zuten.

### Transkripzioa

- Hemen [harri]-errota, auzuetan... Guk be geuk ein geben errotie. Ni mutikue nitzen, nik hamahiru urte neukenerako eindde euen argixa, hau argixau ifiñi ta errotie ya auzuen. Guk indde, e! Inddarra ta errotie; [...] ifinitte euen, [hiru...kua] be egon zan, [bikuek] be bai ta [herri]-errotan. Ta han jotzen gebena soziuek, hogeta bost sozio [...], ta jotzen geben artue, garixe, txillerra... ta oilluendako ta danendako [...] auzuen bertan jotzen geben. Ta etxerako [...] geben, ba, hoge anega edo [...]. Han sobretan bazan hamar-edo zerien, ha saldu eitten zan.

- Ha saldu eitten zan?

- Saldu eitten zan. Oin Arabara faten gara erosten, baiña orduen bertan.

Hau... Francon gerrara orduko pixkat ekindda euen [kentzen], baiña orduntxe akabau zan. Bestela hemen eindde [garixe] ta? Mekauen! Mordue! Auzo danien, e! Pillan bueltaka, larriñien pilletan zien garixek.

#### 1.4. "Pujetia"; lixiba

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-003/006
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:11:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** "Pujetia" latsarrian nola egiten zuten. Xaboa bolatan egoten zen. Lixiba nola egiten zuten.

#### Transkripzioa

- Egosi eitten neuen pujetie han laderuen. Hondarrien ifintten notsen abartxo batzuk, ta gero abarren gaiñien trapu zahar... inporta ez dotsen trapu zahartxo batzuk. Han. Ta gero izarak sartzen gittuen han banan-banan. Ta gero kamiseta, kantzontzillo ta holako gauzak gaiñien. Haik gero lehelengo etara ta aklarau ondo ta lejietan ifintten zien, apur baten lejietan. Hala manejetan nitzen ni. Ta gero, oin neguen txarto, ño!, ura hotza. Urik ez zeuen hemen ta... Holan? Holan? Ño!

- [Kiskildduta]...

- Bai, ya lo creo! Bai, eta anilla eitten txarrena, anilla eitten sinplie, aguro ibili bai baiña... hotzittu.

- Hotzittu eskuek, bai...

- Bai. Gogortu eitten zien erropak denporien txarraz.

- Ta ze jaboe [...] oingo jaboerik-eta ez zan egongo lehen...

- Jaboie bai, [...].

- A, bai? Bazan?

- Jaboie ta, "bolas maravillosas" egoten zien orduan, baiña haik zien kolorezko erropiendako; por ejemplo, alkondara kolorezkuek edo, harendako izeten zan. Oin adelantu gehixao dao lehengo aldien.

- Bai, holan bola batzuk [...] jaboie, batzuk illunauek ta beste batzuk argixauek ta...

- Bai, holako bolatxo batzuk egoten zien, [kopien] tamaiñoko bolatxo batzuk. Haik botatzen zien uretara. Pujetie egosi suteko hautsaz, trapu zahar bat ifini gaiñien ta eralgi hautsa ta ha pujetien gaiñien ifini ta...

- Holako tina haundi baten. Badakizu zer dan holako tinia?

- Bai...

- Ikusitta eukiko dozu, ezta?

- Bai.

- Egosi eitten zan. Hauts-[...] esaten otsen ta hareaz bankuek-eta garbiketean gittuen, suelue be bai, hemen euenien...

- Harek zurittu, ezta?

- Zurittu, [ba], lejia moduen kolore edarra ifintten otsien. Bai, lexibia esaten jako, lexibia. Ba, holaxen, holakotxe lanak.

### 1.5. Emakumearen lanak baserrian

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-003/019
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:38:08. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Emakumearen lanak baserrian. Plantxari ikatza botatzen zitzaion.

#### Transkripzioa

- Lan asko egongo zan orduen... Emakumak ze lan eitten zittuen basarrixen?
- E?
- Basarrixan orduen emukimiek ze lan? Zertzuk eitten zittuen?
- Holakotxe lanak, erropak garbittu ta plantxau be bai ta...
- Plantxau? Zelako plantxie egoten zan orduen?
- Hor [eskapeien] badao, ba?
- Bai.
- Hoixe. Hori... iketza biher, hori iketzaz eitten da.
- Berari iketza botaten jakon.
- Iketza botaten jakon?
- Barrura.
- Horrek iketza ein ta nik plantxara, zatittu ta plantxan sartu ta horreaz. Oin, oin elektrikua daukou; hor dau.

### 1.6. Umetako jolasak: tortolosak

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-007/001
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak. Tortoloska nola egiten zuten.

#### Transkripzioa

- Tortolisek zien...
- Ardixek edo billotsak aukienak tortolisek. Hori be guk asko eitten gauen, e! Kanika bateaz, e! Han be kanikie gora bota ta buelta emun ta gauzak ein biher izeten dau, e! Hori joku elegantie izeten zan gure sasoien, e! Asko eitten gauen guk hori be, tortoliske. Tortoliske. Nik ointxe be batzuk gordeta daukat, batenbati erakutsi edo ez dakixienei zerketako badauket gordeta be batzuk. Gure sasoien hori zan jokue, baiñe joku elegantie! Tortoliske.

### 1.7. Gatzaga inguruko auzoetako erromeriak

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-007/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Marulandako erromeria, oso ezaguna. Marinen, Madalenak ospatzen ziren; San Bartolome jaiak ere oso ezagunak ziren eta onenak, Gatzagako Andra Mariak. Alde guztietara oinez joaten ziren; gerora bizikleta ere izan zuten. Oso auto gutxi zeuden garai hartan; erromeria ere bidean egiten zen.

#### Transkripzioa

- Eta erromerixie esan dozu hemen Maulandakue zala...  
- Maulanda...  
- Baiña, bestela, beste nunbaittetako... beste nunbaitteko jaixek zienien-ta faten zitzien?  
- Jaixek zienien bakotxa berera be bai. Jaixek zienien Maringo... Madalenak Mariñen. Ba, Madalenetan egun pare baten Mariñera faten gitzen. San Bartolome Gaztañixen; beste geun pare baten San Bartolomera faten gitzen. Ta hemen inguruen fiesta onenak Gatzagan.  
- Gatzagakuek?  
- Gatzagako Andra Marixek "indiscutable". Han hiru-lau eguneko fiestak onen-onenak.  
- Bai. Ta atsalde-pasa edo egun-pasa edo zela faten zitzien?  
- Bai, atsalde-pasa.  
- Bazkalostien?  
- Bazkalostien komenta. Komenta bazkalostien faten gitzen. Bai. Oin baiño goxau. Oin baiño goxau. Klaro, bai, illunkararako etxera etorteko, illunkararako etxera etorteko, lehenau. Bazkalostien, ba, nik dakit lauretan edo... ze... erromerixia ekin bihar illunkararako etxera etorteko, gure gazte-denporan.  
- Eta oiñez, ezta, alde batera ta bestera?  
- Oiñez, oiñez, oiñez. Bai, bai. Orduen ez euen automobillik eta zeraik. Gero bizikletie euki neuen neuk be, baiña...  
- A, bai? Euki zauen bizikletia, e?  
- Bai, bai. Bai, gu [Jesusa-errotako] tokixen bizikleta asko [ibiltzen gitzen]. Asko, bai. Baiñe gure neskaitilla-denporan oiñez: Mariñera be oiñez eta Gaztañixera be oiñez. Ze automobil euen, ba, orduen be? Pentseizu ze automobil egongo zan, Gaztañixen kamiñuen egoteko erromerixia! Ta Maulandan kamiñuen egoteko! Ni akordetan... Ni erromerixan Maulandan egon ta, pentseizu, atsalde guztien, e! Illunkarara arte, atsaldien ekin ta, ba, lauretan edo gura danien ekin ta illunkarara arte, bai? Eta nik makiña bat bider automobil bat pasau barik. Bat!

## 1.8. II. Errepublikaren aldarrikapena

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ibarzabal, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-009/027
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:47:40. **Bukatu**: 00:51:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: II. Errepublikaren aldarrikapena. Berak 20 urte zituen, eta eguna nola gogoratzen duen kontatzen du.

### Transkripzioa

- Esan dozu lehen, Republika sasoia ta. Goguan dakazu errepublikia noiz proklamau zan?
- Ene Maria ta Jose! Nik hogei urte neuken.
- Eta? Ze...?
- Republikia urten auenien.
- Ta gogoratzen dozu ondo?
- Bai, lehengotik zer apur bat, baiña ez, diferenteik izebez e.
- Hemen e...
- Republikia urten auen ta erregiak hanka ein auen hemendik ta izebez ez zan pasau hemen. Batzuek esaten daue, ba ostie baiña nik ez dot pentsetan.
- Hainbeste aldatu zanik?
- Ez, ez, ez. Jentia, notau, ba beti igertzen zan libertade gehitxuau edo zer, baiña ez hori jentia esaten dauen diferentzioi ez. Republikie urten auenien ni Mondraguen nabillen lanien, bihera eitten nauen Mondrauen. Ta hamaiketan ero holaxe urten gauen lanetik, Republikia urten auen egunian. Ta gero, jai emon oskuen.
- A bai e?
- Bai. Atzaldien iñobe ez zan fan lanera orduen egunien.
- Orduen egun haundixa ez?
- Bai, bai, bai. [Hauraxe egunien]. Ta Unión Cerrajera-n, han zera euen, sirenia egoten zan ta Unión Cerrajera-n sirenie jo euenien Mondragueko danak kalera. Mondraueko obreroik iñobe ez zan geldittu urten barik.
- Orduan jai eguna eta zelebrazazioen bat be egongo zan, ez, gauza espezialen bat?
- Gero jai, gero juerga egun guztia.
- Behintzat ondo hasi zenduen ez, Republika sasoia?
- Bai, bai, bai, baiña askok esaten daue, hau pasau zuan ulixe lekutan, nik ez dot pentsetan. Nik ez dot pentsetan hainbesteraio egon zanik. Batzuk esaten daue ulixe lekutan-eta, Eibarren-eta, egon ziela, baiña Eibarren egon gitzen gu orduen egunien, bizikeletakin fanda. Mondrauen bazkaldu eta Eibarreraio joan bizikeletakin, ez dakitzu? Ta guk Eibarren kalien ibili gitzen eta nik ez nauen ikusi han ezebe ezebe. Ta nik ez dot pentsetan, jen7iek esan gehixau eitten dau.
- Noiz baiña, Errepublika proklamau zan egunien bertan?
- Bertan egunien. Bertan egunien, atsaldien Mondrauen bazkaldu eta lau fan gitzen bizikeletakin Eibarreraio.
- Ez, ez zauen giro espezialik edo.
- Keba!
- Jendia han Untzaga plazan
- Ezebez, ezebez

- Manifestaziñorik eta ezebez, ez jatzun tokau?

- Guk ez gauen ikusi. Gu han egon gitzen, han ez zan egon ezebe. Jentiek esan eitten dau asko gehixau egon zan baiño, izen zan baiño. Hori diferentzioi jentiek ez euen hartu, e. Jentiek baekixen, ba, urten euen Republikiek eta jentie ez zan sublebau ez zan ezebe zertu. Izengo zan, por ejemplo, Erregie bertan geldittu eta frente eiñ edo, orduen zerbait izengo zan ezta, baiñe zela hanka eiñ euen Erregiek, Españan ez zan ezebe pasau.

- Ez pasau ez, baiña jentian zelebraziañuak edo ...

- Bai, ba, batenbatzuk tabernetan eta onenien biba batzuk izengo zien, ez dakitzu? baiñe, ez, ez, ez, ez. Eibarren behintzat orduen egunien jaleoik ez. Guk ez gauen ikusi. Oin ba, gu etorri ein gitzen bueltie einde denporaz eta ez dakigu gero ze pausa zan gabien. Ezin neike esan, baiña ez dot pentsetan.

### 1.9. Aitaren ogibidea

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Aitak bidegintzan lan egiten zuen; haren ogibidearen inguruko azalpenak ematen ditu: "kamiñeroaren" lana nolakoa zen...

#### Transkripzioa

- Eta kamiñeruan lana ze izaten zan?

- E?

- Beran lana ze izaten zan?

- Kamiñeruek eukitten euen orduen, kamiñero bakotxak, bi, hiru... lau kilometro edo. Euren trozuek eukitten zittuen ta ha garbi eukittia izeten zan euren zera. Ta gero noixien behin jutun zien harri-zabalketan ta ibiltten zienien brea botatzeko ta, ba, igual Plazentziara edo beste leku batzuetara. Ta gure aitta beti oiñez faten zan. Bizikletan ahalegin danak ein ikesteko, ta pentsau be ez, pentsau be ez ta pentsau be ez, ta sekula ez zan jarri bizikletan. Ta bizikletan jarri balitz, ba, asko hobeto fan leikien, ba, baiña ez auen gura. Beti oiñez.

- Toki guiztietara...

- Bai. Ta gero ondo auken [hak], kilometro bat auken... San Prudentzioko kruzien bizi gitzen, ezta, kamiñero-etxien. Kilometro bat Oñatira, beste kilometro bat Mondrau aldera ta beste kilometro bi Bergara aldera euen. Harek etxetik urten ezkerro [palarraz] ya bere trozuen auen. Etxetik urten ezkerro, ba, hori bentajioi baueken, iñora fan biherrik ez. Beste batzuk, ba, noberan trozora fateko, ba, kilometro bi, hiru edo bost ein biher. Ezta? Ta harek etxetik urten ezkerro, trozo barruen auen ta ondo auen.

### 1.10. Lan-munduaren egoera antzina

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/005
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:03:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehenago (aitaren garaian) lanik ez zegoen inguruan eta jende asko kanpora joan behar izaten zen lanera.

#### Transkripzioa

- Hamendik orduen jentia kanpora juten zan lanera ta. Hamen lanik ez auen. Ta orduan, ba, oin andaluzak eta zamoranuek eta hona etorri dien moduen, ba, orduen hamenguek beste leku batera juten zien.
- Kamiñero lan eittera?
- Hemenguek juten zien beste leku batzuetara. Batzuk ikezgiñan ta, zerak, pantanuek eitten ta, ba, ahal dan lekura.

### 1.11. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Lezeta Errasti, Maria; Romarate zabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-015/007
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Umetako jolasak. Tortoliska; sokasaltoan; tokoka; pote-poteka; "arranpasetan"... Tortoliska nola egiten zuten. "Dama jokue". Mariren baserriak ez zuen inguruan besterik, eta batez ere ganadu-zain ibiltzen ziren.

#### Transkripzioa

- Tortoliska-ta eitten gauen eskolan.
- Tortoliska ta sokasaltoka ta...
- Hori da, bertan topatzen zenduen...
- Bai, sokasaltoka. Gero tokoka be bai guk.
- Baitte tokoka be bai.
- Tokoka zan...
- Zelan da hori?
- Izeten zonan tokoka igual kuadrillie, ez dakitzu? Ta bat faten zan ta "toko!" eitten otsun ta [hak] harrapau biher zittuen "toko!" bestiei ta "toko!" bestiei ta "toko!" bestiei, igual hamar edo hamabi. Eta atzenengo eitten auena "toko" barriro. Takarraran igual. Han, ba, lekue egoten zan plazatik ziher ta handikaldetik ta harrapetan takarraran "toko!" bati, hak beste bati [eitten otsen], gero beste bat... Txandan holaxe eitten geuen tokoka. "Toko!" ta "Toko!", [alkarren...] beste bat. Beste bat be [bardiñe]

izeten zan, [...].

- Eta pote-poteka?

- Pote-poteka, bai. Pote zahar bat izeten zan harrixekin, [betetzen] zonan, eta gero zapaldu ondo ta harek "tra-tra-tra-tra" eitten euen potiorreaz ta danak gordeta sasi ostien, leixo ostien, leixo aurrien... ta, ba, han geldiketan zana, ba, topau ein biher euen [lehelengoko]. Ta zu juaten [...] barriro harrapetan baotsuen potie zaukatzun lekue, buelta barriro. Eta barriro hamar kontau, begixak tapau holan ta "Bat, bi, hiru, lau..." ta bestiek bixen bittartien gure dauen lekuen...

- Tranparik ein barik...

- Gure dauen lekuen eitten jonan gorde. Ta gordeten zienien etorten zittunan, barriro harrapetan baeunan zeroi, geldiketan hitzonan lehen bezela. Baiña distraidu... ondo distraitzen...

- Pozik!

- Edozer gauzakin, ez?

- Bai. Ta gero arranpasetan eitten gauenien? Zueik be ingo zauien?

- Zer?

- Arranpasetan. Lurrien jarri, hankak hola ifini, hortara, hola, ta gero eskuek hola ta gero salto.

- Hori ez. Ez, ez.

- E? Guk bai.

- Hori zelan da?

- Ba, lurrien jarten zitzen, lurrien jarritte, e? Bat hemetik eta beste bat hortik. Eta gero hankak hola ifiñi ta honen gaiñien eskuek ta bestiek lurretik, ba, saltau ein biher izeten euien hola. Itten euien.

- Eta horrek ze izen zekan?

- Arranpasetan esaten geuen.

- Arranpasetan?

- Arranpasetan.

- A, beira, sekula ez dot entzun.

- Bai, ba, bi aldetik jarri ta bi... Orduen, [baiña], hankak hobeto luzaketan [gittuen], neskatiak, eta eskuek be bai eta alturan, hankan puntako alturatik. Eta gero [haik...] batzutan ta zapatiak salto eitten [euenien] begiondoko bat hartzen geuen, baiñe... Gutxitten, e? Gutxitten jotzen zan, zeatik distantzia egoten zan batetik bestera. [Luze ahal zan guztie] ta bestie bestekaldetik... Ta hortxe takarraran etorri ta... Ta alturie be ezan egoten haundixa, neskatiak, ba, hamar-hamabi urte, hamahiru.

- Orduan...

- [...].

- ... kirola be eitten zenduen, ez?

- E?

- Halako kirola, bueno, saltuak-eta be...

- Bai, hori eitten gauen. Ta beste jolasik ze eukitten zonan?

- Eta tortoloska esan dozu eitten zenduela, ez? Tortolosak.

- Tortoliseka.

- Bai, tortoliska bai.

- Eta ze...?

- Kanika bat gora bota ta...

- Oin ez da eitten?

- Ke, ba! Ezebez. Tortolis mordo bat hartzen zan hola ta botaten zien tortolisek ta ifintzen zan... Izeten zonan, izeten zonan irabaztie tortolisek [aldemenera]... Nik ahaztuta [dauket].

- Bai, aldemenera ifinttie.

- Ha hartu bittartien haik tortolisek hola [ifini biher zauen].

- Ta alde bata euen lisue ta bestaldera rizaue.

- Bai, holako... bestaldera. Eta, ba, danei bueltia emon biher otsezun,

kanikia gora bota eta [hareka], ta jausten jatzunien barriro ta... Ta gero bestie, zuk galtzen bazauen, bestie ta bestie, bestie... igual zortzi neskatilla holaxe jarritte mahaixen. Mahaixe, bai, lurrien! Holako... Gero beste bat dama-jokuen be eitten gauen guk.

- Zuek Mariñen gauza asko eitten zauen!

- Bai!

- Guk [...] bakarrik!

- Hola, hartu, hartu... zela dauka izena? Teilla zati bat eta hola kuadro bat eitten zan hortara ta hortara. Ta gero hola ta hola. Ta hemen zentruen ifintten geuen harritxuek. Ta ez dakit nik gero zela eitten [geunan]. Han harritxue [ifintten] han... Ahaztuta dauket zela izeten zan. Dama-jokue izeten zan, dama-jokue esaten gutsen.

- Dama-jokua?

- Dama-jokue esaten gutsen. Ta holako zer bat, kuadrue, ein ta hortara ta hortara ta ez dakit harritxue han gaiñien ifini ta gero zela eitten geuen be ez dakit.

- Holako gauza asko honek han bertan etxe mordotxo bat eta lagunak danak bertan. Ta guk, [barriz], baserrixen... Bakarrik basarrixoi ta gu han.

- Inguruan bazekazuezen beste basarri batzuk edo?

- Inguruan beste etxe barik, beste etxe barik. Ta guk zer? Ganauak zainddu ta holako gauzak.

### 1.12. Inguruan zutenarekin jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Lezeta Errasti, Maria; Romarate zabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-015/008
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:12:20. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak. "Dendatxoka" nola egiten zuten. Inguruan aurkitzen zituzten lore, frutu eta abarrekin jolasten zuten. ("Sakutie"; belar izena). Dirurik ez eta ondoan zutenarekin jolasten zuten; imaginazio handia.

#### Transkripzioa

- Gero dendatxoka be bai...

- Bai, hori be bai, bai.

- Dendatxoka. Ifini... arbolai-ta kendu loratxuek eta bestiei orrixek kendu, ifini holako tablatxo bat edo harri haunditxuenak hola topau... "Hemen daz azelgak saltzen, hemen... —izenak ifintten gutsen— hemen tomate". Ta, ba, igual tomate kentzen gutsen horrek... berdurak egoten zien loratxo moduen [...], baltzak, zela esaten otsien... jutsenen horrei? Txorixek jaten dauena, ez dakin? Zela...? Sakutie. Sakutie ez zan?

- Bai, sakutie, sakutie.

- Baltza urteten jutsena, holako loratxo [baltza, sakutiei]. Eta haik hartzen gittuen ta, ba, kazuelatxo... kazulie, bai, holako zatin batzuk fratelen bat apurketan bazonan haren zatixek. Hurrengo tazan bat apurketan zana ta lustre kajie be izeten zonan. Lustre kajie be bete han beste orritxuekin ta dendaka, bueno, holaxe!

- Badakitzu lustrie zer dan?

- Lustria...  
 - Betuna edo...  
 - Bai, ez?  
 - Betune, betune, bai.  
 - Zapatak garbitzeko ta...  
 - Bai, ta haren tapak sobratzen zienien haik garbittu ta [holakoxe dendatxuek]. Erositta orduen gauzaik ezebez! Dana holakotxiek.  
 - Baiña orduan imaginaziñua... ez?  
 - E?  
 - Imaginaziño asko eukitzen zenduela, ez? Ta edozer gauzakin...  
 - Bai, bai, bai, hori bai. Bestela ondo eitten geuen jolas.

### 1.13. Neguko jolasak; garizuman txirikiletan

- **Hizlaria(k)**: Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-027/008
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:01:30. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Neguan egiten zituzten jolasak: sokasaltoan, txorromorroka, "tres navíos"-ka, kuikika (gordetzen) Garizuman txirikiletan egiten zuten. Nola jolasten zen azaltzen du.

### Transkripzioa

-Eta zer jolas eitten zenun?

-Orduan neguen izeten zan sokasaltua, sokasaltoka. Txorromorroka, neskak eta mutillek txorromorroka. Hori bai, eta sokasaltoka be bai. Eta gero itten zauen "Tres navíos", edo kuikika izeten zan gordeten. Ba horrek neguen. Eta gero Garizuman izeten zan txirikillia. Bakitzu zer dan txirikillia?

-Bai, esan dustie, baiña komentau zelan dan...

-Die egur bi, bat senduaua luzia, mazetia esaten jakona. Eta harek astie eukitten auen apur bat zurittuta, heltzeko; heltzeko edo bueno jakittekun... Gero txirikillie zan txikixa eta punta bixak zorrozuta. Eta orduen ha txikixa ipintten zauen lurrien, eta mazetiaz jo eta gero azertetan bazauen, hainbeste pauso, bat; segun nun jolas itten zauen. Ba zelan elizpeien "por ejemplo" azen hamen harrixak modu batera, eta beste bat bestaldera. Haraiño arraixaraiño igual kontetan zan bat, eta zenbat arraixa, horrenbeste. Zuk azertetan bazauen mazetiaz txirikillia, hori mazetiaz txirikillia jotia izeten zan, ez bazeuen azertetan...

-Ez dau emoten erreza.

-Bai. Zuk hartzen zauen txirikillia eta josten zauen hola, eta, klaro, bekokixan josten baziñun, ba pentsa. Eta baitta izeten zan aidian hartzera be. Eta aidian hartzera ipintten zauen jertsia edo txaketia edo eukutzuna hartzeko. Igual esaten zauen: aidian hartutzera, bost puntu, eta gero ez bazauen azertetan... Gero mazetia ipintten zan holan. Eta torria marketan zan holan, zapi bat, eta mazetia egoten zan, zuk txirikilla botata gero ha mazetia han. Eta torrera ez bazan aillegetan, orduen itten zauen "patxetak" esaten jakon, hola jo txirikillia puntan eta zeuk josten zauen, eta zenbat arraixa, hainbeste puntu. Gero altzuan hartutakuan baaukatzun beste bost, ba harek kontuak ba, esaten zauen: ehuneraiño! Jokatu bihar dou gaur ehuneraiño. Eta hori izeten zan Garizuman, txirikillia Garizuman.

### 1.14. Garizumako jolasa: tortoliska

- **Hizlaria(k)**: Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-027/009
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Tortoliska garizuman jolasten zuten. 6 tortolis eta kanikarekin jolasten zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Bildots bakoitzak bi tortolis izaten ditu eta etxean bildotsa jaten zutenean gorde egiten zituzten. Ardien tortolisak gogorrakoak, handiagoak eta dotoreagoak ziren. Elizpea izaten zen euren jolaslekua.

### Transkripzioa

-Eta tortolesak be Garizuman. Nik ikusi nauen telebistan lengo baten, baiña ez da guk itten gauen moduko tortolesketia, ez, ez, ez. Hor ibilli zienak behintzat, kanikia baiña pentsau leikien zala "bola de pon-pin, de pin-pon". Guk kanikia. Xei tortoles eta kanikia. Eta klaro, tortoles bakotzak dauko lau era: bata, bestia, hola eta hola. Eta hor eitten auien bota eta ez, hartu be ez, holan. Guk eitten gauen hartu, eta gero esaten zana, bata bestiakin izeten bazan ba, zuk kanikie goixan eukotzun bittartien hau zure erie

bazan, zuk hartu biher zeuena, bestia aber ipintten zauen haren erara. Eta haren erara ipintten bazauen, zuk ipintten zauen erara ipintten bazauen bestia, bixak zien zureta. Baiña difizillena izeten zan holan eta holan. Hirugarrena eta laugarrena. Sei tortoles eta kanikia izeten zien.

-Eta tortolesak nun batzen zenun edo zela?

-Tortolesa ba klaro, orduan billots-denporan, ba klaro, etxien jaten bazan, edo amonanien edo tianien edo gure dana, ba billots bakotxak dauko bi tortoles. Baiña ardixenak izeten zien elegantiauek eta hobiauek askogatik be, hori bai, e! Ardixena zan beste gauza bat, ederraua, haundixaua eta gaiñera, zegaittik igual billotsenak zulatu eitten zien, baiña ardixenak ez, ardixena zan gogorraua.

-Jolasteko hobia.

-Bai, bai, bai. Jolasteko eta danerako, haundixaua. Eta arriskua auken harek, dotoria zan, jolines, ez dau samurra, poltsatxo bat eitten zan, poltsatxo bat, eta tortolesak eta kanikie poltsan. Baiñe Garizuman.

### 1.15. Aita fabrikan lanean eta ama josten

- **Hizlaria(k):** Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-027/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Elizpea izaten zen euren jolaslekua. Han inguruan jaio zen bera 1922an, ama ere bertakoa zuen eta. Aita Garagartzakoa zen eta fabrikan lan egiten zuen, nagusi bezala, beste sozio batzuekin batera. Ama josten ibiltzen zen dendetarako; alkandora pezeta bat ordaintzen zioten, lepodun alkandora 5 erreal eta galtzontziloak 3 erreal.

### Transkripzioa

-Jarten zitzen armailla baten edo lurrien edo plazan elixpeien edo. Elixpeie izeten zan geure jolaslekua, gu onduen bizi giñen, ezta, elixatik eta.

-Hemen, San Pedron?

-Bai.

-Zu hemen jaixo ziñen?

-Bai. Nire ama be hangotxe basarrikua da. Aitta Garagartzakua zan, baiña ama hemengua.

-Ze urtetan jaixo ziñen?

-El año veintidos.

-Eta jaixo ziñenien zure gurasuak ze eitten zauien, aittak eta amak?

-Aittak, oiñ Ezkurran fabrikia, han goixan dauena, lehen zan Uribarren, nire aitta zan Uribarren, eta como jefe berak eitten auen, eta gero ba zien sozio batzuk, eta ama josten [Amorrortugaz], zegatik eze orduen denporan fabrikie ipiñi auenien be lautik hiru fabrikan itxi biha zittuen, eta gero bategaz ba ama lau neskaz, eta apopilluek lau ero bost eukitten zittuen, eta gero hantxe zelabaitt josten, ama josten. Sobre todo Viteri denda hau botata dauena, hara, eta bestie be bai botata. Orduen zeñek euken? Pagaldaik auken ha dendia. Eta Viteriri makiña bat kantzontzillo eta alkondara entregauta [daukat] nik. Alkondaria con tirilla, pezetia pagetan

utsien amai. Eta kuelluaz bost erriel. Eta kaltzontzillue hiru erriel, hiru erriel.

-Orduan zure ama fiña zan.

-Biheko. Biheko. Ez auen beste erremeixoik euki.

### 1.16. Urik gabeko komunak etxeetan

- **Hizlaria(k)**: Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-027/011
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:11:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Eliza ondoko etxe batean jaio zen. Nolakoa zen etxea. Ura lapikoetan berotzen zuten hasieran eta gero ekonomika jarri zutenean, ekonomiak bazuen urarentzako depositu bat. Etxean ura bazuten arren, orduko komunak ur gabekoak ziren eta zikinak pilatzen joaten ziren hustu arte. Komuna urarekin noiz jarri zuten.

### Transkripzioa

-Eta zelan gogoratzen dozu etxia, zelakua zan barrutik? Sukaldia zelan zan?

-Sukaldia ni gogoratzen naiz, sukalde bajue nun auen ez naz gogoratzen, baiña ekonomiek ipiñi auenien hango tresnak amak korredorera atarata, ipiñi arte, hantxe korredorien janorduak ein zittuena, hori bai akordetan naz. Zegatik orduen berotu bihar zauen ura be, klaro, lapikue ta ipiñita su bajuen, etxien bertan. Eta gero ekonomiek jarri zan, depositotxo bat eukitzen auen ekonomiek. Eta hamen itturri bat. Hamen deposittua eta hamen itturrixa, eta zuk haura zeuk bete bihar zauen /bizauen/, e. Eta hamen zela daukotzun txapie, txapien berotasunaz ha ura beroketan zan. Irikin erain be bai, segun zelako sua daukotzun. Baiña orduan. Eta gero orduan ekonomia ipiñi zani, ipiñi zan..., zegaittik orduen komunak be zien ur bakuak.

-Eta han eukitzen zenuten ura ta bota?

-Ez, ez. Orduen izeten zan, ze esango dotsut nik, depositto bat bezela, ba zure gauzak hara oiezen. Gero lantzien behin ha atara eitten zan, e. Pentsau zelako useiña agerketan zan han etxostien. Eta gero iria edo botaten zan, garbittutakun botaten zan barrura. Eta gero ostera hurrengo beste txandara arte holaxe. Ni akordetan naz, txapie ipiñi zani, guri orduen ipiñi zen komuna urakin. Eta goixan be bai, bueno, pi pisokue da etxia, eta goixan be bai orduen urakin ipiñi zan. Bestelan ura bai, etxien ura baauen, baiña komunien, komunek han inguruan azenak danak zien ur bakuak.

-Udaletxeko jentia juten zan gero hori garbitzera, udaletxiak egitten zauen?

-Ez, ez, ez, noberak, beziñuak juntauta. Ba gaur hoixe ein bihar dou /bihou/ edo. Ein in biharko dou /bikou/ edo. Bai, bai, beziñuak, goikuek edo behekiek edo aldamenekuek lagunduta.

### 1.17. Umeak jolas eta jolas

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetan asko jolasten zuten: Aste Santuetan txirikiletan, banderaka, gorde-gordeka, intxaurrekin potxoloka, txapan...

#### Transkripzioa

-Zu txikiñetatik gogoratzen zara zertara jolasten zenuten han?

-Ba asko ibiltten giñen gu, txirikiletan be bai aste santuetan.

-Zer da hori?

-Holako egur mehetxo batzuk izeten die eta gero makilla bat; haregaz jo, eta altzora hartu ezker ez dakit zenbat tanto hartzen zittuen harek, hamar tanto edo hamabost edo, ez dakit zenbat zan hartzen zittuenak. Eta torria euen, eta torrera botata sartzen bazauen orduen be tantuek emuten zien. Eta gero banderaka be bai, gorde-gordeka be bai; potxoloka be bai zerakin, intxaurrekin eta be. Potxolotxo bat ifiñi eta intxaurrekin bota, barrura sartzen bazauen eta bestiek botaten ez bazittuen, intxaurrekin danak. Gero eitten gauen txapan be bai, txakur haundixak, horrek txakur haundixok, lehenao baltz haundixak zien. Hormie jo, eta eskua arrabetien barruan hurrengo txanpona geraketan bazan, ha zuretake.

-Hori banderaka zela zan?

-Banderaka egur bat sartzen zan. Torria, salidatik hogei bat metrora edo, eta zuk urteten bazauen, korrika joan, ha makillia, banderia hartu, eta handikaldeko porterixa ondora aillegetan bazintzen iñork heldu aurretik, irabazi itten zauen. Eta baten batek atzetik heldu eitten baotsun ba ia galdu itten zauen.

### 1.18. Aldamenekoen fruituak gozoagoak omen

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/007
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Gurasoak siestan zeudela, umeak aldamenekoen arboletako fruituak (gereziak, okaranak) jatera joaten ziren. Ondokoen fruituak gozoagoak omen ziren

#### Transkripzioa

-Eta aitta ta ama siestan ezen denporan, guk keixa denporan mutikuek, beziñuenak gozuauak izeten zien eta [...] faten giñen.

-Gereziak edo...?

-Gereizak, okanak eta danak.

-Beste zuhaitzetara faten ziñeten?  
-Askotan. Gozuauek izeten zien.  
-Bai, pasetan da.

### 1.19. Gazte garaiko asteburuak; larunbatean lan eta igandean dantza

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/012
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:36. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Larunbata laneguna zen eta garai baten igandetan ere lan egiten zutenez, ez ziren auzotik Eskoriatzara jaisten. Fabrikan lanean hasi zenean larunbata laneguna izan arren, afari-merienda egiten zuten. Igandetan, dantza egoten zen Eskoriatzako plazan. Neskatan nola ibiltzen ziren.

#### Transkripzioa

-Astebukaeretan, zapatu eta domeketan zer eitten zenuten?  
-Zapatuak lan. Eta domeketan be gari-ebateko denporan ez giñen bajetan igual. Askotan hantxe ibiltzen giñen. Zapatuetan eta pentsau bez. Zapatuetan fabrikan... batzen giñenien edo, zapatuan merixendatxon bat gabien edo itten giñuen.  
-Eta domekan eukitzen zenuten romerixarik edo?  
-Bai, hemen Eskoriatzan plazan. Musikia jotzen auen, hiru bat pieza jotzen zittuen, eta gero neskan batzugin lagun eitten bazitzen; lehenau neskak eta ez auen pagetan, baiña bakoitzak mutilok neskai pagau, tabernara fan eta kafetxo bat hartu eta [...] pasiotxo bat eiñ eta gero atzera plazara fan eta dantzan eiñ, eta neskia apur bat gustetan bajatzun ba alegiñek itten [...] zuk berai laguntzeko. Eta berai gustetan ez bajakon ba ospa aguro igual eitten auen...

### 1.20. Igandero dantza egoten zen Gatzagako plazan

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Igandetan dantzaldia egiten zen Gatzagan, eta inguruko auzoetako neska-mutilak (Marin, Marulanda, etab.) bertara gerturatzen

ziren. Soinu-jotzailea egoten zen igandetan Gatzagan. Neskatan-mutiletan nola ibiltzen ziren. Arropak, oinetakoak. Danbolintzera ere egoten zen igandetan Gatzagan. Antzina pregoia ere irakurtzen zen herrian.

### **Transkripzioa**

-Bestela Leintz-Gatzagara pertenezitzen daben auzuak zeintzuk dira?  
Marin...

-Gatzara ez zan... hori Gatzakue bakarra da, bakarrik. Aiuntamentuz eta dana bakarrik da Gatzara. Hori Marin eta honek die Eskoritzakuak.

-Eta jokerarik ez zeuken Gatzara joateko?

-Bai, bai, Gatzara fateko bai.

-Eskoriatzara etortzia baiño?

-Bai. Domeketan egoten zan dantzia, bailia egoten zan, arkupe baten egoten zan bailia, eta zela egoten zan bailia ba hantxe juntetan gintzen marintarrak-eta, maulandarrak-eta...

-Maulanda be elizaz-eta aiuntamentuz Eskoriatza da?

-Bai, Eskoriatza da.

-Eta jokeria?

-Bai, Gatzara, domeketan dantzara-eta.

-Orduan dantza...

-Bai, egoten zan kordion bat, kordion bat, bai. Nabarro izena eukien bat egoten zan gure denporan, eta dantzia egoten zan.

-Eta zer izeten zan, soñua bakarrik?

-Soñue bakarrik, kordiona. Fiestetan ez, baiña bestela kordiona.

-Eta filarmonikarik edo gramolia sasoi baten?

-Ez, ez, ez. Hor egoten zan hauxe, soñua.

-Eta dantzia zelakua izeten zan, agarraua, sueltua?

-Bai, agarraua, sueltua ta dana. Tanboliña be baauen.

-Eta dantzia, mutillak izaten zien neskei eskatzen zotsenak?

-Bai, bai. Egoten zintzen ezkiñan, eta mutillak, e, edo neskak dantzan ekitten zien eta mutillak hara fan. "Mesedez" esan eta dantzara fan.

-Eta dantza hori nun izeten zan, herriko plazan?

-Bai, herriko plazan arkupe bat auen eta hantxe.

-Eta pagau eitten zan?

-Ez, ez, ez. Pagau eta ezebez. Hantxe juntetan gintzen, eta hantxe.

-Eta dantzara joateko elegante jantziko ziñaten?

-Bai, gauken erropak onenak. Oingo modukoik [ez dauen].

-Orduan zer izaten zan, abarketak?

-Eukitten gittuen zapatatxuek..., domeketako eukitten aeuen, zapatak domeketako eukitten gauen.

-Eta mutillak be dotore joango zien?

-Bai, bai. Harek be zapatekin, alkondara edarrekin eta fraka edarrekin eta. Domeketan beti jazten gintzen... nik nere gizona hantxe, dantzan eta hantxe ezautu nauen.

-Esan dozu tanbolintterua be egoten zala.

-Bai, tanbolintterua.

-Ez dakit Gatzan-eta egongo zan, baiña pregoia-ta irakurtzen zan?

-Holan kaleik kaleez, baiña [...] zeoze bazan bai. Kaleik kale (hemengo) moruen ez, baiña goxen baten, domeka goxen baten zeozen zera baueu bai.

-Eta zeñek jotzen zeban?

-Horretxek tanbolintteru horrek.

### 1.21. Umetako bizimodua baserrian

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Zubia, Cipriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-038/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Umetan baserrian egin behar izaten ziren lanak aipatzen ditu: ganadu-zain... Eskolara joan aurretik esnea banatzen zuen herrian. Ume-umetan argindarrak ez zegoen etxean; karburua eta petrolioak erabili behar izaten ziren. Lehenagoko bizimoduaren inguruko gogoetak.

#### Transkripzioa

- Ba ni Erañan hazitta nau hamalau urtera arte.
- Eta basarrixan lanak be eingo zenduzen, ezta, umetan?
- Ba, ganauek zaindu ta...
- Ganauek zaindu ta...
- Eskolara etorten nitzen ni egunero kalera.
- E: Itturritik ura eruen ta... E?
- Marmittakada bat esne ekarten nauen beherutza ta gero eskolara.
- E: Ta gero itturritik ura.
- E?
- Itturritik ura. Itturritik ura.
- Bai, Leteko itturritik ure be bai eruten nauen.
- Nungo itturritik?
- Leteko itturritik.
- Hamen etxie [...].
- Ure erateko.
- Zeuk umia ziñanian ezautu zenduan argi elektrikua-ta etxian? Bonbillia-ta ezautu zenduzen edo gerora ipini zian?
- E: Ez...
- Argixa?
- Bai.
- [Neu nauela].
- E: E?
- [Neu nauela] ifiñi euen. Aurretik egoten gitzen karburuekin ta, [...] argixa ein ta...
- Eta karburua ze zan?
- Karburua [erosi] ta karburua bota apur bat lapiko batera, katxarrora, ta katxarruek, ba, eitten euen sua. Argi zer bat, motel bat. Hareaz egoten gitzen.
- Karburuaz aparte petroleua edo...?
- Petroleuekin gero, ondion, gero petrole...
- Geruao... Oseake, lehelengo karburua ta gerora petroleua.
- Bai, lehelengo karburuekin, gero petroleuekin.
- Eta gero ya argixa?
- Gero ya Bolibarren saltua ifiñi euen ta handik argixa.
- Eta nun ipini zebe saltua?
- Hor beheko [arruen], Zubixetan, hor ifiñi euen saltua. Oin [be] han [dao]

deposittua ondion. Oin han dao herriko uren zera...

- E: Depositto zaharra.

- ... deposittue eindda. Bera lehengo depositto zaharrakin, aumentauta, herriko urakin herrixen deposittua. Ta lehen auen han saltorako behien makinarixia ta goixan deposittua; ta errekoa, ba... goittik behera etorten zan ura ta...

- Eta urik etortzen ez zanian? Urik etortzen ez zanian, orduan argirik ez?

- Orduen argirik ez. Batzuetan argixe egoten zan ta uda partien-ta gehixenien argi barik.

- E: [...] ixotu ein biher bestioi.

- Ene! Ha bizimodue orduen, e? Oingo moduen...

- Bai, bai. Asko kanbixau da, e?

- E: Onbre!

- Eta aittajunak-eta bonbillia ikusi zebeñian ze esaten zebeñ?

- Aittajuna ta be zaharrak zien ya bonbillia ifiñi euenerako.

- Hori, ba. Eta, orduan, eurenako inpresiño gehixao ondiokan, ez?

- Haik akordau be ez zien eitten hola izen biher euenik be argixa, argixa hola emun biher euenik be. Ta guk, barriz, bagekixen kalien-ta ikusten gauen ta, argixa ta.

- E: Ya zaharrak zien aittajuna-ta.

- Guk ikusten gauen zelan zan hori, baiña haik ez auen siñestu be eitten holan argixa emun biher euenik.

## 1.22. Aita Argentinan jaioa

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/001
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Marulanda auzoan jaio zen 1934ko martxoaren 23an. Gurasoak Leintz Gatzagakoak ziren, aita Argentinan jaioa zen baina bere aurrekoak ere Leintz Gatzagakoak ziren.

### Transkripzioa

- Esango dostazu izen-abizenak faborez?

- Jesus Fernandez de Arroiabe Pagoaga.

- Pagoaga?

- Pagoaga bigarrena bai.

- Eta nun, nun eta noiz jaixo ziñan? Jaixo hemen etxe hontan jaixo ziñan?

- Bai, bai hementxe.

- Marulandan, zela dauko izena etxe honek?

- Ba auzua?

- Ez, ez etxiak.

- Bar Marulanda beti.

- Marulanda taberna.

- Bai, merendero Marulanda.

- Eta ze, ze egunetan jaixo ziñan?

- "Veinti tres de marzo del treinta y cuatro"

- Zure aitta-amak nungoak ziren?

-Aitta ta ama? Gatzakuek, Salinaskuek.  
 - A, Gatzagakuek bixak?  
 - Ama Gatzakue ta aitta, aitta be bai, gure aitta jaixo zan Argentinan jaixotakue da, baiña hemengu izatez e, Gatzagan gauko parentsekue ta dana.  
 - Osake zure aitten...  
 - Aitten aitte-edo hau euen, berori jaixo zan, nire aitte jaixo zan Argentinan.

- Osake orduen zure aittajauna hametik fan zan?  
 - Hemendik fandakua lehenau ba oin faten diez, bueno oin ez, oin ez dakit faten dien baiña.  
 - Gerra aurretik orduen?  
 - Bai, bai.  
 - Osake aittajauna Argentinara fan eta zure aitta han jaixo zan.  
 - Bai etor zan bost urtekin-edo uste dot.

### 1.23. Errotabarriko koronela

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/013
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:16:33. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Aretxabaletako Errotabarrin koronelen bat-edo zegoen. Elurra egiten zuenean Gasteiztik Eskiekin jaisten zen. Bera ere kirolaria zenez lortu zuen bera eta Bergarako Garitano Gasteizera joatea soldadutzan. Entrenamenduetako kontuak aipatzen ditu.

#### Transkripzioa

- Horren aitta edo anai bat-edo euen, orduen euen koronela. Ni akordetan naz, gu mutikokuak eta hemen kriston edurrek eitten zittuein, ta ha bajetan zan eskiekin, hemen goittik behera “ri-ri” Bittorixatik. Bera koronel edo ez dakitt zer euen eta bere deportie eittie moduan ba hemen bajetan zan horrekin, etxera.

- Eta hori koroneleri euskalduna zan bera?  
 - Horkotxia.  
 - Ta baiña Francoren ejerzituen edo?  
 - Horixe ez dakitt. Uribesalgo. Ta horren gero seme bat be ibil zan Asturias aldin be bai futbolien be bai. Danak izan dire deporte zera. Uribe, Uribe. Uribesalgo ziren.  
 - Baiña hori zuen kuartelien euen?  
 - Karo.  
 - Ta horren eitten otsun zuri zerok.  
 - Horren isten lehelengo horra fateko. Bakitzu ze in bihar izete zan, ba o Kanariasetara tokau edo hara bestaldera, ta horrek Bitturixerako eiskun. Niri ta horri, Garitanori.  
 - Bera be deportistia ta.  
 - Ta harek esango ba: “e, estos dos”. “Cuarenta y seis” kuartela zan, Bittorixan. Euan “Flandes” ta “cuarenta y seis”-a eta artillerixia guria. Ta haixe enkomendaxiñuan. Aittaaz edo gure banaz eukielako zozer ba.

- Orduen eskolara eta soldaduskara bizikletan ibili zara.  
- Bizikletan, bizikletan. Egunero. Gatzagara bizikletan igo biher. Lehen pantanua ez auen hor, ta Uribarritik bajetan holako baten zuzenien, Arroiabe aldera zuzen. Gero in zan hori, pantanoko zer hori. Egunero. Baiña fan, lehelengo han beatzitako egon biher, bueltan sekule bez etxera, igual behin edo birriten igual e, beti o zeretik, Salvatierratik, zeretik bueltan edo Durangora bajatu edo... karo, ibili ein bihar zan ta.

#### 1.24. Eztei-bidaian Donostiara eta Bilbora

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/027
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:52:38. **Bukatu:** 00:53:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Eztei-bidaian Donostiara joan ziren hiruzpalau egunetara eta gero Bilbora lau-bost egun pasatzera.

##### Transkripzioa

-Ezkondu ziñenian Viaje de Noviosera nora joan ziñen?  
-Be, Viaje de Novios, ezebez. Donostiaraiño fan gitzen eta Donostian pasau gittuen hiru-laun bat egun, eta gero handik Bilbora. Bilbon beste lau-bost bat egun pasau gittuen edo. Handik basarrira ta beti basarrixan.  
-Donostiako eta Bilboko ze rekuerto daukatzue? Ze zan, lenengo aldixa Donostiara faten ziñana?  
-Ze esangotsut ba.

#### 1.25. Itsasoa lehendabizikoz ikusi zuenekoa

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/028
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:53:16. **Bukatu:** 00:55:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Bere anaia "Estrecho de Gibraltar"en soldadu zegoenean paper batzuk behar zituen handik etxera bueltatzeko. Orduan Donostiara joan zen paper horien bila eta orduan ikusi zuen lehendabizikoz itsasoa.

##### Transkripzioa

-Itsasua noiz ikusi zeuen lenengo aldiz?  
-Ba itsasua ikusi neuen, anaia Estrecho Gibraltar edo han auen soldau enda hemen kamillero ibilli zan zerien gerra-denporan nazionaloi lagunketan. Ni baiño bi urte zarraua zan baiña Durangoraiño fanda ibilli zan lagunketan,

hartu zeuen aurrian da jarraitu utsien haraxeaiño. Enda gero han, itxurie balixo utsan denporiak, da papelok in gittuen, herrixen ein gittuen papelok da ha libretako Donostian eztait zeñeana, beste lagun batek ekixen enda ezaupide haundixe euen (...), da holaxen. Esku hutsik ez fateagatik usokume bi zuri-zurixek, hain polittek eruen gittuen kaja baten euren dako hara, da haritxeri eruen gutsen papelok libretako, anaioi libretako, ia etxera etorteko. Eske gure soldauxkariok izen zien, e. Hak ein (zittuen), eztait zazpi urte edo zortzi urte edo ze eiñ euen. Da bueno-bueno. Da holaxen hor Donostiako zerorrek papelok belaxe eiñ oskuen etortzeko ta halaxe etorri zan etxera. Ta orduentxe lenengoko aldiz.

### 1.26. Umetako jolasak: "arranpasetan, tortoliska, alfilerrekin"

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-056/005
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:57. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak: "arranpasetan, tortoliska, alfilerrekin". Orratzekin zelan jolasten ziren azaltzen du, baita arranpasetan ere zelan den.

#### Transkripzioa

-Gerra ostian eta gerra aurrian, eskolan ze jolas klase eitten zittuzuen?  
-Bueno, "arranpasetan" esaten gutsen, tortoliska, "alfilerrekin", ifiñi holan kartoien geuk eta alfiler buru baltzak et kolorezkuak eta ifiñi eta holakotxe (afiletan) da.  
-Afielekin zer egiten zenuten, figurak eittera?  
-Ez, afielak ifiñi tta hari montatzen zeubenak irabazi.  
-Zela irabazi?  
-Por ejemplo afielak mordo bat juntetan ...  
-Kartoi bat ifinita?  
-Ez, kartoian ifintzen giñuan etxian.  
-Eruteko?  
-Bai, eta gero lurrian ipiñi eta jo eta bestia montatzen zebena irabazi.  
-Osea ke afiela beste afiel baten kontra botaten?  
-Bai.  
-Bista ona eukiko zebein, ezta?  
-Oin baiño hobia, oin be eztauket txarra baiña.  
-Eta bestia esan dozu "arranpaka"?  
-Bai. Ni oso akerra nintzen horetan, eztakitzu, mutillak holan jarri, zenbat eta gorau, eta pasau, salto. Holakotxiak.  
-Zela deketan jatzu horri, jolas horri?  
-Arranpasetan. Igual beste zeoze izengo da eta baten batek barre ingo dau.

## 2. Baserria

### 2.1. Gariaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/004
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserrria » Baserrriko lanak » Errota
  - Baserrria » Baserrriko lanak » Baserrriko tresnak
  - Baserrria » Baserrriko lanak » Garia
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Gariaren inguruko lanak: noiz erein; heldu; ebagi... Lasto batzea, ilundutakoan egiten zen. Azaoak lotzen zituzten bitartean, arrosarioa errezatzen zuten. Erabiltzen ziren tresnak. Errotak. Ogia.

#### Transkripzioa

- Garixe? Ba, garixe ointxe eitten zan. Gari-eitten, ointxe Domu Santu ostien gari-eiñian, garixa eraitten. Ta heldu, [barrez], eitten zien, hor, San Pedro edo San Kristobal, hor heltzen zien. Ta heltzen zienien, igetaixakin ebaten zien gari danak. Igeteixakin danak. Aspeltxue, holan, aspeltxue eitten zan ta ha aspela lotzen zan gero, egunez eitten zana, gabien, illunkaran lotu. Ha aspela lotzen zan, hartu sei bat lasto ta hareaz, beraaz lotzen zan. Bai. Ta ha lotzen illunkaran. Egunez eitten zan lana illunkaran...  
- Akabau bihar...  
- ...harek lotzen. Illundutakuen, ez, illunkaran. Illundutakuen ha lasto-lotzen. Bestela haixiek-edo zabaldu eitten euen aspela. Holako aspel bat izeten zan. Errosarixua errezau! Lastue lotzen ta errosarixua errezau eitten zan. Bai.  
- Gabeko lana, orduan, hori.  
- E?  
- Hori gabeko lana, gabian eitteko.  
- Gabien. Egunez ebaten zan garixe gabien lotu. Ta lotzen, errosarixua errezau. Bai.  
- Illundu aurretik izango zan, ala?  
- E?  
- Illundu aurretik izango zan...  
- Illundu aurretik ebaten igetaixaz.  
- A! Ta gero?  
- Illundutakuen, illundutakuen eitten zan lasto-lotzioi. Bai. Errosarixua errezau. Ta, ba, gero horreik danok einddekuen, solue [gertaketan] zanien, edo ebaten akabaten zanien, ba, metak, metie eitten zan. Metie gure bazan haundixaue ein, erredondo haundixaua hartu, edo txikitxuaua hartu. Ta hasierie eitten jakon hiru aspeleaz. Holan. Hiru aspel ipiñi ta politto-politto, politto-politto. Ba, gura baeuen meta haundixa ein, ba, korro haundixaue. Baiñe txikiña [euan]. Ta politto-politto, politto-politto, gora puntazorrotz, holan. Urik ez zan sartzen, ez zien bustitten metie. [Ez, ez zan han metaik bustitten]. Bai. Ta gero, barrez, larraiñera, hona, larraiñera. Hemen hau... hau larraiña izeten zan. Honi larraiña esaten [gutson]. Bai. Hor, larraiñera. Trillua, behixen edo idixen atzien trillua ifiñi... Trillua izeten zan, ba, ixa honen zabalerie edo, trillu... metro bi edo zeoze zan, holako

[untza...] zer batzuk be eukitzen zittuen ebateko zera, garixa, ta larraiñian. Zabaldu ta... zerien, gaiñien euenak kaldarie ta akulue ganauek aida eitteko. Bai. Ta txixe ta kaka eitten dauenien, kaldaria hartu ta holan. Buelta, e? Gaiñian azala eitten jakonian, buelta emun. Sardiaz buelta emun. Ta dana [kargaketan] zanien, akabo; lastua kamarara ta garixe hona, eskiñan batera. Ta garixe garbiketakue, [... eta bixok euki geun], denpora askuen euki geuen onenien, denpora askuen egon zan garixa garbiketakue.

- Makiñie?

- Bai. Baiña [...] traba eingo euen ta kenduta eukiko auen.

- Kamaran badao.

- Kamaran?

- Bai. Zera, hola, helduleku bikin, holako zer haundi bat.

- Haize-errotia?

- Holan eraitten jakon ta haretxeaz garbiketan zien garixa-ta. Garbittu, ta gero errotara. Errotara gero. Elorretara faten [gitzen]. Elorretara faten [gitzen].

- Eskoitzara?

- Bai. Ta, ba, urune ekarten geuen handik eta, ba, gero laba-sua [ein]; astien-astien laba-sue. Ogi erredonduek. Ta [...zenbat], zenbat ogi izengo zien, dozenan bat ogi ta artue be bai. Artue be, lau bat arto hareaz batera eitten zien. Lau bat arto erretzen zien. Artua ta esnia [erateko] edo morokille edo gura dana. Arto-urune edo be bai, hareaz batera.

## 2.2. Basora lanera

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Baserriko bizimodua urte sasoiaren arabera. Basora lanera batzuk; etxean gelditzen zirenak, lapikoarekin basora. Harrizko plater bakarra guztien erdian ipini eta bertatik jaten zuten. Uraren inguruko kontuak.

### Transkripzioa

- Ta oin sasoi hontan, lehen ez dot esan, oin sasoi hontan etxien geldiketan zan lapikuai kaso eitten. Lapikue, lapiko gorri bat. Ifintzen zan bi trongo suten ta babak egosten. Ta, ba, hemen etxe inguruen. Ta etxe inguruen geldiketan zanak eguerdixen eruten euen bazkaixa basora. Basuen [...zelan] gehixenien, ba, haintxe, basuen bazkaittarako. Bazkaixe, lanien gabitzen lekuen. Bai. Edo gaztaiña-batzen edo ira-ebaten gabitzen lekuen. Ta lapiko haundixe egoten zan sutonduen. Ta oin bakotxak bere platuek; orduen ez. Orduen plato... holako plato harrizko bat izeten zan, ta

mahaixen erdi-erdixen ifini ta handik jaten geuen danok batera; ez oingo modun bakotxak bere platuetan. Holako harrizko zer bat izeten zan, ta hara bota babok ta hala jaten zien. Ta basora, ba, egosten dauen bertan lapikuen erun be. Gero platuoi atara. Han be holaxe basuen be.

- Han rapido ez zabillena...

- E?

- Rapido ez zabillena gosiek geratuko zan, ez?

- Ez dakit, ba. Hori zera izeten zan. Kustiñue: plato batetik jaten zan. [Esan gura dot], platoik-eta ezauketan, platoik-eta holan ezauketan. Urik be... Urik be ez euen. Oingo modoko... Oingo moduen ontzixek garbiketako urik be... urik be baeuen, ba? Ta ure be, ure erateko be, handixik eruten zan. Oin endreauta dao, baiñe han itturixe edarra egoten zan han zerien, pagopien, gure pagopien. Ure, itturiko ure --ardaurik ez zan izeten orduen be--, itturiko ure, umiek, neskatilla-mutikuek etorten zien tanborra joiez. Handixik eruten euen eguerdixen zera... ure erateko bazkaixaz batera. Bai. Ta gero ifini zien. Oin ifinitta dauz tuberixan-ta urok beste modo baten ifinitta dauz, baiña...

### 2.3. Baserriko lana emakume eta umeentzat

- **Hizlaria(k)**: Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-001/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:25:38. **Bukatu**: 00:26:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Baserrian lana ugari ume-umetatik. Ardia jezten zenbat urterekin ikasi zuen. Amak gazta egiten zuen eta Arrasatera joaten zen saltzera. Etxe jabeak, erretereroak.

#### Transkripzioa

- Lan asko eitten zan gero baserrixan, e! Lan asko. Asko lana, e!

- Txikittatik gaiñera.

- Bueno! Nik ardixek batzen ikesiko nauen zortzi urte baiño lehenao! Ikesiko ez neuen, ba? Bai, bai. Ta ardixek batu goixen, e! Etxien-ta ez; han goixen. Ta handik ekarten zan esnie gaztaie eitteko. Amak eitten euen gaztaie. Ta lehen esan dodana, gaztaitxuokin, arrautzakin Mondraura faten zan astuaz. Honek maiorazkuok-eta hainbeste ez, honek ez euen hainbeste biheleku eukitten. Honek [...]. Honek erreterue eukitte euen orduen, ta harek... Ez dakik? Zelan gertatzen zan. Lehen esan [dotena]: neskazarren modokoik. Holako [...] edo zer izengo zien.

- Ez nakixen nik holakoik.

- Bai. Maiorazko etxie izan edo erreterero izan diferentia izango zan, ezta?

- Onbre! Izengo ez zan, ba? Errentie pagau edo [iñon] erreterue... Errentie eukiko euen.

## 2.4. Umetan morroi

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/012
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:27:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Lantegi gutxi zeuden oraingo aldean. Baserritik kanpo lanera irten behar zirenean, gehienetan morroi joaten ziren.

### Transkripzioa

- Orduen kriaue be faten zan, ezta?  
- E?  
- Kriaue. Esan gura dot...  
- Ba, familiak be ez zauken indderrik orduen. Oingo... Orduen fabrikaik Eskoriatzan be lehenengo Zubizarreta ta Aretxabaletan be Arruena edo... Ez zauen, ez zauen industriaik, ez zauen industriaik, ta kriaue-ta. Batzuk, baten batzuk, baita Ameriketara be esaten zaben ta. Bilbora be esaten zaben faten ziela Somorrostrora miñatara-edo lanien. Ta, ba, norabaittera. Hemen, hola, fabrikaik ez zauen, industriaik edo, oin dauen moduen...

## 2.5. Gaztainadiak; toponimia. Gaztainaren garrantzia baserrietako elikaduran

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-002/001
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Gaztainak. Lehenago nahikoa gaztaina janda daude. Gaztaina egosiak, erreak. Inguru egokia gaztainatara joateko. Toponimia. Gaztainadien jabetza.

### Transkripzioa

- Harrezkero ez dou jan be ein be...  
- Holako gaztaiña apur batzuk ekarten dittue, baiñe nik esaten dotsiet ni nahikue lehen janda naola ta...  
- Ez daue ekarten, e.  
- [...] nik lehen nauela gaztaiñak janda. Ni ez naz izen gaztaiña zalie. [Bueno]... Ama gurien gizendu... ba, bentaja eitten [...] gizendu letxe eitten

zan gaztaiña egosixaz. Gaiñera, erriaz be ez zan gustora gelditten. Hagiñik be ez eban eukiko bihar dan moduan edo ez dakit ze esan be. Behintzat [errian] ekitten zanian ez zan gustora geretan ama. Baiñe...

- Han [...] Arantzazurako bidien badao gaztaiña banaka batzuk?

- Bai, bai...

- Banakak egongo die. Banakak egongo die hor be. Bai, egongo die.

- Oin kazarixak-eta batzen dittue. Kazari ta...

- Basarritarrak ez daukie astirik.

- Ez, ba.

- Danak lanien...

- Bueno, astixa euki, euki... Baiña lehen besteko... apreziau ez da eitten oin. Lehen besterik ez euen ta!

- Gaztaiñak, gaiñera... Gure basue zakarra izeten zan, gaiñera. Honek eta... Honek, oster, parajeik onen-onenetan gaztaiña batabat baeuan Txarralden. Gaztaiñak sartzen zittuen, ta han, hareaz gaztaiñiaz --iñon terrenuan hartu...-- berak aginketan auen gaztaiñiaz. Batebat baeuen Txarralden, behintzat, hor. Akordetan naz, Txarraldeko gaztaiñak egoten zien geurien be bai ta leku askotan. Baeuen batenbat aprobetxetan zana eta ha gaztaiñie, iñon terrenuen egonaatik, berak aprobetxetan auen. Berak aprobetxetan auen. Oin ez, oin ez dao hori, baiña orduen behintzat sartzen euenak... [...] ni akordetan naz Txarraldeko gaztaiña... "Haura Txarraldekoa dok! Eta bestie be Txarraldekoa dok. Eta ha bestie? Ha bestie Arroa(ga)nekue dok". Gaztaiñak iñon terrenuan.

- Bai, bai. Neuk be entzunda dakot hola, e!

- Bai, iñon terrenuan.

- Bai, hola... papeletan, eskrituratan-ta, ba, terrenuen zera eta bi edo hiru gaztaiña halako terrenotan, iñona izanda be.

- Bai, bai... Geurien be, geure terrenuen be bai, ta "Hau? Hau Txarraldekoa dok. Bestie? Hori gaztaiñoi Okarantzakua dok. Ta ha bestie...", baiña iñon terrenuan, e, danak! Gehixenak, e! Bueno, noberanien be bai, baiñe kanpo librian batenbat baeuen orduen, ba... behintzet lana ein gura auenak edo aprobetxetan auenak behintzet. Ta gaztaiñek, bai, bai, gaztaiñoi... Urte erdi pasetan gauen gaztaiñak jaten. Urte erdi, e! Gaztaiñak? Afari merkiek eitten zien: gaztaiñie ta saldia eran ta ohera.

## 2.6. Abereen zaintza lanak; baserriko lanak. Lehenagoko bizimodua nolakoa; aldaketak

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-002/002
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:02:51. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Abereen zaintza lanak. Lehenago ez ziren abereak horrenbeste zaintzen. Bizimodu gogorra baserrietan. Lan asko baina diru oso gutxi. Oraingo bizimodua, hobe. Laietan.

### Transkripzioa

- Behixek be, lehen esan dodana, jare ein, lasto apur bat edo arbixe-edo emun ta hortik ziher [...]. Baiña illunkaran etorten zien ganauek. Ez dakit arbixa jateko edo zeatik, illunkaran etorri eitten zien.

- Bai, bai. Ordua zainttu!

- Bai, baiñe... hor basuen piñurik eta [ezer ez auela...], janda etorten zien, e! Sikue. Baiña errapie be sikua. Ta gero ekin zan jentie ondo gobernau ganauek, eta esnie kalera eruen ta horreik lanok eitten ekin zan gero politto-politto. Baiña aurretik, arbixe ta lastue emuten [jaten] ta soltaten zienien kataietik "echando poñetas" faten zien ganauak basora. Ta eurek etorri eitten zien. [Niri] pentsetan jat haxe arbixe edo lastue jateko intenziñue eukiko euela edo. Bai, errapian, errapian... Txahala ein barrin batek. Lapikun bateaz faten bazan be esne apurren bat batuko [...]. Nik esne... Mutiko-denporan, gaztaiñek; goguan dauket gaztaiñek eta saldie zela jaten gittuen. Esnia jateko amorraketan. Baiña gero ekin zan. Gero ganauek gobernau ta ekin zan jentie kalera esnie saltzen ta holaxe. Lehenauko bizimodue. Esaten da oin be kejak, baiña lehenauko bizimodue... Lehenauko bizimodue be... [lanai heldu bihar jakona zerbait]. Zera, laminaziñoko hautsetan ez, baiña lan asko eitten zan gero baserrixen. Asko lana, asko! Aitte-amak edo ibili ezkerro, ta mutikuok edo neskatilla-mutikuok eskolara ta fabrikara, bien. Baiña danak etxien be, zerak, neskatilla-mutikuek be, ta ezebez. Danondako lana ta dirurik, dirurik ez zan iñundik be ikusten. Danondako lana! Neskatilla-mutikuok eta danok lanien, baiña dirurik ezin izaten zan topau. Nik ez dakit nork [jauken]; aberatsak euken gordeta diruoi edo... Hamen diruik ez zan argiketari. Oin be, oin be kejak. Oin be kejak, baiña oingo moduen ez zan lehen orduen [bizitzen]. Laixe ta lehen esan dittuun kontuek, laixetan-ta eitten zanien ta...

## 2.7. Arrasateko feria; ferien beherakada

- **Hizlaria(k)**: Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-002/005
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:08:38. **Bukatu**: 00:10:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Bergarara tratua. Arrasaten feria handia egiten zen 15 egunean behin. Ferien beherakada. Behiak saltzen zituzten ferietan.

### Transkripzioa

- Ni behixe saldute nao, ta gurien semiek... Harrazkero ez dakit gehixao behirik saldu nauen. Zenbat urte eukiko ete auen Romanek, hamar urte? [Hemendixe be] eruen ta Bergarara [tratuena] ta behixe [atarateko]. Ni ez naz akordetan kotxerik pasau nauenik. Horreik ez dia milla urtekuek, e! Nire semiek, ba, oin zenbat eukiko dittu? Berrogeta hamar bat?

- Hamaika, hamabi edo... ez dakit zer dauken.

- Ta ha atzetik dotela, behixe Mondrauera hemendixik behera jatxi, kamiñoik kamiño, Bergarara [...]. Ni ez naz akordetan kotxeik... Horreik ez dia milla urtekuak, berrogeta hamar dauka Romanek edo holakon bat dauko. Ta orduen eukiko zittuen, behixen atzetik fateko, hamar urte. Ni ez naz akordetan kotxeik ikusi nauenik. Behixa hartu soka, "danga-danga-danga", Bergarara. Mondrauen... Mondrauen ferixa-lekuen berba ein ta gero etxien tratue ein ta etxetik eruen ta holaxe. Ferixa haundixe eitten zan ta. Geuk orduen epokan ez gauen esne-saltzen eitten. Holaxen behixek saldu ta ardixek eta hortara eitten geuen. [ez gauen epokaik]... geuk. Eskoitzara esne-zaltzen ez gara ibili, ez. Gero horreik ferixok eta danok gastau zien ta hona. Hemen letxero [bat falta zana], Arozteikua edo, ta harei ataraten gotsan, baiña ezebe ez gauen irabazten. Huskerixa bat pagaten auen, ta ezebez. Baiña ferixa haundixak, bueno...! Ferixia? Idixak eta ferixa haundixak [eitten zien] Mondrauen, haundixa ferixie. Idixak be kuadrillie. Honen anaiek-eta, harek idi kuadrillak eukitten zittuen. Oiñez. Hor, [nunbaitzuetan] erosi, Vittorixan edo [nunbaitten]. Oiñez ekarri be aurrien. Gero [arreglau] ondo, ta Mondrauera ferixara. Ba, [ekarri idixek]. [... ta... eitten zan...].

- Hamabostien. Bi astetik eitten zala uste dot.

- Hamabostetik hamabostera. Bai, baiña ya kotxiek eta, ez dakizu? Oin, neuk... zenbat urte dien, ta ya ez auen... ibili be ezin leike ein, dana kotxez tapaute! Danak... ez lekuri iñun ta ezebe. Zelan daon plantaute.

- Geruao ta gehixao gaiñera...

## 2.8. Lihoaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-003/001
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Euskara » Lexikoa  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Lihoa (linua) udaberrian erein eta maiatzean ateratzen zen. Lan asko izaten zuen. Liho-belarra ateratzen zenean, osinean sartzen zen, uretan. Harri-losa bat ipintzen zitzaion gainean, hondoratuta egon zedin. 15 egun inguru bertan egon ondoren, poliki atera eta eguzkitan zabaltzen zen. Lihoa jo. Liho-belarra lotu, ihartu zedin labean sartu eta gero trangatu egiten zen.

### Transkripzioa

- Liñue, ba, lehenau erain eitten zan holako [...] batzuk. Ba, eraitten zien urebarrixen eta gero San Pedruetan edo maietzien edo San Pedruetan atara. Liñue badakitzue zer dan? Ez dotzue jakingo...

- Ikusi barik daukou, entzunde asko baiñe... esplikauzu.

- Bedarra da mehia, holan alturakuek, arranketako oso samurrek die ta harekin telie eitten zan, ixarak eta kamixak be bai lehenau ta danak. Eta horrek lan asko dako liñuek, lan asko.

- Lan asko?

- Bai. Esplikau... Berba ezin dot ein ondo ta... Eta erain eitten zan

lehelengo,  
 - Atara!  
 - Ixo!  
 - Lehenengo erain ein biherko zan...  
 - Atara!  
 - Calla! Atarateko erain ein biher da lehelengo.  
 - Atarateko erain ein biher da!  
 - Bai.  
 - Klaro!  
 - Ta gero [hareik] hazixa apartau. Holako tabla bat egoten zan holako hortz batzukin. [Hareik] hazixa apartaten jaten, ta ha hazixe, ba, erain eitten zan [gero]. [Etara]. Gero ha geraketan dan bedarra eruten zan osiñera. Osiñie da —hor daukou guk be osiñie— zulo bat, holako zulo haundi bat  
 - Zulo haundixe?  
 - Bai. Dana uretara botatzen zan. Ta liñuak zela gora eitten euen [zezpalen] moduen, ba, zerak, harri-losa batzuk botaten gontson gaiñien, [hondarrien] egon dein. Zortzi-hamar bat egunien hantxe egoten zien ta gero atara, nahastu barik, e! Kurioso-kurioso-kurioso. Ta zelaixen zabalketan zan luze-luze holaxen, ta ha kurioso gero batu eitten zan. Ta ha gero eguzki-eguna dauenien eguzkittan ifini ta jo eitten zan hazixe.  
 - Sikatu ondo...  
 - [...]  
 - Zuztarrak...  
 - Hak gero...  
 - Ixo! Ixo! Zu ixilik ezin egon! Zuztarrak mazuaz joten otsien ta kendu hori, zuztarrak, ta hareik zerak, bedarrak, lotu eitten zien madejak, madejak ein... ta gero [liñu guztie] eitten zan. Haik gero trangau eitten zien.  
 - Trangau?  
 - Laba-sue eitten geuenien hor, ogixek atara, labie epel-epel egoten zan, ta han sartzen gittuen ta berotan daazen bittartien gero trangau. Trangie ez dozu jakingo ze dan...  
 - Badakitzue zer dan trangie, nik esango... ni ibilitte nao, gaiñera.  
 - Bai, neu be ibilitte nao.  
 - Trangie da, ba, horreik gogorrrak egoten die, [...] izengo balitz leetxe.  
 - Bai, txaka-txaka-txaka...  
 - Eta trangie izeten da, holan artazixen moduen, baiña ebai ez dau ein biher, ein biher dau zapaldu.  
 - Bigundu.  
 - Bigundu, bigundu. Ta han traka-traka-traka, pasaixaz, pasaixaz, pasaixaz eitten da bigundu-bigundu, bigundu-bigundu.  
 - Bai, hau da liñue ta traka-traka-traka trangie jotan jako ta bigundu eitten zan.  
 - Hiru bat zera eukitten dittu...

## 2.9. Lihoaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-003/002
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:04:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Lihoa (linua) trangatzen zenean erronda galantak egiten ziren. Mutilek amandrearen trapu zaharrekin kopin handi bat egiten zuten.

### Transkripzioa

- Ta gero [liñu-...] eitten zan errondie. Gurian arditeixen, garbi-garbi eindde egoten zan ta mutillek-eta etorten zien kuadrillie, ferixatik igual, ta atsuek eta danak dantzan! Juerga ona pasetan zan, ba! Bai. Oso umore onien egoten zan, oin baiño umore hobien orduen.

- [...]

- Amandrie bizi zan artien ta bi hemengo [barri baekixen], etorri ta amandriei eskatu erropa zaharrak, hola, txaketak, tokillak eta buruko pañelua ta muñeko haundi bat ein harek trapuekin ta ondio hor dao armaixuen. Baiña [ez dakit...]. Ha euen han, [han] zabaldu atie ta [han] bautizau eitten euen]. Ene zelako barriek, baiña! Enee!

- Gaixe kanbixau ein dozu, ama. [...]

- Aldeidak hortik! Bestieri esaten otsen: "Ijitto baten frakak...", ez, "Sarjento baten polaiñak ta ijitto [baten] frakak daukek ta fan hai". Alanbren baten apurtu ein jakon bidien ta "Sarjento baten polaiñak eta ijitto baten frakak", fuera, hi! [Haik] beste bixek umie bautizetan. Enee! Baiña juerga bat...!

- Ama, baiña esplikau biher dotsazu! Liñuen zera esplikau biher dotsazu!

- Bai, liñuek lan asko, lan asko.

## 2.10. Lihoaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-003/003
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Lihoak (linuak) lan asko du. Txarrantxa txikiak, orraziak modukoak. 3 liho klase: lihoa; "karraskia", etab. Lihozko arropak; izarak. Latsarrian arropak garbitzen zituen bitartean, bertan babak egosi izan zituen behin edo behin.

### Transkripzioa

- Liñuen zera esplikau biher dotsazu!

- Bai, liñuek lan asko, lan asko. Andrak etorten zien txarrantxa txikitxuekin, orrazixek moduen. Hiru klase egoten da liñue: liñue, karraskie... zakuek eta eitteko, hola, bastuena karraskie. Liñue...

- Lehenengo trangau, trangau ta gero pasatzen da txarrantxa bat. [...]

- Liñue izarak eitteko fiña. Hiru klase egoten zien. Lan asko dako liñuek.

- Eta alkondarak eta horrek latzak izengo zien, ba?

- Ez, ez, alkondarak ez...

- Ez zien eitten?  
 - Ez.  
 - Bai, bai!  
 - Bueno, bai, eitten zittuen, eitten zittuen alkondarak.  
 - Alkondarak?! Gure aittejaunek kriston alkondarie [...]  
 - Bai, bai, eitten euen. Bueno, ixilik. Alkondara kamixak eta [...] baiña orduen bai.  
 - [...]  
 - Ta izarak, izarak zabalak, fuertiek. Ni jota nao han. Labaderue daukau handikaldien —abandonauta dao, baiña—, hantxe joten nittuen erropak. Egositta be banao ni han erropie. Egositta lapikue be bai etxera etorten ibili barik. Egurtxo bi ifini holan ta lapikue ifini erdixen ta babak egositta nao ni han. Biheko! Bai. Ta, holaxen. Liñuek lan asko dako.

## 2.11. Umetan gosea ezagutu zuten

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-004/002
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:00:41. **Bukatu**: 00:01:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Umetan gosea pasatzen zuten.

### Transkripzioa

- Holaxe mutikuak.  
 - Eta horreik harrapautako makatzok-eta horrei ze eitten zauien gero, zeuek jan?  
 - Jan!  
 - Gosiek egoten zitzien?  
 - Gu bai. Etxien [geozenak], han badare ziento bat ume, makatz bat [bakotxai] eta guk bela jaten [geuen hiru-birek]! Bueno!  
 - Maria: Gosiek! Lehanao gosie euen!  
 - Gu etxe bittien? Bestien hamaike-edo bazien ta gu be bai beatzi. Ta puf! Han... eskolara fan sei-zazpi ume [neskatilla]-mutiko faten gitzen Otzaibetik.  
 - Maria: Ez dozu esaten haranik be ez zala egoten Otzaibetik eskolara bittartien?  
 - Ez haranik ta ez masustaik ta ezebez!  
 - Ezebez...  
 - Dana linpio!  
 - Loratu orduko danak [... hasten giñen].  
 - Bide-eskiñek garbi!

## 2.12. Emakumeen, neska gazteen janzkera; usadioak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa

- **Erref:** ESK-007/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:01:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
 Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Neskak, emakumeak beti gona edo soinekoekin. Frakak janztea, ezta pentsatu ere. Asteguneko arropak; jai eguneko arropak.

### Transkripzioa

- Eta lehen erropak, janzteko-ta, zuek emakumak beti goniekin esaten dozu, ezta?
- Bai, bai, bai.
- Beti goniaz edo soñekuaz edo...
- Bai, soñekua edo gona edo... Frakaik-edo orduen nik be sekula frakaik...! Oin, ba, zertu izen dot, ezta? Txandarrak edo. Baiña, bestela, sekula ezta pentsau be ez frakie emakumientzako zanik be! Beti gonakin.
- Ea domeketan betik elegantetxua?
- Bai, betik, betik. Batzuk esaten euen aste-egunien soñekue alde batera ta domeketan bestaldera. Baiña guk geuk beti domeketako domeketako erropak. Domeketan... Aste-egunien erropa batzuk eta domekarakuek guri gure ama zanak betik domeketakue diferente. Erropa zertxuauek, ez dakitzu? Hobatxuek...
- Hobatxuak...
- ...domekarako. Bai.

### 2.13. Baserriko lanak: garia

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-007/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
 Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
 Baserrria » Baserriko lanak » Artoa  
 Baserrria » Baserriko lanak » Garia  
 Baserrria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Baserrrian garia, artoa, baba... ereiten zuten beti. Lan guztiak eskuz egiten zituzten. Gariaren inguruko lanak; azalpenak. Gari-ebatea. Garia eta artoa errotara.

### Transkripzioa

- Ta, orduen, baserrixen garixe eukitten zauien artue be bai eraindte, ez?
- Bai, bai, bai.
- Babie be bai?
- Bai, bai. Babie ta garixe ta... Guk babie sekula faltan ez dou izen ta artue ta garixe ta... garixe be dezente gure sasoi.
- Ta porruak eta hori be etxien eukitzen zauien?
- Dana, dana, dana.
- Patatie-ta be bai?

- Nire gazte-denporan guk dana etxien euki dou. Bueno, oin be bai, ezta? Baiña oin garirik ez, ta artue be hutsa daukou, baiña lehen artue asko, gaiñera. Asko. Eta garixe be bai, neure neskatiilla denporan, ya haundi ein arte, garixe? Gari... Guk gari dezente, gaiñera, eukitten gauen, e? Gari dezente eukitten gauen guk, e? Bai. Sasoie zanian ebaitten "rin-rin-rin" ibili ein biher, dana eskuz itten geuen ta.

- A! Dana eskuz eitten zaiuen?

- Dana eskuz.

- Ta garixak eukiko zauen lana, ezta?

- Bai. Klaro, lehelengo ebai, gero lotu, gero mutxurixuek ein...

- Mutxurixuak in?

- Bai, ba, lotu eta ein mutxurixuak. Gero, metia. Metia, ba, bueltaka-bueltaka zeiniek elegantetxuaua ein, ba, metia. Meta bat, bi meta, hiru meta, segun zela garixa zaukatzun. Bai, bai.

- Ta gero horrekin uruna eitten zan?

- Bai. Errotara eruen —zeuk gure bozun hona errotara, gure bozun Gaztañiko errotara— eta, ba, errotara eruen ta gero urune [eitten] zaukatzun ogixe eitteko, taluek itteko edo gure dana itteko. Etxien artue be bai eta... [guk be bixek be joten gittuen] artue be bai ta urune be bai. Zeuk gura dozun errotara eruan...

## 2.14. Herrira saltzera; oiloak nola hazten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-007/009
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:16:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Herrira joaten ziren arrautzak saltzera. Amak egunero oiloei "zaperua" ematen zien. Neguan gainera, koilarakada bat piper gorri ere ematen zien.

### Transkripzioa

- Orduen, danetik eukitten zaiuen...

- Danetik.

- Ta gero arrautzak saldu eitten zittuen?

- Bai, arrautzak bai, arrautzak bai. Arrautzak guk geuk saldu dou. Nik neuk be hemen be saldu dittut eta ni hona etorri aurretik, ni... gure ama zanak euki euen... Nik ez dakit nundik horixe, ze nundik gure amak auken zera, hori amistadioi. Donostiako diputaziñoko txofer bat etortzen zan gurera astien-astien, astien egun baten Donostiatik, orduen sasoién. Ta aukenak, ba, asterako eruten otsen egunien dozena bat edo gura dana asterakuek, ba, zazpi dozena edo aukenak edo sei edo zazpi edo zortzi, aukenak, eruten otsen. Ta akordetan naz ni gure ama zanak hemen garajia... Ointxe be [...] hor etxian. Etxe barrixa ein auen, baiña lehengo zaharreko zera da. Hor ate bat, zu oin pasau zarenien ate haundixe Benta Zaharren?

- Bai.

- Ba, han. Garajie esaten jakon, hak auken izena garajia. Ta han oilluak...

atie be gure amak zerrau itten otsen zera, irristuen neguen edurre-ta auenien ta hola. Edur gesala ta neguen? Zertu eitten otsen, danak irristuik be zerrau eitten otsen. Egunero-egunero-egunero zaperue emuten otsen.

- Zaperue?

- Zaperue. Patata egosixek, patata azalak, patatak, egosi ta apurtu-apurtu ein ta arto-urunaz. Arto-urunaz zaperua. Ta gure ama zanak botaten otsen egunien koillarakada bat piper gorrixa, negurako beroketako ona zala ta.

- Beitu...

- Bai, piper gorrixa koillarakada bat. Ba, gure amak neguen be arrautzak betek eukitten zittuen. Ta nik horixe ez dakit nundik amistadia hartuta eukan, baiña Donostiatik diputaziñoko txoferra etorten zan, urtietan nire neskatiilla-denporan. Ta gure amak arrautzak zestotxuan —zesto bata eruten euen ta bestie ekarri, ta —zestotxuan ifinitta eukitten zittuen sei dozena, zazpi edo zortzi, aukenak, hantxe. Ta txoferroi etorten zan hartu, amai pagetan otsen, aide! Zortzixen behin etorten zan.

- Beitu...

- Bai, bai, bai.

- Donostiatik, e?

- Donostiatik. Ta urtietan etorri zan nire neskatiilla-denporan, urtietan. Ta horixe amistadia nundik hartuta eukan horixe ez dakit. Ez naz akordetan nundik auken gure guresuek amistadia.

## 2.15. Ikazkintza eta karegintza inguruko baserrietan

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-007/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikazkintza; karegintza. Gizonezkoen lana batez ere. Txondorrak ikusi izan ditu inguruko basoetan. Karobi-zuloa ere ezagutzen du, baina karea egiten ez du ikusi.

### Transkripzioa

- Eta, gero, iketzik eta kareik eta eitten zauien zueik hemen?

- Iketza neuk, osea, ez dot... hortxe ez naz... ikusi ta ez dot ein. Bueno, ikusi-ta bai ondo ta, baiña gurien geurien be iketza eindda dau.

- Bai?

- Bai.

- Hor gizonezkuek ibiltten zien, ezta?

- Gizonak, gizonezkuak, bai. Ni ezkondu nitzen aurreko urtien be gurien aittegiñarrebak esaten euen han basue Gatzagan daukou eta orduntxe euzela iketzak eindda. Txondor paren bat edo ein auen iketza.

- Eta kareik? Kareik?

- Karaik ez dot ikusi.

- Ez, e?

- Ez, karaik ez dot ikusi, hoixe ez. Baiña txondorra hemen Marin basuen be ikusitta daukat, egurra ipintten illera-illera-illera-illera zela ipintten zan danak holaxe illera-illera-illera-illera bueltan-bueltan-bueltan-bueltan zela ipintten euen badakit, ikusitta daukat. Ta, gero, gaiña dana tapau ta sua

emun ta... Hori bai, txondorra akordetan naz, neskaitila-denporan akordetan naz. Bai. Oin, kareik ez, kareik ez jat tokau, geure etxien edo [neri] ez jat kareik tokau. Ikusteik be ez jat tokau. Karezulue baeuen hor zerien —vete a saber noskue dan—Marinzubin badau. Oin ixa apurtu ein da baiña karezulue badau.

- Badau...

- Karezulue esaten daue dala.

- Bai.

- Bai. Hori ikusi dot. Eta karezulue, oin, neuk ikusi ez dot ein. Nos esistidu dan hoixe ez dakit.

## 2.16. Baserriko bizimodua; aldaketa handiak gertatu dira

- **Hizlaria(k):** Errasti Ibarzabal, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-008/004
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Baserria nolakoa zen; auzoa asko aldatu da. Lehenago labrantza handia egiten zen: garia, artoa... Hori ere zeharo aldatu da. Baserrian jasotzen zutenetik bizi ziren. Baserritik kanpo lan egin izan du beti.

### Transkripzioa

- Zeure basarrixa-ta zelakuak zian?

- Ba, basarri zahartxo bat. Basarritxo bat, ba, etxe zahar-zahar bat. Oin egongo da, ba, ondo, baiña orduan denporetan, ba... lau pareta ta... ezkatza, sukaldia, ta kuarto bi. Habitaziño bi edo euken. Ta hantxe bizi.

- Inguruan basarri gehixau zeren?

- Ondo-onduen ez. Egongo zien basarrixak, ba, hiturehun metro, bostehun metrora lehelengokua. Bai.

- Eta asko aldatu da auzo hori?

- E?

- Asko aldatu da inguru guzti hori?

- Ba, oin lehenauko antzik be ez dauko. Lehenau, ba, dana hemen labrau eitten zan: garixe erain, artue erain, babia... ezta? Ta oin ez da eraitten.

Oin dana piñue edo dau, ezta? Ta, ba, piñu ez dauena, ba, hemen oin... zelaixek dao beste batzuk ganauendako edo basuek edo, ezta? Baiña oin erain ez da ezebe eitten Gipuzkuan, e?

- Ez, guztiz galdu da hori, ez?

- Nik ez dot ikusten. Hor... telebisiñuan [...] sarritan begira ta labrau ta garixe ta eraindda ta artue ta eraindda nik ez dot ikusten. Ta lehen... lehen, barriz, dana. Auen lur guztia erain eitten zan. Ta bizi gintzen, ba, hortitxik, [hazten gauena] jan.

- Basarrixan bizi izan ziñan gazte izan arte, ezkondu arte ala noiz arte?

- Bueno, ba, nik lanien-ta kanpuen sarri, ezta? Baiña, ba, ezkondu arte baserrira faten nitzen betik hemen ninguenien, e? Betik baserrira. Baiña lana kanpuen betik.

- Oseake... hori nahi neban esatia... basarrittik kanpo ein izan dozu lana?  
- Bai, etxien arrebia euki nauen. Etxien egon zan, ezta? Ta, ba, neu kanpuen ibiltten nitzen lanien. Ba, geu kanpuen, ezta? Baiña gabien etxera.

## 2.17. Umetan morroi joandakoa beste baserri batera

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ibarzabal, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-008/005
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:07:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: 10 urterekin morroi joan zen inguruko baserri batera. Baserri handia zen eta oso gustura pasa zituen urte batzuk. 13 urteren bueltan, Bergarara joan zen morroi.

### Transkripzioa

- Eta zenbat urtekin hasi ziñan lanian kanpuan, basarrittik kanpo?  
- Joe... Hamar urteaz kriaui.  
- Juan ziñan?  
- Bai.  
- Nora? Inguruko basarriren batera?  
- Bai, basarri batera. Baiña ondo egon nitzen, etxien baiño hobeto han.  
- Bai, e?  
- Etxien baiño hobeto, basarri ona zan... [...] ba, gu pobriauek gintzen ta, ba, haik... ondo egon nitzen. Baiña hamabi urte kunplidu baiño lehenao gero fan nitzen Bergarara kriaui atzera. Han, barriz...  
- Gaizki?  
- Gaizki, ba... Onbre, bestien moduen ez, behintzet.

## 2.18. Umetako lanak baserrian

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ibarzabal, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-008/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Garia  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Umetan baserrian lan asko egin behar izaten zuten. Gariaren inguruko lanak. Lan asko eta gutxi hartu. Baserri guztiak ez ziren berdinak, eta beraiena txikitxoa zen.

### Transkripzioa

- Eta basarrixan, orduan, umetan lan ein biharko zenduen, ez?

- Lana?

- Esan dozu solo haundixak eta...

- Lana, ya lo creo, lana! Besteik ezebez.

- Besterik ezer?

- Lana, ta jan gutxi.

- Ta ze eitten zenduen? Gari-ereitten ibiltzen ziñan ala...?

- E?

- Garixa erein, artua...?

- Ba, garixa ereitten zan ta gero heltzen zanien ebagi eitten zan. Ta eskuekin ebaten zan, gaiñera, garixe. Ezta? Ez oingo bezela makiñiekin ta, eskuekin ebaten zan.

- Lan asko, ez?

- E?

- Lan asko....

- Las asko. Ba, gero ha trillau eitten zan [larriñak ein] esaten otsien, eitten zan. Ez dakizu? Ta gero garbittu ta lan asko eukitten euen garixek, e! Han lan asko, e! Ta gutxi hartu.

- Ta gutxi hartu?

- Gutxi hartu. Gurien, behintzet, e! Beste batzutan gehixao hartuko zan. [Eta] baserri danak iguelak ez zien orduen be, e! Orduen be ointxe leetxe, ba, baserri onak baeuezen txarrak be bai, e? Guria, ba, [atzenien], ba, txikitxo bat zan. Bai.

## 2.19. Baserrian erreterro; antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k):** Azkarate Arejolaleiba, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-010/003
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Jaiotetxea nolakoa zen. Oso baserri zaharra. Erreterro izandakoak; gerora baserria erosi zuten gurasoek. Baserriaren jabea, Madrilen bizi zen. Haren administraria eta aitaren arteko hartu-emanak. Jabeak baserria salgai ipini eta Azkaratetarrak nola erosi zuten. Etxea nola ordaindu zuten. Anaia basogintzan lanean.

### Transkripzioa

- Eta zeuen basarrixa zelakua zan?

- Gure basarrixa zaharra, oso zaharra zan. Oso zaharra, bai. Nik uste det sasoi baten holako ardi txabolan bat edo izango zan. Bai. Baiña... ba, baserria zaharra zalako saldu ere in zan, e? Gure aitta jaixo zanian ta gure aitta ezkondu ta gero saldu zuen... bueno, erosi zuten baserria. Baserri... gu erreterruak giñan, ezta? Erreterruak ziren gure aitta ta. Baiña, ba, basarri zaharra ta nahi zuten, ba, zertxobait hobetu zedilla baserri hori, ezta? Eta, ba, zeari, uezabari... Uezaba, jabia, baserri jabia, bizi zan Madrillen. Eta zeukan administradore bat, ezta? Villareal de Alava, ezta? Arabako Villarrealen, Legutianon. Eta, ba, hari esan zion gure aittak zeoze obra edo eitteko, ezta? Ha etxia oso eskasa zegola ta. Ta, ba, zeak agindu

omen zion uezabak edo administradoriari ia ikusi zezala, ba, etxe hori ia ze obra edo ein litteken. Eta ikusi zuanian esan omen zeban: “Honek ez du merezi obrarik egitterik. Hau jo-ta bota ta barri bat ein”. Eta, joño, orduan uezabak pentsau omen zuen: “Ño! Barria eittia asko kostauko jata”. Salgai ipini zuan. Salgai, ezta? Eta aittak, ba, “erosiko nuke, baiña nola pagau?” esaten zuan, “nola pagau hori?”. Ta konsulta egin zuen zerarekin, herriko apaizarekin, ezta? Ta apaizak esan omen zion: “Erosizu bai, ta nahiz ta oin pagau... ezin pagau, dirua topauko dezu. Ta zure baserriak dauko basuak asko, ezta? Baso arboladiak eta, ezta? Asko dauka. Eta handik arboletatik eta atarako dozu zuk hori pagatzeko”. Eta holaxe erosi in zuan.

- Apaizak pixkat animau zeban?

- Bai, animau zuan, bai. Harexen konsejuari jarraituaz, ba, erosi in zuen etxia. Eta gero etxe hori, ba, pagau zan holaxe, apaizak esanda bezelaxe. Gure anaia, lehelengo [...] nere anaia, pixkat mutil in zan ta lanerako oso zan zea, abilidade haundikua, ezta? Eta ikatzak eta egin zittuen ta basuetatik atara zittuen egurra be bai ta ikatza be bai. Ta horreik... holako lan batzuk in ta gero, ba, pagau zuten etxiori. Pagau zuten, bai. Ta gero, harrezkero, ba etxien jabe dira.

- Eta esan dozu administradorea Villarealgua zala...

- Villarrealen zegan, bai.

- Orduan normala izaten zan errentero egoten zian basarrixetan administradore bat egotia?

- Administradore bat izetia? Bai, hola zan, hola zan, itxuria danez.

- Eta jabia, esan dozu, Madillen?

- Jabia Madrillen, bai.

## 2.20. Marin auzoko baserriak

- **Hizlaria(k)**: Azkarate Arejolaleiba, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-010/008
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:11:35. **Bukatu**: 00:15:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Bera gaztea zenean Marinen zeuden baserrien izenak (goitik behera): Belategi, Uharte, Emalditxiki, Emaldihaundi, Idiazabal, Garaikua, Etxebarrixena, Borretxe (?), Laudiogoikua, Iturrate, Ma&ntilde;urti, Agarre, Ma&ntilde;arte, Maistroetxia, Abadeetxea, Etxaundi, Etxaunditxiki, Zabale, Erromarate, Azkarraga, Isasi, Irurena, Erregena, Bidabeitigoiko, Bidabeitibeko, Intxusti, Arane.

### Transkripzioa

- Ni gazte nintzanian, ba, esango [dizkizut] nahi badezu baserri guztien izenak.

- Aber, esan, esan. Eta goguan dakazuz danak, e?

- Bai, bai! Bai, ba, han jaio ta han bizi ta... Goittik hasiko gera: gorengo etxia da Belategi, Belategi. Gero onduan dauka beste bat: Ugarte. Bai, Ugarte. Gero Emaldi, eta Emaldi da Emaldi txiki eta Emaldi haundi, bi Emaldi dia. Gero beste bat zan Idiazabal, baiña hori galdu zan. Galdu zan, nere denporan, e! Galdu zan... ba, haixiak... jausi zan hori, bai. Bueno, gero jarraituko dogu. Gero geuria, Garaikua, ta gero Etxebarrixena. Eta

beste bat zan, oain hau ere galduta da... Gorretxe uste dot daukela izena, Gorretxe. Gero Laudio: Laudio Gokua ta Laudio behekoa, bi bizitzadun teillatu baten, teillape baten, ezta? Bi bizitza eukena. Horrek [die] Laudio Gokua ta Laudio behekoa. Gero hurrengo dator Iturrarte ta hurrengua Maiñurti, Maiñurti. Gero, Agarre. Gero Maiñarte. Gero dator maixuen etxia, Maistretxia, Maistruetxia. Bai. Han maistrue edo [maisutza] eitten euenaz zan maistro karreraduna, e? Baizik pixkat zekiena irakurtzen ta...

- Kultotxuaua ta...

- [kultotxuaua] ta... hua egon zan, urtietan egon zan maisu bezala. Bueno, esan degu [...]. Gero abadien etxia, Abadetxia, ezta? Abadetxia. Gero Etxaundi, horixe zan etxerik, hola, haundiena ta hola palazioan antzekoa, ezta? Hori ere erre ein zan. Harek eukan bere ondoan, berari dagokiola, ezta, eukan Etxaundi txiki.

- Etxaundi txiki?

- Etxaundi txiki. Bera zan Etxaundi, ta eukan Etxaundi txiki. Gero dator Zabale, Zabale bai. Ta gero dator Erromarate, Erromarate. Gero... a! Beste bat galdu zana, Azkarraga. Gero Isasi. Gero dira Irurena ta Erregena, Bidebeitti goitti ta Bidebeitti beheko, Bidebeitigoiko ta Bidebeitibeko. Bi. Gero Insustegi.

- Jesus! Basarri asko, ezta?

- Bai, horrek... Eta gero Arane. Arane. Lehen esan degun...

- Ermittia...

- Ermittia onduen euki euenaz, e! Galdu zana. Bai. Horrek dia Maringuek zienak; gero Mariñeri parrokira zertu... ekarri zienak [...] izan ziran Gatzikarro, lehen esan deguna, Auzibar... Arozibar esaten due zaharrak, e? Auzibar esaten dou guk hola, baiñe izena osua Arotzibar zan.

- Arotzibar... eta honek guztiok ze dia Aramaixokuak?

- Aramaixokuak die, bai. Aramaixo, Azkoagako partien.

- Baiña parroixia...

- Oin bai, lehen izan zien zerak...

- Maringuak.

- Maringuak. Ta Mariñera pasa zian horrek...

## 2.21. Lehengo bizimodu eta ohiturak: maiorazgoa, errenteroak

- **Hizlaria(k)**: Lezeta Errasti, Maria; Romaratezabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-015/005
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Jatorria. Maritxu Marin auzoan jaiotakoa da eta Mari Lezeta, Eskoriatzako Zapategi baserrikoa. Lehenago ohitura izaten zen maiorazkoa geratzea baserrian. Maritxuren familia, errentero bezala bizi izandakoak. Gerora, baserría bota eta berria eraiki zuten. Anaien inguruko kontuak.

## Transkripzioa

- Orduan, zu Mariñen jaixotakua...

- Bai.

- ... eta zeu?

- Ni Eskoriatzan hemen.

- Eskoriatzan, Eskoriatzan goixen basarrixan.

- Ze basarri edo zelan daka izena?

- Gu gare lau; edo... bost, bost, bost! Ene! Eta bat, anai bat, hil zan eta bestiok bizi [gare].

- Eta basarrixan izena zein zan?

- Zapategi. Ya handik urten nauen aspaldi ta akabo.

- Ezkontzeko edo...?

- E?

- Ezkonketako, bai.

- Ezkonketako, bai.

- Orduen ezkonketako urteten zan, bestela...

- Eta lanien bazabitzen be ezkonketako urteten zan lanetik. Eta oin segidu eitten daue. Orduen ezkondu biher zan ta ala! Kanpora.

- [Danak] kanpora.

- Zeu be Mariñen basarrixan jaixotakua?

- Bai. Oin ha basarrixa bota auien ta oin barrixe... Bueno, gu gitzen erreteruek, e? Eta oin ha bota auien eta oin han beste barri bat eindde dau [...]. Baiña jaixo ni baserrixen ta hogeta sei urte artien baserrixen bizitte. Gaiñera, ama barik. Ba, gitzen lau anai-arreba ta bost niaz, sei beste bateaz. Ta ha beste bat hil estien...

- A, bai, gerra-denporan...

-... hil justenan, hil justenan... gerran... Bueno, “hi” eingo dotsut nik zuri be, e?

- Bai, bai.

- Gerra-denporan... Gerra-denporan ez, ifintten zittuen... Ifini jittunen maniobra batzuk. Ez dakitzu? Mendixen. Ta abixau be ez auien ein.

- “Ez dakin”?

- Eta fuen zan aittaaz ekarriten irie ekarriten. Badakitzu zer dan irie? Ganauei azpitek eitteko. Eta fuen zanien, bueltan bala batek jo eta hamaika egun. Hillen... setienbrien hamaikan sartu otsien balie — hamabost urte euen. Hamasei, hamasei urte euen—, baliek jo euen, ta hemeretxizen hil zan. Bai. Eta gero geldittu gitzen bost anai-arreba. Eta oin bost anai-arreba. Ointxe hiru urte anai bat hil zan, ta oin [dakaaz] bi aizta ta bi anai. Hiru bizi gara Eskoriatzan ta beste bat bizi don Bergaran.

## 2.22. Marin auzoa; baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Lezeta Errasti, Maria; Romarate zabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-015/006
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Marin auzoa nolakoa zen. 23 baserri inguru zeuden garai batean. Eskola, eliza. Sarritan etxean lagundu beharra zegoen eta ezin izaten ziren beti eskolara joan. Errotara astoarekin nola joaten ziren. Umetan egiten ziren lanak. Umetako jolasak.

### Transkripzioa

- Eta Marin auzua, bestela, zelakua zan?
- Politte auzue. Bai. Ondo auen. Oin ez, oin baserri asko hutsik eta hola. Orduen hogeta hiru baserri izeten zien. Hogeta hiru ala gehixau be bai? Hogeta lau bat bai. Eskolie bertan eukitten [geuen], eleixie be bertan dao... Eta danok... eskola handixe...
- Eskolara ta eleixara derrior fan biher! Derrior!
- Bai, bueno!
- Bai, e?
- Bueno!
- Ta, gaiñera, ahal zanien orduen be. Batzuetan fuen biher izeten gitizonan errotara. Asto bat hartu, han ifintten geuen artu edo garixe zorro bat...
- Zorro bat ifiñi...
- Zorro bat ifintten geuen ta errotara faten gitizonan. Eta hara faten gitzenien, ba... Zenbat urte? Hamabi urteaz edo... Hamaika-hamabiaz orduko... eta zazpi-zortzi urteaz be lanak, batien konejuendako bedarra ebai biher izeten gixonan, bestien txarrixandako ezkurte batu, bestien artue karandu ein biher izeten gixonan, babak... Orduen lana ez zan faltetan. Geldittu be ez! Txikitxotatik hasitte, e? Bueno... uu! Jesus Maria! Zenbat...
- Oingo gaztiek bizioz bizi... bizi die.
- Ondo bizi die ta hobeto pentsetan jat, gaiñera, e? Sufriduteko geu nahikua izen gitizonan.
- Zeuena larreikua zan, ez?
- Baiña gu...
- Gurie bai.
- Baiña gu geure denporan ondo bizi gitzen.
- Guk pentsetan geuen [hobeto], guk pentsetan geuen hobeto iñun be ez zala izengo, e? Holaxe pentsetan geuen.
- Besterik ez daniel ezautzen, ez?
- Bueno! Gero muñekak-eta be etxe-ostien eukitten gittuen. Bapez! Eta badakitzu ze... faten gitizonan, arto-saillek egoten zien, artue, badakitzu ze dan? Eta haik eukitten euen urteten otsien uliek hola artuei.
- Artobizarrak edo...
- Bai, artuek. Artabizarrak, hori. Ta guk haraxe fuen, orrazixa hartu eta kopetak eitten. Ta harrapetan bagiñuen, “Zer dabitzu hor? [...] arto guztiek alperrik galtzen!” ta hango takarrarie. Baiñe orduen... Ta gustora [holakotxiek], e!
- Ba lehengo jolasak holaxe zittunan.

### 2.23. Baserrian lana ugari; ikatza nola egiten zen

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/005
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena:** Baserrian ez zen inoiz lanik falta; urte guztian zegoen, sasoian-sasoiko, zerbait egiteko: abuztuan hasi eta iraila bukaera arte ikatza egin, gero ira (garoa) batu, ondoren garia erein, neguan artoak garandu (aletu)... Pasarte honetan batez ere ikatza egiteko prozesua azaltzen da. Telefono gabeko garaian, baserrietako familiek lanerako laguntza behar zutenean izara zuri bat jartzen zuten seinale gisa.

### Transkripzioa

-Ikatza eitten zan, txondorretan? Kontau hori. Zelan zan txondorrana?

-Txondorra izeten zan, egurra lelengo [...] zan eta kuadruan uekue ataraten jakon eta egurrak lelengo senduek barruan ipintten zien eta gero mehiakin, eta gero zohixekin edo orbelaz tapetan zan eta gero lurrekin. Eta gero goittik behera sartzen jakon brasia. Egun baten edo han brasan [laguntzen?] jakon eta gero punteraiño hori kuadrui bete eitten zan. Eta gero esaten zan "puntie hartu jok txondorrek". Eta txondorra hasten zan lanien, goittik behera hasten zan. Eta txondorrek egurrek senduek eta euki ezkerro ba uekuoi gehixao eitten auen, eta orduen ba betegarrixa emon bihar izeten jakon; apur bat zabaldu, egur barriek txikiñek sartu, atzera tapau eta [...] beheraka-beheraka, eta txondorrek lana gehixao eitten auen freskurakin. Gabetan lanak, udaan eta deskidau ezkerro [erretan?] zittuen gehixao Eta euri-zaparrara bat eittenn euenien be lana hobeto eitten euen txondorrek, bero lar haundixakin barik.

-Eta han norbait egon bihar zan beti zaintzen?

-Bai. Txabola bat eitten zan, eta txapakin edo. Askotan guri pasetan jakune, bueno, gaur denpora ona jak eta txabolía ondo bukatu barik igual, eta gero deskidau ezkerro hanketara edo burura tantakia. Eta hamen bihar izeten zan ba segun, txondor batzuk biha izeten zittuen hogeí egun edo martxan igual, hogeí egun, batzuk gehixao be bai, edo gutxiao, segun egurre sendue edo zela zan. Txabolan be bai. Eta gabien be begire fan bihar izeten zan. Hiru txondor edo lau bazaukotzun be, ba zu batzuetan fan bihar izeten zauen senda batzutik eta bueno.

-Hori eitten zan san Migeletan? Ala negu partian?

-Hori lelengo hasten zan, sasoe honetarako egurre botata egoten zan eta preparauaz faten zan, etxeko lanak eiñaz eta hola; preparauaz, preparauaz faten zan, eta agostuen atzenetan, setienbrien lelungotan hasi txondorrek eitten eta hortxe hillabeten barruen hortxe eitten zan. Baiña etxeko lanak amak edo etxian azen emakumak eiñaz, eta gizona-eta basuen hori eiñaz. Gero handik, hori bukatukuan izeten zan, idie esate-utsau guk, hor behaldien ba garue; harek erretirau eta ein bihar izeten zien. Eta gero handik etorten zan ba gari-ereittiek eta haren ostien.

-Urte osuan lana zaukatzuen zuek.

-Gero neguen artuek karandu eta...

-Artuek (k)arantzen egon zare zu? Gero artuak batu eitten zan eta eitten zan arto-jorran...

-Eta aparte eitten zan, lehenau telefonoik eta mobillik eta holakoik ez auen, Bolibartik, gure etxetik, Pagaldaittik Agiña eta Tailluena eta beste batzuk ikusten zien, eta zien terrenue, lurre gertatekue, gu enteretan giñen izera zuriren bat han ipintzen zana: "Atailluenien ipiñi daue izeria", edo Agiñan edo Altzarten, eta faten giñen laguntzen. Eta guk be gertatzen gauenien iguala eitten gauen. Zeozer seiñala bat ifiñi.

## 2.24. Garia; nola moztu, batu eta jo

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Bere gurasoak euren etxetik kanpo hasten ziren garia moztzen. Garia lehenago heltzen zen aldera (Garagartzara) joaten ziren "egunek irabazten". Hangoak bukatutakoan, Garagartzakoak euren etxera joaten ziren laguntzera; txandan ibiltzen ziren. Behin garia moztuta metak egiten ziren, eta, gero, larrainak idiekin edo behiekin. Abereen bekotzak lastora ez jausteko ontzi bat erabiltzen zen.

### Transkripzioa

-Gariarena eitten zenuten etxe aurrian, garia batzen zanian...

-Bai. Gari-irabazten be faten zien, ieteixakin ebaten zan lehenao, gero segakin be bai eta makiñakin be bai. Baiña gurien aittak eta amak... ni neu kanpora be fanda ez nau, baiña hasten zien hortik Garagartzara aldetik edo, "egunek irabazten", han heldute egoten zien garixak, eta gero gurera etorten zien hanguek, ia hangue bukatute euan eta gurera... eta txandan ibiltzen zan gauzia. Gero metak eitten zien, metie zerakin, eta gero larriñe idixekin edo behixekin edo. Eta bekotza itten euenien katxarro bat ifintten jakon bekotzak ez daixen hazi, zera, lastotara edo.

-Eta gero auzuetan eta holan, ze auzolan eitten zan Bolibarren adibidez, ze hori gariarena ez zan iten danok batera, edo etxe bakoitzak eitten zauen beria?

-Gero makiñie etorri zanian lagundu eitten jakon bata-bestiai, baiña bestela ganauekin eta ebillenien ba orduan... Ebaten eta bai, ebaten eta laguntzen zan, baiña bestela bakotxak berak.

## 2.25. Auzolan berezia: Sasi bisittie

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/009
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:10:42. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Auzolana oro har errespetu handiz egiten bazen ere, bazen berezia zen lan bat. Egun bat jartzen zen baserri bakoitzak zituen lurren inguruak garbitzeko. Ondoren "sasi bisittie" egiten zen, hau da, udaleko ordezkariak auzoz auzo joaten ziren lurak behar bezala zeuden ikusteko. Gero bazkaria egiten zen.

### Transkripzioa

-Gero auzolanak izeten zien, errespetu haundixakin gaiñera, hor e, bestela be eitten zien, baiña medikuana-ta kaballuakin faten zan, eta egun bat

ipintten zan noberan terreno parietan-eta obligaziñue egoten zan garbitzeko. Eta gero faten zan aiuntamentua, ni neu be fanda benau, aiuntamentua, alkatia [gengozela-ta], sasi-bisittia esaten jakon, auzorik auzo, aber ebaitte auken edo ondo ifinitte, garbittuta auzen edo.

-Zelan, sasi...?

-Sasi-bisittia. Sasixek-eta ebai-eta sendetan eta, lehenau egoten zan...

-Izen hori ipintzen jakon. Eta ze egunetan eitten zan?

-Hori uste dot eitten zala oktubre lelengo inguruetan. Uste dot hola zala.

Eta gero eitten zan, aiuntamentue, faten zan alkatiakin eta bazkaixa egoten zan.

-Hantxe auzuan bertan?

-Ez, Gatzaga-gaiñen, edo bai.

## 2.26. Inguru guztietako umeak Gatzagako eskolan

- **Hizlaria(k)**: Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-029/003
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Inguru guztietako umeak joaten ziren eskolara, baina guztira ez ziren asko ibiltzen, 16 inguru. Maria zuen izena irakasleak. Etxean ez zitzaion ematen garrantzirik eskolari.

### Transkripzioa

-Orduan eskolara zein joaten ziñaten, inguruko auzoetakuak?

-Inguruko auzoetakuak eta kalia eozenak.

-Orduan asko juntauko ziñaten.

-Ba asko be ez. Gu ez gintzen asko juntauko. Hamen danak be hamaxei bat? Hoixe. Gehixau ez.

-Eta gaiñera edade diferentetakuak.

-Bai, edade guztikuek, edade guztikuek Orduan zela bat egoten zan. Doña Maria pentsetan dot (eukela) izena maistriak.

-Maistriak?

-Bai. Eta danok batera. Eta erdixetan... Baiña orduen ez jakon inportantziak emuten, porke faltaten bozu ez bozu ez [...]

-Etxian ez jakon inportantziarik emuten?

-Eske etxien ez jakon inportantziarik emun... Edo behixekin ittaurren, edo bestietan hau [...], ez jotsen inportantziarik emuten. Bapez.

-Eta zure moduan bestiak.

-Bestiek be danak holaxe, bestiek be danak holaxe.

## 2.27. Sarrikorta baserriaren inguruko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-029/012

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Bere jaiotetxearen izena Sarrikorta da. Inguruko baserrien izenak. Gatzagan baserriak lehen baino hobeto daudela dio, orain ondo jarrita daude eta.

### Transkripzioa

-Basarrixan izena?  
 -Sarrikorta.  
 -Eta hau geratzen da herritik goialdera?  
 -Bai. Beste baserrixen izenak gura dozu?  
 -Bai.  
 -Sarrikorta, gero Tranpena, [Txarritxetegi]. Horrek die goixen batetik bestera hurrien.  
 -Segi.  
 -Tranpena, Lakitxetegi, Txarritxetegi, Agarre, Katategi, Astesolo, zuk esan dozuna lehen Beitena, Astesolo, eta Burdingurutz, eta San Martin. Horretxek... Hor aldien horretxek dao. [...] basarrixen aldien. Bestaldera gehixao, bestaldera be badaz etxiak, baiña kamiñotik bestaldera. Hori da...  
 -Zuen basarrixan inguruan?  
 -Inguruan dazenak  
 -Imajinatzen dot lantzian behin joango zarela Gatzagara. Ingurua asko aldatu da? Galdu egin dira baserriren batzuk?  
 -Ez. Oso aldatuta dao oin. Geu bizi gintzen basarrixa be oin edarto ifiñi dau loba batek. Oso ondo, ez die galdu bape, lehen baiño elegantiauak dao.  
 -Eta basarrixak jausitta edo?  
 -Ez, ez, ez. Hor nire aldeko zerien basarririk ez dao jausitta. Hor... bizi die danien.

## 2.28. Lan banaketa baserrian; lixiba nola egiten zen

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/016
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea  
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Gizonezkoek soloan lan egiten zuten eta emakumezkoek etxean. Bera 18 urte baino lehen fabrikara joan zen lanera. Emakumeek ere lan egin behar izaten zuten soloan, baina basoko lanak gizonek egiten zituzten. Lixiba emakumeak egiten zuen. Erreka etxe ondoan zuten lixiba egiteko eta hantxe garbitzen zuten arropa. Lixiba nola egiten zen: arropa ontzi batean egoten zen ur berotan sartuta, xaboi takoekin; gero errekan astindu eta eseki.

### Transkripzioa

- Esan dozu basarrixan umetan askotan ez ziñatela eskola juaten.
- Bai, ez gintzen faten askotan eskolara.
- Lanak ziela?
- Lanak ziela eta ez ziela, askotan ez gintzen faten.
- Orduan baserrixetan lanak zela repartitzen zien? Gizonezkuak eta...
- Ezebez, Gizonezkuak ba soluen eta emakumiek etxien. Ama beti etxien: etxien edo behintzet etxeko lanak eitten. Eta nik esaten (d)otsutena, ni fan nintzen hamazortzi urten baiño lehenao gatz fabrikara.
- Eta emakumiak soluan-eta ez eben laguntzen?
- Bai. Geuk be bai, geuk be aittei lagunketan gutsen. Idixekin ibiltzen zan, eta geuk be bai.
- Basoko lanak eta?
- Gizonak, gizonak. Aittak anaiekin.
- Eta lixibia eta erropa garbitzia?
- Hori amak. Eta gero erarie geukenien geuk be bai.
- Eta erropak garbitzeko zelan?
- Labadoraik ez auen, auen errekoa. Zer haundi bat, labadora bat...
- Labaderua?
- Bai, labadero..., hoixe, harri haundi bategaz.
- Eta errekoa gertu zeukazuen?
- Bertantxe, etxe onduan. Etxe ondo-onduan.
- Eta zer izen zekan edo daka erreka horrek?
- Errekiak izena? Sarrikortan ba, ez dakit nik, errekoa. Hantxe garbiketan [gauen] erropia, eta [...] zela lehenau ez auen labadoraik eta ezebe... holaxe. Lehenengotan, gero jarri zien labadorak eta gauzak, baiña holaxe.
- Eta amari-edo entzunda lixibia zela egitten zan?
- Bai, otzara baten erropa zurixa, bai. Otzara baten ifintten auen eta gero egosi eitten zan ur beruaz.
- Zuk hori ikusi zenduan?
- Bai, bai. Hori ikusi dot nik. Hori ikusi dot. Gero faten zan haren ura harri batera. Hori ikusi dot.
- Eta zelan izeten zan orduan, otzara baten...
- Sartu erropia eta hantxe ur beruaz ifiñi otzara edo zer baten, bai.
- Eta egosi?
- Bai, egosi moduan, ura bero-beruaz. Egon hantxe, jaboia botata hantxe egon.
- Orduan jaboia bazeuan.
- Bueno, jaboia nik ez dakit, jaboï-hautsa ez, hori takuak, takuak. "Más bien" takuak.
- Eta han ur bero-beruakin...
- Hantxe egoten zan erropa zurixa, izarak-eta. Bestiak beste...
- Eta gero handik atara eta...
- Aklarau, alberkan akklarau, lixibia ein.
- Lixibia zenbatero egitten zan? Ez zan egingo egunero...
- Hori zeroi erropienoi?
- Bai.
- Hori hillien behin igual. Horrek izarok eta horreik ba holaxe. Baiña izarak izeten zien senduak.
- Eta egoten zan andren artian, harek lixibia egin dau eta zelako erropa zurixa dakan, eta...
- Beti hori egoten da, e.
- Harrokerixia...
- Hori beti egoten da. Hori beti.

## 2.29. Osaba batek haria egiten zuen artilearekin

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Euskara » Lexikoa  
Lanbideak » Antzinako lanbideak
- **Laburpena:** Izarak sendoak izaten ziren, lihozkoak. Lihozko arroparik ez du ezagutu. Galtzerdiak ardi-ilearekin egiten ziren. Bere osaba batek maratila batekin haria egiten zuen. Inoiz ez du inor goruetan ikusi.

### Transkripzioa

-Esan dozu izarak-eta senduak zirala.  
-Bai. Zien senduak.  
-Liñuzkuak?  
-Liñuzkuak.  
-Orduan zuk ezagutu ziñuzen liñuzkuak?  
-Bai. Baiña liñuzko erroparik-eta?  
-Ez.  
-Eta sasoi baten basarrixan liñua eraitten zebena?  
-Liñua ez. Baiña ardi-lania bai, ardi-laniakin eitten zan galtzetiñak. Eta iruten be bai, tio batek niri, tio batek itten auen. Maratilla bategaz, bueltaka-bueltaka holan eraitten; bueltaka-bueltaka, eta gero ba galtzak ein.  
-Tiua? Gizonezkua zan?  
-Bai.  
-Eta harek itten zittuan...?  
-Harixa eitten auen; berak be galtzagiñan be baekixen.  
-Eta maratillia...  
-Maratilliaz. Egurrezko maratilliaz.  
-Eta ama edo amandria edo halakoren bati...  
-Amandriaik ez nauen ezautu.  
-Edo aldameneko basarriren baten ikusi zenduen goruetan ingurun baten egitten?  
-Goruetan ez dot ikusi.  
-Ardi-lania...  
-Ardi-lania ba horixe. Ardi-laniena zeagaz... Hori eitten auen tio batek nere denporan.

## 2.30. Baratzean lantzen zituzten gaiak

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- **Laburpena:** Ganadua eta zelaia izaten zituzten. Artoa, baba, patatak, garia ereiten zuten. Baratzean denetarik egoten zen lehenago ere. Letxuga lehen azukrearekin jaten zen eta gerora hasi ziren gatzarekin jaten. Ganaduentzat belarra edo bestela pagatxa ereiten zen.

### Transkripzioa

-Esan dozu aittak-eta basoko biharra egiten zittuela.

-Bai.

-Han inguruko basuak zelakuak zien? Baserri gertuan zer zeukazuen, soluak?

-Dana solue.

-Eta basuak zer egoten zien, urriñoa?

-Bai, bastante urriñoa. Zelaixak, [ibiltten] zien behixak, zelaixak, ortua, eta horretxek. Hurrien ortua eta hoixe.

-Eta soruan zer eraitten zenduen?

-Erailten gauen artua, babia, patatak, horretxek. Garixa...

-Orduko ortuetan-eta gaur besteko berdurarik-eta egoten zan.

-Bai, bai. Ni akordetan... lekak, porruak, azak. Danetik. Azelgak...

-Puxkat danetik.

-Puxkat danetik.

-Letxugak eta tomatia?

-Baita. Letxuga ta tomatia eta dana. Dana egoten zan lehenau be.

-Eta zuek letxugia-eta zela jaten zenduen?

-Ba lehenau-lehenau jaten zan azukarraz. Azukarraz. Eta gero ia gatzaz.

Gero gatzaz, baiña lehenengo-lehenengo akordetan naz azukarraz.

-Ortua, zelaia eta ganaua egoten zan. Soluan garixa eta artua.

Behixendako bedarra-eta ereitten zan?

-Ereñ ez. Zelaian zela [auen] bedarra ebai han, sikatu eitten gauen, eta bestela ebai.

-Eta pagatxia ero?

-Baita pagatxia be bai, pagatxia be bai.

-Hori ereñ...

-Hori eraiñ eitten gauen, hori eraiñ eitten gauen, bai.

-Basuak akordetzen jatzu zer zien, haritza, pagua, gatzaiña...?

-Gatzaiñie be bai, baiña pagua, pagua gehixao.

### 2.31. Sutarako egurra bezeroei nola eramaten zien

- **Hizlaria(k):** Segura Errasti, Rufino

- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** ESK-030/005

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:10:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

- **Laburpena:** Egurra nora saltzen zuten. Idiekin kalera eramaten zuen sarritan egurra, bezeroengana.

### Transkripzioa

- Eta, orduan, Vitorixara bialtzen zenduen egurra. Hemen Aretxabaletan ta Eskoriatzan fabriketara-ta edo, ez dakit, sutarako beste...

- Nik...

- ... toki batzutara ez zan saltzen?

- ... gero idixekin behin baiño gehixaotan burkada asko erunde nao kalera. Kalien nauken hiru edo lau bezero nauken ta... Kargau hor goixen, hor gorau ondion, e! Ya Araba partien dao ha basua. Ta han kargau ta kamiñuen oingo moduen zerik ez auen...

- Trafikorik...

- Oingo moduen trafikoik, eta idixekin kalera. Ba, biher izeten zien...

- Orduak, ez? Juan eta etorri ein orduko...

- Atsalde osue biher izeten zan, atsalde osue. Burdixe kargau ta bueltie eitten atsalde osue biher izeten zan.

- Eta bezeruak ze izaten zian, partikularrak edo...?

- Bai, ba... edo jentia apopillo eukienak eta horrek biher izeten [aben] asko. Jentia apopillo eukitten euenak eta batzuk [be aazan] ta harek biher izeten euen egur asko.

## 2.32. Perratzailea Marulandara joaten zen igandetan

- **Hizlaria(k):** Segura Errasti, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-030/012
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Marulandan perratokia zegoen eta perratzailea igandetan joaten zen bertara. Normalean idiak perratzen ziren. Lurraren arabera, perra gehiago edo gutxiago behar izaten zuten; gehiago gastatzen ziren lur klase batzuetan. Perratzailearen lanaren beherakada.

### Transkripzioa

- Eta, gero, lehen esan dou perratzaillia bazeuala, ez?

- Bai.

- Idixak-eta perratzerá nora eruaten zenduezen?

- Hona domeka goxetan etorten zan horra behera, Maulandara. Hor perratokixa ifinitta euen ta horra etortzen zan domeka goxetan. Domeka goxetan atara biher izeten gittuen.

- Eta ze izaten zan, idixak bakarrik perratzen zian edo...?

- Behixek normalien ez zien perretan. Ez, behixek, ba... bai, batenbat koja edo auelako noizbaitten igual perrauko zan, baiña bestela ez. Idixek perretan zien. Ta idixek be, ba, perrau... asko ez zien ibiltten, e? Hamen... Beste toki batzuetan hor harri-bidiek dazen tokixen-ta perrak gehixau falta izeten zien. Hamen hainbeste ez [dotsien] falta eitten perrak. Baiña hamen be perrau eitten zien puskat, bai.

- Eta perratzaille bakarra zeuan orduan hona Maulandara etortzen zana?
- Bai. Eskoriatzatik... Hak Eskoriatzan be eitten euen lana ta gero domeka goxetan hamenguek eitten zittuen. Ba, perratzaille... perratzaille... Beti perratzailie, perratzailie, ba, hak hortan bizimodue etaraten euen.
- Hori be poliki-poliki galtzen juango zan, ez?
- Bai, bai...
- Idixak ya kentzen ta...
- Bai, ya gero idixek-eta kendu ein zien eta...
- Eta perratokixak jarraitzen dau hor Maulandan?
- Ya ez, ya kenduta dao.

### 2.33. Jatorria, Bolibar auzoaren inguruko gorabeherak

- **Hizlaria(k):** Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-032/001
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- **Laburpena:** Bolibar auzoan jaiotakoa, 1923ko martxoaren 18an, Esibei baserrian. Bolibarko auzuneen izenak: Eraña, Goietxeak, e.a. Gaztea zenean 34-35 baserri inguru zeuden auzoan. Egun, etxeak ugaritu egin dira baina biztanle gutxiago dago.

#### Transkripzioa

- Nun jaixo ziñan, ze urtetan...?
- Bolibarren, Bolibarren, “dieciocho de marzo de mil novecientos veintitrés”. Asike, gaur dauket larogeta hiru eta lau hillebete. Hamazortzixe... Klaro.
- Bolibarren ze basarritan edo...?
- Esibei.
- Esibei.
- Uste dot apuntauta dakatela... hemen etxe-multzo batzuk badare, ba?
- Auzounak, bai.
- Auzounak. Eta ze izen hartzen dabe auzouna horrek?
- Ba, batzuk [Zubiztarro], Eraña, Goietxiek, Otsaibe aldiek... holan die.
- Besterik akordatzen jatzu?
- Ez.
- Orduan, ze dia? Etxe-multzo batzuk...
- Bai, bai. Eske, berez, gaiñera, betik auzuen hasten da etxe baten, ezta? Ta baserrittik baserrira, baserrittik baserrira betik faten da “en fila”. Kontaute illeran, e? Betik. Otsaiben hasi ta Errotan bukatu, buelta dana. Oin gehittute daz etxiek. Lehenau gu gaztiekit gitzenien, ba, egoten zien hogeta hamalau, hogeta hamabost. Hori. Ta oin die, ba, berrogetakak daz. Jentie gutxiao, e? Personak gutxiao.
- Lehenau familixak be haundixauak zian...
- Bai! Oin hirurogeta hamar urte ta, oin hirurogei urte ta, hiruherun bat lagun, persona. Ta oin, ba, ehun ta hamaika, hamabi...

- Orduan, etxiak gehitu, baiña...  
 - Etxiek gehitu baiñe... klaro, familixak lehenau seme-alaba askokuk egoten zien ta. Gu geu bostekue gitzen. Holako asko be ez beste batzuen onduen, baiñe, ba, familixak haundixek izeten zin. Bai.

## 2.34. Karobi-erretzearen inguruko azalpenak; lexikoa

- **Hizlaria(k)**: Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-032/004
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Karobiak nola kargatzen ziren. Karobiaren inguruko azalpen interesgarriak; lexikoa. Erabiltzen zen harri klasea. Karea zein garaitan zabaltzen zen soroan; mamorro gutxiago izaten zituen lurra karea bota ondoren.

### Transkripzioa

- Ni gaztie nitzenien? Bai, bai. Ta karobixe erreten be bai akordetan naz.  
 - Eta ikusten zenduan, orduan, zuk aitta...  
 - Kargetan be bai, eta kargau zelako ondo itten zan, e? Zelako ondo!  
 - Zelan [gogoratzen] dozu?  
 - Karobixe da zulo bat, ezta? Zulo bat hola bueltan. Eta gero dauko mailla bat han... Ta gero da gora, e? Hormakin ta einddeko toki bat da, e? Bueno. Ta gero atakie da... ba, bai, ba, personie sartzeko moduen arkue, arkutxo bat. Eukiko dittu, ba, metro ta erdi edo holan. Handik barrure sartzen zan ta kargau eitten daue, kargau eitten euen —gaztie izen arren horretxekin fijetan nitzen ni—, han maillan hasten zan ta hor potxolue. Han ure egoten zan. Enjeneral, eurixe-ta eindde egoten zan ta ure egoten zan. Ta gero handik potxolotik kañuek euen harek kanpora. E? Kañue. Zetarako? Ba, karobixe erreten dauenien arnasie hartzeko, kañuek-eta. Gero, urek-eta falta itten ez [ebenak], ba, handik urteten euen. Ta kargetan euen bobedia zelako edarto itten otsien gizonak. Hatx-harrixaz, e!  
 - Klaro, harri espeziala bihar izaten da, ez?  
 - Hatxa, hatxekue, bai, “piedra de cal” esaten dana. Ta han maillan hasten zien bueltan, bueltan, bueltan, handik arku ondolik hasi ta han bueltan. Eitten euen kargetan, kargetan, kargetan, eitten, eitten, eitten, formatan zan bobedie. E? Bobedie. Laba bat ikusitte daukotzu ogixe eittekue? Zela eukitten [dauen] han goixe? Ba, holaxen jarten zan. Eta gero handik goittik botaten euen ganauekin-ta burdixaz eruen harrixe eta bota. Eta ha bobedie ez zan jausten! Ta, pentseizu, “rraa!” harrixek eta. Baeukien zera, e? Meritue gizonak. Eta gero egoten zan... Hori bai, karobixa erreten lagundu itten jakon, auzuek lagunketan auen, zeaittik egon biher zan, bost-xei egun edo die, denpora danien suten.  
 - Hori zaindu ein bihar izaten zan...  
 - Suten. Otak, “argoma”, e? Zela [izeten da] otie, piketen dabena, hori ebagi itten euen. Neguen-edo ebagi itten euen hori, otie. Eta lehelengoko egun batzuetan otie sar... A! Gero, ha atakie, ha kuadrue, “que diga”,

arkue, ha zerrau eitten euen. Ifintten euen tubo bat holan. Izengo zan, ba, karretilla baten-edo modukue edo holan, tubo bat izeten zan. Eta ha dana... “zohixek” die zelaixan ataraten die bedarrakin.

- Lur zati...

- Bai, lur zatixaz, zohixek. Harekin zohixekin ha dana atakie zerretan euen. Ta ha...

- Libre lagatzen zan?

- Haxe zulue bakarrik libre, handik sue sartzeko. Gero, behetik eukitten eben beste kañu bat “trongadak” esaten eutsiena. Zien paguek...

- Badabil lanian. Lasai...

- Paguek luziek sartzen otsien azken samarrera, gero abarrak be bai. Ha bota zan paguen abarrak, “la leña”, ha be hantxe aprobetxaten zan, karobixen erreten, karobixe suten eukitten. Eta haik trongadak be, gero betik be “rra!” aurreratu ta sue izeten zan. Ta gero, “fffi” goixen hola gauza bat, hori, eguzkixe-ta fuerte dauenien egoten da holako gauza bat... ya erreta... egositte [...] karobixe euenien hola egoten zan handik goittik. Harrixek egositte, ya kare eindde. Baiñe berue izeten zan gero be, e! Sue hotzittu ta gero be kare ein barri-barrixe oso berue izeten zan. Ganauek-eta be txarto ibiltten zien, hankak beroketan jakuen, soluen erueten-ta dabitzela. Jakin ein biher zan ze sasoitten zabaldu ta holan. Enjeneral, artuek eraitten zabalketan zan. Ta horreaz egoten zan, ba, lurre fazil-fazil, mamorro be gutxiao egoten zan... Eta hartarakotxe izeten zan.

## 2.35. Karea nola egiten zen

- **Hizlaria(k):** Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-032/005
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Harria nondik eta nola ateratzen zuten. Harria txikitu eta gurdiaekin baserri ingurura eramaten zen. Etxeak zuritzeko ere karea erabiltzen zen. Karobia erretzeko pago-egurra izaten zen egokiena. Auzoko baserrietako gizonek elkarri laguntzen zioten. Sei egunez egoten zen karobia erretzen. Karobien izenak. Elkarri laguntzeko ohitura handia.

## Transkripzioa

- Harrixa, esan dozu, hatxa izan bihar zala...

- Hatxa.

- Eta nundik ekartzen zebeñ edo...?

- Hatxien ataraten euen. Eta, gairera eitten euen...

- Eurak ataratzen zebeñ?

- Barrenuekin! Holan hartu bi lagunek edo, barrenuekin zulue; “danba!, danba!, danba!”, haintxe zulue ein, e? Eskuz. Eta gero han ifintten euen kartutxo bat ta eitten euen esploziñuaz urtetan eben, apurketan zan. Baiña eskuz eindde dana, e!

- Gero burdixakin dana kargau...

- Gero burdixekin eruen dana. Gero zerakin, porrakin-ta apurtu harek hatxak. Zatittu ein biher zien, klaro! Eta gero burdixekin karobira eruen. Karobixak egoten zien hor ta hemen. Ni hemen be lauaz-edo akordetan naz zelan [erezen]. Oin be badaz, e!

- Basarri bakoitzak gutxi gorabehera eukitzen zeban beran karobixa?

- Bueno... Bien artien edo holan, bi-hiruen artien edo holan izeten zan, enjeneral. Gero, burdike, ba, errepertue egoten zan. Inkluso etxien letxadie eitten zan, etxie zurittu-ta eitteko be etxien eitten zan. Gurien, behintzet, etxien itten euen. Aitta arotza zan.

- Karia gauza askotarako erabiltzen zan, ez?

- Bai! Gauza askotarako.

- Esan dozu harrixa nundik ekartzen zebe, zelan kargau... Egurra pagua izaten zan?

- Pague, pague, pague.

- Derriorra zan pagua izatia?

- Bai, bestiek ez dauke berotasun... ez da iguela.

- Sei egunetan erretzen egon bihar zan karia...

- E?

- Sei egun ingurutan eretzen egon bihar zan karia...

- Bai, eta gero itxi eitten jakon.

- Eta bertan egoten zian zaintzen?

- Gabe ta egun!

- Gau ta egun bertan...

- Sue dauenien, suten dauenien, lagundu biher jakon. Osea, gabe ta egun. Holan lagunketan euen auzuek. Ta gero han dabillenien bestiek [eurekana]. Ni akordetan naz hiru bat tokitten-edo hemen. Danak ez euen hori eitten, e!

- Bertan egoten zianian eukitzen zebe tokitxo bat edo aterperen bat han egoteko edo lo eitteko edo... karobi inguruan?

- Lo ez euen eitten han.

- Ez?

- Errelebau eitten zien. Batzuk, ba, ordu batzuetara fango zien; gaberdixen... Ni gaztetxue...

- Txandaka?

- Txandaka, bai, bai. Gero eukitten euen, ba, ardaue edo ure edo jana edo han eukitten euen ta, ba...

- Eta gogoratzen dozu gitxi gorabehera nun zeren karobi hauek?

- Bai.

- Ez dakit, izena...

- Bai. Bat Esibeiko karobixe, hor; beste bat Lapatzakue; beste bat Erañen. Horreik hirurok bai. Hiru, baiña ondo daz; haik oindio ondo egongo die, e! Bueno, Erañekue ez dakit, baiña hori Lapatzakue ta Esibeikue ondo egongo die oindio, bastante ondo, hola, ikusteko moduen-ta.

- Orduan, hau auzolanian eitten zebe ta gero banatu eitten zebe, ez?

- Gero lagundu eitten otsien etxe batzuk beste batzuei, ezta? Eta, ba, gero bien artien edo hiruen artien erreten euen ha karobixe. Ta hareindako izeten zan karie.

- Ya repartidu ondoren, bakoitzak, basarri bakoitzak beran karia...

- Bueno, han lagunketan ibili arren, harek ez euen kareik eruten handik. Ez, ez. Por ejemplo, bien... bi... bi familixan artien igual karobi bat erretie pentsau euen, ezta? Erretie. Ta gero beste batzuk harei lagundu eitten otsien. Eske egoten zan oso... bata bestiei lagunketako gauza haundixe egoten zan. Lagundu eitten jakon asko. Hemen bai, behintzat!

- Eta, gaiñera, derrigorra izango zan, ez? Ze batzuetan bati lagundu bihar beste batzutan noberari...

- Bai, bai.

- Dana dala, ba, bi-hiru basarrin artian erretzen zanian, euren artian bai repartitzen zebeu kare hori...
- Bai, harek karobixek eukitten euen jabie, baiñe beste batzuek be lagundu eitten euen gero.
- Eta gero hori, kare hori, basarrixan nun gordetzen zan? Bazeuan toki espezialen bat?
- Ez, ez, solora.
- Solora zuzenian?
- Bai, solora, artuek erein biher zienerako.

### 2.36. Karea soroan zabaltzen zen

- **Hizlaria(k)**: Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-032/006
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak  
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Karea erre ondoren zuzenean sorora eramaten zen. Umetako oroipenak. Karea erre ostean bazkaria egiten zuten karobian laguntzen ibilitakoekin.

#### Transkripzioa

- Eta gero hori kareori basarrixan nun gordetzen zan? Bazeuan toki espezialen bat?
- Ez, ez, solora.
- Soora zuzenian?
- Bai, solora. Artue ta erein biher zienerako. Por ejemplo erreten zan karobixe, ba, maietza baiño lehenao. Neguen be ez, neguen be ezin leike erre. Baiña akordetan naz ni, bai, bai. Mallukixek be egoten zien orduen. Akordetan naz, etxe baten bazkarixe zan. Karobixe erre ta, jo, ba, gero famelixen artien zelebrau eitten zan, klaro! Eta akordetan naz zelan etxe baten eukien —ni txikitxue, eta—, etxe baten eukien kuajada, gatzatue, ezta? Ta gero mallukixek, [...]. Eta [ni] orduen... kuajada... gatzatue gutxi gustaten jaten; mamia, ezta? Ta han batek [esaten eban]: “Ai! Neuk beste gauza batzuk gutxi jan biher dittut, baiña hori jan biher dot!”, neska bat zan. Ta zelan jan zittuen oin natie botaten jakon moduen, gatzatue bota zeai, mallukixei, eta jan. Horretxek... horixe daukat goguen!
- Detalle hori goguan dakazu, orduan...
- Bai, bai, bai, detaillie. Gaztie izengo nitzen ni orduen, klaro! Bai, ta egun baten, ba, hori eitten zan.
- Orduan gero zelebraziño moduko bat eitten zan, bazkariren bat edo...
- Bai, bai, eitten zan. Haik familixa bixen artien. Gero bestiei be, ba, zeoze emungo jakuen nos edo nos nunbaitten, nik ez dakit...

## 2.37. Karea etxeak zuritzeko ere erabiltzen zen

- **Hizlaria(k):** Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-032/007
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Baserriak zuritzeko "letxerie" egiten zen. Nola egiten zen; igeltseroek paretak zuritzeko erabiltzen zuten. Etxeak noiz zuritzen ziren. Auzoko jaiak San Migeletan izaten ziren, eta ordurako etxe-garbitzeak, koltxoi-garbiketa, e.a. izaten zen.

### Transkripzioa

- Baiña esan dozu momentu baten letxeria edo eitteko, basarrixak zuritzeko...

- A, bai. Hori... Guk geuken aska bat harrizkue eta haintxe eitten eben nere aitta zanak eta aittaitte... aittajauna esaten dou guk, ezta? Zanak eta haintxe eitten euen. Nahastu, nahastu, nahastu eitten euen ta tapau, tapau, tapau ein tablakín, tabla batzukín edo —beste gauzaik zer egongo zan, ba, orduan?— tablakín tapau eta beti botaten otsien ure, betik uraz. Eta gero paletiekin “ra!” hartzen zan ta sendo-sendue egoten zan, ura behien geraketan zan. [Gaiñera], paletiekin hartu ta, ba, igeltseruek han eitten eben kaldaran mezkli ta, ba, paretak-eta zuriketako.

- Hori zenbatero eitten zan edo?

- E?

- Zenbatero eitten zan hori, basarrixak zuritzia? Urtian behin...?

- Urtien behin bai, e!

- A, bai?

- Bai, bai, bai. Ta nere etxien sukaldie be urtien bi bider be bai. Tia be ondo gustetan jakona izeten zan ta...

- Gaiñera hori, ez dakit, ze izaten zan insektu edo edozein gauza... zikinker...

- Igual... igual... hemen betik die... hemengo patroie da San Migel, setienbrien, ezta? Hogeta bederatzixen. Oin aldatuta egoten da aurreko igandera, domekara, jaixe edo holan. Baiña San Migeletarako? Danak! Bai, bai, hori ta koltxoiek eta danak jo ta garbittute! Lanazkuek, ezta? Ta gazte-gaztie nitzenetik ikesi neben josten koltxoiek. Amak zabalduite ifintten osten dana hola, ondo, ondo, eta txiki... txikiñe —oin be ez naz haundixe ta orduen txikiñe, klaro—, baiñe afan bat josten...! Izeten zan orratz luze bat ta zinttak, ta zuluek eukitten zittuen [arkuetan] moduen koltxoiek. Ta holan eskua azpíxen sartu, koltxoien azpíxen, ta goittik norberak topau zulue ta gero bestien sartu gora ta gero gibistie ta ya esta. Gero azkenengo josten notsen puntie. Baiña gaztie nitzela, e! Hamalau bat urte? Ba, hamalau-hamabost bat urterako josten neuen nik koltxoie.

- Demaseko lana izango zan hori be bai koltxoi guztiak astintzia ta...

- Soltau, zinttak-eta kentzen jakon, muturre soltau ta ifintten zan eguzkittan zera, lanie, hobeto joteko. Ta gero [iregurraz], bi egur alkarreana lotzen die eta norbera zutik dala oso ondo eitten da. Bata bueltaka faten da, baiña bestie eukitten dozu eskuen.

### 2.38. Zenbait datu biografiko

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Zubia, Cipriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-038/001
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** 1918-09-16an jaiotakoa, Bolibar auzoan, Eraña baserrian.

#### Transkripzioa

- Zer urtetan jaixotakua?
- “18, 18, 1918, 16 setiembre”
- Oso ondo, oso ondo.
- Larogeta zortzi urte!
- Ondo, ondo baiña, guapo zare.
- Eta zer, oin zer ikusi bihar dozu?
- Ba, aber, kontaidazu... nun jaixotakua?
- Jaixota?
- Bai.
- Golibarren.
- Gollibarren?
- Bolibarren.
- Eta han nun, eliza onduan, edo auzunaren baten, edo zer baserrittan?
- Eraña, Eraña!
- A, begira!
- Eraña, “caserio” Eraña!
- Eta zelakua, zelakua zan zeuen basarrixa?
- E?
- Zelakua zan basarrixa?
- Bazkaixa?
- Basarrixa.
- Pakita: Basarrixa zelakue zan!
- Basarrixa, ba, oin, jausitta ya, bringauta dao erdittik. Ura dauko azpixon, ta... baiña orduen basarri ona. Etxe ona.

### 2.39. Ikazkintzan aitonarekin

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Zubia, Cipriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-038/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Umetan aitajaunarekin ibiltzen zen ikatza egiten. Eraña auzunean zeuden baserri izenak aipatzen ditu.

### Transkripzioa

- Aittajauna ta... gu ikazgiñan ibiltzen gitzen. Ni mutikua, eskolatik fan ta gabien han lo eitten nauen nik basuen.
- Txondorra zaintzen?
- Txondorrak ein ta [betegarrixa] bota ta... Horreik danok eitten gittuen.
- Eta, bestela, Eraña basarrixa, han inguruan ermittaren bat be badakazue, ezta?
- E: Bai.
- Ermittaren bat badau han...
- San Andres.
- San Andres?
- Bai, San Andres dau han.
- Eta basarri asko zeren inguruan?
- E?
- Zenbat baserri aazen Erañan?
- Ba, Erañan lau... lau basarri ta gero gorau beste bi, sei. Daz Erañagoitti ta [Burdintxuena], bi; gero Akixona, hiru; Erañagoitti, lau; Txorixana beste bat, bost; eta guria, sei.
- E: Oin barrixek be eindda daz, e?
- E?
- E: Oin barrixek be eindda daz.
- Oin barrixek eindda egon biher daue, bai. Oin barrixek eindda daaz. Erañagoikuen barrixe eindda da. Ta gero [Burdinxonien] be beste txalet bat eindda ta... Oin barrixek eindda daz. Zaharra zan Eraña [goikue] etxe haundi bat ta ha bota ein daue ta oin barrixa ein daue lobak edo...

## 2.40. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Zubia, Cipriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-038/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Ur-korronterik ez zuten baserrian bera umea zenean. Leteko iturrira joaten ziren ur-bila; erre kara joaten zen ama arropak garbitzera. Ama jostuna zen eta baserriz baserri ibiltzen zen lanean. Cipriano gaztea zela familia osoa etorri zen herrira bizi izatera. Antzinako bizimoduari buruzko gogoetak.

### Transkripzioa

- Eta ur-korrientia grifuan? Ezautu zenduzen etxe...
- Aurrekaldien erreka bat [pasatzen zan], handitxik ura.
- Handik ekartzen zenduen?
- Erateko ez, erateko Leteko iturrittik. Ura, barriz, mosue garbiketana erre kara.
- Erre kara... Eta erropak garbitzera-ta erre kara be bai?
- Erre kara. Bai. Holaxen lehenauko zaharrak
- Bizimodu gogorra, ez?

- E: Oin balegoz haik [bizi...] ze esango ete leukie? Ene!  
 - Oin botoiari emon ta erropa guztiak labadorian garbittuta.  
 - Ya lo creo!  
 - Orduan, ama ze ibiltzen zan, erreka juaten zan erropak garbitzera, lixibia eittera?  
 - Ama josten ibiltten zan.  
 - Josten ibiltzen zan, e?  
 - Ta amandria ta.  
 - Eta ze eitten zebe, ba? Liñua edo eitten zebe?  
 - E?  
 - Gorutan eitten zebe?  
 - E: Ez.  
 - Ez... Joskiñak zian, orduan?  
 - Josten bai, josten baserririk baserri ibiltzen zan! Mendiolara ta faten zan handik.  
 - E: Makiñie eskuetan hartu ta...  
 - Bai, makiñie eskuetan hartu ta [...] zerien baserririk baserri.  
 - Eta nun ikasi zeban berak josten? Hemen kalia edo?  
 - Ez dakit, hoixe ez dakit nun ikasi euen ez dakit.  
 - Orduan, basarri basarri makiñiak josten. Eta hori ze izaten zan piezia amaittu arte basarrixan egoten zan?  
 - E: Bai, baiña goxien jun ta gabien etorri [...].  
 - Bai, bai.  
 - Amaittu arte han geratzen zan...?  
 - Bai, [...]. Gero kalia bizi gitzen gero.  
 - E: Gero kalera bajau zien.  
 - Gero kalera etorri gitzen eta kalia bizi gitzen.  
 - Ederra kanbixua, ez?  
 - Gero ni fabrikara fan nitzen esku-lanera, horra Uribarrenera esaten jakon orduen. Horra fabrikara sartu nitzen hamalau urtekin. Ta, gero, ba, gerrie etorri zan ta gero gerra-denporan gerrara.

## 2.41. Etxean jende asko

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-045/010
- **Iraupena:** 00:02:44. **Hasi:** 00:23:46. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Gregoria Urazandi baserrira ezkondu zenean, senarra, haren gurasoak eta bi anaia zeuden etxean. Etxean ez zegoen urik. Etxean ura jarri eta gero, oinaztarri batek ur-andela hondatu zuen.

### Transkripzioa

- Hona ezkondu ziñanien, hemen zenbat jente euen etxien?  
 - Bat aitte eta seme bi.  
 - (Alaba): Aitte ta ama. Bi seme eta beorren gizona beste bat, hiru.  
 - Hemen ganaurik eta beuen zu ezkondu ziñanien?  
 - Errekia, han behien, urik bapez. Esango dotsut, sekule, honek esaten dau

sarrittan errepetiuten dost baiñe, sekule esan dot. Aber, kamiñue, hor kamiñeruek auen koiñatie ta koiñatue, eta hor beheratxuau ura euen, metala dala ez zala. Hemen bapez urik. Errekara gure aizta difuntia, Jaungoikuak zeruan euki daixela, han bueltan badau ba kamiño ez gñan ure, kamiñuen?

- Bai.

- Hara faten zan janordua itteko. Alargun jarri zan gerra denporan, suerte txarra euki auen, gizona ia aurrera eruen ta suerte txarra. Hemen egoten da sarrittan. Bestela errekara. Gero kamiñue, katapaza hori koiñatuori, zera kamiñuori erdibittu eta kamiño erdixe kotxie pasetako, eta beste erdixe tubuek pasetan, tubue, eta harek barrura sartzen zanien ha ondo ifiñi ha aldie, eta handik fan daittezela kotxiek, beste aldetik, beste aldie ifintten. Bost bat, dana in euen, kuadrilliak. Ondiok akordetan naz, hamarretakua erueten fan nitzen, eta hamarretakua jateko beste bat be bai, [...]

- Eta orduen ze in zeuen, etxera ura ekarri?

- Bai.

- Zenbat urte zeukatzun zuk orduan?

- Gero ure hona eta bost batek, orduen deposittue suerte txarra euki geuen guk, ez ur eta ez argi, itxurie iñiztue sartu zan barrure.

- Zer sartu zan?

- Iñiztue depositto zaharrera, han dau deposittue. Bueno, horreik be pasau ziren.

## 2.42. Oiloak ardien ordeiz

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-046/002
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Zortzi urtera arte bizi izan zen Olagoitin. Ardiek lan handia ematen zuten eta oilo-ustiaketa jarri zuten etxean. Kalera etorri ziren bizitzera eta txitak kalean hazi ondoren oilandak baserrira eramaten zituzten.

### Transkripzioa

- Zu Olagoitin jaixo ziñan eta noiz arte egon ziñan han?

- Ba zazpi-zortzi urtera, hortxe. Ta handik bajau giñanian kalera.

- A, zazpi-zortzi urtekin e! familixa dana?

- Bai, osea ke gu, gure aitte ta ama ibiltzen zien betik olluekin. Labrantzan, nik labrantzarik ez neben ezagutu. Eurak lehelengo ifiñi ziren ardixekin baiña gero ba zela Bergarara-eta urten bihar euen neguen ze hemen ez zeguan pastorik ardixendako-ta orduen etxetik kanpora zelan urten bihar izeten ben negureko ba orduen ardixek kendu eta olluek ifiñi zittuen. Ta gero, osea asmue euen Bolibar eta (...) ibiltzeko. Hamen atara txitxak, geunken lau inkubadora, atarate zittuen mille ta seirehun txitxe batera. Ta hamen hazi eta ollendak eruten ziren baserrire.

- Hamen hazi, kalia?

- Hamen hazi txikixok ta hamendik ya ollendak handitxuek euzela eruten zien baserrire eta ibiltzen gittun baserrixe eta kalie, bixek.

### 2.43. Gerraostean mendira lanera

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-046/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** 1940. urtean oilo-ustiaketa guztia kalera ekarri zuten. Gerraostean, pentsu gabeziagatik, oiloak alde batera utzi zituzten. Basotik sutarako egurra kablez jaisteari ekin zion orduan aitzak, Alabitatik "Depositto Zaharrerraino".

#### Transkripzioa

- Baiña gero pentsuendako eta ha ya txarto euela, ta bueno ta ya dezididu zien hona etortie. Ta hona guztiz etor guztiz "en el año cuarenta" edo holakon bat. Bai.
- Eta horren orden oillueri jare, jarein zotsein?
- Orduen ez. Oillueri gero jarein getzen zelan pentsurik ez zeuen gerraostien, ya orduen ba oilluek kendu ein bihar izen zien. Orduen hasi zan gure aitte mendittik ifiñi kabliek, horra Zubibarri esaten jako, uren deposittuen onduen, hortxe ifiñi estante ba osea holako zer bat ta han deskargetan zan. Osa kablien etorten ziren egurrek ta han deskargetan ziren egurrek.
- A, egurra bajaitten...
- Egurre bai, bai, bai. Bai, ez dakit nik zemat kilometro egongo diren hortik Alabitzara eta hor, basoko arbolak ba ordun ba kendu ein bihar ziren.
- Nundik noraiñon ekarten...
- Bolibarretik, Bolibar goixik, goittik e, Alabitxa mendixa, Alabitxa izena, ta handik horraiño bajaketan ziren egurrek kablien.
- Eta esan dozu ekarri zittula ura dauen depositoraiño?
- Bai.
- Zela dau izena leku horrek?
- Depositto zaharra. Oseake Galartzetxe bizitza bi zuk esan dozu, ezta?
- ...
- Bueno ba haretxen ondo-onduen dau hori deposittue. Lehengo deposittu ure, oin ba Urkulutik dator ure baiña hona lehen urtero etorte zan ure Zelaitxuetatik. Edarra ure, bueno! oingo urek ur horreaz ez deko konparaziñorik.
- Ez harek ez zekan klororik ez , ezta?
- Ez horixe! tuberixie, lurretik dana, lurre osa ure eder-ederra. Ta hantxe onduen eote zan estanterixa, estanta bat kabliaz poleaz etorten zan ta ba hantxe deskargetan zien.
- Osake orden egur kargie euen, baiña kablez.
- Kablez, kablez, kablez.

### 2.44. Su-egurra saltzen

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ESK-046/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:01. **Bukatu:** 00:06:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Astoekin poleak jasotzen zituzten su-egurra jaisteko. Pinuak sartzeko basoak garbitzen geratzen zen egurra erosi, etxera ekarri eta zatitu egiten zuen ekonomia edota berogailuentzako. Gero etxerik etxe saltzen zuen. Gasogenodun kamioientzako ere saltzen zuen.

### Transkripzioa

- Ta gero astuekin eroate ziren polea hutsek astuekin mendiraiño eruten ziren harek. Ta barriro harek poleakin etorte zan egurre, kablien.
- Eta gero egurre kamionetan edo...
- Egurre gero hortik hona ba kamionetan, kamionetan ez astuekin normalmente. Ta gero hementxe eskapeien ta osea beste habitaziño bat dao barrurau, zerrie ifiñi ta hor zatittu.
- A baiña sutegurra zan?
- Bai sutegurra zan, sutegurra, sutegurra bai.
- Osea piñuak eta ez?
- Ez, ez , ez. Pague ta ba horrek.
- Sutegurra, sutarako egurre.
- Porke ordun modan jeuen ba piñue sartzetxe. Eta piñue sartzeko ba basuek hutsittu ein bihar ziren, ta orduen ba ba paguek eta haretzak eta horreik ba eurak ebaten zittuen “osea los dueños” . Eta guk gure aittek-eta erosi, ta hona ekarri ta hamen zatiketan ziren ekonomikarako moduen eta beste batzuk handitxuauek estufatarako. Ta gero hamen errepardutun ziren harek egurrek, danak etxerik etxe eta holaxe errepardutun ziren. Ta asko eruten euen kamioiekin Bitorixara. Bai kamioiekin, gasojenuek eta zela orduen ziren kamioietan, harendako eruten ziren egurrek, harendako ebai bihar izaten ziren itxikitxuek, bai.

## 2.45. Oiloen ustiaketari ekin berriro

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-046/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:06:21. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Durangoko jesuita bat etorri zen oilo eske. Pentsua berak zuzenduko zuela, eta berriro ekin zioten oilo ustiaketari. Jesuitek gobernuaren baimena omen zuten pentsua lortzeko. Karmenek 16 urte inguru zituen orduan. Arrautzak ere saltzen zituzten Durangon. Horrela jarraitu zuten pentsua erostea berriro libre izan zen arte.

### Transkripzioa

- Ta gero handik urtetxo batzuetara, ba nik ez dakit lau-bost urte edo sei-edo, etorri zan Durengoko Jesuita bat. Hona etxera. Ta preguntau eben, ba

gure aittatik ta karo kalien eta etorri zan eta aitte ez zeuen ez daki nora fango zan baiña aitte orduen ez euen. Ta amagaz, amagaz egon zan ta harek esan eutsen: “a ver si le podíamos sacar unos pollitos”.

- Baiña zuek ya hori kenduta.

- Inkubadorak ondiok be hortxe daz, hortxe daz ondion be. Eta “a ver si le podríamos sacar y criar”. Ta amak esan eutsen: “sacar es un poco difícil pero si se puede hacer, fácil”. “Le decíamos, con petróleo estaban las incubadoras”. “Pero luego criar no hay pienso, y no podemos criar”. “De eso no se preocupe, todo el pienso que necesitan yo les traigo al portal”.

- Erdalduna, emakumia?

- Jesuittie zan., jesuittie bai. Durengon zeren Jesuittak. Ta hortittik hasi ta ifin ginttun barriro olluek. Klaro, orduen estraperlue zan, pentsue eta hala ibiltzie...

- Eta jesuittek itten euen hori.

- Baia jesuittak ba libre euken itxurie.

- Jaingoikuaren izenian.

- Hareri emote otsen gia, gobernuek emote otsen gia klaro. Baeuken ume asko, mutikuek eta estudiantiek asko, eta gobernuek emote otsen gia ekarteko pentsue, “osea ellos podían trabajar con el pienso”.

- Gero ollaskuk-eta eskolan jateko?

- Ba komentuen. Komentuen klaro, estudiantiek ekezan orduen asko han be. Ta holaxe hasi nitzen barriro olluekin.

- Ta orduen jesuittak ziren.

- Bai bai, Durengoko jesuittak. “Hermano Antonio” oso gizon majue ta bueno... balixo ebela gaiñera negoziarako balixo eben, ba!

- Ta orduen, zuek zemat urte zittuen? Hori pasau zanian?

- Hori pasau zanian ba nik hamalau-hamabost bat urte, edo hamasei bat bai eukiko nittuen ya. Bai bai. Eta gero ba beragaz amistade haundixa hartu gendun porke klaro berari be edarto etor jakon hareik: ollendak eta ollaskuek eta danak. Eta klaro ba gero gure aitzie Durengora, bueno aizta bixek fango ziren lehelengo, durengora arrautzak saltzen faten ziren.

- Etxeko arrautzak.

- Bai bai, etxekuek, etxekuek.

- Zu orduen hain pentsuakin atzera be olluek ifiñi...

- Gero ha ifin ginttuen olluekin bai eurei pentsue pagetan jakuen, ba etxien konsumiduten zana ta zea, ta bueno gero ya libre jarri zan, ta libre jarri zan ta ekarte eben, Bittorixatik ekarten eben pentsue ta gero etxerako urune olluendako.

## 2.46. Pentsua etxean prestatuta

- **Hizlaria(k)**: Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-046/006
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:08:56. **Bukatu**: 00:11:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Aitak pentsua egiteko errota jarri zuen etxean. Jesuitak Argentinatik ekarritako artoa eta beste hamaika gauzeekin prestatzen zuen oiloentzako janaria. Artoaren zakuekin ohazalak eta sukalderako trapauek egiten zituen amak.

### Transkripzioa

- Aittek preparentan eben. Ifiñi eben errotie be bai, porke gure aitte oso artistie izen zan. Ta ifiñi eben errotie bertan osea Bolibarren euen errotie, baiña gero zuk guk osea sozio, auzo dana ba sozio, baiña zela pentsu asko gastetan geben eta aparte jo eitten geben, ba batzuk kejau ein ziren ba!
- Eurek baiño gehixau ebaten zebillelako?
- Hori ba, hori da. Eta gero aittek esan eben: “bai hori be bai? Ba ifiñikou etxien errotie eta jokou etxien”. Ta holaxe preparentan zittuen. Gero nire anaie be oso artista, oso terriblie da, bamos zan por desgracia. Tesan eitte ben lana ta tesan burdinakin ba gero klaro tio be horren, oin ein bitzazu entrebistie? Ba horren aitte egote zan han ta jose bera be artistie ta euren artien ein euen tanbora bat, burdiñieaz ta gero hantxe botaten zitttuen hamazortzi klase gurien aittek, botaten zittuen olluen pentsuetarako, “que si carne de gallina, de pescau, de carne conchilla en harina” eta bueno nik ez dakit zertzuk, “panizo”, dan-dan-dan-dana jota, garixe, artue, dana.
- Material dana jo eta gero nahastu berak eitten eben.
- Exaktamente.
- Orduen, ya konpuestoa erosi biharrik ez zeukan.
- Ez, ez, ez, ez. Hantxe tanborrien dana, ta artue denboralditxuen egon zan, eurok, jesuittak ekartzen zittuen “de Argentina” artue ekarten euen.
- Aiba, hemen ez zeuen artorik?
- Gutxi orduen, gerra ostien. Ta harek zela Argentinan etxurie konpañian bat eukiko euen ta hola ebaketan zittuen. Ta etorte zien zaku zuri-zuri-zurixek, ederrak zakuek holakotxe zuri-zuri-zurixek baiñe eder-ederra. Oindion gure armarixuen bada, porke ama be holakotxie zan, dana aprobetxetakue ta harek zakuekin lehelengo ein zittun sobrekamak.
- Sobrekamak, arto zakuekin?
- Bai, bai. Esate otsut, oingo sukaldeko trapuk ezer ez dabe balixo, lehenauko harizku harizko harek, harizko harizkoak e? holakotxiek zien. Holakotxiek. Eta ein entre dos bat, bera gantxilloagaz oso artistie zan, gantxilloagaz entre dosa ta lozakuekin sobrekamie. Bai, ta gero harekin sobrekamakin sukaldeko trapuek in zittun, ta ondiok sukaldeko trapuek hor armarixoan egongo die atarateko estriñetako.
- Oin dala, oin dala zemat urteko kontue da hori?
- Ba zakuek ez dakitt, ze ifintten ban “el año cuarenta y dos, me parece que ponían”. Bai, bai, bai, bai, bai, bai.

### 2.47. 2.000 oiloren arrautzak saltzen

- **Hizlaria(k)**: Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-046/007
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:11:42. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Inkubagailuak zeuden tokitik aldatu eta denda jarri zuten. Bi oilategi zituzten etxe ondoan. Baserrian 2.000 oiloraino eduki izan zuten. Gasteizera eta Donostiara saltzen zituzten arrautzak. Baserritik trenera astoz, eta tren geltokitik saltokira orgaz eramaten zituzten arrautzok. Goizean zaperoa eta arratsaldean alea jaten zuten oiloek.

## Transkripzioa

- Orduen, orduen atzera baserriko martxiori hartu ein zeuen?
- Barriro olluekin baserrixe itxi geben.
- Baiña olluek non hazten zittuen, hemen bertan?
- Hamentxe, hamentxe. Hortxe atara, ze eskapeko onduen dau zera kuartue. Oin dau bamos gero zerrau geuen, baiñe han egon zan librerixie, periodikuek-eta saltzen zittuena eta oin zea lau inkubadora justu-justuen sartzen ziren hantxe. Eta gero aiztiek ifiñi eben han ba dendatxo bat, periodikuek eta dana saltzen zittuena ta gero horreik inkubadorak pasau zittuen barrurau eta hortxe hasi eta gero geunken hamen bi ollotegi, oin bota dittuez danak hamentxe bat, ollotegi bat, hamentxe etxe ondo-onduen ta beste bat errekie pasau eta harutxau be geure terrenue zan, bamos ondiok erosteko geunken e! ta hantxe beste ollotegi bat ein ta ba hortxe hasi ta gero hemen behien lo ta hemen behien eitten euen ta ba holaxen hasi giñen.
- Ta zemat ollo euki zittuein aldiko?
- Baserrixen bi mille pasauraiño allegau ziren.
- Bi milla?
- Bai, bai bai, bai.
- Horrein danan arrautzak saldu eitten zittuein?
- Bai Bitorixera faten zan aitte Bitorixera ta Donostiera.
- Dendatara eta hola?
- Bai, plazan. Mas ke nada plazan baiña bera hara allegetan zanerako holakoxe korrue eindde, abasto emon eziñik. Klaro ba arrautzak bakizu fresko-freskue eta edarra. Ollo zuri-zurixek ta ba baserrittik, ba eguaz... eguenetan faten ziren eta eguazten dan-dan-dan-dana eta martizen atsaldie arrautzak ifinten, kajatan. Kaja espezialak eindde ta gero astuekin bajau, orduen ez zeuan kamiñorik.
- Astuakin kalera ekarri gero aittek zer eukan kamiona?
- Ez trenien.
- Trenian.
- Bai trenien, kamioie euki, dirue be nun euen ba?
- Eta gero trena eta gero han estaziñotik merkaura? Bai bertan ya estaziñuen horrenbeste urtien ya hartute euken bertako ba “un mozo”, ta karro handi bategaz bi biaje edo hiru-edo handittik plaza de abastosera.
- Zemat arrautza erute zeuben?
- Ba milleka dozena erungo ziren.
- Osea bi milla olloraiño.
- Bai bai, bai.
- Eta hemen kalien euki zittuenien?
- Hamen, hamen gutxi. Hamen zazpirehun-zortzirehun. Ointxe, ointxe hiru urte dire kendu gittunak azkenak. Bueno gero gutxiau geunekn porke bagenekigun ze zetorren o ze problema geunken. Baiña hemen be laurehun-seirehun egon da, eukitte gaz. Bai, bai, bai, bai. Hor ez zeguan bedarrik oingo moduen, porke orduen suelto, orduen danak suelto ibiltzen ziren. Goizien, bai bai, bai. Ta goizien emoten jakuen zaperue eta eguerdixen be bai. Eta gero atsaldien ya granue: garixe, olue eta artue. Garagarra ez jakon /etxakon/ gustetan aitteri, garagarra esaten eben ha kaballuendako zala. Ta gero zera “panizo”.
- Panizo ez dakit zer dan.
- Panizo...
- Ez da izango kañamuen....
- Haxe hazixe, “eso es”. Eta gustetan jakuen ollueri, bueno... Lehelengo batzen euena haxe izete zan.
- Kañamuakin, kañamuen familixako landarakin eitten dittue porruek.

- Eitten dittue?  
 - Bai.  
 - “¡Ahí esta!”  
 - Gustau ollueri be.  
 - Bai, bai, bai.  
 - Kakaraka gustora eingo euen.  
 - Bueno hor egoten ziren kakaraka arrautzie eutten ben bakotzien., bueno! Kakaraka horixe eitten euen.  
 - Baiña igual panizua jan ta musikie ta dana.  
 - Ez dakit hori. Ez dakit baiña asko gustetan jakuena bai. Ta gero artue ta gero hurrenguen garixe. Azkenengo olue izten euen. Baiña bueno, jaten euen ha be.  
 - Osake ondo gobernautako...  
 - Bai, bai, bai. Ta klaro arrautzak famie, bueno... ta “¿son frescos?” ta gurien aittek askotan eitte eben kaskau ta klik “pa que vean que son frescos”. Gero preguntaurik bez.

## 2.48. Inkubagailuak

- **Hizlaria(k)**: Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-046/008
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Lehenengo inkubagailuak petrolioarekin berotzen ziren. Gero elektrifikatu egin zituen aitzak. Elgoibarrera, Eibarrera eta Durangora joaten ziren arrautzak saltzera. Etxeko dendan ere saltzen zituzten.

### Transkripzioa

- Ta gero gure dendie bakitzu zela hasitte dauen? pentsaizu nundik alla...  
 - Hau? Beheko dendatxu hau?  
 - Bai, bai. Aitta fan arrautzakin Bittorixera, ta sagarrak ikusi han baserrittar batek eta “¡Jose Mari, lleva huevos, uy, lleva manzanas, ya que has traído huevos ahora lleva manzanas!”. Barkatxu bat sagar hartu ta haretzek saltzen lehelengoketatik, haixe zan gure “la primera venta, una barca de manzanas”.  
 - Ta orduan dendia osea fruta saltzeko dendia ipiñi zeuen.  
 - Bai, bai, bai, bai.  
 - Esan dozu zure ahizpiak periodiko dendia-edo.  
 - Bai, baiña hori ya ezkondu ta gero.  
 - A, hori geroko kontue da.  
 - Geroko fanada euen bai. Baiña ha dendie ifiñi euen lekuen egon ziren, lehelengo-lehelengo baserrittik bajau zienak inkubadorak. Ta lehelengoko urtietan, urte askuen egon zien petroliueaz ataraten gittuen. Bai, txitxak atarateko bai, bai. Porke klaro ure bihar daue gaur (...) egunien bi buelta emon bihar jakue arrautzari be, goixien eta gabien. Bai, olluek be emoten (...) buelta, inkubadoratan bai.  
 - Eta gero baserrixen ollalokie egoten zan.  
 - Exaktamente. Baiña arrautzak horrei bai eitten eutsan aittek kurtze bat,

ta goixian ha kurtzie gora begire, ta gabien behera begire, bi buelta emoten jakuen. Eta gero elektrifikau in zittuen inkubadorok, ya elektrizidariegaz. Ta petroliuena porsiakaso ez gentson kendu porke orduen argixe Bolibartik etortze zan ta uran askotan, zela ura falta zan, orduen ba bixetara egon zien.

- Karo ze ya zuek hotziketan jatzuez arrautzak eta danak galdu.

- A bai, bai, bai, bai, bai. Sekule be ez geuen euki problemarik arrautzak saldu eziñik. Gero aitzak Elgoibar, Eibar ta Durangora bixetara, hiruretara ibiltzen ziren.

- Trenez hareik be?

- Harek trenez, trenez klaro! “es el año cuarenta”. Bai, holaxe izen zan gurie, ta gero dendie ba apurke-apurke-apurke, “pues hasta ahí hemos llegau”.

- Ta gero dendia ordun hasi ziñanian sagarra saltzeko.

## 2.49. Aita eta osabak ganadu-tratulariak

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/017
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:20:05. **Bukatu**: 00:21:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Beraien aita ganadu-tratularia izandakoa zen, beste bi osabarekin eta beste batekin batera, 4 sozio ziren. Agurainera ere joaten ziren eta behin Agurainetik Gure Ametsa trenean 20 ganadu buru ekarri zituztela gogoratzen du. handik pinudietara eraman zituzten. Okeletako ganadua zen, Arrasateko eta Aretxabaletako harakinentzat.

### Transkripzioa

- Ganaduak-eta bazeukatzuen.
- Gure aitta beti tratantia izan da.
- Ganau-tratantia?
- Beti. Ta Gatzagako tio bixek be, tio bixek be tratantiek. Ba orduen e akordetan naz ni Salvatierran kriston ferixie itten zan, ta gure aitta Bentafrakua bestia ta Gatzagako tio bixek, laurek soziuak ziren, ta akordetan naz baten, horra Gure Ametsako trena ha geraketan zan lekura, ekar zittuen hogeï ganau. Erosi zittuan Salvatierran ta horra ekarri zittuen emerjentzia baten, etor zittuen eta gu danok fan bai, ta handik ganau danak aurrien dittula hemetik beherutza geure piñudi batera. Ta hamen etxen eitten dozena bat karnazeruek orduen, joño bazekiñen bagatozela eta.
- A, okeletarako ganaua?
- Karo. Ta orduen: “hau neuretzako”, ez dakitzu? Markau eitten etten, “hau neuretzako, bestien zein...”, Mondraorako ta Atxabaltarako. Enda zuzen basora erun gittun bai? Ta guk piñue orduntxe zerraua ta piñue sartu barrri, ba holako piñue-edo egongo zan, harek ekarren gosie sartu zirenien jo ta piñue ta danak jo zittuein. Akordetan naz ondo.
- Atzera be sartu bihar piñua.
- Joe, harek dakarren gosiaz. Ba ikusten euen berdia barrura. Bai, aitte tratantia izan da beti bai.

## 2.50. Mateo astoa

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-048/021
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Astoa beti izan dute, Mateo izeneko astoa aipatzen du. Beti lotuta egoten zen eta eta Gatzagako Paskuel bete-beteta zegoela, txiza egon behar zuela eta Mateorengana joan zen, Mateok ostikada eman eta Jesusen aitari deika hasi zen Paskuel. Lan asko egindakoa izan zen Mateo, oso asto ezaguna izan zen. Asto zaharra zen Mateo eta Gatzagako batzuk Mateo hil eta jatea pentsatu zuten. Handik gutxira astoa hilik aurkitu zuten.

### Transkripzioa

- Ta komunera joan bihar euela txize eitteko edo zerien ta atie zabaldu ta astue egote zan ixa han atera bittartian beti lotuta, Mateo euen izena, famosua Mateo, hemen munduen danien. Ta hak atie zabaldu orduko han illunien ba txiza eitten da itxuria astu aurrien txiza eitten atzetik eta astuorrek halakoren baten “ba!” zarta ostikadia, mekauden la letxe! Ikusten nau. “Ie, Prudentzio,” -Prudentzio euen gure aittek izena- “zer jauk hor?” ta astu horrek ostikadia emon, jentiek barre ein. Ba astuen paraderue izen zan azkenien, hementxe Gatzako bat, lan eitte eben Mondraoen ta astue ya zutittu en biher izete zan noberak.
- A, ya zahartuta?
- Ondio, zaharra? Esate eben ehun bat urte eukiko zittuela. Ta karo zutik

ibiltzen zan, igual fan Gatzara,erremolatxie ekarri guran “danba-danba”,  
baia etzitten zanin zutittu ezin, karo danaoi pasau bihar jakuna.

- Artritis.

- Bai, ezin zutittu ta orduen noberak jaso ein biher ta gero ba aurrera. Ta azkenien pentsau bien honek Gatzako, Gatzako zela zan izena? Bata han kastillokue zan, kastilloko mutilzahar bat zan, lehenau fraile-edo egondakue-edo. Bete-bete indda akordauko jok: “hi, hori Mateon zerak solomulluek jan bi’ku”. Akordau e! astu hori solomillue jan bigula ta astuek ez dakit ba entendi edo ein euen edo zer astue ekarri horra tabernara ta joe (...) ein biher dogula solomillue jan biher dogula ta zera. “Bueno bueno, pentsau bez!” hartu eingo ben eta hurrengo ostien zer? Hurrengo egunien fan ta astue akauta, badakitzu zegaittik? Astueorreri ebatu azpittik da jasoten eta ez dakitzu? Auskalo, astu horrek ehun bat urte ba eukela. Ta sartu kotxien ta... bai ta hurrengo egunien astue ittuein akauta, aurreko egunien solomillue jan biher euela ta. Bai, hor akordetan naz, mekauden diez!

- Mateo.

- Mateo. Mateo izena.

## 2.51. Kontrabandoan Mateo astoa laguntzaile

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-048/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:53. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Garia Ozaetatik ekartzen zuen Mateo astoak. Bertan kargatu eta menditik astoa etxera joaten zen bakarrik, eta anaia bizikletan errepidetik. Beraiek jakiten zuten anaia noiz zetorren baina baita Guardia Zibilek ere. Egun batean etxeko tabernan egon ziren Guardia Zibilak zain, baina beraiek ikusi barik, astoak zekarren garia batu eta Guardia Zibilak astoa deskargatuta ikusi zutenean harritu egin ziren.

### Transkripzioa

- Eta zuek garixa eta artua-eta ereitten zittuein-edo?

- Ez, ez. Garixa horrek, Mateok ekarri zeretik Ozaetatik eta hortik. Gure anai bat be orduen estraperluan-ta, bakitzu estraperluan garixa harten ta jentie ibilli zan ta hari astuei, Ozaeta edo Asuan edo hor, kargau ehun kiloko zorroa-edo ta han esan: “Arre!”. “Arre!” esan ta hortik mendittik ha marjiñie ez dakitzu? Hara urten baserrittik, hortik Dorletatik, astue etxera. “Arre!” esanda e! ta bera ba bizikletan edo danetik bizikletan kamiñotik. Etxera etorri.

- Astua listua zekazuen orduan.

- Ta anekdotie beste bat da. Karo guk bagenekixen anaia hori datorrenik hiru-lau astogaz igual urteten euen Ama Birjiña ondora, Guardia Zobillak be jakiñien e, danak jakiñien “este suele traer trigo” bestiek eta zer, enda han zain euela ni bizikletan fan ta: “E, etxazek iño be”. Handik Ama Birjiñe bajatu, Ama Birjiñe hortik zeretik etxera. Ta etxakiñot [...] edo ez dakizu?

Ba egun baten bera goititik bera ta etorten naz etxien ta Guardia Zibilek gurien, tabernan, tabernan hortxe mostradorien zozer ta “Hi ba etxien jazak!”. Harek “Este tío ya vendrá pues, tiene que llegar ahora, ya vendrá”. Ta Guardia Zibilek barruen dazela, hortik etxe ostetik bueltan astue sartu itxuera, deskargau ta gure anaia kontrabandistiori atien ra urten han ra ta Guardia Zibilek bertan ta: “hola”, “hola”, ostia esango euen “¿Y este? Le estábamos esperando ¿y este?”. Guk astue deskargauta ta holaxe pasau zan.

- Ta haik zain.
- Haik zain.
- Hareik pentsaitten eben astuakin harrapoko ebeilla.
- Klaro, Klaro.

## 2.52. Periko Arrasatera garia eramatera

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/023
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:26:43. **Bukatu**: 00:27:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Beranduago furgoneta batean garia eramaten zuten Arrasatera, Periko Arrasate okindegira. Jesusen anaiak furgoneta topera beteta, eta Guardia Zibilak adi egoten ziren, baina Jesus furgoneta aurretik bizikletaz joaten zen abisatzeko.

### Transkripzioa

- Gero eruten gauen furgoneta bat auken gero, erosi auen aittek edo semiek, anaiek-edo euranak beti Arrasatera, Periko Arrasate? Mondraoen. Bazakizun nun auen? Entraeran dau.
- Sarreran, ezkerrera. Panaderixie euan, ezta?
- Eskuman, panaderixia bai, Periko Arrasaten panaderixia. Ta hara eruten euen tolara bat euen.
- Joxe Bixentek kontau eustan han zera aiuntamientoko garixa han ixoten zala, ezta?
- Bai, dana dana dana. Ta taula bat euken ta hauxe zabalketie letxe tobie barruen ta hara zakuek esketan ziren. Ta gure anaiek furgonetie garixe a tope kargaute Guardia Zibilek hor egoten ziren, Marianistak ta hori, Eskoriatzatik Atxabaltako bittarteko zerin, hor ibiltzen ziren. Ta ni bizikletan; anaia geruau. Eta: “hik bijilau”, ta mekauden dios! Igual hantxe, ta Goardia Zobilla, haik ezautu gendun ta nik berutza fan, baiña behien buelta ein eta gorutza ta anaiak alto: “e, hor jazak!”. Ba norabataittera sartu edo gorde edo buelta edo in ta hola ibiltzen nintzen.
- Ta gero ze eitte zeuen gari horrekin? Etxerako euki?
- Saldu ez ez ez, ez. Perikori. Ba horixe, horixe eitte auen-eta.
- Estraperluan Arabatik.
- Estraperlua.

### 2.53. Egurraren prezioak gora

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/017
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Gerra bukatu zenean egurrak asko igo zuen, 6.000 pezeta metro kubikoko. Orduan baserritar izan edo ez izan, denak hasi ziran pinuak ereiten.

#### Transkripzioa

-Beste piñuirik ez zan hemen. Gerra akaau zanian, nik eztakitt, kanpotik itxuria egurrik ezin leikien sartu edo, Francok ez eukan tratabideik edo nik eztakit ze pasauko zan. Egurrak igo euen ikaragarri! Egurra asko igo euen. Orduen xei milla pezetaraiño metro kubikue igo euen. Orduen xei milla pezeta zan, nik eztakitt gaurko zenbat baiña diru asko zan orduen.

-Urte daneko jornala.

-Orduen xei milla pezeta diru asko zan. Eta gero danok, basarritar eta eztien guztiok, danok piñu plantan, ta gero urte morduen egon zan karu holaxen piñuoi, da urte morduen, da jentiek al dauen danak piñu plantan. Eta oiñ eskiña guztiek piñu ikusten die.

### 2.54. Arrasate eta Elgoibarko azokak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Domeketan mezara joaten ziren eta gero dantzari aritzen ziren plazan. Sasoi hartan Arrasateko azoka zen ospetsua, hilabeteko bigarren eta laugarren egubakoitzetan (ostiraletan) ospatzen zuten. Hainbat aldiz lekuz aldatu eta gero hara joateko ohitura galdu zen. Elgoibarrera joaten hasi ziren, hilabeteko azkeneko zapatuan izaten zen. Zumarragako Santa Luzia azokara ere joaten ziren.

#### Transkripzioa

-Baiña jaixak edo...

-Jaixek bai, jai hartzen gauen biha dan moduen. Orduen oin baiño, gero elixa kontuan be dan-danok faten gintzen elixara, danok faten gitzen orduan. Eskoritzan basarri-auzo bat beste etzan izen be. Eskoritzai oiñ haundi eindda dau baiña orduen zenbat ezen ba? Eztaitt, hamabost etxe etzien egongo ganau bakoik, deste danak ganauekin bizi zien, danok bizi zien ganauekin, bat edo bi edo hiru... Hor kale-kalien be danok ganauekin.

-Domeketan mezetara fango ziñen baiña gero plazan musikia egongo zan,

ezta?

-Bai, musikie egoten zan bai, bai, bai. Dantzan neskokin neskatillokin han ibiltten gintzen.

-Domeketan dantzan.

-Bai, domekie aillegau begire, pozik.

-Ferixetara be fango ziñen. Zein zan hemen inguruan ferixarik hola...

-Ferixie ba orduen ferixa formala Mondrauen eitten zan. Mondrauen ferixa formala eitten zan. Enda gero politto-politto ha be oingo bizimodu belozidadie honek ha be kaliek eitteko apurtu euen, kendu euen, dana kendu euen, da gero handik estaziño ondora pasau euen ferixioi tta berez-berez gastau eindda, gastau eindda.

-Basarrixak ezkutauaz, ganauak ezkutauaz...

-Bai, bai, gastau ein da. Eta gero Elgoibarreraa hartu gauen martxia ta Elgoibarrera faten gintzen.

-Elgoibarren noiz eitten zan ferixia?

-Oin be ingo da, hillen azkenengo zapatua. Han ferixa bat, hillen azkenengo zapatua bakarrik.

-Mondrauen ze egunetan izaten zan?

-Lenengoko, Primer Vierneseko eguakotxien ez eta bestie, hamabostien behiñ. Primer Viernes ez; eguakotxa.

-Bigarren eta laugarren eguakotxetan?

-Bai. Mondraue era baten, bueno!, formala egon zan. Bai, bai, hemen inguruen onentxuena. Hor Bixkai aldetik be jente asko sartzen zan ba. Kanpazartik eta. Gero hemen ingurukuok be danok faten gitzen da. Ez, ez, ferixie formala eitten zan.

-Zuek Santa Lutzia Zumarragara fateko ohitturaik izaten zebein?

-Bai, fan izen gintzen hara be, fan izen gitzen, baiña astoik eta animalixaik eztou sekula euki be.

## 2.55. 80-100 litro esne eguneko

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/023
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Ez zuten astorik eta esne kalera lehengo eskuetan eta gero gurdi batean eramaten zuten. 80-100 litro artean saltzen zituzten egunero. ganaduak emaitzak emateko ondo landu eta lan asko egin behar dela dio.

### Transkripzioa

- Astorik ez zeuen eukitten?

- Ez, ez dou euki astoik.

- Eta zela erueten zeuen esnie kalera?

- Ba lelengo eskuetan eta gero karro baten erueten gauen.

- Karruan?

- Karrotxo bat Bittorixan enkargaute andriantzako ein nauen-eta. Larogei litrotik ehun litrora bittartien, hor ibiltten gintzen.

-Egunero?

-Bai, egunero. Baiña, klaro, jornaltxo bat atarateko hantxe-hantxe, eurekin lana ein bihar.  
 -Eta gobernau ein bihar.  
 -Gobernau ein bihar. Ganauei be eurei jarraiketan ez badutsazu ganauek be ez dauke produziñoik, ez daue emuten. Ez, eurei esana ondo ein biha jate. Gero klasiek be izen bihe dau, kalidadiek be izen bihe daue. Batzuk, ganauek danak ez die igualak. Behi batek hamar litro emun ezinka egongo da ta beste batek hogeta hamar igual emuten dutsu. Hoixe diferentzioi dao ganauetan be.

## 2.56. Oñatiko Murgialdai ganadutegia

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-051/024
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:41:31. **Bukatu**: 00:44:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Oñatin bazegoen ganadutegi bat, Murgialdai. Esnedun txahal onak izaten zituen. Behin, truke bat egin zuten, txahal-trukea. kalera bizitzen joan arte izan ditu txahalak.

### Transkripzioa

- Gero oin azken aldera Oiñetin ganaderixa formalagaz egon zan ha, ez dakitt izena zelan euken, han harutzao bizi zan, arboloi haundi bat euken...  
 -Murgialdai.  
 -Murgialdai, hori da. Ez dait bera, hil dala entzun dot.  
 -Ez dakit hil dan. Ez dao holako ganaderixaik han.  
 -Oin ganauok kendu dittuela eta oiñao entzun dot, ez dakit...  
 -Bai, holako zerbait pasau da, bai.  
 -Hantxe erosi nutsen txahal bat; erosi ez, neuk emun nutsen bat eta berak emun nusten beste txahal bat. Ta trukie ein geuen. Da haretxegaz suertia haundixe euki neuen. Umie ein euenien oso esnedun ona urten usten, ona esneduna. Eta gero berak be, ez dakit beratzi txahal edo zenbat hartu nutsen; beratzi uste dot hartu nutsela. Da danak esnedun onak. Bai, Franco hil zan ingurutxuen hamar-dozena bat urte oso onak hartu gittuen, esne askogaz. Bai.  
 - Noiz arte euki dittuzu ba behixak?  
 - Ba ointxe honaxe etorri arte. Bueno, lehen kendu gittuen zerak, baiña bategaz honaxe etorri arte egon gare.  
 - Zeuk zainketan zeбен?  
 - Andrie ta bixok. Hori be igualien ez gauen gure kendu, behi ona zan da. Beste behi batzugin, semie daukou hor zerien, hemendik fan, hor goratxuao fan da hor daukou geure zelaixe, sail haundixe daukou hor, da etxie formala indde dauka han semiek, enda hara. Eta berak ez euela bihar behirik esan oskun berak batzeko, berai be tokau bihe jakola batzen-ta, berak ez dauela hori lanoi biher-ta. Kendu ein geuen, mataderixara kendu geuen.

## 2.57. Arabatik ganadua ekartzen

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-053/003
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:02:19. **Bukatu**: 00:05:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Ganadua Arabatik ekartzen zuten, haragitarako. Esne behia ere bazuten. Aita joaten zen, eta bera harekin, zaldiarekin. Arrasateko hiltegira eramaten zuten, eta Aramaiokora. Zortzi urterekin nola joan zen.

### Transkripzioa

-Zuek etxian ganaurik eta eukitzen zeбен? Zeuek etxian ganaua hasi?  
-Ez, ez. Ganaua Arabatik jeneralmente ekarri, erosi eta etxian behi bat etxerako, esnerako, bai. Baiña bestela bestiek "para carne".  
-Aittak eitten eben tratua ganauakin okelatarako saltzeko.  
-Araba aldetik ekarri ta gero hemetik gehixen Mondrauera. Neu ibiltten nintzen, mutikua, ha eruten. Gure aitta faten zan ba pixurako, bizikletan faten zan.  
-Txalak izengo zien, ezta, ixkuak ero?  
-Bai, txahalak, "terneros de 250 kilos o una cosa así. De 200 para arriba".  
-Eta horrek zela eruan, soka?  
-Kaballuaz, atzetik.  
-Ze atzetik eta gero libiran...  
-Ez, ez. Kaballuaz lotu ta kollaronaz, lotu ta berak erueten zitttuen (...).  
-Zenbat eruaten zitttuen aldiko?  
-Bi, bi jeneralmente. Bat be bai baiña bi normalien. Mondrauera goxien. Ordu bi inguru itten gittun. Eta askotan Mondrauera eruan eta gero han mataderixan: "Hau Aramaixora erun bihou". Aramaixora gero, kamiñoik kamiño.  
-Txal hori berori Aramaixora?  
-Bata edo bestia. Bi eruan eta bat bestaldera erun biha zala. Handik berriro Aramaixora. Gero Aramaixon jarri zaldixan eta harek baekixan nundik etorri biha zan.  
-Hori zenbat urtekin?  
-Hori lelengo ein neuena con ocho años. Gure aittak ifiñi hor Zarimuzko bidian eta hortik ba Aramaixora. Ni sekula pasau barik neguan. Hor, Zarimutz, egon za sekula?  
-Bai, buelta bat eitten.  
-Faten nintzen bost urtegaz eskolara faten nintzen Zarimutzera.  
-Zarimutzera?  
-Bai. Eta gure aittak ifiñi hor beheko kamiño eskiñan ipiñi kaballuaz eta bueno, zuk segidu, kaballuai segidu. Ta Aramaixora. Handik gora sekula pasau barik eta bidian negar eiñ da. Danba-danba, kaballua joango dala, e, kaballuai jarraiketako ta. Bi zekor atzian diela ta dinbi-danba, dinbi-danba. Eta Aramaixora kalera sartu nintzenien, e, joño!, hauxe izengok Aramaixo. Sekula egon barik.  
-Bost urteko umia?  
-Zortzi urtegaz. Da han gizon bat, gizon bat etorren kalien gorutza, eta esan nutsen: "Zu, hemen mataderixia nun dau", ta. Haretkek bialdu, harek

ezautu gure aitta. Bai, kaballua, bajakixat nik hori kaballuoi zelakua dan, eta hik jarraitu kaballuai. Danba-danba-danba, eta halako baten plazara aillegau zan da, geratu zan kaballuoi, begiratu neban bentanatik eta hantxe mataderixia. Behixen, ganauen zer hori eiñ, jarri kaballuen da ezebez esan biharrik be ez, jarri gaiñien eta dipi-dapa etxera. Ha zan, terriblia zan.

## 2.58. Eskoriatzako kale-baserri batean jaioa

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Elorza, Eustakio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-055/002
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:00:13. **Bukatu**: 00:02:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eustakio Barandiaran Elorza, 1933ko uztailaren 20an jaio zen Eskoriatzako Goiko Kanean, Bernabena izeneko kale-baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Atxorrozpe baserrikoa. Bost-sei urterekin hasi zen eskolan moja Merzedarien eskolan, Sor Mari Cruz eta Sor Doloresekin. 14 urte arte ibili zen eskolan.

### Transkripzioa

- Esangoztazu izena eta apeliuak.
- Eustakio Barandiaran Elorza Makazaga Barandiaran, laugarrena be Barandiaran.
- Eta jaixo non eta noiz eiñ ziñan?
- Zu eskolan zenbat urtekin hasi ziñan?
- Eskoriatzan jaixo nitzan.
- Eskoriatzan ze lekutan?
- Goiko kalia. Bernabena esaten tzen, erdi baserri erdi...
- (...)
- Behixek egoten zien, Kalien-eta baiña behixek egoten zien.
- (..)
- Noiz jaixo ziñan?
- Juliuen hogeixen hogeta hamahiruen.
- Zeure aitta-amak nunguak ziran?
- Aitta bertakue, ni jaixo nintzan etxekue, eta ama han goixen dau baserri bat Atxorrospe-edo, ama hangue.
- Zu eskolan zenbat urtekin hasi ziñan?
- Eskolan txikittan, ez dakit, sei, bost edo sei-edo, umetan.
- Nora faten ziñan eskolara?
- Mojetara.
- Monjetara. Ze monja ziren?
- "Mercedarias".
- Merzedarixak?
- Bai.
- Goguen dakotzu maistrien izenik?
- Bat bai.
- Zein zan?
- Ondiok bizi da hori. Sor Dolores. Ez, ez, Mari Cruz.

- Sor Mari Cruz?

- Bai, eta Sor Dolores be bai, horreik bixok.

- Eta zein esan dozu bizirik dauela, hau, Mari Cruz?

- Mari Cruz bizi da, bai. Horrek be lehengunian in zittuan larogeta hamazortzi urte-edo. Berrogeta hamar monja eta ez dakit zenbat eta bueno.

- Hori Sor Mari Cruz hori Eskoriatzarra da?

- Ez, Mondrauekua.

- Mondrauekua?

- Residentzian bizi da. Eta ondiok argi e?

- Euskalduna da bera?

- Bai.

- (...)

- Baiña Eskoriatzan doia horrek ez dakit, nire akordu guztien.

- Zenbat urte arte egon ziñan eskolan?

- Hamalau urte kunpliu baiño lehenau kalera, orduen badakitzu, orduen ez zan oingo moduen.

- Eskola urte danok monjakin in zittun?

- Ez, ez. Han umetan. Gero maistro bat, nazionala. Eta gero San Viatorren frailiekin.

### 3. Iritziak

#### 3.1. Erlijioaren eragina familian

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/013
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:27:31. **Bukatu:** 00:28:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Seme-alaba ugari baserrietan. Sexu-harremanetan tranpak egitea bekatua zen.

#### Transkripzioa

- Seme-alabak be ekarri eitten gittuen, tranpak eittie pekatu zan ta. Zuei ez dakit zela [...], baiña tranpak eittie pekatu zan ta.

- Bihar be bai lanerako baserrixan, ez?

- Bai, [...]. Baserrixan dirurik ez zan izeten, baiña lana, lana toketan zan. Bai. Famelixek... Aberatsak libre eukiko euen orduen be. Orduen aberatsak ez euen larrei eukitten. Pobriek... Pobriei ekarri ereitten eutsen [pekatuek...]. Bai. Famelixa haundixek. Bai, tranpaik-eta ezin [...ein], pekatu mortala zien horrek, ta [...] tranpaik eitteik eta. Oin ez dakit nora fan dien pekatuok. Horrek gauzok oin beste modu baten ikusten dittut neuk. Ez dakit zela dien. Beste modu baten ikusi eitten dittut neuk.

### 3.2. Bizimodua zenbat aldatu den

- **Hizlaria(k)**: Errasti Ibarzabal, Bernabe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-008/002
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:01:10. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: 1910-05-04an jaiotakoa. Bizimodua erabat aldatu da; sinestezina. Bera gaztea zenean, emakumeak tabernara joatea pentsatu ere ez. Gizonezkoak berriz txikiteora joaten ziren. Neskatan ibiltzen zirenean, neskak beraiekin batera sartzen ziren tabernara, baina bestela inondik ere ez. Emakumeak erretzea ere ez zegoen ondo ikusita. Toki batzuetan baina, emakumeak pipan erre izan dute.

#### Transkripzioa

- Ta ze urtetan esan destazu jaixotakua zarala?
- Neu? Jaixotakua? Mil novecientos diez.
- Maiatzian...?
- Maia... lauen.
- Lauan.
- Orduan, larogeta hamabost urte?
- Larogeta hamabost urte pasauta. Lartxo, e?
- Lartxo ez, ondo.
- Lartxo bai, lartxo.
- Orduan zuk ixa-ixa mende osua Eskoriatza zelan aldatzen jua dan...
- Bai...
- ...ikusit dozu...
- E?
- Ikusit dozula zelan jua dan dana aldatzen, ez?
- Bueno, hori kasik-kasik guk esanda zueik siñestu be ez dozue eitten bizimodue ze kanbixau dan. E? Gure... ni umie nitzenetik aurrera, ba, siñestu be ezin leike ein. Hemen andrak-eta, ba, tabernara-ta pentsau be ez! Bi andra tabernara? Sekula be ez!
- Gaizki ikusitta edo...?
- E?
- Gaizki ikusitta zeuan?
- Ez zan... Ez zan [faten]. Nire ama segurutik gizonakin tabernan ez zan sekula egongo. Gizonak bai, gizonak tabernara faten zien orduen be.
- Bai? Orduan be ohitturia zeuan?
- Bai, bai, gizonak faten zien.
- Ta txikiteua edo ze izaten zan?
- Bueno, gu...
- Orduan bai ala gerora etorri zan?
- E?
- Txikiteo kontuak eta...
- Gero... Ba... Hori andrak-eta tabernara fatiek oin etorri da, e? Oiñao, e? Hemen, e? Hemendik kanpora, porejenplo, Barzelonara hori lehenau be badao, [baiña]. Hemen baiña lehenao etorri zan bizimodua adelanto asko. Baiña hemen lehelengo hola neskak-eta tabernan bi neska ni mutilla nitzenien be ez zan ikusten, e! Sekula pentsau be ez, e! Ta faten ziñen, porejenplo, geu ibili neskakin ta, ba, dantzan ibili ta buelta bat ein ta geuaz zerbeza bat hartu edo kafe bat hartu, sartzen zien, baiña bestela pentsau

be ez emakumaik, e! Hemen oin larogei urte ta hola emakumaik... jolin, ikusi balie bi emakuma tabernan, ba... Ta fumetan ikusiko balie, barriz, herrittik be bialduko zittuen.

- Bai, e?

- Bai, bai, bai.

- Hemen fumau-ta emakumak ez dau ein, sin enabargo, lehenau be egongo zan fumetia gure aurretik be.

- Bai, e?

- Ni akordetan naz Asturiasen-ta etxiek hemen be baeukien sukaldia. Ez dakizu? Ta sua bajua zan, lurrien eitten zan sua.

- Bai, beheko sua, ez?

- Beheko sua. Ta tximinixia. Ta Asturiasen, akordetan naz ni, tximinixiak eukitten euen borde bat. Hola, bordetxo bat.

- Bai, halako...

- Bai, holaxe. Badakizu, ezta? Hantxe pipia eukitten euen andrak.

- Andrek, e?

- Andrak. Eta pipie fumetan euen. Ta hemen sekula ez zan ikusi, baiña hemen be denporan baten igual egongo zan, e? Lehenau. Baiña gure akorduan ez, e? Ta andrak fumau hemen sekula ez dau ein ointxe artian.

- Bai, bizimodua asko aldatu da, ez? Eta emakumiak...

- Nik hemen lehelengokua andria trenian ikusi nauena —neu ezkondu ta gero, Vitorixan nabillela, Vitorixatik natorrela— rekadista baten alabia. Zigarrua fumetan [euen]; jente guztia berari begira. Hori el año cincuenta y... o cuarenta y ocho cuarenta y nueve.

### 3.3. Gizarteak izan dituen aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Lezeta Errasti, Maria; Romarate zabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-015/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena**: Bizitzarekiko ikuspegia. Gauza batzuk (errespetu kontuak...) begi onez ikusten dituzte, baina beste gauza batzuetan gizarteak hobera egin duela uste dute.

#### Transkripzioa

- Nik pentsetan jonat oingo gaztiekin gu baiño hobauak diela, e? Oin horren gauzetan... Por ejemplo, horreik, ba, lekua isten ta, baiña kritiketan ta?

- A! Kritikau ez...

- Ta bata bestiatio gaizki esaten ta lehenguak gehixao gitzen. Lagunartien ta hola, ez dakitzu? Igual zapata zahartxuauek edo soiñeko zahartxuauek edo... Ta orduen oingo gaztiekin distintziñua asko be gutxiao dauke bata bestiendako. [Askoaz be hobeto ikusten daue]. Faltan egoten badittun edo mutiko [...] bat “Gaur ez jaukat, ba, diruik”, “Autso” ta lagundu. Guk, en kanbio, poltsikuen gordeta [eukitten geben].

- Bai, e?

- Bai, horreik gauzetarako oingo gazterixia askoaz be formalauek die. En kanbio, beste gauza batzuetarako, ba...

- Bai, danetara.
- Danetara. Baiñe... Danetarako izengo da, baiñe... Hori... Por ejemplo, edukaziño haundixe, baiña gero “a la hora de la verdad” igual badakin ze eitten geuen.
- Gero “eskerrikasko” emun biher [geuenien] bape emun ez ta holakuek.
- Bai, halaxe izeten zien orduen kontuek, e?

## 4. Ohiturak eta bizimodua

### 4.1. Erlijioaren eragina hezkuntzan

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/014
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:29:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Erlijioak indar handia zuen garai batean. Dotrina ikasteak garrantzi izugarria; eskolako gaiak ikastea baino garrantzi handiagoa.

#### Transkripzioa

- Lehen elixiek be inddarra gehixao edo...
- Elixiek, religiñuek, oingo poliziek eta guardia zibillek baiño errespeto gehixao eukien. Asko be bai! Enee! Izan be, orduen polizie biherrik ez auen ertzainik biharrik. Religiñuek, lehen esan douna, dana pekatu zan, dana... lehen. Bai, bai. Baiña hor ez dakit edo jangoikue edo bestie zein dauen... Oin horreik gauzok diferente ikusten dittut. Ez dakit, hola...
- Asko kanbixau da, ez?
- E?
- Garai hartatik hona gauza asko kanbixau da.
- Kanbixue? Gure denporan aiñako modoko kanbixue... Oin beste modo baterako be ingo dabe hemen kanbixue beste postura batera, baiña hor gauza hortan... Kanbixue? Bueno! Kanbixoa haundixe!
- Lehen dotriñie-ta be ikesi ein biher izeten zan, ezta?
- Eskolaik erakutsi be ez! Dotriña? Goxien mezie ta atsaldien be mutikuak erresarixuetara ta gero dotriñara. Dotriñan, sankristeixia edo [orduan] esaten [euen], han, preguntiek eitten euen. Ta errosarixua errezatzen doun ta horreik danok preguntaten zittuen abadiak.

### 4.2. Erlijioaren lehentasuna

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/017

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Eskola kontuak. Auzo-eskola. Maisuen izenak. Eskola gutxi ikasi zuten; dotrina ikasteari garrantzi gehiago ematen zitzaion. Mezara egunero.

#### Transkripzioa

- Zueik eskolara hemen auzuen fan zitzien?
- Hemen apurtxo bat.
- Apur bat ein zabien hemen, auzuan bertan?
- Bai.
- Bai, Cipriana eta Zacarias-eta zien, ta ni asko... ni ez nitzen asko fan. Nik ez dakit ardi-zain edo zetan ibiltzen nitzen. Ni ez nitzen asko jua, ta haik emuten euen eskola apur bat be, baiña gero ekin zan jentie kalera ta hortik, hemendik, hau ta... Baiña han eskola modukue, eskola modukue.
- Marianistetara be fan zien gero mutikuek.
- Bai. Gero, gero ekin zan kalera-ta ekin zan, baiña hemen, lehenengokuen, eskolie modukue bai. Ta jo eitten zittuen, baiña... [...] makillie luzie, ta [...] eruen-ta eitten eutsen ta jo eitten euen, baiña [...]. Ez, eskolaik ez zan, dotriñie. Dotriñie. Eskolaik ez.
- Klaro, lehenengo etxeko lanak zien, ta gero eskolie. Ez? Lehenengo, etxekuek. Lehenengo lanak ein biher, ta gero, ba, astixe baeuen iguel, ba...
- Bai. Mezetara ta atsaldien errosarixotara. Mezetara, mezetara-ta faten da noiz edo noiz. [...] ta neskattilla-mutikuei preguntiek eitten eutsien dotriñienak eta...

#### 4.3. Erlijioaren eragina bizitzaren ikuspegian

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/018
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:35:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak  
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Meza egunero. Abadea auzoan bertan. Umetan ez horrenbeste, baina zahartzaroan baserritar asko egunero mezara. Domekan sermoia pulpitutik; infernua eta zerua.

#### Transkripzioa

- Mezie ze ordutan izeten zan? Goxien gox edo zela?
- Meza kontuek ez dakit zela egoten zan orduen.
- Bueno, egunero, ba... Egunero egoten zan.

- Egunero izeten zan? Egunero mezia?

- Bai, klaro, bertan egoten zan abadie. Apotzan Apotzagakue. Pentsaizu, [Usuitten]-ta bauezen etxiek, baeuezen auzuek, igual, hamar etxe baiño gehixao ez aukenak ta haretzek be abadie eukien orduen.

- Abadie, abadie...

- Ta egunero mezie.

- ... ta sankristaua. Kanpaiek joteko, sankristaua be bai.

- Eta gero mezetara faten zien, ba, zaharrenak. Zahartu ezkerro faten zan egunero be. Zure aittejaune, aittejaune... Felizianon aitte egunero faten zan. Eta Arruako Jose be bai, baiña [zahartikuen], e! [Zahartikuen]. Gaztetxuau zanien lana be ein biher zan, ta hil be, hillttie be, urrin ikusten zan eta ez zan faten. Baiña, gero, zahartu ezkerro... Orduen... orduen egunero, igual, mezetara. Bai. Zuen biz-aittejaune egunero faten zan zahartu zanien eta Arruakue, zerekue be bai, [...nekue] be bai. Eta baeuen jentie egunero faten zana.

- Mezie, ta domekatan sermoia formala, [hara], pulpittura igota infernue ta zerue [be erakutsi]. Dana, bateko infernue, infernue sutan. Pekatu... orduen bilddur ikeragarrixa [egoten zan...].

- Infernua ikusi eingo zauien zuek...

- Ikusi, ikusi be eitten zan [...] infernue, infernue ta zerue. Lehen esan dodana: errespeto gehixao goardia zibillek eta horreik baiño religiñuek. Jaiero beste lanik ez [...] abadiak, estudixauta faten zan pulpittora, ta sermoia ein barik ez san sekula [geldittuko]. Bai, sermoia, infernue ta zerue. Oin infernue ez da larrei... ez da [itten]. Zerua-ta esaten da apur bat, baiña infernue ez dotset entzuten neuk hainbesteraíño oin infernue. Ez dakit, ba, zela izengo dien. Nik ez dot entediduten horreik gauzok, baiña infernue ta zerue dauzen nok daki, nok? Aitta Santuek badaki? Dauzen, nun dauen infernue edo zerue ta horreik nok daki?

- Batek daki...

- Erakutsi geuri bai, baiña ez dakit, ez dakit. Neuk... honezkero geuri erakutsi oskuena segiduten goiez ta zueik, zueik administrau biherko dozue.

- [Españian] zeri segiduten dotsie, meziai edo abade [...]?

- Ya, ya, ya...z eatik faten...

- Ez dakit [ze] sinistute faten dien, e?

- Ya. Bueno, hor topau ein biher da bakotxan gustue, ezta?

- Hoixe.

- [...] bakotxai...

- Gura dana, gura dana... Nik erakusten [ostena] errezetan dot elixara fanda, ta gura dana eittia dauka.

#### 4.4. Baserritarren harremana abadeekin

- **Hizlaria(k):** Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-001/019
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:35:46. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena:** Hamarrenak eta primiziak abadeei. Baserri batzuetan dirurik ez eta hildakoan eklizkizuna egiteko ere arazoak.

### Transkripzioa

- Ta lehen elixiai ta emuten jakon...
- Koño! Lehen esan dou uezabai, zera, erreterero, garixek-eta esan dou...
- Hamarrenak eta primiziak esaten jaten. [...]
- Abadiak [...]
- Eta egoten zien kasuek, igual, jentie orduen pobrie auen, ta ez auenak pagetan ningunua aukien enterraixua-ta eitteko be orduan, e? Kasu batzuk suertau zien.
- Zer da hori "ningunu"-ori?
- Ba, zuk ez dutsezu pagetan elixiei zeuri perteneziduten jatzune eta, ba, enterraixua eitteko be pegak ifini.
- Bai, pegak ipini.
- Bai. Ez zien... Iñobe ez zan geldittu ein barik, baiñe bai, euren [...] ipintzen auen.
- Errentak pagaten ez baotson, enterrazixuak ein be ez igual gero!
- Amenazua, ez?
- Horixe! Bai.
- Onbre, hemen defendiduten zien abadiak. Ba, horrek hamarrenok hamar [erdi...] hillien besterik ez zan, e! Baiñe asko zan orduen, e!
- Garixe ta artue...
- [Orduen be ez auken].
- Garixe ta artue [...] abadiak.
- Eta, gaiñera, gero hori errezetan jakien, Aittegurie bat meza ostien papeleti esaten auen. Eta han etxe bakoxtak auken gure beste, bere aitte, auttejaune edo gure dauenak, ta gero harena be eruten zan beste anega erdi bakoxtena. Ba, [ondikoz ta betikoz], ba, holakotxe gauzakin abadiak be abaeratsak [zauzen hemen].
- Aberatsak ez zauzen, baiña...
- Baiñe...
- Garoik eta artoik erein barik etxien nahikue euen, behintzat!
- Klaro, hori da.
- Abadiak geuk manteniduten gittuen ta sakristaue be bai, ta [...].
- Hamarrenak, eta bestia ze esan dozu?
- Premiza edo...
- Bai, hola esaten zan. Hori esaten dau... Eske oin ez dia [...]. Jangoikuan legeko mandamentuek dia hamar eta ama eliza santuarenak die bost. Eta han esaten dau: "Hamarrenak eta primiziak elixari pagatzea". Han hola saten da. Eta, ba, ez zan asko, baiñe bueno. Ez zauenak sinisketan be baeuezen orduan be, jentie ekindda euen, ta bestekaldeti, ba, ezin auen [...].

### 4.5. Abadearekin izaten zuten harremana

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-007/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Abadearekin harremana. Txerria hiltzen zutenean, abadeari odolosteak eramaten zizkion eta ordainean "pezeta zurixa" (zidarrezkoa) ematen zion.

### Transkripzioa

- Abadie "beroi".
- Bai, hori errespetuzkua izengo zan, ezta?
- Errespetuzkue zan, bai. Orduen holaxe zalakotan. Ba, abadiak "beroi" esaten jakon betik. Onbre! "Beroi" hortik, "beroi" hemetik. Klaro.
- Eta eskuen mun-eta emoten jakon?
- Baitte.
- Bai, e?
- Bai, ni akordetan naz don Josei be zelan emuten gotsen. Txarrixek hiltten gauenien, ni akordetan naz ni neskatiñia, eta guk beziño bixok txarrixek egun baten hiltten gittuen. Ta hori nire koñetie esan doten moñioi eta ni batera faten gitzen don Joseana eruten txarri-mortzillok.
- A! Eruen eitten zotsien?
- Bai, bai, guk eruten gutsen, nire neskatiñia-denporan eruten gutsen. Eta, gaiñera, emuten oso ona zan. Pezetia, zurixa esaten jakon orduen, zidarrezko pezetia. Ta akordetan na' ni gure koñetiei emungo otsen pezetie, ba, eskuetara. Ta gaiñetikue be jaten ta zera, baiñe pezetia. Ta orduen pezetia nok emuten euen? Orduen txarri-mortzilliekin zoiezenien be emuten baotsuen bost txakur haundi edo dezente zan, e!
- Eta hori propiñia izeten zan?
- Propiñia, bai. Ta gure koñetiei emuten otsen. Abade difuntuek niri — akordetan naz— hak abade difuntuek niri pezetie holaxe [ifiniko] ostan, apur bat bistan. Nik itten notsen ahalegiña! Pezeta barik etorri etxera...? Serixo esaten ostan ta, klaro, abade batek serixo esan ezker...: "Ez badostezu ataraten, diru bae fan bihar dozu. Bestioi, ikusten dozu, Ixabelek hartute dauko. Baiña zuk ez badostezu ataraten...", serixo. [Nere artien], hau dok ona! Ha pezeta barik etxera etortie zan ona! Badakitzu etxera etorri ta "Ama, beitu, don Josek pezetie emun..." zer zan ha? Pezetie orduen! Holaxe, apur bat itxiko osten, geru' ta gehixao, geru' ta gehixao... Ha zan ona! Berak gure ebenien soltetan osten ta eskutik ebatute ni. Eskutik larrei ebaketie be ez nitzen atrebiduten, ebatu biher... nik ibiltten nauen zera! Don Jose difuntuek... Makiña bat denporan, gaiñera! Bai. Bai, bai.
- Orduen, txarrixek hiltten zaniñen eruten jakon?
- Bai, bai, guk geuk eruten gutsen, gure beziño bixek nire... Gero ez, gero ez. Baiña nire neskatiñia-denporan betik eruten gutsen.
- Ha ohitturie izaten zan edo obligaziñue edo?
- Ez, ez, obligaziñoik ez. Ez, ez, ez, ez.
- Obligaziñoik bapez...
- Ez, obligaziñoik ez euen.

### 4.6. Baserritarren eta abadeen arteko harremana

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-007/006
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:10:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Garai batean abadeei, besteak beste, garia eman behar izaten zitzaien hileta-elizkizunetan errezoak egitearren... Egurra, kapoiak... ere eramaten zitzaizkien. Egoera erabat aldatu da.

### Transkripzioa

- Bestela, anega-erdixek eta obligaziñue euen moduen, hori, ba, noberak gure [euenak].

- A! Ta anega-erdixa ta ze izeten zan hori?

- Horreik, anega-erdixe ta? Gaur [Mazpalan] erabili dou horixe konbersaziñuori abadie tentetan, gaiñera, ondion. Gaur, ba... ene! Ze barre ein [dot] abadiatz. Horreik obligaziñuek auzen lehen ifinitte abadiantzako. Ta neuk esan dot gaur [Mazpela] "ni tanto ni tan calvo", ta danak esan dostie: "Ze egixa". Lehengo abadiak be larreikuek zien. Erresarixue... Hiltten zan bat, ezta?

- Bai.

- Eta hari errezaten etsen zerak, abadiak, eta haren orde anega-erdi gari. Bi bazeukazun, bi anega-erdiko. Ta asko toketan zan, e! Nik... akordetan naz nire aittegiñarreba hil zanian, gero maiorazkuak... Ba, ez dakit, ba, nik hemen auzuen zenbat egongo gazen maiorazkuok. Behintzat gurie maiorazko. Eta akordetan na' ni abadiak: "Maiorazkuena hainbeste". Errezuek esaten jakon horri, errezuek. Zuk bazaukotzun bat, bazaukotzun bi, errezeuek. Ta obligaziñokua? Nik badakit aittegiñarreba hil zanian be ze takarradia pagau nauen, e! Orduen ez auen holan dirue oingo moduen montoraute; orduen pillo txikittik etara biher izaten zan, e! Ta horixe esaten [...] nik. Gaurko kontue da [Mazpalan] hori. Ta neuk esan dotsiet, abadiak edo —ba, abadie tentetan ibili gara— lehenau abadien kapoiek-eta emoten jakola ta oin ezebez. Eta batzuk han gauza bat, beste batzuk beste bat eta esan etset: "Urrutia, Urrutia". Ta gengozen, gu, ez dakit, ba, hamabi bat andra edo egongo gitzen ta bea bakarrik ta "Urrutia, toki txarrian sartu zara! —esan etsat— Toki txarrian sartu zara. Hemen al corro de la patata ta zeu bakarrik... Ta, ikusten dozu, gauza edarrak esaten ekin zara". Ta, klaro, lehengo... lehenau kapoiek eta gauzak ez dakit egongo zien, baiña garixe bai, behintzat. Ta bat hiltten zanian, zuri urten eitten etsun diruek, e!

- Bai, bai...

- Bai, ya lo creo!

- Eta egurre ta be ez jakon eruten?

- Bai, sasoi baten bai. Sasoi baten bai. Eta gero, hau, don Jose egon zanian, sagrarixuei olixue ez jakon zerketan, iñok ez otsen zerketan, ba, bera erregletan zan, berak-edo ifintten euen olixuoi. Ta don Antonio etorri zanian, litro bat olixo auzo... beziño bakotxai ifiñi etsan hak.

- Litro?

- Bai.

- Ta orduen olixue ez zan asko egongo, ez?

- Olixue, gaiñera, elixakue onena segurua'. Ta, ba, [harek] ifini euen modia ta abadia be gaiñetik pagau eitten jakon.

- Bai, bai.

- Ta horri, ba... Gaur konberstaziñua: oinguak... lehengue larreixa, eta oinguei ezebe-ezebez. Ikusten dozu? Gaur neuk horixe esan otsiet, “ni tanto ni tan calvo”, lehengue... Ba, batek esan dau, kapoiek be esan dau. Nik ez dakit, egixa esateko, ni [... oillaskue] ta neuk esan etset: “Neska, neuk kapoiek abadie erun dotsetenik sekula ez nai´ akordetan; oin, garixe bai”, ta gero nire aldamenien bestaldien euenak be esan dau: “Bai, errezoia daukotzu, garixe bai”. Hori... hori obligaziñue izeten zan. Urtien anega-erdi edo bi edo errezuek; zuk errezuek bi bazaukotzun, bat bazaukotzun... segun.

- Bai? Beitu, e? Eta gehixao euki ezker...

- Bai. Ta anega-erdi urtien obligaziñokue; gero, errezu bakotxa beste anega-erdi, ta “entre una cosa y otra”...

- Bai, han juntetan zien, e?

- A, ez! Zera! Nik horreaittik dakit aittegiñarreba hil zanien zenbat pagau nauen ordurako.

#### 4.7. Marin auzoa; ermitak

- **Hizlaria(k)**: Azkarate Arejolaleiba, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-010/006
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:10:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Marin auzoa nolakoa zen; ermita. Maringo ermita zaharrena, San Lorenzo (Arane baserriaren ondoan). San Lorenzo santua Santa Luzia ermitara eraman zuten.

#### Transkripzioa

- Eta Marin auzua gitxi gorabehera goguan dakazu zelakua zan? Basarri asko zeren, ermittarik zeuan...?

- E?

- Ermittarik edo...?

- Ermittak be bai. Ermittak... Oin geratzen da bat, baiña lehen zauen beste bat. Bai. Baiña bestiori, lehelengo ermita zaharra, zaharrena, zan San Lorenzo. Euen Arane baserri onduan. Arane... Dao baserri bat Arane izenekue, ezta? Haren inguruen zeuen hori ermittaori. Ta ermittaori, ba, nolabait hondatu zan eta han euen santua San Lorenzo. San Lorenzo ekarri zan beste ermita batera. Beste ermita bat egin zan oso ederra —oain ondo dago— Santa Luzia, ezta? Ta Santa Luzian jarri zuten hori, ekarri zuten hori San Lorenzo hori ere. Ta [...] oain zean dago, Donostiako artxi... esto...

- San Telmon edo?

- Ez, esto... obispaduko...

- Diocesis...

- Bai, diozesiko... zela esaten da? Museuan. Bai. Haintxe dago, baiña Maringua da ta uste dugu laister barriro Mariñera ekarriko dutela. Baiña haintxe agertzen da Maringua dala, ezta? Ta hoixe da, ermita hartatik ekarritakua.

#### 4.8. Maringo ermita, parrokia

- **Hizlaria(k):** Azkarate Arejolaleiba, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-010/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Santa Luzia ermita. Parrokia berriz, Santa Maria Magdalena.

##### Transkripzioa

- Eta esaten dozu gerora ein zala...
- Gerora ein zan
- Santa Luzia...
- ... Santa Luzia.
- ... gerora eindakua dala, ez? Barrixa da, orduan...
- Bai. Ha gero, ba... Harek be eukiko dittu... eukiko dittu berrehun bat urte bai. [...] Bai, bai. Baiñe haren dauken [...] guztia dago, nox ein zan ta zenbat gastau zan ta dana dago ermitta horrena, e! Bai, Santa Luzia ermittarena. Bai.
- Eta, orduan, auzo horretan ze jai ospatzen zan? San Lorenzo eguna ospatzen zan edo...?
- Ez, ez, Madalena. Parrokia zan Madalenana, Santa Maria Madalena. Madalena parrokia da, parrokiko zaindari da Santa Maria Madalena.

#### 4.9. Herri-eskola

- **Hizlaria(k):** Otxoaizpurua Oyanguren, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-011/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Eskolara nora joan zen. Herriko eskolan lehenengo eta gerora fraideekin ikasitakoa. Haur-eskola mojekin ematen zen.

##### Transkripzioa

- Eskolara nora juan ziñan?
- Ni eskolara bertan Eskoriatzan. Ta gero hementxe hermanuak ipini euen eskoloi, zerak, frailletakuek, [San Viatorkuek].
- [San Viator], bai.
- Lehenengo hasi gitzan hamen, [ospittale] hor bertan, [...] lekuen. Eta gero handik pasau gitzen zerera, [oin...] lekura.
- Eta hermanuekin...?

- Hermanuekin.
- ... zenbat urtekin edo?
- Ni hermanuekin ekingo nitzen, ez dakit, hamabi urteaz edo ez dakit zenbat eukiko nittun orduen ekin nitzenien.
- Eta hasierako eskolan, eskola txikixa edo...?
- Txikixek. Plazan aazen eskolak, Jose Arana edo zerak, ta haintxe ibili nitzen. Lehenengo mojetan hamantxe zerien eskolatxo bat, emuten oskuen klasie mutikotan, ta gero maistruenera.
- Orduan, lehelengotik monjekin ume-umetan, gero herriko eskolara eta gero ya hermanuekin...
- Hermanuenera.
- Eta monjetan ze egoten ziñazien neskak eta mutillak danak batera?
- Orduen bai.
- Txiki-txikixak, ez?
- Txiki-txikitan bai.
- Eta gero herriko eskolia, batetik mutillak eta bestetik neskak?
- Aparte [juten gitzen eskolara].
- Eta, ez dakit, goguan dakazu maistroren baten izena edo...?
- Maistruak don Tomas ta halako [zera] batzuk, bai, baiña... zerian.
- Eta ze zian gogorrak? Zorrotzak? Ze...?
- Bai, zorrotzak orduen. Gero hermano Luis egon zan...
- Hori ya hermenuetan?
- Bai. Ta haretxeaz, don Luiseaz, gero, lana ekin artian.

#### 4.10. Euskararen erabilera ikastetxean

- **Hizlaria(k):** Otxoaizpurua Oyanguren, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-011/004
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak  
 Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Klaseak erdaraz ematen zituzten fraideetan. Euskaraz hitz egitearren zigorak ipintzen zituzten.

#### Transkripzioa

- Eta asko ikasten zenduen?
- Bai, bastante.
- Bai?
- Bai, ahalegiñak eitten gittuun ta...
- Klasiak-eta ze izaten zian euskeraz edo erderaz edo...?
- Orduen erderaz dana, euskeraz ein be ez zan eitten! Hemen hermano bat egon zan euskeraz berba eitten euenai erriela emuten otsen, ta ha erriela doiena kastigau.
- Bai, e?
- Euskeraz eitten euenai.
- Eta erriala emon zelan...?
- Ba, gero erriala doiena kastigaute, erriala doiena kastigau eitten auen. Joe, euskeraz [ein bazeuen], [...] zerien, kastigaute. Guri [...] ein, baiñe

[gure aurrekuei] bai.

- Eta zeuek erderaz ondo moldatzen ziñazien? Bazekizuen erderaz?
- Bai, ikesi, buruz ikesi geuen.
- Ikasi ein bihar, ez?
- Bai.

#### 4.11. Neskatan-mutiletan nola egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Otxoaizpurua Oyanguren, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-011/015
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:16:15. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
  - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Soinujoleak. Neskatan-mutiletan nola egiten zuten. Kongregazioak; debekuak dantza egiteko orduan.

#### Transkripzioa

- Erromerixetan, ez dakit, ze egoten zian, plaza desberdiñak edo soiñujole desberdiñak edo...?
- Hamen soiñujollie, ba, zerien, Arrasaten egoten zan Santo Tomasetan, [...]. [...] pezeta bi-hiru kobretan auien ta... dantzan eittie ta benga!
- Eta mutillek ordaintzen zenduen? Neskak ordaintzen zeuben erromerixan bailia?
- Ez, [ez], mutillek bai.
- Mutillek bai, mutillek pagatzen [zeuben], ezta? Baiña neskak ez.
- Neskak ez...
- Etorten jatzun ta ipini papeletia ta benga! Oin, kalabaza mordue be...!
- Bai, e?
- "Hijas de María", "Hijas de..." zerien... joe! Orduantxe, ba...
- "Hijas de María" hori ze zan kongregaziñoren bat?
- Kongregaziñue.
- Eta horrek ezin zeuben dantzarik ein ala...?
- Ez dakit. Kalabazak emuten zittuen ta...
- Oseake, begira egoten zian bakarrik?
- Bai.
- Edo...?
- Aitzikixa bat [...]; hoixe, esan.
- Eta mutillen kongregaziñua zein izaten zan?
- E?
- San [Diego] ta San Luis.
- Mutillen kongregaziñua...
- Luisena.
- Eta zeuk be parte hartu zenduan hor?
- Luistarretan bai.
- Bai? Eta ze eitten zenduen?
- Azkenengo...
- Ze izaten zan kongregaziño horretan parte hartzia ze... suposatzen

zeban? Mezaren batera jua bihar zifazien?

- Goxien zazpiretako mezetara fan eta gero tabernara. Tabernan raziaua edo zerakin hartu ta bengal, bazkaldu artien [txikiteuan...] gafiñera.

- Hori zer jai egunetan?

- Ba luistarrenetan, aparte.

- Hori ze zan hillian behin edo...?

- Hillien behin.

- Eta zeoze medallaren bat edo zeoze eruaten zenduen?

- Medallia bai. Han [egongo da] batenbat etxien.

#### 4.12. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-012/007
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Ume-umetan, Merzedarietako mojekin ikasi zuen; hura izan zen bere lehenengo eskola. Ondoren maisuarekin ibili zen eskola publikoetan. Neska-mutilak eskolan banatuta ibiltzen ziren. Maisua nongoa zen; klaseak erdaraz ematen zituzten.

#### Transkripzioa

- Zu, umetan eskolara nora jua zifan?

- Lehenengoko letrak, lehenengo gauzak, monjak. Klausurako konbentu bat egon zan hemen, honeixekin, horrek, Merzedarixak.

- Eta?

- Eta lehelengoko, ba oin, e... txikittan esaten dana, lehenengoko eskolia, hara. Eta gero, maistrua, nazionala.

- Eta klausurako monja hauekin, klasiak zefiñek emoten zittuan?

- Ba, monja batek!

- Klausurako monja batek?

- Bai. Eta izaten zan gauza kuriosua, gero mezia egoten zan han, domeketan, baiña mezara joaten zien monjak, arpegixa tapauta, klausurako [sariakin]. Baiña guk ezautzen giñuen; ikusi, mantilliorregaz, jarritta eruan arren, ba, lekturaren bat edo zeozer ein ezker be, ba, haxe, fulana da, eta...

- Eta zein zan zeuen maistría?

- Ba, ez naiz asko akordatzten, Caridad ete zan, Sor Caridad edo... bat ete zan. Oso gogorra, e?

- A bai?

- Bai. Neuk oin behintzet, hoixe... Klaro, 5-6 urteaz, ba, bueno... baiña bastante gogorra zan ha.

- Eta gero zuzenian handik, zenbat urtekin edo ya nazionaletara?

- Ba, nik uste dot...

- Justo hor gerriak harrapauko zetsuan, gafiñera, ez?

- Ez, ez, gerria, gerra ostian...

- A, bueno, ez, klaro, zu 36kua zara...

- Ni eskolara —pentsetan jat— lau urtegaz egon giñala, 4-5, monjetara, ba

bueno, gerra ostian, segiduan.

- Gero nazionaletara esaten dozu...?

- Beste urte pare bat edo hiru bat ein nittuen.

- Horrek nun zeren, eskola hori nun zeuan?

- Plazan.

- Plazan bertan?

- Plazan, oin etxe barrixak eindda dauzen tokixan.

- Zelakua zan? Haundixa edo...?

- Ke ba!

- ... edifizio...?

- Ke ba, ez, edifizio zaharra, e? Zaharra. Hantxe, etxe barrixok eindda dauz baiña... entregatzeko zeretari baiña, haik etxiek, bueno, nik botatzen ikusi nittuanian, grabatzen egon [niztan] ta...

- Orduan eskolia bertan emoten zenduan, plazan? Baiña ze izaten zan, neskak eta mutillak...?

- Aparte!

- Aparte baiña edifizio bardiñian?

- Bai, baiña entradak, osea bi, osea baikotzak beria. Plazatik gora eskillera batzuk neskenak eta bestiak mutillak.

- Zeozetarako juntaten ziñazien, jolas-orduan edo...?

- Ke ba! Ondiok...

- Eta maixuak edo... Zeuek maixua eukiko zenduen, ez?

- Bai.

- Irakaslia, gizonezkua. Knpotik etorritakua zan edo bertakua?

- Bai, izetetz, pentsaten jat, Santandertikua, Santanderkua. Klaro, euskeraz ez batek eta ez bestiak, e!

#### 4.13. Ikasketak non burutu zituen

- **Hizlaria(k):** Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-012/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena:** Herriko eskolan amaitu eta San Viatorreko fraideetan hasi zen ikasten.

#### Transkripzioa

- Herriko eskolan, zenbat urtekin edo?

- Herriko eskolan, 8 bat ... 6ttik 8ra, 6-9 ... holakon bat.

- Eta behin hori amaitutakuan, zein izaten zan hurrengo pausua edo?

- Ez, zera, gero... zerakin, frailliekin.

- Frailliekin.

- San Viatorrekuak. Urte asko maixu bateaz.

- Zeiñekin?

- Hermano Luis. Hau be, ibilitta egongo zara.

- Eta zelakua zan Hermano Luis?

- Bueno, euskalduna, hak bai euskeraz itten oskun. Bai. Eta bueno, hemengo kantuak eta, bueno, oso boz onekua, eta, bueno, gero epokia be

izen zan, egon zien, ba, orduan apaizak zela gehixago zaozen, hor lehen esan douna, Don Antonio, ba, zinia zertu zabena eta, eta horreik musikuak zien, musikuak eta organistak eta, bueno, musika... musika... asko gustatzen jakonak be bai, eta asko zekixenak.

#### 4.14. Zinea Eskoriatzan

- **Hizlaria(k):** Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-012/029
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra  
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Zinea Eskoriatzan. Elizak izan zuen hasiera batean zinearen ardura herrian eta parrokoak asko zaintzen zuen eskaintzen ziren pelikulen egokitasuna.

#### Transkripzioa

- Bueno, klaro, zu gerturatu ziñanerako ya pixkat kontu horretara, ordurako ya hasitta egongo zan, ezta?

- E?

- Zinia emoten zebeñ eurak, ez?

- Bai.

- Zu 18 urtekin pixkat hasi ziñan interesatzen baiña ya emoten zebizen...

- Ba, 5-6 bat urte edo.

- Eta ze pelikula izaten zian?

- Bueno, normalak, baiña...

- "Indios y vaqueros" edo...?

- Bai, bai, danera, danera, baiña beti... zeakin... kontrola... parrokuak. Zeatik hak, ha lokala zan parrokixa... osea, monjak alde ein euenien, monjen... osea, parrokixan kargua edo, behintzat, uezaba, edo, behintzet parrokixakua zan. Ta gero aiuntamentuakin, alkatiakin ta proiektua ein euen eta, bueno, zeozer, hasieria emun zakon.

- Eta, orduan, eurak zaintzen zebeñ, hori, parrokuak eta, ze, ze pelikula emoten zian eta?

- Bai, eurak zertuta. Euen hemen, dana, zela parrokixa danetan zeuen kasik zinen bat, ba, edo sakristixan dala edo beste lokalen baten parrokixakua, orduen, zeuen ofiziña bat Tolosan, eztakit nik ze, ze, ze, ze esan gura euen, baiña Fides edo zan ha. Osea, gero pixkat zinian administraziño partia be [erun auen], baiña haik kontratuak itten zittuen, ba, ze pelikula, ze lote. Ba, marka batetik, ba... Eta, klaro, hamarretik bi edo hiru izaten zien oso onak edo famosuak, baiña bestiek, ba... lotia hartu bihar zan ta, ba...

- Hala eta guztiz be, orduan, gustora juango ziñazien, ez?

- E?

- Hala eta guztiz, nahiz eta pelikulia txarra izan edo, gustora ikusiko zan, ez? Behintzat zeoze diferentia, ez?

- Bueno, beste... beste... bestela autubusa edo trena hartu geikien, hartu zeikien ta Mondrauera, bueno Mondrauen bai eta Aretxabaletan be bai, baeuen zinia, baiña, ba, kanpora fan bihar.

#### 4.15. Umetako oroitzenak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/008
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** San Prudentzian jaio eta 1935ean Eskoriatzara joan ziren bizi izatera. Eskola kontuak; eliza ondoan zuten auzo-eskola. Irakaslea nolakoa zen; zer ikasten zuten.

#### Transkripzioa

- Bueno, zu San Prudentzian jaioetakua eta lehelengo urtiak han ein zenduzen...
- Bai, hamar urte ta erdiaz etorri nitzen ni Eskoriatzara, hamaika urte kunplidu aurretik Eskoriatzara etorri nitzen. Eskoriatzara etorri gitzen el año... hogeta hamabostien, trenta y cinco. Gero treinta y seisien gerriek urten auen.
- Eta San Prudentzian jaiotakua?
- San Prudentzian, bai, bai, bai, San Prudentzian, honaxe etorri arte eskolara. Gero handik etorri nitzenien hona bilddurrez etorri nitzen ni. Gu, ba, baserritarrak ez, baiña "rural", ezta? Ta hona bilddurrez hamenguek asko gehixao jakingo dauela eskolietan ta bilddurrez eskolara juteko.
- Eta San Prudentzioko eskolietan zelakua zane edo nun zeuan?
- San Prudentzioko elix-onduen auen eskolietan ta oin soziedadie [dao han], auzoko soziedadie einda dauke. Soziedade edarra, e! Oso ona. Ta noixien behin juten naiz. Jun zane domekan be egon nitzen. Mezie entzun ta gero hango lagunakin hamarretakue ein ta musien ein edo...
- Zeozetxo...
- Ez gauen domekan musien ein ya jente geruao ta gutxiao... Zaharrak, badakitzu. Ni baiña zaharrauek eta, ba... Ez gauen musien ein, baiña hamarretakua ein gauen, ta...
- Ondo. Eta eskolietan ze izaten zane neska ta mutillak batera?
- Bai, bai, bai, neska ta mutillak danak, San Prudentzian danak batera zane. Maistrie geuken, maistrie, ta gizona euken maistrue Bergaran.
- Eta maistria zelakua zane? Gogorra?
- Bueno, bai, belarrieskiñako batzuk eta emoten zittuen, baiña nik uste dot erakutsi ondo eitten auela, e? Guk, behintzat, nahikua ondo ikasi gauen, nahikua ondo. Nik eskolietan gehixena, esateko, haintxe ikasi nauen. Gero hamen gerriek be urten auen ta... ba, San Prudentzian ikasi nauen nik eskolarik gehixena. Ta, bueno, nik "regla de tres"-ik eta holako puñetaik sekula ez dot ikesi, baiña problemak, lau operaziñoko problemak-eta eitten gustora ibiltten nitzen. Ona nitzen.
- Horretan, gaiñera, ona ziñan, ez?
- Bai, hortan bastante ona nitzen, bai. Dibujuen-ta oso txarra. Han ez geuen dibujorik-ta eitten sekula be, ta hamen eguenetan eitten zane dibujua, eguen atsaldien. Ba, katxondeo bat izeten zane, danak bata bestiekin ta "Eeee" ta. Nik ez nakixen ezta... bueno! Erredondo bat eitten

be ez nakixen.

- Ta maistria ze zan kanpokua edo bertakua?

- Bai, ez dakit nungue zan. Ez dakit nungue zan.

- Baiña euskalduna edo...?

- Guk erderaz eitten gauen ta ez dakit euskeraz akixen. Ez dot pentsetan euskeraz akixenik. Gero uste dot Vitorixan hil zala ta ondio urte asko ez da hil zala, e? [Basiliza] Navarro. Bai, ta gizona zan maistrue Bergarakua don Inazio Zabala. Ba, eukiko zittuen... ez dakit nik, dozenerdin bat ume edo eukiko zittuen harek andriak. Ta gehixenetan, parto gehixenetan, geure amak asistiduta [auen]. Geure amak asistiduta [auen] partuek eukitten zittuenien harek. Bai.

#### 4.16. Auzo-eskola San Prudentzion

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/009
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskola kontuak; auzoko neska-mutilak ibiltzen ziren bertan.

#### Transkripzioa

- Esaten dozu eskolan erderaz egitten zenduela?

- Erderaz, bai.

- Bertako umiak izaten zian, San Prudentziokuak bakarrik?

- Bai, San Prudentziokuak. Baiña San Prudentzio, zuk kontu ataraizu ba, han behian kasik etzan iñor bizi, geu eta beste ferrobiarxuenak-eta, estaziñuan bizi zienak, eta beste bi ero hiru etxe. Beste etxe danak ba... jangoikuak dakixen lekutik etorten zien, e. Basarri... urrinddik, e! Bai, bai, bai. Han basarrixak daz, San Prudentzion, oso urriñ daz basarrixak.

#### 4.17. Umetako kontuak; eskola garaia

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/011
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:08:55. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Umetako kontuak; jolasean non egiten zuten. Irakasleari errespetu handia zioten ume guztiek. Ez zuen zigorrik ezagutu euskaraz egiteagatik.

### Transkripzioa

- Umetan-eta mendixan ibiltzen zinazien asko?
- Keba. Hantxe, eskola inguruan-ta. Maistriek errespeto kristona auken, e. Ta guk, e, bost ero xei jolasian ibilli. Eta "maistrie!" esan ezkeror, raa!, ezkutau eitten giñen danok. Bilurra, billurra geuken.
- Zigorrik ipintzen zotsuen euskeraz berba egitteagatik?
- Ez, ez, ez, ez. Erderaz, e, basarritarrak-eta, e, neuk be asko ez, baiña basarritarrak eta gutxiau; erderaz drinbili-dranbala eitten geuen gehixenok; eta gero abariakin monagillo-ta, monagillo bizi guztien.

#### 4.18. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/012
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:09:55. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetako jolasak: sokasaltoan; tortoloska... Garizuma garaian, txirikilarekin jolasten zuten.

### Transkripzioa

- Dana dala, jolas orduan eta zer jolas egitten zenduen?
- Ze jolas? Maistriakin berakin... bera gogorra zan sokasaltoka-ta, asko eraitten oskun, bai. Ta bera sokiai eraitten, ta soka fuertie-ta, fuerte! Deskuidau ezkeror jo orkatillan eta hankazgora be bai. Batzuk, e, gauza danetan moduen, batzuk abillidade gehitxua eukitten auen beste batzuk baiño; beste batzuk torpe samarrak eta... Ahal dana. Gero pelotan be eitten geuen puxkat, elixpeien pelotan be eitten geuen puxkat. Eta gero, intxorak dazenien-eta, potxoloka esaten gutsen, intxaurrekin, zer bat eindda. Zerakin, e, tortoleska be eitten geuen.
- Tortoleska zerekin eitten zenduen?
- Tortoles "tabas" dia, ardixen, e, hankak... Tortolesak die ba... lau, bost, xei... alde...
- Eta mutillak be horretan?
- Bai, bai, ba. Neskak abillidade gehitxuau izeten auen, abillidade gehitxuau.
- Intxaurrekin esan dozu, intxaur denporan intxaurrekin jolasten zenduen?
- Bai, bai, bai. Intxaurrekin.
- Egoten zan urte sasoi bakoitzian, esate baterako Garizuman...
- Garixuman txirikilletan eitten gauen.
- Eta zer jolas da hori?
- Holako, txirikillia esaten gauen, holako egur bat, puntak alde bixetatik eindda, eta gero mazeta bat egoten zan, da harekin bota ahal danik urriñen, eta gero bota biher izeten euen, holako zer bat, barruan sartzera; sartzen ez baeuen ba... Ez dakit. Ia ahaztuta dauket, e. Gero txirikillia ipiñi zoztxo baten gaiñien hola, ta mazetiekin jo, ta aidien bota. Ez dakit zela eitten geuen be...
- Zeuek eitten zenduezen makillak?

- Bai, bai.

#### 4.19. Dotrinaren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/027
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:38:35. **Bukatu**: 00:41:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Erlijio kontuak; dotrinaren garrantzia. Jaunartzearen inguruko azalpenak. San Prudentzioko auzo-eskola; urtean behin inspektorea joaten zitzaien; sariak banatzen zituzten.

#### Transkripzioa

- Relijiño kontuak eta, dotriña eta. Hori guztiori imajinatzen dot San Prudentzion izango zala. Jaunartzia non ein zenduan?

- San Prudentzion, bai. Abariak emuten oskuen dotriñie, dotriñie sagraue zan orduan. Joe..., dotriñie, e, dotriñie ondo ikesi geuen guk orduan.

- Zenbat jaunartze egin zenduezen, bat ala bi?

- Nik... Uste dot bat hartu geuela, uste dot bat. Ez naz ondo akordetan, baiña. San Prudentzion zela hartu geuen komuniua akordetan naz ni.

- Bai?

- Eta konfirmaziñuaz be akordetan naz. Obispue etorri zan, Mateo Mujika izango zan, uste dot. Obispue etorri zan, ta... erdi billurrez, obispuekin, baakizu, erdi billurez zer esango ete oskun. Ta monagillo be ein bihar, ta... Baiña obispuekin, e, abadiekin letxe, ondo.

- Dotriña esaten dozu ondo ikasi bihar zala?

- Bueno, bueno! Dotriñie ondo ikesi geuen guk.

- Ondo jakiten ez bazan, kalabazak emuten zittuen, edo?

- Keba. Nik eskolan esamiñaik-eta sekula ez neban euki. Guk ez geuen sekula esamiñaik euki. Urtien behiñ-edo Bergaako aiutamentukuok-edo etorten zien, orduen preguntan bat edo bi eitten zittuen, ezta? Zeoze preguntatearren, baiña premixuek ekarten oskuen. Premixuek, paketetxon bat-edo, pastelak-edo, hau edo, bestie edo, ekarten oskuen. Premixuek! Joe... Orduen ez zan ezer eoten-ta... Aldamenien zela guk geuen estankue, estankue ta tabernie, han gailletak eta saltzen zittuen, gailleta paketiek, kostetan zien txakur haundi bat, hamar zentimo, pezetien hamar zentimo. Eta guk harei pastelak esaten gutsen. Honek "galletas maria", ez dakitzu, baiña mariak ez zien; horrek beste luzenkok zien; baiña txakur haundi bat kostetan zien, eta guk jaixetan eukitten geuen pagia txakur haundi bat. Domeketan txakur haundi bat, etxien emuten oskuen txakur haundi bana; neri ta arrebai txakur haundi bana. Ta takarraran fan ta pastelak erosi. Pastelak.

- Gauza haundixa.

- Eta oin gaiñera esaten dou, ezta, e, "joe, hareik oinguen aldien onak zittuan ta". Oinguek hoviek izengo die seguru asko. Seguru asko bai, txarrauek ez die izango oinguek. Baiña orduen ez auen-ta!

- Orduan premixuak Bergarako aiutamentutik.

- Premixuek ekarten oskuen, bai. Zer ez dakit. Gero kantau eitten gauen, maistriek kantu bat erakusten... Ahaztute daukat. Eta ni kantuek goguen eukitten-ta ona naz, e! Nik lengo bertso zarrak-eta asko dakit, baiña asko.

#### 4.20. Erlijioaren eragina gizartean

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/028
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Dotrina garrantzitsua zen. Erlijioaren garrantzia; gizartean zuen eragina. Ohitura zaharrak.

##### Transkripzioa

- Orduan dotriña jaunartzia eitteko derrior ondo jakin bihar?
- Dotriñie sagraua zan orduen. Dotriñie orduen, e, urtien behin, sekula elixara faten ez zienak be [baazen San Prudentzion be, baazen; jente ona zan, baiña elixara ez zienak faten baazen], ba urtien behin komuniue eitten auen hareik be. Komulgetara urtien behin, eta konfesetara be faten zien; konfesetara, ba, zelabait konfeseuko zien, baiña... Gero komuniue hartzeko, meza denporan ez, goixien goixauan, seiretan edo fan, ta... Gure anaia-ta monagillo zien-ta, bezperan etorri gurera-ta: "Hi, bihar goixien abadie esanda jak", eta fan ta komuniue emun, ta...
- Eta orduan komuniua-eta baraurik hartu bihar zan ala zela?
- Barurik, hoixe, barurik. Agiñekin ikutu ezkerro be pekatua, pekatua izeten zan, ta barurik, barurik fan bihar.
- Ura edan zeikien?
- Ez, ez, ez. Ezebez, Barurik. Barurik egon bihar.

#### 4.21. Erlijioarekin zerikusia duten ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/029
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Erlijioaren garrantzia; gizartean zuen eragina. Ohitura zaharrak; hileta-elizkizunak.

##### Transkripzioa

Orduko gauzak ba, oin ikusten (d)ittugu guk, Eskoritzan bertan pasetan

zan, ni Eskoritzara etorri ta gero, Eskoritzan be monagillo ibilli nitzen ni, ni bizi guztien monagillo ibilli naz, oindio be monagillo nabil-ta, bizi guztien. Eta Eskoritzan entierreak izeten zien beti hamarretan, goixeko hamarretan. Jentie fabriketatik urten eta entierrosa. Eta mezak egoten zien, ba, bost edo sei meza, zazpi altara euazen-ta, batzuetan zazpi be bai, eta hareik mezie emun ta gero, hiru abarek meza nausixa emoten euen, entierrokua. Baiña -oin ez jat ondo pentsetan, baiña orduen, e...-, mezia emuten auen abarieri sakristixara armozue erueten jakuen: meza txikiñak esaten jakonak emuten auenien, sakristixara, e, bandejiakin armozua. Kantsau eingo zien-ta! Lan asko eindda, barurik... Beste danak be bai, e, barurik, han dazenak... Baiña kostunbriek, orduen holaxe zien-ta...

#### 4.22. Umetan eliz mutil

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/030
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:47:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Ume-umetatik meza-laguntzaile aritu zen elizan; egin behar izaten zituen lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Elizakoak banatzera joaten ziren; urtean behin, abadea baserriz baserri joaten zen soroak bedekatzera.

#### Transkripzioa

- Monagillo lanekin San Prudentzion bertan hasi ziñan?
- Bai, hoixe. Ni fango nitzen monagillo, nik uste dot xei urtegaz ero hasiko nitzela.
- Eta zela hasi ziñan, zein bittartez edo?
- Zela? Bai ba, kalekuek izen-ta, mutikuek, e, han inguruen bizi zien mutikuek danak, asko ez gitzen-ta; gu be bai, eta han tabernakuek be bai, eta gero Elormendiko nire lagunak, oin be lagun intumue dot, Dionixio-ta, eta gu monagillo. Gure anaiek be, anai zarren bixek be monagilluek izan zien. Gero.... Hareik urteteko desietan-ta, gu barrura.
- Eta orduan monagillo lana zer izeten zan, zer egitten zenduen zuek?
- Mezie emuten lagundu-ta; gero baten bat, e, gaixoik dauenien elixakuek emon biha jakonien-ta, oin ezta hainbeste usetan, baiña orduan, goixien illunetan, igual kilometro bira San Prudentziotik. Atzenengo baserrixa dao San Prudentziotik kilometro bi ta erdira-ero; kamiño, e. Bentan akordetan naz, ni be birritan fanda nenguen, da nire anaiek eta sarrixau, gizona be txarto, txarto, zaharra... Eta harei komuniue eruten. Abaria-ta goixeko xeiretan-ero, e! Eta kanpanillia, talan!, talan!, jo-ta... Birian baten bat jo ezkerre belauniko jarri biher. Belauniko, han pasetan zienak, ba, belauniko jarri, eta talan!, talan! "Han, elixakuak". Holaxe izeten zan.
- Zuk txiliña jotzen...
- Bai, bai. Abarie faten zan kopoiekin komuniue emuteko. Lelengo kostunbriek holaxe zien.
- Eta hori zela izaten zan, beti goizian? Goizian goiz?
- Bai, bai. Goixien xeiretan-ero, goixien illunez.

- Eta zeurekin batera besten bat joaten zan prozesiñuan-edo?  
 - Ez, ez. Gehixenien bakarrik. Bai.  
 - Gaixorik zegoenaren habitaziñora?  
 - Bai. Konfesau eta komuniue emun-ta itte utsen-ta. Gero urtien behiñ terrenuek bedeinkaketan faten zan abarie. Baserririk baserri, monagilluekin. Eta lelengo abare zaharra auenien, batzuetan oillaskue emuten utsen, da beste batzutan arrautzak, beste batzutan txorixuak... Bedeinkatu-ta... Zestuekin, e, asko batzen zittuen, e! Eta monagillueri, abariak, lenagoko abare zarrak, hirutik bat monagillueri emuten utsen; oseake asko. Asko, asko; hirutik bat monagilluei. Gero abare barrixa etorri zanién, gaztie, ha hil zan, ta gaztie etorri zanién, ba..., harek puxkat kanbixau auen, harek, e, propiñie emuten auen, baiña hirutik bat-eta ez. Baiña abariek-eta asko batzen auen. Gero, e, orduan txarrixek zela hiltten zien baserri danetan, geurien be bai, kamiñero-etxie izan arren, aittak urtero-urtero txarrixa hazten auen, txarri haundixa, e! Afana eukitten auen txarri haundixa hazteko. Txarrixa hil, eta gero ba erregaluek, batai eta bestiai, ta... Eren auzo danekuei ez, baiña han ingurukuei, danei. Abariei baserri danetatik erregaluak. Asike... Odolostiek-eta abariek sobra eukitten zittuen. Solomue-ta... Abariei onak eruen bihar ba...

#### 4.23. Bedeinkazioak; baserri-giroa

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/031
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:47:25. **Bukatu**: 00:49:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
 Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Soro-bedeinkatzea noiz izaten zan; gai honen inguruko azalpen interesgarriak ematen ditu. Inguruko baserritarrek esnea beraien etxean uzten zuten esnedunak jaso zezan.

#### Transkripzioa

- Soluen bedeinkaziño hori noiz izaten zan?  
 - Ez dakit ze epokatan izeten zan. Ez dakit, ez naiz akordetan.  
 - Udabarrixan-edo?  
 - Udan izengo zan. Neguan ez zoiazen abadiék soluek bedeinketan.  
 - Baserri bakoitzera?  
 - Baserri bakoitzera. Baserri danak pasetan zien. Eta basarrixak han urrin daz, e! Batzuk alde batera urrin, eta bestiak betekaldera be bai urrin... Baiña egun bixan edo hiruan danak pasau-ta...  
 - Auzuetara eta baserrixetara beti oiñez?  
 - Biheko, besteik ez auen-ta. Biheko oiñez, orduen ez auen...  
 - Toki batzutan medikua-ta ibiltzen zan zaldixan ...  
 - Bai, bai, bai. Eskoritzako medikuek be zaldixa baauken. Baiña bestela oiñez. Mondrauetik-eta baserrin batera karnazeruek-eta errekauren bat bialdu biher ebenien, e, orduen ez auen telefonoik eta puñetaik, eta "ekarri deixela, txahala ekarri deixela..." Beti geure etxien abixue ixten euen, ta gure aittak-edo gure anai zaharren batek kasakristora; hara fan, ta "bixar

goixien erueteko, zera". Gauzak holaxe zien. Ta basarritarrak esnia hiru-lau lekutatik behintzet ekarten euen geure etxera esnia; eta hurrengo goixien pasetan zan, Angiozarko letxerue esaten jakon, goixien, goixeko seiretan-edo aittak ataraten utsen esnia hari.

- Gera harek repartitzen zittuen...

- Gero Mondrauera erueten zittuen, nik gero Mondrauen ze eitten euen ez dakit. Baiña baserritarrak beti be, ba, ekarten oskuen zeoze, basarriko ogixa, basarriko opilla-edo; edo labe-sue eitten euenien sagar erriak-eta. Ni akordetan naiz zela ekarten zittuen.

#### 4.24. Elizakoak banatzen abadearekin

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/033
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:50:10. **Bukatu**: 00:51:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Abadearekin batera elizakoak banatzera nola joaten zen kontatzen du.

#### Transkripzioa

- Elizakoak esan dozu gaixorik zegoenaren habitaziñora joaten ziñaziela, ezta? Orduan ohitturia izaten zan beste baserrixetatik be hara joatia?

- Ez, ez dot uste, ez. Eta lehen nik esan dotsuten baserrixa... Kilometro bi t'erdi, kilometro bi pasau daz hara, elixakuekin neu fanda nauela esanda nau, soluek bedeinkaketan fan zanien izengo zan lelengo aldiz, zerbezie hantxe probau neuen nik lelengo aldiz. Zerbezie atara otsien, ta nik sagardaua zalakota rauu! Trague, ta ez jaten gustau. Ez jaten gustau. Dios, kriston sorpresie eruen nauen.

- Zer zan, bertan egindakua, ala zer?

- Ez dakit, ez dakit. Zerbezia orduan rarue izeten zan, baiña han baserrixan baaukien. Ta abariai ba atara ein biher zerbezia.

#### 4.25. Eskoriatza bere gaztaroan

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/037
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:56:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

- **Laburpena:** Eskoriatza nolakoa zen bere haurtzaroan. Eskoriatzako kaleak; kale-baserriak. Umetako kontuak; okerkeriak. 1935ean frontoia egiten hasi ziren.

### Transkripzioa

- Zelakua zan orduan Eskoriatza?
- Eskoriatza? Bueno, orduan ezebe ez auen ta. Hemen, e, Erdiko Kalia, Beheko Kalia eta Goiko Kalia. Eta gero horri San Juan kalia esaten jakon. Hortxe dirijiduten zan dana. Eta gero ezautu danak itten zien, e, ba Dinotxuenak, ero Baldasarrenak, ero Enekoategixenak...
- Danak ezaunak, ez?
- Bai, danak, danak. Danak ezaunak.
- Eta kale horietaz aparte, beste guztia zer ziren, soluak?
- Bai. Kalien be baazen ganauek aukenak-eta.
- Kale-baserriak?
- Bai. Inotxuenien be eukiko auen, eta Baldasarrenien be bai. Da nire andrien etxekuek be behixek euki zituen. Harek Ubidetik etorritakuek zien, baiña behixak, eztakitt bat ala bi eukitten zittuen, baiña behixak eukitten zittuena badakitt seguru.
- Orduan herrixa txikixa izango zan, ez?
- Bueno. Nik eztakitt zenbat habitante eukiko zittuen baiña. Eztakitt. Akaso bi milla eukiko zittuen, baiña gutxi. Auzuetakuekin eta danakin, e. Kalien danok giñen ezaunak.
- Umiak-eta kalia danok alkarrekin ibiltzen ziñaten ala auzo diferentetakuak...
- Ez, ez. Danok alkarrekin.
- Eukitzen ziñuen burrukarik-edo zeuen artian?
- Bai, bai. burrukan be eitten gauen beti be-ta.
- Goiko kalekuak...
- Bai. Batzutan harrika be bai, eta gero hurrengo egunien eskolara fan ta lagunek, baiña... Bai, pasetan zan, bai.
- Hemengo jolaslekua zein izaten zen orduan?
- Bueno. Plazan-ta, orduen frontoia, e, ez auen, oin dagon frontoi hori ez auen. Horma, pareta bakarra auken hemendikaldien; zabala zan. Eta gero han arbola azen haundixak, gaztaiña zoruek, "castañas pilongas" ero. Eta jolasien han ibilttten gitzen. Eta gero, gu etorri giñen urtien, al año treintaycinco, frontoie itten hasi zien, eta al año treintayseis frontoia akabau, San Pedrotan inagurauko zan, eta juliuen gerria urten auen.

### 4.26. Umetako gogoetak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/040
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:57:50. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Eskoriatzara bizi izatera etorri zeneko zenbait kontu; lagun giroa. Eskola non zegoen; irakaslea.

### Transkripzioa

- Esaten dozu treintaycinkuan etorri zinatela Eskoriatzara. Lagunak segiduan egin zenduzen?
- Bai, bai, laster ein nittuen lagunek, bai.
- Erreza zan?
- Lelenguen erdi billurrez etorri nitzen. Kalien..., gu kalien bizi barik gengozen, ta... Hemengo mutikoek asko be gehixau jakingo dabela-ta pentsetan neuen. Da gero ikusi neuen, ba, neure antzera. Hortxe, dibujuan-ta manejetan nitzen gaixki. Gaixki ez, bapez.
- Eskolia nun zeuan orduan?
- Hementxe, plazan, hor etxiok eitten badabiz ba... Hortxe plaza pare-parian bertan. Hortxe azen, neskak eta mutillak. Eskillarrak alde banatatik, neskak eta mutillak.
- Aparte, ezta?
- Bai, bai.
- Hemen maixua eukiko zenduen, ez.
- Maixua. Gero azken aldera emakumie euki geuen, Celia, majia, oso guapie zan. Bixetan emakumiek, geurien be bai eta bestien be bai. Eta gero ha ezkondu zan Eibarrera. Hil zan. Oso guapie zan. Ordurako fijetan gitzen gu.

### 4.27. Eskola garaia

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/042
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:59:25. **Bukatu**: 01:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskolan zer ikasten zuten. Umetako kontuak; familia giroa. 13 urterekin lanean hasi zen; orduko oroitzapenak. Barkileroa Eskoriatzara noiz etortzen zen; zer saltzen zuen.

### Transkripzioa

- Zela gogoratzen dittuzu eskola kontuak? Asko ikasi zenduen ala zer ikasi zenduen?
- Nik, e, "las cuatro reglas", "las cuatro reglas" bastante ondo, eta gero honek problemak "de cuatro operaciones"-ta. Hortantxe bastante ona nitzen.
- Mapak eta eukitzen zenduezen?
- Euki bai, baiña nik, e, gutxi, gutxi. Guk han ez geuen mapaik eukitten, eta gutxi.
- Inspekziñoik, inspektoreren bat pasatzen zan lantzian behin?
- Ka, ez dot pentsetan, ez dakit. Ahaztuta eukiko dot igual-edo. Baiña ez dot pentsetan inspekziñoik-eta. Keba, keba. Eta esamiñaik-eta ez dot pentsetan sekula ein geuenik.
- Eskola-egunak zeintzuk izaten ziran. Zapatu goizien be joaten ziñazien?
- Zapatu atsaldia jai uste dot, eguen atsaldia jai. Baiña eguenien izeten

zan, e, dibujo. Katxondeo bat izeten zan. "Hi, etorri hona! Etorri hona!" Dibujoi izeten zan... Ni ardi galduen moduen ibiltzen nitzen lelengotan. Gero, gero... akostunbrau nitzen.

- Eskolatik urten eta jolastu non egitten zenduen?

- Jolasian? Lelengo etxera merixendie hartzen. Guk,e, arrebiak eta nik, arrebia urte bi zarrua zan, merixendie preparaute eukitten euen. Orduen txokolatie, ontzak izeten zien, eta ontza erdi, kutxilluaz ebaitta, e, eta ontza erdi eta ogi zatixe. Domeketan ontza bat. Hori matematiko. Eta domeketan, ba, txakur haundixe propiñie eukitten gauen. Eta gero hamahiru urtegaz fabrikan (s)artu nitzan, ta ba dirue apurtxo bat gehitxuau, apurtxu bat gehitxuau barkilluek-eta erosteko, orduen barkilleruek eta egoten zien-eta.

- Barkillerua bertakua zan ala etorri egitten zan?

- Bertakue... Kanpotik be etorten zien, bai, Mondreuetik etorten zan, bai, Gutierrez, bai.

- Eta zelan?

- Potiekin. Txakur haundixa bota, ta ra-ra!! Bota-ta, premixoik haundixena treinta izeten zan, ta zero be bai, ta "cinco, seis", ta... "Treinta!", ta, io! Barkillo pillue! Eta egoten zien erredonduak, hostiek esaten utsen, eta bestie, e... barquillos, hostias... bestiek ez dakit zela esaten utsen. Bestiek edarrak izaten zien, e. Hemengo barkillerue oso ona zan, oso onak eitten euen, eztixa erdixen ipiñittta-ta, oso barkillero ona zan. Baiña haik, e, gutxi jaten gittuen guk. Guk hostias, hostiak esaten gotsien.

#### 4.28. Eskolan eta abadearekin errespetu handia

- **Hizlaria(k):** Lezeta Errasti, Maria; Romaratezabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-015/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** 6 urterekin hasi ziren eskolan. Maritxuren maisua, gogorra. Abadea kalean ikusten zutenean, eskuan mun egiten zioten. Errespetu kontuak eskolan ikasten zituzten. Marin auzoko kontuak. Maisua astean behin joaten zen klaseak ematera. Abadeak euskaraz ematen zituen klaseak; maisuak erdaraz. Hizkuntzaren inguruan tirabirak izaten zituzten.

#### Transkripzioa

- Hi zenbat urteaz hasi hitzen eskolan?
- Ni seiaz o, ez dakit, holakon bat.
- Hasi hitzenan? Ni be bai. Ta seiaz. Ta gero maistrue zelakue izeten zonan?
- Maistrua segun...
- Maistrua ala maistrie?
- Maistrie.
- Maistrie eukitten zeuen? Guk, en kanbio, maistrue. Ta gogorra, e? Beti be zaplazteko onak eta.
- Jesus! Bai, e?

- Bai.

- Oseake, jotaillia zan?

- Orduan leña emoten euen danak.

- Bai, gurie... ha okerra. Erakusten be ona zan, baiña ni baten markaute be bai, e?

- Bai, e?

- Juan nitzonan. Eta beziñak-eta: "Ene! Zer pasau jatzu hor Maritxu?" ta "Zer pasau jatzu?" ta "Jausi". Tonta haundixe! [...]. Baiña orduan egoten zan gauza bat maistruekin, abadiiek...

- Bai. Errespeto bat...!

- Bai, billurra, ez?

- Bai. Hik be ingo honan, behin baiño gehixao, abadie ikusi ta ze eitten hunan?

- Bueno! Takarraran fan ta mun emuten!

- Mun emuten. Bai, bai. Kalien ikusi ta... Etorri [hona] Marindik igual, ta abade [ez ezaune ta ezebez], sotanik ikusten bageuen, "Hola, ave maría purísima"...

- Bai, ta mun emun ta... bueno!

- ... eskutik [obatu] ta emon eitten [geuen].

- Osea, zeuek hori umetan ein izan dozue...

- Bai, umetan ta haundi indde ya hamabi urte ta hamalauaz be bai, e?

- Bai, bastante haundi indde be bai.

- Hamabi-hamalauaz be bai, e? Itten geuen [etorritta abadiiek-eta]. Eta autobusien edo faten —autobuse ez, orduan trena egoten zonan— faten bagintzonan ze itten [gixonan]? Asientua aguro librau.

- Aguro!

- Itxi ta persona... zutittu ta jarri.

- Edadeko bat ikusten bagauen...

- Oinguek ez jone eitten hori! Oinguek bultzetu! Oingo gaztiek?

- Bueno, horrenbesterako be...

- Oinguek? Bueno, bueno!

- Ez, nik ez dot esaten oinguk...

- Eta elixan?

- Eleixan be igual.

- Elixan ikusten bazauen edadeko bat han dauela, zu kendu ta sillia emun eta zu zutiñik egon biher.

- Hi, niri beittute eidan berba, bestela hari be eixon "hi".

- Horrek gauzok ze ikasten zian etxian? Errespetu kontu horrek eta...

- Ba, horixe erakutsi oskun guri maistruek eta...

- Baiña maistruak ala etxian ikasten zan?

- Ez, maistruek gehixao.

- Maistruek. Maistruek gehixao.

- Maistruek?

- Gero etxien be ondo pentsetan jatien, ba... ez dakitzu? Baiñe maistruek horreik... hori eskolatik.

- A, bai, e?

- Bai. Eta gero eurak maistrue eta abadie igual ekitten zien eurak geure aurrien igual... Zeatik izeten zonan —Mariñen behintzet— maistrue etorten zonan hillien o astien behin klasiek emutera etorten zonan. Eta maistruek emuten jonan erderaz, ta abadiiek emuten jonan euskeraz.

- Euskeraz? Ta bixen artien burrukan...

- Eta egoten zittunan... Bueno! Euren artien ikusten geuen... hori, hori oso zatarra izeten zan, e? Baiñe gauza danak orduen be polittek be bai gauzak eta zatarrak be bai, e?

#### 4.29. Mojetako gaiztakeriak; zigortuta eskailerapean

- **Hizlaria(k):** Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-027/001
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Mojen eskolan egiten zituzten gaiztakeriak. Behin moja bat gaixo zegoela eta, isilik ibiltzeko esan zieten, baina beraiek irrintzi egin zuten. Zigortuta, eskailerapera eramaten zituzten mojek.

##### Transkripzioa

-Zigorra, e, lenengoko egunien zigorra.

-Zigorra?

-Hiru urte gaz. Ba gaiztokeixan bat eingo nauen, eta hango zigorra izeten zan eskillapeia. Eskillapeien igual ordubete edo bi ordu edo holan. Gaiztuek giñen geu be, e, gaiztuek giñen.

-Zer egingo zenduen ba?

-Okerkeixan bat. Ni neu enaz gogoratzen ze ein nauen. Oin, geruau ze ein nauen bai. Ba pentsa: auen monja bat auen oso gaixki. Monjak zien; hau etxe inguru danau lehen zan mojan konbentua hori etxioi. Baiña honek terrenuok monjanak zien honek, e. Orduan gu ibili gitzenien eskolan izengo zan horixe, caja de ahorros antxiñako hori izengo zan patixua, eta hortik hona kantoiraiño eskolia. Eta mojak etorten zien etxetik eskolara. Eta harek jotzen auen kanpanillia sartzeko eskolara, ezta? Eta moja bat auen gaixki, eta esan oskun ixilik egoteko, ezta? Ixilik, klaro, monjak esaten auenien "la hora" urteteko, han alboroto tremendua egoten zan, ezta. "Bueno, sor María Aranzazu oso gaixki dao eta ixili-ixili". Ba ez jauna. Maria Luisa Zaldua, hil zan, neure laguna, eta esan gauen: "lekaixo ein bihar dou / bihou/". Ein zauen, monjak esan ixilik egoteko, baiña guk lekaixue ein gauen.

-Lekaixua ze da?

-Irrintzi bat!

-A bai, e? Hantxe gelan?

-Hantxe.

-"Qué cuadrilla"!

-Urten bihar gauenin /bigauenin/, urteteko be ba "en fila" jarten zan orduen eskolan, e. Eta in gauen, horixe irrintzixoi in gauen, eta eskillapera bixok. Han illuna egoten zan e? Baiña sartu gindduen han eta guk mojak baiño indar gehixao geuken guk, barruan egon arren, preso egon arren. Eta moja holan hankia ipinita atien, bestaldetik bi moja, eta gu bi neskatala barruen, eta moja atia zabaldu eitten gauen. Urten gauen; gero hurrengoko egunien... Ordun izeten zan kopia, "cien veces, quinientas veces" edo "mil veces". No haré más o holan.

-Zigortuta.

-Zigortuta.

#### 4.30. Mesedeetako eskolan soinekoa belaunen azpitik eta ilea liso

- **Hizlaria(k):** Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-027/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
  - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Klausurako mojak ziren mesedeetakoak. Eskolako janzkera; soinekoa belaunen azpiraino eraman behar izaten zuten, bestela eskolatik botatzen zituzten eta. Behin amak belaunak estaltzen ez zizkion soineko bat egin zion eta mojek eskolatik bota zuten. Ilea kizkurra zutenei sokarekin lotzen zieten ilea lisatzeko.

##### Transkripzioa

-Horrek zien "Mercedarias de la Vera Cruz", ezta? Zu egon ziñenak.  
-"Mercedarias... de clausura eran, e". Zegatik hemen residentzian-eta dasenak horrek be die "mercedarias, pero son libres", eta bestiek zien "de clausura". Gero hamendik fan zien horrek Berrizera. Berrizen uste dot dauela konbentu bat "de las Mercedarias de Clausura".  
-Eta zu uniformiakin eta holan faten ziñen klasera?  
-Ez, ez, ez. Era bat egon zan, ezta? "De uniforme", soiñeko baltza izeten zan. Soiñeko baltza ta kitto. Eta hola. Baiña orduen ahal dauenak itten auen, baiña ezin auenak ez. Eta gaiñera, fan biher zitzen mangakin honaiño, eskotia holan eta belaunperaiño soiñekua, e. Motzaue erueten bazauen, kalera. Ni akordetan naz neure zorion egun baten gure amak in osten soiñeko barri bat eta fan nintzen haregaz soiñekuez eskolara eta monjak bialdu niñun kalera. Zegatik itxuria belauna ez nusten tapetan! Berezko ille kriskue aukena be, eskolan larri egoten zan orduen monjakin, e. Ez dakit zer pentsetan auien monjak, "por presumir" eitten zala edo zer. Eta "a quitar". Izen dana la sacristana, horrek berezko ulia dauko holan, eta zenbat bider; eta hori baiña zaharraue akordetan naz beste bat, Emilia edo euken izena, sokiaz lotuta, e. Sokiaz lotuta uliak atzeruzka liso eukitkeko.

#### 4.31. Merzedarietako eskolan zazpi urtera arte

- **Hizlaria(k):** Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-027/003
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Mesedeetako eskolara astelehenetik larunbatera joaten ziren; ostegun arratsaldea izaten zuten jai. Eskolan zer ikasten zuten. Jaunartzea egin artean ibili zen mojetan eta gero eskola nazionaletara pasa zen. Berak zazpi urterekin egin zuen jaunartzea, baina bere lagun batek seirekin. Josten ere ikasi zuen eskolan eta mojek solfeoa ere

irakasten zuten. Bera 13 urtera arte ibili zen eskolan eta gero neskame joan zen, baina batzuek beranduagora arte ikasten zuten.

### Transkripzioa

-Orduen ez zan izeten oingo moduko oporrik eta. Eguena, osteguna, atsaldia. Eta kitto. Bestela dana izeten zan... Jaia jai, e. Astien eskolako jai ostegun atsaldia. Ostegun atsaldia izeten zan eskola bakua.

-Zapatuen be faten ziñaten?

-Klaro. Aste guztia. Eguena ez, esaten dotena, ostegunien atsaldia jai.

-Eta klasien zer emuten zenun, goixetan "matemáticas", eta zer gehixao gogoratzen dozu?

-Bueno, bai. Irakurri, idatzi eta gero abestiren bat elixan monjakaz; abestiak. Ni monjatan egon nintzen lelengo jaunartzera arte. Gero handik ostien egon nintzen nazionaletan, plazan.

-Aranan.

-Aranan, bai.

-Eta zenbat urtekin ein zendun jaunartzia?

-Zazpi. Nire lagun batek ein auen xei. Horko... espabilladia zan eta. (...) Pilar, oso intimia da laguna, eta han dau, eta haretzek auken xei, gaztiena kuadrillatik haxe izen zan, baiña bestiok gauken zazpi.

-Eta gero egoten zan "Mis Labores"?

-Bai. Nik badauket neure aiztiekin inddako uge-erropak be daukat monjetan bordetakuak, eta neuk be bai eitten nauen bordau eta errepassau. Klaro, tela bat eruten zauen eta eitten utsuen eurak artazixakin holan, "un siete". Ha ein biha zauen, ojo! Ebagixa, sietia hamen. "Una espiga" urten biha auen hor. Ha ez bauen urtetan" a soltar todo. Otra vez a volver a empezar". Eta ojaliak eta bordau, punto de cruz, bolilluak be bai, nik ez nauen ikasi. Nik ikasi nauen "malla".

-Mailla? Eta hori zer da?

-Arrantzailien bezelako... Ez dakizu zelan arrantzaliek ibiltten dien ba hor. Ba nik hori ikasi nauen eskolan, gazte; pentsa, hamahiru urte arte egon nintzen eskolan. Hamahiru urtekin fan nintzen Arrasatera umezain.

-Hamahiru urtekin lanera orduan?

-Bai. Nik behintzat fan nintzen eta beste batzuk be antzera batzuk. Beste batzuk hamabost-hamaxe urtera arte be bai eskolan. Gu hemen monjetan gabitzela, gure doble edadekuek abitzen ondio eskolan.

-Luzaruan ikasten zan.

-Batzuk bai. Gero montau auen solfeua be monjak.

-Nibel zan, e, preparaziñua monjak.

-Bai, bai. Bi aizta zien monjak. Batak pianua eta bestia "como profesora" egoten zan.

### 4.32. Mojetatik eskola nazionaletara aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-027/004
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:08:05. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

- **Laburpena:** Eskola nazionalaletan askatasun gehiago zeukaten mojetan baino. Jolastera plazara irteten ziren. Eskola nazionalaletan ez ziren hain zorrotzak, baina han ere jartzen zituzten zigorak. Pertsona nagusiagoei errespetu handia zitzaion. Doña Rosina izan zen bere irakaslea.

### Transkripzioa

-Eta gero joan zifrenian monjetatik beste eskolara, nazionalera, ze aldaketa ikusi zenun? Ze zan, berdiña edo hobetuau?

-Libertade gehixau. Orduen be errekreio moruen edo mojetan be hor zan patixo bat, eta han patixuen egoten giñen. Baiña hor urtetzen zeuen plazara. Eta izeten zan, nik esaten dotena, gure ikestie izeten zan, ba klaro, danak batera emuten auien, esaten auenien maistriak: "Geografia", danok jarten giñen pillan. Eta ez zakixena be salbau eitten zan. Zegatik bestiei beitu ezkerro, ahuai erain ezkerro indda auen. Indda auen. Eta zan beste... honek zien...

-"Más rígidas"?

-Bai, honek zien "más rectas, más"... Harek be, han be, eskolan be repartiduten zien edarrak, Orduan "todo era palo". Reglia edo. Oin uste dot ez dabela zigorketan ezta ezebe. Baiña orduen maistrakin eskolan plazan gabitzela, bai igual ez dotsazun ixten persona nausixauai eskumia pasetako, ezta? Zu bazoiez zeu eta bera fan biher badau bestaldera, fan daixela. Ba enteretan bazan, orduen persona nausixek be esan: "oye que fulanita o menganita... a ver qué habia en la escuela, qué órdenes o qué..." Eta ya "pues tenías castigo". Maistriak be regliaz, ni akordetan naz beste batei ba emun bihar otsen, eta bestiek ipiñi auen txaketie burutik eta eskola guztien postaka [...], danak korrika hantxe eskolan. Baiña ha zan beste gauza bat.

-Eta zein zan zuen maestria?

-Doña Rosina.

-Hemen Eskoriatzakua zan?

-Ez, ez. Senarra zan Eskoriatzakua. Aretxaga. Horrek... arotzan anaia zan Aretxaga.

### 4.33. Eskolan neskak eta mutilak banatuta

- **Hizlaria(k):** Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-027/006
- **Iraupena:** 0:58:15. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren eskolan, batzuk alde batean eta besteak bestean. Komuna bien tartean zegoen eta komun inguruan elkartzen ziren, batzuetan aurrez ordua jarrita.

### Transkripzioa

-Eta neskak eta mutillak faten zifnaten [...]?

-Ez, neskak eskumakaldien eta mutillak ezkerrien, bertan danak baiña...

-Separados.  
 -También ya había otra cosa. Hamen auen patixo bat, ezta?  
 -Bai.  
 -Eta hor azen mutikuen eskolako komunak, eta hamen neskatiñan, eta alkartzen giñen neskatiñak eta mutikuak holan, komunera fandakuen. Batzuetan ordue ipiñita eoten zan. Orduen be, orduen be. Ordue ipiñita egoten zan ba batzuk komunera oiezenien, bestiek eskaketan zauen komunera fateko, eta igual ikusiko zauen, igual ez.

#### 4.34. Eskolako bizipenak 34ko erreboluzioan

- **Hizlaria(k):** Uribarren Liziaga, Esperanza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-027/007
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak  
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna  
 Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak
- **Laburpena:** Jolas-orduan ere neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren, ordu desberdinetan irteten ziren eta. Eskola bukatutakoan elkartzen ziren soilik. 1934ko erreboluzioa irten zenean bera zigortuta zegoen; orduko bizipenak.

#### Transkripzioa

-Errekreua orduen be aparte. Errekreuan be neskak ordu bat eta mutillak beste bat.  
 -A, hori ez nekien, beittu. Oseake imposible.  
 -Orduen be ze izen zan? Treintaycuatro izen zan oktubreko reboluziñua. Orduen be ni zigortuta nenguen. Arrasaten Oreja-ta hil zittuenien ostirala zan, eta ostiraletan ferixie egoten zan Arrasaten, ganauena eta hola. Eta hemen Mazpelatik-eta danak faten zien Arrasatera eta ez utsien itxi pasetan, Muxibarren edo Arrasaten orduen panadera bat auen, eta buelta eiñ eta plazan sartu zien, plazara ekarri zittuen ganau guztiek, eta orduen errekreo sasoie zan, eta doña Rosinak: "tú castigada, aquí!". Eta baiña bentanatik urten nauen igual-igual. Plazan ze auen. Baiña aparte, horrek izeten zien aparte. Gero bai, urtetan zauenien neskak eta mutikuek danok eitten gauen jolas batera.

#### 4.35. Bolibarko Pagaldai baserriko semea

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/002
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:00:11. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Bolibarren jaio zen Pagaldai baserrian. Hamaika anai-arrebatatik hamargarrena, bere gurasoak etxe lanetan ibiltzen ziren. Sei urterekin auzoko eskolan hasi zen eta bertan egon zen 13 urtera arte. Gero Eskoriatzara joan zen ikastera eta bi urte egin zituen Hermano Luis Mujikan. 20 urterekin fabrika sartu arte etxean egon zen bertako lanak egiten. Gurasoak zaintzen zituelako soldadutzatik libratu zen.

### Transkripzioa

- Joxe, zu nun jaixo ziñen?

- Bolibarren. Nire baserriko etxiek be Pagaldai dauko, abizena be Pagaldai eta baserriak be Pagaldai.

- Baserrian bertan jaixo ziñen?

- Bai.

- Eta zure aittak eta amak zelan zaukien izena?

- Luis eta Matea. Luis bertako Pagaldaikue zan eta Matea Jausorokue, Iñurrategi.

- Eta zure aitta eta amak ze eitten zauien, zertan dediketan zien?

- Ba etxe-lanetan ibiltten zien etxien. Aitta faten zan, iketza eitten euan urtien apur bat, dirue nunbaittetik biher, eta amak ba eitten auen soluen lana, etxien, janarixek, seme-alabak hazi. Askotan zesto baten hartu eta titixa emuteko solo ezkiñen apur bat eukiko gindduen, eta...

- Asko ziñeten, ez? Zenbat esan dostazu?

- Hamaika, ni hamargarrena nitzen.

- Joe, pilla bat. Eta etxien zelan konpontzen ziñeten, ondo? Zelan zan zure etxia? Haundia edo...

- Oso haundia zan. Lehenau bizitza bikue zan hori. Pagaldai eta Pagaldai-aldekua. Eta Pagaldaittik fan zan Simon Otxoa, soldau fan zan denporan Tailluanera pasau zien, eta Tailluanekuak fan zien Arabara. Pagaldaiñena baserria aldatz haundixe eta nekosue zan. Han oillaskuek eta gangar edarrakin egoten zien, baiña dirua hartzeko saldu ein bihar izeten auen.

- Eta jateko bai, ez?

- Jateko be bai. Gose-goseik ni ez naz akordetan gose-goseik, baiña gehitxuau jango gaukiela askotan geldittu naiz.

- Bueno, hori leku guztietan pasatzen da. Eta zu txikiña ziñenien han bizi ziñen Bolibarren, eta eskolara faten ziñen...

- Eskolara, Bolibarrera. Ni ekingo nintzen eskolara xei urtekin edo. Eta han ibilli nintzen hamahiru urte arte. Gero Eskoriatzan ibilli nintzen, Hermano Luis Mugica, liburuen han daukat, urte bi ein nittuan Eskoriatzan hemen. Eta gero geratu giñen, etxien geldittu nintzen, fabrikara hogeitau urte arte ez nintzen fan, anaia hil jaten eta bestie soldau fan zan eta idixekin eta danakin ibilli bihar izeten nintzen aitta-amari laguntzeko. Ni neu soldauzkatik librau in nintzen, anaie ezkondata auen, eta ein ustien papelak neuk aitta eta ama jasotzen nittuela eta hortan librau nintzen soldauzkatik.

### 4.36. Leintz Gatzagako Sarrikorta baserrian jaioa; herrira eskolara

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/001

- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Leintz Gatzagan jaio zen Sarrikorta baserrian. Eskolara herrira joaten zen. Eskola eliza ostean zegoen. 10 urte inguru zituen eskolan hasi zenean eta 16 ingurura arte ibili zen. Askotan ezin izaten zen eskolara joan, baserrian lana izaten zutelako. Gaztelaniaz ez duela sekula ganoraz ikasi komentatzen du.

### Transkripzioa

-Lelengotik, Juanita, zu noiz jaixotakua zara?

-Nik ein dittut setenta y siete.

-Gatzan bertan, herrixan.

-Bai, jaixota basarrixan.

-Basarrixan?

-Basarrixan, basarrixan.

-Baiña zer zeuan, herrixan bertan?

-Herrixan, baiña basarrixetan, basarrixak dauz han. Bestela herrixan, kalia figurau dana, baiña basarrixan jaixua.

-Eta inguru hari zela esaten jako, auzu horri edo?

-Auzue ez da. Basarrixa bakarrik, Sarrikorta, baiña basarrixa bakarrik. Gero beste bat [Tranpena], beste bat [...], holan zabalduta. Beste herrixa Gatza, kalia.

-Orduan basarrixan jaixotakua...

-Bai.

-Eta eskolara eta?

-Kalera. Etortzen nintzen behera, eskolara, herrira.

-Nun zeuan orduan eskolia?

-Ointxe dauen inguruen. Ointxe dauen, eleixaostien, hantxe. Hantxe auen lehen be.

-Eta goguan dakazu zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?

-Ba nik gutxienez euko nittuen hamabi bat urte.

-Hasi ziñanian?

-Bai. Hamabi... Hamabi be ez naban eukiko baiña hamar bai. Lehen ez zan [...] hola faten. Haunditxuao faten zan; aizta bi, gu hamar bat urte bai.

-Orduan hamar urtekin eskolara. Eta zenbat urte egingo zenduzen han?

-Erdixetan fan be ez. Erdixetan fan be ez.

-Basarrixan lan asko?

-Klaro, amagaz eta holan; ta orduen ez zan faten eskolara, gutxi faten zan. Hamazortzigaz fan nintzen gaz fabrikara.

-Orduan hor bittartian?

-Bai, hortxe bittartian. Hamazortzi urte arte..., ibiliko nintzen hamaxei urte arte. Hamazortzi arte holako herrixetan ez zan egoten zeaik, eskolaik. Hamaxei urte. Xei urte ifiñizu. Xei urte, "lo único".

-Eta zelan gogoratzen dozu maistrua-edo, zer zekazuen, maistría-edo?

-Maistría... nik horixe, izena ez dakit zela euko eban. Hainbeste kanbixau zan.

-Asko kanbixatzen zien?

-Bai. Ez dakit. Zela esango dotsut ba.

-Eta zer zien, kanpotarrak ala bertakuak?

-Ez, bertakuak ez, etorri eitten zien. Maria, nik ez dakit zelan, [...], fijo ezin

neiketzu esan.

-Orduan kanpotik etortzen zien, eta klasiak eta ze izaten zien, euskeraz, erderaz?

-Euskera, erderaz. Orduen euskeraik ez auen. Erderaz. Eta erdixetan ez gintzen etorten; batien ganau zain, bestien ardi zain, ez gintzen etorten, eta ezebez.

-Eta orduan erderaz zelan konpontzen ziñazien? Ordurako ya bazekizuen...?

-Ba nik ez dakit; erderaz be ez geuen eingo, erderaz ez geuen ikesi-ta. Euskeraz eingo zan igual eskolia, e, baiña nik fanda daukat horrek gauzok. Euskeraz eingo zan, ze erderaz ez geuen ikasi-tta, erderaz zelan ez zan etxian be eitten eta iñun be ez zan erderaz eitten, ikesi be ez geuen eiñ-eta. [...] ikesi be ez.

#### 4.37. Laboreak egiten eskolan ikasi zuen

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Libururik ez zuten eramaten etxera, baina koadernoak bai. Arbel txikiak erabiltzen zituzten. Oinarrizko gauzak ikasten zituzten. Zapatuetan ez zuten klaserik izaten. Laboreak egiten eskolan ikasi zuen berak. Mutilek beste gauza batzuk ikasten zituzten.

#### Transkripzioa

-Eta eskolan liburuak-eta zer izeten zien?

-Ba liburuak, badakitzu, liburu batzuk emuten auen bertan, eta bertan.

[Etixerako] debereik eta ezebez.

-Bertan egoten zien liburuak eta ez zenduen erosten.

-Ez, ez. Kuadernuak emuten oskuen eskribiduteko eta gauzak eitteko ta.

-Orduan zuek pizarriñik eta?

-Pizarriña bai, pizarrak bai. Pizarra baltzak. Hainbeste urtian ahaztute dana.

-Ez, ez. Ikusi zela gogoratzen dozun.

-Pizarrak.

-Eta zer ikasten zenduen, matematikia edo, sumar...?

-Sumar eta restar, dividir, eta hori dana nakixen, ia ahaztu, baiña hori bai.

Bai, horretxek, horretxek; horretxek itten gauen.

-Eta maparik-edo eukitzen zenduen?

-Horman?

-Bai.

-Kia. Orduan ez auen mapaik, ia urte asko da eta.

-Akordatzen jatzu eskolia zapatuetan be emuten zenduen?

-Ez.

-Zapatuetan jai?

-Zapatuetan jai. Hori bakit. Zapatuetan jai. Bestelan be bost egunien faten gintzen.

-Eta laborerik edo egitten zenduen?

-Bai. Nik hantxe ikesi neuen gantxillue-ta eitten. Gantxillue eta horrek

gauzok nik hantxe ikesi neuen.

-Maistriakin?

-Bai, eskolan, eskolan; puntugiñen be bai. Nik jersiek itten, oin ez, baiña gauza asko ein dot lehen; galtzak ein-eta, hantxe ikesi geuen, eskolan ikesten zan. Baiña ez dakit ba, dana itxi...

-Eta zeuek neskak hori eitten zenduen, eta mutillak be bai-edo?

-Ez. Mutillek beste gauzaan bat, dibujo-edo, beste gauzaan batzuk. Hori pentsetan dot eguenetan-edo ez dakit zelan eitten gittun horrek gauzok. Astien behin.

#### 4.38. Garizuman txirikiletan jolasten zuten

- **Hizlaria(k)**: Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-029/006
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolako jolas-orduan jolasten zuten, baina eskolatik irtendakoan ez zuten jolaserako astirik izaten, baserriko lanak egin behar izaten zituztelako. Domeketan arrosarioa errezatu behar izaten zuten eta gero egiten zuten jolas. Garizuma denboran txirikiletan jolasten zuten. 18 urtera bitartean jolasten zen txirikiletan eta txokolatea ere hartzen zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Jolas-ordu garaian sokasaltoan ere ibiltzen ziren. Tortolosean ere jolasten zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Beste jolas batzuk.

#### Transkripzioa

-Eskolatik urten eta jolasteko astirik izaten zenduen?

-Errekreuen ibiltzen gintzen, bai. Baina astirik ez, gero etxera. Lanien, zela behiak-eta asko eukitten geuen, ba ganajatekuek eruen, ez dakitzu? Etxera listo. Ez geuen eukitten astirik.

-Baiña egunen baten eukiko zenduen jolasian eitteko astixa, domeketan-edo?

-A! Domeketan kalera jazten gintzen. Erresaixua, beti egoten zan erresaixua, erresaixora etorten gintzen. Eta gox fan biher izeten zan etxera, baiña behintzet geure erresaixua errezetan gauen.

-Eta errezauta gero, jolasian egiten zenduen?

-Bai, bai. Eitten gauen jolas, eta gero argiz etxera, ezta? Baiña behintzet ba... Baiña hori bai, e! Eta gero han auen kostunbria gero txirikilla-denporan, Garizuman txirikillan. Zuk hori [entzun be ez dozu... eingo]. Holako egurtxo batzuk izeten diez, eta zer bategaz txirikillan.

-Garizuman bakarrik?

-Garizuman bakarrik. Eta gero hartzen gauen txokolatia. Zergatik e hamazortzi urte arte hori txirikilla asuntuoi eukitten gauen; eta gero txokolatia. Dirurik ez gauen eukitten, baiña ba haxe.

-Txirikillia izaten zan Garizumako jolasa?

-Garizuman bakarrik.

-Eta zer zan, makilla batekin?

-Bai, holako egurtxo bat hartzen zan, eta makilla luze bateaz [...], zeñek

urriñao bota haxe txirikillia.  
 -Neska eta mutil...  
 -Danak junto. Holako zer bategaz makillia jotzen zan, eta danak junto jolasian.  
 -Eta makillia zeuek egiten zenduen?  
 -Geuk, geuk. Geuk eitten geuen, zegatik korosteixa izeten zan, eta basarrira fan, hartu korosteixa eta itten zan.  
 -Korostixakin eitten zan?  
 -Bai, makillia korosteixakin.  
 -Orduan zeñek urriñao bota?  
 -Zeiñek urriñao bota irabazi, irabazten [zan]. Konpaaziño... bi eta bi, hiru eta hiru, eta zeñek eta urriñao botaten auen, ba ha(re)txek irabazi.  
 -Eta beste jolasik gogoratzen dozu? Sokasaltuan edo?  
 -Bai, hori be bai. Sokasaltoka neskak. Sokasaltoka neskak be bai. Hori eskolatik urtenda errekreuan-eta be bai. Sokasaltoka be eitten gauen, ibiltzen gintzen. Batek handikaldien erain eta bestiek hemetikaldien-eta. Sokasaltoka.  
 -Eta harrapatzen?  
 -Hori mutillek bai, baiña guk ez, neskak ez. Gero ibiltten gintzen jolasien, tortolesak ez dakit entzunde daukazu.  
 -Entzunda bai, baiña....  
 -Ardixen [...]. Tortolesak, tortoleska be bai, tortoleska eitten gauen. Jolasien hantxe. Tortoleska gauzatxo bat izeten da, buelta emun bestia emun. Tortoleska. Hori eitten gauen. Eta eitten gauen, konparaziño baten, arraixak ein horregaz, zer zurixaz, tiza edo zurixaz, eta harritxuekin zerien. Hankakin zenbat eta zera, arraixak...  
 -Horri zelan esaten dotsazue?  
 -Ez dakit zela esaten jakon be.  
 -Txindurrizka edo?  
 -Ez dakit.  
 -Ea tortolosekin zeozer erabiltzen zan? Kanikaren bat edo pelotaren bat?  
 -Ez. Tortolesak ifintten zittuen eta, ez dakit zelan, buelta emuten jaten. Bai, kanikan bategaz. Eta buelta emun, bertan buelta emun. Hantxe be zeñek gehixau, eta hoixe, besteik ez.  
 -Orduan zuek kromorik eta eukitzen zenduen?  
 -Ez.

#### 4.39. Meza ostean gizonak bola-jokora

- **Hizlaria(k)**: Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-029/009
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Bolatokia zegoen Gatzagan. Meza ostean gizonak boletara joaten ziren. Bola-jokoaren inguruko azalpenak; 7 txirlo bota behar izaten ziren.

### Transkripzioa

-Bolatokixa esaten dostazu. Basarritarrak be joaten zien ala kaleko jentia bakarrik?

-Mezetara fan ezkerro bai. Basarritarrak mezetara fan ezkerro denporie emuten edo ez dakit, faten zien.

-Eta zuk ikusi zenduen boletan zela eitten zebeñ?

-Bai. Holako zer batzuk egoten zien, zer batzuk gora begira. Zazpi izeten zien. Gero hemendik bota zera, pelotan moduen harrixa... zera; eta zenbat eta bola gehixao bota ba hortxe, hortxe zan irabaztia.

-Orduan zazpi izaten zien. Hirukin ez dozu ezautu?

-Ez. Bost edo zazpi.

-Eta esaten dozu mezetara jaisten zienian aprobetxatzen zebela?

-Bai, aprobetxatzen zeuen mezetara [etozenian].

-Eta mezetara etortzen zien andrazkuak?

-Ez, keba! Mezetara etorten zien andrak eta zerak, mezie entzun eta aide. Etxera. Ez auen han ezer. Oingo moduen tabernara fanda eta eraten-eta ezebez.

-Gainera gaizki ikusitta?

-Honbre! Orduan txarto [pentsaten] zan. Neu Eskoritzara etorri nazen ezkerro han ez gauen ezer [...]. Oin Eskoritzara etortzen [...] pasio bat egin eta kortau bat hartu-eta, pentsau be ez.

#### 4.40. Aste Santuko prozesioak; herriko arkuak apainduta

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Prozesioetan Ama Birjina erabiltzen zuten. Aste Santuan egun batean San Antonio ermitara eta bigarrenean Andra Mari elizara joaten ziren prozesioan. Herriko arkuetan loreak eta bestelakoak jartzen ziren. Arkuak botata daude gaur egun, baina arku bakoitzean santu bat zegoen lehen.

### Transkripzioa

- Zuk gogoratzen dozu prozeziñorik-eta, gauza espezialik gertatzen zan?

- Prosoziñua Ama Birjiñia, Ama Birjiñia eta ibiltten gauen. Ama Birjiñia prozosiñuen; enda zeetan, aste santuetan faten gintzen, lehen esan dotsutena, zer baten, egun baten San Antoniora, eleixatxo, ermitatxo bat. Eta bigarrenien Andramaixara, Andramaixara prosoziñuen. Prozosiñue eukitten gauen, bai.

- Eta hor arkuetan zeozer ipintzen zan?

- Bai, hor ifintten zan ba adornuek, ifintzen zan ba lorak eta gauzak. San Inazio eta dauz hor, ta han ifiñi eitten zan bere patroien zerien.

- Berez, zenbat arku dare? Goguan dakazu holan...?

- Ba, bota ein daue bat, gorutza oiena botata dau oin. Egongo diez... Arkuik gutxi oin, e? Botata dauz danak, arkurik ez dau, bat egongo da, eleix

ondokua, besteik ez, bota ein zittuen, gero etxiek fan zien han, eta botata daz. San Inazio botata dau.

- Eta arku bakoitzian zer zeuan, santuren bat-edo?
- Santua. Baiña oin horrek botata dauz.
- Eta goguan daukazu zer santu zian?
- San Migel beste bat, San Migel; San Inazio, San Migel. Eta horretxek. Bestiek ez naz akordetan.
- Eta orduan prozesiñuetan aste santuan?
- Aste Santuetan, Aste Santuan faten gintzen San Antoniora, ermittara San Antoniora, eta bestia Andramaixara.

#### 4.41. Jatorria; Eskoriatzako auzoak

- **Hizlaria(k):** Segura Errasti, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-030/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Aita, "Segurena" baserrikoa. Ama, auzo bereko "Nagiturri" baserrikoa. Eskolara Marulandara joan zen umetan. Aurretik badirudi eliza ondoan eskola bat egon zela, baina berak ez zuen hori ezagutu. Marulanda auzoa, izatez, Zarimutz auzoarekin bat egiten du. Desagertutako baserri izen batzuk.

#### Transkripzioa

- Eta aitta zan basarri honetakua?
- Aitta basarri honetakua.
- Basarrixan izena esan dozu zala...?
- Segurena.
- Segurena. Eta ama nungua zan, nun jaixotakua?
- Ama Nagiturri, Nagiturri basarrian.
- Eta hori ze dao hemen bertan auzuan, edo...?
- Bertan auzuen han bestaldetik, bai.
- Eta, orduan, ume-umetatik zu basarrixan bi izan zara, hemen bertan...
- A, bai. Nik... Basarrixen edo hamen. Hamendik eskolara faten gitzen horra Maulandara edo behera. Hor egon zan eskolia. Hemen bertan be uste dot eskolia egon zala hor elixa-kontran lehenau. Baiña nik hor ez naben ezautu. Gu faten gitzen behera, Maulandara.
- Oseake, aurrekuek, biharbada, horkua ezautuko zebeñ, ez? Horko eskolia.
- Bai. Baiña Maulanda da, berau auzuau da. Zarimutz ta Maulanda dana da Zarimutz auzua.
- Bai, gaiñera, lehengunian esaten zenduan, ez? Maulanda ipintzen da, baiña berez Zarimutz auzua da, ez?
- Zarimutz auzua, bai.
- Orduan, Zarimutz haundixa da, ez? Bai, terreno aldetik eta basarrixak be...
- Bueno, haundixa [bada], bai, hogeta xei basarri edo zien lehen. Oin batzuk, ba... batenbatzuk galduta daz basarri batzuk.

- Bai? Gogoratzen dozu basarrin baten izena oin galduta dauana ta...  
 - Galduta dauena? Bai, Zelaizueta bat. Klaro, oin beste batek erositta dauko, baiñe... beste batek ardixek-eta ibiltten dittu, baiña ez da bizi iñor.  
 - A, orduan, basarrixa berez badao, osea, basarrixa zutiñik dao, baiña...  
 - Basarrixe zutiñik dao. Ta beste bat Gorosarri be bai. Gorosarri be... ha ya basarrixoi jausitta dao. Ha be oin beste batek erositta dauko, baiña...

#### 4.42. Sakristauaren eginbeharrak

- **Hizlaria(k)**: Segura Errasti, Rufino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-030/020
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Sakristauaren eginbeharrak: kandelak piztu; kanpaiak jo...  
 Kanpai klaseak.

#### Transkripzioa

- Eta gero, ez dakit, kanpaiak jo eta hori zeuen lana izaten zan edo...?  
 - Bai.  
 - Bai?  
 - Hori makiña bat urtien eindde [ga´] sankristau. Sankristaue izeten zan, ba, kanpaiek jo kandelak ixotu ta holako lanak eitteko.  
 - Orduan, hori sakrisatuan lana?  
 - Sankristaue izentauta egoten zan. Ta kanpaiek, ba, mezetarako-ta joten zien, ta gero joten zan “harri-kanpaie” esaten jakona goxien, goxien egune zabalketaako edo hola, egune zabalketako inguruan. Ta gero gabien illuntzera doiela “aramaittakua”. Ta gero eguardixen egoten zan denporaldi bat “letxuga-kanpaiek” esaten jakon. Zerera, kanpantorrera gora igo ta errepikak errepikak joten zien.  
 - Eta hori zegaittik?  
 - Errepikak ez dakitzu zer dian?  
 - Bai, bizkor-bizkor, ez?  
 - Kanpai bikin., kanpai bikin, kanpai bikin jota.  
 - Baiña hori, letxuga-kanpaia, zegaittik esaten jakon horri?  
 - Letxuga-kanpaia esaten jakon, ba, ez dakit, letxuga denporan joten zalako edo. Santikutzetik Santikutzera. Santikutz bi daz, bata maiatzien ta bestie... oktubrien? Bai, bestie oktubrien izengo da. Ta Santikutzetik Santikutzera joten zien horreik.  
 - Letxuga-kanpaiak...  
 - Letxuga-kanpaiak horreatik esango jakon. Ba, ez dakitzu? Letxuga denporie, letxugak dazen denporie edo.  
 - Orduan hori sakristauan lana izaten zan, baiña.  
 - Sankristauan lana izeten zan.  
 - Ta zeuek laguntzen zetsazuen edo... Monagilluak, ez dakit, okerkerixaren bat eingo zenduen kanpaiekin edo, ez? Holako... Ez dakit, kanpaidorrera igo ta...  
 - Monagilluek?  
 - Bai. Halakorik ez zenduen eitten?

- Ba! Ez geuen holako istorixa haundirik eitten guk.
- Orduan, urte askuan monagillo...
- Bai.
- Eliza kontuak ondo ezautuko dozuz, gaiñera, ez?
- Bueno!

#### 4.43. Soraluzera bizi izatera zergatik joan ziren

- **Hizlaria(k):** Abarrategi Leaniz-Barrutia, Cruz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-036/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
 Debarrenen lantegiak  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Soraluzen jaioakoa. Ama, Apotzagakoa (Leanizbarrutia abizenek) eta aita, Arrasatekoa. Eibarko Ipurua baserrian amaren ahizpa bat bizi zen. Don Policarpo Larrañaga abadearen bitartez, aitak Soraluzeko Kanoi Fabrika lan aurkitu zuen. Ipurua ingurua nolakoa zen.

#### Transkripzioa

- Esan dozu, bueno, oin dala larogeta zortzi urte jaixo ziñala... Plazentzian?
- Jaio nintzan ni Soraluzen, Placencia de las Armas, bai. Eta nere gurasuak ez zian Soraluzekuak, ezta? Baiña ama zan Apozaga Eskoriatzako auzo batekoa, Apozagakua. Gero hemendikan Bolibartik Apozaga parrokiaren arduria euki neban urte mordoska baten, ezta? Han bertako apaiza hil zanian, ba, neuk jarraitu neban han urte mordo baten. Eta nere aitta Arrasatekoa zan, bai, Abarrategi; ama Leanizbarrutia Apozagakua, bai.
- Eta aitta Arrasatekoa?
- Bai, bai.
- Eta zelan, ba, Soraluzen...?
- Ba, halaxen, ba...
- Halan gertau zan? Halan suertau zan, ez?
- Bai, bai, bai, gertatu zan, bai. Nik badakit bai, ba, Soraluzera jutia gure gurasuak badakit nola izan zan. Eibarren zeuden eta Ipurua baserrian han nere aman aizta bat zeon ta han... gero handik hartu-eman eukitzen eben. Han Concepcionistas mojen konbentuan ere, ba, geure senidea bazeon, eta hango kapellau oso laguna zan apaiz oso famatu batekin, Soraluzekua zan, Don Policarpo Larrañaga. Eta [apaiza...] jutun zan eta haren familia Plazentzian, Soraluzen kañoi fabrika toki... mailla onetan zeuden eta haren bittartez gure aita izan zan kañoi fabrika han postu bat hartzia. Eta gero ni, ba, Soraluzen jaixo nintzan. Bai.
- Eta, orduan, aman aitzia bertan Ipurua basarrian...
- Ipuruan, bai, bai. Han bizi zan eta bertan hil zan. Bai, bai, Eibarren, bai.
- Eta zuk ezautu zenduan basarria edo...?
- Bai, bai. Ni Soraluzetikan hara jutun giñan bai San Juanetan ta beste... edozein sasaitan ere bai.
- Eta zelakua zan orduan inguru haura? Gogoratzen dozu?

- Bai, oin oso aldatuta dao haura, e? Ta basarria eskas samarra zan, ezta? Baiña kaletikan gertuan zaon. Bai.

#### 4.44. Don Policarpo Larrañaga

- **Hizlaria(k):** Abarrategi Leaniz-Barrutia, Cruz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-036/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Don Policarpo Larrañagaren inguruko gogoetak. Lan asko egin zuen bizi osoan zehar; herrian oso estimatua... Isasiko komentua.

#### Transkripzioa

- Esan dozu Don Policarpo Larrañaga. Zuk ezautu zenduan?  
- Bai, Don Poli, bai... Don Poli. Ha soziologo zera zan, e, oso ospetsua.  
- Bai, Eibarren, gaiñera, be oso gizon...  
- Han egon zan apaiz.  
- ... langillia ta...  
- Don Poli, bai. Buf! Famatua zan. Ez Eibarren bakarrik, bestela be Euskal Herri danian, e!  
- Bai, gaiñera berak sortu zeban, ez, "Sindicato de Obreros vascos" edo...?  
- Bai, oso... lan asko ein eban, bai, euskeraren alde ere bai eta gero horixen, sozialmente.  
- Zeuk ezautu zenduan bera?  
- Asko, bai.  
- Eta zelakua zan edo...?  
- Bai, bai, bai, oso haundia zan eta oso burutsua eta apaiz ona, e! Ona. Don Poli esaten genion danok eta Eibarren, ba, oso estimatua izan zan, bai. Gerra garaian uste det pixkat bat denporalditxon baten Frantzian ere egon zan aldatuta apurtxo bat. Ezta? Ta Frantzian be... Uste dot Baionan zala. Neuk ere agurtu neban iñoiz han Frantzian. Don Poli, famosua zan haura.  
- Eta esan dozu beran familixiak, aittak-edo, kañoi fabrikan lagunen bat zekala?  
- Bai, klaro, bere familikoak kañoi-fabrikan Soraluzen, ba, aginpidia zeuken, ezta? Ta haren bittartez ta han Ipuruatik gertuan han Konzepzionisten kapillaua ere ta han biltzen ziren, ezta? Ta neu be [egoten nitzan] han. Geure senideak monjak eta bazeuden han ere, ezta? Eta haren... handik bittartez izan zan nere aitta Plazenzian zertzia.  
- Hau esaten dozun konbentuau, Konzepzionistena, nun zeuan?  
- Han... han dago!  
- Santaiñes kalia? Ipurua basarrixan behekaldian?  
- Hori da, bai. Osea, Eibarren han tontorrian, Isasi.  
- Markeskua...?  
- Markeskua ta hori, haintxen, bai. Han Escuela zera egon zan orduan, ez dakit oin jarraitzen daben han... Escuela de Armeria be han zan.  
- Baiña zuk ezautu zenduan konbentu zaharra, ez?  
- A, klaro! Bai, konbentu antiguala, haundixa.  
- Eta zelan gogoratzen dozu? Zelakua zan?  
- Ba, haundixa eta oso gauza baliosuak be bazeuzkan, bai. Oin ez naiz

gogoratzen, ezta? Baiña bai.  
- Eta monja asko zeren bertan?  
- Bai. Oin nik ez dakit zenbat leetxe egongo zian, baiña... Ez daukat goguan hori.

#### 4.45. Eskolan non?

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-048/003
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:04:22. **Bukatu:** 00:05:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan Marulandara joan zen lehenengo, gero Eskoriatzan eta azkenik Bergarako eskola profesionalean, elementalean.

#### Transkripzioa

- Eskolan nun ibilli ziñan zu?  
- Ni lehelengo, hemen aldameneko etxia? Hemen zan eskolia guria, hau aldameneko etxie geurie da, bizi dia semia eta alabia. Ta hor auen eskolia hemengo sarein emongo otsen hemengo danekua. Lehelengo hor.  
- Marulandako eskolan, orduan?  
- Bai, eta hor gero zerera, Eskoriatza, gero Eskoriatzan ta gero Bergarako eskola profesionalian, elementala deketan jatzon orduen. Elementalien hantxe.  
- Eskoriatzan nun ibili ziñan nazionaletan?  
- Bai nazionaleko zerien. Nazionaleko han plazakuen ez e! gero han bahien ein zan frontoie, kanpofubola edo ifiñi euen han frontoi onduen hantxe, "Hermano Luis" frailiekin.  
- Baiña zer ziran maristak-edo?  
- Fraile bat euen orduen. Karo hor, Eskoriatzako badau hau komentua? Lehenau hor frailien zazen, lehenau. Ta hango fraille baten ein tson "Hermano Luis", jatorra, hak emoten euen eskolia, Eskoitzako hor.  
- Eta hori ya gerria pasau ta gero.  
- Ni gerriana ez naz akordetan, hori hori neure denporan.  
- Ba nik euki nittun orduen ba horra fan nitzenien ba hamalau urte edo hamabi-edo holakoren bat.  
- A ta hamar urte arte hemen, Marulandan egon ziñan?  
- Hemen ta hor Eskoitzan ta gero, bai gero, gero hamalau-hamabost urte elementalea.

#### 4.46. Soldadutzan zerbitzua ez egiteko baimena kirolari moduan

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-048/010
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Aisia » Kirola » Txirrindularitza

- **Laburpena:** Soldadutzan zerbitzua ez egiteko baimena izan zuten kirolari moduan, berak eta Bergarako Txomin Garitano pilotariak. Bertan ere entrenatzera joaten ziren egunero etxeraino. Etxera joaten zen lotan eta hurrengo goizean Gasteizera, egunero horrela.

### Transkripzioa

- Soldadutzan be horrexegaittik suertie euki neu. Soldadutzan nauela karo rebajauta euki istien, “como deportista”-edo, neu ta Garitano, pelotarixa, Bergarakua, Txomin, ba ha pelotarixa ona zan orduan, (...) jokatuko auen ta bixok in guzen rebajauta ta goxien egon bigauen beatzitako kuartelien goxien beatzitako, bizikletan faten gintzen, ta bestiek bazkaitten-edo faten zirenien, ba gu libre. Ta orduen ba barriro entrenamienton buelta, handik edo hamendik etxera. Egunero-egunero-egunero.

- A, ta orduen Bitorixara be egunero faten ziñan soldadutzara?

- Egunero, egunero,

- Eta lo eitten zeñun ala han?

- Hemen, hemen, hemen. Ta gero goixin fan, beatzitarako han, eguardixen bazkaitten-edo ataten euenien, gu etxera. Rebajauta, rebajauta engozelako.

- Orduen zuek soldaduska euki zendun “media jornada”?

- Bai, bai. Ba Txomin pe... Txomin Garitano eta bixok egon gintzan.

“Rebajaus de todo servicio”. Kuartela edo hau edo bestia.

- Deportistia ziñanelako e!

- Bai.

### 4.47. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ESK-051/003

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Eskolara mojetara, Mertzedarietara, joan zen sei urte arte. Gero maisuarekin ibili ziren, don Ismaelekin, 60 umetik gora elkarrekin egoten ziren. Eskolak zelan antolatzen zituzten azaltzen du. Gerraostean mojak ezkutatu egin ziren. Maisua errepublikazalea zen eta Donostiara joan zen errepublika irten zenean.

### Transkripzioa

-Galartza etxiori Eskoriatzan kalia dago ala auzounan baten?

-Ez, kale partia hartzen dau.

-Eta han eskolara nun fan ziñen zu?

-Eskolara? Ba lelengo monjakin-da hantxe eskola apur bat ikasi geuen xei urte artien eta gero maistruez, eta maistrak ba mutiko larregi eukien eskolie erakusten da, hirurogeta lau edo hiru ero eztakit zenbat gitzen han da.

-Danak alkarrekin?  
 -Alkarrekin, klaro. Korruok ifintten zittuen han gehitxuao dakixenekin da haik izeten zittuen maistruek eta gero berak pasilluen aldamenetara ba zer onak euen, eta han pasilluetan berak espliketan zittuen gauzok eta guk hartu ein bihar izeten gittuen edo eskribidu edo berak esaten zittuen gauzok.  
 -Zein zan maistruoi?  
 -Don Ismael.  
 -A, zu orduan Hermano Luisekin etza ibilli?  
 -Ez, ez.  
 -Monjakin Merzedarixetan ibilli ziñan?  
 -Bai, orduen monjak hor ezen da. Gerraostien ezkutau zien.  
 -Zu orduan hogeta batekua zara. Zu gerra aurrian eskolan ibilitakua.  
 -Bai, maistruakin genbitzen, republikanua ero zan bera da republikiek trinfau euen egun-egunetik republikiek trinfau dauela ta jarei(n) oskun eskolatik; bai, eskolatik jarei(n) oskun. Bera republikanua zan da. Entzutia dauket, eztakit holan dan edo, bera Donostiara fan zan hemendik eta Donostian txarto; klaro, honek regimen honek honek gorri antzerakue ta zerok txarto hartzen zittuen.  
 -Hau zan Don Ismael?  
 -Bai.  
 -Eta republikanua bera orduan.  
 -Ba bere ideia hori baeukan itxuria ta. Bai.

#### 4.48. Oiloen gaixotasuna

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/025
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak  
 Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Emakume batek bere alaba umea izateko zegoela oilo bat ekarri zion Bilbotik. Agustinek eta lehendik ere 80 oilo zituztenez, emakume horrek Agustini eman zion oilo hori zaintzeko alabak umea izan arte. Lau egunetan 80 oilo hil ziren gaitz batekin, Ingalaterran ere zabaldua egon ei zen gaixotasun hura. Oilo bat zaintzearren oilo guztiak hil zitzaizkien.

#### Transkripzioa

-Ointxe arte ganauzaiñ.  
 -Behixak aparte, oillorik eta eukitten zittuein?  
 -Oilluek be euki gittuen batzuk, oilluekin be pozik eta ondo gaiñera gebitzen. Esnie erueten gauen etxe batera emakumiak famelixie eitteko euen, bilbatarra zan, da famelixie eitteko, orduantxe umia eitteko dauela amorrek Bilbotik ekarri utsen oillo bat. Hori ba, ni ezkondu, hirurogei urte setienbrien pasau zien ezkondu ziela ta, beste hiru bat urte lehenau zan hori kontuoi. Da ekarri utsen oillo bat, eta oilluoi, emakumioi bera hain kaxkala zan, oso normal-normala be etzan da, oilluoi ekarri oskun etxera geuri, aber euko geuen berak umie eiñ arte. Da hango txabola bat baeuken

han, ortu-kasko baten (...) emunde euen da, "eukizu han txabolan", esan gutsen, da ha oilluoi eruen euen etxera, hill da jan daue, eta hazurrek ekarri zittuen bentanapera, sukaldeko bentanapera ekarri zittuen hazurrek, oilluoi jan da. Da etxetik aparte geuken oilluok, larogei oillo han geuken, da bat etorten jakun etxera, goxien jaraiten gutsenien eta eguna pasetan da lo itten hara faten zan beti. Da holaxen hazurrok..., ekin zien akabetan da lau egunien danak akabau jakun.

-Oilluak?

-Bai. danak akabau zien.

-Ze gaitz edo?

-Hor Inglaterran agertu zan hori gatx hori eta handik, haik be ikusi euenien al dauen danak aprobetxetara fan zien eta. Bilbon, esan dotsutena, emakumiorren amak Bilbon erosi euen oilluoi eta ekarri utsen alabiorri umioi eukitten dauenerako, familixie eukitten dauenerako zera eitteko. Eta berak geurera ekarri euen, da geurien guk halako gauzaik pentsau be ez eta ezta gutxiagorik be, da behintzet handitxik sartu jakun gatxa eta akabo. Danak akabau zien.

-Eta zeuenak be bai?

-Geuriek, danak akabau zien.

-haren oilua zaintzeagatik zeuenak galdu?

-Bai, Inglaterratik ekarri euen Bilbora, haik be aprobetxetan daukeneraiño, da merkerak ifiñi eingo euen Bilbon saltzen, da amorrek Bilbon oilluoi erosi euen eta ekarri utsen alabiorri, baiña bizirik, ondo. Baiña hak gatxa aldien ekarri.

-Gripe famoso hori izengo zan.

-Halakotxe gatxen bat sartuko jakon da. Aide, gaiñera. Aaaa! Eeee! ta, gora begira halakotxe arnasa batzuk botaten zittun da, plaut!, akabetan zien eta kitto!

-Gero ze ein ziñuein, ere edo enterrau edo?

-Lurpien enterrau nittuen danak.

-Atzera berriz ifiñi zittun?

-Bai, ifiñi nittun bai gero. Txabolioi etxetik aparte daukat eta desifestau ondo ta. Ifiñi gittuen, baiña aurretik geuken moduko klase holan onik etxaten suertau. Diferentzie haundixe dau, behixetan be bai ta oilluetan be bai. Bai, bai.

-Klase onak eta klase hain onak eztienak.

-Bai, bai.

#### 4.49. Zumaiaiko tren-istripua eragin zuten haize-boladak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/029
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:55:19. **Bukatu:** 01:00:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Bere anaiak behar zituen paper batzuk zirela-eta Donostiara joan behar izan zuen behin. Donostiatik bueltan, kostaldeko trenetik, Zumaiaiko tren-istripua ikusi zuen, trena itsasora jausita. Bezperan haize bortitzak egon zirela kontaktzen du. Triskantzak handiak

eragin zituen haizeak. Trena zelan geratu zen deskribatzen du, berak ikusitakoa. Trena elektrikoa zenez, indar barik gelditu zen. Pertsona batzuk itota hil ziren.

### **Transkripzioa**

Zumaian orduentxe ikusi neuen trena jausitta itsesora.

-Akzidente famosua, e.

-Hor aurreko illunkeran, nafar-hegoia hortik etortten da, da, io!, inddartsu ibilli zan atsaldien, zapatu atsalde baten. Da gabien kanbixau zan goittik, da bazterra guztiok eruen biher da, holaxen guri etxien goiko bentanok jota zabaldu zittuen berak, maratillok apurtu eta zabaldu zittuen, da luzeruek euen eta luzerue hartu ta aidien eruen euen zerorrek eta. Guri ez zoskun kalteik bape eiñ, hoixe besteik eta. gero alanbriek eta postiek. Zentraltxo bat hor kalien euen eta hortik surtiduten gitzen gu argixaz da, holan enda ba asko lekutan apurtu zittuen postioik eta alanbriok eta gabian ibilli zan haxia billurgarri han Zumaian trena bota euenien. Billurgarri ibilli zan haxia.

-Zuk ikusi ziñuen itsasora jausitta?

-Bai.

-Ikusi neuen, bai, hiru bagoi, hiru kotxe, bi ia goraiño beteta urez eta bestie erdixeraiño edo holan atzeratxuao han buruz behera; hantxe ezen, bai.

-Baiña Zumaia nundik fan ziñen ba, Zumarragatik ala Debatik?

-Kostako trenoi.

-(...). Zuek San Prudentziotik zuzen?

-Bai, gu Maltzagara fan, Maltzagan beste trena hartu eta handik faten gitzen Donostiara.

-Eta orduan trenetik ikusi zeuen trena uretan?

-Hori da.

-Ze urte zan, goguen daukotzu? Hori zan anaie libraittera fan ziñanian?

-Bai. Edozein modutan be gerrie akabauta gehixen be urte bi edo.

-Berrogeta bata inguru horretan?

-Halan izango zan. Eztotsut esango ze denpora izengo zan baiña. Urte bi barru behintzet bai. Belaxe ein gittuen papelok eta. Bai.

-Eta itsasua be orduan ikusi zeuen lenengo aldiz.

-Bai, han ezen bi bagoi. (...) Marea baja euen ala altu ala zela euen baiña. Bi ezen uretan bertan tapauta eta bestia erdixe, dana etzan jausi, e. Itxurie geldittu zien, atzetik beste bi edo hiru kotxe illaran geldittuko zien atzetik zutik.

-Haiziak bota eben?

-Bai. Itxuria makiniek engantxauta doiazela haize billugarri batek urten euen illunkaran, da hori azkenengo trena, Donostiara doiena. Klaro orduen euen beste gauza bat, oin bi ordu aurrera daroiu eguna, eta orduen bi ordu atzerago euen eguna, da illunetan oiazen, illunetan gabien, oingo hamarrak edo izengo zien han jausi zienak zerien. Itxurie haixe billurgarrixorregaz inddarra fan in jakon trenorri. Elektrikue. Bai, inddarra fan. Eta inddarra fan jakonien ba hantxe geldi, geldi, ez atzera eta ez aurrera. Da bera han zubi gaiñien; apur bat sartuta euen barrura zubixen, uren parien aurreratxuao; eta itxurie makiñiek pixu haundixe euki tta, makiñiorri kataiek apurtu berai engantxauta eukeno eta bi kotxe, hiru kotxe, bi uretara ta hirugarrena erdi txistxilixka han.

-Makiñia bertan?

-Makinia bertan geldittu zan, itxuria.

-Zer euen, aldapan trenbidia?

-Ez, lau-lauen euen, ura bardiñ-bardiñ-bardiña euen lekuan. Bai, halaxen euen orduen. Lenengoko aldiz.

-Eta miñik hartu euen inork?  
-Bai, bai itxurie hil zien banakan batzuk, eztakit zenbat baiña. Klaro, antxiñako kontue da hori.  
-Bai, bai, korreue. Normal.

#### 4.50. Lehen automobilak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/030
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:00:17. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Inguruan agertu zen lehen automobila Eskoriatzako mutil batena zen, Arantzazurako autobus zerbitzua betetzen zuena. Poliziak Gasteiztik motorrez etortzen ziren Arrasateraino. Horrekin lotutako istripu baten kontakizuna kontatzen du.

#### Transkripzioa

- Orduen zer euen ba, ez euen automoillik, e. Lehenengoko automoillek, agertu zienak, haxe Oñetiko, Eskoritzako semie zan Arantzazura ta bueltaka ta ibiltten zienak, automoilloi ibiltzen zanoi. Beste automoillik ez euan orduen. Orduen honek poliziok, motorrien ibiltten dienok etorten zien Bitorixatik Eskoritzara edo Mondraueraiño etorten zien. Ta belozidadie be formala ekarten euen, belozidadien bixkor etorten zien. Ta lehenengo (...) rotundue ein ddauen leku-lekuen, han auen zubixa, ta zubixa auen goittik behera zuzen eta gero hola derrepentien, e, eta gero aurrera holan, eta han ze bat euen. Eta lehenengokua raaaa! etorri zan ta hartu euen raaaa!, fan zan. Eta bigarrena atzetik berrogeta hamar metrora-edo baetorren eta hak hankiaz zapaltzen dauen martxie emuteko, zutik egoteko (pieza), haregaz ezkiñatxoko harrixeik ikutu utsen, eta ikutu utsenien han jausi zan txatxilipurdika, enda fan nitzan, lehenengo neu, ta hantxe eta konozimendu barik eta erlojue eskuturrien han euen ta erlojuoi martxan ondo eta bera konozimendu barik, geldi. Enda baten bat etorriko ete dan, baten bat etorriko ete dan, baten bat etorriko ete dan, eta iño be etzan agerketan, eta beste emakume bat edo agertu jaten, orduan Apotzatik betozen errekaun batzuk egiñien ta haraxe, ta bixok begira hari, ta gu bixok hari ezebe ezin iñ eta hantxe egon gitzen begira. Ta halako baten kamioi txikitxo bat lastuaz hor dator goittik behera; geldittu gauen eta han gauken lurrien eta txoferroi be jatxi jakun ta Mondraueraiño erueteko. Holan ebatu ta hasi gitzen. Eta orduantxe behetik gora lagunoi etorren, etorri jakun. Eta beraz gero fan zien Mondrauera edo ez dakit nora. Baiña, Bitorixatik jasten zien bi motorista egun danetan.

#### 4.51. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Pako

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-053/005
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:05:55. **Bukatu**: 00:09:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolan euskaraz egiten zuten, Don Jose Lizarralde apaizarekin, Zarimutzen. Auzo eskolan bi ahizpa egoten ziren, eta gerra ostean han ibili zen, erdaraz. Gau eskolara ere joan zen. Orduko maisuek ez zekiten asko ere.

### Transkripzioa

-Eta esan dozu lau-bost urtegaz eskolan...

-Bost urtegaz eskolan faten nintzen ni Zarimutzen.

-Eta eskolia euskeraz eukitzen zebein, erderaz edo?

-Euskeraz, orduan katona esaten jakon hola liburu zar bat. Euskeraz. Hamen auen abade bat zerekua, Oñatiko Lizarralde. Araoztik gorau.

-Arantzazukua?

-Arantzazu baiño lehenau. Ha zela zan ha? Ixidro. Ha nungua zan, zeraz ibiltzen zan, egur, piñuixakin ibiltzen zana?

-Isidro? Ni gaztiaua naiz zu baiño. Arrikruz, Gesaltza edo...

-Gesaltza izango da bai seguramente. Araoztik han gora, Arantzazu aldera. Auzounatxo bat ero badau.

-Maiña.

-Hangotxia zan hori abadioi. Don Jose Lizarralde.

-Eta ze zan, abadia edo frailia?

-Abadia, abadia. Hak urte asko ein zittuan hemen.

-Orduan eskolak euskeraz jasotzen zittuen. Zu gerra ostian ibilli ziñan eskolan?

-Gerra ostian? Gerra ostian gurien maistrak egoten zien han Maulandan. Gero zela ein zan hor beste etxien. Hor egon zan eskolia.

-Auzo-eskolia Maulandan.

-Da hor egoten zien maistra bi. Bat eztakit, baiña maistra bi egoten zien. Eta orduen ba geurien egoten zien apopillo. Eta hortxe apur bat. Baiña ba!

-Zu Maulandako eskolara fan ziñan?

-Bai, bai.

-Baiña ia gerra ostian eskolak erderaz izango zien, ezta?

-Klaro erderaz, klaro. Gerra aurrian be bai. Gerra aurrian be bazan hor, el año... Matxainek esangotsun hori, kontaukotsun

-Baiña Matxain ibilli zan beti Maulandako eskolan. Zu Zarimutzen.

-Zarimutzen, klaro, hamaika urten diferentzia daukau ta.

-Eta Zarimutzen egon ziñen gerria hasi zan arte? Edo zenbat urte arte?

-Urtiak eztakit zenbat baiña, gero handik olaster Maulandan jarri zien, e. Eskolia hor jarri zan, (... etxian) Hor ibiltzen gintzen gero. Nik orduko ba eztakit.

-Zu gerria hasi zanian hamahiru urte. Eta orduan hamalau urte arte eitten zan eskolia.

-Bai, hor ibili nintzen, bai. Da gero gabeko eskolan da puxkat.

-Gau eskolan be ibilittakua orduan?

-Nai. Ordu ezkerro ze ikesi, lau regla ta problematxo batzuk, baiña orduan asko gehixao ez zan egon be ta. Hemen bakitzu ze esan utsen maistrui batek. Orduko hamahiru urte edo baeukela ta, dividir ondo eitten euela ta. "Bueno, no vengas más, ya sabes tanto como yo".

-Hori maistruak esan otsan?  
-Maistruak esan utsan. "Ya sabes tanto como yo". Orduen maixuek be dividirretik asko gehixao jakin be ez ordukuek.  
-Kebraduak eta holako gauzaik?  
-Bai zera!

-

#### 4.52. Santua margotzera Gasteizera

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Elorza, Eustakio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-055/009
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:18:33. **Bukatu**: 00:21:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Garai batean, Aste Santutako prozesioetan parte hartzen zuen Eustakiok, santuak garraiatzen. Parrokia irten, plazan aldare bat egoten zen eta handik bueltan San Viatorrera eta gero parrokiara itzultzen ziren. Ordubeteko bueltan, Santokristo handi bat garraiatzen zuen Eustakiok. Bera gaztea zenean, santu hori kamioi batean kargatu zuen Gasteizera eraman zezaten margotzera.

#### Transkripzioa

- Esan dostai zuk prozesiño asuntotan eta Aste Santuko prozesiñuak-eta zer horretan ibilli zariela, ezta?  
- Lehen bai, baiña aspaldi ez naiz...  
- Ze itten zittun, zeuk organizaitten lagundu?  
- Ez, ez. Hori santuek eruateko organizaitten auen baiña...  
- A, santuak erueten?  
- Bai.  
- Eta hori zela itten... entrenamientua eta dana itten zeuein, edo?  
- Ez, ez. Hainbeste urte daroiat, eta ya martxia hartuta.  
- Eta zela zan? Nundik urtenda edo ze rekorrido itten zeuein?  
- Aste Santukua zan parrokixatik urten ta haraiño, estanku, oin hotela edo zabaldu daue ba? Horraiño, hor auen plazuela bat, eta hor buelta in eta gero plazatik bueltan, handik bueltan, plazan egoten zan beste altare bat ipiñita egoten zan, eta gero San Viatorrera, konbentura. Eta han be beste zer batzuk in eta handik otera parrokixara bueltan.  
- Zenbat denporako bueltia?  
- Ez dakit, bastante, ordubete edo bai igual.  
- Ze santu erueten zeuben zuk?  
- Holako Santo Kristo haundi bat, oin be ha [...] Ha Bittorixara eruen be pinttetako, ni soldau fan aurretik, Beroara fan aurretik in nittuan urte pare bat edo, hori Aranburuzabala, Transporte Aranburuzabala-edo, eta horren aittaz ajudante. Eta orduen euen hemen parrokua Don Agustin Etxeberria, Ondarrukua edo ez dakit nungua zan. Harekin berba in auen eta ha Bittorixara pintetan erueteko. Eta esan usten harek Patxik: "fanari parrokixara eta han egongo dok santue eta ekarri egik, bixar goizien haruzkuan eruen dagigun Bittorixara". Eta han euen zakutan forrau-forrau egindda, eta bixkarrien hartuta eruen neben garajera, eta hurringo goizien

Bittorixara geuk eruen kamioien, pinttetako-edo.  
 - Eta eruen euein? Eta ekarri be bai, atzera?  
 - Bai, elegante asko.  
 - Hori noizko kontua da?  
 - Nik orduen euko nittun hamazazpi bat urte.  
 - Harrezkero ez daue ya gehixau pinttau? Ondo pinttau euein orduan.  
 - Bai, ez dot pentsaten gehixau pinttau dauenik.  
 - Zenbat urte arte ibilli ziñan zu Santo Kristo hori erueten?  
 - Ez dakit, lau-bost urte-edo.

#### 4.53. Marulandan 22 etxetan 24 erlijioso

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/007
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:11:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Marulandan ume guztiek, neska zein mutil, elkarrekin jolasten ziren, Leintz Gatzagan ez. Leintz Gatzagan eskola gaur egun udaletxea dagoen lekuan zegoen. Marulandan beraien etxean zegoen eskola. 22 etxe zeuden eta ume asko batzen ziren. 22 etxetan 24 erlijioso zeuden (moja zein fraide). Bere ahizpa ere moja izan zen, Brasilen ibilitakoa. Bera ahizpak gaixotasunak arraro bat hartu zuen Brasilen, antza Espainiako pertsona bakarra zen gaixotasun horrekin.

#### Transkripzioa

-Jolasian zela eitten zeuen, neska-mutillak alkarrekin edo aparte-edo?  
 -Bai, eskolan be holaxen gabitzen.  
 -Eskolan be aparte?  
 -Gatzan ez baiña Maulandan bai. Maulandan junto neskak eta mutillak.  
 -Gatzan be bai.  
 -Gatzan ez, Gatzan gauken bixetakuak.  
 -Maixua ta maistria?  
 -Bai. Oin badau ba aiuntamentua? Haintxe zan.  
 -Eta Marulandan danak elkarrekin.  
 -Bai. Geure etxian zaon eskolia.  
 -Zenbat juntatzen ziñen?  
 -Orduan asko. Mariñen be baeuen maistrua.  
 -Eskolia be bai?  
 -Baitta.  
 -Marulandan hainbeste etxe be ez die, ezta?  
 -Hogeta bi etxe euzen. Oin be ez dakit zenbat egongo diezen baiña.  
 Hogeta bi etxe eta hogeta lau erlijioso.  
 -Moja ta fraile? Etxeko bat.  
 -Etxien gurien bat, baiña lau eozen etxiak be bai.  
 -Baiña ola media bat atarateko etxeko bat.  
 -Etxe danetan.  
 -Horrek abariok eta monjok eta nora faten zien?

-Eurak euken etxia. Abadia euen Zarimutzen.  
 -Danak ez zien egongo Maulandan.  
 -Abadiak ez. Frailliak, mojak, danak relijiosuak zien.  
 -Eta ez zeukazuen abaderik edo fraillerik Kuban eta Ameriketan ibilitakuak?  
 -Neuk aitzia Brasil, Brasillen eta gero hemen be egon zan, gero azkenian ba Madillen hil zan, eta hartu zeban hango gaitz bat; etxakon kendu sekula be, granoz beteten zan.  
 -Tropikoko zera?  
 -Tropikal. "Dicen que en Brasil había", bi auzela bakarrik; hango medikuak esaten zebe bi auzela bakarrik, eta Españan "uno, tú".  
 -Hoixe da loterixia tokaittia.  
 -Bai, asko sufridu zeban.

## 5. Aisia

### 5.1. Inguruko erromeria eta feria ezagunak

- **Hizlaria(k)**: Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-002/003
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:07:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Erromeriak. Feria egunak. Arrasateko feriara behiak saltzera. Feria ezagunak: Arantzazu, Urkiolan. Neska-mutilak dantzan. Soinujoleak.

### Transkripzioa

- Orduen be erromerixan bat edo beste be egongo zan, ez? Erromerixak izeten zien orduan, ala?  
 - Erromerixie?  
 - Bai, esan gura dot, ba, jai egun batzuk be hartuko ziela tarteka.  
 - Jai egunetan ez dakit, ba [...].  
 - Gizonak ferixa egunien.  
 - A! Gizonak?  
 - Bai.  
 - [...] umie gosiek etxien, gizona lelotute etxera.  
 - Hori da, hori da. Bai, behixe... Behixek... Urte askuen ibili nitzen neu behi bi Mondrauen saltzen nittun --bi, hiru be akordetan naz-- Mondrauen ferixan. Ta esnerik edo ez gauen, orduen ez gauen saltzen.; behixak saltzen gittuen ta ez. Beste zekorren bat-edo [...] ta hortara [...] behixek.  
 - Orduen faten zan, ba, Arantzazure, Urkiolara, San [Andresenera], ta, ba, San Pedruek edo Andramaixek.  
 - Bai, ta fiestie gero, fiesta haundixek eitten zien orduan, e! Dantza... Soñue jo ta dantzan, neska-mutillek dantzan. Ta San Migeletan be dantzan --oin San Migeletan be ezebe ez da eitten--; San Migeletan-ta be dantzan, dantzan ganoraz neska-mutillek ibiltten zien. [Ta kanbixau ein euen].  
 - Ze egoten zan? Akordeoie edo trikitixa edo...?  
 - Bai, akordeoie.  
 - Akordeoie?

- Soiñujoillie.  
 - Soiñue...  
 - Beste... Oin harrazkero [argittu die beste...] aldemenekuek-eta [be, honek] soiñue joten eben, baiña... San Migeletan, ezebez, baiña San Migeletan dantzan neska-mutillek.  
 - Urkiolara-ta be dana oiñez fan biheko zan, ez? Urkiolara erromerixara ta dana oiñez?  
 - Mondraura be bai ferixara, oiñez. Mondraura ferixara oiñez-ta faten giñan. Oiñez. Urkiolara? Baztar guztietara [...] oiñez. Oiñez? Nun ibiliko gitzen, ba? Mondraura... Mondrauen ferixa haundixa eitten zan. Ganauek... Ganauek asko saldu eta erosi ta ferixa haundixa eitten zan Mondrauen.

## 5.2. Marin auzoa; trenbidearen inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Azkarate Arejolaleiba, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-010/001
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Aisia » Kultura » Idaztea  
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak  
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Jatorria. Marin auzoan jaioetakoa 1915ean. Trenbidea egiten zeuden orduan; Gatzaga-Eskoriatza ibilbidea egiten zuen trenak. Garai hartan don Juan Ibargutxi abadea zegoen Marin auzoan. Don Juan Ibargutxiren obra; idatzitako liburuak. Don Juan Ibargutxi euskaltzalea zen. Jose, "Garaikua" baserrian jaioetakoa. Gurasoen jatorria: aita, bertakoa. Ama, Aramaio "Gatzikarro" (Azkoaga) baserrian jaio zen. Aramaio bi auzo, Maringoak izatera pasatu ziren.

### Transkripzioa

- Kontauko destazu noiz jaixo ziñan eta nun jaixotakua zaran?  
 - Ba, ni jaio nitzan Mariñen, ezta? Marin badakizu dala gure [auzoba], ezta? Bai. Jaio nitzen, gaiñera, milla bederatzirehun eta hamabostian. Orduaintxe zebitzen trenbidie eitten. Trenbidie ni jaio nitzanien trenbidie eitten zebillen Gatzaga-indik Eskoriatzara bitartian. Bai. Eta ni jaio nitzan urtietan zegoan apaiz Mariñen Don Juan Ibargutxi. Juan Ibargutxi euskal liburuak idatzi dittuena, batez ere teologiakoak. Bai, idatzi zittuan. Horrek idatzi zittuan, ba, aginduak, lehelengo aginduak, gero [...] edo sakramentuak. Horren esplikaziñua, ezta? Ta gero otoitza. Otoitza. Eta gero beste liburu bat geruao Ama Birjiñari buruz, ezta? Bai, Ama Birjiñari buruz.  
 - Eta zu bertan, Marin auzuan, ze basarritan edo...?  
 - Ni jaio nitzan, ba, Garaikua baserrian. Garaikua baserri zaharra. Jausi zan, baiña jausi orduko in zuen onduan barri bat. Ta oin barrian bizi dira nere lobak, nere lobak, bai.  
 - Eta gurasuak bertakua zian?  
 - Baitte. Bai, gure gurasuak, ba, bertakua zian. Aitta bertan Maringua, Garaikuan jaixotakua; eta ama, berriz, Gatzikarro Araba partian dago, Aramaionakua da, ezta? Azkoagako parrokiakua da. Eta, orduan, gure ama

jaio zan herri hori, ba, Azkoagako parrokiakoa zan eta amaren bataioa-ta han egin ziren Azkuen eta haintxe daude gure amaren honek partidak-eta. Gero, hori, Gatzikarrotza auzo bat da; beste bi auzo pasa ziran, parrokia, pasa zan Maringo parrokia izatera.

### 5.3. Eskoriatzako musika banda

- **Hizlaria(k):** Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-012/024
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Musika  
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Musika Bandaren inguruko azalpenak; igandetan kontzertua ematen zuten plazan eta kalejirak ere egiten zituzten.

#### Transkripzioa

- Bueno, bueltauta musika kontuetara eta, musika bandia esan dozu kanpora larrei ez ziñaziela urtetzen, baiña herrixan bertan...?  
- Bai, domekero.  
- Domekero jotzen zenduen?  
- Domekero, bai.  
- Ta pasakalliak eta itten zenduzen?  
- Baitta, baitta. Jai haundixak zianian pasakallia. Eta iñoiz, ba, bueno, pixkat, e... ya osatu giñanian grupotxua ta zerien, ba, konziertuak be bai, plazan.

### 5.4. Zinearen lehenengo urratsak

- **Hizlaria(k):** Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-012/030
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Zinearen lehenengo urratsak zeintzuk izan ziren kontatzen du. Pelikulak nola ematen ziren azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Eta, hori, esaten dozu ziniak bazerela beste parrokiara... bueno, parrokiara gehixenetan edo. Baiña hemen bertan, Eskoriatzan, zenbat halako makiña, osea, zinia zenbat tokittan egongo zan, hor bakarrik?  
- Bai, bai, bai.  
- Eta zuk badakizu zelan jirau zebe, ba, aparatua eta horrek gauza guztiorrek?  
- Ni hasi [nienien], ni hasi [nien], aparato bat bakarrik zeuen. Gero ya

pixkat jentia... jentia edo gehittu edo gehixau etorri zala zerien, ba, ya bigarren aparatua, ba... zertu barik, korte barik, batetik bestera pasau, baiña... honeik, e... kasik, honeik asuntuok, pixkat tokau jaten “en primera linea”!

- Eta, orduan, lehelengo aparatu horretan, kortiak zegaittik? Ze zian, “ocho milímetros”? Ze, ze...?

- Ez, ez, ez, “treinta y dos”, normala, normala.

- Eta ze korte egoten zian?

- [...], ba, hiru ordu larenetik hiru ordu larenera, por ejemplo, tamaiña, bobinian tamaiña, hiru ordu larenetik aurrera ez zan kabituten ya. Zinttia goraiño. Eta, klaro, hara allegatzen zanian, ba, bueno, deskantsua ein ezker, orduan deskantsua eitten zan...

- Bobinia aldatu...

- Bai, ta ya esta. Eta, ba, bueno, normalian izeten zien hiru, hiru rollo, hiru zatitan, eta, klaro, proiektore bat zeuenien bakarrik, ba, derrigorrian, kendu in bihar, osea, aldatu ein bihar.

- Bi deskanso.

- [...] guretzako izeten zan prueba bat, aber zeñek azkarrau in. Gero prisakin igual zinttia gaizki sartu ta barriro argixa ixotu bihar, ta “fssss”, txistua. Buf... ohittuta, ohittuta ya, [zenbat] txistu...

- Eta gero, esan dozu, makiña barrixa ekarri zanian, orduan ya korterik ez?

- Ez, zeatik lehelengokua, lehelengo rollua baten eta gero bestian, eta bata akabatzen zanian, ba, hirugarrena han barriro...

- Anekdotak be eukiko dozuz, ez?

- Buu... zinekuak? Danak, anekdota danak daukat.

- Pelikulia apurtu edo erdixan...?

- Ta argixak itxungi, zeatik orduan bonbillak ez zien... zien hortaiko... horreik, soldadora elektrika modukoko... zer batzuk, bonbillia, ba, argixa itten zabena oso foko fuertia, baiña bonbillia izan biherrien kristaleko [...], zerak, polo bixak ta, orduen, ikutzerakuen sua, sua, bueno, argixa.

- Bai.

- Eta atzien egoten zan kristal bat, eta hak urtetzen euen makiñan aurrera. Eta ha euki biher zan beti, ba, puntutxo baten, osea, aurreratxua edo atzeratxua. Ta separata [zerenian], osea, gastau, gastau itten zan, ta apurtxo bat [apartatzen] zanian, itxungi itten zan dana. Eta bueno, segiduen enteretan ziñen, txistua ta...

## 5.5. Zinearen inguruko zenbait azalpen

- **Hizlaria(k)**: Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-012/031
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:56:55. **Bukatu**: 00:58:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zinea astean hiru egunetan egoten zen; sarrerak zenbat balio zuen.

### Transkripzioa

- Pelikulak noiz izaten zian, zinia ze egunetan egoten zan edo?

- Zapatua, domeka, eta eguenak be bai.

- Eta zenbat kobratzen zan?  
 - Puf!  
 - Hasierako urtietan, zer izango zan?  
 - Ba bastante [urterakuak ni]... osea... hasi ta 10 bat urte edo, nota, hola, zea bat, nota bat daukat neure, neure rekuerdia...  
 - [...].  
 - Ez, ez, neuk eiñikua, zera, likidaziño bat eiñikua, ta 9 pezeta, 8, entradia.  
 - Eta, orduan, ba, umiak edo gaztiak edo tranparik-eta egitten zebe, ba, sarrerria ez pagatzeko edo halako...?  
 - Ez. Ez, zan bastante... Bueno, butaketan ta, bueno, butaketan... lehelengo sillak zien. Apurtxo bat...  
 - Egurrezko...?  
 - Bai. Apurtxo bat bat dirua [eukitzen gebenien], bueno! Zerien, hemen Rioja, Rioja... Ezkarai edo, zeuen fabrika bat hola itten zittuena, eta handik etorri jakun bat eta, bueno, montaje politta in zoskun. Baiña, bueno, hillebetegarrenge ya...  
 - Apurtuta?  
 - Buf, desastre.

## 5.6. Umetan errekan arrantzan

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-014/017
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Karramarrotan nola egiten zuten azaltzen du; aingirak nola hartzen zituzten. Erreka aberatsa zen; Eibar eta Arrasate ingurutik ere jende asko gerturatzen zen bertara arrantza egitera. Erreka zikintzen hasi zenean galdu zen arrantza guztia.

### Transkripzioa

- Eta karramarrotan?  
 - Kangrejuek?  
 - Bai. Zelan harrapatzen zenduezen?  
 - Kangrejuek, e... Retelak esaten jakuen holako aro batzuekin, zera, saratxo bat; eta ha ipini, eta han okela puxkat, usaiña botaten dauena-ero, puxkat usteldutakue, eta ha ipini, ta kangrejuek hara faten zien, ta atara-ta, hartuta, berriz... Angirak-eta asko azen, angirak; eta angirak harrapetan zittuen, e, kordela botata, gabien bota kordelak, punta batetik bestera, bestien ipini, da antzueluekin, hiru-lau antzuelo kordel bakotxari, da hurrengo goixien jua ta, angirak baldin badauke, etxera ekarteko.  
 - Eta angirak estimauek izaten zian?  
 - Bai, bai, bai. Angirak haundixak eoten zien! Gu Eskoritzara bizitten etorri gitzenien, gure aittak bezperan kordelak bota zittuen, da Eskoritzara etorri, ta Eskoritzan, e, kamiñeruek etorri zien gure muebliok ekarteko-ta, kamioi baten, eta amak angirak ipiñi zittuen Eskoritzan, lenengo merixendia angirak jan gittuen, jan zittuen... Neuk be jango neuen zeoze, baiña. Bezperan peskan eiñ-ta...  
 - Orduan erreka aberatsa.

- Oso aberatsa. Oso aberatsa. Eibartik-eta be bai etorten zien, e, horra San Prudentzio aldera-ta peskan eitten, e! Mondrauetik eta be bai asko. Eta, klaro, gero fabrikak hasi zienien, industrie hasi zanien, peskie orduen galdu zan. Loiñak-eta harrapetan zien, bueno! Loiñak eta asko, asko. Bandadak ibiltten zien holaxe bista-bista-bistan, bandadak ibiltten zien. Eta batzuk erremintak be baaukien, guk ez, baiña hola esparbela, raaa! Bota eta behera faten zan, gero zerakin tiretu eta harrapetan zittuen, loiñak-eta hola harrapetan zittuen.

- Zuek ohiturarik izaten zenduen agorrek egitteko, presa txiki batzuk?

- Bai, bai, bai. Presak eta errekan eitten gittuen, eitten gittuen. Ibiltten gitzen.

### 5.7. Perretxikotan mendian

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/018
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Perretxikotarako zaletasuna izan du beti; gehien hartzen zituen perretxikoak zeintzuk izaten ziren.

#### Transkripzioa

- Eta perretxikutarako afiziñorik?

- Bai, bai. Ni oin ez naz joten, baiña orduen perretxikutara afiziño haundixe geuken bai.

- Bertan inguruan, San Prudentzio inguruan?

- Bai, bertan inguruan. Eta ni Eskoritzara etorri ta gero be bai, perretxikutan asko eitten neuen, bai. Mutikotie, baiña ikessita neuen, eta perretxikutan eitten neuen, bai. Oin aspaldi hontan bapez, ez dot eitten, e.

- Eta zer hartzen zenduen?

- Gibelurdiñek eta korostei-perretxikuek eta hongoak zien onenak. Eta gero saltsa-perretxikuek be egoten zien... Baiña gibelurdiñak eta gorostei-perretxikuek-eta neuri gehixen gustetan jatenak hareik dia. Zatittuta, tortillie eindda ipintten die, ezta? Baiña horreik die perretxikuok, e, osorik, berakatza eta gatza-ta ein, ta zartaiñien, gehixen holaxe gustetan jat neri.

### 5.8. Musikarako zaletasuna umetatik

- **Hizlaria(k):** Padilla Maguregi, Mario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-016/003
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:03:39. **Bukatu:** 00:05:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Umetan korora joaten hasi zen eta orduan organista zenak erakusten zien musika pixka bat. Musika Bandan ere hasi zen; txistua jotzen ikasi zuen. Inguruko txistulari ezagunak, etab.

### Transkripzioa

- Ta musikia be han ikasi zozun edo...?
- Musikia koruen. Koro parrokiakera hasi giñen abotsa ona [euken...] edo belarri ona geunkenok, ba, ta harek zerak erakusten oskun bertako organistiek. Bai. Otxandixoko organistiek. Ta ha be kanpotarra zan, Lekeitixokue. Bai. Don Pedro Jauregi. Ha zan lehelengoko maixue musikan. Ta gero, ba, hasi giñen, ba, banda musikiaz ta banda musikatik txistulari zaharra be hil zan ta iñor ez euela txistularirik eta neu hasi nitzen txistu... ikesten. Ta pixkat holan...
- Zeure kabuz?
- Bai, sasi-txistulari izen naz ni. Maixo bako...
- Bai! Sasi? Oi sasi... Hoixe!
- Sasi txistulari. [...].
- Baiña eskola onekue.
- [...] ahalegiñe ein dou, ez holan aparteko...
- Asike, ikasi, zeure kabuz ikasi dozu, e?
- Bai, bai.
- Joe...!
- Klaro, lehen gehixenak autodidaktak.
- Klaro!
- [...]
- Txistulari zaharrak han beste txistulari bat be, bat hil zanien beste bat euen, ta harek lehelengo notak eta gero, hoixe, Demetrio-ta juaten zien han bertako herriko jaixetan Aretxabaletako txistularixek, Oñatikuek, ta horrek erakusten ostezan soiñu batzuk eta danboliñe zelan jo ta... Hantxe egoten zien hiru egunetan, lau egun edo...
- A, bai? Han jaixetan, e?
- Bai.
- Ta orduen aprobetxetan zabien erakusteko zeuei...?
- Neuri erakusteko ta gero ya...
- Baiña hori Demetrio hori [entzuna da], Demetrio hori Aretxabaletako txistulari... bastante famosue edo behintzat entzunda...
- Hori oñatiarrak [dia horrek] izatez, oñatiarrak.
- Izatez oñatiarrak dia?
- Bai, bai. Demetrio Iriarte!

## 5.9. Eskoriatzako dantza-taldea

- **Hizlaria(k):** Armendariz, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-021/001
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Dantza  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena:** Zenbat urterekin hasi ziren dantza-taldean dantza egiten; 1944. urte inguruan jaiotakoak dira. Dantza-taldearen sorrera azaltzen

dute; 1957 inguruan hasi ziren dantza egiten. Argazki bat dokumentatzen ari dira; izenak ematen dituzte.

### Transkripzioa

- Zenbat urtekin hasi ziñeten dantza eitten edo dantza-taldian ze urtekin...?
- Hamabi-hamahiru urte. Guk hemen, klaro, en el cincuenta y siete bada...
- Ez, hamen cincuenta y [...].
- Ikusi, hemen ifintten dau cincuenta y siete.
- Bai, cincuenta y siete.
- Eta gu en el cuarenta y cuatro gaoz jaixota, ba, hamahiru urtegaz.
- [...] cuarenta y uno, [hamahiru urte], nik eukiko nittun hamabost-hamasei urte.
- Hamahiru urtegaz. Hemen gaztetxuena da nire aitzie Mari Carmen.
- Bai.
- Honeik Maria Jesus ta.....
- Maria Jesus ta horreik ez.
- Mertxe urte bat zaharraue?
- [Haure] zaharraue. Eta gero zaharrenak Nekane como gehixen, gero Maria Jesus, Maria Luisa, Kontxita, Isabel, Mercedes eta gero gu gitzen hau Mari Pilar eta ni [...] nau hemen].
- Hau zan lehenengo grupue [urtetzen euen].
- Lehenengo grupue urten zana.
- Bai, honeaz, e? Aurretik egongo zan beste grupo batzuk, baiña...
- [...] Eskoriatzara ta gero...
- Gero egon zan urte batzuk, ba, ez [zebela ein] dantza...
- Betiko moduen. Betiko moduen, horixe.
- Eta, bueno, etorri zan hau Vittorixatik lanera hemen eta honek itten zauen dantzan el "Txirinbin", ezta?
- [...] "el Txirinbin de Vitoria".
- "De Vitoria". Ta formau zauen, ba...
- Eta horrek formau auen hori...
- ... grupotxo bat.
- Eta zelan zaukan izena gizon honek?
- Joseba.
- Joseba Ortiz de Zarate.
- Ortiz de Zarate.
- A! Ortiz de Zarate? Ta hona etorri zan lanian?
- Lanera etorri zan fabrikatxo batera. Eta dantzan itten auen han eta [ekitten zan], ba, geuri erakusten. Hori gero hil zan, gazteik hil zan [...].
- Eta bakarrik emakumiak ziñeten?
- Bai.
- Ez, gero mutillak be bai, e!
- Gero. Baiña lehenengotan igual izengo zan...
- Guk ingo gauen orduan "solo chicas", edo "solo chicos". Hori orduen, badakitzu "que no se podía hacer mucho así".
- No, baiña, badakitzu, andrak betik izan gare "más dadas a estas cosas", eta nik uste dot lehenengotan formau zala, eta eske... bestela gero ya zien honek ya ez diez hain zaharrak, osea, gaztetxuauek die, ez? Klaro, gure edadekuek diez ya.
- Hamen bai. Bueno, eske hamendik gure Maria Jesusek eta Ana Marik, edo... Maria Luisak eta [...] ta holako fotografixetan del cincuenta y cuatro honek in euen mezia...
- El cincuenta y nueve.
- El cincuenta y nueve. Hortxe desberdintasunien...

- Eta hau dau el cincuenta y siete. Oseake... [segittuen]. Hamen ez da ikusten ez Maria Jesus, Isabel be ez...

- [Harek nik uste dot] denbora gutxittan ein auiera dantzan, e?

- Bai, oso gutxi. Oso gutxi, zegaittik hau fortografixiau uste dot Txomiñek ein zuela el cincuenta y nueve. Mezie. Hurrengo urtien...

- Txomiñek eukiko dau setenta y... setenta?

- Y...

- Setenta y uno?

- Uno.

- Uno. Hogeta bost urte...

- A! Eta egin zenioten omenaldixa edo holan?

- Ez, ez, lehenengoko mezie.

- Lehenengoko mezie. Lehenengoko mezie [ein gauenien], hori. Ta hamen bai, hamen ya [garez] mutillek...

- Da gure kuadrillie. [...].

- Gure kuadrillie...

- [...] be... Zein ikusi dot gehixao hemen? Ez?

- Hamen Alfonso, Jose Juan Arbe, Pedro Mari... Ez, Idigoras, Jose Luis [Marzel], [...], Armando y Larrañaga. Baiña gehixau be egon biher zan, e?

## 5.10. Dantza-taldea; dantza desberdinak

- **Hizlaria(k)**: Armendariz, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-021/004
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Dantza-taldean neskak eta mutilak zeuden baina dantza egiteko orduan gutxitan batzen ziren. Euskal dantza desberdinak.

### Transkripzioa

- Eta ziñeten, orduan, taldetxo hau hasiera baten, holan... hamar inguru...? Hamar... sei, zazpi...

- Bai, izeten zien [...], betik izeten zien...

- Hamar.

- Hamar.

- Hamar. [Sagar-dantzara]...

- Sei ta sei hamabi...

- Sagar-dantzan be lau eta lau, eta [...] hamar. Eta zinta-dantza eta horreik hasi zan. Eta gero ya honeik diez ya mixtos. Hasi gitzen...

- Bai, hasi gitzen mixto.

- ... beste [eusko]-dantza ta hor faten zien ya...

- Hor be... dantza-taldia ya neskak bakarrik eitten zan ta gero mutillak eitten abien aurrezko ta [...] bakarrik, oseake, nahastuta ez zan ez zan eitten hainbesteraiñoko dantzaik, e?

- Bai, batzuk in gauen, e!

- Bai, batzuk bai. Baiña bestela izaten zan neskanak eta mutillak.

- Bai, segun ze dantzak diferentiak.

- Diferentiak.

### 5.11. Eskoriatzako dantza-taldearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Armendariz, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-021/006
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kultura » Musika  
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Dantza-taldearen izena, "Alai-garbi". Astean behin elkartzen ziren entseguetarako. Zuzendaria, txistulariak... Eskoriatzan dantzatzeaz gain, kanpora ere irteten ziren. Ekitaldi ofizialetan ere dantzatzen zuten.

#### Transkripzioa

- Eta zelan zaukotsuen izena?
- [...] nik pentsetan dot "Alai-garbi" gitzela.
- Ai! Ideiak be ez, hara! Ideiak be ez ez dauket.
- "Alai-garbi"?
- "Alai-garbi".
- "Alai-garbi", e? Ez... ezta ideiak be ez...
- Nik [pentsetan...] baietz.
- Eta zelan pentsau zenuten edo zelan izen zan?
- Izena?
- Bai. Edo...?
- Izena akordetan naz ibili gitzela, ba, bakotxak edo [kuadrillan...] ein biher zan, zelan ifini, ze izen ifini. Ta egon gitzen pentsetan, ba, nik ez dakit zenbat. Ta azkenien pentsetan jat urten auela, pues, alaiak, alegriak gitzela eta hori ta garbixak. Honbre, hori porsiakaso. Ta pentsetan jat "Alai-garbi". Ta beste izen bat egon zan be, ta ez naiz akordetan [oin] zelan zan. Beste izen bikin egon gitzen, ta azkenien "Alai-garbi".
- Zu, izenak ez dakit... Ideiak be ez. Ez, ez naz akordetan...
- Eta hemen zer ensaiu eitten zenuten edo zelan?
- Bai, ensaiu!
- Fijo-fijo?
- Fijo-fijo.
- Honbre! "Más finas que [el esto del coral]". Bai, bai, bai, bai.
- Zenbat?
- Astien behin edo...
- Behin edo bittan be bai igual.
- Bi be bai igual, e?
- Bai! Lehen... Bueno! Oin zinia, hori, gaztetxia dauen lekuan hor zinia auen ta haintxe eitten gauen.
- Haintxe eitten gauen...
- Haintxe eitten gauen ensaiuek. Bai, bai, bai, bai.
- Eta berekin, ez?
- Bai, horretxekin, Joseba...
- Josebakin?
- Josebakin. Gero txistulariak zien, ba —hau dauena hemen be bai—, ya txistulariek zien Eskoriatzakuak: Jose Kruz, Felix... eta horrek zien txistulariek. Tanborrerue betik urte askotan bat: Anton "Tanborrero". Oin [Coruñan] dau. [Coruñan] dao.

- A! Anton "Tanborrero". Bai, entzunda daukot.

- Bai, ha beste argazki batzutan urtengo dau. Ta ke raro hemen ez dauela egon. Antontxo. A! Anton Guridi da hori txikitxue!

- Hori da txikitxue?

- Ipini dozu Anton Guridi?

- Bai, jarri ein bihar dot.

- Honbre! Anton Guridi! Honen primua zan bestia Anton "Tanborrero".

Artista batzuk zien honek tanborra jotzen!

- Eta gero ekitaldixak eta ze eitten zenuten hemen Eskoriatzan bakarrik edo...?

- Ez, ez!

- [...] fan gitzen Angiozarrera fan gitzen.

- Angiozar, bai.

- Trenien.

- Trenien.

- Ta gero autobusien handik Angiozarrera.

- Gero Plazentziara.

- Gero Plazentziara be bai Santa Ana egunien fan gitzen.

- Eta [estas...bestia nora gehixao dao]? Ideaik be ez...

- Urten be asko be... Orduen [danetan...] ez dakit...

- Horreik bixek bai.

- Horreik bixetan bai.

- Akordetan naz, bai.

- Gero herrixen itten gauena, bai, ta ez dakit nora gehixao fan gitzen.

- Horrek bixetara bai.

- Bai.

- Eta jaixetara? Gero hemen be bai jaixetan itten zenuten edo...?

- Bai! Bai, bai, bai, bai. [Obligaziño, zu]. Jaixak zieten zien "obligación".

- "Obligación", edo... ta gero...

- Obligaziñue.

- ... etorten bazan Gobernadorie be bai...

- Baitta.

- ... edo [...], ba...

- Horrek gauzok izeten zien eskolan be bai.

- Holan...

- Klaro. [...] ta gero...

- Apotzan be egon gitzen.

- Apotzan be bai.

- Inauguraziñue, hau, kamiñue.

- Kamiñue ein zanien.

- Kamiñue ein zanien. [Gobernadorie etorri zan] eta egon gitzen, bai, dantza... Fan gitzen [...].

- Gatzagan be ez dakit ez gitzen egon [beste...], holakotxe gauzetan.

- Horreik zien akontezimentuek.

- Bai.

## 5.12. Jai-giroa Eskoriatzan

- **Hizlaria(k)**: Armendariz, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-021/008
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- **Laburpena:** Koadrilen egunean mozorrotu egiten ziren; urte desberdinetako mozorroak gogoratzen dituzte.

### Transkripzioa

- Eitten zan “un disfraz de tipo cuadrillas, pero tipo fiesta vasca” edo...  
- Bai, bai, gehixau, ba...  
- Gehixau apur bat hamengo gauzakin.  
... fiesta vasca...  
- A, bai, holan...  
- Bueno...  
- Ez tipo fiesta vasca, baiña bai.  
- Ez, baiña, bueno.  
-[Bueno], guk in gauen...  
- Bai, karroza bat oso politta...  
- Karroza bat urten gauen.  
- ... txistu bateaz, oso txistu haundi bat, eta gero holan zazpi [harri]...  
- Zazpi [harri bakotxak...] [idea eitteko]...  
- Txistu ta tanbolin oso haundixe ta gero inguruan, ba, zazpi [harrixekin].  
Eta bueno, ba...  
- Gero [...] “del Club Deportivo” ta...  
- Gero jantzi gitzen, osea, dantzari urten gauen, dantzari.  
- Bai. Eta [orduko baten] urtien in gauen “del club deportivo”, ba, bakotxak [...].  
- Ba, aktibidadiak.  
- Ba, bizikletie egun guztien jo-ta sue! Jarritta gaiñien ez, e? Ibili. Bata motxiliakin, bestia paliakin, bestia bastoi batekin ta kantutxo bat be ifini...  
- Eta motxilakin be bai...  
- Bai. Kantu bat in oskun, ba, honek, mezie emun auenak, Txomiñek: “Viva el Club Deportivo”. Kantetan gauen...  
- Jantzixa be koloriek “del Club Deportivo, blanco eta verde”.  
- Bai. Eta “blanco”...  
- Eta Aizorrozko insig... bordauta...  
- Bordauta, bai, alkondara zurixen.  
- Elegante urten [gauen].  
- Zapatilla zurixak gorrixakin eta...  
- Eta bestela...  
- ... eta gerrikue berdie.  
- Berdie.  
- Bai.  
- “Del Club Deportivo”.  
- Eta beste baten urte baten urten gauen burdi bat [...] ipini gutsen...  
- Ba, ha zan txistu...  
- Ez!  
- A, ez?  
- [...] ifini [gutsen] holako arbola zer bat, faten jakun edozein lekutara...  
jolin!  
- A! Bai, egixa! Bai, bai...  
- Ibili gitzen tontuen moduen.  
- [Pertiga o que]... Apurtu in zan pertiga edo nik ez dakit ze izen zan, baiña [... geldittu jaten].  
- Ta orduen be geldiketan gitzen, ta, bueno, txistua jo ta batek aurrezkua eitten auen ta [...] “los aplausos y veinga”! [...].

### 5.13. Kintoak Santa Ageda eskean

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/013
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena:** Kintoak Santa Ageda eskean ibiltzen ziren. Bezperan auzoak batzen zituzten eta egunean bertan herriko kaleak. Kaletarrak eta baserritarrak aparte ibiltzen ziren.

#### Transkripzioa

-Zu gaztie ziñanien zenbat urtekin ospatzen da, bueno, Santa Agedako... Kintuen eguna?

-Hamazortzi, hemeretzi urte, hoge, hortxe. Oin kintuek urte bi edo hiru edo gaztieuek [etozen?]. Lehenau nausitxuauek faten zien. Hogeta bat urte ingurukin, edo hogeta bi edo holan faten zan soldau. Oin urte bi edo adelantau ein daue. Adelantau, gaztieuek joaten die, kintuek gaztieuek ibiltten die lehen baiño. Lehenau gu auzuetan auzue batzen giñuan guk; kaletarrakin aparte ibiltzen giñan. Oin danok batera eitten daue, baiña gu faten gintzen Mendiolar, Arkarazora eta horra. Eta gero Eskoriatzara be etorten gintzen, Eskoriatzakuak be faten zien Bolibarrera-ta. Eta kaletarrak hasten bazien kalebarrenetik, gu kalegoixenetik hasten giñan. Batera ibili barik. Eta gero parte itten gauen Izibill edo, Izibill baserri bat, etxe bat zan, lehenauko aguazillen ta zera, oiñurrengo aguazillanak, fan zanak ez, aurrekue Toribio, Toribio Zubia, haren etxia preparaten oskun ba...

-Zubia, badakit, horren anaia; Miren Zubian aittajauna. Eta zelan, barkatu, moztu ein dotsutela...

-Han eitten gittuen guk bazkaixek eta afaixek, eta eitten gittuen batzen geuen gauzakin eta.

-Eta zelan zan egun hori? Goixian elkartzen ziñaten...

-Gu ba bezperan batzen gauen auzuak, eta bertan egunien kaliak. Dirue edo batzen zan. Lehenau baserrixetan eta emuten zittuen dozena bat arrautza igual, eta txorixuek eta gauzak; janak-eta asko batzen gittuen.

-Eta gero etxe horretan jana egin, ez?

-Jana ein. Eta bezperan be afaitten gauen, gero egunien bazkaldu, afaldu be bai, eta gero sobretan bazan, hurrengo domekan edo atzera eitten gauen.

### 5.14. Bolatokia Gatzagan

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/007
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Aisia » Taberna giroa » Jokoak

- **Laburpena:** Mutilen jolasak. Mutilek bolekin jolasten zuten. Nagusiek ere egiten zuten boletan, baina haiek bola onekin. Bolatokia non zegoen Gatzagan.

### Transkripzioa

-Mutillak zertara jolasten zebeu, kanikak eta izaten zittuen?  
 -Kanikak baiño, boluen. Ez dakitzu horrek boluek ifini, boluek ifintten die, eta gero pelotiekin, eta holakuek.  
 -Eurak egindako boluekin?  
 -Bai, euren zerekuak. Boluen jentie ibiltten zan, nausixa be bai domeketan, nausixa. Baiña ia harek eukitten eben bolo onak. Eta mutikuek ba bakitzu.  
 -Bolatokixa nun zeuan Gatzagan?  
 -Ba gorutza goiazela holaxe eskumetara. Han estankue badakitzu nun dauen han behien, hantxe behien, hantxe.  
 -Eta han bolatokixa.  
 -Eta han eitten euen.  
 -Gizonezkuak?  
 -Bai. Eta mutillak eta horrek. Emakumeik ez.  
 -Eta badakizu jolasten zebeuian, posturarik eta egoten zan? Dirua eta?  
 -Orduan diruik ez zan egoten, ez zan egoten diruik. Baiña bai, ahal dauenak ba dirua.  
 -Dirua edo beste zezer...  
 -Zezer. Guk konparaziñorako, esan dotena, txirikillan ba, txokolatia eitten gauen. Ez dakitzu? Gero juntau danok, ez gauken diruik be, baiña daukenak ba han etxe baten, zer baten, zera ein, txokolatia ein.

## 5.15. Igande arratsaldea Eskoriatzan

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-046/019
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:41:28. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**  
 Aisia » Kultura » Musika  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Eskoriatzako plazan, igandero jotzen zuten bandak, akordeoiak eta danbolin joleek. Dantza bukatu, lasterka afaldu eta zinera joaten ziren.

### Transkripzioa

- Eta aparte, San Pedrotatik aparte domekatan egoten zan musikarik plazan?  
 - Bai.  
 - Domekero, ezta?  
 - Bai. Baiña klaro, ni eskolatik ya kanpora egongo nitzen baiña plazan kontinuo-kontinuo. Eskoitzako plazie zan “una privilegiada”. Jote eben bandiek, “la banda” Eskoriatzan banda edarra euen, ederra. Ta ointxe be bei e, ointxe be badaukau bandie bueno “de los primeros”. Ta gero jotzen zan akordeoie, akordeoie, Mondragoetik etorte zan un tal Lucio Markaide ta gero tanboliñe, sueltue. Osake sartzen gintten plazan atsaldeko seiretan ta urten be ez zeban eitten bederatziek arte, bederatziek lauderen gutxirau

arte, despatxetan zanien bandie orduntxe. Etorri etxera prisaka afaldu eta zinera eta zinera bederatziak eta larenetan, domekero hori izete zan. Ta konforme! Oinguk baiño gustorau, domekie noz allegetan dan desietan. Bueno...

- Ze gaztie danien ez zeuken zer itterik. Oin berriz dana telebisiñoian, bestian, han, hemenguan...

- Exaktamente, exaktamente. Oin ein da desde luego “de punta a punta” esaten doten moduen.

- Ya dantza be ez da eitten.

- Ke ba! Keba! Gero keja eiutten die ez dauelako ekarten. Ekarten dabie bailabliek be San Pedroatan, egunen baten ifintzen dabe ta nok eitten due ba dantzan? iñok bez. Iñok bez, keba. Ez dau merezi.

### 5.16. Txirrindulari profesional izandakoa

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/006
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:10:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Bere lehenengo lasterketa Aretxabaletako ziklo-krosa izan zen, 1954an, eta irabazi egin zuen. Txirrindulari moduan aritu zen Espainiako txapelketan, Sabadellen, bigarren postua eskuratu zuen. gero Luxemburgora joan zen munduko txapelketara 1954-1955 inguruan, afizionatu moduan zegoen eta profesional egin zuten, 12. edo 13. gelditu zen. Handik etorri eta soldadu joan behar izan zen Gasteizera. Orduan dena utzi behar izan zuen.

### Transkripzioa

- Zu bizikletan ibilli ziñen garaixan ogibide zuekatzun bizikletia?

- Zela?

- Ogibide, profesioño modura bizikletia?

- Bueno, selekzionau ein eustien “campeonato de España”ko Sabadellen.

- Nunguen?

- Sabadell, Barzelonan egon zan. Nik lehenengo karrera korridu nauena orduen Aretxabaletan, ziklo-krosa egoten zan ba, Arantzazun Oñatin famosuek “el año cincuenta y tres” edo noz egon zan? “campeonato del mundo” Oñatin? Ziklo-krosa, Robick-eta.

- Ni hondiño jaixo barik neuen.

- Ba nik “en el año cincuenta y cuatro”en-edo korridu nauen lehelengo karrera zeien, Aretxabaletan. Ta ikusi eistien salidan urteten eta gero metan, trofeue hartzen. Urten, hanka ein nauen eta adios! Orduen nengoen preparauta ondo, jentiek ezetu be ez dostien eitten, ta akordetan naz e Aretxabaltatik hara zera Copreci gaiñera igoten zan karreteran, zerera horra pantano aldera, ta euan zelaittik behera, Coprecittik behera bajetan zan ta ni ez eistien ezautu be eitten, Anton Barrutia-eta entzunda euko dozu?

- Entzunda bai.

- Barrutia (...), ta ni ondo preparauta neuan eta jo ta irabazi nauen karrera. Lehelengoko karrera. Aiba! Zela baiña? Fotografixe daukat berraiz hangua.

Ta gero selekzionau eistien Sabadellera, “campeonato de España” korriduten. Ta in nauen bigarren, “campeonato de España” Sabadellen in nauen bigarren.

- Lehelengo aldiz korridu zeuenian?

- Lehelengoko karrera, bai.

- Ta orduen esan dozu...

- Gero erun eistien kanpeonato de mundura Luxenburgon korriduten zan “campeonato del mundo”.

- Ze urtetan izan zan hori?

- Ba “cincuenta y cuatro-cincuenta y cinco”. Kanpenato de mundua Luxenburgon, ta ni afizionau moduen nenguen baiña ekipue, Españakue, fan bihar euen kanpeonato de mundura eta ni ebatu eistien profesionaletara pasau eistien. Karo, “campeonato del mundo” profesionala zan ta ikusko auen lau hontatik nahiz ta ni afizonaue izen ta pasau eistien profesionaletara eta kanpeonato de mundura joan nitzen. Joan nitzen Anton Barrutia, Mitxelena, Joxe Mitxelena, Talabio difuntue hil zan Burgoskue hil zan, ta laurok fan giñen. Ta bukatu gauen Talabio aurretik ibilli zan, Mitxelenak hamahirugarren uste dot, joe ointxe (...) nau, hamabi-hamahiru, puesto bat bera aurrien edo ni atzien, holaxen sartu ginttan hamahiru-hamabi-hamahiruen gauen.

- Hori mundukuan?

- Kanpeonato de munduan, Luxenburgon. Handik etorri hori zan, handik etorri enda hori zan “diecinueve febrero del año...” febreruan... handik etorri eta soldau joan bihar nauen, Bitorixara. Orduen zozer eistien Bitorixara joateko soldau, soldadutzara, ta Bitorixa, handik etorri ta Bitorixara ta adios, gehixau karrerarik korridu bez. Soldau fan nitzenien, gero etxien kamioi bat geunken, ta faltan eitten nauela anaiakin basuan harantza ta honuntza ibiltzeko ta orduntxe itzi. Horren penie dakat, ez segidutia.

- Orduen zemat urtietan ibilli ziñan bizikletan konpetiziñuan?

- Ba gaztetan afizionau moduan hasi ta gero kanpeonato de mundura erun eistien, “campeonato de España” atara nauen Sabadellen, ta pasau eistein profesionaletara kanpeonato de mundura fateko. Karo, afizonaue nitzen baiña koño afizionau izena ikusten nauen profesionalei irabazten notsela ba erun eustien kanpeonato de mundura. Handik etorri ta kamioia zela etxon: “koño, honek falta itziok eta...”, mutikua badakitzu, kondizuten gustau-edo, ta adios, gehixo, hortxe itzi nauen karrerie, korridutia. Horren oenie beti euki dot. Kauen la letxe, oin esate ostie: “Joe Indurainek-eta sei tur atara ittuen ta”, bai nik be atara nekien segidu banau, ez dakitzu?, esaerie da.

## 5.17. Ziklo-krosean zein errepidean

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/007
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:10:54. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Sabadell eta Luxenburgoko lasterketak ziklo-krosa ziren, baina ibili izan da errepidean ere. Arantzazukoan zortzigarren gelditu zen. Orduko kontakizunak dakartza gogora.

### Transkripzioa

- Eta Sabadelleko eta Luxenburgoko karrerak zer zien karreteran edo ziklo-krosa?
- Ziklo-krosa, ziklo-krosa.
- Osea, zu beti bibli izan zara ziklo-krosian?
- Karreteran be bai e! karretera hemen herri danetan atarata dauket, Eskoitzan, Aretxabaltan... Mondrauen...
- Arantzazukoa be esan dozu?
- Arantzazun zortzigarrena bai, akordetan naz. Arantzazun, orduen ni profesionalak korriduten euen Robick eta honek Rondeau-ta, ba onenak etorte zirien eta nik urten nau akordetan naz, Arantzazun behien urteeran, urteeran igoteko han behien, jausi gintzen mordua, batan batek errobedie-edo ikutu ta... Joe gero han Txopekuen goruntz jun bihar, Txopekure joaten naz tiro batzuk botaten, beti akordetan naz, Txope pareko ha ermittatxo bat euan, han parien beti akordetan naz. Mekauen, jentie hantxe pasetan pasetan pasetan pasetan, hartzen hartzen hartzen ta aurreraka ta aurrera baiña han galdu euen, entre jausi ta hor bestiek badakitzu aldatzien llanuen izen ezkerro ba "ra" sartzen zara baiña aldatzien ezin leike. Bai bai. Arantzazun allagau hara goiko, Miliku, zer da? Atzenengua? Tabernia? Han ez zan bukatu, goratxuau.
- Arantzazun bertan? Lehelengo dau Milikua, gero goixen Sindika.
- Sindika! Sindikan be ez zan akabetan e, goratxuau igo ta han bide bat-edo badau ba? Bai. Hantxe gaiñien akabetan zan orduen. Bai.
- Errepia akabaitten dan lekuan.
- Bai, bai.
- Osake Sindika gaiñian.

### 5.18. Gasteizko San Antonio zirkuitua

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Gasteizen San Antonio zirkuitua egiten zen, zelakoa zen kontatzen du. eskolara joan-etorrian gogortu zituen hankak, baina bestela ere entrenatzera joaten zelan dio.

### Transkripzioa

- Bitorixan zirkuito eitten zan lehenau, San Antonio. Zirkuito bat, onak Oscar Elgezabal-eta, ez dakitt ezauketan jatzun, (...) onena Durangokue zan ta han zirkuituen azkenengue fuera, azkenengue fuera, azkenengue fuera, azkenengue fuera, bigarren inda nau. Atzeneko bueltan danak fuera, gero ta gutxiau, gero ta gutxiau, azkenien bi geraketan zarenien ba lehelengo edo bigarren ein bihar, ta bigarren inda nau. Hantxe.
- Nok irabazi otsun?
- Oscar Elgezabal horrek, Durangoko horrek. (...) kristona. Txapamutikote zaharra.
- Ta hori soldau ziñala edo...?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Aurrerau, aurrerau.

- Osake orduen eskola bidian hankak gogortu ta...  
- Exakto. Hemetik Bergarara egunero fan ta etorri. Ba entrenau, gero eitten nau e. Gero eitten nauen igual askotan libre dauketenien hemendik fan, Bitorixara fan eta zeretik bueltan, Alsasuatik bueltan edo ba Beasain aldetik hortik hona; edo, bestekaldera, Urkiola igo, bajatu zeretik-edo.

### 5.19. Marindarren arteko elkartasuna

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Elorza, Eustakio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-055/013
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:29:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Trenez joaten ziren herrietako jaietara: Santamasetara Arrasaten, Bazkoetan Bergarara... Bergaran Eskoriatzako Marin auzoko seme bat zegoen aguazil, baita marindar gehiago Bergaran lanean ere. Marindarrak beti izan direla "independiente" samarrak dio Eustakiok. Oñatira bizikletaz joaten zen Eustakio.

### Transkripzioa

- Zuek trenien ibiltten ziñain?  
- Batzuetan bai. Geu gaztiak gitzanien Santo Tomaseta Mondrauerako eta ferixa, jaixetan, patronaletan tren espeziala egoten zan, eta orduentxe.  
- Zuek hemendik orduen Santo Tomaseta fateko ohitturia bazeukatzuein.  
- Bai.  
- Eta Bergara aldera-eta?  
- Baita Bergarara be, baiña Bergarara nagusitxo egindakuen, nagusituau.  
- Eta San Prudentzioko jaittan eta geraketan ziñain-edo?  
- San Prudentzion ez.  
- Pazkuatan Bergarara.  
- Pazkuetan Bergarara. Baten akordetan naz Bergarara fan gitza hemendik kuadrillatxo bat. Eta txikito batzuk edanda eta ondo, eta Bergaran euen aguazil bat Maringua.  
- Maringua? Hemengua.  
- Bai, harek ezaguketan gindduen, geu apur bat rebelde gabitzen eta, gau guztian geure atzian ibilli zan ha, aguazilla.  
- Zuek zainketan?  
- Gu harrapatia gura gindduan.  
- Maringua e?  
- Bai.  
- Eta Maringo gizona Bergarako aguazil?  
- Bergaran hau aguazil, bai. Bauken ardau kolore bat bauken.  
- Zela euen izena horrek?  
- Ez dakit, ez naz akordetan. Banekixan baiña ez naiz akordetan.  
- Eta bere baserrixa Maringua?  
- Ez, hainbeste urte dira.  
- Bai, baiña Marinddik Bergarara aguazil...  
- Bergaran aguazil. Maringo jentie gehixau lanien baebillen Bergaran.

- Baiña orduan garai hartan hemen be nehikua lan egongo zan ba, ezta?

- Bai baiña ez dakit ba nik, marintarrak betik izan dira independente samarrak eta.

- A, bai? Bergarara fatia gurago Eskoriatzan geraketia baiño?

- Horreik domeketan be, berrogeta hamar urteko mutil zaharra eta hemeretzi urteko mutil gaztie danak kuadrillan ibiltzen ziren. Lider bat aukien eta danak haraxe. Eta, "datorren domekan Gatzaga gaiñera fan bihar jou", eta faten ziren Gatzaga gaiñera; eta "hurrengo domekan be hona fan bihar jou", Bergarara faten ziren, "Bergarara fan bihar jou" eta halaxe danak Bergarara. Danak kuadrillan, e?

- Alkartuta orduen.

- Bai, bai, zaharrak eta gaztiak, danak kuadrillan.

- Eta orduen ferixetara Santomas kenduta, Santa Lutziara-eta ez ziñain faten?

- Ez, Zumarraga eta urrin egozen hareik.

- Oñati aldera eta fateko ohitturarik?

- Oñati bizikletan, domeka atsaldetan. Guk Oñatin bageuken hor erdi-pariente batzuk, Klara Arkauz eukan berak izena, gero laba bi auzen Arantzazun fraide, bata Patxi enda Inazio.

- Arantzazura faten ziñain?

- Baita, bai.

- Bizikletan?

- Bizikletan bai, oiñez. Goittik behera bizikletan baiña.

- Lehen gaiñera erripak haundixauak izango ziran oinguak baiño, ezta?

- Bai, baiña Oñatira sarri, sarri-edo, uda partien ta domeka batian ez eta hurrenguan bai, bizikletia domeka baten anaiak eukitten aben eta bestien, domeka baten neuk.

- Eta anaiak antzerako rekorriduak itten zittuan?

- Beste kuadrilla batekue zan eta. Bai, bai, antzera.

- Leheningo motorra edo leheningo kotxia noiz euki zeben?

- "El año cincuenta y seis, edo siete"-edo.

## 5.20. Familia musikaria

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/008
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Beraien etxean zituzten soinu-jotzaileak ere, ez zuten ezetarikorik falta etxean. Inguruko jaietara-eta joaten ziren bai bere etxeakoak eta inguruetaakoak ere. Bere nebak eta gizonak ere tronpeta jotzen zuten gerra ostean.

### Transkripzioa

-Jolasetik aparte dantzak eta erromeixak eta.

-Bueno! Hori geure aurrian eitten zan.

-Zuek dana zeukatzen etxian, eskolia, dantzia, tabernia.

-Soinujotzailiak danak gurian, neu ez, neskak be bai, monjia be bai;

kordeona euken monjiak be.  
 -Mojia korneona juten eben?  
 -Monja egonda gero erositta. Ta beste aitzia, ondio Atxabaletan bizi da, eta horrek oin be pianillua ta joteittu. Neu torpiena.  
 -Osea ke zuek familixakuak alaiketean zeuen giruoi. Domekero juten zeuen edo?  
 -Ez, juten zien Angiozarko Itxua, be juten zan hara soiñua juten hola jaialdixetan, hori elegantia zan da. Eta horren anaia be bai, Julian. Da Angiozargua beste bat; Angiozargua zela zan?  
 -Baiña haik etorriko zien aparte.  
 -Bai, jaixetan. Itxua jai apartetan baiña bestiak jaiero egoten zan han. Eta gero juten zeuben gure anaiak inbaliduak eta nere gizonak juten zeban tronpetia. Eta hori gero, gerra ostian da.  
 -Gerra ostian?  
 -Bueno, gerra ostian be bai, horrek bestiok be bai. Eta hau hemengua...  
 -Urki?  
 -Urki be bai. Bueno, han zenbat kordeonista! Bueno!

## 5.21. Marulandako erromeria

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/009
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:13:24. **Bukatu**: 00:14:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Sasoi hartan jendea bizikletan zebilenez inguruetako jendea hurbiltzen zen Marulandako erromeriara, baita Arrasatetik eta Oñatitik ere. Errepidearen erdian egiten zen erromeria.

### Transkripzioa

-Marulandako jentia bakarrik egoten zan ala Eskoriatzakuak be bai?  
 -Keba! Bizikletan ibiltten zan orduan jentia ta. Mondrauetik be bai faten zien.  
 -Maulandako erromeixara?  
 -Erromeixara, bai. Bueno!, han erromeixia eitten zan. Eta zeretik, Golibar dana, eta Eskoritzatik be bai. Mondrauetik eta be... , ezta. Baiña Oiñatittik be bai. Oñatikua, ezautukozu igual. Zela jaukak izena, apellidua, Karmelen laguna, Eba, Eban aitta be faten zuan, berorrek zenbat bider esaten daben hara zelan faten zan.  
 -Oñatitik oinez etorriko zien gaiñera?  
 -Bizikletan, orduan bizikletan ibiltten zan.  
 -Marulandako erromeixia famosua orduan.  
 -Honbre! Hantxe auen. Hantxe kamiñuan eitten zan, e. Kamiñuan eta hantxe daon plazuelatxuan da kamiñuan.

## 6. Euskara

### 6.1. San Elias ermita eta haren ingurua

- **Hizlaria(k)**: Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-002/004
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:07:02. **Bukatu**: 00:08:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: San Elias ermita. Fraideak diru-batzen... Toponimia, ingurua. Lehen oinez ibiltzen ziren batera eta bestera.

#### Transkripzioa

- Jaturabek-eta esistiduten dau oin be?
- Bai.
- Ha ermittie-ta haintxe ete dau...?
- Bai, bai. Ha ermittie [...] dauena? San Elias?
- Bai, haxe.
- Bai, han dao. Bai, bai, bai.
- Baiña ez da... Lehenao etorten zan hona batzera [...], bat, San Elias jarten auen.
- Ta hango Ama birjiñekua zera etorten zan batzen? Arantzazuko fraillen bat etorriko zan.
- Diru-batzen edo?
- Ez, garixe edo...
- A! Bueno, bai, bai...
- [...] ordutik behin edo behin egonda nao han, pasauta nao handik. Ta gero, noizbaitten leidu dot zerbait, baiña han ez da biziko oin iñobe.
- Ez, ez ,ez. Ha, bueno...
- Lehen han andra altu-altu bat, alta-alta bat, flaka bat etorten zan, nik uste dot, batzera.
- Bai, Arantzazura, mendixek zera; Aozar(a)tzatik zerera. Zela dia hor goiko etxiok?
- Urrexola.
- Urrexola. Urrexolatik Jaturabera edo [...]...
- [...] ha auzue bistan dao?
- Bai, bai, bai. Gure etxetik pare-parien dao auzue. Bai.
- Hemendik Arantzazura oiñez fateko [...tatik]...
- Han igoten gauen Urrexolara gaiñera, ta gero han trabes-trabes faten gitzen.
- Bide-sailla, e!
- Bueno...
- Ba, Urrexolatik oin esan dozun lekura, handik gora Arantzazura, oiñez. Oiñez. Bai. Oiñez ibiltten zan... Oiñez... Bueno! Nun ibiliko zan, ba?

## 6.2. Herriko pertsonai ezagunak

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Barbara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Segura, Ainhoa
- **Erref:** ESK-007/004
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Euskara » Tratamenduak » Berorika  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Oso auto gutxi. Don Jesus medikuak motorra zuen. Mediku, irakasle eta abadeei berorika egiten zitzaien. Herriko pertsonai garrantzitsuak.

### Transkripzioa

<p>- Orduen, medikuek-eta be ez zaukien automobilik. Ez? Medikue-ta be oi&ntilde;ez? - Medikuek be oi&ntilde;ez&hellip; Motorraz akordetan naz ni, Don Jesusek motorra euen. Orduen lehelengokuek motorrak eukiko euen. - Motorra euen? - Motorra, bai. Akordetan naz ni don Jesus motorrien etortzen zana. Bai. - Orduen medikue ta abadie ta dana &ldquo;don&rdquo; izeten zien, ezta? - Bai, bai, abadie eta medikue &ldquo;don&rdquo;. - Eta maistrue edo maistrue? - Bai, haik be &ldquo;don&rdquo;. &ldquo;Do&ntilde;a Petrita&rdquo; edo &ldquo;Do&ntilde;a Maria&rdquo; edo &ldquo;Do&ntilde;a los que sea&rdquo;, &ldquo;do&ntilde;a&rdquo; edo &ldquo;don&rdquo;. Lehen &ldquo;don&rdquo; ifintten jakuen. Bai. - Eta abadie be &ldquo;beroi&rdquo; esaten jakon? - &ldquo;Beroi&rdquo;, abadie &ldquo;beroi&rdquo;. - Bai, hori errespetuzkua izengo zan, ezta?</p>

## 6.3. Abadeari berorika

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/034
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:51:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Euskara » Tratamenduak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena:** Abadeari berorika egiten zitzaion.

### Transkripzioa

- Orduan zela tratatzen jakuen abadie? Berori-edo egitten jakuen?  
- Berori, berori betik, bai, bai, bai. Berori. Joe, abariai berori.  
- Zuk monagillo moduan berori...  
- Bai, bai, bai. Eta zaharrak be bai. Berori abariai. Gaztie izan arren, gaztie igual baiña, berori. Holaxe zien gauzak-eta.

#### 6.4. Hika edo zuka nori egiten zioten

- **Hizlaria(k):** Lezeta Errasti, Maria; Romaratezabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-015/001
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Euskara » Tratamenduak  
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Euskararen erabilera: hika nori egiten dioten. Ohituraren arabera, batzuei hika eta beste batzuei zuka. Hika egitea oso gauza polita dela uste dute. Zuka, konfiantza gutxiago dutenekin egiten dute.

##### Transkripzioa

- Guk itten dou “hi” konfiantza haundixa [daukunai], gaiñetikuei ez. Etxien be nik semiei betik hi, eta zera be, ba... alabiai, en kanbio, [alabiai] “zu”. Ta anai-arrebok be beti “hi” bata bestiei. Ez dakit, kostunbrie holaxe.

- Oso-oso politta.

- Danien, ezta? Aizta batekin itten dot “hi” ta bestiekin “zu”.

- Ikusi?

- Bai.

- Zela ohittute...

- Kostunbria.

- Hori da, zelan...

- Zela kostunbretan dan da dana.

- Dana izeten da bai. Holaxe. En kanbio, nik denpora baten... Ama... geldittu nitzen ama barik zazpi urteaz eta aittaz, aittak niri betik “zu” ta beste lau anai-arreba gitzen ta harei “hi”. Ta neuri, en kanbio, gaztiena nitzen ta beti “zu”. Ez dakit ze... hori zela ohittuten zarien edo...

- Bai, ohittura kontuak.

- Bai, ohitturak. En kanbio, Mariñen lagunek gaukenien nik lagunei danai betik “hi”. Bata bestiei “Etorri... ez hator?”. Oin, zahartxuauek bazien harei ez, baiñe geure edadekuei.

- Ez, hori gaur egunian...

- Ta neri hori pentsatzen jaten, neuri “zu” ein ezkerro, oin ya akostunbreu naz, baiña han baserrixan danak “hi”, “hi”, ta gero “zu” eitten euenak, ba, falta de konfiantza edo pents... pentsau eitten jaten. Ez dakit.

- Ta, gaiñera, zeuendako be belarrira egingo dau segiduan, ez? Zeiñi “hi” ta zeiñi “zu”...

- Bai, bai.

#### 6.5. Hitanoaren erabilera senideekin

- **Hizlaria(k):** Lezeta Errasti, Maria; Romaratezabala Badiola, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-015/002
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**  
Euskara » Tratamenduak  
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Hitanoaren erabilera etxean. Seme-alaben artean ere desberdintasunak; batzuei hika eta beste batzuei zuka.

### Transkripzioa

- Ba, hori, gaur egunian hori asko galdu dala eta, biharbada, mutillen artian gehixao [...] da...
- Mutillen artian dana entzuten da hori, "hi".
- Bai? Oin...
- [...] ? Bueno!
- Bai, gure edadekuk bai.
- Bestiek ez?
- [Gaiñetikuen] ez.
- Ta gaztien artian, biharbada, be ba...
- Zure seme anai bixek "hi" itten jone?
- Ez, "zu".
- Ba, guriek be "zu".
- Bai. Ta mutil bixei nik hi itten [detsat] ta neskiei ez.
- Ikusi? Ta eurak...
- Ta lehengunien esan osten: "Zeatik ez dostazu niri erakutsi hi itten?", "Bueno, bueno".
- Nok? Jonek?
- Bai.
- Ba, erakutsi in bihar... Bai, bai. Baiña hori, ez? Nesken artian galduta edo...
- Ba hori ikesi, erakutsi in bihar dotsazue!
- Hori, ba! Zeuek erakutsi bihar dozue!
- Ezta? Bestela gu, ba, galduta geldittuko gaittun hamen!
- Onbre! Ya lo creo! Guk, behintzet, [geurie] aurrera!
- Geurie aurrera.

## 6.6. Amama eta amandrea

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-046/015
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:35:34. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera  
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Amandrea edo amama. Karmenen bilobak Karmeni 'amandria' esaten dio.

### Transkripzioa

- Ta zan ban ire amama. Oin amandrie esate jako a la...osea bueno oin amadrerik ez da existiduten. Oin "a la abuela" esate jako 'amama'. Ta lehen, nire denboran, bestaldera zan. Karo!
- Bai. Usteot nere aitta-amak be euren, euren aittajauna eta amandriari 'aittajauna' eta 'amandria' esaten jakuela.

- Esaten otsiela.
- Baiña nik ez dakit zegatik, guk 'amama' eta 'aittitta'.
- Klaro, ikusi? Bai oin desde luego hamen be holan hasi zien 'amama' "a la abuela". Eta gero gure euen, hartu izen bueltie lehengo moduen, lehengo moduen, baiña ya ba berandu klaro. Ya mutil bamos, ume askok ya ikesi euen 'amama' eta 'aitaita' eta ba halaxe segiduten da.
- Ba guk 'amama' eta aittitte', eta nere illobak be nere aitta-amei ba 'amama' eta 'aittitta'.
- Klaro, klaro, klaro. En kanbio horrek mutikotxuek niri 'amandria'. Esan ein neutsien e, jaixo aurretik: "bueno nik gurot amandria esatie mutikuek e?", "bai, amandrie?" esan eusten semiek, neure semiek. Ta nik: "bai", ta "a bueno ba, zeuk amandrie gure bozun". Eskoitzan asko daz 'amandriek' eta 'aittejaunak' esaten dotsienak e! oin 'abuela' asko "pues a lo de antes".
- Baiña oin baiña karo keba.
- Gatza da.
- Lehen, lehen, lehen edozein modutan lehen emakumiak umiak gaztetan eukitten zittuein.
- Bai.
- Oin ya amandrek ezautu ez askotan.
- Hori da, hori da.
- Hogeta hamar urtekin lehenengo umia badakotzu...
- Amamaik ya, osea "la bisabuela" askoz ez, ez, ez... egixe da hori, halaxe da.
- Lehen baserri-etxe baten euezen hiru belaunaldian kargakin.
- Bai, bai.

## 6.7. Eskolan erdaraz...bestela zigorra

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-051/004
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:06:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolak erdaraz jasotzen zituzten eta euskaraz egitearren zigortu egiten zituzten. Zigorrak azaltzen ditu.

### Transkripzioa

- Eskolak euskeraz ala erderaz?
- Erderaz (ibiltten) gitzen.
- Eta euskeraz egittiagatik kastigatzen ziñuen?
- Bai, halako bolatxo bat euen, euskeraz itten dauenari bata bestia (zainttu) ta emun da hola ibiltten gintzen.
- Eta gero bolatxua eukenak azkenian...
- Ba gero azkenengo geldiketan danak ba urteixeran ba gero "No hablar en vasco" hogeï bider edo zera eraitten oskuen; hurrengoko egunien kopixioi eruen biher izeten gutsen.
- Don Ismaelekin hori?
- Bai.
- Gerra aurretik kastigauta, e?
- Bai. Gerra aurretik be bai, bai. Gerra ezkeron enitzen ibili. Enitzen ibili.

## 7. Herria, azpiegitura

### 7.1. Trenbidea, lehenengo autoak noizkoak; bainuetxea eta ikastetxeak

- **Hizlaria(k)**: Ibabe Uribeetxebarria, Encarna; Lezeta Madinabeitia, Maximo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Beitia Sasiain, Ruben - Irizar Kortabarria, Maider - Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-002/006
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:10:59. **Bukatu**: 00:15:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Lehenengo autoak; nagusientzat berrikuntza handia. Dilijentziak ez zituzten ezagutu. Aberatsen garraioak. Trenbidea noiz egindakoa den. Bainuetxea. "Bolantea". Maristak. Rekadistak.

### Transkripzioa

- Lehenengue nobedadie izengo zan hemen, lehenengo kotxia, e?
- Amak akixen esaten: "Oñez? Zueik kotxien be ibiliko zare, kotxien be". Ta azkenien, hil zanien, bera be kotxien erutiek tokau jakon. Bai. Kotxien fan zan bera be. [...] kotxien fan zan, egualdi txarra euen hil zanien ta kotxien fan zan. Baiña ez euen ezautu hak kotxeik, ez auen ezautu. Ta berak esaten [eban]: "Ondion kotxien be igual ibiliko zare". Ta astue egoten zan etxien, baiña kotxia... Oin dana kotxiek!
- Zaldixekin ebalten zienak ezautu zittuein zuek? Zaldixekin ibiltten zien karro edo holako...?
- Dilijentziak edo...?
- Bai, dilijentziak edo lagunak ebalteko horreik, ez?
- Ez.
- Horreik ez zittuein ezautu...
- Klaro, nik [...] leidu dot, uste dot, "en mil novecientos catorce" edo ein zan hau trenau, hau trenbidiau —ointxe denpora asko ez dala leidu dot— eta, ba, ordurarte hemendik Gatzaga gaiñera faten zien holako kotxietan

edo; hemendik Gatzaga gaiñera.

- Bai, hor baeuen dilijentzia zerbitzuren bat baeuen...

- Bai, horixe.

- Bueno, hori lehenauko aberatsan zera izengo zan hori; aberatsen kotxiek-eta izengo zien.

- Bai, bai, bai. Baiñuetxera etorteko ta...

- Bai, baiñuetxera atorren jentie-ta ekarteko ta...

- Hemen, hemen bizi zienak be aberatsak zien lehenaukuek, gizon haundixek.

- Hemenguek? Bertakuek?

- Hemen [bizi...] Gaztañadui, gizon haundixek. [...] horrek izena, ta orduan [kamiño...] izena. Hemen aberatsak, gizon... gizon haundixek [...].

- Bai, nik zeoze leiduta badauket. Hemen...

- Klaro, gero [...]

- Jeneralak-eta, gizon haundixek, e!

- Hemen Landetako aittejaune ibiltten zan bolantie. Hemen bestek ez auken bolantie [hain txirrinka] haundixe, Maximo. Ta faten zan harekin Eskoitzara.

- Harek, harek Gaztañako... Harek Gaztañako aberatsak fango zin karruan igual mezetara, e?

- Bueno, Maximo, itxiozu horri.

- Bai, [horixe ez dakit], baiña behintzat hau...

- Eta ha Eskoitzako estaziñotik marianisteta´ faten zan. Pentsaizu zenbat hurrao euen Atxabaltako estaziñue, ezta? Baiña hori beroi, baiñuetxioi, zela Eskoitzako partekue dan, horrakotxe direziñue emongo euen. Ni akordetan naz —ez dakit astien behin edo hillien behin edo— ha zelan Landetako aittejaune hareaz bolantiaz [...] pasetan zan. Bergarako trenien hartzen zittuen gauzak...

- Bai, trenik be ez ta; artien trenik be ez ta ezebez ta...

- ... baiña ordureko bai. Nik... ni txikiñe nitzenien baeuen trena. Ta harek Eskoitzako... hori ... hori... oin [...] leidu dot] nik. Klaro, horra bialketan zittuen ta harek eruaten zittuen marianistetara ekipajiok. Bai. Baiña guk bestela ez dou ezautu. Klaro, zeaittik neu veintidoskue naz. Orduen, ni jaixo baiño sei bat urte lehenau-edo ein zan hau trenbidiau. Baiñe dakit aurrerao faten ziela hemendik Gatzagara jentie; auen hori... kaballuekin edo auen hori.

- Bai, baeuen bai.

- Ta gero beste bat Gatzagakue be faten zan. Ez naz akordetan zela zan.

- Bai, kotxerik-eta ez auen ta...

- Hemendik Elorrixora edo Durangora edo beste bat. Baiñe...

- Karrue, kotxerik-eta ez auen ta, karruekin.

- ... [han] errekadista moduen, ez dakitzu? Baiñe [Bilborako] ez zan egongo. Geruauko gauzak die horrek.

## 7.2. Hirigintza arloan herrian izan diren aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-012/004
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:05:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

- **Laburpena:** Dorleta auzoa noiz hasi zen handitzen; Olaeta auzoa. Hirigintza arloan eman diren aldaketak.

### Transkripzioa

- Oin, e, Dorleta [ezautzen] dauen auzua, hori hasiko zan gutxi gorabehera, 66an edo, ni soldaduskara etorri barri, hasi zien pixkat kooperatibak eñaz, eta etxiak, ba, [ehun ta] 36 piso. Herrixendako izan zan gorakada haundixa, jente asko, beste... errentan bizi zianak eta ezkontzeko asmotan ta zerak eta... asko... hortantxe sartu zan.
- Orduan, zuk ze esango zenduke, hor, Dorleta ta Olaetan eta, kanbixua ze etorri zan...?
- Dorletaz hasi zan gehixen. Hori... hogeta... Klaro, hogeta... hamarren bat urte edo gehixago.
- 60 edo 70 inguruan?
- Bai, 60 inguruan, bai. Olaeta ez, Olaeta bastante barrixagua da. Lehengo estaziño parerutz, han danak ortuak eta soruak zien.
- Asko hazi da herrixa, ez?
- E?
- Asko hazi dala herrixa.
- Honbre, asko, asko, benetan.

### 7.3. Umetako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** San Prudentzio ingurua nolakoa zen azaltzen du: eliza; "kamiñero-etxia"; taberna; tren-geltokia. Umetan geltokira joateko joera izaten zuten. Baserrietako umeak urrutiago bizi ziren eta sarritan etxean lagundu behar izaten zuten, ondorioz gutxiagotan joaten ziren eskolara.

### Transkripzioa

- Han San Prudentzio inguruan zeren etxia, eliza, eskolia... Zer zekazuen hor inguruan?
- Kamiñero-etxia, gero, zera, beste bat, e, tabernia euen, estankua eta tabernia: gure beziñuek zien hareik. Gero, e, oin Kruz Rojie dauena, hor auen zentrala, Union Cerrajerako zentral elektrikue, elektrizidadie. Han kanala-ta auen-ta. Han bizi zan matrimonio bat semeATEGAZ, da gero estaziñuan jefie-ta, guardagujia ta beste kaltzadoren bat ero bizi zien; eta beste matrimonio bat be bai, guardafrenua-ero zeren bat. Gero Oñatiko trena zela etorten zan San Prudentziora, da San Prudentzion, e, berutza eta gorutza doiazanak. Bitorixara juteko, Maltzaara juteko ero Donostiara juteko, Oñatitik San Prudentziora etortzen zien trenien, da han

transbordue eĩn, ta... San Prudentzio inportantie da, e!

- Bergarak orduan, sasoi baten, lau estaziño zekazen, ezta?

- Bai, bai.

- Eta bat San Prudentzio zan.

- Bai.

- Orduan hor jende asko ibiliko zan, batera eta bestera...

- Bai. Jentie ibiltten zan.

- Eta zeuek kontakturik eukitzen zenduen, estaziñora joateko ohitturarik edo?

- Bai, bai. Estaziñuan-ta ibiltten gitzen gu. Klaro, han lagun-eta be bageuken-ta. Neska ta mutil, estaziño inguruen asko. Guk estaziñokuekin-ta asko tratetan geuen, zela guk basarrik ez gauken... Ortue-ta baauken, ortue-ta baauken aittak-eta. Baiña beste gehixenak basarritarrak. Horreatik izeten zan, e... Gu asko gehixau juten giñen eskolara; guk sekula ez geuen faltetan eskolara, eta basarritarrak ba askotan fallo ein biher izeten auen, behixek zaindu biher zittuela, ero hau ein biher dauela ero bestie ein biher dauela. Urriñ zela bizi zien, atxakixan bat izan ezker, etorri barik geratu-ta...

#### 7.4. San Prudentzio ingurua

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
  - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak
  - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** San Prudentzioko erreka ingurua (ikus mapan). Erreka aberatsa zen; arrantzan egiten zuten bertan. Igeri egiten ere han ikasi zuten. Guardia zibila eta mikeleteak ibiltzen ziren erreka zaintzen.

#### Transkripzioa

- Eta hor inguruan erreka be badago, ez?

- Errekie? Errekie ona, aberatsa auen orduan. Peska asko egoten zan. San Prudentzion-ta, pesca asko egoten zan. Amorrañak eta barbuek eta loiñak, eta eskailluek be asko. Kangrejuek be bai... Oin bape ez dau: baiña orduen asko, asko, asko.

- Zeuek ohitturia eukitzen zenduen erreka joan eta...

- Bai, igeri be bai eitten geuen, igeri puxkat eitten geuen, bai.

- Bertan ikasi zenduen?

- Bai, bai, bai. Garbiketako be, ba igeri faten gitzenien, bestela dutxaik-eta ez auen-ta ba...

- Igerixan bertan, eta peskan eitten zenduen?

- Peskan? Bai, bai. Ni gaztie nitzen artien, baiña gustatzen jaten... bai, bai.

- Eta akordatzen jatzu zela egitten zenduen?

- Peskan? Peskan, e, botillekin be eitten gauen, eskailluek harrapatzeko botillekin. Botillak azen, e, batzuk behian ipurdixan hola gora zer bat eukitten auen, ezta? Eta ha apurtu erredondua, barruen ogixe ta kortxue

ipiñi, ta eskailluek han sartzen zienien, gero urten ez auen itten. Ha erdixen zela egoten zan salidie, han inguruen ibiltten zien, baiña ez auen urteten. Ta botillara han sartzen zienien, gero ha atara, kurioso-kurioso, ta eskailluek harrapo, ta bai. Eskaillue asko egoten zan, ta harrapetan gittuen.

- Eta botilliaren sistema hori zer zan? Eskaillutarako bakarrik.

- Bai. Hari ipurdixa apurtu ezkerok, beste ezetarako ez euen balixo izeten, eta eskailluak harrapatzeko, hiru-lau botilla.

- Barbuak-eta zela harrapatzen zenduezen?

- Barbuek guk ez gittuen harrapetan, gu artien gaztiek gitzen-ta, baiña baazen peskari oso onak, baazen, Barrenakuek-eta, Ubittakuek-eta, horreik peskari amorratuek zien-ta. Guardazibiliek ibiltten zien, mikeletiek be bai; peskan ikusi ezkerok, e...

- Orduan debekatuta zeuan, ala?

- Bai, bai, multie eukitten auen, ta jentie zain guardozibiliek datozen. Klaro, guardazibiliek orduen zela oiñez ibiltten zien, ba zain ipinita, guardazibililak etorri ezkerok, e, "Hi, bajatozak, bajatozak, guardazibilak jatozak!", eta gorde ein biher.

## 7.5. Otxandio gerra garaian

- **Hizlaria(k):** Padilla Maguregi, Mario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-016/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:05:18. **Bukatu:** 00:06:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Otxandioko bizimodua gerra aurretik; zenbat biztanle zeuden... Frontea bertan egon zen eta lantegi asko kanpora joan ziren.

### Transkripzioa

- Eta garai hortan Otxandixo zenbat biztanle izengo zien? Haundixa zan edo...?

- Ez, gerria [hasi] arte biztanle gehixao [eukezan] oin baiño. Gero bertan frentie zela jarri zan, ba, taillarrak-eta seguridadiaaaittik, segurtasunaaittik, [Bilbora eruan ebiezan, ... ta]. Ta gero taillar... gero gerra-ostien zelan...

- Gero lanik ez...

- ... tokatu jakun sekretarixoa bat, ba, zerekue, "del regimen", ba, harek ez zeban... iberduero ointxe honaxe etorri baiño lehentxuao [hartu... honi], iberdueroi. Bertako hemengo Bolibarko modoko [... sartu...] holako zentral txikitxuek. Ta udan... neguen ur gehixao eukitten euenien ta, ba! Neguen, ba, egun guztixen egoten zan argixe, baiña udan gabeko hamarretarako... ez euen argirik; ta egunez be holako ipurtargixe [...] moduko argitxo bat.

- Horrekin ezer gutxi [...], ez?

- Ez, ez. Holaixe zan orduko kontuek.

## 7.6. Garai bateko Bolibar auzoaren argazkia

- **Hizlaria(k):** Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Erref:** ESK-028/004
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Ume dezente ziren auzoan. Bera jaio zen urtean beste bost ume jaio ziren eta hurrengo urtean hamabi bat. Bolibarrek 32 etxe zituen, sakristia eta abade-etxea. Auzo zabala, oso paraje (leku) ederra zen pagadiz eta gaztainadiz inguratuta. Irailean, San Miguel baino lehenago, ikatzak agertzen ziren auzoko bazter guztietan.

### Transkripzioa

- Zuek ume asko zazen han Bolibarren zu txikiña ziñanian?
- Gu bastante, gu kintuek Bolibarren izen giñen bost bat edo. Bolibarren egoten zien, gure hurrengokuek izen zien, dozena bat inguru izen zien. Bolibarrek auken etxiek hogeta hamabi, sakristaue eta abaria. Gero batzuk galdu ein die, gero beste batzuk barrixak be ein die.
- Asko die hogeta hamabi.
- Bolibar bera da auzue da oso zabala. Bestela Bolibarrek hola pagodixek eta begitute, oiñ asko piñu sartuta dagoz, lehenao gaztaiñixek be, gaztaiñak be asko azen. Eta zan oso... parajie, ez dakit nik hola mendire eta fotografixak atarateko ta oso politta izeten zan. Eta setienbrien-eta iketzak baztar guztietan, San Migelak aurretuxuen, san Migelak hogeta beratzixan zela izeten zien, orduko ia bukatzie gure izeten zan.

## 7.7. Gasteizerako joera; plazara erostera

- **Hizlaria(k):** Uribe Urrutia, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-029/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Baserrria » Baserrriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Gatzagako denda eta tabernak; ez zegoen denda edo taberna asko. Baserrirako generoa Gasteiztik ekartzen zuten. Autobusez joaten ziren Gasteizera; "Bergaresa" autobusak. Ostegunetan azoka egoten zen Gasteizen eta orduantxe joaten ziren erostera. Trena ere bazegoen Gasteizera; "Gure Ametsa"n zuen geltokia. Gasteizko plazaren inguruko kontuak. Trena nondik zehar joaten zen Eskoriatzatik Gasteizera; geltokiak non zituen. Egunean 4 aldiz edo pasatzen zen.

## Transkripzioa

- Akordatzen jatzu zeu umia ziñala Gatzagan zer denda edo taberna zeren?
- [Pedrofanena...] Ez euen taberna asko. Eta ez auen... Rafena, Rafaelena, Rafe.
- Zuek zela esaten zotsazuen, Rafena?
- Bai. Eta ez auen, taberna asko ez auen. Ez auen, taberna asko ez auen.
- Eta dendarik?
- Bai, Marixena, Estakua. Estankua, Marixena. Bestelan ez auen, ez auen.
- Eta eguneroko konprak han egitten zian?
- Bai. Eguneroko konprak hantxe, bestela Bitorixatik ekarten gauen, basarrira Bitorixatik. Bitorixara faten gintzen konprak eitten.
- Orduan jokera gehixao Bitorixara joateko Eskoritzara baiño.
- Bai, bai. Eskoritzara baiño Bitorixara. Handik ekarten gittuen okela-ta...
- Eta hara zela joaten ziñaten?
- Autobusa auen. Autobusez. Eta bestelan ba kotxeik ez zan egoten, ba, autobusian faten zan, autobusez.
- Autobusa zer zan?
- Vergaresa, ointxe pasetan dana, Vergaresa. Gure Ametsa-n geraketan zan.
- Eta jente asko juntatatzen ziñazien Bitorixara joateko?
- Bai, Bitorixara fan... Jente asko ez.
- Jente guztiak eukiko zeban jokera berdiña...
- Bai, bai. Hanguak ba hoixe, eguenetan hara fan.
- Zergatik eguenetan?
- Plazia egoten zan eguenetan. Plaziaz ba faten zan plazara. Berdurak eta bakitzu.
- Zeuek saltzera?
- Guk ez. Baiña jentiek saltzen auen orduan be, gaztaie aukenak-eta saltzen auen. Baiña guk ez. Handik ekarri. Oñ konparaziño batera gu faten gan moduen Mondrauera konpra onenak eitten, ba Bitorixara fan eta hantxe, haraxe. Handik Bitorixara auen jokerie, e. Trena auen, trena be bai, trena.
- Baiña zuek autobusez?
- Bai, autobusian. Ero trenien, trenien be asko. Trenien be bai, trenien faten gintzen. Trena geraketan zan hantxe, Gure Ametzan, eta trenien.
- Eta zelan gogoratzen dozu Bitorixa? Plazia esan dozu izaten zala eguenetan. Zer izaten zan, plaza ederra?
- Edarra. Orduen be edarra egoten zan.
- Berdura-plazia?
- Berdura-plazie, bai, berdura-plazie.
- Animaliarik eta ez?
- Ez.
- Landarak-eta?
- Landarak-eta bai. Porrue, azia, horrek landarok bai. Baiña bestela...
- Orduan batzuk saltzera joaten zien, baiña bestela erostera. Eta aparteko gauzak be han erosiko ziren, dendetan?
- Bai, erropa-eta. Zer dana Bitorixan gauken. Bitorixan bai, Bitorixan.
- Esan dozu trena be egoten zala. Orduan trena inportantia zan, ezta?
- Bai. Hemetik bueltaka-bueltaka, Eskoritzatik faten zan bueltaka, Mariñen hartzen auen jentia, Mariño [...], eta handik Gatzara, eta ondo. Landan be bai, Landan be jentia hartzen auen, eta danok. Trena be egoten zan, eztatik, hiru bat ero lau bat bai. Goxien beratzietan, gero atzera... , lau bat bider ero bai.
- Eta orduan paradia nun zekan?
- Gure Ametsa-n, [Erietzan, Erietzan], Gure Ametsa-n.

## 7.8. Baserri ingurua nolakoa zen; bideak

- **Hizlaria(k):** Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-032/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Baserri ingurua dezente aldatu da. Lehenago bi bizitzakoa zen; duela gutxi kendu dute etxeetako bat. Ingurua nolakoa zen; bideak. Zer landatzen zuten soroetan.

### Transkripzioa

- Zeure akorduan zeure basarrixa edo basarri ingurua zelakua zan? Asko aldatu da edo...?

- Bai, bastante aldatu da. Etxie be, etxie be bi bizitza zan eta oin aldamenekue jausten edo euen ta, ba, ha kendu ein dotsie ta bakarrik geratu da etxie. Bai.

- Eta ingurua?

- Bai, berdin antxien dau.

- Bai?

- Bai. Lehen automobilik-eta ez zala allegetan, ez zalako [...]. Oin, oin danera allegetan da ta, klaro...

- Bestela paisajia, hemen Bolibarko...

- Paisajia? Oso politte.

- Bai, paraje oso ederra. Baiña lehenau bihar bada, ez dakit, ez? Labratzeko...

- Landute! Lehenau dana landute ta oin dana zelaixe.

- Berde...

- Oin berdie, berdie dana. Bai.

- Ta lehen, orduan, ze zian, solo haundixak?

- A! bai, bai, dana landute egoten zan! Artue, babie, garixe, erremolatzak, patatak, babak... horrek danok.

## 7.9. Ura eta argindarra

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-045/011
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Gero Atxorrotz azpitik ekarri zuten ura, galbanizatutako hodietan. Bolibarko Olazartik ekarrita zuten argindarra oso eskasa zen. Marulandan bertako zentraletik hartzen zuten argindarra. "Beroa"-koek tailertxo bat zuten zentral horretan.

### Transkripzioa

- Suok be bai, hau hirugarren ekonomikia daukogu hemen. Gero, han Atxorrotzen badau ba, Atxorrotxe Aitxekurtzeko han goixen?
- Ez dot nik ezaguketan.
- (...)
- Haundixa da, lehengo gerran be oso preziadua izaten zan hori. Atxabaletakua Santutxotik oinguen, oinguen be 'da' hor, eta 'da' hemen eta 'da', baiña ha zutik Aitxekurtzeko, bai. Handixek azpittik ekarritta dakogu, lehenauko etxetik oin ura ipiñitta. Bueno, galbanizaue, pentsaizu.
- Tubua.
- Bai. Gero hasi zan hor zuluak, urtiak fanda, hemen be bai zuluak eta hola. Kristaua! Handik urte batzutara pasau ziren eta kendu hareik eta hona [...] Nungua da?
- (Alabie): plastikozko bat sartu auen, plastikozkuaz ipiñi zan.
- Untzillako batek, bonbiaz ekarri euen, ensegida e? Ez dakit zenbat denporan, horrek jakingo dau.
- Argindarra noiz sartu zeuen etxien?
- Bolibartik txiki-txikiña, motza, oso oso argi motza. Baiña gero ba badakitzu, kanbixau zan argixori.
- Bolibartik ekarten zeuen argixa?
- Lehen bai, Olazar esaten utsien.
- Presaren bat edo dago?
- Olazar esaten utsien, hango ura uste dot hartuta daukiela honako argirako, Bolibarren.
- Zuk zenbat urte zeukatzun argixa ekarri zanien?
- Argixe? Motela baiñe ni hona etorri nitzanien hemen bauen.
- Beuen ya? Eta Marulandan bazeukatzuein? Marulandan argirik bai?
- Bai, Marulandan egongo ez zan ba, Marulandan? Bertan zentrala ta! Behien zentrala.
- (Alaba): Zentrala eta gero Beroako lana etxepeien aukien eurok taillertxo bat; bueno eurok, ugezabak han aukein taillertxo bat, han azpiban, etxepeien.
- Zentralaren onduen?
- (Alaba): klaro, zentrala, han bertan. Eurok bizi ziren goixen.

### 7.10. Denetariko denda etxean

- **Hizlaria(k)**: Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-046/009
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:17:53. **Bukatu**: 00:21:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Lanbideak » Negozioak, dendak
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Aitak trenaz ekartzen zuen fruta saltzen zuten dendan. Oinetakoak ere saltzen zituzten. Trena kendu zutenean, autobusez eramaten zituzten arrautzak Donostiara eta Gasteizera. Hasieran kanpora ere saltzen zuten; gero dendan bakarrik. Arrautzak eta oilaskoak saltzen zituzten. Oilaskoak bizirik saltzen zituzten.

### Transkripzioa

- Lehelengo-lehelengo barkakada bat sagar. Hurrengoko astien ba zela ondo saldu zien, hurrengoko astien ba ya bi edo hiru ta bai, ta gero naranjak eta ba de todo.
- Ta horrek danak ekarten zittun aittak Bittorixatik?
- Aittak trenien bai, bai, bai, bai, trenien. Eta pentsue-eta be trenien orduen, klaro! Ta hamen guardaujie esaten jakona, ba klaro de tren a tren zela bi ordu euken ba hola pentsu asko allegetan bazan berak karro haundixenak hartu zittuen eta ekarten zittuen eskaperaiño.
- Eskapie zereri esate zattue?
- "Al portal".
- Portal eskapia e?
- Zuek Oñatin zela esaten dotsazue?
- Bebarrua-edo.
- Ez, ez, hamen eskapie.
- Normalien bebarrua portalari.
- Ya ya ya, ahí esta, ikusi! Ta holaxe gure bizimodue. Ta gure dendan saldu da danetik; zapatak be bai, "de todo se ha vendido".
- Eta orduen noiz arte noiz arte egon ziñain arrautzak Donostira eta Gasteizera eruten?
- Donostiara eta Gasteizera ba trenien gero ya autobusin aitte ibili zan, autobusien be eruten zittuen batzuk, eta beste batzuk trenera ya "en el año cuarenta" ya hace cuarenta años o berrogeta bat pasau die ointxe kendu zala trena?
- Ez dakot goguan.
- Ez dakit berrogeta bat edo berrogeta bi pasauko bazien.
- Osake hirurogeita zortzixan edo hola kenduko zan, ni mutikua, hamar urte. Ni mutikotan Oñatin be baten trena.
- Oñe ez dau ya claro, San Prudentziotik. Ga haixe kendu zanien hemengue be bai. Porke San Prudentziokue orduen kendu zan ta San Prudentziotik faten zan Oñatira, klaro! Ta gure aitte bueno, ba, ba, ba, ze esango dotsut? Oin hogeta hamar urte izengo die ya Bittorixeri itzi tzela. Posiblemente, gero ba dendan.
- Urte asko...
- Bueno urte askuen aitte fan zan. Buf! "¡ya lo creo, ya lo creo! ".
- Horregatik pollero famosua.
- Karo, klaro. Hamen inguruan ba nik ointxe telefonotik deketan dotenien "Karmen Polleruena", en kanbio "Pollera" esati etxata gustetan. Euskeldunek batek bez baiña, honek erdeldunok "La pollera" askotan e!. "A mi eso no me gusta a mi dime 'la de Pollero', 'Pollero' nada".
- Eske 'Polleruena' da
- Bai, bai, bai-
- Zure aitta zan 'Pollerue'.
- Bai, bai, bai gure aitte, zamat ollaskoa eruten eben Bittorixera be astien-astien jaulatan.
- A, osea arrautzak bakarrik ez, okelie be saltzen zezen.
- Bai ollaskuek be bai, ollaskuek. Klaro, klaro.
- Ai karo industria bat euken hor...
- Bai, bai, "en resumidas cuentas" haxe zan.
- Eta esan dozu orduen ya Bittorixakua eta Donostiakua itzi zezenien ya arrautzak eta ollaskuak-eta danak dendatik saltzen zittuein.
- Dandan, bai, bai. Ta ollaskuek be bai. Ta bueno jentie, bueno! Klaro, bizirik gero eurak hiltzen zittuen. Oin gaur ez litzake salduko.
- Ametidu ez.
- Ametidu? Gaztiek ollasko bat etxien hiltzen ez doiez. Ba lumatute ba...

- Karo, horregatik igual ez dabe ametitten bizirik saltzen.
- Ba "sanidad pues en primer lugar" ez leukie, klaro, klaro.

### 7.11. Kale-baserri ugari Eskoriatzan

- **Hizlaria(k)**: Barandiaran Elorza, Eustakio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-055/012
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:23:34. **Bukatu**: 00:26:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Bernabena etxean komuna, dutxa eta arropa garbitzeko tokiak gela batean zeuden. Eskoriatzako San Juan kaleko etxe guztiak kale-baserriak ziren. Txurrena, Antxitxena, Sorautz, Patxiko Paulona, Ibarraundi, Klotilderena eta Galartzetxe izenak gogoratzen ditu. Bere denboran Eskoriatzan izan diren aldaketa batzuk azaltzen dizkigu.

#### Transkripzioa

- Etxien amak erropak eta etxien garbiketan zittun-edo?
- Bai.
- Etxe barruan, sukaldien garbiketan zittuan?
- Ez, hola sukaldetik aparte eukan beste holako habitaziño txiki bat, fregaderu, komuna-ta.
- A, komuna eta dana zeukatzuein e?
- Bai.
- Bonbaduna?
- Bai, eta dutxie.
- Dutxia be bai?
- Dutxia, baiña dutxia bakarrik, bai.
- Zuk dutxia umetatik ezagutu dozu?
- Bai.
- Beste zenbat kale-baserri egozen zu gaztia ziñanien?
- Eskoriatzan? Hemen San Juan kalien danak, etxe danak.
- Danak, baiña ganauakin danak?
- Bai. Hemen hor frentekuan hor Txurrena esaten otsien, oin be Txurrena esaten dotsie, horrek baeukien. Han aldamenekuek be...
- Esan izenak.
- Bat Txurrena, bestia Felix Ubirena, bestie Arbena, Antxitxena, Sorautz, eta beste bat plaza onduen Patxiko Paulona.
- Zela, Patxi...?
- Patxiko Paulo. Patxiko Pauluena, bai.
- Hori etxe baten izena zan?
- Bai, honeik Patxiko Paulonak. Hor dako famelixia, Karmen Patxiko Paulona.
- Oseake ondiok horreik izen zaharrok gorde itten dira.
- Bai, danok horreik ondion.
- Beste izenik goguen dakotzu?
- Patxiko Paulona, gero Ibarraundi, oin museue dakona, han be bizitza biko etxia da, bixetan. Gero beste bat Okiñena be bai goratxuau; Galartzetxe,

hemen danak kale inguruen.

- Eskoriatza asko aldatu da zure akorduan?

- Aldatuko ez zan ba, bueno!

- Lehen zer euen? Burdibide bat eta plazia eta...

- Nik neuk burdibidia asfaltauta betik ezagutu dot baiña.

- A bai, e?

- Bai, baiña plazia...

- Plazia eta danak ziren hola etxe sueltuak edo kale-etxiak baiña baserrixak.

- Hemen kale inguruen ointxe antzera kale inguruen, barriren batzuk badauz baiña. Baiña behin parrokiatik gora fan ezker, gure etxia bakar-bakarrrik eguen lehenau. Gero aldamenien beste bat auen, Plus Ultra esaten utsen, Plus Ultrakue.

- Plus Ultra?

- Bai. Eta gero goratxuauan dago beste bat, Katapazena esaten otsen.

- Katapazena?

- Bai, bera ferrobarririxua katapaza zan eta Katapazena. Gero goratxuau beste bat, Anjelena. Etxe sueltuek.

- Eta horreik etxe horreik ondiok be hor dagoz edo...?

- Bai.

## 7.12. Estraperlokoa dendan saltzeko

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-056/003
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Beraien etxea taberna, jatetxea eta denda zen. Dezente saltzen zutela dio. Gerra aurreko denda zen. Gerra ostean estraperloko gauzak ere saltzen zituzten denda. Berak 16 urte zituela bere mutil-laguna gerran zebilen, eta hari saldu zizkion 3 kilo baba 18 pezetaren truke.

### Transkripzioa

-Zuek orduan tabernia, jatetxia eta dendia be baeuen orduan Maulandan.

-Bai, denda txiki bat gauken, ba Maringuak eta, ba dezente saltzen zan.

Eta harako sumistrua Bitorixatik?

-Bitorixatik.

-Eta estraperluan ekarritako gauzak, saltzen zittuzuen dendan ala dendatik kanpo?

-Saldu bai, haura be estraperluan. Gabez faten zien Eskoritzatik eta andrak: "Para un kilito de alubias".

-Eta diruik izeten euen pagaitteko?

-Bai, dirue baeuen ondiok orduan. (...) Nik hamazazpi urte neuken ia ordurako, eta nobixua neuken eta nobixua gerran ibilitta. Amaiur, entzunde daukotzu? Amaiurko zera, Batallón Amaiur. Ointxe fan zan astien hil zan, ingo astien hil dda bat, haure intimo lagune guria (...), Eskoritzan hil diez

danak Amaiurkuak. Eta akordatzan naiz, nobixue zan baiña ondion enauen, neure artien, honek igual jaten emuten dutsetelako gureko jostak eta. Esan notsan, e:"Zu, janik eta badauketzue, babie ta". "Bai zera!" Eta esan nutsen, hiru kilo, aittei harrapau nutsen, e.

-Nobixuoi emuteko?

-Etxoin, emon enotsen eiñ, kobrau ein notsen. Askan eukitten zaban bedarra, gaiñian bedar berdian edo zeoze ifiñi eta hantxe zakuetan. Sekule ez zoskuen harrapau. Eta handixek hartu neuk gabian eta hiru kilo emon notsan. Eta pozixao! Seis por tres dieciocho, ondio akordetan jat, hamazortzi pezeta kobrau notsen, xei pezeta kilua. Eta karua zan orduan, e, karua zan.

-Eta babia Arabatik ekarritakua.

-Bai.

### 7.13. Marulandan kotxe bakarra

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/010
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:14:28. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Erromeriak egiten zituzten sasoiak kotxe bakarra pasatzen zen errepidetik eguneko. beraien etxe ondoan aluminiozko tailerra zegoen Aretxaletoako Arrue-Beroa dena, "Arrue zaharra" deitzen zien eta hura zen beraien taxi-gidaria.

#### Transkripzioa

-Kotxe asko etzan ibiliko orduan.

-Bat egunien. Han gure aldamenien euen taillerra, aluminio taillerra.

Atxabaletako Arrue, Beroa, entzunda eukiko dozu.

-Bai, bai.

-Arrue Zarra, Arrue Zarra esaten gontsen da. Haxe zan gure taxistia.

Ikusten giñuenian, Eskoritzara fan bihar igual eta ikusten giñuenian...

-Hori taillerroi zentralen etxian edo euen?

-Bai. Ondio hantxe dao huekua, oiñ ez dakit /eztakit/ ze daukien baiña.

## 8. Politika

### 8.1. Eskoriatzako ehulea

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Zubia, Andres; Goiz Urgumez, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Erref**: ESK-003/004
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:07:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

- **Laburpena:** Linuarekin harilkia egin eta Eskoriatzara joaten ziren ehulearengana. Bertan oihala egiten zuen. Gerra garaian, dena errekiatuta zegoen, oihalik inon erosi ezin; berak zuen azkenengo zatia emakume bati saldu zion. Kirruzko piezak arriorako gordetzen ziren.

### Transkripzioa

- Ta holaxen. Liñuek lan asko dako. Gero eruten gittuen, [pelotak in], egosi, madejak ein... harilkixe esaten jakon. [Buelatka-buelatka fan] katxarro bat, madejie sartu han ta obilluek eitten zien. Hareik obilluekin Eskoriatzara faten gintzen, ehulie euen izena. Honek bai ezautu dau.

- Nik ez dot [baserrikue esan], nik...

- Han telie eitten euen, makinie euen ta telie etaraten eben handik. Telie.

- Bestela ezin atara hemen telaik?

- Ez.

- Izarak eitteko ta alkondarak ta holako gauzak. Gerra-denporan, baneuken nik pieza bat etxien sobrauta, ta Eskoitzako andra bat etorri jaten —[ha be hil zan] ta—... etorri jaten aber salduko noskion zerak eitteko, frakak-eta eitteko. Tinttau, telaik ez euen orduen, dana rekisauta euen, dana zerrauta, ta ez euen, eta frakak [ein] ta eitteko telie [...] saldu notsen. Bai. Ha pozik fan zan.

- Eta hareik gero, izerak eta horreik danak gorde eitten zien gero arriorako edo ze eitten zan?

- [...]

- Kirruzko... bai, fiñenak bai, fiñenak gorde eitten zien, arriua edo batenbati erregalau edo eitteko. Bai. Bestela etxerako isten zien, etxien [...]. Ohietan ifintten gittuen ta haik beruauek zien, baiña garbiketako latzauek.

## 8.2. Hezkuntza diktadura garaian

- **Hizlaria(k):** Beloki Altuna, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-012/011
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Eskola kontuak Frankismo garaian; Cara al Sol abestu behar izaten zuten garai batean.

### Transkripzioa

- Zuk gogoratzen dozu, hori, eskolan, Francon erretraturik edo?

- Bai, bai, Francon erretratua eta... batenbaten... edo epokan baten zerien, 'Cara al Sol' be kantauta nao ni, e!

- Eskolara sartutakuan?

- Eskolan. Goizian frailliekin errezau ein biharrian, maixuekin...

## 8.3. Eskola kontuak gerra garaian

- **Hizlaria(k):** Padilla Maguregi, Mario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire

- **Erref:** ESK-016/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:03:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Gerra zibila hasi zenean, eskolan zer ikasten zuten azaltzen du; Francoren aldeko kantak ikasi behar izaten zituzten. Gaztetan gau-eskolara joan zen.

### Transkripzioa

- Eta Otxandixon ze urtetararte juan ziñen hara eskolara ta...?
- Ba, eskolan... gerran emon gendun guk denpora gehixena. [Neukezan] trenta y seisien neukezan nik hamar urte, ta trenta y seisien hasi ta berrogei, cuarentararte edo, hamarretik hamalaure, pixkat ikesteko garaie euki gendunien, ba, "Cara al sol" ta "Por dios, por la patria, el rey" ta holako gauzak ikesi genduzen. Ta gero gabeko eskolan apurtxo bat. Gabeko eskolia emoten euien orduan, eskola-maixuei pagetan otsien sobresueldo bat edo, sueldo [txiki... zan] ta. Hasi nobienbrien edo hasi ta, ba, enero erdi-ingururarte edo, gabez, gabeko bederatziretatik...
- Gabeko eskolak?
- Gabeko eskolak.
- Fin-fin.
- Ordun ya orduko neskakin-ta hasitta gengoan, ba, ordun ezin gauza haundirik ikusi.
- Ya... Denboria pasau gehixao.
- Jolasien batzugin ta... zeoze gehitxuao... pixkat zentzun gehixao eukitten dozu ta ba... mutikotan baiño. Gero ordun, barriz, eskola-maixuek... ez die oingo moduen andereñuek hamalau, hamasei, hogeigaz ta; gure eskola-maixuek larogetaka eukezan bere azpizen. Pentseizu, larogeta ume hazteko...
- Ya... hainbeste gobernetako...! Puf!
- Haunditxuenak [ibiltzen] gindduzen txikixei erakusten; hamahiru-hamalau urtegaz ibilitte nao, ba, sesiño bat edo, hoge bat mutiko edo geure...
- [...] eitten?
- ... erakusten hori. [...] ta larogetaka mutikuak... puo!

### 8.4. Etiket alde egin behar gerran

- **Hizlaria(k):** Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-045/012
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Gregoriak bi ume zituen gerra hasi zenean. Aretxabaleta aldera joan ziren eta hilabete pare bat eman zituzten Oro auzunean. Etxetik bi behi eraman ahal izan zituzten arren, hil berri zuten txerria militarrek kendu zieten.

### Transkripzioa

- Zuk gerria hasi zanian, zuk euko zittun hogeita bost urte
- Bi mutiko naukan.
- Gerria hasi zanian?
- Bai.
- Ze rekuerso dakotzu gerrakuak?
- Fan gitzan Atxabaleta partera, gizona Atxabaletan. Gero badakitzu, zuk idea bat, nik beste bat eta horrek beste bat eta guk ez geukan idearik ezebe baiña Atxabaleta partera fan gitzan, eta Atxabaleta partien hillebete edo bi in gittun guk. Oro badakitzu non dauen? Fan gitzan Atxabaleta partera.
- Oro bai, auzounia bai.
- Makiñabat, makiña bat tiro handik zeretik, elixako zeretik in euen. Atxabaletan badaz nunbaitteko...
- Orduen zuek egon ziñain han gordeta? Hemendik ihes egindda?
- Bai, hemetik fan gitzan. Eruen gittuen bi behi eruen gittuen. Txarrixe hil barri geuken, baiña txarri eder bat eruen oskun hortik zihar.
- Militarrak?
- Bai, bai.
- Eta hemen Urezaundin tirorik eta egon zan? Bonbarik eta egon zan Urezaundin?
- Bai, ene! Danien, hemen danien. Geldik ez ziren egon e? Hor auzen gorrixak esaten jaukonak, eta Aitxorrotzen auzen bestiek. Bi auzen bi aldetara.
- Eta zuek erdixan.
- Bai.

### 8.5. Gerrako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-045/013
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:31:36. **Bukatu**: 00:34:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: "Gorriek" senide bat hil zioten gerran. Gerrako beste kontu batzuk.

### Transkripzioa

- Gero pasau jakon, hemen gaukan bezinuak telefonue eta telefonue jo eta danak hartute etxe baten. Eta gure koiñatue ta Gatzagatik fan biher euen Eskoriatzara hortik basoz, ezta? Kobretan kamiñeruok, eta horreik hartu.
- Baiña kobretan zer?
- Horrek telefonuena danak. Horreik hatu eta aide! Bizkai aldera eruen zittuen auzokua bat behintzet, mutil bat.
- (Alaba): "chivatazo", telefonotik hartu llamadia, eta [...] bittartien detenidu.
- Hori, gura dauena, ez dakit nun dauen, betik fateko, fateko, baiña gure koiñatua hantxe hil euen gorrixek.
- Gorrixak hil euein?
- Bai, klaro. "Castigos", ez dakitzu, zera ifintten, jesus, zela esaten da?

“Zuk hau zanjiori atara biozu”, ba holaxe dabitzela. Eta suerte txarrak.  
 - Oseake lana itten forzauta, eta tiroz hil euein?  
 - Bai, klaro, ha bakarrik suertia, [...] bestiek, beste Gatzagatik etorri ziren. Gero laister suertau zan ba hartzie gerrie, eta ikusi bazeue, hemen oin piñue dau baiña piñurik ez euen ta, Bilbo aldera hemen euen jentie, gero Bilbora aldera fan ziren, eta hor goiko etxien ‘Komite’ esaten otsena, jana Bilbotik ekarritta euen, euren aldekuendako eta honeikin faten ziren beziñuak, [...] horreik ez euen ezer falta baiña guk ezin.

## 8.6. Batzuek gerra aprobetxatu zuten

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-045/015
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:36:59. **Bukatu**: 00:38:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Orotik itzuli zirenean, etxea zarramarraz beteta aurkitu zuten eta gauza asko falta ziren, lapurtuta. Gregoriak dio gerran ezer ez zutenak gauzekin geratu zirela eta zerbait zutenak, berriz, ezerekin.

### Transkripzioa

- Gero gerra ostia zer modukua izan zan?  
 - Ezebez, baikotxak bere aldetik lana egin eta aurrera.  
 - Etxia eta ondo topau zeuein? Orotik bueltau ziñaiñian etxia ondo euen?  
 - Etxia zarramarraz beteta dana, txakurrek be danak akabaute, txakurrek ederrak geuken ta, bai.  
 - Militarrak ebali euen etxia? Zuek Oron egon ziñain bittartian?  
 - Klaro, hareik nire koltxoia Zarimutzen topau auen, koltxoie Zarimutzen.  
 - Zarimutzen.  
 - Bai.  
 - Hemendik eruandakua.  
 - Bai.  
 - Eta ze in euein, ostu egin otsuein gauzak?  
 - Klaro, ze ingo euein ba? Badakitzu gauza gutxiago esateko, ezer ez daukenak jeneruaz geratu ziren orduen, eta jenerua aukenak bape barik. Bai, hor hemetik hurrien dau gizona naparra esaten euen Zarimutzen, tiruaz hil eta famelixie itxitako euen andrie, hortxe zelaixen, bai. Eta holaxe, ez dau.

## 8.7. Gerran denak berdinak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-045/016
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:38:21. **Bukatu**: 00:41:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Orotik bi behirekin itzuli ziren. Etxean zeuden oiloak eramatera etorri zitzaizkien gizon batzuk, euskaldunak batzuk, erdaldunak besteak. Euretako inori ez zien federik ematen Gregoriak.

### Transkripzioa

- Eta gero gerra ostien atzera ganauak ifiñi-eta...luzia izango zan, ezta?  
Gerra ostian bueltia luzia izango zan. Gerra ostien normal jarraitu zeuein?  
- Ifiñi in biher, ez dotsut ba esaten? Bi eruen gittuala hara Atxabaletara?  
- Bai, hareik ekarri in zittuein atzera.  
- Bai, hareitxek ekarri gittuan. Eta oilluek, oilluek hor goixen txabola bat gauken, han bi eta hemen bapez. Etorri ziren egun baten, eta lehenengo etorri zirenak gu ezagutu itten, gizona be bai eta ni be bai, atxabaletarrak, eta bi etorri ziren, aber zer eta oilluek, bueno ba oilluok eta gero dirue be bai, euskal dirue, euskerazko dirue. Aittek euken izua, eta eskerrak e? Aittak "ez, ez, eruen, eruen oilluok, ez da biher ta". Ez, artzaik hori dirue; gero enterau gitzan nortzuk ziren. Bi horren hemen euen, eta bi [...] ezagutu itten Atxabaletako jentia, eta gero beste batzuk etorri ziren handik egun gutxira, oilluek harrapatan, baiñe ezin harrapau egunez ziren ta, eguna zan ta [...] eta amak ezkatzetik, ez oskun urteten mutiko bixekin hortxe, eta harek umiek zainttu zittuen, ama difuntia. Bestiek sikiera horreik bestiok barre egindda fan ziren horreik atxabaletarrok.  
- Barre egindda?  
- Bai, oilluekin, otan auzen ta, hartu eta eruen besterik ez. Hareik bestiek eguna zan, eta aittek esan usten, ez dakit zer esan utsen euskeraz eta ifiñi eskopetia holaxe: berba bat itten bauen euskeraz baekixela zer euken gero, aitteri, horreik bestiok.  
- Baiña bestiok euskaldunak ez ziren izango.  
- Guk barbarik be ez orduen e? Harrapau ahal dana, emun, aide. Pagau ezkeru pentsaik. Persona diferentia daz, guztirakuak. Hor, bata erdeldune eta bestie uskaldune? Nik batari be ez neutsen federik emuten.

## 8.8. Gorriak Atxorrotzen

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/005
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra sasoian, Eskoriatzan gelditu ziren. Gerra hasi zenean, Atxorrotzen agertu ziren gorriak, eta konfiskatu egin zuten marianisten komentua Ederlan fabrika dagoen lekuan zegoena. Gero militarrek Gasteizen ofentsiba jo behar zutela-eta, Bizkaia aldera joan ziren, horren beldur zirelako.

### Transkripzioa

-Zu gerria hasi zanian hamabost urteko mutikotia.  
-Bai.

-Eskoriatzan egon ziñen edo nunbaittera fan ziñen?  
 -Ez, ez. Nik neure denporia dana Eskoritzan emun dot.  
 -Ez ziñan iñora fan, ezkutau edo gorde edo?  
 -Ez, ez. Eskoritzan emun dot nik neure...  
 -Eta zu akordaitten za hemen militarrek ebitzenian? (...) Gerra denporan bonbarik edo tirorik edo egon zan?  
 -Bai, setienbrien gerria urten euen urtian, setienbrien hogeta bixen, hiruen edo agertu zien hor Atxorrotz edo, hor bakitzu gaiñien nun dauen? Horra. Da gorrixek edo gorri usaiñekuek mutil mordua hor ezen gaiñien; da komentu bat auen, hor Ederlan fabrikia. Han oiñ beste fabrika bat eiñ daue han, Eskoritzara gora zatozela ezkerretik, da han auen komentu haundi bat, marianistak; marianista euzen han. Da ha euki euen eurak rekisauta.  
 -Kuartel modura edo?  
 -Bai.  
 -Hori gorrixak ez, hori bestiak?  
 -Gorrixek, gorri aldekiek, bai. Eta gero handik janoi surtiduten euen mendi gaiñien ezenok, hemendik bistan dau hori mendixoi. Ba hortxe, Degurixa gaiñien edo, bai, hortxe gaiñetan ezenok. Gero ofensibie jo biher euela militarrok Bitorixen edo zerien. Eta ez eukien armaik eta ezebe, eskopetekin ezen bakarrik orduen, da danok gorri aldera, harutza fan zien danok, Bixkai aldera fan zien; al dauen guztiok, horren billur euzenak danok hara fan zien. Batzuk hemen be geldittu zien, bai, baiña asko fan zien harutza.

## 8.9. Militarrek gorriei erasoka

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/006
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:12:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Militarrek, Gasteiztik Eskoriatzara sartu arte, ez zuten ezer aurkitu; eta, bitartean, armak gorriei heldu zitzaizkien. Beraien etxeko leihotik ikusitakoa kontatzen du. 15 bat lagun egon ziren armak heltzerakoan; eta, militarrek heldu zirenean, inguruko basoetan ezkutatu ziren. Hurrengo egunean, militarrek ezer gabe etorri ziren lasai asko, kantuan... Apotzaga auzoan blindaje bat zuten gorriek eta militarrek Apotzaga hartzera joan ziren. Mendiaren lepo batetik burua erakustearren. alde guztietatik ekin zieten tiroka. Mendiaren lepoan, hamar gorri inguru bertan hil ziren. "Kamiñero"ei ere eraso egiten zieten, gorpuak edo zaurituak jasotzen joaten zirenean.

## Transkripzioa

-Hemen burrukarik egon zan gorrixen eta bestien artian?  
 -Bai, hurrengoko egunien, hogetaxeixa eta zazpixa edo eztakitt, halakotxe egun baten; da, klaro, Bitorixan Eskoitzan hemen kalien sartu arte ezebe ezebe ez eben topau, ezebez. Gero bittartien aillegau jatien armak gorri aldekiei. Da, oiñ ezta ikusten halako automoillik, automoillek zien orduen kapote bategaz tapetan zienak, da holan zabal. Da izeten zien eztakitt hamabost bat lagun edo, halakon bat kapiduko euen; da armok aillegau

jatienien, da eurak hemen Eskoitzan aillegau zienien militarrok Bittorixatik behera, aillegau zienien, etorri zien hiru automobil edo lau edo hortakuek; begira-begira egon nintzen, bista-bistan geukenhan bizi gintzen lekutik kamiñua danoi tta; begira-begira egon nintzen eta eta etorri zien, eta bueno. Eskoritzara edo ezkutau zien hemen basuetan eta holan. Da gero hurrengoko egunien militarrok, klaro, hona arte; ezebe-ezebe barik etorri zien kantuen; eta gero hor Apotzaga auzoi, hor dau auzo bat, horra aldera behetik gora (...) Gure aldetik, oiñ etxiokin tapauta dago dana baiña lehen zabal-zabalik euen, ez euen ezebe ta; brindau (blindau) bat eukien eta brindau hori han gure etxetik beheratxuao geldittu, jarri zan, da bestiak be armok zelan aillegau jatien, hor batien da bestien jarri zien, da militarrok euren zeroi, hona arte ez euen tiro bat be entzun barik, eta Apotzaga hartzen oizen. Enda han ezpalda baten, ostetik ez euen fan besteik, baiña burue erakusteagatik ezpalda batetik gora badoiez gora. Eta apurtxo bat goitxoraiño fan arte itxi eiñ utsien bakien; da gero han goitxora ixa arrimauez doiazela ekin-tsien tiroka hemen alde guztietatik gorrixok, eta hamarren bat edo han geldittu zien.

-Garbittu ein zittuen bestiek?

-Bai, bai. Hildda edo heriduek edo. Eta kamilleruek faten zien jasoten, eta kamilleruek jasoten faten zienien eurei be gogor ataketan utsien, eta eztakitt bi ala hiru illundu arte hantxe egon zien. Bai.

-Eziñ atara handik?

-Eske eurei ataketan utsien da.

-Osea ke harek heriduta eta hantxe jare ein bihar.

-Eztakit ba hildda euzen edo heridute egongo zien ala zela egongo zien.

Behintzet han ezpaldan zortzi bat edo hamarren bat, nik eztakit

kontautakuan zenbat izengo zien baiña bai, han geldittu zien.

-Zuek hori danori etxetik ikusitta billurra etzeben eukitten?

-Ez, bentana ertzetik egoten gintzen begira. Ni mutikue zela nintzen pentsau bez holan peligroko gauzaik danik. Eta gaiñea gure aldien artien ezebe-ezebe ez auen.

#### 8.10. Etxea kanoiekin erasotua

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/007
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:12:58. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Kanoiekin etxea erasotu zietenekoa kontatzen du; hala ere, ez zuten asmatu.

#### Transkripzioa

Gero bai, gero herriko hortxe emakume batzuketatik zera itxi ginduen, kañoiekin atakau barik itxi oskuen etxia. Amak, harek be ez euen ikusten koittauak peligroik eta. Aittak esaten ei utsen: "Ez zaittez fan, ez zaittez fan". Eta harek, miliziano aldekuok etorri jakun esnetan da; orduen esnealdiko gengozen, esnie ondo geuken orduen, eta eurei armozetako baldekara bat esne emun gutsien. Eta esan gutsen: "hortxe eruen geike kalera hor batzuei esnia?". "Bai, gu hemen armozetan gazen artien bai;

gero tiroka ta hasiko die baiña bai". Holaxe fan zan, eta etxera ixa aillegauan atakau utsien gogor hemen aldetik. Orduen piñuik etzeon bat be hemen. Eta atakau utsien da kurrixka baten sartu zan etxien baiña ez auen azertau, ez auen azertau.

### 8.11. Soldaduen istorioak

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-051/008
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:14:09. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Behin, etxe barruan zeudela, tiroak entzun zituzten oso hurbil; izan ere, militarrek uste zuten etxetik egiten zietela tiro beraiei. Arratsalde batean, Apotzagatik bi lagun jaitzi ziren arineketan; soldaduek hori ikusi zuten, eta hogeit bat soldadu joan ziren Agustinen familiaren etxera, bi gorri etxean ezkutuan zituztela-eta. Menditik jaitzi ziren bi lagun haiek atxilotuta eraman zituzten. Ordurako, Eskoriatza eta Apotzaga hartuta zeuden.

#### Transkripzioa

-Gero beste kasu bat pasau jakun, gu ba etxien danok billurrez han, etxe barruan danok han, da aitta-amokin hiru mutiko, lau mutiko egongo gitzen han barruen da. Gero itxuria eurek, geuk be handik entzuten geuen pa-pa-pa! eta pa-pa-pa!, tiro eta zaratok eta. Hori nun ete dok?, bertantxe etxe onduan auen moduan tiraketan utsien, da eurak militarrek pentsetan euen geuretik tiraketan utsiela. Da hor emakume batzuk, estankue, esnie eruen geuntsenoi, esan utsen, hara erretirau zien hemen zien jefetxuok eta esan utsen goxien han egon dala hango zera eta han eztauela iño be ta; bestela kaiñonazoka etxiorri ekitteko preparauta erezen. Eta ez oskuen tiratu. Eta gero holan da halan, ba atsalde erdi baten edo, hor Apotzatik jatxi zien bi lagun añaiketa baten gurera, eta hemen aldetik ikusi ein zittuen zelan bajatu zien, da hogein bat soldau etxien buelta guztien zera ein zan, eta gu han ittueko zulo baten billurrez ikara, eta urten nauen eta txakurtxo bat gauken da, txakurtxue txa-txau-txau, txa-txau-txau, ta. Urten nauen bentanara zulo batera ta soldauek holaxen erezen. Aittai esan nutsen: "Hemen soldauek dauku, e, eskopetekin, fusillekin begira ta". Aittorrek urten euen atia zabaldu ta urte utsien da. "¡Aquí hay dos rojos!" "No, son de aquí esos" esan utsen. "Abre, pues!", da urten utsien da bueno. Gero eurek kalera ekarri zittuen.

-Detenidu ein zittuen?

-Bai, eurek bixek hartu ta kalera, aber kalien iñok ezauketan dauen. Ordurako kalioi hemen Eskoitza hartuta euen eta Apotza bera be bai tta. Eta orduen eiñ euen zeroi, orduko denporioi.

### 8.12. Gorriak inguruan

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Arenaza, Agustin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-051/009
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:20:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gorriei amorrua zieten, eta etxera joan zitzaizkien esanez apuntatzeko, gorrien aurka egiteko. Amak esan zien ez apuntatzeko. Behin soldaduek gorrien kontra zelan atakatu zuten kontatzen du. Gorriek Aretxabaletako Santutxon zuten blindajea. Kanoiekin hormen gainetara igotzen ziren erasotzeko. Gero Kurtzetan jarri ziren, eta denera zabaldu zien, indartu egin baitziren. San Andres egun batean, eraso egin zutenean, mutil asko galdu zituzten. Zulo bat egin eta 80 mutil bertara bota ei zituzten.

### Transkripzioa

-Eta gero beste hori, bezinue ta beste bat, haik be gure euen zera eiñ, gorrixen zeroi, ie!, amorro txarra utsen gorri aldeko jenti horri, zera ta, eta gurera jo euen goxian egunsentixan da. Apuntau biha dabela boluntarixo horrek hemendik bial..., kontra eitteko. Holan, da amak esate utsen: "Ez zaitteze apuntau, ez zaitteze apuntau, apuntau ez zaitteze eiñ". Hor (...) ezpaldie zan eta hor ezpaldan atzo hor geldittu zien zortzi-hamar bat, lurrera botata hor egon zien, eta ez zaitteze apuntau" ta. Itxurie etzien apuntau lagunketan. Egun hartan fan zien lagunketan militarroi hemen aldetik, da hau zoniau ezauketan euen parajioi eta espliketn utsien da, da gorrixoi handik atakau utsien, gorrixoi atakau utsien kaiñoiekin, horrek siete y mediokuek edo, diez y mediokuek, txikixauek igual izengo zien, kaiñoiokin atakau utsien, apur bat atzeratu zittuen. Gero blindaue eukien gorrixok Atxabaletan han Santutxo esaten jakon kanposantura bidien, handik hori topetan euen, ezpaldioi, eta eurok euren kaiñoiokin, muluen gaiñetan kaiñoiok eta gero montau eitten zien; eta haixe ataketako zerorri, ataketako daezela, justu justuen iges ein biher izen utsen zerorrek, blindau horrek eta etzauen harrapau. Gero berriz hor Kurtzetan jarri ei zien da, ba gero gauzie, hemen hau barranko hau danau hartu euenien, kamiñue librau euenien eurak ibiltteko, hor mendixetan bertan, bertantxe hor geldittu zien gorrixok, nazionalok geldittu zien hor, da gero gorrixok ba hor jarri zien danien, eta eurek be itxurie armamentuaz fuertetu ein zien gorrixok. Da gero San Andres egun baten danien atakau euen, hemen Billerealen da. Hor mutil asko galdu biher izen euen Billerealen, esaten euen moduen. Entzun nauen, eztaitt holan izengo zan baiña, zulo haundi bat eiñ eta larogei mutill hara bota zittuela arkalen gaiñien. Eta eurak danak alkarri tiroka hor Billerealen.

### 8.13. Kupoa entregatu beharra eta gosea

- **Hizlaria(k)**: Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-051/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:23:40. **Bukatu**: 00:25:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Baserri bakoitzari kupo bat jartzen zien. Arabatik jendeak ogia-eta ekartzen zuen. Beraiek garia zuten ugari eta hura entregatzen zuten. Gerra ondorenean gose asko zegoen eta irabazi gutxi.

Alemaniko gerra zela-eta, ez zen inongo mugimendurik, dena geldi zegoen. Hori guztia bukatu eta gero guztia aldatu zen.

### Transkripzioa

-Hor eratxo baten garixe entregau eraitten oskuen, basarri bakotxai tanto bat ipintzen oskuen, tanto bat, eta haraxe entregau eraitten oskuen. Arabatik jentiek ekarten euen al dauenak jentiek ogixa jan edo zerbaite ibiltten zien hemen kaleko jentiek eta, gutxi hartzen euenak eta. Baiña guk garixa ondo hartzen gauen, gero lana be asko eitten gauen, garittan oiñ hau urabarri denporiau beti garittan han ibiltten gitzen han bedarrak ebaten jorraixaz, eta gero haunditu eitten zanien eskuekin ataraten ibiltten gintzen bedarrak. Bai, guk garittan lan asko eitten gauen eta garixa ondo hartzen gauen, bai.

-Garixa ta beste zer entregau bihar izeten zeuen?

-Ba garixa ba bakoitxai (...) oskuen kupo bat entregetako.

-Artua ta?

-Artue behiñ uste dot zerbaite entregau, artue ez, garixe nahixao, biher izeten euen. Gero urtie be, haik urtie txarrak zien, gerra ondorien gose haundixa egon zan, gose haundixa egon zan gerra ondorien. Irabazixe be gutxi, Alemaniako gerri-horregaz ez euen ezebe mobimenturik, ezebe-ezebez; dana egon zan holaxen, geldi-geldi-geldi.

-Ez aurrera ta ez atzera.

-Bai, bai, holaxen egon zan, geldi-geldi-geldi.

-Bueno ha akabau zanien, martxan jarri zanien gauzia gero bai, gero urtetik urtera igote-ban gauziak izugarri, baiña hori Alemaniako gerri-horregaz geldi-geldi egon zan gauzia.

### 8.14. Errotak itxita

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin

- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ESK-051/016

- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:29:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

- **Laburpena:** Baserrian ez zuten goserik, beti zuten zer jan. "Servicio Nacional de Trigo"n errotak prezintatzen zituzten, hori gertatu baino 15 bat egun lehenago jakiten zuten zuten beste ogi-eta egiten zuten. Irina etxe barruan zuten gordeta. Inguruan zeuden errotan aipatzen ditu. Errotabarrin errota elektriko bat zuten baina han behintzat zerbaite egin zezaketen. Lehen oso zaila zela gosea pasatzea kontatzen du, lur guztiak landuta zeuden eta, ez zegoen oraingo beste pinudi.

### Transkripzioa

-Zuek basarrixan normalian goserik etzeben pasauko, ezta?

-Ez, ez, ez, goseik ez. Ogixa ezpaeuen artua. Oñ txarrena izeten zan hor Servicio Nacional de Trigo jente ze horrek prezintau eitten zittuen errotak. Da jakin eitten euen hamabost bat egun lehenau zer etorkixen eta orduen zera eitten euen; eta guk geuk be haxe eitten geuen. Eta gero etxie gerra aurreko urtien barritzau geuen dana eta suelue euen haxe letxe tarimiaz. Eta han komedoria edo zan lekuan hara jo ta pillatu eta zabal-zabal han eukitten gauen urunoi. Ez, goseik ez gauen guk pasau.

-Uruna etxe barruan gordeta?

-Bai, ezin leikien ixo errotan da, prezintau eitten utsien harrixak eta.

-Ixo etxian eitten zebeñ?

-Ez, hor beheko (...), hor be errotie eukien, eta Bolibarren be bertan entradan lenengoko etxie errotie zan; da gero Ederlanetik bera goiazela ha be lenenegoko etxia errotia zan, da hemen errotak orduen asko ezen. Kastaiñixenen be bai, Maulandan be bai, uraz eitten dauen lana, hortakuak.

-Horretan errotak prezintautu egon zienian, baten batek gabaz ixoten eben garirik?

-Bai, responsable errotarixa bera eitten zan; itxuria papelaz harrixoi lotzen utsien, da peleoi eziñ apurtu. Hor Errotabarri esaten jakon etxien, hor Ederlanetik beheratxuao lehenagoko etxien, ha (...) beste errota elektriko bat enda baltztxuao eitten zan haregaz ogixoi, baiña, laztxuao be bai, baiña hantxe pasau eta eitten zan, eta gosia behintzet...

-Etxerako laiñ behintzat...

-Bai, etzan behintzat goseik... Gosie pasauko euen honek ezebe etzaudenak. Hemen oin danak piñu plantau die baiña lehen hori ezpalda danoi be labrauta, garixa eta zera; sasipe guztiok labretan zien orduan, bakotxak bittarte guztian kuadro bat ezpada preparaten patatie edo gure dana hartzeko.

-Aprobetxau eitten zan.

-Bai, bai, al dauenak al dauena zera eitten euen, bai, bai.

-Baiña piñua ifiñi zanetik...

-Ez, ez, piñurik ez euen. Piñuoi hortxe bestaldien, honetxek eukien, atzekuok, atzo egon zintzenok, horretxek eukien piñui bat, beste bat, biren artien piñui sail eder bat.

### 8.15. Etxean ere lana

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-053/006
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:09:46. **Bukatu**: 00:11:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
  - Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena**: Etxean ere izaten zuen lana. Arreba tabernan ibiltzen zen. Soroa zuten. 14 urterekin hasi zen lanean, espoletak egiten.

### Transkripzioa

-Eskolan zebitzen garaixan batzutan etxian lbe ana egongo zan, ezta?

-Joe. Gurien kriauiak egoten zien, baiña kriauiak fan zienian geuretako dana.  
 -Eta zu zaharrena ziñan?  
 -Klaro. Zarrena kojua zan baiña ha ez zan gauza ta. Gero ba hurrengo arrebía, oiñ Bergaran bizi dana. Ha bizi da, setenta y ocho años. Da horrek ba tabernan da han jiretan zien, Atxabaletan daona bestie. Baiña ni nenguen kriauiatik gero, hurrengo neu. Kriaui, klaro, etxien.  
 -Souak eta eukitzen zittuzuen?  
 -Han Gatzako aiuntamentu azpíxen, sorua oso ona. Baiña gauza haundirik bestela ez. Gero bason bat edo beste be bai, baiña terreno asko ez gauken.  
 -Gari eta arto ta holakoik?  
 -Ez. Ganauendako arbixa ta holako zer batzuk bai. Baiña bestela ez, garixa ta horreik ez. (..) apur bat eta.  
 -Eta zu lanian noiz hasi ziñan?  
 -Hamalau urtegaz.  
 -Eta ze lan klasetan hasi ziñan?  
 -Atxabaletan, Bernardiñonian. Zubia. Gerra denporan.  
 -Ze eitten zeuen?  
 -Espoletak.

## 8.16. Espoletak egiten

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Pako
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-053/008
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:11:48. **Bukatu**: 00:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Zubia zen lantegiaren izena, Bernardinorena. Espoletak egiten zituzten. Gerra bukatzean itxi zuten. 30 bat lagun geratu ziren lan gabe. Tailer batean nola hasi zen, aluminioarekin, eta gero beste batean, soldadu joan arte.

### Transkripzioa

-Zela eukén fabrikia izena?  
 -Zubia. Bernardino Zubia zan jefioi. Orduan bera zan. beste anaiak be egoten zien baiña haik enkargau moduan edo. Gerria akabau zanian bialdu giñuen.  
 -Lan barik geratu ziñen?  
 -Bai, bai. Esauskun Bernardinok: "Ya se ha terminado la guerra y ahora tengo que hacer otra vez cerrajería. Quiero empezar. Así que ya nos llamaría".  
 -Bera zerrajerua zan baiña gerra denporan espoletak eitten.  
 -Klaro. Han etortzen zien militarrek eta, bueno!, eta pñaxaka danak, puf!! Egun batetik bestera pon!, akabau zan eta bueno, handik egun bira ero bialdu giñuen, hogeta hamar bat bai. Ia lelengo preparauta zanian deittuko uskula-ta. Bai, guri asko inporta uskun. Orduan lana edozein lekutan euen. Gero bizikletan harutza ta honutza, kamiñuan kotxeik be ez ebillen da. Eskoritzako ospital parian auen taillertxo bat de aluminio. Da uezaba atian holaxe ta gu bizikletan kristonak eitten kamiñuan da zera ta. "Ze, mutikuak, ez daukatzue lanik edo ze?" ta. "Lana? Bialdu gau Bernardinok" eta. "Lana eitteko gogue badaukatzue?" ta. "Ba!, zeoze ein bikou". "Etorri

bixar goxian". Hurrengo egunian fateko. Eta handik hamar egunera edo hartu oskun zera, ofizinako harek hartu oskun zerok eta fan gintzen. Da gero, handik ez dakit, urtebete bat-edo, Bitorixara doiezela eta gura bou fan Bitorixara. Bitorixara lana eitteko? Pentsau bez. Eta hor eskatu neuena lana eta hurrengo egunetik lana.

-Eta hor beste lan horretan ze eitten zeuen?

-Puliduten da. Zera eitten, katxarruak eitten.

-Eta hor zenbat denporan egon ziñen?

-Hor soldau fan arte. Ez, hamazortzi urtegaz edo. Gero beste urte bi hortik fan zienien, hau zela da, estaziño ondoko zeroi, TESA ez bestioi, beste tailler hori; oin be ondo dabill hori. Horraxe. Fan nintzen da "Etorri bixar goixien". Hor lana sobra euen da. Hortxe ein nittuan dagero handik soldau fan nintzan da.

### 8.17. Soldaduek etxeko ukuiluan egiten zuten lo

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Elorza, Eustakio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-055/004
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:08:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Baserrian, txerri bat hiltzen zuten urtean. Baina, gerra garaian, elizpean egoten ziren, soldaduen arrantxoaren soberekin gizenduta, hiru hil zituzten. Neska-mutikoek jolas asko egiten zuten soldaduekin. Eustakiok gogoan du tiroak izan zirela Atxorrotzen, Asentzion eta Ixipiden; baina, kalean, ez du gogoratzen liskarrik izan zenik. Baserriko ukuiluan lasto gainean egiten zuten lo soldaduek.

### Transkripzioa

- Zu eskolan zebiltzela exian ganaurik eta bazeukatzuein?

- Bai.

- Zenbat ganau eukitten zeuein?

- Hiru, lau.

- Ardirik-eta?

- Ez.

- Eta gero, oillo eta konejo-eta?

- Oillo eta txarrixak eta danak.

- Zenbat txarri hiltten zittuein urtien?

- Urtien bat. [...] gerra denporan orduen hiru hil gittuen. Soldauek egon ziren hor, elizpeien, eta horko rantxo-sobrakin...

- A, soldauen rantxuen sobrakin txarrixak gobernau zittuein?

- Bai. Esan dotsut lehen, anaia, hil zan oin dala denpora gutxi, ni baiño anaia zaharragua. Eta beste prima bat Frantzian dau oin, Dunkerke-edo. Eta hirurok etortzen gitzen horra elizpera, eta soldauak egitten oskuen herejerixak, bueno, jolasien! Egun baten akordetan naiz, mermeladiaz pinttau-pinttau in eta hirurok etxera bialdu gindduen. Jota mermeladia daixola.

- Orduan zuek itten zeuein jolasian soldauekin?

- Bai, hor elizpeian.

- Eta horreik ze soldau ziren, Franconak?

- Franconak izango ziren, bai.

- Eta orduen hor jolasien, eta gero gaiñetik rantxuen sobrak etxera.

- Bai, etxerauzkuan, horra etorten gitzanien gurekin jolasien, gero ipintten oskunien hartu eta etxera, txarrixentzako jana.

-Zuk orduen euko zittun...

- Hiru-lau urte. Nire anaiak ni baiño bost, harek beratzai anaiak. Eta Frantzian dauenak be beratzai.

- Hemen bapebe frenterik-edo egon zan? Tirorik eta akordaitten zara zu, Eskoriatzan?

- Bai, tiruak Atxorrotzen, han.

- Atxorrotzen?

- Eta gero Asentzion be badazen, ni akordaten naz, Atxorrotzetik Asentzion, eta gero beste bat Ixitulen be bai, han goixan.

- Baiña kalien bertan...

- Ez, ni ez naz akordetan kalien.

- Militarrek eurak itten euein astokixarik kalien? Lapurretan eta holako gauzarik?

- Ni akordetan naz be bai, gurien ittuan gabien ez dakit nik zazpiretarako, zortziretarako, ze ordutarako ittuako lanak in eta eurai itxi biher, soldaueri. Horeik eukien bagoi bat lasto rekisau euen estaziñuan, eta ekarri euen eta ittuan danien bota euen eta hareik lo itteko gabien, beratzitako ittuako lanak in eta gero ganauakin han lo itten euen ittuan.

- Ittuan itten euein lo?

- Bai, eta gero eukien han goixen dau Iruzketa edo baserri bat, edo mendi bat, hatz bat, ta gure kuartoko bentanan ondiok be denpora gutxi da ba ondiok, han tomia dau, entxufia, han entxufau eta argixa eruateko.

## 8.18. Itaurrean nahiago eskolara joan baino

- **Hizlaria(k):** Barandiaran Elorza, Eustakio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-055/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:11:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Euren ukuiluan lo egindako soldadu bik, orain gutxira arte Gabon guztietan zorion postala bidali izan diote. Baserrian ura eta argindarra beti ezagutu ditu. Itaurrean ibiltzea nahiago izaten zuen Eustakiok eskolara joatea baino. Gerraostean, Kontzejupera eramaten zituzten entregatu beharreko gari eta artoak. Baserrian, ez zuten goserik ezagutu gerraostean.

### Transkripzioa

- Orduen zenbat lagunek itten euein lo...?

- Hori ez dakit, itten euena badakit. Porke onddion zenbat denpora izango da ba, onddiok sei-zazpi-zortzi urte-edo? Hor lo itten egoten ziren soldauak, bik gabonetan urtero felizitetan gauan. Bata zan "Resucito Palomero", ha zan Burgoskua eta beste bat "Pedro Bombín", ha Valladolidkua. Ondiok urte... igual hil ingo ziren hareik eta gero itxi baiña.

- Felizitaitten zindduein Gabonetan, postala e?

- Bai.

- Dozena erdi soldau ittuan eukitten zittuein?

- Dozena erdi ez dakit, ez, gehixau, dozena erdi baiño gehixau.

- Ittuan baiña, ittuan edo kamaran?

- Ittuan, ittuan, behian planta bajan, han egozen behixak holako ezkiña baten apartautaeta bestia esan dotsut bagoi bete bat lasto rekisau-edo, ez dakitzu? Zabal-zabal in eta hantxe lasto pilluan.

- Zenbat denpora egon ziren hola?

- Ez dakit, bastante, ez dakit zenbat.

- Eta zuek baserrixan, ura eta inddarra eta betik ezagutu (di)ttozu?

- Bai, bai.

- Sukaldien ura betik?

- Bai, ura eta argixa betik.

- Eta zuk igual ittaurren eta ibilli biharko ziñan?

- Honbre!

- Orduan eskolara fatia, eskolara ez ziñan faten?

- Neuk ittaurren ittia gurago eskolara fatia baiño. Esaten oskunien, "mutikua gaur etxian geratu biherko dok, bixar karreterua jaukat", bueno, pozik! Orduen eskolara fatia kastigua zan.

- Eta soruen garixa eta holako...

- Bai, danak hartu: garixa, babia...

- Eta akordaitten zara kupua eta entregau bihar izaten zanik?

- Baitta, bai, bai.

- Nora eruaten zeuen zuek?

- Kontzejupera-edo, hor aiuntamientuan badau ba? Haraxe, kontzejupera.

- Ze izaten zan, dana entregau bihar izaten zauein? Edo zati bat-edo?

- Ez, eurak kalkuten auen, aurretik deklarauten zan zenbat erain zeban-edo, eta gero handik euen kalkulauta zenbat, hamar, hamabost kilo edo hogei, gura dana, ez dakit.

- Goserik edo zezeren faltarik izan zeuein?

- Ez, gurian ez, guria kale-baserrixa eta betik egon zan edo talue edo morokilla-edo, behi paren bat, hirun bat esnia be egoten zan, txarrixa be hiltten zan ta, gosia neuk ez nauen ezagutu. Biziorik be ez baiña goserik be ez.

## 8.19. Estraperloan Arabara

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/002
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:00:49. **Bukatu**: 00:04:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Arabara joaten ziren jenero bila. Normalean ganaduarekin joaten ziren mendiz. Bertan gertatutako istorio bat kontatzen du. Gauez joan behar izaten ziren inongo argitasunik gabe. Inoiz ez zuten arazorik izan soldaduekin-eta denda zutenez ezagutu egiten zutelako. Trenez ere biltzen ziren.

### Transkripzioa

-Zuk gerra osteko kontrabanduak ezagutu zittuen, ezta?

-Honbre. Asko. Asko ibilita nao ni oiñez Maulandatik Bitorixara.

-Zeu be bai. e?

-Honbre, gura aittakin biheko.

-Eta ze ekartzen zeuen?

-Ekarri, jeneralien faten giñan ganauekin, estraperluen ganauekin, mendiz. Akordatzen naiz behiñ noien, batzuk mosue tapauta ta ibiltten zien, klaro, ekartzen zittuen ba mataderiarako ta geiztuak. Eta zubi bat pasau giñuan, hori historixia enoie kontetan, ezta (...). Zubi batetik pasetan da zekor haundi bat narioan eta aittak beste bat, mosue tapauta ta. Aittak esan zostan: "Kontuz, tiraketan botsu zuk jaraiñ, e", zeatik zubittik behera errekoa euen, eta gabez pasetan gittuen horrek. Eta farolik be ezin geikien eruen, aittak ondo akixen horrek bidiok eta hola ibiltten giñen.

-Sekula ez zeuen euki problemarik miñoiekin edo?

-Sekula be ez. Ni neskatiñe ta Bitorixara faten giñen aitta ta bixok trenien. Gero, errekauek itten. Trenien faten giñan, eta ittak erosten zostan han gauzak eta trenien sartu. Baiña bera sekula be ez nerekin. Eta nik asientopian sartu ta ekarten nauen olixua, kafia, danetik.

-Libre zaukazuen trenian horrek ekartzia?

-Keba libre. Zenbat neuri begira, Landara ta aillegetan zien, andrak eta pena bat emuten ustien, patata zakutxuekin Landan da aillegetan zienien da, Landan bota. Eta gero fan hari barriro Gatzatik hara. Nik esaten neuen... Neri sekula bez. Eta aittak esaten ustan: "Zuri beiketan botsu, zurie eztala esan". Baiña etxaten tokau sekula be. Egun baten bai artua bagekarren hemen lengusiña batek eta bixok, horrek lenoko zesto horrek astadunek, goixan astadunak, artoz beteta gakarren bixok, eta guardazobil parejia Gaztaiñixan. Pako bizi dan tokixan guardazobil parejia. Esan zostan lengusiñiak: "Ai, ointxe kendukuskue" ta. "Ba, ikusikou". Ezauketan gittuen guardazoillak zegaittik firmetan da tabernara asko etortzen zien, eta esan usten: "Qué lleváis ahí?" "Qué vamos a llevar?, con el hambre que tenéis ahí, maíz", esan nutsen egixa. Gure lengusiñie geratu zan da "Capaz". Sekula ez giñuan euki zerik. Estraperluan asko ein giñuan. Asko.

-Bittorixan razionamendurik ez euan?

-Egongo zan baiña Maulandakuendako ez. Estraperluen erosi bihar.

-A, erosi be estraperluan.

-Klaro, guk dendatxo bat gauken, ezauketan gittuen dendarixak eta olixue ta ekarri tta. Ta gero nik lagun bat nauken, Eibarko soldau bat euen Bitorixan soldau, eta harekin biaje asko ein nittuen, kapie jazten zeban guardazobil, edo soldau horrek, eta bi pote bost litrokuak hartu holaxen eta Mariñera. Mariñen estaziñue zeuan ba, Mariñera ekarri. Biajie pagetan gotsen da propiña bat emon eta haura ondo eta gu hobeto. Olixue etxakun sekula be faltau etxien.

-Oseake soldaua kapiakin

-Bai.

### 8.20. Gerra garaian errotak itxita

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/012
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:16:36. **Bukatu**: 00:17:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Artoa zuten etxean. Gerra denboran errotak itxita egon zirenez talok egiten zituzten. Beraien aita Gasteiztik ekarri zuen makina bat irina egiteko estraperloan.

### Transkripzioa

-Zeuek garirik eukitten zeuen souan edo?

-Garirik ez, artua bai.

-Artua bai?

-Artua, patatia, babia...

-Artua ixotzen zenuten errotan?

-Hoixe. Bueno, gerra-denboran taluek eitten gittuen, taluek eitten gittuen baiña prohibiduta egon zan errotak, danak orduan errotak, eta gure aittak ekarri zaban hola Bitorixatik makinatxo bat eta han ibiltzen giñen illaran danok, puf, besuek kantsauta hantxe jotzen. Iriña jeneralian aittak Arabatik ekartzen zaban estrapeluan.

## 8.21. Gerra hasi zenean, Marulandatik Gatzagara

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-056/017
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:21:21. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Marulandan egon ziren. Beraien aita Gasteizera joan zen dirua zigilatzen, eta etxera etorri ezinik gelditu zen. Hala ere, gauetan aita ogia pasatzea lortzen zuen. Gatzagan, lehenengo falangistak, gero erreketek, eta azkenik soldaduak egon ziren. Aita esan zien handik irten behar zutela, eta beraien bila etorri zen. Marulandatik Gatzagara basoz eta gauez joan ziren. Milizianoak etxe gainean zeuden; eta, beti tiroka zeudenez, beraiek etxetik irten ezinik.

### Transkripzioa

-Gerria hasi zanian gu gengozen Maulandan. Egon giñan hille bixen. Gero sartu zien nazionalak, lelengo falangistak sartu zien Gatzara. Guk Gatzan aittajauna-amandrie gauken eta han eitten giñuan, eskolara be haraxe ta. Hori lehen esan dotsutena da eskolakua Maulandakua gerra ostekua. Gerra aurrian tiakin egon giñan. (...).

-Klaro, zu hasiko ziñan Maulandako eskolan gerra ostian. Gerran etzan egongo eskolarik.

-Ez. Gatzara faten giñan. (...). Maulandan gengozen, eta Maulandan atiak itxitta, gure aitta jun zan Bitorixara dirua estanpilletan, eta orduantxe egunian sartu zien eta geratu zan aitta, eta ezin etorri etxera, Gatzara kilometro bat dau bakarrik, e. Baiña gabetan pasetan oskun ogixa.

-Aittak?

-Aittak eta beste batek. Pasetan oskun. Gero gengozen gu Gatzan

nazionalak, soldauak... Reketiak egongo zien. Lelengo falangistak sartu zien, gero egon zien reketiak, eta gero soldauak. Eta fan gintzenien, aittak esan oskun ba urten ein biher geuela. Bera ezin etorri, eta gaiñera etorri ezkerro, bakitzu, peligrua zan orduan batetik bestera (pasatzia). Eta Gatzatik etorri zien gabian aitta ta beste bat -tio edo eztaikit zein zan; bai, tio izengo zan-, eta etorri zien eta atara gindduen. Baiña dana itxitta etxian, zeoze erropak edo zeoze hartu giñuan baiña. Maulandatik atzera hiru ordu tardau giñuan Gatzako basarri batera. Basoz fan giñan. Klaro, bestela kamiñuan. Gatzan soldauak begira eta milizianuak eozen Zarimutzen, hantxe goixan. Ta beti ba tiroka ta guk etxetik urten be eziñ eiñ. Katamarran faten giñan han beste etxera ta hola.

## 8.22. Marulandako etxean ezkutatuta

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/019
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:24:00. **Bukatu**: 00:28:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Kontxita eta Pako behin etxea zelan zegoen ikustera bueltatu ziren Marulandara, eta kotxe bat hurbiltzen ikusi zutenean, etxe barruan ezkutatu ziren. Handik behatu zuten zer gertatzen zen kanpoan. Haiek alde egiterakoan, auzoko beste batzuk, beraiek heldu zirela ikusi zutenak, hurbildu egin zitzaizkien. Baina goian zeuden soldaduek edo erreketeeek hura ikusi eta behera jaitsi ziren beraingana. Etxera sartu zitzaizkien dena begiratzera eta lehen han egondakoan nortzuk ziren galdetzera, ez baitzuten uste baserritar soilak zirenik.

### Transkripzioa

-Gero Gatzan geuzela egun baten Pako eta bixok fan giñan Maulandara, mendittik edo atzekaldetik edo, fan gintzan Maulandara, ba etxie ikusten zela dauen edo, zeoze erueten, erropan batzuk erueten edo fan gintzen. Pako mutikotxue zan, nik hamabost urte neuken, harek hamahiru urte. Eta fan giñen bixok, eta joan giñan bixok...

-Gabaz?

-Ez, ez, egunez. Jun giñan eta ikusi giñuan bentania zabalik, zabaldu giñuan ba bentanak zabaldu oriatzeko, ezta. Ikusi giñuan zetorrela han, Palazio bakitzu nun daon Maulandan? Bueno, gure illaran; gero errebueltat bat hantxe, hori errota esan-tsuten tokixa; da hantxe, ikusi giñuan etorten kotxe bat, ondio ikusten nau, berde bat edo grisa, holakotxe bat, brindautakua. Eta ikusi giñuan bentana (...); eta geratu gintzan barruan bixok bakarrik, geratu giñan. Eta etorri zan poliki, poliki, poliki, eta gu handik kortiña ostetik begira bixok. Eta gurian buelta ein zeban. Eta zaukan brindau horrek zeuken bi txulo alde bakoitzetik edo hiru, eta ikusten zan fusillak handik. Guk bagenkixen ze zan zegaittik gerra-denporan ikusten giñuan han da. Eta ra!, poliki, poliki buelta ein zeban, batek urten zeban, persona batek bera manejatzeko eta barriro jun zan. Eta jun zanian eta han errebueltia pasau zanian, urten giñuan kanpora

baiña han basarritarrak eta ikusi ein zebeu haura eta etorri zien, tabernie ikusi euen zabalik euzela, ta, klaro, desiatzen euzen etorteko, ha zan ba euren etxioi. Eta etorri zien kuadrilla bat, eta urten giñuan danok kamiñora eta Gatzatik soldauak ikusi eta tiroka hasi zien, da danak hanka ein zebeu zerok. Da gurian aitta ta ama larrituta, soldauak esan zotsen, zelan tiroka somau zebeu eta "a ver a donde tiraban" edo eztakit na nik zer, eta gu barruan atioke itxi gittuen barriro eta eurok hanka eiñ euen, baserritarrok fan zien etxera, Errotakua, (Iparretxeak) eta danak. Eta etorri zien soldauak. Soldauak ez, reketiak, bueno, igual da. Etorri zien eta atia jo oskuen. Zabaldu giñuan, eta ra!, ri-ra!, rebisau oskuen etxia, eta esan oskuen aber nun dauzen han kamiñuan ikusi zittuenak. Eta ba txera fan ziela. Aber zeintzuk zien; zegaittik haik ikusi ein zebeu haura, etorri zan zera, pentsau zebeu ba jentie itxi zebela han. Derrepente izen zan ba. Enda gero han beste etxian aber hango ordenia zan. Harek ez zebeu sinistuten harek baserrikuak zienik. (Esan gotsen) harek baserritarrok ziela, atia zabalik ikusi zebeuian etorri ein ziela, ezta. Tabernara etorri, guk atia itxitta geukela eta. Eta haura be ba haura esplikau gotsen zela izen zan kamioi haura. Eta harek jentia itxi zebela. Eta ezetz esan gotsen, batek zela urten zeban baiña zelan sartu zan barriro eta zelan jun zien.

-Hori blindauoi zer zan ba, milizianuena?

-Bai, milizianuena. Eta gero horrek fan zien, eta esan oskun han beste etxien aber zein dauen. Eta esan notsen neuk: Neuk erakutsikotsuet, hor ezte sartu iñobez. Neuk erakutsikotsuet, eta neuk erakutsi notsen soldauoi etxe dana. Kamararaiño fan gintzen, daba rebisau zebeu da. Da gero eurak eruan giñuen Gatzara, eurakin fan gintzen Gatzara. Eta gero handik egunetara, gero Gatzara botatzen zebeu, gorrixek botatzen zebeu morterua. Baiña morterua zer? Holakotxe berdetxo batzuk, oindio ikusten nau. Ezebez.

### 8.23. Gatzagatik Nanclares de Ganboara

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-056/020
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gatzagan ez zuten ia ezer apurtu. Beraiek soto batera joaten ziren ezkutatzera abioiak agertzen zirenean. Bonba asko botatzen hasi zirenez, Arabara joan ziren Langara Ganboara (Nanclares de Ganboa).

#### Transkripzioa

-Han elizia edo ez zebeu apurtu?

-Ez. Kristal batzuk bakarrik apurtu zien. Ni Jexusekin egon nintzen, beti faten giñen sotano batera. Etortzen zienien abioiak, abioi kaxkar batzuk eukien, ikusten gittuen, eta beti faten giñan sotano batera faten giñan. Jexusi esan nutsen: "Bapez, goazen, etxian egon bihou. Baiña gero botaten hasi zien eta gero sustau, ta fan gintzen han parra arte batera. Eta ikusten giñuan botaten da, ointxe, ointxe, ointxe! Eta nik holaxen tripa azpitan hartu Jexus, mutikotxua, holaxe hartu azpitan eta pentsetan neuan ba neu

hilgo nok baiña berau behintzat eztailla hil. Da urten giñuan handik be. Da gero eruen gindduen Gatzara eta bonbak botaten zittuen, txikixak,baaiña bonbak botatzen zittuen, eta han ezin geikiela egon eta gero egon gitzan, Araban egon gitzen. Oiñ urak hartuta dao. Nanclares de Ganboa. Nanclares de Ganboan egon giñen. Han pasau giñuan ba gerria abanzau artian.

#### 8.24. Gatzagako zortzi gazteren hilketa

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-056/022
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:29:48. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Nazionalak Gatzagako zortzi mutil gazte hil zituztenekoa kontatzen du. Batzokian aurkitutako zerrenda batean agertzen zirelako harrapatu zituzten. Beraiek ez zutela gerran parte hartu kontatzen du Kontxitak.

#### Transkripzioa

-Esan dozu zortzi lagun garbittu zittuela Eskoriatzakuak edo.  
-Gatzakuak, mutil gaztiak. Majuauak. Ondion izena batzuenak akordatzen naiz. (...). Gero horrek txofer horrek ekarri zittuen mutilok horra iges eitteko asmuaz. Da hantxe euzen kamiñuan, kamiñuan berbetan. Da gure amak esaten usten, e: "Horrek ze esaten ete jabiztan hor, zetan ete jabin?" Eta orduan txoferra sartu zan barrura eta esan zotsan gure amai: "Emilia, gauza bat esan bihotsut: dudan gauz, edo aurrera fan, gorrixetara fan, edo bertan geratu. Eztakigu zer ein". Gure amak esan zotsan: "Ze eiñ dozue ba zuek, ze eingotsue ba zuei? Tira, tira!" "Da aitta ta ama negarrez geratu dia etxian, esan zotsen mutil horrek. Eta esan zotsan: "Ze eingotsue ba". Nere amak esaten zeban: "Neri preguntau jostenen ba hori, e!". Gero geratu zien eta danak afusillau zittuen.  
-Gorrixak garbittu zittuen ala bestiak?  
-Nazionalak. Listia topau zeбен. Horrek guardixia, ba obligau ein zittuen eta guardixia ein zeбен mendixen Bitorixatik sartu eztaitezen nazionalak. Gatzan euen batzokixa, eta batzokixan euen hori listioi, eta batzokikuak be bai, batzokikuak aurrera fan zien, baiña harek ahaztuta edo laga zeбен listia hantxe, eta handitxik listatik danak hartu zittuen.  
-Mutil gaztiak eta danak garbittu? Eta eurak bape parte hartu barik.  
-Ezebez, harek ez zien ibilli, harek egon zien hantxe guardixia eitten. Akaso euko zeбен fusilla edo zeoze, baiña harek ez zeбен eiñ ezebez, zegatik sartu zienian, bueno!, harek hanka etxera. Ezebez, han tropia etorri zanian.

#### 8.25. Fusilatutakoak asko eta libratutakoak gutxi

- **Hizlaria(k):** Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-056/023
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:35:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Bere osaba preso egondakoa zen. Gatzagan eraman zituztenetatik bi libratu ziren, haietako bat bere osaba. Maringo batzuk ere eraman zituzten: bost hil zituzten, abadea tartean. Bere aitak pena handia hartu zuen, lagunak ziren eta. Jokoan aritzen ziren elkarrekin eta orduan gertatu zena kontatu zuen. Baserritar pila bat harrapatu zituzten.

### Transkripzioa

-Geure tio bat be egon zan kartzelan, haura librau zan, zegatik lelengo bi edo hil zittuen eta gure aittajauna fan zan Donostiara, baiña ordurako bestiak hildda euzen. Gure tio bigarren tandan eruan zeбен eta bigarren tandakuak etorri zien. Gatzan librau zien fan zienetik bi, geure tio eta beste bat, beste baserriko bat. Eta Maringuak eruan zittuen, abade bat, abadia be bai afusillau zeбен Maringua. Hor disgustua euki giñuan, gure aittai kulpia bota zotsen, zelan Arabara pasauta ta zelan zegon, kulpia, gure aittai fama txarra ifiñi zotsen, beragatik hil zittuela ta, lagunak zien da. Horrek Gatzakuok etxeuak zien beti, egunero egoten zien, zegatik han aldameneko taillarrien ibiltzen zien lanien eta beti geurian. Eta horrek Mariñen hil zittuen, oin be hemen be Bergan be ifiñittue; bueno, ointxe urte bi edo ifini zittuen aiuntamentuen, neu egon nintzen ikusten, nik haik danak ezagutzen nittuen. Da andra bat, beti be ataraten daue zerien, buruko paiñoluaz da, Emeteri. Ondo akordatzen naiz. Mariñen hil zittuen, bost uste dot ziela, eta egon zien geurien aittakin jokuan. Egunero egoten zien. Eta horrek gorrixetara barik nazionaletara... Nazionalak be ez, gu bixen bittartien gengozen; baiña pasau zien, pastoriak zien, eta pasau zien ardixekin, zegaittik bestelan han ezin leikian mendira eruen, mendixan milizianuak abitzen, eta horrek pasau zien Atxorrotz aldera, bestekaldera. Ez euen frenteik eta ezebe ez euen hor. Eta pasau zien. Eta hor baserri baten, gure baiño beheratxuagoko baserrixan lo eitten zeбен horrek, eta jokuan ibilli zien geurian aitta ta danak, eta geratu zan bat -ondion ikusten nao-. Esan zotsan, Martin zeukan izena, esan zotsan: "Hi, Martin, geratu hari, kamaran eitten dozue lo hor, geurian eingok lo", zegatik jokuan akabau barik abitzen, harekin abitzen. "San Martin, geratu hari, geratu hari, geure kamaran lo eingok, jokuan segidu biha juau". Geratu zan eta hauraxe salbau zan bakarrik. Bestiak han hil zien. Gero hango basarriko gizona, Teodoro, hango gizona ibili zan gabien, gero soldauak kontau zeбен Gatzan, "a ver cómo le habían llevao a aquellos". Gatzan euki zittuen gau baten. Eta "Cómo le habían llevao". "Que habían andado haciendo señas a Jarindo". Jarinddora, bai. "A Jarindo que había estado haciendo señas a la noche". Eta, pentsaizu, ibilli ei zan farolaz oillo bat otan falta eta oillua topatzen. Baiña orduen ezebe ez zan biher hiltteko, e. Harek ez zeuken beste delittoik ezebez. Eta gure aittei etorri jakon, ondio ezagutzen dot dendara ekartze zebena Bitorixako almazen batekua, Zarate, almazen batekuak ekarten eban jenerua, maiorista zan eta gurera ekartzen zeban. Eta haxe etorri zan nausi batekin. Horrek be entzun barik daz horrek gauzok, eztostazue sekula itxi esaten horrek gauzok.

## 8.26. Baserritar fusilatua

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Kontxita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-056/025
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 00:35:43. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gatzagako kartzelan gaua pasa zuten baserritarrek kamioian eraman zituzten elkarri lotuta. Zarate aitarengana joan zen galdetzeraz ea haietako bakoitza, banan bana, zer zen. Aitak lagunak zirela erantzun zion. Guztiak eraman zituzten kamioian eta denak hil zituzten. Jendeak bere aitari leporatu zion hilketa horien errua. Maringo abadea eta bere lagun baten osaba, "tuertua", lotuta eraman zituzten, eta abadea bakarrik hil zuten.

### Transkripzioa

-Gero gure aittai etorri jakon hori, Zarate. Jenerala edo ezta kiti ze zan, estrellak edo bazeukan behintzat. Ta neuk ikusi neban, neuk be urten neban eta ikusi neban. Eta kanbioien Gatzatik, horrek kartzelan Gatzan gau bat pasau horrek basarritarrok, auzen hantxe kanbioian, orduantxe jaroi.

-Bizirik ondio.

-Bai, lotuta, alkarri lotuta hantxe. Eta gure aittei, etorri zan barrura hori Zarate eta esan zotsan: "Prudencio, ven, ven", eta jun zan kotxera, neu ba aittakin fan nintzen eta ikusi neban. Eta aittai preguntau zotsan horrek banan-banan-banan zertzuk zien, eta gure aittak esan zotsan: "amigos", eta bategaittik akordetan naiz gure aittak zela esan zotsan: Auxibarkua, caserío Ausibar. Eta esan zotsan. "Y este?" Beste danagatik esan zotsan "pues amigos, estabamos jugando a cartas y eso y le llevaron así, y así, y así. Aittak esan zotsan, neu be hantxe nenguan. Eta esan zotsan, "ese es otra persona que lo que crees tú" Gizona zan onaua! Esan zotsan: "Ese no le ha votao seguro que ni a nacionalistas siquiera. ese a Franco. Orduntxe itxuria botaziñuak zien, etxat akordetan ondo. Baiña aittak esan zotsan: "ese es otra persona que lo que crees tú" Bueno, hortxe akabau zan; eruan zittuen kanbioien eta fan zien. Etorri zan barrure, eta gure amak esaten usten: "Ai, gure aitta, horrek hor eta gure aitta, aber zeozer pasatzen jakuen gero, zeoze pasatzen jakuen horrei" tta. Aitta sartu zan barrura eta esan utsen: "Ai, estoy de miedo", erderaz eitten zeban. "Pero si he hablado muy bien de ellos! Qué les iba decir pues de esos? Si eran todos amigos, y con lo que eran" "Y si pasa algo?", amak esan zotsan. "Y si pasa algo?" Que si pasó, mataron todos. Eta, klaro, gero etxeak gure aittan kulpia (euki zebe) zegaikit harek ikusi ein zebe. Mondrauen edo egon zien egun baten eta etxeako familixakuok bisittau zebe eta gure aitten kulpia euki zebe. Gure aitta negarrez egon zan esan euenien que el tenía las culpas. "Yo cómo estaría, si siempre estoy fuera y qué casualidad que estaba en casa". Eta hori badakiti hola zana zegatik neu hantxe neguan da. Eta amai esan zotsan: "Qué va, si de todos he hablado lo que eran" Y de este de Auxibar me ha dicho eso. Tomás, Tomás Auxibar. Pues de este me ha dicho eso. Ya le he dicho que no, que es un hombre bien esto. "Ese es otra persona que lo que crees tú", esan utsela.

-Bera be garbittu.

-Danak. Han eruen zittuenak, aurreko gabekuak, danak. Harek pentsaizu, gorrixetatik, nazionalak ez euzen guretan ondio, Gatzan euzen, baiña pasau zien hemendikaldera ardixegaittik.

-Horrek fusillau nun ein zittuen, Mondrauen edo Oiartzunera eruan zittuen?

-Ez, ez. batian Hernanin esaten zeбен. Da gero Maringo abadia eruan zeбен, eta (egunsentixen?) tiro batekin, Mugarte, Mariñen bakitzu nun dagon, Maringo etxia. Haxe azkenengo auzua. Maringo, zela euken izena, "Tuertua", beti "Tuertua" esaten gutsen, tuertue zan, da nere lagun baten tio zan. Da ha abadiakin lotute eruan zeбен, lotuta. Kanbioi bi eruan zittuen, han beste bat zan. Eta lotuta eruan zeбен eta librau ein zeбен hori. Tuertua librau ein zeбен eta abadie hil ein zeбен.

## 9. Ekonomia eta industria

### 9.1. Herriaren bilakaera

- **Hizlaria(k):** Arrieta Gallastegi, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** ESK-014/039
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:56:35. **Bukatu:** 00:57:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Eskoriatza noiz hasi zen hasten; nola. Langileak kanpotik etortzen hasi zirenean, kasu askotan Gatzagan hartzen zuten etxea.

#### Transkripzioa

- Etxiak be hasiko zien egitten?

- Bai. Etxiek eitten hastia kosta jakon, baiña... Gu geu bizi gan etxiek, Dorleta, Dorletako auzua, uste dot hogeta hemeretzi urte daukela.

- Eta ohitturia izaten zan etxe berdin baten pare bat familixa bizi izatia, ero?

- Ez. Hori pasau zan gero. Kanpotarrak, e, hemen industrie hasi zaniен kanpotarrak etorten hasi zienien-ta, orduen bai, pisu bat topau ezkerok ba familixa bi ero hiru igual, ta ahal dan moduan. Baiña bestela aurretik ez. Gero pasau zan, langilliak kanpotik etorri zienak, Zamoratik-eta, askok lelengo entradie Gatzagan eitten euen, Gatzagan etxiek hutsik azen ba, eta gero, apur bat konsegiduten euenien ba Eskoritzara saltua; Eskoritzara, Atxabaletara be bai, Mondrauera be bai... Ta bestela ba, Gatzagatik-eta bizikletan fabrikara, Atxabaletara-eta bizikletan.

### 9.2. Armagintzan lanean

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/020
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:31:43. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

- **Laburpena:** Gerra garaian zortzi hilabetez aritu zen Aretxabaletako fabrika batean lanean. Armagintzako fabrika zen, gerrarako armak egiten. Bertan burutzen zuten lana azaltzen zuen. Bernardino Zubia zen bertako ugazaba. Gerra denboran ugazabak diru asko irabazi zuen eta fabrika handitzeko erabili zuen.

### Transkripzioa

- Zuk zeuk fabrikari ez dozu lanik eiz.
- Bai, gerra denboran ibili nintzen, zortzi hilebetien edo ibili nintzen, baiña. Ez, gero gerrie akabau zan eta gerrie akabau zanian urten euen etxeko lanak eitten eta gehixao ez nintzen fan fabrikara.
- Ze fabriketan ibili zinen?
- Hor Zubia edo, Atxabaletan zerien ibili nintzen. Oin uste dot...
- Zer egiten zeuen?
- Ni neu ibili nintzen denboran kañoiendako, obusendako espoleta muturrak eitten gittuen.
- Armak eitten zien?
- Bai, gerrarako, han ibili nintzen denboran, gerrarako espoleta-muturrak; ekartzen zittuen halakotxe barrak hau tamaiñuen eta ha barria ba halako zatixetan eta (...) zeuen da gero ha makiña baten figura bat ataraten utsien da gero beste baten beste figura bat ataraten utsien, eta gero neuk eitten nauen lanien beste figura bat, ia han konpleto. Itten gauen erdixen holako zulo bat, zulo mehe-mehetxo bat orratza sartzeko tamaiñokue edo gehitxuao, ta harixa eukitten euen eta harixorregaz muturrien granadiak koloketako, eta euko euen pistoiak, ez dakit.
- Horrek zien kañoientzako?
- Bai.
- Fabrikiak zela euen izena?
- Izena? Benardiño zan bertako uezaba ta. Ez dakit.
- Beste armarik eitten euen?
- Ez, han dana espoleta kontue ibili zan ni ibili nintzen denboran.
- Benardiño esan dozu?
- Benardiño bai, Zubia. Oin tallerroi haundi eindda dauke.
- Eta zu fabrika horretan ze garaitan egon zihen?
- Bai, azkenengo otubrien fan nintzen eta handixek abrilla gerra-denboran, ba abrilla edo hortxe.
- Hogeta hamaseiko urritik hurrengo urteko abrilla arte?
- Ez, gerria akabau baiño lehenao zerien, otubrien fan nintzen lanera.
- Hori izango zan hogeita hamaseia. Gerria hasi zan urtia ala...
- Ez, hirugarren urtia, hiru urte ez euen ba aguentau gerriorrek?
- Holakoren bat, bai.
- Ba hoixe, hirugarren urtia.
- Hogeta hemeretxian orduan?
- Bai sartu gintzen, gero hemeretxixe.
- Osea ke espoletak eitten.
- Espoletak eitten, bai. Gero ha gastau zanian ba klaro, geldittu gitzen danok alkarri begira, eta etxera ez giñuen iño be bieldu, baiña danok alkarri begira. Ta haik gerra denboran uezabok diru asko atara euen, libre atara euen, irabazi euen, da aumentetako zeorri, fabrikiori aumentetako; eta gero zan ba, euen atzekaldie eta berau letxe terrapena (terraplena), terrenua zerien da, ibili gintzen, ni neu ibili nintzen denboran San Juanak arte ibili nintzen da abilldik, eta karro batzue mutillok ha lurra kendu eta erreka eruten. Orduan ba iñok ez euen altoik eitten, da erreka eruten

geuen.

- Errekara uretara botatzen zuen ala erreka ezkiñan.

- Atxabaletako mataderixa atzekaldien euen errekkara zeroi ta hara erueten geuen lurroi. Bai. Ez euen iñok be ezer esaten da. Orduen gerra ondorien lenengotan ezebez.

## 10. Natura

### 10.1. Erlojurik gabe, nola jakin ordua?

- **Hizlaria(k)**: Pagaldai Iñurrategi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Parra, Leire
- **Erref**: ESK-028/006
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:09:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Zer ordu zen jakiteko inguruko baserrietan gerizpea noraino heltzen zen begiratzen zuten. Eguerdiko hamabietan auzoko elizako kanpaiak jotzen zuen.

#### Transkripzioa

Eta askotan "ze ordu ete dok" eta guk begiraketan gauen Atailunera, "bentanaraiño aillegau dok eguzkixa, handik keizpia, hamabixak dittuk", hola ibiltten giñen. Gero hamabixetan eta jotzen auen, kanpaiak jotzen auen. Oñ automatikue ifiñitta dau Bolibarren be bertan joteko, baiña lehenau hamabixak ordue adelantau zaniñen, ordu batetan jotzen zan hamabixak. "Hamabi zaharrak, hamabi barrixak dittuk". Bai. Oñ ordu bi [harek kontatzen] eguzkittik, baiña lehenao egon zan zati baten ordubete adelantaute. Ordu batetan jotzen auen hamabixak. Guretzako bazkaittara fateko, eta orduen faten giñen bazkaittara.

### 10.2. Basoak. Langintza zaharrak: ikazkintza eta karobiak

- **Hizlaria(k)**: Zubia Zabala, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: ESK-032/003
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Natura » Meteorologia  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Basoak nolakoak ziren. Oraindik ere pagadiak daude. Lehenago ikatza egiten zen; zein garai izaten zen egokiena langintza horretarako. Egurra noiz botatzen zuten. Mirenen etxean ikatza eta karea ere egiten zuten. Karea soroetan botatzen zen.

### Transkripzioa

- Baso inguruak-eta kanbixau dia edo lehenau, ba, ez dakit, oin piñua be ikusten da...
- Bai, gehixau dau, bai. Han nere basarrixen ondiokan be pagadixek badaukie, e? Mendixen. Bai. Lehenau iketza itten zan. Martixen botaten zan, martiko ilbeheran, egurre, ta gero setienbrien edo larriñak-eta eitten zienien, ezta? Garixek trillau ta [haik] eitten zienien handik eta San migeletara —hemen da San Migel, ezta?—, handik eta San migeletara, ba, gizonak-eta eitten zittuen, ba, mendixen iketzak. Bi txondor edo hiru edo... Ba, bueno, dirue be nunbaitetik biher zan ta...
- Eta txondorrek ze eitten zian auzolanian edo...?
- Ez, ez, bakotxak beriek. Bakotxak beriek.
- Orduan, basarri bakoitzak bi-hiru...
- Bai, segun... Batzuk eitten euen beste batzuk ez. Gure etxien itten zan. Ta karobixe erre be bai solorako karie botateko.
- Txondorra, esan dozu, egurra martixan botatzen zala...
- Martiko ilbeheran paguei moztu abarrak, “bota” hori da.
- Hori ze izaten zan...
- Iketza eittekie.
- ... bakoitzak beran basoko...
- Bai, bai, bai. Bai, bere mugarrixekin daz, bakotxak bere basuek die. Ta, ba, han... Ni gaztie nitzenien? Bai, bai. Ta karobixe erreten be bai akordetan naz.
- Eta ikusten zenduan, orduan, zuk aitta...
- Kargetan be bai eta kargau zelako ondo...

## 11. Lanbideak

### 11.1. Aita arotza; ama eta umeak etxean

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Argarate, Gregoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-045/003
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Aita, bere lanagatik, gutxi egoten zen etxean. Amak erositako lursailetan denetik landatzen zuten. Geroago ganaduak jarri zituzten etxean, uztarrirakoak barne. Umeek egiten zituzten lan batzuk (itaurrean, esaterako) traktoreak etorri zirenean ezkutatu ziren. Bederatzi anai-arreba izan ziren, Gregoria laugarrena.

### Transkripzioa

- Eta etxien sororik eta bazeukatzuein?
- Ez dotsut ba esan? Amak soruak eta erosi biher harrapaten auen diru horreaz, aittak irabazten euenaz; eta aittak, aitta ez zan metiuten, aitta ez zan metiuten, aitta bere lanien, arotzetan.
- Baiña etxien ortua edo zerbait euko zeuein. Olluak-eta.
- Ene! Euen zenbat terreno! Sobran euen lobiak terrenuak egindda.
- Biña orturik bazeukatzuein, ortua?
- Bai, ortua eukiko ez geuen ba?

- Eta sorua plantauta, patatia-eta?
- Klaro, terrenuek amak erosten zittuenak, patatie ta artue ta babie ta, danetik.
- Eta orduen, ganaurik ez bazeukatzuein ittaurren eta ez zeuein itten.
- Gero ganauak ipiñi gittun guk.
- A bai?
- Bai, uztarrikuek be bai. Lana in ezkerro egin itten da aurrera, aurrera.
- Zu zeu ittaurren eta ibilitta zauz?
- Bai, ittaurren bai horixe, bai horixe! Gero honeik [...] traktoriek kendu euen eta grabiekin lana, eskerrak horitxek etorri zirelako, bestela hemengo umiok danok, bata ittaurren eta bestien zerien, hala.
- Zenbat anae-arreba ziñain?
- Beratzi. Baiña haundixak onduen urten oskun. Hemen maristak dabitzen, ez dakitzu?
- Eskoriatzan?
- Bai. Han ibili zan eskolan. Beste biaz, eta horrek eskolia ikasi zun, eta hala, Bittorixara.
- Fan zan?
- Bai, andriaz ta aide. Etxien bestiok.
- Eta zuk zenbagarrena ziñan beratzi anae-arreba horrein artian?
- Nik nauken aitzia zaharragua, beste bat be bai aizta zaharrena, bigarrena, hirugarrena, ni laugarrena naz.
- Laugarrena ziñan.

### 11.2. 63 urtean bordatzen

- **Hizlaria(k):** Pagalday Garro, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-046/024
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:50:31. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**  
 Lanbideak » Sastreak, jostunak  
 Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Arrasaten eman zioten brodatzaile titulua. Orintxe arte jardun da Karmen bordatze lanetan. 63 urte daramatza bordatzen jadanik. Eta umeak hazi, denda zaindu eta etxeko lanak egiten ere bai.

#### Transkripzioa

- Orduen eskolan be bastante profesio, karrera be atako zendun zuk ez? Bordadore karrera, ezta? badakotzu zuk titulua, diplomia?
- Titulua bai, goixen dauket.
- Nere amak be badako.
- Madrillen hori, osea Mondraoen, hori atara neuen Mondraoen. Ta gero Bilbon egon nintzen, makiñie erregale osten tia batek, ta hori makiñaori erregalau arte ba aman zahartxuenein neben, baiña ederra makiñie, makiñie ederra da. Ondiok be hor dau, goixen.
- Orduen zuk gero bordaitten-ta urtietan eingo zendun lan?
- Bai! Ointxe arte, ointxe operau nintzenien itzi nabere, baiña ondiok be lan banak hortik erdizke hortik badauket eta aber aurtengo udabarritxuen denpora hobetxuau eitten dabenien eitteko asmue badauket. Bueno ba pentsaizu “desde el año cuarenta y cuatro que empeze” zemat urte die?

“Sesenta y...” .

- Joe samurre da esatia.
- “Sesenta y cinco años”, ba hirurogeita bi urtien jardun dotsat bordetan.
- “Sesenta y cinco”en jentia jubilau eitten da.
- Ni ez naz jubilau e!
- Baiña “sesenta y cinco años” lan eindde ez, e!
- Hori da, lana ein barik.
- Hirurogeita bostera arte lana ein ta gero jubilau, ta zu hirurogeita bost in dittuzu bordaitten.
- Bai, bai, bai. Hirurogeta hiru. “Para más seguridad” hirurogeta...bueno ez, porke oin dauket, hirurogeta hamazortzi, “setenta y ocho”, hirurogeta hamazortzi, oin hiru urte “setenta y cinco años”, “que empeze con catorce”,bai, “sesenta y dos, sesenta y tres años”.
- Ta gero osea bordaittetik aparte umiek hazi...
- Dendia bai ama hil arte. Ama be egon zan, baiña ama hil zala ya hogeita hamalau urte die. Manejau eitten da.
- Biheko.
- Biheko gaiñera, biheko gaiñera!

### 11.3. Arotz lanetan

- **Hizlaria(k)**: Fernandez de Arroiabe Pagoaga, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ESK-048/015
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:18:34. **Bukatu**: 00:19:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Arotz lanetan ere aritutakoa da Eskoriatzan. Bergarako eskolara joaten zen bitartean aritu zen arotz.

### Transkripzioa

- Zu bizikletan ibiltzen zan garaixan lanik eitten zen edo edo etxien eitten zen lana?
- Lehelengoko karpinterixan ibili nintzan Eskoriatzan karpinterixa baten.
- Arotz?
- Bai. Bergaran bizi dan arrebia zaharrenak, esan osten beran familixako zozer zien hanguk eta: “koño, zegaittik fan behintzet, beti be hara ta”. Karpinterixan hantxe ba zeozetan, karpintero ikasi ba ezebez, etxeko etxin zeozer egin bihar bada bai baiño bestela ezebez.
- Eta zemat urtekin hasi ziñan aroztegixan?
- Hor, orduen hamalau urte-edo ez zan bihar izaten?
- Osea eskolia eskola akabau eta aroztegixara fan ziñan lanera?
- Arotzeixan nabillela nabillen zerien, arotzeixan eta gero Bergarakoa zera.
- A, bixak eitten?
- Bai. Bixek eitten edo zeozer eitten neban.
- Eskolia eta arotzeixa.
- Goxien hor egon apur baten eta gero bizkletan fan edo ez dakitt zer eitten nauen, bai? Holako bat. Baiña bizikletarik kendu bez.

#### 11.4. Egurra eta zerrategiak

- **Hizlaria(k):** Agiriano Arenaza, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ESK-051/019
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:30:41. **Bukatu:** 00:31:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Legutioko zerrara egur asko bidaltzen zuten. Aretxabaletan ere bazegoen beste zerrategi bat, baita Arrasaten ere. Egurrak kamioia zegoen lekura arte animaliek tiratutako gurdiekin garraiatzen zuten.

##### Transkripzioa

-Hemen Bilarrealeko batek zerrie potentie euken eta hara egur asko faten zan. Neuk be saldu nutsien eta beste batek be bai eta egur asko eruten euen. Gero Atxabaletan be beste zerra bat hor auen. Harek be zerrau euen. Mondrauen be Atxa izena euken batek serria potente euken, martxa haundixen, da hak be itxi utsen da.

-Egurra zela mobitzen zeuen, karreteruak ala kamioiak ala zela?

-Ba kamioia aillegetan zan lekua kamioia eta bestela ganauokin hartu burdixan eta burdixa kargauko euen lekura ekarri tta.

-Zeu ibili ziñan karretero?

-Ez, ni karretero enintzan ibilli. Guk baserrixen gizon bat lanien engaiñetako beste beti euki dou lana, bai.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Artoaren inguruko azalpenak (ESK-001/005)

Artoa noiz ereiten zen. Laietan egiten zuten. Arto-zuriketa. Errota kontuak. Artoa nola jaten zuten.

### 2. Janariaren inguruko kontuak (ESK-001/006)

Janariaren inguruko kontuak: babak eta urdaia ia egunero jaten zuten.

### 3. Gaztaina sasoia (ESK-001/007)

Gaztaina sasoia noiz izaten zen. Haga erabiltzen zuten "moskolak" zuhaitzetik botatzeko. Burdian otzarak kargatu eta baserrira eramaten zituzten. Gaztaina-ganbara. Gaztaina egosiak; zartaginean erreta.

### 4. Baserri-jabe edo errenteroak (ESK-001/008)

Baserriaren egitura. Errentero izatearen inguruko kontuak. Etxe-jabeari kapoiak, arrautzak, gari burdikadak eman behar izaten zizkioten. Ugazabaren eta errenteroen arteko harremana herrikoren baten bitartez.

## **5. Ira-batzera basora (ESK-001/009)**

Ira-batzera basora. Artoa ereiteko, laietan egiten zuten. Golde txikia. Golde handia, geroago etorritakoa. Idiekin lan egiten zen soroan. Garia igitaiarekin ebatzen zen. Laietan egiteko auzolana. Baserriko tresnak.

## **6. Erlijioaren garrantzia (ESK-001/020)**

Jaunartzea egin ahal izateko dotrinaren inguruko galderak ongi erantzun behar abadearen txartela jasotzeko. Ezkondu ahal izateko ere abadearen galderak erantzun beharra.

## **7. Gaztaren inguruko azalpenak (ESK-001/021)**

Ardiak mendira nora eramaten zituzten. Gazta egitearen inguruko kontuak. Gatzaren gazura txerriei ematen zitzaien.

## **8. Txerriak nola hazi (ESK-001/022)**

Txerriak txerritegian izaten zituzten. Txerriak haztearen inguruko azalpenak.

## **9. Ardiaren garrantzia familiaren ekonomiarentzat (ESK-001/023)**

Ardiekin ateratzen zen irabazia. Ardi-txakurrik ez. Artzain ibiltzearen inguruko kontuak.

## **10. Baserriko bizimoduaren aldaketa (ESK-001/024)**

Baserrien inguruko soroak, zelaiak... hesiekin itxita. Baserriko bizimodua asko aldatu da.

## **11. Ardiaren garrantzia familiaren ekonomiarentzat (ESK-001/025)**

Lehen ardia ondo aprobetxatzen zen: esnea, ilea, bildotsak... Artilea koltxoiak egiteko erabiltzen zen. Oiloak baserrian libre ibiltzen ziren.

## **12. Baserriaren egitura (ESK-001/026)**

Baserriaren egitura. Ate handi bat zegoen lehenago.

## **13. Oiloen inguruko azalpenak (ESK-001/027)**

Oiloak eta txitak etxean hazten zituzten. Oiloa lokatu eta sasi artean arrautzak ipintzen zituen.

## **14. Ura eramateko ontziak (ESK-001/028)**

Ura karriatzeko ontziak. Pitxerra eta "edarra".

## **15. Arropak garbitzeko teknika (ESK-001/029)**

Arropak garbitzeari, "pujetie". Barrika batean sutako-hautsa botatzen zen eta ur beroarekin arropak garbitzen ziren. "Lexipotue".

## **16. Lihoaren inguruko lanak (ESK-001/030)**

Lihoaren inguruko lanak. Lihoa (linua) beratzen edukitzen zen osin batean. Sikatutakoan, kardatu egiten zen "drangan". Ehulea Eskoriatzan.

### **17. Lihoarekin egindako arropa (ESK-001/031)**

Lihoarekin (linuarekin) egindako izarak oso latzak izaten ziren.

### **18. Artilea, lihoa (linua) (ESK-001/032)**

Artilearekin galtzak egiten zituzten. Lihoarekin haria nola egiten zen.

### **19. Umetako jolasa: "banderaka"; Garizuman txirikilarekin (ESK-001/033)**

Umetako jolasak. Banderaka: umeak bi taldetan banatuta eta erdian makila bat trapu batekin. Garizuma denboran txirikilarekin jolasten zuten.

### **20. Umetako jolasak: "kakatorreka", "pote-poteka" (ESK-001/034)**

Umetako jolasak: kakatorreka; pote-poteka.

### **21. Umetako jolasak: tortoloska, sokasaltoka (ESK-001/035)**

Umetako jolasak. Neskak eta mutilak banatuta. Tortoloska, sokasaltoka.

### **22. Umetako jolasa: "txantxitxuske" edo txingor gainean (ESK-001/036)**

Umetako jolasak. "Txantxitxuske" edo txingor gainean.

### **23. Eskoriatzako pertsonai ospetsuak (ESK-002/007)**

Lehenagoko biztanleak; pertsonai ospetsuak.

### **24. Herriko pertsonai ospetsuak; aberatsak. (ESK-002/008)**

Lehenagoko biztanleak, pertsonai ospetsuak, jauntxoak. Palazioa izandakoa. Etxe garrantzitsuak. Gaztañadui abizenaren jatorria. Auzoko baserriak. Baserrirako bidea.

### **25. Auzoaren antolaketa; baserriak (ESK-002/009)**

Auzoko baserriak. Baserrirako bidea.

### **26. Eskoriatza eta Aretxabaleta bat zireneko kontakizunak (ESK-002/010)**

Eskoriatza eta Aretxabaleta bat zireneko kontuak. Auzoak, herria. Antzina alkatearen boterea zein izaten zen.

### **27. Auzoak, baserriak (ESK-002/011)**

Auzoak, baserriak. Dorretxeak. Baserriaren historia.

### **28. Auzoko mutilak gau-eskolara joaten ziren (ESK-002/014)**

Gau-eskola. Abadeak ematen zituen klaseak. 12 urtetik gorako mutikoak joaten ziren; zer ikasten zuten. Klaseak euskaraz ematen zituen. Euskara, erdara. Matematika erdaraz. Dotrina ikastea oso garrantzitsua.

### **29. Neskak ez ziren gau-eskolara joaten (ESK-002/015)**

Gau-eskolara neskak ez ziren joaten. Auzo guztietan ez zeuden horrelako eskolarik.

### **30. Gerra garaiko kontuak: bonbardaketak, frontea... (ESK-002/016)**

Gerrako kontuak. Hegazkinen kearen pean. Soldadutza Huescan, Teruelen. Gerraren gogortasuna. Gerran zauritutakoa; sendatu zenean, berriz frontera. Somosierra. Etsaien hegazkinak.

### **31. Gerrara zenbat urterekin joaten ziren (ESK-002/017)**

Gerrara zenbat urterekin joan zen; zenbat urterekin joaten ziren gazteak. Soldadutza kontuak gaur egun.

### **32. Gerrako kontuak: Teruelgo ofentsiba (ESK-002/018)**

Bertakoak non ezkutatu ziren. Teruelgo ofentsiba. Hildakoak inguruan.

### **33. Gerrako kontuak: trintxerak Apotzaga auzoan (ESK-002/019)**

Trintxerak Apotzaga auzoan. Milizianoek alde egin zuteneko kontakizuna. Babeslekuak; txabolak. Toponimia. Erreketeak, milizianoak.

### **34. Baserriko bizimodua: erlijioaren garrantzia (ESK-002/031)**

Baserriko bizimodua. Arrosarioa errezatu eta ohera. Gosea.

### **35. Baserriko bizimodua: erlijioaren garrantzia (ESK-002/032)**

Arrosarioa gauean. Eskolan errezatzen. Erlijioa; komunismoa. Erlijioaren indarra; infernua. Sermoiak.

### **36. Eskolara joan aurretik esne-saltzen (ESK-003/007)**

Herriko eskolara joaten zen. Erdaraz ikasi zuten. Esne-saltzen herrira. Auzo-eskola. Irakasleak. Egur-burdikada zenbatean saltzen zuten. Gazta saltzera herrira.

### **37. Bilboko lehengusuei ogi zuria; umetako gaiztakeria (ESK-003/008)**

Bilboko lehengusu batzuk izan zituzten etxean eta amak haiei ogi zuria ematen zien. Horretaz konturatu zenean umetan egin zuen gaiztakeria.

### **38. Gerra garaian jatekorik ez (ESK-003/009)**

Abadearen inguruko kontuak. Gerra garaian gertatutakoak. Arabatik ardoa, ogia, olioak ekartzen zuten.

### **39. Dotrina ikastearen garrantzia (ESK-003/010)**

Dotrina ikastearen garrantzia. Auzo-eskolan besterik ez zen ikasten.

#### **40. Umetako kontuak (ESK-003/011)**

Umetan gertatutakoa. Esne bero-beroa edan eta aho guztia erre zuenekoa.

#### **41. Gari-jotzea gauez (ESK-003/014)**

San Inazio bezperan gari-jotzea gauez egin zutenekoa.

#### **42. Erreketeak konfesatzen (ESK-003/015)**

Erreketeak konfesatzen.

#### **43. Gerra garaiko kontuak (ESK-003/016)**

Gerra garaian, gauez guardia egin behar, eta orduko pasadizoa.

#### **44. Soldadu eraman zuteneko kontua (ESK-003/017)**

Militarrek harrapatu eta soldadu eraman zuten. Zorriak. Mojekin gertatutakoa Durangon.

#### **45. Gatzagara itzulera (ESK-003/018)**

Gatzagara itzuli zeneko kontuak. Zorriak.

#### **46. Gerra garaia baserrian (ESK-003/020)**

Gerra garaia baserrian. Bonbardaketak sentitzen zirenean, kaleko jendea baserri ingurura joaten zen, babestuagoa egoten zen eta (Eskoriatza, Aretxabaletakoak). Beraiek ere baserria laga eta txabolara joan ziren.

#### **47. Gerra garaian jende askori jaten eman behar (ESK-003/021)**

Gerra garaian, labeko suan, 10-12 ogi inguru egiten zituzten. Jende askori jaten eman behar.

#### **48. Ezkontzak zelakoak (ESK-003/024)**

Ezkontzak zelakoak izaten ziren. Sakramentuak. Antzina erlijio gehiago. Asko aldatu dira gauzak. Gripe garaia.

#### **49. Bezperak (ESK-003/025)**

Bezperak. Abadeak dotrinaren inguruko galderak egiten zizkien gizon eta mutilei.

#### **50. Ezkontza eguna (ESK-003/028)**

Ezkontza eguna. Zer bazkaldu zuten. Eztei-bidaia Donostiara.

#### **51. Eliza kez bete zueneko pasadizoa (ESK-003/029)**

Bezperak. Kea elizan.

#### **52. Monagilo zeneko pasadizoa (ESK-003/031)**

Monagilo zenean, ezin latinez ikasi. Dotrinatik ihes egin zuenekoa.

### **53. Liho-festa (ESK-003/032)**

Liho-festa (linu-festa). Errondak. Haria egiteko baserriko neskak bazkalostean elkartu egiten ziren eta iluntzean mutilak joaten ziren.

### **54. Igande goizetan Arrasatera tratura (ESK-003/033)**

Igande goizetan Arrasatera joaten ziren plazara saltzera.

### **55. Ganadu-feriak (ESK-003/034)**

Ganadu-feriak.

### **56. Umetako gaiztakeriak (ESK-004/003)**

Abadeari marrubiak harrapatu zizkion.

### **57. Basomutil ibilitakoa; ikazkintzaren inguruko azalpenak (ESK-004/005)**

Basomutil bezala ibilitakoa. Txondorra nola egiten zuten. Ikazkintzaren inguruko aipamenak.

### **58. Ikazkintzaren inguruko aipamenak (ESK-004/006)**

Txondorrak egiteko sasoi egokia. Ikazkintzaren inguruko azalpenak.

### **59. Ikatza nora saltzen zuten (ESK-004/007)**

Ikatza nora saltzen zuten. Lehenengo Gasteizera eramaten zuten; gerora Unión Cerrajerara saltzen zuten.

### **60. Karobien inguruko azalpenak (ESK-004/009)**

Baserriaren izenaren inguruan hainbat aipamen; karobiak. Karea nola egiten zen; prozesua.

### **61. Anaia txirrindularia (ESK-005/002)**

Anaia zaharrenak 1935ean soldadu zegoela etxera itzuli eta Elgetako txirrindulari lasterketa irabazi zuen. Lasterketa hartan 30 duro irabazi zituen. Etxera pozik itzuli eta aita errieta egin omen zion, txirrindularitza ez baitzuen gustuko. 23 urte eta erdi pasa zituen etxera bueltatu gabe eta ondoren Frantzian basoan ibili zen lanean. "Desertorea" zen eta etxera bueltatzeko beldurrez egoten zen.

### **62. Txirrindulari lasterketetako epaile (ESK-005/003)**

Anaia gerra aurretik hasi zen txirrindularitzan eta Estebanen zaletasuna hortik etorri zen. Lasterketetako "juez-arbitroa" izan zen eta federazioan ere sartuta egon zen.

### **63. Eskoriatzako kirol-elkarteko kide (ESK-005/004)**

Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta inguruetako txirrindulari lasterketak aipatzen ditu. "Sociedad deportiva Eskoriatza"-n sartua zegoen eta beraiek antolatzen zituzten lasterketak. Txirrindulariak kanpotik ekarriak izaten ziren.

#### **64. Txirrindularitzako epailearen lana (ESK-005/005)**

Txirrindularitzako epailearen lana zein izaten zen azaltzen du. Eskoriatzako lasterketetan autoa herriko batek uzten zien eta medikua ere bere autoan joaten zen. Eskoriatza eta inguruko lasterketa garrantzitsuenak eta txirrindulariak aipatzen ditu: Matxain, Goenetxea aita, etab. Eskoriatzan eta Aretxabaletan bietan zegoen ekipoa.

#### **65. Eskoriatzan Langarikak korritu zuenekoa (ESK-005/006)**

Eskoriatzan 500 pezeta ordainduta (ordurako asko) Langarikak korritu zuenekoa. Eibar eta Arrateko lasterketak aipatzen ditu.

#### **66. Ezkondu ondoren bizikletara itzulera (ESK-005/008)**

Ezkondu ondoren seme-alabak izan eta emaztearekin, koinatarekin eta lagun batzuekin mendira joaten ziren egunpasa. Umeak koskortu zirenean denbora libre gehiago zuela-eta lasterketetako bizikleta erosi zuen. Urtean, 5.000 kilometro egiten zituen. Zaragozako lasterketa batera bi aldiz joan zen.

#### **67. Lehenengo bizikleta kanbioduna 1935ean ikusia (ESK-005/009)**

Lehenengo bizikleta kanbioduna 1935ean Marino Altunari ikusita ezagutu zuen. Aurrekoak piñak aldatuz ibili behar izaten ziren eta plato bakarrekoak izaten ziren. Lasterketetako gurpilak egurrezkoak izaten ziren aluminiozkoak jartzen hasi ziren arte.

#### **68. Zaragozara txirrindulari lasterketara (ESK-005/010)**

Zaragozara lehenengo aldiz joan zenean, lagun batekin autoan joan eta hurrengo egunean atera zen hango txirrindulari lasterketan. Ondo antolatutakoa izaten zen Zaragozako lasterketa; 136 kilometro egin zituen eta lehertuta bukatu zuen. Espainia osotik 600 lagun inguru elkartzen ziren lasterketa hori korritzeko.

#### **69. Bizikletak alkilatu egiten ziren (ESK-005/012)**

Eskoriatzan bizikleta erostea nobedade handia izaten zen Esteban gaztea zela. Askok alkilatu egiten zituzten Belokirenean lanera joateko eta baita arratsaldeetan buelta emateko ere.

#### **70. 13 urterekin lantegira lanera (ESK-005/013)**

13 urterekin hasi zen lantegian lanean. Lehenengo soldata. Lagun bat eta biak 14 urte betetzear zituztela lantegitik bidali zituzten sindikatu kontu bategatik eta gero hartu zituzten berriz 14 bete zituztenean. Soldata amari ematen zioten.

#### **71. Mojek alde egin arte komentua bizileku (ESK-005/014)**

Komentuan bizi izan ziren eta mojek alde egin zutenean etxeak egin zituzten. Esteban jarri zuten errentak kobratzeko administratzaile eta hargatik etxea dohainik tokatu zitzairen. Gero bizilekuz aldatu ziren birritan, azkena kooperatiban egindako etxe batera.

## **72. Erromeria amaitzean neska-laguntzera (ESK-005/017)**

Gaztetan dantza asko egin zuen. Musika banda eta soinu-joleak izaten ziren; erromeria bukatzean neska-laguntzera joaten ziren. Neska-laguntzera joan eta bati gertatutakoa kontatzen du.

## **73. Inguruko herrietako jaiak (ESK-005/018)**

Erromeriak auzo guztietan izaten ziren; batzuk aipatzen ditu. Bandak jotzen ez zuenean, inguruko baserri bateko itsua joaten zen soinua jotzera. Eskoriatzan San Pedroak, Aretxabaletan Andra Mariak, Gatzagan Dorletako Ama Birjina eta beste zenbait jai ospatzen ziren eta Esteban denetara joaten zen dantza egitera.

## **74. Konfesatzera joan arren beldurrik ez (ESK-005/019)**

Sarri joan behar izaten zuten konfesatzera, baina damurik gabeko bekatuak izaten ziren eta berriz dantza lotua eta bestelakoak egiteko desiatzen egoten ziren.

## **75. Soldadutzako pasadizoa (ESK-005/020)**

Soldadutzan gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

## **76. Dantza hobeto zeinek egin apustua (ESK-005/021)**

Igandero joaten ziren erromeriara. Igurtziren bat egin ahal izateko ezkutuan ibili behar izaten zuten. Txirrindulari lasterketa bat ikustera joan eta gertatutako pasadizoa kontatzen du. Dantza soltean lagunarteko apustua egiten zuten, ea zeinek hobeto dantza egin.

## **77. Inguruko herrietako euskara (ESK-005/022)**

Aita dantza soltean oso trebea zen. Leintz Gatzagakoa zen aita eta ama Oñatikoa. Oñatiko euskara ezberdina zen Eskoriatzakoarekin eta Gatzagakakoarekin alderatuta. Bergarakoa ere Eskoriatzakoarengandik ezberdina zen.

## **78. Lagunei hika, apaizei berorika (ESK-005/023)**

Eskoriatzan bi lagunei bakarrik hitz egiten die zuka, gainontzekoei "hi" eta emakume denei zuka beti. Lagunartean eta auzoetan dena hika egiten zen eta etxean beti zuka. Seme-alaba gazteenei beti zuka egiten zitzairen. Apaizei berorika egiten zieten.

## **79. Aita Kubako gerran soldadu (ESK-005/024)**

Aita Kubako gerran ibili zen. Soldadu trajea 10 duro ordaindu behar izaten zuten; bigarren jantzialdirako beste hainbeste eta hirugarrengoa 90 pezeta. Ordurako diru asko zen, eta astoa saldu behar izan omen zuten hura ordaintzeko.

## **80. "Txakur konbirau" izatea (ESK-005/027)**

"Txakur konbirau" izatea zeri esaten zaion azaltzen du pasadizo baten bidez.

### **81. 46 urtez Tesa lantegian lanean (ESK-005/028)**

46 urte baino gehiago ibili zen Tesa lantegian lanean. Aurretik Aretxabaletako lantegi batean ibili zen, baina ez zuen gogoko eta utzi egin zuen. Laneko pasadizoak kontatzen ditu.

### **82. 100 egunez ikazkin, egunean zazpi pezeta irabaziz (ESK-005/029)**

Lantegia utzi ondoren ikazkin lanetan ibili zen egunean zazpi pezeta irabaziz. 100 egun egin zituen egunero baba beltza janez. Laneko pasadizo bat kontatzen du. Tesa lantegian ibili zeneko kontuak eta lan-baldintzak.

### **83. Eskola kontuak (ESK-006/001)**

Umetako kontuak. Eskolan, Zarimutz eta Marin auzoetako umeak. Taberna ondoan zegoen eskola. Dña Petra irakaslearen inguruko kontuak.

### **84. Eskolan erdaraz (ESK-006/002)**

Eskolan guzti-guztia erdaraz ikasi zuten.

### **85. Erljioaren indarra (ESK-006/003)**

Igandero mezara joaten ziren eta ondoren bezperetara Zarimutzera. 14 urtera arte dotrinara joan zen. "Gauzak horrela zirelakoan..."

### **86. Dotrina, Jaunartzea eta garizuma (ESK-006/004)**

Dotrinara ume guztiak joaten ziren. Jaunartzea bederatzi urte ingururekin egiten zen. Garizuman abadearengana joan behar izaten ziren txartela eskuratzeko. Maiatzean, hilabete osoan Zarimutzera joaten ziren mezara. Gaztetako gertakizuna.

### **87. Kanpaiak (ESK-006/005)**

Kanpai klaseak: gauean angelusa; goizean harri-kanpaia; eguerdian Pater Nosterra. Neskak eta mutilak, andra-gizonak banatuta jartzen ziren elizan.

### **88. Jauna hartzeko baraurik elizara (ESK-006/006)**

Erljioaren indarra. Guztia zen bekatua. Jauna hartzeko 24 ordutan baraurik egon behar izaten zen; ezer jan edo edan gabe.

### **89. 'Hijas de María' kongregazioa (ESK-006/007)**

Erljioaren indarra. Guztia zen bekatua. Gurasoei errespetua; mutilekin zernolako harremana... "Hijas de María" kongregaziokoa ezkondu arte. Hilero konfesatu eta jauna hartzen zuten. Estandartea eta medailatxo bat eramaten zuten neskek.

### **90. Erromeria (ESK-006/008)**

Marulandako erromeria, izen handikoa inguru osoan. Soinujoleak. Behin erromerian zeudela gertatutakoa. Barbara eta lagun bat mutilez jantzi zirenekoa.

### **91. Garizuman, txirikilarekin jolasean (ESK-006/009)**

Garizuma heltzen zenean, ilusio handia txirikilarekin jolasteko. Txirikilarekin nola jolasten zen azaltzen du. Neska-mutilak elkarrekin jolasean.

### **92. Umetako jolasak (ESK-006/010)**

Umetako jolasak: kaka-torreka; itsu-itsuka; sokasaltoka. Orduko bizimodua nolakoa zen. Aramaitako kanpaiarekin batera, etxera joaten ziren.

### **93. Neska-mutilen arteko harremana; desberdintasunak (ESK-006/011)**

Neska-mutilen arteko harremana. Etxera joateko orduan neskak lehenago itzuli behar izaten ziren. Eskolan, jolasean, elkarrekin ibiltzen ziren.

### **94. Aita, arotza eta zentralaren arduraduna (ESK-006/012)**

Umeak aitari-amari laguntzen. Aita, arotza; Dorletan ere jardun zuen urte askoan arduradun. Aita zentralaren arduraduna zen. Argindarra Marin auzoan.

### **95. Amaren zereginak (ESK-006/013)**

Amaren zereginak. Abereak berak gobernatzen zituen. Ez zituzten ardirik izaten.

### **96. Erromeriak; dantza egitea bekatu I (ESK-006/014)**

Neska-mutiletan. Erromeriak Marulandan, Gatzagan. Dantzan jakitearen garrantzia neskengana gerturatzeko. Garai batean dantzan egitea bekatua zela eta neska batzuk ez zuten dantzarik egiten. Arotzeria lana dirutan ordaindu beharrean, lanaren truke egiten z

### **97. Erromeriak; dantza egitea bekatu II (ESK-006/015)**

Anaia misiolari joandakoa Kubara. Barbarak erromerian dantza egiten zuela eta horren inguruko kontuak. Gauza txikiena ere bekatua zen orduan. Lehenagoko bizimodua nolakoa zen.

### **98. Neskatan-mutiletan (ESK-006/016)**

Neskatan-mutiletan. Senarra nolakoa zen.

### **99. Ezkontzak baserrietan (ESK-006/017)**

Zenbat urterekin ezkondu zen. Arrioa zelakoa izaten zen. Ehunezko izarak. Maiorazgoa, gehienetan gizonezkoa.

### **100. Jatekoaren inguruan (ESK-006/019)**

Egunero-egunero zer gosaldu, bazkaltzen zen. Morokila; porru-patatak; ogia; artua; berakatz-zopa; arto-zopak; e.a. Goserik ez zuten pasatzen.

### **101. Arto-zuriketa (ESK-006/020)**

Arto-zuriketan. Neska-mutilak auzolanean.

### **102. Afalondoko giroa (ESK-006/021)**

Aitak afal-ostean arrosarioa errezatzen zuen. Aita eta ama, biak kontalariak. Kontuak entzutea gauza polita dela dio. Toponimia. Antzinako kontu bat aipatzen du.

### **103. Neskame joatea nahi ez (ESK-006/022)**

Familia kontuak. Anai-arreba ugari; gaztetan neskame joateko aukera izan zuen baina ez zen joan; baserriko bizimodua gustukoa zuen. Neska gehienak neskame; umezain; e.a.

### **104. Bataioaren inguruko ohiturak (ESK-006/024)**

Emakumeak umea izan eta bataioa noiz egiten zen; umeak etxean edukitzen ziren. Ama, kalera irteten hasi aurretik, elizara joan behar zen bekak kentzera. Aita eta ama puntakoak. Umeen izenak. Lehenagoko bizimodua.

### **105. Ahaztu ezineko gerrako oroitzapen (ESK-006/025)**

Gerra Zibila. Barbarak 10 urte inguru zituen. Gauza asko ez ditu ondo gogoratzen, baina bonbardaketak ezin izan ditu ahaztu. Gordelekuak.

### **106. Aretxabaletatik ihesi (ESK-006/026)**

Aretxabaletatik Gatzagara eta gerora Nanclaresera joan ziren ihesi gerra garaian. Itzuli zirenean, berriz hutsetik hasi behar. Tropak; "gorriak". Harrapaketak.

### **107. Aretxabaletatik ihesi (ESK-006/027)**

Barbararen aitak Nanclaresen 3 anaia zituen. Aretxabaletan ez zen gerrarik sumatzen; eskolara ere joaten ziren. "Abuelo" hegazkina. Bonbardaketak Aretxabaletan.

### **108. Gabonak (ESK-006/029)**

Ospakizunak. Gabonak zelan ospatzen zituzten. Jatekoa; opariak. Errege eguna. Lehenagoko bizimodua, gaurkoa.

### **109. Etxejabeari errenta nola ordaintzen zitzaion (ESK-008/008)**

Baserri gehienak erretero bezala bizi ziren. Gerora, poliki-poliki, baserritar gehienak baserria erosi zuten. Errenta, hasiera batean, gariarekin ordaintzen zen. Garai hartan, lantegi gutxi zeuden herrian ere, eta ez zen erraza bizimodua ateratzea. Kapoiak ere ematen zizkioten etxejabeari urtero Gabonetan. Etxejabearen administraria.

### **110. Erromeria ezagunak inguruan (ESK-008/010)**

Aita Gatzagakoa, baina sarritan kanpoan lanean ibilitakoa. Lehenago, inguruko herrietakoak ere ez ziren ezagutzen. Erromeria ezagunak inguruan.

### **111. Gatzagako erromeria; trena eta Gasteizko feria (ESK-008/011)**

Erromeriak betidanik egon izan dira. Gatzagako jai nagusia irailean izaten da eta berak betidanik ezagutu du bertako erromeria. Otxandio eta inguruko herrietatik gainera jende asko joaten zen Gatzagara oinez. Eskoriatzara jendea

nondik etortzen zen. Trena noiz ipini zen ongi gogoratzen du. Gasteizen zein egunetan izaten zen feria; aita sarritan joaten zen Eskoriatzatik bertara oinez, trena egon aurretik.

#### **112. Aita, trenbidean lan egindakoa (ESK-008/012)**

Aitak trenbidean lan egin zuen. "Trozue" zaindu behar izaten zuen. "trozueta lana". Gaztetan ere ikazkin ibilitakoa ezkondu aurretik. Trenbideko lana nolakoa zen. Lan-baldintzak; orduka kobratzen zen. Neguko hilabetetan, lanik ez.

#### **113. Trenbidearen ibilbidea; lehenengo trena (ESK-008/013)**

Bernabe mutikotxoa zenean hasi zen trenbidea egiten. Lehenengo trena noiz etorri zen ongi gogoratzen du. Trenbidearen ibilbidea. Trenari buelta ematen zitzaion. Gerora Gasteiz-Maltzaga ibilbidea osotu zen. Lurrunezko trena; tren elektrikoa.

#### **114. Trenaren inguruko kontuak (ESK-008/014)**

Trenaren inguruko kontuak. Korreoa ekartzen zuten trenez; merkantziak gerora hasi ziren trenez garraiatzen. Merkantziak eramateko indarrak ez trenak.

#### **115. Ume-umetatik, ahal zen bezala bizimodua aurrera ateratzen (ESK-008/015)**

Umetako kontuak. Morroi ibilitakoa umetan; gerora kanpoan ere lanean ibilitakoa. Lantegiak hasi zirenean Eskoriatzan, hemen ere jardun zuen. Bera gaztea zenean, mutiko asko kanpora joan behar izaten ziren lanera, Castilla aldera edo ahal zen tokira.

#### **116. Baserriko umeak eta eskola (ESK-008/016)**

Eskolara gutxi joandakoa. Lehenagokoek, eskolarik ez zela behar uste zuten. Eskoriatzan klausurako mojak zeuden garai batean, eta 6 urte aurreko mutikoak bertara joaten ziren eskolara. Gerora, maistroarengana pasatzen zituzten mutilak. Baserrian lanik ez zegoenean joaten zen eskolara. Gau-eskolak negu aldean izaten ziren.

#### **117. Herriko eskola; auzoetako eskolak (ESK-008/017)**

Eskolan zer ikasten zuten. Arrosarioa erreztatzen zuten. Okerren bat eginez gero, makilakada bat jasotzen zuten. Kanpotik etorritako irakasleak ziren denak. Auzoetan, sakristauak ematen zituzten klaseak, eta sarritan bertakoak izaten ziren, euskaldunak. Herriko eskolan horrelakorik ez du ezagutu gerra ingurura arte.

#### **118. Etxejabe handiak Eskoriatzan (ESK-008/018)**

Neskak mojetan ikasteko aukera. Herriko eskola. Mutikoa zenean, herria oso txikia zen. Familia guztiak elkar ezagutzen ziren. Familia aberats batzuk ere bazeuden, urtean zehar kanpoan bizi zirenak eta udan bertara etortzen zirenak. Etxejabe handiak ziren gainera; baserri asko zituzten beraien esku.

### **119. Eskola kontuak; hezkuntza errepublika garaian (ESK-008/019)**

Eskola kontuak. Klaseak erdaraz izaten ziren. Bera umea zenean, irakasle euskaldunik ez zegoen Eskoriatzan. Errepublika garaian maisu-etxeak egin ziren auzo gehienetan. Umeen artean eskolan erdaraz egin behar izaten zuten; diziplina handia. Errepublikaren ondorenean etorri zen askatasun pixka bat eskolan ere. Primo de Riveraren diktadura.

### **120. Eskola kontuak; fraideak Eskoriatzan (ESK-008/020)**

Eskolan gauza gutxi ikasteko aukera; oso gazterik utzi behar izan zuen eta. Gerora, bere kabuz ikasitakoa gau-eskolan... 14 urtera arte izaten zen eskola gehienez. Marianistak (maristak?); San Viatoristak Eskoriatzan.

### **121. Umetako bizimodua; dotrina (ESK-008/021)**

Umetako jolasak. Astegunetan lan egin behar izaten zuen eskolatik iritendakoan; igandetan bakarrik izaten zuten denbora jolasean ibiltzeko. Dotrinara ere joan behar izaten ziren. Dotrinara joateko kanpaiak jotzen zituzten 3 bider, abisu bezala. Dotrina Parrokian ematen zuten. Amak ere etxean erakusten zien dotrina. Amak ez zuen eskolarik, baina dotrina osoa buruz zekien.

### **122. Erlijioaren indarra (ESK-008/022)**

Lehenengo jaunartzea. Konfesatzera joatea ere derrigorrezkoa zen. Abadeen sermoiak gogorak izaten ziren. Errespetua baino, beldurra izaten zitzaion abadeari. Ezkondutakoan, familia ekartzea derrigorrezkoa, bestela abadeak gogor egiten zuen.

### **123. Abade, mediku eta botikariari urtero garia (ESK-008/023)**

Baserritarrek abadeari urtero-urtero zerbeit entregatzen zioten (garia). Botikariari ere garia ematen zitzaion; medikuari ere.

### **124. Medikua zaldiz baserrietara (ESK-008/026)**

Medikua baserriz baserri ibiltzen zen zaldiz. Medikuairena lana.

### **125. Erlijioaren indarra gizartean (ESK-009/002)**

Medikuari, abadeari edo botikariari berorika egiten zitzairen; errespetu handia. Abadeen indarra gizartean. Eliza paretik pasatzerakoan aitaren egin behar izaten zen; poliki-poliki ohitura guzti horiek galtzen hasi ziren.

### **126. Elizkizunak; kofradiak (ESK-009/003)**

Klase desberdinetako elizkizunak. Kofradien inguruko azalpenak.

### **127. San Joseko kofradia (ESK-009/004)**

Elizako kofradiak. 13 urterekin kofradian sartzeko obligazioa zegoen. San Joseko kofradia.

### **128. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak (ESK-009/006)**

Ehorzketak goizetan izaten ziren. Hiletara etortzen ziren senide eta lagunei bazkaria ematen zitzaien. Gastu handia izaten zen. Gerraostean ehorzketak arratsaldean egiten hasi ziren eta ohitura horrekin amaitu zen.

### **129. Umetan morroi joandakoa (I) (ESK-009/008)**

Umetan morroi joandakoa, 12 urterekin. Orduan egin behar izaten zituen lanak aipatzen ditu; lurketa, esate baterako. Gabonetan itzultzen zen etxera; ohitura zaharrak (bakailaoa etxera).

### **130. Umetan morroi joandakoa (II) (ESK-009/009)**

Umetan morroi joandakoa; Gabonetan itzultzen zen etxera eta orduko ibilerak.

### **131. Umetako ibilerak (ESK-009/010)**

Umetako ibilerak. Morroi joan zeneko kontuak.

### **132. Umetako kontuak; okerkeriak (ESK-009/013)**

Morroi egon zeneko kontuak. Neskatan-mutiletan. Umetako okerkeriak.

### **133. Neskatan-mutiletan; erromeriak (ESK-009/015)**

Neskatan-mutiletan. Erromeria kontuak. Elosun, 14 urtetik beherakoak, ezin izaten ziren erromeriara joan.

### **134. Umetako bizimodua baserrian; aldaketak (ESK-009/016)**

Morroi egon zen 4 urtean eta ondoren etxera itzuli zen. Orduko oroitzapenak. Lehenago lur-sail guztiak erein egiten ziren; gaur egoera oso desberdina da. Baserriko bizimodua aldatzen hasi zen poliki-poliki: jendea lantegietan hasi zen lanean...

### **135. Gaztetako ibilerak (ESK-009/017)**

Gaztetako ibilerak. Erromeria kontuak. Elosun 14 urtetik beherako umeak ezin izaten ziren erromeriara joan. Mendi-erromeriak; San Pedroak.

### **136. Gaztetako ibilerak; jai giroa (ESK-009/018)**

Gaztetako ibilerak. Herriko jaiak; musika. Inguruko herrietako giroa: Arrasate; Eibar... Pilota partidak Eibarren.

### **137. Mendi-erromeriak (I) (ESK-009/019)**

Mendi-erromeria ezagunak inguruan: Atxorrotz; San Adrian, etab. Ilundu aurretik amaitzen zen musika.

### **138. Mendi-erromeriak (II) (ESK-009/020)**

Mendi-erromeriatan dantza egiteko mutilek ordaindu egin behar izaten zuten. Soinujolea. Neskei dantza egitea nola eskatzen zitzaien azaltzen du.

### **139. Dantzaldia herriko plazan (ESK-009/021)**

Musika igandetan egoten zen. Inguruko jai garrantzitsuak noiz izaten ziren; San Bernardo.

#### **140. Musika banda Eskoriatzan (ESK-009/022)**

Musika banda Eskoriatzan; musika igandetan egoten zen.

#### **141. Zinea Eskoriatzan (ESK-009/023)**

Gerra aurreko urteetan ez zen zinerik egon Eskoriatzan; gerraostean non ipini zuten. Inguruko herrietara ere joaten ziren pelikulak ikustera.

#### **142. Inguruko herrietara jai egunetan (ESK-009/024)**

Inguruko herrietara joateko joera handia zuten. Auto gutxi zegoen garai batean; alokairuko automobil bat zegoen herrian; taxia.

#### **143. Gaztetako kontuak (ESK-009/025)**

Umetan fraka motzak erabiltzen zituzten, 14 urte ingurura arte. Gerora, fraka luzeak janzten zituzten. Alokairuko autoak Eskoriatzan.

#### **144. Eibar gerraostean (ESK-009/026)**

Eibarko giroa gerraostean. Frontoian pilota partidak ikusten zituzten; ondoren, dantza egoten zen. Inguruko herrietan nola ikusten zuten Eibar. Herriaren nortasuna. Gaztetako ibilerak.

#### **145. Gaztetatik lanean (ESK-009/028)**

Lan-kontuak. Non hasi zen lanean; zer egiten zuen.

#### **146. Industria Eskoriatzan; immigrazioa (ESK-009/029)**

Lantegi garrantzitsuak Eskoriatzan gerra aurretik; gerraostean sortutakoak. Gerraosteko egoera: kanpotik jende asko etorri zen lanera; etxerik ez guztientzat... Gerraosteko urteetan eman ziren aldaketak. Immigrazioa; integrazioa.

#### **147. Kooperatibismoa (ESK-009/030)**

Kooperatiben sorrera. Kooperatibismoa Eskoriatzan.

#### **148. Mendizaletasuna (ESK-009/033)**

Nagusitan mendira joateko zaletasun gutxi.

#### **149. Beste auzo batzuetako baserriak (ESK-010/009)**

Berez Marin auzokoak ez ziren baserriak, baina parrokiak bat egiten zutenak: Gatzikarro, Auzibar, Arotzibar. Baserri hauek zergaitik bilakatu ziren parrokiak Maringoak; historia ezagutzen du

#### **150. Ohitura zaharrak: bataioak (ESK-010/010)**

Bataioen inguruko azalpenak. Ahalik eta lasterren bataiatzen zen umea. Linboaren beldurra. Aita eta ama-pontekoak. Amaren eliza-sartzea. Ohitura zaharrak.

#### **151. Ohitura zaharrak: haurdunaldia; jaiotzak (ESK-010/011)**

Nagusiei entzundako antzinako kontuak: ama teilapean; abortua izanez gero, umea teila barruan lurperatzen zuten.

### **152. Ohitura zaharrak: familiaren hilarria (ESK-010/012)**

Etxe bakoitzak bere hilarria zuen elizan. Maiorazgoa ezkontzen zenean, emazte berria etxekoandrearekin joaten zen elizara eta familiako hilarriaren ardura hartzen zuen bere gain. Garai batean elizak izan duen garrantzia eta eragina gizartean.

### **153. Inguruko auzoetako baserriak (ESK-010/013)**

Berez Marin auzokoak ez ziren baserriak, baina parrokiak bat egiten zutenak: Gatzikarro, Auzibar, Uletza. Arrupe baserria, Zarimutzeko parrokia izatera pasa zen.

### **154. Santa Luzia eguna; rogatibak (ESK-010/014)**

Maringo auzoko Parrokia eta ermita. Santa Luzia egunean egiten ziren jaiak; ospakizunak: rogatibak. Euria egitea nahi zutenean, San Lorenzo eramaten zuten prozesioan. Etxe bakoitzetik kideren batek hartu behar zuen parte ospakizun hauetan.

### **155. Sorgin kontuak Aramaion (ESK-010/015)**

Aramaio inguruko kontu zaharrak. Sorgin kontuak. On Joxe Miel Barandiarani eman zizkion berak ahoz jasotako ipuinak. Ahozko transmisioa belaunaldien artean.

### **156. Sorgin kontuak Marinen (ESK-010/016)**

Sorginen inguruko ipuina. Gauean goruetan egiten geratzen zen etxekoandrea; katu beltza. Marinen kontatzen zen ipuin hau; berak Barandiarani jakinarazi zion.

### **157. Ahozko transmisioa; antzinako ipuinak (ESK-010/017)**

Sorgin kontuak. "Gauekoa". "Eusko Folklore". Ahozko transmisioa belaunaldiz belaunaldi.

### **158. Anbotoko Mari (ESK-010/018)**

Anbotoko Mari. Eusko Ikaskuntzak Carmelo Etxegarairen omenez egindako Kongresoa; txostenak liburu batean bildu zituzten.

### **159. Anbotoko Mariren inguruko kontakizuna (ESK-010/019)**

"Anbotoko se&ntilde;oria"ren inguruko kontakizuna. Oriamenditik Anbotora joaten zen. Barandiaranek jasota ditu herri desberdinetan ezagunak diren bertsioak.

### **160. Don Joxe Miguel Barandiaran Gasteizko seminarioko irakasle (ESK-010/020)**

Barandiaran seminarioan ezagutu zuen. Gerra garaian kanpora irten behar izan zen. Hainbat arlotan aditua zen: matematika, elektronika, fisika... Lehenengo emisora ere berak sortu zuen. Oso gizon jakintsua eta era berean apala. Arkeologian aditua. Irakasle bezala, gizon zorrotza.

### **161. Gasteizko seminarioa; irakasleak (ESK-010/021)**

Gasteizko seminarioan irakasle desberdinak izan zituzten; gai bakoitzean aditu batek ematen zuen klasea. Barandiaranekin ikasten zituzten gaiak: antropologia, etnografia... Irakasle bezala nolakoa zen.

### **162. Gasteizko seminarioa eta don Manuel Lekuona (ESK-010/022)**

Gasteizko seminarioan klaseak erdaraz ematen zituzten. Don Manuel Lekuonarekin euskara ikasten zuten. Hori zen euskaraz ikasten zuten ikasgai bakarra. Don Manuel Lekuona nolakoa zen. Euskarazko klaseak noiz eta zergatik hasi ziren. Arturo Campión.

### **163. Errepublika garaia Gasteizko seminarioan (ESK-010/024)**

Don Manuel Lekuonaren klaseak nolakoak izaten ziren; zein izaten zen bere helburua. Euskaraz ez zekitenekin erabiltzen zuen pedagogia. Errepublika garaian abertzaletasuna indartzen hasi zenean, seminarioan ere politika gaiak sartzen hasi ziren eta euskara, galtzaile irten zen.

### **164. Don Manuel lekuona eta Joxe Miguel Barandiaran (ESK-010/025)**

Politika gaiak seminarioan sartu zirenean, don Manuel Lekuona oso kritikatu izan zen euskara irakasten zuelako. Gizon ona zen. Barandiaran kontu-kontari ibiltzen zen gazteenekin.

### **165. Don Manuel lekuona eta Joxe Miguel Barandiaran; Bergarako seminarioa (ESK-010/026)**

Don Manuel Lekuona eta Joxe Migel Barandiaranen arteko harremana nolakoa zen. Gerra Zibila hasi zenean, Bergaran ireki zuten seminario bat eta irekiera ekitaldian, gauza gogorak esan ziren.

### **166. Umetan, meza-laguntzaile Marin auzoan (ESK-010/027)**

Marin auzoan meza-laguntzaile izatera nola iritsi zen. 9-10 urterekin hasten ziren monagilo izaten. Meza-laguntzailearen zereginak zeintzuk izaten ziren.

### **167. Meza-laguntzailearen egitekoak (ESK-010/028)**

Meza-laguntzaile bezala abadeari lagundu ahal izateko, latin pixka bat ere ikasi behar izaten zuten. Monagiloaren egitekoak zeintzuk izaten ziren. Errogatibak, prozesioak.

### **168. Bedeinkazioak egitera baserrietara (ESK-010/029)**

Baserrietara bedeinkazioak egitera joaten zen abadea; monagiloa laguntzaile gisa joaten zen.

### **169. Elizakoak eramatera baserrietara (ESK-010/030)**

Elizakoak eramatera nola joaten ziren abadea eta meza-laguntzailea.

### **170. Don Juan Ibargutxi Marin auzoko abade (ESK-010/031)**

Don Juan Ibargutxi, Marinen egon zen abade. Euskaltzalea; Arana Goiriren eskolakoa.

### **171. Trenbidearen inguruko azalpenak: noiz egindakoa; nork... (ESK-013/001)**

Bera jaio zenean trenbidearen inguruko lanak martxan zeuden; handik bi urte ingurura amaitu zuten Gatzaga eta Eskoriatza arteko zatia. Kanpotik jende asko etorri zen trenbidean lan egitera. Trenbidea nondik-norako bidea egiten zuen. Ordurako sozialistak ugaritzen hasita zeuden inguruan. Don Juan Ibargutxik aipatutako kontua. "Maketoak". Bertako jendeak ere trenbidean lan egin izan zuen; idiekin materiala garraiatu... Mapan, Eskoriatzako tren geltoki zaharra.&nbsp;

### **172. Trenbidean lan egitera etorritakoen eta bertakoen arteko harremana (ESK-013/002)**

"Maketoak". Kanpotarren eta bertakoen arteko harremana nolakoa zen. Baserri askotan apopilo egoten ziren kanpotar batzuk. Garai hartan baserrietan diru gutxi egoten zen eta horrelako diru-sarrerak oso garrantzitsuak izaten ziren. Medikuei, albaitariari ere gariekin ordaintzen zitzairen garai batean. Errenteroak; etxe-jabeak. Medikuei lastoa ere ematen zitzairen.

### **173. Trenbidean lan egitera etorritakoen integrazioa (ESK-013/003)**

Trenbidean lan egitera kanpotik etorritako gizon asko, behin lana amaitu ondoren bertan geratu ziren; ez guztiak, baina bai gehientsuenak. Integrazioaren inguruko kontuak.

### **174. Trenbidearen ibilbidea (ESK-013/004)**

Trenaren, trenbidearen inguruko azalpenak. Mekolalden Zumarragatik zetorren trenarekin bat egiten zuen, eta Maltzagara joateko bidez aldatzen zuen.

### **175. Ikatzezko trenak. Baserritar asko Gasteizera feriara (ESK-013/005)**

Trenaren, trenbidearen inguruko azalpenak. Gerra aurreko urteetan sartu zuten elektrizitatea bidean; ordura arte ikatzarekin zebilen trena. Trenean lan egiten zuten langileak. Gasteizera baserritar asko joaten ziren trenez gaztainak saltzera.

### **176. Maltzagako geltokia (ESK-013/006)**

Maltzagako geltokia nolakoa zen. Bertan 3 norabidetako trenak elkartzen ziren. Trenbideko langileak.

### **177. Umetako okerkeriak trenbide inguruan (ESK-013/007)**

Umetan trena ikustera joaten ziren zubi gainera. Umetako gaiztakeriak. Trenaren ordutegia.

### **178. Mekolaldeko geltokia (ESK-013/008)**

Mekolaldeko geltokia. Trenaren inguruko aipamenak.

### **179. Inguruko herri eta auzoetatik baserritar asko Gasteizera joateko jokera (ESK-013/009)**

Gasteizera joateko joera handia izaten zuten. Bertara joaten ziren gaztainak, sagarrak saltzera. Gasteiz nolakoa zen bera umea zenean. Marin, Zarimutz, Mazpelatik baserritar asko joaten ziren Gasteizera. Mazpelak hasieran ez zuen tren geltokirik.

### **180. Gasteiz, Arrasateko feriak. Umea zenean oso auto gutxi (ESK-013/010)**

Gasteizen ostegunetan egoten zen merkatua. Ganadu-feria garrantzitsua Arrasaten izaten zen. Behin Arrasatera oinez joan zen aitarekin; auto bakar bat ikusi zuten. Bera umea zenean, oso auto gutxi ikusten ziren inguruan. Arrue, Beroa lantegiko ugazaba, autoa zuen bakarrenetakoa garai batean.

### **181. Arrasatetik ogi-saltzailea Gatzagara (ESK-013/011)**

Arrasatetik ogi-saltzailea joaten zen Gatzagara zaldiz. Toponimia. "Txintxaleku". Gatzagako igoeran, aurre-idiak jartzen zizkioten guriari.

### **182. Gerra aurreko urteetan oso auto gutxi (ESK-013/012)**

Inguruan ikusi zuten lehenengo autoa, Arrue-rena; nolakoa zen. Oso auto gutxi ikusten ziren gerra aurreko urteetan.

### **183. Eskoriatzako medikua zaldiz ibiltzen zen (ESK-013/013)**

Eskoriatzako medikua zaldiz ibiltzen zen baserriz baserri. Soldadutzatik etxera gaixorik iritsi zen Jose. Orduko medikua nor zen gogoan du.

### **184. Seminaria joateko erabakia (ESK-013/014)**

Seminaria joateko erabakia nola hartu zuen. Ume-umetatik monagilo ibilitakoa zen Jose. Seminarioaren egoitza aurretik Andoainen egon zen; gerora Saturrararen jarri zuten (bera sartu baino bizpahiru urte lehenago). Saturrarango kontuak. Jose Mari Arizmendiarieta.

### **185. Gasteizko seminario nagusia; II Errepublikaren aldarrikapena (ESK-013/015)**

Seminarioa nolakoa zen. Jantokia; kapila txiki bat; logelak... Beraiek Saturrararen zeudela, Gasteizko seminario nagusi berria amaitu zuten (1930). Inaugurazio ekitaldira Alfonso XIII joan zen. Urtebete beranduago Errepublika aldarrikatu eta erregea Espainiatik joan behar izan zen. Orduko gogoetak. Ikurrina.

### **186. Gasteizko seminario nagusiaren irekiera ekitaldia (ESK-013/016)**

Gasteizko seminarioaren inaugurazio ekitaldia nolakoa izan zen. Euskarazko olerki bat ere irakurri zen.

### **187. Saturrarango seminarioa: zer ikasten zuten (ESK-013/017)**

Saturrarango seminarioa. Zer ikasten zuten bertan: latina; historia, e.a. Nongo mutilak batzen ziren bertan. 4 urtetan bertan ikasi eta ondoren Gasteizera joaten ziren.

### **188. Seminarioko bizimodua nolakoa zen (ESK-013/018)**

Saturrarango seminarioan bizimodua nolakoa zen; egunerokotasuna. Zenbat urterekin sartzen ziren mutikoak bertan.

### **189. Abadeekin hartu-emana; irakasteko metodologia desegokia (ESK-013/019)**

Irakasleekin, abadeekin hartu-emana nolakoa izaten zen. Pedagogia aldetik ez zeuden ongi prestatuak. Lehenengo urtean asko kostatu zitzaion latina ikastea.

### **190. Hilean behin eskutitz bat bidaltzen zuen etxera (ESK-013/020)**

Irakasleekin, abadeekin hartu-emana nolakoa izaten zen. Etxekoekin harremanak nolakoak ziren; hilabetean behin karta bat jasotzen zuten. Gabonetako oporrak eta udakoak, etxean ematen zituzten.

### **191. Umetako jolasak Saturraranen (ESK-013/021)**

Seminarioan erabiltzen zuten arropa. Umetako jolasak: pilotarako zaletasun handia.

### **192. Latinaren garrantzia; abadetzaren bidea, gogorra (ESK-013/022)**

Saturrarango seminarioan garrantzi gehien zuen ikasgaia, latina zen. Ikasten zituzten beste gai batzuk. Gasteizen, Juan Manuel Lekuonarekin euskara ikasi zuten. Abadegai izateko bidea, ikasketak... bide gogorra zen. Mutiko askok bertan behera uzten zuten guztia.

### **193. Gasteizko seminarioa; Jose Miguel Barandiaran (ESK-013/023)**

Gasteizko seminario berria nolakoa zen. Azalpen ugari gai honen inguruan. Jose Miguel Barandiaranekin zer ikasten zuten. Bera bertan egon zenean zenbat ikasle inguru zeuden; nongoak.

### **194. Erlijioa eta politika seminarioan; abertzaletasuna (ESK-013/024)**

Ikasleen arteko giroa nolakoa zen. Errepublikara garaian politika kontuak garrantzi gehiago hartzen hasi ziren eta abertzaletasuna nabarmentzen hasi zen poliki-poliki, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako abadegaien artean... Irakasleek politika kontuak ez zituzten aipatu ere egiten. Don Mateo Mujika.

### **195. II. Errepublikaren aldarrikapena; abertzaletasuna eta Aberri Eguna (ESK-013/026)**

II. Errepublika aldarrikatu zeneko kontuak. Bertsopaperak irten ziren gaiaren inguruan eta horietako bat gogoan du oraindik. Euzkadi aldizkaria. Primo de

Riveraren diktadura. El D&iacute;a aldizkaria. Lehenengo Aberri Eguna Saturraranen. Abertzaletasun sentimendua.

### **196. Garizumako debekuak; garizumako jolasa: txirikila (ESK-015/010)**

Neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren. Aste Santuan ezin izaten ziren nobioarekin irten; ezta dantza egin ere. Abadearen sermoia pulpitutik. Garizuman txirikilarekin jolasten zuten. "Txopuetan", txirikilarekin jolas egiteko beste modu bat. Bolalekuak: herrian; Marin auzoan... Txirikilarekin garizuman bakarrik jolasten zuten.

### **197. Bolalekuak Eskoriatzan (ESK-015/011)**

Kalean bolalekurik egon ote zen ez dute ongi gogoratzen, baina auzoetan bazeuden: Bolibarren, Marinen... Zenbat txirloekin jolasten zen; apusturik ez zen egiten.

### **198. Eskolan erdaraz ikastea kostatu egiten zitzaien; zigorrak (ESK-015/012)**

Eskola kontuak. Maritxuren maisua nolakoa zen. Umeek beldurra izaten zioten maisuari. "Billurrez aidien". Eskolan neska-mutilak banatuta. Medikua, maisua, albaitaria, abadea... garrantzi handiko pertsonak gurasoentzat. Maisua erdalduna zen eta euskaraz hitz egiten entzunez gero zigortu egiten zituen. Gurasoekin ere erdaraz egin beharra. Erdaraz jakin ez; momentu txar asko pasatu zituzten. Eskolan ikasitako kantak. Elizako kantak berriz, euskaraz. Eskolan erdaraz ikastea kostatu egin zitzaien.

### **199. Inguruetatik ere umeak Marinera klase partikularretara (ESK-015/013)**

Maritxu 1935ean eta Mari 1933an jaiotakoa. Eskola kontuak: ordutegia... Inguruko auzoetatik ere umeak Marinera joaten ziren klase partikularrak hartzera.

### **200. Mutilak eta neskak banatuta ibiltzen ziren (ESK-015/014)**

Mariren irakaslea Zumarragakoa zen baina klaseak erdaraz ematen zituen. Mutilak eta neskak banatuta ibiltzen ziren jolasean...

### **201. Dotrina euskaraz ere ikasten zuten (ESK-015/015)**

14 urtera arte eskolara joandakoak dira. Dotrina ere eskolan bertan ikasten zuten. Maringo abadea eskolara joaten zen dotrina ematera. Maisuaren eta abadearen arteko tirabirak euskararen inguruan. Mariren kasuan, elizara joaten ziren dotrina ikastera. Bezperak; arrosarioa. Don Jos&eacute; Agirre, Maringo abadea (Astigarragakoa). Abadeei izaten zitzaien errespetua. Mari Lezetak dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuen.

### **202. Dena zen bekatu eta gainera konfesatu egin behar (ESK-015/017)**

Elizakoak gaixorik zegoenari. Abadea pasatzen zenean belauniko jarri behar izaten zen jendea. Erlijioaren inguruko kontuak zenbat aldatu diren. Lehen dena zen bekatu. Konfesatzera joan beharra.

### **203. Juan Etxabe abadea (ESK-015/018)**

Garizuman, "pazkoakoa" egiteko txartel bila joan behar izaten ziren abadearengana. Ezkontzeko ere dotrinaren inguruko galderak egiten zituen abadeak. Abadeak ezkon-bizitzaren inguruan azaldu zizkion kontuak. Juan Etxabe abadea.

### **204. Mezak nolakoak izaten ziren (ESK-015/020)**

Mezak nolakoak izaten ziren: latinez... Umeen okerkeriak.

### **205. Erlijioaren inguruko ohiturak; debekuak (ESK-015/021)**

Erlijioaren inguruko ohiturak; debekuak. Jauna hartzeko baraurik joan beharra.

### **206. Kanpai-klaseak; arrosarioa errezatzeko ohitura (ESK-015/022)**

Kanpai desberdinak egunean zehar. Iluntzean "aramaittako" kanpaia jo eta soroan lanean egonda ere, errezatu egin behar izaten zuten. Gauetan arrosarioa errezatzen zuten etxean; arrosario, letania, misterio eta guzti.

### **207. Luto kontuak; hilarriak; ohitura zaharrak. (ESK-015/023)**

Erlijioaren inguruko azalpenak. Luto kontuak. Hilarriak. Ohitura zaharrak.

### **208. Egun berezietan anis kopatxoa eta galletak (ESK-015/024)**

Urtebetetze egunean edo jai egunetan, goizean gurasoek anis kopatxo bat eta galleta batzuk eramaten zizkieten seme-alabei ohera. Txokolatea... oso gutxitan jaten zuten.

### **209. Zurrapapotea: ardoa berotu eta ogitan busti (ESK-015/025)**

Beraien baserrietan ez zen ia ardorik edaten. Aitak batzuetan (gaixorik zegoenean edo) ardoa berotu eta ogitan bustitzen zuen ("zurrapapotea").

### **210. Erlauntzak zituzten eta eztia saldu egiten zuten (ESK-015/027)**

Baserrietan erleak edukitzeko ohitura handia. Erlauntzak. Mari Lezetaren ama erlategitik eztia ateratzen zuen. Eztia saldu egiten zuten. Argizaria ere egiten zuten. Argizaria etxeko lurra garbitzeko erabiltzen zen.

### **211. "Pujetie" nola egiten zuten (ESK-015/028)**

Arropak garbitzera askara edo erre kara joaten ziren. "Pujetie" nola egiten zuten aurrekoek.

### **212. Ehunezko arropak (ESK-015/029)**

Ehunezko arropak: izarak... Gurasoen arropak: barruko-arropak...

### **213. Emakumeen bizimodu gogorra baserrian (ESK-015/030)**

Arto-malutazko koltxoiak ezagutu zituzten; gerora artilezkoak etorri ziren. Emakumeen lanak; bizimodu gogorra.

### **214. Emakumeen bizimodu gogorra baserrian (ESK-015/031)**

Emakumeen lanak; bizimodu gogorra. Soroan egiten zituzten lanak: arbia erein; laietan; artajorran... Jai egunetan ere dantzara joan ahal izateko lehenengo soroko lanak amaitu behar izaten ziren.

### **215. Ume-umetatik baserian lanean (ESK-015/033)**

Baserriko lanetan ume-umetatik lagundu beharra. Neska-mutilen arteko lan-banaketa. Soroan zer ereiten zuten: garia, artoa, arbia, erremolatxa; sekula-belarra, ailorbea.. Garia nola jotzen zuten; azalpenak.

### **216. Gari-jotzearen inguruko azalpenak (ESK-015/034)**

Gari-jotzearen inguruko azalpenak. Artoa, baba... nola ereiten zuten. Artajorra.

### **217. Arbiaren inguruko lanak; abereak (ESK-015/035)**

Arbiaren inguruko lanak. Abereak kortan egoten ziren. Txahala nola hazten zuten.

### **218. Gaztaina eta sagarrak saltzera Gasteizera (ESK-015/037)**

Gaztainak, sagarrak saltzera Gasteizera joaten ziren. Trenez eramaten zuten jeneroa.

### **219. Otxandiotik Eskoriatzara bizi izatera (ESK-016/005)**

Otxandiotik Eskoriatzara nola eta zergatik etorri zen 1965ean; Ederlanen hasi zen lanean orduan.

### **220. Eskoriatzako dantza-taldea (ESK-016/006)**

Eskoriatzara etorri zenean herria nola aurkitu zuen. Euskararen erabilera; dantza-taldea...

### **221. Dantza-taldea; dantzariak (ESK-016/008)**

1965 inguruan Eskoriatzan zegoen dantza-maisua nor zen kontaktzen du; dantzari batzuen izenak ematen ditu. Mario ume txikiei dantzan erakusten nola hasi zen aipatzen du.

### **222. Dantza-taldearen sorrera eta bilakaera (ESK-016/009)**

Gorosarri, musikari oso ona zen eta dantza taldea sortu zenean bere izena ipini zitzaion. Dantza-taldearen bilakaera.

### **223. Dantza-taldeak izan dituen lokal desberdinak (ESK-016/012)**

Dantza-taldearen entseguak non izaten ziren aipatzen du; lokal desberdinak.

#### **224. Inguruko herrietara dantza egitera (ESK-016/013)**

Dantza-taldeak egin zuen lehenengo ekitaldia 1966-67 urte inguruan izan zen. Aretxabaletan ez zegoen dantza-talderik eta beraiek joaten ziren bertara.

#### **225. Biarritzera irteera (ESK-016/015)**

Biarritzera egindako irteera azaltzen du Mariok. Euskal Dantzarien Biltzarra ospatu zen orduan; garaiko zailtasunak kanpora irteteko...

#### **226. Inguruko herrietara irteerak (ESK-016/016)**

Inguruko herrietara egindako irteerak gogora ekartzen ditu.

#### **227. Santa Agedako mutilak; "Kintoak" eskean (ESK-016/020)**

"Kintoen" ospakizunaren jatorria; azalpen interesgarriak ematen ditu. Santa Agedako mutilen antzera, "kintoak" ere eskean irteteko ohitura oso zaharra omen da.

#### **228. San Juan eta San Pedro bezperatan aureskua plazan (ESK-016/021)**

San Juan eta San Pedro bezperatan dantza-taldeko mutilek herriko plazan aureskua dantzatzeko zuten. Inguruko herrietako dantza-taldeen harremana.

#### **229. San Juan bezperan dantzaldia plazan (ESK-016/022)**

San Juan bezperan dantza-taldeak egiten zuen dantzaldia; ohitura zaharrak. Franco hil ondoren ikurrina noiz jarri zen lehenengo aldiz; jai-giroa... Gatzagako plaza.

#### **230. Txistularien kalejira (ESK-016/023)**

Txistulariek pasakaleak noiz egiten zituzten aipatzen du. Txistularien tradizioa oso handia izan da beti, baina azkenaldian egoera aldatu egin da.

#### **231. Musika Eskoriatzan (ESK-016/024)**

Pasakaleak noiz egiten zituzten; Santa Zezili eguneko anekdota.

#### **232. Antzinako dantzak; ohitura zaharrak (ESK-016/026)**

"Liñu-dantza"; ohitura zaharrak.

#### **233. Herriko jaiak; San Pedroak (ESK-021/009)**

"Txopue" ipintzen zuten plazan. San Pedroetan egiten ziren ekitaldiak zeintzuk izaten ziren aipatzen dute.

#### **234. Neskak eta kaleko giroa (ESK-021/010)**

Beraien garaian neskak tabernatan sartzen hasita zeuden.

#### **235. Herriko jaiak (ESK-021/012)**

Herriko jaiak nola ospatzen ziren lehen, orain (San Pedroak); sumatzen dituzten aldaketak. Urte batzuetan dantzaldia frontoian egin zen. Txirringulak lasterketak egiten ziren; ekitaldi ugari egoten ziren... Neskatan-mutiletan.

### **236. Prozesioak Eskoriatzan (ESK-021/013)**

San Pedro egunean prozesioak egiten ziren. Prozesioak Aste Santuan, San Isidrotan, eta bestelako jai egunetan ere egiten ziren.

### **237. Bestelako jai eta ospakizunak (ESK-021/014)**

Bestelako jaiak; ospakizunak. Herrian aldareak ipintzen ziren.

### **238. San Isidroak Eskoriatzan (ESK-021/015)**

San Isidrotan zigor-dantza egiten zen garai batean.

### **239. Dantza-taldea; dantza desberdinak (ESK-021/017)**

Hiztunen garaian egiten zituzten zenbait dantzen izenak.

### **240. Dantza-taldearen inguruko zenbait azalpen (ESK-021/019)**

Arropak non eta nola egiten zituzten.

### **241. Gerra garaiko zenbait azalpen (ESK-026/012)**

Gerra Zibilaren inguruko zenbait gogoeta. Nondik nora ibili zen; zein izan zen bere eginkizun nagusia...

### **242. 1936-37 inguruan hasi ziren irratiak agertzen (ESK-027/012)**

Inork ez zuen irratorik izaten gerra aurretik eta 1936-37 inguruan agertu ziren lehen irratiak. Etxean izan zuten lehenengo irratiak elektrikoa zen, arku formakoa.

### **243. Jolasetako eta elizako kantuak gaztelaniaz (ESK-027/013)**

Sokasaltoan gaztelaniazko abestiak abesten zituzten: "Al cocherito leré "Soy la reina de los mares"... Nola jolasaten zuten. Elizan ere gaztelaniaz abesten zuten gehiena, euskarazko kantu batzuk ere bazeuden arren.

### **244. Mezetara egunero; bederatziurrenak (ESK-027/014)**

Elizara sarri joan behar izaten ziren. Bederatziurrenetara joan behar izaten ziren zinta zuri-gorriak jarrita. Bederatziurren desberdinak aipatzen ditu: San Josearena, arimena... Bederatziurren batzuetan euskarazko kantuak ere abesten zituzten. Gehienetan egunero joan behar izaten zuten mezetara.

### **245. Bazko eguneko prozesioa (ESK-027/016)**

Bazko eguneko prozesioa gustatzen zitzaion gehien, prozesioan eramaten zen Jesu Kristoren irudiak benetakoa ematen zuelako. Irudia nolakoa zen eta nola eramaten zuten azaltzen du. Prozesioak Ama Birjinarekin bat egiten zuen bidean eta meza santurako elizara joaten ziren. Biharamunean, bezperak amaitu ostean Ama Birjinaren irudia mojetara itzultzen zuten.

#### **246. Udaletxean bizitzen, senarra aguazila zelako (ESK-027/018)**

Udaletxean bizi izan ziren 32 urtean, senarra aguazila zenez han bizitzeko obligazioa zutelako.

#### **247. Eskoriatzako musika banda; inguruetako soinujoleak eta danbolinteroa (ESK-027/019)**

Lehenago erromerietan txistua eta danbolina izaten ziren, eta geroago baita soinua ere. Berak betidanik ezagutu izan du musika banda Eskoriatzan. Gogoan du musika banda tresnak gurdian hartuta Atxorrotzera igo zen eguna. Aretxabaletan ez zuten bandarik eta gramola jartzen zuten. Garai batean banda gabe egon ziren eta orduan soinua izaten zuten. Inguruetako soinujoleak; danbolinteroa.

#### **248. Dantza lotua musika bandarekin (ESK-027/020)**

Bandak jotzen zuenean dantza lotua egiten zuten. Neguan bandak 8etarako edo lehenago bukatzen zuen. Lehenbizi joaten zenak bonboa jotzen zuen musikariak kioskora joan zitezten. 2-3 pieza joa eta atsedanak hartzen zituzten.

#### **249. Atxorrotzera 1937an lehenbiziko (ESK-027/021)**

Atxorrotz egunean ez zieten uzten Atxorrotzera joaten. Egun horretan amonaren baserrira joaten ziren bazkaltzera. "Bolalekua" esaten zitzaion lekura joan eta goitik behera erroskilekin pasatzen zirenen inbidiz egoten ziren. Gerra denboran soldaduak egon ziren Atxorrotzen eta orduantxe joan zen lehenbiziko aldiz bertara, ingurua garbitzera joan ziren eta.

#### **250. Emakumeak ezin tabernetan sartu senarrarekin ere (ESK-027/023)**

Egun seinalatuetan ez bazen, emakumeak ez ziren tabernetan sartzen, ezta senarrarekin ere. Senar-emazte gutxi ibiltzen ziren kalean igandetan. Bera 20 urte ingururekin sartu zen lehen aldiz taberna baten. Emakumeak etxean egoten ziren.

#### **251. Lizarrara jaietara eta azokara (ESK-027/025)**

Aitak gerra-denboran Lizarrako bat lagun egin zuen. Gerra ondorenean bisitan etortzen zitzaizkien hangoak eta gerora eurak ere hara joaten hasi ziren jaietan. Lizarran emakumeak lehenagotik hasita zeuden tabernetan sartzen. Azokara ere joan izan zen Lizarrara, piperrak erostera.

#### **252. San Pedroetako "txopua" jartzea; San Isidroak (ESK-027/026)**

San Pedroetan "txopua" frontoian jartzen zen, puntan azak eta tipulak zituela. Frontoiaren ondoan bolalekua zegoen. Frontoia eta ingurua nolakoak ziren. San Isidro eguna (baserritarren eguna) ere ospatzen zen lehenago. Kalean bertan ere kale-baserri ugari ziren lehen. Goizean meza eta ondoren aurrekua eta dantza egoten ziren danbolinarekin.

### **253. Zigor-dantza eta lino-dantza (ESK-027/027)**

San Pedroetan zigor-dantza egiten zen. Nortzuk egiten zuten eta nola egiten zen dantza azaltzen du. Lino-dantza nola egiten zen. Kantua bat abesten zen lino-dantzarekin.

### **254. San Pedroetan umeentzat merienda eta ardoa doan zahagitik (ESK-027/028)**

San Pedroetan eskolako umeei merienda ematen zitzaien: ogia eta makatza. Ardoa ere dohainik egoten zen jaietan, zahagia jartzen zen eta. Gizonek jokoan egiten zuten frontoian, mahaietan jarrita, ardo pitxarra alboan hartuta. Pontxea ere egiten zuten gizonek.

### **255. Gerra-denboran manta asko tindatu zen abrigoak egiteko (ESK-027/032)**

Bera neska gaztea zela soinekoren bat eta abriguren bat besterik ez zuen. Arropa asko tindatu egiten zen. Adibidez, gerra-denboran manta asko tindatu ziren abrigoak egiteko. 13 urte zituen gerra hasi zenean.

### **256. Gerraoste luzea; errazionamendua; baserrietara jatera (ESK-027/033)**

Gerra hasi zenean, 13 urte zituen eta Arrasaten zegoen orduan. Ez zuten ondo pasa. Gerraostea ere luzea izan zen, 1954ra arte errazionamendua egon zen eta. Beste kaletar askoren antzera, eurak ere baserrietara joaten ziren zerbait jatera: gazta, esne-zopa edo sagarrak... Zerbait ematen bazieten, pozik.

### **257. Oporrik ez eta txango gutxi eskolatik (ESK-027/035)**

Lehen ez zen egoten oporrik. Eskolatik txango txikiren bat egiten zuten, baina oso gutxi. Berak Gatzagara gatz-fabrika ikustera eta marianisten museora bakarrik egin zituen txangoak, baina gogoan du beste 7 neska Debara eraman zituztela. Leintz-gatzagara txangoa oinez egin zuten.

### **258. Dorletako egunean Leintz Gatzagara (ESK-027/036)**

Osaba Leintz gatzagan bizi zen eta tarteka joaten ziren bisitan, batez ere Dorletako egunean. Oinez egiten zuten bidaia. Goizeko mezetara joaten ziren eta eguna bertan pasatzen zuen. Iluntzean berriz etxera oinez itzuli behar. Gerora bizikletan ere egiten zuten bidaia.

### **259. Neskame lanetan Arrasaten, Bergaran eta Eibarren (ESK-027/037)**

Neskame lanetan irabazitako diruak amak atera zituen gerra-denboran kartilatik. Geroago 17 urtetik 19ra Eibarren egon zen neskame eta bere gastuetan gastatzen zuen dirua, baina amak asko kontrolatzen zuen. Arrasatera ume-zain joan zenean hilean duro bat irabazten zuen.

### **260. Aurreragokoak Galiziara trenbideak egitera (ESK-027/039)**

Bera baino lehenagoko gizonak Galizia aldean trenbidea egiten ibiliak ziren. Eurak udaletxean bizi zirenean, gizonak atarian jarri eta orduko kontuak komentatzen ibiltzen ziren.

### **261. Umetako lanak baserrian; auzolana (ESK-027/040)**

Baserriko lan ugari auzolanean egiten ziren. Garia ere auzolanean mozten zen. Igitaiarekin mozten zen garia eta azpelak egiten ziren. Azpelak gari luze batekin lotzen ziren gero. Bera ere ibilitakoa da lan horretan. Umetan lapikoa zaintzen ere jartzen zituen amonak.

### **262. Soldadu joan aurreko kintoen ospakizunak (ESK-028/015)**

Soldadutzara joan aurretik kintoek bi egun ospatzen zituzten: alistamentu eguna eta kintoak neurtu eta pisatzen zituzten eguna. Alistamentu egunean bazkaria egin zuten tabernan.

### **263. Urdelardero eguna (ESK-028/017)**

Urdelardero eguna Bolibarren, eskolan, antolatzen zuten. Bezperan inguruko auzoetara (Mendiola, Arkarazo...) joaten ziren eskean; orduan ez zegoen auzoetatik Eskoriatzara, kalera, eskean joateko ohiturarik. Mendiolan gertatutako pasadizoa.

### **264. Espainiako bandera eta 'Cara al Sol'a Bolibarreko eskolan (ESK-028/018)**

Bolibarreko eskolara sartzerakoan Espainiako bandera jartzen zen kanpoan eta Cara al Sol abesten zuten. Eskola denak gaztelaniaz ematen ziren baina dotrinan euskara pixka bat erabiltzen zen.

### **265. Bolibarreko abadea: don Kruz (ESK-028/021)**

1945eko azaroan don Kruz abadea joan zen Bolibarrera. Aurretik don Miguel egon zen. Atxorrotzeko erromeria.

### **266. Auzolana: ardoa udalak eta ogitartekoa norberak. (ESK-028/023)**

Garai hartan auzolan asko egiten zen. Udalak ardoa ematen zien auzolanera joaten ziren guztiei. Behiak edo idiak eramaten zituztenei litro bat eta gainontzekoei kuartilua (litro erdi). Ogitartekoa norberak etxetik eramaten zuen. Lanak amaitu eta gero ospatu egiten zen.

### **267. Eskoriatza "argitzen" zuten errota (ESK-028/024)**

Bolibarren "Argi errota de Bolibar" zegoen. Auzoan orduan 32 bizilagun zeuden eta 20 inguru bertako bazkideak ziren. Errota zen eta argia emateko balio zuen ere. Bolibartik gorago beste argi errota bat zegoen; potentzia gehiago zuenez fabriketara eta kaleetara argia emateko erabiltzen zen. Bolibarkoek argia ematen zieten Mendiolakoei. Andra Mari bigarrean Bolibarko bidean zegoen depositua garbitzen zen. Garbitu ondoren bazkaria egiten zen eta jendea epel-epel eginda joaten zen etxera. Eskoriatzan bazegoen "Moli&ntilde;erona" deitzen zen beste argi errota bat, honek Gazta&ntilde;adi aldera bidaltzen zuen argia.

### **268. Inguruko basoak; egurra trenez Gasteizera nola eramaten zuten (ESK-030/004)**

Ingurua asko aldatu da. Lehenago lur-sail guztiak landu egiten ziren. Egun, zelai edo pinudiak dira gehienak. Basoak nolakoak ziren; ira-sail handiak zeuden. Umea zenean ere pinudi txikiren bat ezagutu zuen. Bertako basoak:

haritza, pagoa, ametza, urkia... Sutarako egurra. Egurra, trenez garraiatzen zen; nola kargatzen zuten egurra. Lagun asko behar izaten ziren egurra trenean kargatzeko. Gasteizera eramaten zen egur gehiena.

### **269. Idien garrantzia baserriko lanetan; nola gobernatzen ziren (ESK-030/007)**

Egurra idiekin garraiatzen zen kalera. Idien garrantzia baserriko lanetan. Idiak nola zaintzen ziren; zer ematen zitzaaien jateko. Lehenago pentsu gutxi ematen zitzaaien; batez ere belarra, lastoa; e.a. Aiorba ere oso ona izaten zen idientzako.

### **270. Ume-umetatik ganaduzain; trenbide inguruan arrisku handia (ESK-030/008)**

Abereak gobernatzeko zaletasun handia betidanik. Ume-umetatik ganaduzain. Sarritan eskolara joan gabe geratzen zen, baina bera gustura. Basora ateratzen zituen abereak, eta orduan ere zaintzen ibili behar izaten zen, tren oso arriskutsua zen eta. Trenak ganaduren bat harrapatuz gero auzokoen artean banatzen zuten okela.

### **271. Ermandadearen inguruko azalpenak (ESK-030/009)**

Ermandadea. Non elkartzen ziren; zein izaten zen ermandadearen lana. Egun handia izaten zen; idiak dotoretu egiten ziren... Ardi-larrua eta zamarrak.

### **272. Idi gazteak egokienak bertako lur-sailetarako (ESK-030/010)**

Inguruko soroetan lan egiteko zeintzuk izaten ziren idi egokienak. Idi gazteak hobeto moldatzen ziren bertako lur-sailetan. Gerora, hazitakoan, Gasteiz aldera saltzen ziren. Ganadu-tratantea.

### **273. Idien inguruko azalpenak (ESK-030/011)**

Idiek, behiek, e.a izenak izaten zituzten. Ikasi artean, umeren bat ibili behar izaten zen aurretik gidatzen. Baina behin ikasi ondoren, (eta azkar ikasten zuten, dirudienez) bakarrik ere ongi moldatzen ziren.

### **274. Gerraosteko eskola urteak (ESK-030/013)**

Eskola kontuak. Sei urte ingururekin hasi zen eskolan, eta normalean 14 urte orduko amaitu egiten zen. Tolosako maistra bat izan zuen denbora askoan. Umetako okerkeriak; zigorrak. Klaseak erdaraz; garai hartan dena erdaraz izaten zen. Euskaraz eginez gero, zigorrak. Cara al Sol. Zer ikasten zuten: matematika, geografia...

### **275. Dotrina buruz ikasi beharra (ESK-030/014)**

Dotrina, buruz ikasi behar izaten zuten. Ganaduzain joaten zenean ere dotrina-liburua eramaten zuen. Igande arratsaldetan bezperak; orduan ere dotrina ikasten zuten.

### **276. Baserritarren eta abadearen arteko harremana (ESK-030/015)**

Auzoko abadea. Baserritar bakoitzak urtero abadeari gari-kopuru bat eman behar izaten zion. Auzoko abadeak ere ortu txiki bat zuen; abadearen "amakazia".

### **277. Jaunartzea; monagilo lanak (ESK-030/016)**

Jaunartzearen inguruko azalpenak. Gerora monagilo ere ibilitakoa da. Abadea ehiztaria zen eta goizean goiz eman nahi izaten zuen meza, eguna ondo aprobetxatzeko. Abadearen jatorria; nongoa zen.

### **278. Eskekoak aterik-ate; abadeak guztiei jaten ematen zien (ESK-030/017)**

Abadea nolakoa zen. Lehenago jende asko ibiltzen zen eskean aterik ate. Abade-etxetik denak bazkaldu edo afalduta joaten ziren. Fraideak eta mojak ere eskean ibiltzen ziren.

### **279. Mezak nolakoak izaten ziren; monagiloaren lana (ESK-030/019)**

Monagilo ibilitakoa 14 urtera arte. Bere egitekoak zeintzuk izaten ziren. Latin ikasi behar izan zuen. Prozesioak. Abadeak meza latinez ematen zuen eta jendeari bizkarra emanez.

### **280. Abadearen bedeinkazioak (ESK-030/021)**

Abadea baserrietara joaten zenean bedeinkapenak ematera, monagiloak laguntzen zion. Orduko kontu batzuk. Bedeinkazioaren truke, oilaskoak ematen zitzaizkion abadeari.

### **281. Oiloak eta oilaskoak nola hazten ziren (ESK-030/022)**

Oiloak eta oilaskoak nola zaintzen eta hazten ziren. Kanpoan edukitzen ziren normalean.

### **282. Elikadura baserrietan (ESK-030/023)**

Elikadura baserrietan. Egunero-egunero babak jaten zituzten normalean. Igandeetan garbantzuak. Gosaltzeko eta afaltzeko zer jaten zuten. Taloa, morokila, "ahixe". Neguan gaztaina asko jaten zituzten.

### **283. Gaztaina-saltzen Gasteizera joaten ziren; elikadura baserrietan (ESK-030/024)**

Gaztaina asko batzen zituzten inguruan. Gasteizera ere joaten ziren gaztainak saltzera. Gerora gaitza sartu zitzaien eta gaztaina-basoak galdu egin ziren. Gasteizera joateko joera handia. Gabon, jai egun berezietan, gauza bereziak prestatzen ziren jateko. Iturriko ura; ardoa.

### **284. Ardoa zahagietan erosten zen; sagardoa (ESK-030/025)**

Ardoa, alhondigatik zahagietan ekartzen zen baserrietara. Sagardo gutxi edaten zen inguruko baserrietan. Sagardorik ez zen egiten normalean; sagarrak saltzera eramaten ziren. Sagar-klaseak.

### **285. Gaztaina batzea (ESK-031/001)**

Gaztainak "koskola"rekin ekartzen ziren etxera. Behar ahala, aletu egiten ziren. Gaztainak batzeko "mordazia" erabiltzen zuten. Basotik ere bizimodua ateratzen zen.

### **286. Baserritik kalera lanera; Eskoriatzako industria garrantzitsuak (ESK-031/002)**

Baserriko bizimodua; etxeko ekonomia. 26 urterekin lantegira joan zen lan egitera. Kooperatibak hazten zeuden garaian, lana aurkitzea nahiko erraza zen. Inguruko lantegi ezagunak: Unión Cerrajera, Elma; etab.

### **287. Lan-baldintzak; lanaren nondik-norakoak (ESK-031/004)**

Lanaren nondik-norakoak. Lan-baldintzak.

### **288. Lan-baldintzak; emakumeak lan munduan (ESK-031/009)**

Lan baldintzak. Larunbat goizetan ere lan egin behar izaten zuten. "Sábado inglés". Oporrak. Emakumeak lan-munduan.

### **289. Gaztetako ibilerak: erromeriak... Lagunarteko giroa nola aldatu den (ESK-031/010)**

Gaztetan, igandetan irteten ziren lagunekin dantzara... Gatzagako erromeriak... Dantza lotua, soltea. Inguruko zenbait herritan dantza lotuan egitea gaizki ikusita zegoen. Lagunarteko giroa. Lehenagoko ume eta gazteak, eta gaurkoak.

### **290. Umetako jolasak; neska-mutilak elkarrekin (ESK-031/011)**

Umetako jolasak: "pañeloka", "toka-torreka", etab. Futbolean, pilotan edo halako jolasetan gutxitan aritzen ziren. Eskolan, neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Neska-mutilak jolasean.

### **291. Garizuma garaiko jolasak, debekuak (ESK-031/012)**

Garizuman, txirikilarekin jolasten zuten. Garizuman gauza asko debekatuta egoten ziren: dantzan egitea, musika...

### **292. Umetako jolasak: intxaurrekin, txapekin... (ESK-031/013)**

Umetako jolasak. Intxaurrekin; txapekin....

### **293. Burdi gainean egiten zituzten jolasak (ESK-031/014)**

Gurdiaren gainean egiten zituzten jolasak.

### **294. Gaztetako kontuak; auzoen arteko tira-birak (ESK-031/015)**

Gaztetako giroa. Auzoen arteko gazteen arteko hartu-emanak. Borrokak. Marin auzoari "Marin txikito" esaten zitzaion.

### **295. Neska eta mutilen arteko banaketa; jai egunetako giroa (ESK-031/016)**

Eskolan, neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Eskolaz kanpo, gaztetan, lagun-taldeak mutil edo neskenak izaten ziren. Jai egunetako giroa; Gatzagako erromeria.

**296. Auzoetako erromeriak; inguruko herrietako jaiak (ESK-031/017)**

Erromeriak inguruko herrietan. San Cristobal. Auzoetako jaiak. Bolatokiak. San Pedro jaietan Eskoriatzara joaten ziren. Korrikalariak; lasterketak.

**297. Soldadutza kontuak (ESK-031/019)**

Soldadutza kontuak.

**298. Pilotarako zaletasuna; bolatokiak inguruan (ESK-031/020)**

Jaiegunetan bolatokiak prestatzen ziren auzoetan. Zarimutz auzoko bolatokia non zegoen. Pilotarako zaletasuna. Eskoriatzako bolatokia. Apustuak; txapelketak.

**299. Boletan nola egiten zen: teknikak, lexikoa (ESK-031/021)**

Boletan nola egiten zuten. 3 txirlorekin egiten zen boletan. Teknikak; lexikoa.

**300. Apustu kontuak bolatokietan (ESK-031/022)**

Apustu kontuak nola egiten ziren.

**301. Bola-jokoaren inguruko azalpenak (ESK-031/024)**

Bolariak inguruko herrietara ere joaten ziren. Bolak jasotzen ibiltzen ziren mutikoek ere zerbait irabazten zuten. Bola-jokorako zaletasuna noiz hasi zen galtzen. Auzoetako jaien beherakadarekin batera, bola-jokoa ere galtzen hasi zen. Emakumerik ez zen ikusten bolatokian.

**302. Herri-kiroletarako zaletasun gutxi (ESK-031/025)**

Herri-kiroletarako zaletasun gutxi inguruan.

**303. Artzaintzarako toki desegokia (ESK-031/027)**

Artzain gutxi egon da inguruetan.

**304. Inguruko errekek (ESK-031/028)**

Errekak inguruan.

**305. Iturrira ur-bila (ESK-031/030)**

Lehenago iturrira joan behar izaten ziren ur-bila.

**306. Auzoko bideak (ESK-031/031)**

Auzoko bideak.

**307. Trenaren inguruko azalpenak (ESK-031/034)**

Trenaren inguruko kontuak. "Tren obrero".

**308. Aita trenbidearen inguruko lanetan jardundakoa (ESK-031/035)**

Aita trenbidea egiten jardundakoa zen. Erdaraz ikastera ere Arabara joan zen.

### **309. Etxe-garbitzeak noiz izaten ziren, zein urte-sasoitan (ESK-032/008)**

Koltxoiak nola garbitzen, astintzen ziren. Etxeko lan horrek noiz egiten ziren. Gari-jotzea: garia "larrindu"; etab. Arbiak erein ondoren etxeko lan astun horiek egin behar izaten ziren. Lihoa (linua) ere ereiten zuten bere baserrian.

### **310. Karea oso arriskutsua izaten zen; ikutzen zuen guztia erretzen zuen (ESK-032/010)**

Karea erre ondoren oso beroa egoten zen eta karobian bertan lagatzen zen hilabete inguru. Karea oso arriskutsua izaten zen; guztia erretzen zuen. Abereentzat ere oso gogorra izaten zen karea soroan zabaltzea. Soroan noiz, zertarako botatzen zen. Zizare, txindurrien garrantzia soroetan.

### **311. Lur-klase desberdinak; bakoitza zertarako zen egokia (ESK-032/011)**

Lur-klase desberdinak. Lur sendoan, berakatz, baba-beltza, e.a. hobeto hazten dira. Beste zenbait gauza, lur arinagoan hobeto. Ainubeko baba, eguzkialdekoa baino hobe. Etxean babak nola egosten ziren.

### **312. Baserriko ekonomia; erreterroak, etxe-jabeak (ESK-032/015)**

Erreterroak; etxe-jabeak. Erreterroak maiorazgoak baino hobeto bizi zirela zioen emakume batek. Honen arrazoia zein zen. Txorizoak nola kontserbatzen zituzten baserrietan. Etxeko giroa.

### **313. Etxeko giroa; txorizoak oliotan nola sartzen ziren (ESK-032/016)**

Txorizoak oliotan sartzen zirenean, egun hartan meriendatarako zatitxo bana jaten zutela gogoan du. Etxeko giroa. Baten batek zioenez, maiorazgo etxeetan ez zen horrelakorik egiten.

### **314. Baserriaren egitura; ogigintza; emakumeen bizimodua (ESK-032/017)**

Baserriaren egitura. "Eskapeie"; "ittuie". Labea, artoa eta ogia egiten ziren. Artoa eta esnea, batez ere neguan jaten zen. Oremahaia; irina eralgi. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Taloa eta artoa. Lehenagoko emakumeen bizimodua baserrietan.

### **315. Lan-banaketa gizonezko eta emakumeen artean; emakumeen bizimodua (ESK-032/018)**

Gizonezkoen eta emakumeen arteko lan-banaketa baserrian. Ortuko lana, emakumeena. Emakumeen bizimodua baserrietan. Emakumeen arteko harremanak; igandetan elkartzen ziren meza-nagusitan.

### **316. Emakumeen bizimodua: arropa nola garbitzen zen (ESK-032/019)**

Antzinako emakumeen bizimodua. Lixiba nola egiten zen; "pujetie". Harizko arropak. "Hauts-trapue". Gaiarekin zerikusia duen lexiko interesgarria. Pago egurraren garrantzia. Oraindik ere, Bolibar inguruan pagadi handiak daude.

### **317. Emakumezkoen arropak; jostunak (ESK-032/020)**

Emakumezkoen arropak. Lehenagoko jostunak. Miren ere 20 urte ingururekin joan zen josten ikastera. Garrantzi handia ematen zitzaion josten jakiteari.

### **318. Emakumezkoen arropak; jostearen inguruko azalpenak (ESK-032/021)**

Emakumezkoen arropak. Janzteko eran aldaketa nabarmenak zeuden belaunaldi desberdinetan. Arrasaten eta Eskoriatzan erosten zituen telak. Jostearen inguruko azalpenak: telak, teknikak...

### **319. Emakume eta gizonezkoen antzinako arropak (ESK-032/022)**

Emakumezkoen arropak, oinetakoak. Gizonezkoen arropak. Buruko zapia.

### **320. Emakume eta gizonezkoen antzinako arropak; jantzetxeak (ESK-032/023)**

Emakumezkoen eta gizonezkoen arropak. Jostunen garrantzia baserrietan. Bolibarko bidea 1964 urte inguruan egin zuten; hala ere herrira arte abarkekin joaten ziren, eta bertan zapatak janzten zituzten. Jantzetxeak.

### **321. Umeen arropak josteko teknikak (ESK-033/001)**

Umeen arropak josteko teknika desberdinak azaltzen ditu. Lehenago dirurik ez zegoen telak erosteko eta zegoenarekin moldatu behar izaten ziren.

### **322. Antzinako bizimodua (ESK-033/003)**

Ume txikien inguruko zenbait azalpen; arropak. Antzinako bizimoduari buruzko gogoetak.

### **323. Laietan nola egiten zen (ESK-033/004)**

Laietan nola egiten zuten azaltzen du.

### **324. Familia kontuak; auzo-eskola (ESK-033/005)**

Aita arotza zen ogibidez. Arrioaren inguruko zenbait azalpen ematen ditu. Antzina, mutilak bakarrik joaten ziren eskolara, soldadutzara joateko. Gurasoak, eskolara joandakoak ziren biak. Mirenek bederatzi urte inguru zituenean, eskola berria ireki zuten auzoan.

### **325. Eskola kontuak Errepublika garaian (ESK-033/006)**

Eskola kontuak; 13 urte zituenean gerra zibila hasi zen eta eskola gabe gelditu ziren. Errepublika garaian ez zuten otoitz egiten eskolan. Maisuaren inguruko azalpen batzuk ematen ditu.

### **326. Errepublika garaia (ESK-033/007)**

Eskola kontuak Errepublika garaian. Garai hartako zenbait gertakizun gogoan ditu oraindik.

### **327. Giro politikoa Eskoriatzan (ESK-033/008)**

Gerra garaian, giro politikoa herrian oso nahasia zen.

### **328. Gerra zibila Eskoriatzan (ESK-033/009)**

Gerra garaiko kontuak. Milizianoak egon ziren lehenengo; gerora nazionalak sartu ziren. Tropen mobilizazioa. Anaiaren gorabeherak gerra garaian.

### **329. Gerra zibila; frontea Eskoriatzan (ESK-033/012)**

Gerra garaiko bizipenak. Frontea Eskoriatza inguruan egon zeneko kontuak.

### **330. Gerra zibila Eskoriatzan (ESK-033/013)**

Gerra garaiko kontuak Eskoriatzan. Jendea babeslekuetara joateko, sirenak jotzen zituzten. Bonbardaketak; hegazkinak.

### **331. Gernikako bonbardaketa (ESK-033/014)**

Mirenen osaba Gernikan zegoen bonbardaketa egunean; orduko gertaerak aipatzen ditu.

### **332. Giro politikoa Eskoriatzan (ESK-033/019)**

Giro politikoa Eskoriatzan gerra aurretik. Gerra garaiko giroa: txapel gorria; Espainiako bandera...

### **333. Gerra zibila; gerraosteko egoera (ESK-033/020)**

Gerraostea ere gogorra izan zen; gerra garaiko fusilamentuak...

### **334. Amandrea goruetan (ESK-033/022)**

Amandreak goruetan nola egiten zuen erakusten digu. Beraien baserrian lihoa (linua) ereiten zuten; lihoa kendu zuen azkenengo baserria izan zen.

### **335. Soraluze gerra aurretik, herri txiki bizia zen (ESK-036/005)**

Santa Ana kalean bizi izan zen. Soraluze, herri txikia; umore onekoa. Armagin lantegi txikiak pegora guztietan. Industria Soraluzen. Kanoi Fabrika. Baserritarrak eta kaletarrak.

### **336. Aitaren zeregina kanoi Lantegian (ESK-036/006)**

Lantegi handiak: Atxotegi; Arias... Kanoi lantegia. Aitak, sereno bezala lan egiten zuen bertan.

### **337. Santa Ana kalea; mojen komentua (ESK-036/007)**

Santa Ana kalea nolakoa zen. Klausurako mojak. Kalea zeharo aldatu da azken urteotan. Herriko jendearekin harreman estua zuten mojek. Prozesioak zeudenean ere, komentutik pasatzen ziren.

### **338. Maristen ikastetxea Soraluzen (ESK-036/008)**

Eskola kontuak. Geltoki ondoan, maristak zeuden. Maristen Ikastetxe inguruko azalpenak. Dotrina ere bertan ikasten zuten. Neskentzat, Mertzedariak zeuden. Haiek ospitalean ematen zituzten klaseak.

### **339. Eskola kontuak; umetako ibilerak (ESK-036/009)**

Maristekin ikasitakoa. Apaizgai egon zirenean ere, hartu-eman handia izan zuten beraiekin. Umetako kontuak. Ostegunetan jai izaten zuten.

### **340. Maristen ikastetxea Soraluzen; Cinema Gayarre (ESK-036/010)**

Ume asko zeuden maristen eskolan ikasten. Herriko zinera joatea debekatzen zieten umeei. Cinema Gayarre. Inguruko herrietatik ere ume asko joaten ziren bertara ikastera.

### **341. Umetako jolasak; errekan igerian nola ikasten zuten (ESK-036/011)**

Umetako kontuak. Cinema Gayarre. Futbolean, pilotan egiten zuten. Errekara ere joaten ziren jolastera. Igeri egiten nola ikasten zuten. Errekako kontuak. Poliki-poliki erreka zikinduaz joan zen. Errekan zeuden presak.

### **342. Urtean behin Debara joaten ziren; erreka kontuak (ESK-036/012)**

Urtean behin Debara joaten ziren. Saturrarango seminarioan egon zenean, hondartza bertan zuten. Arrantzan egitea ere gustatzen zitzaien. Soraluzeko erreka.

### **343. Errekaren inguruko azalpenak; arrantzan egiteko teknikak (ESK-036/013)**

Arrantzan egiteko teknikak: eskua; butroioa; e.a. Loinak, barboak, angirak... harrapatzen zituzten. Etxeetako zikinak zuzenean errekarara botatzen ziren. Soraluzeko lehenengo kale-garbitzailea; gauez, sereno lanak egiten zituen.

### **344. Abadeak; mezak. Kongregazioak (ESK-036/014)**

Abade asko zeuden garai batean herrian. Mezak nola ematen zituzten; noiz. Kongregazioak: Luistarrak; Mariaren alabak; Adoraci&oacute;n Nocturna. Non elkartzen ziren. Ospakizunak.

### **345. Ermita eta Ama Birjinak. Prozesioak eta ospakizun erlijiosoa (ESK-036/015)**

Prozesioak Soraluzen. Umetako gogoetak. Ezoziko Ama Birjina. Dorletako ama. San Roke ermita. Soraluzeko jaiak.

### **346. Jai egunetan, mendira joateko ohitura (ESK-036/016)**

Jai egunetan zer egiten zuten. Bezperak. Umetako kontuak. Mendira joateko zaletasuna.

### **347. Maristen ikastetxearen inguruko zenbait ohar (ESK-036/017)**

Maristen ikastetxea, parrokiaren parean zegoen. Ez zuten arropa berezirik eramaten. Saturrarango eta Gasteizko seminarioan ordea, bai.

### **348. Kale saltzaileak: barkileroa (ESK-036/018)**

Barkileroa, jai egunetan joaten zen Soraluzera Elgoibartik. Izozkiak ere eramaten zituen. Etxean diru pixka bat ematen zieten jai egunetan.

### **349. Dotrina eta jaunartzea (ESK-036/019)**

Jaunartze txikia eta handia. Orduko kontuak. Dotrina ongi ikasita eraman behar izaten zuten.

### **350. Atxorrotzeko iturria (ESK-037/001)**

Atxorrotz inguruan iturri bat egin zuten; Santa Kurutz egunean inauguratu zen.

### **351. Eskoriatzako bainuetxeak (ESK-037/003)**

Atxorrotz inguruan dagoen iturriaren inguruko zenbait azalpen; toponimia. Eskoriatzako bainuetxeak; Santa Ageda... Kanpotik jende asko etortzen zen sasoi batean bainuetxeetara.

### **352. Abadegai sartzeko erabakia (ESK-037/005)**

Seminariora sartzeko erabakia nola hartu zuen kontatzen du; bere osabaren eragina (karmeldarra zen). Bere ibilbidea gogoratzen du: Saturrarango seminarioa, Gasteizkoa... Gerra garaian, bi urte egin zituen Logroñoko seminarioan; ondoren beste zenbait urte egin zituen berriz ere Gasteizko seminarioan.

### **353. Gorbeako haitzuloan bizi izandakoa (ESK-037/006)**

Gorbean egon zeneko zenbait kontu aipatzen ditu: haitzuloak; mendia... Haitzulo haietan beste abade biren gida izan zeneko eguna gogoratzen du; nola egon ziren ordu askotan galduta...

### **354. Umea zenean seminariora (ESK-037/007)**

Umetan seminarioan sartu zeneko zenbait kontu.

### **355. Seminarioko bizimodua (ESK-037/008)**

Seminarioko bizimodua nolakoa zen umeentzat. Jolasean ibili eta itsasoan ere bainatzen ziren. Eguneroko bizimoduaren berri zehatza ematen du.

### **356. Eguneroko bizimodua seminarioan (ESK-037/009)**

Seminarioko bizimodua nolakoa zen azaldu eta eguneroko bizimoduaren berri zehatza ematen du.

### **357. Gasteizko seminarioa (ESK-037/010)**

Gerra aurreko urtean Gasteizko Seminarioan gertatutako anekdota kontatzen du.

### **358. Saturrarango seminarioa (ESK-037/012)**

Saturrarango seminarioko bizimoduaren inguruko zenbait azalpen ematen ditu.

### **359. Seminarioko bizimodua; hainbat gogoeta (ESK-037/013)**

Saturrarango seminarioan zer ikasten zuten aipatzen du; latinak garrantzi handia izaten zuen. Aisialdi denboran zer egiten zuten. Gasteizko seminarioaren irekiera ekitaldira joan ziren Saturrarandik; Alfonso XIII.a ere joan zen bertara.

### **360. Euskararen erabilera seminarioan (ESK-037/015)**

Saturrarango seminarioan zer ikasten zuten aipatzen du. Euskararen egoera Gasteizko seminarioan. Manuel Lekuona irakasle izan zuen Gasteizen.

### **361. Joxe Migel Barandiaran, seminarioko irakasle (ESK-037/016)**

On Jose Migel Barandiaranek klaseak ematen zituen Gasteizen. Orduko abadegai batzuen izenak ematen ditu; denborarekin obispo egindakoak.

### **362. Seminarioko bizimodua (ESK-037/017)**

On Jose Migel Barandiaranek klaseak ematen zituen Gasteizen. Seminarioko bizimoduaren inguruan hainbat kontu esaten ditu.

### **363. Euskararen erabilera seminarioan (ESK-037/018)**

Euskararen egoera eta erabilera Gasteizko Seminarioan.

### **364. Erlijioa Errepublika garaian (ESK-037/021)**

Erlijioa Errepublika garaian. Giro politikoa nolakoa zen; ez zegoen elkartasunik partidu politikoen artean.

### **365. Eraña baserria (ESK-038/003)**

Eraña baserriaren inguruko zenbait datu; ama zen bertakoa.

### **366. Umetako bizimodua baserrian; ikazkintza (ESK-038/008)**

Aitajaunarekin ikazkintzan ibiltzen zen basoan. Txondorra nola egiten zuten azaltzen du; ikatza zaintzen nola aritzen ziren. Eskolara joan eta iluntzean txondorra zaintzera joaten zen.

### **367. Ikazkintzaren inguruko zenbait azalpen (ESK-038/009)**

Basoan egurra bota eta bertan egiten zuten txondorra. Hiruzpalau txondor egiten zituzten. Gaiaren inguruko hainbat azalpen interesgarri ematen ditu: txondorra nola egiten zuten; nola kargatu, e.a.

### **368. Ikazkintza lanak (ESK-038/010)**

Txondorrari sua goitik ematen zitzaion; ikatza ez zen erretzen, egosi egiten zen. Eguerdian baba-lapikoa jaten zuten. Aitajaunari laguntzera beste senide batzuk ere joaten ziren.

### **369. Ikazkintza kontuak (ESK-038/011)**

Txondorrek zenbat denbora behar izaten zuen egosteko; txondorra nola "desegiten" zen ikatza ateratzeko. Ikatza lantegietara saltzen zuten (Unión Cerrajera, e.a.).

### **370. Ordua nola igartzen zuten antzina (ESK-038/013)**

Antzinako bizimodua; erlojurik ez eta izarrei eta eguzkiari begira jakiten zuten zein ordu zen.

### **371. Baserriko lanak (ESK-038/014)**

Baserriko lanak. Soroan lan asko egiten zuten; garia, artoa... Antzinako bizimodua; gari-jotzea nola egiten zuten. Azalpen interesgarriak ematen dituzte.

### **372. Gariaren inguruko lanak (ESK-038/015)**

Gari-jotzea antzina harri-losa batean egiten zen; poliki-poliki gauzak aurreratzen joan ziren. Gariaren inguruko lanen azalpena; auzolana.

### **373. Garia eta artoa baserrian (ESK-038/016)**

Baserri guztietan ez zen garia egun berdinean heltzen; auzolana. Gariak lan ugari du; lan-zerrenda. Artoa eta garia non gordetzen ziren; arto-zuriketa errotara eraman aurretik.

### **374. Errotara garia eta artoarekin (ESK-038/017)**

Errotara nora joaten ziren azaltzen du. Garia eta artoa zakuetan eramaten zuten; errotariari nola ordaintzen zitzaion.

### **375. Arto-zuriketa (ESK-038/018)**

Artoa gauetan garantzen zuten; familia giroa.

### **376. Anbotoko Mari (ESK-038/019)**

Sorgin kontuak; Anbotoko Mari. Argi bat pasatzen ikusten zutenean, "Anbotoko Señoria" zela esaten zen.

### **377. Karobiak Bolibar auzoan (ESK-038/020)**

Karobiak ezagutu zituen auzoan; baserritarren arteko elkar-laguntza. Karearria nondik ekartzen zuten; basotik ota ekartzen zuten karobiari su emateko. Karobia nola betetzen zen; sua nola ematen zitzaion.

### **378. Karegintza (ESK-038/021)**

Karea zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Karobitik karea nola ateratzen zuten. Zenbat denbora behar izaten zuen kareak erretzeko; zenbatero egiten zuten karea.

### **379. Karea zertarako erabiltzen zuten (ESK-038/022)**

Karea ongarri bezala erabiltzen zela kontatzen du.

### **380. Abereak baserrian (ESK-038/024)**

Ardirik ez zituzten izan baserrian; astoak, idiak, behiak bai.

### **381. Idiak; uztarriak (ESK-038/025)**

Idien inguruko azalpenak: nolakoak ziren; zertarako erabiltzen ziren. Uztargilea kanpotik etortzen zen. Uztarria egiteko nolako egurra behar den kontatzen du; zuhaitza noiz bota behar den; ilargiaren eragina egurra botatzeko orduan.

### **382. Baserritarrak feriara joateko ohitura (ESK-038/026)**

Feriatara joateko ohitura zuen aitak. Arrasateko feria astero-astero izaten zen; egun handia zen baserritarrentzat.

### **383. Gripe urtea Eskoriatzan (ESK-038/027)**

Gripe urtean jaio zela kontatzen du Ciprianok; garai gogorak izan omen ziren. Medikuak odola ateratzen zien gaixoei bizia salbatzeko. Medikuak zaldiz ibiltzen ziren orduan baserri inguruetan.

### **384. Hil-kanpaiak (ESK-038/028)**

Hil-kanpaiak desberdinak izaten ziren gizon edo andrazkoendako; oraindik ere mantentzen da ohitura hori.

### **385. Elizaren eragina gizartean (ESK-038/029)**

Klase desberdinetako elizkizunak egoten ziren: primerakoak, e.a. Elizaren inguruko kontuak; debekuak. Baraurik joan behar izaten ziren jauna hartzera; mezara joaten ez zena gaizki ikusita egoten zen auzoan. Azkenengo urteetan erlijio gaietan eman diren aldaketak.

### **386. Eskoriatzako ehulea (ESK-038/031)**

Amandreak goruetan egiten zuen; ehulearen lana.

### **387. Artilearekin haria nola egiten zen (ESK-038/033)**

Artilearekin haria nola egiten den azaltzen du. Amandreak gauetan egiten zuen haria, neguan batez ere.

### **388. Artilezko galtzerdiak (ESK-039/001)**

Artilezko galtzerdiak, koltxoia.

### **389. Euskararen erabilera; erdara eskolan (ESK-039/002)**

Herriko eskolara joan zen; irakaslearen zigorrak. Zer ikasten zuten; dena erdaraz. Euskararen erabilera. Erdaraz jakitearen garrantzia soldadutza garaian.

### **390. Umetako jolasak; pilotarako zaletasuna (ESK-039/004)**

Umetako jolasak; txirikilatan nola egiten zuten. Garizuma garaiko jolasa izaten zen txirikila. Mutilek pilotan plazan egiten zuten; pilotarako zaletasuna.

### **391. Umetako jolasak: tortolosak (ESK-039/005)**

Neskek tortoloska egiten zuten; hau ere garizuma garaiko jolasa izaten zen.

### **392. Gerra Zibila Eskoriatzan (ESK-039/008)**

Gerra garaiko hainbat azalpen: tropak nondik sartu ziren, soldaduak non geratu ziren, Amaiur batailoia. Intxortako sarraskia.

### **393. Gerra aurreko giro politikoa (ESK-039/009)**

Giro politikoa Eskoriatzan gerra aurreko urteetan. Errepublikanoak, karlistak...

### **394. Gerrako kontuak; Amaiur batailoia (ESK-039/013)**

Amaiur batailoia. Cipriano Teruelgo frontean egon zen gerra garaian.

### **395. Teruelgo ofentsiba (ESK-039/015)**

Gerrako kontuak; Guadalajaran egon zeneko zenbait pasadizo aipatzen ditu. Teruelgo frontean bizi izandakoak kontatzen ditu.

### **396. Eskoriatzarako itzulera gerra ostean (ESK-039/020)**

Gerra zibila amaitu zenean, nondik nora ibili zen soldadu. Melillan 16 hilabete egin zituen. Eskoriatzara itzulera; herria nola aurkitu zuen.

### **397. Lan merkatua gerra ostean (ESK-039/025)**

Herrira itzuli ondoren, erraz aurkitu zuen lana. TESAn lan egin zuen; zer fabrikatzen zuten. Lan-baldintzak.

### **398. TESA lantegia (ESK-039/026)**

Lanaren urrats desberdinak azaltzen ditu; lanaren inguruko azalpenak. Emakumeak lanean.

### **399. Emakumea lan-munduan (ESK-039/028)**

Pakitak ere TESAn lan egin zuen, biltegian. Ezkondu ondoren emakumeak lanean jarrai zezakeen, baina gehienak etxean gelditzen ziren.

### **400. Industria ezagunak Eskoriatzan (ESK-039/031)**

Eskoriatzako industria ezagun batzuk aipatzen dituzte.

### **401. Inguruko herriekin harremana (ESK-039/033)**

Inguruko herriekin harremana nolakoa izan den azaltzen dute. Aretxabaletakoekin ez dira sekula ongi konpondu; Arrasatekoekin berriz, bai.

### **402. Herriko jaiak (ESK-039/034)**

Herriko jaiak nola ospatzen ziren; San Pedro eguna izaten zen jai-egun handiena. Garai batean musika, sokamuturra, lasterketak, e.a. egoten ziren.

### **403. 16 lagun Lete baserrian bizitzen (ESK-040/001)**

Eskoriatzako Lete baserrikoa. Bost urte zituela ama hil zitzairen, erditzean, eta jaio berriarekin bederatzi anai-arreba geratu ziren; zaharrenak 15 urte inguru izango zituen. Aita alargun batekin ezkondu zen handik pare bat urtera eta, hura seme-alabekin etorri zenean, etxean 16 lagun bizi izan ziren, izeba bat eta amandrea ere bertan bizi baitziren. Ez zen erraza denentzat jatekoa izatea; artoa nahikoa izaten zuten, baina ogirik ez.

### **404. Lehenbizi plazako eskolan eta gero marianistetan (ESK-040/002)**

5 urterekin plazako Arana eskolara hasi zen eta bederatzirekin marianistetara pasa zen. Bi urte egin zituen bertan. Eskolatik baserrirako bidea txirringolarekin jolasean egiten zuen batzuetan.

### **405. Anai-arrebak neskame/morroï etxetik kanpora (ESK-040/003)**

Etxean ez zegoen denentzat janaririk eta anai-arreba batzuk neskame/morroï joan ziren. Bakoitza nora joan zen azaltzen du.

#### **406. Eskolara joan beharrean baserriko lanetan laguntzen (ESK-040/004)**

11 urterekin fraideetara pasa zen eta 14 urtera arte ibili zen bertan. Baina beti ez zen joaten eskolara, batzuetan etxean geratu behar izaten zen baserriko lanetan laguntzen. "Intxaurren" ibiltzea zer den azaltzen du.

#### **407. 10 urterekin, mendira artzain (ESK-040/005)**

10 urterekin joan zen lehen aldiz mendira artzain. Orduan gertatutako anekdota bat kontatzen du: ardiak txabolara ekarri eta bere aurretik sartu zituen; bera sartzerako, afaria jan zioten. Jotera egiten zuen ahari gaizto bat ere izan omen zuten, jokorako prestatuta zegoena.

#### **408. Lantegitik irten eta mendira ardiak biltzera (ESK-040/006)**

14-15 urterekin Tesa lantegian hasi zen lanean. Lantegian zazpiak arte lan egiten zuten normalean. Bera ordubete lehenago irteten zen ardiak bildu behar izaten zituelako. Seietan lanetik irten, baserrira joan, marmita hartu eta Kurtzebarrira joaten zen. Han txabola bat zuten. Ardiak txabola ondora ekarri, jaitzi, zerbait afaldu eta bertan geratzen zen lotan. Goizean esneak hartuta jaisten zen behera. Etxean gosaldutza eta zortzietarako lantegira joaten zen.

#### **409. Iratara mendira gurdia hartuta (ESK-040/007)**

Iratara gurdiarekin joaten ziren mendira eta 3-4 ordu egiten zituzten bidean. Nola egiten zuten iratako lana.

#### **410. Zortzi mutil gela berean lotan, binaka (ESK-040/008)**

Garai batean 16 lagun bizi izan ziren etxean: eurak 9 anai-arreba, aita, amaordea, 3 anaiorde, amandrea eta izeba. Zortzi mutilek lo egiten zuten gela berean, lau ohetan, binaka.

#### **411. Bera ardien arduradun (ESK-040/009)**

Berak zuen ardien ardura, anaiek ez zekitelako ardiak biltzen eta ardiek ez zituztelako ezagutzen. 18 urte inguru zituela ardiak kendu zituzten.

#### **412. Soldadutza Gasteizen 13 hilabetez (ESK-040/010)**

1965ean Gasteizera joan zen soldadutza egitera. Zozketan Afrikara joatea tokatu zitzaion, baina legeak zioen hiru anaia nagusiago izanez gero, norberak aukeratu zezakeela nora joan. 13 hilabete egin zituen. Soldadutzan zegoela apendizeko ebakuntza egin zioten eta hilabete egin zuen Gasteizko ospitale militarrean. Bera Arakan egon zenean artean ez zegoen barrakoirik eta kanpin dendetan egoten ziren. Berak anaia bizi zuen Gasteizen hara ezkondu eta sarritan baimena izaten zuen haren etxera joateko lotara.

#### **413. Soldadutzatik itzuli eta berriz lantegira (ESK-040/011)**

22 urterekin joan zen soldadutzara. Bera soldadutzan zegoen bitartean gurasoak baserritik kalera jaitsi ziren bizitzera. Soldadutzatik itzuli eta Tesa lantegian jarraitu zuen lanean eta bi urte ingurura gero bere emaztea izango zena ezagutu zuen.

#### **414. Zazpi urterekin komunioa Eskoriatzan (ESK-040/015)**

Zazpi urterekin egin zuen komunioa. Euren baserriari hala egokitzen zitzaiolako kalean egin zuen jaunartzea. Bideak lokatzaz beterik egoten zirenez, beheragoko baserri bateraino arropa zaharrekin jaitsi eta han aldatzen ziren.

#### **415. Bizimoduaren aldaketa (ESK-041/001)**

80 urte ditu. Bera gaztea zenetik asko aldatu omen dira gauzak. Eskolara eguraldi txarra zenean bakarrik joaten ziren eta umetatik lan egin behar izan zuten baserrian. 13 urterekin morroi joan zen inguruko baserri batera. Lehen elkarri gehiago laguntzen zioten. Udazkenean gaztainak eta salda izaten zen afaria.

#### **416. Bizimoduaren aldaketa; auzokoen harreman estua (ESK-041/002)**

Auzokoak elkarrekin ibiltzen ziren. Umetako jolasak: marroka; garizuman txirikilan; etab. Inguruetatik ez ziren asko irteten kanpora. Bera Donostiara lehenbizikoz soldadutzako sorteora joan zen. Bizimoduaren aldaketa; auzokoen artean elkartasun handiagoa zegoen lehen.

#### **417. Industriarekin etorri zen gaztelania (ESK-041/003)**

7 urterekin hasi zen eskolara eta 13 urtera arte ibili zen. Soldaduskan ikasi zuen gatelaniaz, izan ere, inguruan euskara besterik ez zen erabiltzen. Industria hazi zenean, kanpoko jendea etortzen hasi zenean, sartu zen gaztelania.

#### **418. Bizimoduaren aldaketa; familaren lotura (ESK-041/004)**

Anai-arrebek etxean egiten zuten bizimodua. Batenbat fabrikara edo neskame joango zen lanera, baina gehienak etxean biltzen ziren. Gaur egungo fasmiliekin alderaketa.

#### **419. Baserriko lanen aldaketa; aurrerapenak (ESK-042/001)**

Bere burua aurkezten du. Bolibar auzoko Otsaibe baserrikoa da. Baserriko lanen eta bizimoduaren aldaketaren inguruan hitz egiten du; aurrerapenak. Baserriko lanak. Ortuko gaiak.

#### **420. Baserritik bakarrik ezin bizi (ESK-042/002)**

7 anai-arreba ziren. Jende asko baserritik kalera joan zen bizitzera, baserritik bakarrik bizitzea oso zaila delako. Bera ere fabrika lan egina da. Lehenbizi Zerrajeran lan egin zuen eta gero kooperatiban. Baserriko lana gustukoago du, baina ez du dirurik ematen.

#### **421. Basoak ematen dituen lanak (ESK-042/003)**

Baserri txikia dute, lur-sail txikikoa. Basoek ematen duten lana. Lehen oinez ibili behar izaten ziren batetik bestera.

#### **422. Inguruko mendiak (ESK-042/004)**

Mendian ere ibili izan da inguruetan; inguruko mendien izenak.

#### **423. Baserriko bizimodua vs kalekoa (ESK-042/005)**

Kaleko bizimoduaren eta baserrikoaren arteko alderaketa. Orain baserrian bizitzea nahiago omen du. Auzokoekin harreman ona du eta elkarri laguntzen diote. Baserriko lanak.

#### **424. Eskolara joan beharrean, amari laguntzen (ESK-042/007)**

Eskolara denbora gutxian joan zen. Aita lantegira joaten zen eta berak amari lagundu behar izaten zion etxeko lanetan. Nolako lanak egiten zituen mutikotan. Baserriko lanak.

#### **425. Denbora gutxi libre gaztetan (ESK-042/008)**

Denbora libre gutxi izaten zuen gaztetan. Gurasoak ere lanean eta berak ganadua zaindu behar izaten zuen. Anai-arrebek ere lagundu behar izaten zuten etxean, ezkondu artean.

#### **426. Bolibar auzoko eskola; jolasak (ESK-042/009)**

Eskolatik etxekolan gutxi izaten zuten. Eskolako jolas-orduan pilotan ibiltzen ziren. Neskak sokasaltoka edo kanikaka ibiltzen ziren. Eskolan neska eta mutil batera ibili arren, jolasean aparte ibiltzen ziren. Hogeia ume inguru ibiltzen ziren Bolibarko eskolan.

#### **427. Baserriko tresnen izenak (ESK-042/011)**

Baserriko tresnen izenak. Berak euskaraz izendatzen ditu baserriko tresnak eta ez daki gaztelaniazko izenik.

#### **428. Aurrerapenak; ura etxean, komuna... (ESK-042/014)**

Lehen ez zegoen kotxerik eta oinez joaten ziren kalera astoarekin. Orain baserrian ze animalia dituzten. Berak beti ezagutu du ura etxean, baina bere amak ez. Komuna berak 14 urte inguru zituenean jarri zuten.

#### **429. Bilbora ikastera (ESK-043/004)**

Aita Goribarkoa zen, eta ama Garroena, Goribarkoa baita ere. Baina bera kalean jaio eta bizi izan da. 13 urterekin salesiarretara joan zen ikastera, Deustura. "Perito industrial" egin zuen Bilbon. Tesan egon zen lanean 1952tik 1992an erretiroa hartu arte.

#### **430. Jose Arana eskoriatzarra (ESK-043/006)**

Arana kalean jaio zen, ez du gogoan zenbakia: 5 ala 8. Bere etxea bota egin zuten. Jose Arana Eskoriatzakoa zen, kale horretan jaioa. Garibai kalean hil zen, Donostian; hura hasi zen Aste Nagusia antolatzen. Eskoriatzako eskolek bere izena zuten. Dirua utzi zuen herrirako, eskolak egiteko eta ura ekartzeko.

#### **431. Hiru urterekin mojetara (ESK-043/007)**

Eskola orain ospitaleak dauden tokian zegoen. 3-6 urte artean mojekin egon zen; gero, beheko eskolan. Eta ondoren Arana eskoletara, gora. Gerrak harrapatu zituen: 1937ko apirila arte ez zen eskolarik egon. Gero, nahiko ondo. Lehen 10-14 urte bitartekoak elkarrekin egoten ziren. Mutilak eta neskak aparte.

### **432. Eskolan erdaraz, kalean euskaraz (ESK-043/008)**

Eskolak erdaraz izan ziren beti, gerra aurrean ere bai. Etxean eta kalean beti euskaraz. Hika egiten zuten. Apurtxo bat galdu egin da hori. Apaizari berorika egiten zitzaion, medikuari ere bai.

### **433. Umetako jolasak (ESK-043/010)**

Kontzejupean jolasten zuten pilotan, eta futbolean frontoian. 1936an, San Pedroetan inauguratu ziren bi horma. Atano III joan zen, eta Arriaran anaiak ere bai, jokatzera. "Euskaldun kirol tokia" jartzen zuen. Ezkailuak harrapatzen zituzten errekan, karramarroak. Kanikekin eta intxaurrekin, txapekin ere bai. Banderaka jolasa nola zen. Intxaurren jolasa, intxaurrea zulora sartzen. Trokelarekin egindako txapak hormara botatzen.

### **434. Sasoi bateko garraioak (ESK-043/012)**

Oinez ibiltzen ziren, ziztu bizian kalean, uluka. Bi auto zeuden herrian. Eibar-Gasteiz autobusa pasatzen zen. Gasteiztik Ondarroara errege bidea zegoen eta dilijentziak pasatzen ziren garai batean. Trena Vasconavarros zen, eta Maltzagatik Gasteizera joaten zen. Eskoriatzartik Donostiara joateko hiru ordu behar ziren eta Gasteizera ordubete. Orain, autopistatik 12 minutu.

### **435. Trenak (ESK-043/013)**

Trenak. Goizean bi pasatzen ziren, eguerdian beste bat eta arratsaldean beste bi. 1937an elektrifikatu zen trena, eta 1967an kendu zuten. Zahartu egin ziren makinak eta trenbideak. Pena izan zen kentzea, hobetu beharrean. Jendea joaten zen Gasteizera; osaba-eta saltzera joaten ziren, baserriko gauzekin. Aitona-amonak oinez joaten zirela dauka entzunda. Gerra aurretik bazegoen trena.

### **436. Automobilak eta bizikletak (ESK-043/014)**

Medikuak automobila zeukan, baina baserrira joateko zaldia zeukan. Hiru gurpileko automobila zuen bere aitapuntakoak, txikitxoak. Gerra garaian Hispano-suiza bat ere bazegoen, eta ondoren beste bi. Baina gasolinarik ez zegoen. Bizikleta bazuten. Fielatoa zegoen Arabara joateko. Bizikletarekin joanda erreal bat kobratzen zuten, eta bueltan berriro eman; baina hori lehenagoko kontua da. Arrasatera joaten zen txirrinduan, dentistarengana.

### **437. Argi zentralak (ESK-043/016)**

Ura eta argia bazuten etxean, baina urarentzat zentral txikiak zeuden. Olazarrek ematen zuen argia, baina tentsio baxukoa. Goribarko errota auzorako ematen zuen argia. Beste zentralak. Pelton eta Francis turbinak. Iberduero. Iberdrola. 1967 inguruan Garoña zentral nuklearrerako erreaktorea pasatu zen Eskoriatzatik. Berari egokitu zitzaion sarraillak begiratzea. Franco joan zen hurrengo egunean, inauguratzera.

### **438. Lehen 15 apaiz, orain bakarra (ESK-043/020)**

Eskoriatzan 14 edo 15 apaiz zeuden. San Viatorren beste bi zeuden. Zazpi auzoeliza zeuden, eta bakoitzean apaiz bana. Eta orain apaiz bakarra dago Eskoriatza eta Aretxabaletarako.

#### **439. Lehen ume asko auzoan (ESK-043/022)**

Familia askotan ume asko zeuden. Mendiola auzoan 100 neska-mutil zeuden. Euskal Herriko ohituren arabera, maiorazkoa geratzen zen baserriarekin. Asko joaten ziren moja eta fraide. Orain bikoteko 1,1 ume daude, gutxiegi.

#### **440. Herriko medikuak (ESK-043/026)**

Domingo Arieta zen medikua eta aurrekoa Jose Albizu. Medikuairengana joaten zena laster hilko zela pentsatzen zuten. Gizarte Segurantzaren iritsi zenean, Jesus Aspe etorri zen. Medikua etxera joaten zen, eta pilulak errezetatuz gero handik hiru egunera joaten zen berriro, kontrolatzera. Medikua gurasoak eta familia guztiak ezagutzen zituen. Analisisik ez zen egiten lehen, plakarik ere ez. Ospitalerik ez zegoen inguruan, eta anbulantziarik ere ez. Laguntzailerik ez zuen medikuak.

#### **441. Etxean erditzea (ESK-043/027)**

Umeak etxeetan jaiotzen ziren. Andrearen batek laguntzen zion orduan medikuari. Erditzeetan batzuetan arazoak egon daitezke, eta hobe da ospitalean. Zortzi egunean oilo salda edaten egoten zen emakumea, eta gizonak oiloa jaten zuen. Ohitura horren arrazoiak.

#### **442. Frontea eta granadak (ESK-043/029)**

Frontea non egon zen. Gudariak non egon ziren: Asentzio mendian, besteak beste. Soldaduak herrian bertan eta Latan. San Viatorren egon ziren metrailadoreak. Tiroak. Balak topatzen ibili ziren. Gerra denboran, aitaren baserrira joan ziren; ihesi irten ziren, esan zietelako bonbardatu egin behar zutela dena. Granada bat non erori zen, eztanda egin gabe. Lurrean etzanda, granadak goitik behera. Gauez, morteroekin. Elizan babeslekua zegoen. Azken egunetan granada handiekin ibili ziren. Lagun bat besoan zauritu zuten eta andre bat sabelean.

#### **443. Gerra nola hasi zen (ESK-043/031)**

Etxearen aldamenean bonba bat erori zen, baina txikia; elizan beste bat. Gerra nola hasi zen. Aita saltzailea zen, eta ikusi zuen Madrilan komentua erre eta apaizak hiltzen zituztela; zerbait gertatuko zela esaten zuen. Urriko matxinada eta hildakoak. Gerra aurreko egoera. Calvo Soteloaren heriotzaren ondoren militarrek altxatu egin ziren.

#### **444. Granadak eta hegazkinak (ESK-043/033)**

Granadak kanoiekin eta morteroekin jaurtitzen zituzten. Kalibreak. Hegazkinak. Leten jausi zen aireplano bat. Junker 88 hegazkinak Gasteiztik zetozen. Eibarren armamentu-lantegia zegoen, eta Francoren tropek har ez zezaten dinamita jarri nahi zuten. Baina norbaitek metxa apurtu zuen. Batek kontatu zion Labe Garaiak apurtzea ere nahi zutela, baina ez zutela utzi.

#### **445. Gerra hasi zenean (ESK-043/035)**

1936ko abuztuan sartu ziren. Legutioko borroka Eskoriatzatik entzun zitekeen, azaroan. Bizkaia alderantz joandakoak bueltan etorri ziren.

#### **446. Etxe bakoitzean soldadu bana (ESK-043/037)**

Apirilaren hasieran ofentsiba egon zen. Erreketeak joan ziren orduan, San Inazio tertzioa. Etxe bakoitzean bat hartu behar zuten. Palentziako bat izan

zuten beraiek etxean egun pare batean. Kanoiak non egon ziren; Asentziora egiten zuten tiro, eta mordoa hil ziren. Urte tristeak izan ziren.

#### **447. Anaia, bost urtean soldadu (ESK-043/038)**

Frantzia zati bat okupatu zuten alemaniarrek; eta, zati bat libre zegoela konturatu zirenean, dena okupatu zuten. Han zeuden errepublikanoak kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten. Batzuk lizentziatu egin ziren, eta bueltan berriro joan behar izaten zuten soldadu. Bere anaiari gertatu zitzaion hori. Bost urte soldadu, azkenean.

#### **448. Gerra osteko gosea eta estraperloa (ESK-043/042)**

Gerra ostean ezer ez zegoen. Baserrian bertako gariaren zati bat eman egin behar zen, baina bestea zen. Oiloak eta arrautzak bazeuden, baina oliorik ez. Behiaren gantza ere erabili zuten batzuek. Indar gabe zeuden denak, goseak. Lantegira joaten zen, eta burdinarik ez zegoen. Txatarra erosi eta funditzera bidaltzen zuten. Estraperloa egiten zen. Latoia eta nikela nola lortzen ziren. Zulodun erreala. Garia alemaniarrek eramaten zuten.

#### **449. Eskoriatzako lantegiak eta Tesa (ESK-043/045)**

Gerra aurretik ere martxan zegoen tailerra. Uribarren eta konpainia zen hasieran, eta, gero, Tesa bihurtu zen. Hutsetik hasi ziren. Gerra aurretik ere txarra zen egoera. Aita Eibarren egon zen lanean, eta, 1929ko krisiaren eraginez, plazan janaria ematen zuten. Eskoriatzako lantegiak. Gatzagan egon zen sarraila lantegi bat, eta hangoak Arrasatera joanda egin zen Uni&oslash;n Cerrajera. Eskoriatzan Zubizarreta eta konpainia, Tesa eta Lantegi egon ziren. Lapikoak egiteko lantegiak: Alza, Ali, Geu... Gerraostean, lan asko zegoen. 1940-41ean sortu zen Tesa. Lantegiaren funtzionamendua nolakoa zen. Eskuz nikelatzen zituzten piezak. Bi pabilioi egin zituzten. Aitak 680 pezeta irabazten zituen hilean, eta sinsikatuari pezeta bat ordaintzen zion. 14 urterekin hasten zen lanean, "pintxe", eta 80 pezeta irabazten zuten.

#### **450. Jolasak eta jakiak (ESK-045/004)**

Auzoko umeek "txirikillan" jolasten zuten. Geroago mutilak bizikletan ibiltzen hasi ziren. Goizean taloa edo artoa esnearekin, eta eguerdian babarrunak azarekin jaten zuten egunero. Igandetan bakarrik hartzen zuten salda ona eta okela tomatearekin eta piper handiekin. Oiloak eta untxiak ere izaten zituzten etxean. Ama Gasteizko plazara joaten zen, etxeko gauzak saltzera.

#### **451. Gasteizko azokara trenez (ESK-045/005)**

Lursailak eta ganaduak erosiaz eta etxeko umeen lanekin, etxea jaso zuten pitinka-pitinka. Leintz Gatzagan hartzen zuen amak Gasteizera zihoan trena, baina Leintz Gatzagaraino oinez joan behar izaten zen, otzarak eskuetan hartuta. Gaztaina denboran, gaztainak eta salda izaten zen eguneroko afaria.

#### **452. Jaietan txistua eta danbolina jotzeko ohitura (ESK-045/006)**

Auzoko jaietarako familia osoak elkartzen ziren. San Pedro egunean etxerik etxe ibiltzen ziren txistua eta danbolina jotzen, dirua biltzen. Gazte denborako erromerietan txistua eta danbolina jotzen zituzten; soinua jotzen geroago hasi ziren.

#### **453. Aita Kubako gerran egona (ESK-045/008)**

Gregoriaren aita eta beste bertako batzuk Kubako gerran egon ziren. Itsaso txarrarekin joan omen ziren eta ez zuten denbora askorik pasatu bertan, bidali egin omen zituzten handik. Aitak ez zuen babarrunik jaten, baina barazki zalea zen. Ardoa ere gustuko zuen eta ehun urte hartu zituen. Hogei urterekin ezkondu zen Gregoria Urazandi baserrira. "Beroa" lantegiko nagusiek Gregoriari eta bere ahizpa bati eskaini zieten lana.

#### **454. Gerran auzoa hutsik (ESK-045/014)**

Gerra denboran auzoa ia hutsik egon zen. Eurak Oroko etxe zahar batean egon ziren, baina gurasoak beste etxe batera eraman behar izan zituzten. Sei seme-alaba izan ditu Gregoriak.

#### **455. Hegazti-gripea Eskoriatzan (ESK-046/010)**

1955. urtean oilo guztiak hil zitzaizkien, hegazti-gripeak jota. 35 oilanda besterik ez zitzaizkien geratu. Nahi gabe, gaitza Eskoriatzara ekarri zuten, baina ez zen beste kalteturik egon, Karmenek dakiela behintzat. Erre egin behar izan zituzten gaixotutako oiloak. Bai oiloek eta baita ugazabek ere asko sufritu zuten gaitzaren erruz.

#### **456. Garbantzuk 100 gramoka saltzen (ESK-046/011)**

Dendaren hasierako bitxikeria batzuk. Garbantzuk 100 gramoka saltzen ziren; errealetik pezetara aldaketa; gerraosteko paperezko diru-baleak. Azkenengo paperezko dirua Errepublikakoa izan omen zen.

#### **457. Gerraosteko miseriak (ESK-046/013)**

Hegazti-gripearen ondorioz gaixotu zitzaizkien oiloak ortuan pilatu, gasolinaz igurtzi eta erre egin zituzten, edo lurperatu. Diru-baleak kolore ezberdinetakoak ziren, balioaren arabera. Erosketak ordaintzeko nahikoa diru ez zutenei izena hartzen zitzaien dendan, dirua zutenean ordain zezaten.

#### **458. Birramonak miñoia menderatu (ESK-046/014)**

Gose denboran litro bat oliori ematen zitzaion balioa. Errazionamenduko ogia ez zegoen jaterik. Estraperloa. Karmenen birramonak bere ahizparekin miñoia zuhaitz batera lotuta utzi zueneko.

#### **459. Eskola kontuak; dantza bekatu (ESK-046/018)**

Belaunaldi ezberdinak elkarrekin. 14 urtera arte "Hermanas Mercedarias"en ikasi zuen. Goizetik eskola eta arratsalde arrosarioa errezatu ondoren, eskulanak egiten zituzten. Helduta dantza egiteagatik zigortzen zituzten; "conducta: cero" beste neska batekin dantza egiten bazuten, edo "zortzi egunerako etxera" mutil batekin izan bazen.

#### **460. Bordatzen ikasi zuen (ESK-046/020)**

Bolibar auzoko eskolan urtebetez ibili eta gero kalera etorri zen. Mojetakoa bukatu eta Arrasatera joan zen bordatzen ikastera. "Singer" etxeak Bilbon ematen zituen bordatze ikastaroetako bat egin zuen.

#### **461. Bordatzeko makina zaharrak (ESK-046/022)**

130 pezetako bordatzeko makina erosi zuen Karmenen amak Gasteizen. Makina zahar horrek oraindik ere puntada finagoa egiten omen du makina berriagoek baino. Bilbon ikasten zegoela, baba handien leka, alerik gabe, eman zioten jateko.

#### **462. Tertuliak kalean eta baserrian (ESK-046/026)**

Lehenago etxekoandreak San Juan kalean elkartzen ziren tertulian, bakoitza bere lana egiten; prakak konpondu, patatak zuritu, etab. Umeak ere amen kontuak entzuten egoten ziren. Arto-zuritzea ere tertulian egiten zen, baserri ezberdinetakoak elkartuta. Batzuetan arrosarioa errezatzen zuten. Beste batzuetan "kuri-kurike" jolastu. Ohitura horiek gaur egun galduta daude.

#### **463. Gutxiagorekin konformatzen ikasita (ESK-046/027)**

Lehenagoko jendeak konformidade handiagoa zuen. Gutxiarekin bizitzen ikasita zeuden. Bolibarko eskola berria 1932an ireki zuten. Auzoko gizonek auzolanean egin zuten eskola. Eskola horretako azken ikasturtea 1974. urtean eman zuten. Azkenengo maistra, zaragozarra, Eskoriatzara ezkondu zen.

#### **464. Alfilerka jolasa (ESK-047/003)**

Alfilerrekin nola jolasten zen azaltzen du. Alfilerak irabazteko zer egin behar den.

#### **465. Txirikiletan eta zapiaren jolasa (ESK-047/008)**

Txirikiletan jolastea arriskutsua da, makila airean hartu behar delako. "Pañuelito" jolasa.

#### **466. Aita gau eskolako irakasle (ESK-047/013)**

Aita Almenera joan zen eskolara, gaztea zela, eta ez zen bueltatu. Gero, eskola ematen egon zen bera. Bere kabuz ikasi zuen dena. Joxe Mari zuen izena. Bi pezeta ematen zizkioten. Ardizain ibili zen mutikotan. Barre zergatik egiten zioten ikasleek.

#### **467. Aita, bere kabuz ikasia (ESK-047/015)**

Bere kabuz ikasi zuen zekiena aitak. Ama (amona) bildotsak saltzera joaten zen, eta semeak problema liburuak ekartzeko esaten zion.

#### **468. Marulandako taberna (ESK-048/024)**

Marulandako taberna beti izan dute etxean. Lehenago denda ere bazen. Ardoa ere saltzen zuten. Bere ama zen bertako arduraduna, eta amaren familiak Leintz Gatzagan ere denda eta taberna zuten.

#### **469. 12-13 arrautza frijitu egunero (ESK-048/025)**

Azatzako abadea zen bere osaba, eta beti berarengan bizikletan joaten zen. Arrautza jatea txarra oken zen baina berak 12-13 arrautza frijitu jaten zituela dio, baina berari ez zion kalerik egiten.

#### **470. Espainiako txapeldun plater-tiroketan (ESK-048/026)**

Plater-tiroketarako zaletasuna izan du. Ehizan ibilitakoa da eta eskopetarekin duen abilitadearen ondorioz, Errusian ere egon zen talde nazionalarekin.

Espainiako txapeldun ere izan zen. Francoren garaiko Espainiako ereserkia entzun behar izan zuen.

#### **471. Munduko txapelketan Moskun (ESK-048/028)**

Moskun (Errusian) egon zen. Espainiak zilarrezko domina lortu zuen plater-tiroketan. Berak 200etik 193 egin zituen eta hirugarren egin zuen. Hurrengo urtean Bartzelonan egon zen Europako txapelketa. Momentu horretan guztien artean onena errusiar bat zen eta hari buruz hitz egin du. Errusiako garaiko kontuak ere gogoratzen ditu.&nbsp;

#### **472. Aduanako kontrolak (ESK-048/030)**

Errusiara olinpiadetara joan zeneko kontuak. Aduanan nolako kontrola zegoen kontatzen du. Ezin zen ia ezer ekarri Errusiatik hona. Errusian hotz handia egiten zuela gogoratzen du.

#### **473. Errusiako hotzaren eragina entrenamenduetan (ESK-048/032)**

Horrenbesteko hotza egiten zuen Errusian zortzi zenbakidun perdigoiarekin barik zazpi zenbakidunarekin entrenatu behar izaten zutela. Aldaketa nabaria zegoen bien artean. Bera zen bertako euskaldun bakarra; Espainiako taldean zeuden gainontzekoak Madrilgoak ziren.

#### **474. Kamioilari lanetan (ESK-048/033)**

Txirrindulari izateari utzi zion kamioiarekin lanean hasteko. Gau eta egun aritzen zen lanean. Gurpilak eta hagunak (Ilantak) eramaten zituzten Seatera, zerrajeran egindakoak. Handik bueltan askotan Calahorra aldetik eraikuntzarako materiala ekartzen zuen Bilbo aldera.

#### **475. Fagorreko gidaria (ESK-048/037)**

Fagorren ere gidari lanetan aritu zen. Sasoi hartan Fagorren lanean hastea gaitza zen. eta bertan egon zen 30 urtez. Kamioiarekin zein kotxearekin aritzen zen.

#### **476. Azeriak oiloak erasotzen (ESK-048/040)**

Oilategia kendu zuten azeriengatik. Behin 15-17 oilo hil zizkieten gau batean. Noizbait zepoarekin azeriren bat harrapatu izan du.

#### **477. Bateria-jotzaile erromerian (ESK-048/042)**

Domekero jaia izaten zuten. Berak jasbana (bateria) jotzen zuen, bere anaiak akordeoi txikia eta koinatuak tronpeta. Mahai bat kanpora atera eta han jotzen zuten. Bertan festa itzela antolatzen zuten. Hasieran Marulandan jotzen zuten, baina azkenerako domeka bat Leintz Gatzagan eta beste bat Marulandan, txandaka aritzen ziren. Eskoriatzako Osintxu anaiak ere akordeoia jotzen zuten, eta askotan beraiekin joaten zen herririk herri. Oraindik jotzen du noizean behin akordeoia.

#### **478. Eskoriatzako eskolako kokalekua (ESK-048/045)**

Eskoriatzan eskola nazionalak non zeuden azaltzen du.

#### **479. Dopatu zutenekoa I (ESK-048/050)**

Behin drogatu egin zuten Jesus, Donostian, Aieten. Lasterketa oso gogorra zen, Jaizkibel igo behar zuten. Bezperan, bere taldekide batek, Abadi&ntilde;oko Urienek, Lefa izeneko pilulak erosi zituen botikan eta haiek hartzeko gomendatu zion Jesusi. Hala ere, aurretik gelditu zen.

#### **480. Dopatu zutenekoa II (ESK-049/002)**

Irundik Kursaalera, txirrindularitza lasterketa batean: 17 segundoko aldea atera zien gainerakoei, Ategorrietatik helmugara. Behin bakarrik dopatu da, orduantxe.

#### **481. Baserritarrak errotara (ESK-050/003)**

Inguruko baserrietakoak joaten ziren euren errotara eta baserri horien izenak aipatzen ditu. Beste bi errota ere bazeuden eta horiek ere aipatzen ditu.

#### **482. Eskola kontuak (ESK-050/007)**

Aireplanoetatik bertan ondoan bonba bat bota zuten, Naparreneko oilategira, baina ez zuten apurtu. Eskolara 4 urterekin mojetara joan zen eta gero zazpi urterekin maisuarekin beheko eskolan. Mesedeetako mojen komentua zegoen, gero zinea izan zena; kapera, ortua eta eskola zuten.

#### **483. Aretxabaletako maisu "kojoa" (ESK-050/010)**

Beheko eskolako maisuak nazionalak ziren. Maisu "kojoa" zuten. Aretxabaletatik etorriko maisu erdalduna.

#### **484. Beheko eskolatik goiko eskolara (ESK-050/012)**

Beheko eskolatik goiko eskolara, plazara, joan ziren urte pare batera. Beste maisu batzuk zituzten han, haiek ere nazionalak.

#### **485. Kaleak hainbat izen izan ditu (ESK-050/016)**

Euren etxea berez kalekoa da, kale-baserria. Orain arte etxea dagoen auzoak izen ezberdinak izan ditu: Jeneral Mola eta San Juan kale. Gaur egun Elorta auzoa da. Beste kale batzuk ere aipatzen ditu.

#### **486. Garia entregatu beharra (ESK-050/021)**

Garia udaletxe azpian entregatu behar izaten zuten.

#### **487. Eskoriatza inguruko erromeriak (ESK-050/024)**

Inguruko erromerietara ere joaten ziren, Bolibarko San Migel jaietara familiarekin bazkaltzera joaten ziren, San Bartolome jaietan, berriz, Gaztainetxera joaten ziren.

#### **488. Argindarra: bi zentral (ESK-052/002)**

Argindarra. Olasarre zentrolean sozio ziren, hantxe zegoen presa; hura nola hondatu zen. Argi gabe zeuden. Goribarriko zentrala ere bazegoen, baina ez zuen indar handirik.

#### **489. Urik gabeko garaia (ESK-052/003)**

Soldadu zegoela ipini zuten ura etxean. Zuloa egin zuen, eta ura topatu zuen. Depositua egin zuten. Ordura arte errekan egiten zen dena. Arropa nola eramaten zuten. Astorik ez zuten, baina behar ere ez gauzka garraiatzeko, etxearen bueltan zituztelako soroak.

#### **490. Ur handiek harrapatutako idiak (ESK-052/006)**

Ardoa garraiatzen lan egiten zuen mutil baten kontuak: hodei zaparradak harrapatu zuen Bergaratik bueltan; gero, idiak lotzen ari zela, erreka sartu zen ukuilura. Idiari buztanetik helduta irten zen, igerian.

#### **491. Estraperloa Arabatik (ESK-053/010)**

Arabatik garia ekartzen zuen, estraperlo garaian. Lehenengo astoarekin eta gero motoarekin ere bai. Basorik baso, Gatzagatik. Bergarako batzuk nola harrapatu zituzten, berak saldutako gariarekin. Guardia zibilen kontrolak.

#### **492. Motoak erosi eta saldu (ESK-053/012)**

Motoak konpontzen eta saltzen ibili zen, bere kontura. Arabatik ekartzen zituen. Ondo saltzen ziren. Argazkia: moto gainetik futbolean.

#### **493. Akrobaziak motoarekin (ESK-053/014)**

Argazkia: motoarekin ohol baten gainean.

#### **494. Lasterketak txirrinduekin (ESK-053/015)**

Motoan ez, baina bizikletekin parte hartu zuen lasterketa batzuetan. Oñatikoa kontatzen du. Otxandion hirugarren nola egin zuen.

#### **495. Bizikletan, atzerantz (ESK-053/017)**

Atzerantz ibiltzen zen bizikletan, besoak gurutzatuta. Argazkia erakusten dute. Umetatik ikasi zuen bizikletan ibiltzen.

#### **496. Estraperloan beste batzuk ere (ESK-053/019)**

Jendea ere ekartzen zuen Arabatik, ohol batzuk jarrita, furgonetan. Arabako mugan, miñoi batek esan ziona. Miñoia bera ere estraperloan ibiltzen zen. Tabernan egoten ziren.

#### **497. Soldadutzatik bueltan, taxilari (ESK-053/021)**

Soldadutzatik bueltan, taxilari hasi zen. Motoak ere bazituen. Araban hasi zen taxista lehenengo, gero Eskoriatzan eta Aretxabaletan. Argazkia: Salvatierran erosi zuen lehen taxia.

#### **498. Seat autoak (ESK-053/023)**

Lehenengo Citroen. Seat autoak etorri ziren gero: A, B eta C. Ez zen erraza lortzea; taxista izanda, abantaila zuen.

#### **499. Gasolina kupoa (ESK-053/025)**

Gasolinarekin zeuden arazoak. Taxilariak kupoa zuten. Gasolina kupoa erakusten du, 1950ekoa.

### **500. Taxiarekin Andaluziaraino (ESK-053/029)**

46 urte egin ditu taxista. Frantziara joaten zen, eta Espainian toki askotara. Andaluziara eta. Hiletetara joaten ziren asko.

### **501. Erromerian, pianolarekin (ESK-053/031)**

Erromerietan musika jotzen zuten anaiek. Pianolarekin, taberna ondoan. Igandero. Jende asko joaten zen. Mutikotan dirua batzen ibiltzen zen. Angiozarko itsuaren osaba batek jotzen zuen hasieran, eta, gero, etxeakoak hasi ziren. Araba aldera ere joaten ziren.

### **502. Gurasoak bezalaxe, San Juan kalekoa (ESK-054/002)**

San Juan kalean jaio zen, etxean. Zazpi senidetan gazteena da. Eskoriatzakoak ziren gurasoak. Ama Iregi etxean jaio zen, San Juan kalean bertan; "txurrenak" esaten zieten. Iregitarrek. Aita ere San Juan kalekoa zen.

### **503. Aita, zerrajeran; ama, arrandegian (ESK-054/004)**

Itarteren (Tesa lantegiko sortzailea) baratzean lan egiten zuen aitak. Zerrajeran zebilen, baina, soldata txikia zuenez, hainbat baratzetan egiten zuen lan. Amak arrandegia jarri zuen gerra ostean. Enkarguak egiten zituen berak, Gatzagara ere eramaten zuen arraina. Eskoriatzako arrandegi bakarra zen hasieran; gero, bi zeuden.

### **504. Eskolako kontuak (ESK-054/005)**

Eskolan Eskoriatzan ibili zen, eskola nazionaletan lehenengo, eta gero fraideek ikastetxea jarri zutenean, San Viatorrera joan zen. Hermano Luis Mujika eta Clemente Lopez Cano maisuekin. Pilotari ona zen Mujika.

### **505. Eskola eta ondorengo ikasketak (ESK-054/007)**

Luis Mujika maisua Alkizakoa zen, gaztetatik Eskoriatzara etorria. Euskaraz ondo jakin aurren, erdaraz ematen zuen eskola. Euskaraz egitea debekatuta zuten. "Euskal kiroltokia" jartzen zuen pilotalekuan, eta kendu egin zuten. 13 urte arte egon zen eskolan, eta gero "Escuela de aprendizs"-en, Zerrajeran. Lau urtean edo. Titulua: "Maestro industrial".

### **506. Zerrajerako eskolako buruak (ESK-054/009)**

Hermano Juan Zubizarreta zen Zerrajerako eskolako burua. Hermano Ino ere bazegoen. Fraide viatoristak ziren maisuak. Inocencio Lafuente.

### **507. Zerrajeratik Azbera (ESK-054/011)**

Zerrajerako eskolan zer ikasten zuten eta zeintzuk ziren irakasleak. Fagorreko sortzaileak, Alfonso Gorroñogoitiak, Elektrizitatea irakasten zien. Zerrajeran hasi zen, baina gero irten egin zen handik, Azbera. Familiakoa zen Azbe. Jendea nola joan zen kooperatibetara zerrajeratik. Azbetik zerrajerara joan zen berriz, eta hantxe erretiratu zen.

### **508. Baserri-etxeen izenak (ESK-054/014)**

Baserri-etxe izenak. "Txurrena". Errekalde, Antxita, Txintxillo, Linotxuena, Arbena... Askok aldatu dira San Juan kaleko etxeak. Lehen, auzo bat bezalakoa zen. Bolivarko bidea. Trafiko handia dago orain.

### **509. Pilotan eta futbolean (ESK-054/016)**

Pilotan jokatzeko zuten, Luis Mujika maisua zalea zelako. Futbolean ere ibiltzen ziren. Fraideekin mendira joaten ziren; ardoa eramaten zuten maisuak. Erdaraz beti maisu hark. Omenaldia egin zioten maisuari.

### **510. Kontzejupean pilotan (ESK-054/017)**

Kontzejupean asko egiten zen pilotan. Lehen, harri-losak zeuden. Pilota udaletxeko atean sartzen zen batzuetan.

### **511. Sarraila artean beti (ESK-054/019)**

Emaztea Aretxabaletakoa da, Urretazubia; Azbeko sozioak ziren. Sarraila artean egin du bizimodua. Zerrajeran krisia etorri zenean tailer txiki batean ibili zen, Dorlan. Tesak erosi zuen gero.

### **512. "Jazbana" plazan (ESK-054/020)**

Soinua egoten zen plazan. Eta gero "jazbana" famatua, igandetan; garizuman ez. Neska-mutilek elkarrekin dantza egitearren arazorik ez du berak ezagutu.

### **513. Inguruko herrietako festetara (ESK-054/022)**

Aretxabaletara eta Gatzagara joaten ziren festetan. Dorletako Ama Birjina oso maitatua zen herrian. Arrasatera ere joaten ziren sanjoanetan; tren bereziak zeuden.

### **514. Gerra denbora eta gerra ostea (ESK-054/023)**

Gerra hasi zenean, lau urte zituen, baina errazionamendua ezagutu zuen. Pilarica egunez Guardia Zibilek jai izaten zuten, estraperlorako erabiltzen zuten. Gerra denboran, Eskoriatzan inor ez zuten hil.

### **515. Eskoriatzan, gerrako hilketarik ez (ESK-054/025)**

Esaten dute itartetarrek esku hartu zutela herrian hildakorik ez egoteko.

### **516. Soldaduak emandako bandurria (ESK-054/027)**

Gerrako kontuak, sei urteko mutikoa zela. Bandurria bat eman zion soldadu batek, esanaz bueltatuko zela bila. Eskaileran otoitzean nola egoten ziren, eta soldadu bat nola fusilatu zuten.

### **517. Trena (ESK-054/028)**

Trenaren tunelera joaten ziren, babes bila. Trenez joaten zen eskolara; lehenago, bizikletaz. Jangelan bazkaltzen zuen.

### **518. Tren-istripua Gatzagan (ESK-054/030)**

Trena kendu zuteneko giroa. Tren bat nola erori zen, Gatzagan.

### **519. Norgehiagoka (ESK-054/033)**

Inguruko herriei norgehiagoka. Eskoriatza-Aretxabaleta. Pilotariak. Desafioak kontzejupean egiten ziren, baina txikiak. Dionisio Carrion.

## **520. Eskolan zigorra euskaraz egiteagatik (ESK-055/003)**

Mojekin urte pare bat egin ondoren San Viatorren hasi zen, fraideekin. "Hermano Luis" pilotaria izan zuen maisu. Jolas-orduetan txanpon faltsu bat hartzen zuen euskaraz egiten zuenak. "Lapurka", "banderaka", pilotan eta futbolean egiten zuten jolas.

## **521. Baserritik lantegira (ESK-055/006)**

Errotak prezintatuta egon zirenean, gauez eramaten zuten garia ehotzera, Bolibar edota Gazta&ntilde;adi auzoko errotetara. Eustakioren seniderik ez zen gerrara joan. Lau anai-arreba izan ziren. 18-19 urte arte egon zen baserrian, gero Aretxabaletako BEROAnean egin zuen lan soldadutzara joan zen arte. Hori bukatu eta TESA lantegian hasi zen lanean. Zazpi urte geroago COPRECIn lanean hasi eta jubilatuta arte jardun zuen bertan.

## **522. Kale-baserrientzako auzo jaiak (ESK-055/007)**

BEROAn hozkatze lana egiten zuten, sukaldeko tresneria ekoiztuz. Eustakio ez zen COPRECIn sortzaileetako bat izan, baina artean langile gutxi zirela hasi zen bertan lanean. Balbulak ekoizten zituzten. Kale-baserrikoak zirenez, euren jaiak ere kalekoak ziren, nahiz eta Gatzagako Andra Mari eguna kale-baserrien jaia bihurtzeko saiakeraren bat izan zen. Jaietan aizkolariak ekartzen zituzten. Aztibi aizkolaria modan egon zen garaia gogoratzen du.

## **523. Estraperloan Arabara (ESK-055/008)**

Igandetan musika bandak jotzen zuen herriko plazan. Bere emaztea izango zena, Errioxako San Bizentekoa, ezkontza batean ezagutu zuen. Lau seme-alaba izan dituzte. Eustakio sarritan joan izan zen Arabara estraperloan. Langara Ganboara (Nanclares) joaten zen astoarekin. Garia edo patata ekartzen zuen, etxerako. Goizean joan eta gauerako etxera itzultzen zen.

## **524. Bizikletaz edozein lekutara (ESK-055/011)**

Itziarko Ama Birjinaren Koronazio egunetan, Eustakio herriko mutiko kuadrilla batekin bizikletaz joaten zen Itziarrera. Bizikleta erdibana zuen anaiarekin, eta txandaka erabiltzen zuten. Gasteizera ere joaten ziren bizikletaz 8-10 lagun Arlabaneko bidetik.

## **525. Bizikletaren ondoren, Lambreta eta Renault 6-a (ESK-055/014)**

1956. urte inguruan Lambreta motor bat erosi zien aita Eustakiori eta anaiari. Behin O&ntilde;atiko jaietatik zetorrela, San Prudentzion horma jo zuen motorrarekin. Soldadutzan karneta atera zuen, eta lehenengo kotxea R6 bat izan zuen. Soldadutza Logro&ntilde;on egin zuen. "La Bergaresa"-ko autobusean Gasteizera, eta handik Logro&ntilde;ora ere autobusez joaten zen.

## **526. Oinez joateko erromeriak (ESK-055/016)**

Otalora Zelai eta Atxorrotzeko erromerietara oinez joaten ziren.

## **527. Klausurako moiei esnea eramaten zieten egunero (ESK-058/004)**

Egunero hiru litro esne eramaten zizkieten mesedetako moiei. Sobratzen zena Demetrioren dendara eramaten zuten. Mesedetako mojen komentua. Eskolak ematen zituzten. Klausurako mojak zirenez, tornu batean pitxar bat bidaltzen

zieten eta huraxe bete behar izaten zuten esnez. Igandeetan dirua ere tornutik bidaltzen zieten.

### **528. Mesedetako mojen komentuko eskola (ESK-058/005)**

Mesedetako mojek, klausurakoak izan arren, eskolak ematen zituzten. Gaur egun zinea dagoen lekuan zegoen komentua. Bera ere han ibili zen maistrarengana joan aurretik. Moja batzuk onak ziren, baina beste batzuek egurra ematen zuten. Euskaraz ikasten zuten. Eskolak goizez eta arratsaldez.

### **529. Euskarazko dotrina ezin ikasita (ESK-058/006)**

Jaunartzea egin behar zutenek dotrina ondo ikasi behar. Ikasten ez zutenak zigortuta eskolan. Berak ezin izaten zuen euskarazko dotrina ikasi eta gaztelaniaz, berriz, erraz moldatzen zen.

### **530. Mezak mojen komentuan; Arantzazuko fraideak (ESK-058/007)**

Mesedetako mojen komentuan mezak euskaraz ematen zituen on Gregoriok. Mezaren zati batzuetan latinez egin arren, sermoiak euskaraz izaten zirela dio. Aste Santuetan Arantzazuko fraideak joaten ziren urtero, sermoiak egitera. Mojen komentuan goizeko zortzi eta erdietan egoten zen meza eta jende asko batzen zen.

### **531. Osaba gaixoa eta gaixoentzat erresidentzia (ESK-058/010)**

Gogoan du aitaren anaia bat ez zegoela burutik ondo eta gerra sasoian Eskoriatzan zegoen erresidentzian sartu zutela. Gerratean bonba bat erori zela eta hura ikustera joan zenean, bertan ito zen. Mesedetako mojena zen erresidentzia. Periko izeneko batek ganaduaren burua eta hankak eramaten zituen hara, salda egiteko.

### **532. 15 urterekin "Arruerenera" (Beroa lantegia) (ESK-058/012)**

15 urterekin "Arruerenean" (Beroa lantegia) hasi zen lanean. 14 urtez jardun zuen han. Gero Kamiñokua baserrira ezkondu zen. Aluminiozko piezak egiten zituzten, esaterako, lapikoen kirtenak. Edalontziak leundu ere egiten zituzten.

### **533. Umetako jolasak; Garizuman txirikila (ESK-058/014)**

Mojen eskolan neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren, baina eskola nazionaletan ez. Umetako jolasak. Txirikila Garizumako jolasa izaten zen.

### **534. Aretxabaletara lantegira oinez (ESK-058/016)**

Beroa lantegira oinez joaten zen. Eguerdian etxera bazkaltzera eta arratsaldean buelta. Egunean zortzi ordu lan egiten zituen lantegian. Gero, etxera joandakoan, baserriko lanak. Soroan zer izaten zuten.

### **535. Elorreta edo Errotabarri errotetara (ESK-058/017)**

Etxean egiten zuten ogia. Auzoko Elorreta errotara joaten ziren normalean, batzuetan Errotabarrira ere bai. Irinetan edo dirutan ordaintzen zen errota. Errotariak.

### **536. Zekorra haizatu eta lehertu zeneko kontuak (ESK-058/020)**

Kamiñokua baserriko ganadua. Behin zekor bat alpaparekin haizatu eta lehertu egin zitzaiera kontatzen du. Harakinak Gasteizen salduko zuela haragia esaten zien, baina al baitariaren bitartez maristei saldu zieten, hark haragia gordetzeko armairua bazutela eta. Eskoriatzan bazegoen ganadu ermandadea; Erko txekoek parte hartzen zuten, baina Kamiñokua baserrikoek ez.

### **537. Senarra 15 hilabetez igeltsuarekin (ESK-058/023)**

Txahal batek berna-hezurra apurtu zion senarrari, eta 15 hilabetez egon zen igeltsuarekin. Azkenean mareatu egin zen eta ospitalera eraman zuten. Hanka gangrenatuta zeukan hainbeste denboran hala edukita. Hanka hura ez zitzaion ondo geratu.

### **538. Erromeriara gutxi joaten zen (ESK-058/025)**

Gaztetan ez zela erromerietara joaten dio. Inoiz edo behin irtenez gero, plazara joaten zen lagunekin. Lanetik etxerakoan ezagutu zuen senarra. Senarrarekin ere ez zen irteten, batzuetan jai egunetan ere lan egin behar izaten zuen eta.

### **539. Apotzagako bidea erakusteko eskatu zioten soldaduek aitari (ESK-058/027)**

Gerra hasi zeneko oroitzenak. Soldaduak joan zitzaizkien etxera. Berak negar egiten zuen, beldurtuta. Aitari Apotzagarako bidea erakusteko eskatu zioten eta beraiekin eraman zuten. Bera kezkatuta egon zen, aitari zerbait egingo ote zioten. Ez zuten izan arazorik soldaduekin. Batzuetan bala galduak iristen ziren euren etxera.

### **540. Senarra gerra sasoian zaurituta (ESK-058/029)**

Senarra soldadu eraman zuten gerra sasoian eta belaunean zauritu zuten. Ezgaitasuna eman zioten, baina, medikua aldatu zenean, paperak galdu egin ziren. Bera egon zen lekuan zeuden moiei esker berreskuratu zituen paperak. Hanka bat motzagoa geratu zitzaion. Pentsioa jasotzeko Madrilera joan behar zen, baina ez zuen joan nahi izan, mareatu egiten zela eta.

### **541. Gerraosteko errazionamendua eta etxeko gaiak entregatu beharra (ESK-058/031)**

Gerraosteko errazionamendua. Baserritarrei ez zizkieten ematen zenbait elikagai (babarruna, dilistak...). Eta, alderantziz, etxean jasotakoaren zati bat udaletxean entregatu behar izaten zuten: artoa, garia era patata. Gari nahikoa ez eta erosi egin behar batzuetan. Alkate oñatiar bati esker kendu zen garia entregatzearen kontua. Kontrabandoa.

### **542. Garai batean baserri guztietan idiak (ESK-059/001)**

Baserri guztietan idiak zeuden. Herriko batek idi gazteak ekartzen zituen Arabatik eta etxean hazi eta gero zaharrak berriz eraman. Araban baserri askotan bi idi-pare izaten zituzten. Nola ibiltzen ziren garia ereiten emakumezko eta gizonetzkoak. Garai hartan esaten zuten neska gazteak baserritik alde egin nahian ibiltzen zirela, lan gogorra zelako. Gaur egun ere ez da erraza baserriko bizimodua, aurrerapenak egon arren.

### **543. Izan dituen ganadu klaseen inguruko azalpenak (ESK-059/003)**

Garai batean esne-behiak izaten zituzten; gero "suizak". Behi onak ziren, esne askokoak. Albaitaria. Gero "pirenaica"k edo larre-behiak ipini zituen, okelatarako. Behiek eta behorrek kaltea eragiten dute zelaian.

### **544. Romarate edo "Monterena" baserrian jaioa (ESK-059/006)**

Gurasoak ondoko baserri batetik joan ziren Romarate baserrira bizitzera eta beraiek, zortzi neba-arreba, bertan jaio ziren. Batzuek "Monterena" esaten diote; `Montera´, aurreragoko aitajaunen batengandik datorren gaitzizena omen da. Romarate izena ez daki nondik datorren. Marin auzoan izen bereko beste baserri bat dago.

### **545. Milizianoak inguruetan azarotik apirilera (ESK-059/008)**

Zortzi urterekin hasi zen eskolan, jada gerra hasita. Milizianoak azarotik apirilera bitartean egon ziren inguruetan. Tolosako bat egoten zen kanpandorrean, zaindari. Egunero joaten zen euren etxera gosaltzera. Atxorrotz inguruan nazionalak egoten ziren eta behetik kanoikadak botatzen zituzten harantz. Bera mutikoa zen artean eta pozik egoten zen balak, kanoikadak edo gerraren ingurukoak ikusten.

### **546. Bala bat etxera sartu zitzaienekoa (ESK-059/009)**

Gauen argirik ez pizteko agindua zuten gerra sasoiari. Gogoan du behin komuneko argia piztu eta bala bat nola sartu zitzaien etxera. Inguru guztia trintxeraz beteta zegoen.

### **547. Hegazkin alemaniar bat jausten ikusi zuen (ESK-059/010)**

Etxe ondoko bidetik hegazkin alemaniar bat ikusi zuten jausten. Itxuraz, oso behetik ibiltzen zen eta tiroen eraginez jausi zen. Su hartu zuen gero. Hegazkinaren hondakinak ikustera joan zen. Inpresio handiena han ikusi zituen botek egin zioten, barrutik ilea zutelako eta berak halakorik sekula ez zuelako ikusi. Beraiek ganorazko oinetakorik ez zuten izaten.

### **548. Aita gerra sasoiari Zuazon ardiekin (ESK-059/011)**

Aitak ezkondu eta gero ipini zituen ardiak. Ardiekin ibili bai, baina ez zituen bereizten. Beraz, berriz, umetatik izan du ardiekin lotura. Gerra sasoiari Arabako Zuazon pasa zuen negua ardiekin aitak eta soldaduek alde egin zutenean itzuli zen, apirilean. Negu ona egin zuen urte hartan. Ardiak gari artean ibiltzen ziren.

### **549. Milizianoek ihes egin zuten eta etxea erreketez bete zitzaien (ESK-059/012)**

Gerra sasoiari tuneletan ezkutatzen ziren bizilagun guztiak. Egun batean amak igarri zuen mugimendua zegoela eta, tunelean zeudela, milizianoak ikusi zituzten ihesean. Soldadu frankistek tuneletik irten eta etxeratzeko agindu zieten. Iluntzerako etxea erreketez bete zitzaien. Orduko bizipenak. Gauean etorri eta goizerako alde egin zuten. Alemaniarren hegazkinek ("kazak") inguruko zelaiak zuloz bete zituzten. Horietako bat zen Zarimutzen jausi zena.

### **550. Zarimutzen jausi zen hegazkin alemaniarren inguruko kontuak (ESK-059/014)**

Zarimutzen jausi zen hegazkin alemaniarrek tontor bat jo zuen lehenbizi eta su hartu zuen gero. Hondakinak trenbideko "kaltzadoreek" erabiltzen zuten "mesilla"rekin jaso zituzten. Pilotua bertan erreko zela dio. Haren izenean harri bat ipini zuten alemaniarrek. Harria hasieran zutik zegoen, baina gero erori egin zen. Emakume alemaniarrek mutikotan egin zioten inpresioa.

### **551. Lehenengo Marulandako eskolan eta gero plazan, fraidearekin (ESK-059/016)**

Zortzi urterekin Marulandako eskolan hasi zen. Hamahiru urtetik hamalaura fraide batekin ibili zen Eskoriatzan. Fraideek gorago zuten komentua, baina fraide horrek plazan ematen zituen eskolak.

### **552. Milizianoek bildotsak harrapatu zizkietenekoa (ESK-059/021)**

Milizianoak azarotik apirilera bitartean egon ziren inguruetan. Zerbait jan behar eta baserrietatik abereak lapurtzen zituzten. Ardiak zaintzen zegoela, milizianoek bi bildots harrapatu zizkioten egun banatan. Berak asko maite zituen bildotsak eta orduan bizitakoak kontatzen ditu. Izekok Araba partera pasatu zituen bildotsak, denak eraman ez zituzten. Nazionalak pasa besterik ez ziren egin, eta haiek ez zieten ezer lapurtu.

### **553. Ganadua goseak garai batean (ESK-059/022)**

Garai batean soroak ziren zituzten sail guztiak eta belar oso gutxi egoten zen ganaduarentzat. Lasto "erretxistua" ematen zieten. Arbia nahikoa izaten zuten, baina ganaduak gosea pasatzen zuen. Ez ziren gaur egun bezain ondo zaintzen.

### **554. Arto-leku ona, gariarentzat txarra; entregatu beharra (ESK-059/023)**

Artoarentzat sail onak ziren beraienak, baina gariarentzat ez. Garia erori egiten zen eta alea ere eskasa zuen. Gerora Arabatik ekarri zen gari motzagoa, hobe. Gerraostean garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta hamar erreal ordaintzen zituzten. Garia Arabatik ekartzen zuen gero aitak.

### **555. Aramaiora errotara gauez; inguruko errotak (ESK-059/024)**

Gerraostean maiatzean errotak ixten zituzten. Aramaion errota zabalik zegoen eta Arabatik ekarritako gariarekin edo etxeakoarekin hara joaten ziren gauez, bi asto hartuta. Bera ere joan izan zen 14-15 urterekin. Eskolara joatea baino nahiago. Inguruko errotak.

### **556. Behi pareta beti, uztarrirako (ESK-060/002)**

Etxean bi behi izaten zituzten beti, uztarrirako. Soroan erabiltzen zituzten, goldearekin edo behar zenarekin, lurra lantzerakoan. Gari sasoian garia ekartzen eta larrainean ere bai. Inguruko beste etxe batzuetan idiak zeuzkaten. Txerria eta oiloak ere izaten zituzten.

### **557. Gaztetatik baserriko lanetan; patata nola ereiten zuten (ESK-060/006)**

Baserriko lanetan jardutea tokatu zitzaion gazte-gaztetatik: basotik ira, orbela edo egurra ekartzen, garitan, patatan... Patata nola ereiten zuten goldearekin. Batzuetan seietan jaiki, segarekin belarra ebaki eta zortzietarako lanera. Bi arreba eta bera ibiltzen ziren baserriko lanetan. Anaia nagusiagoa seminarista joan zen. Aitak lantegian lan egiten zuen.

### **558. Orbela eta ira basotik; gaztainak batzen eta zaintzen (ESK-060/007)**

Pinu-orbela ekartzen zuten basotik, azpigarri gisa, irarik ez zegoenean. Gaztaina-arbolak zeuzkaten. Gaztainak batzen eta zaintzen ibiltzen ziren; jendea trenetaz etortzen zen Arrasatetik eta Gasteiztik gaztainak harrapatzen. Berak 16-17 urte zituela kendu zituzten gaztainak. Egosita jaten zituzten normalean.

### **559. Domingo Arrieta medikua disimuluan morokila jatera (ESK-060/008)**

Afaltzeko ohikoak izaten ziren taloa eta esnea edo morokila. Morokila amak egin edo aitak, diferentzia egoten zen. Eskoriatzako medikua, Domingo Arrieta, disimuluan joaten zitzairen etxera, morokila jatearren.

### **560. Eguneroko jakiak; morokila eta ahia (ESK-060/010)**

Bazkaltzeko babak eta urdaia edo txorizoa, baldin bazegoen. Igandeetan garbantzu eta aza edo porru-patatak. Afaltzeko, taloa eta esnea edo morokila. Morokil beroa esne hotzarekin. Ahia nola egiten zuten gari-irinarekin. Gaztainak normalean eguerdian jaten zituzten. Erreta bazeuden, meriendatan ere bai.

### **561. Lurra prestatu, garia erein eta ebaki (ESK-060/012)**

Garia ereiteko, lehenengo lurra goldatu eta artarea pasatu. Gero "trillua" pasatu eta belar txarrak kendu. Eskuarekin ereiten zuten garia. San Pedro inguruan ebakitzen zen igitaiarekin. Beste gari batekin lotu eta pila txikiak egiten ziren gero.

### **562. Gari-jotzea auzolanean; larraina nola prestatzen zuten (ESK-060/013)**

Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Larraina nola prestatzen zuten behi-gorotzekin, alea errazago biltzeko. Gari-jotzea nola egiten zuten ganaduaren laguntzaz. Garia altua izaten zen eta lastoa ukuiluan aprobetxatzen zuten.

### **563. Ganbarako belarra hezea egonez gero, gatz botatzen (ESK-060/014)**

Nahikoa zelai zuten etxeko ganaduarentzat belarra ekartzeko. Ganbaran gordetzen zuten belarra. Guztiz sikatu aurretik jasotzen bazuten ganbarara eta hezetasuna baldin bazuen, gatz lodia botatzen zioten, ez usteltzeko.

### **564. Behiei ardoa, txahala egindakoan (ESK-060/015)**

Behiei ardoa ematen zieten, txahala egiten zutenean. Indarrak berreskuratzeko izaten omen zen.

### **565. Behiak zaindu behar, pagatxa jan ez zezaten (ESK-060/016)**

Behiek zer jaten zuten zaindu egin behar izaten zen. Alpapa. Pagatxa jaten zutenean, esneak zapore fuertea izaten zuen. Behin behi bat hil egin zitzairen gehiegi janda.

### **566. Soroa urtero laiatzen zuten; laia motzak eta luzeak (ESK-060/017)**

Etxeko hiru-lau elkartu eta laietan nola egiten zuten. Laia motzagoak eta luzeagoak. Mutikotan laia motzarekin. Urtero pasatzen zen laia soroan. Esaten zuten beharrezkoa zela lurrari buelta ematea, zerbait erne zedin. Erabili izan dituen beste tresna batzuk: sardea, artarea eta burdinarea.

### **567. Umetako jolasak, pote-poteka, txorro-morroka... (ESK-060/018)**

Ez zuten jolaserako asti askorik izaten, igandeetan edo gau aldera gehien. Zer jolas egiten zituzten: pote-poteka, txorro-morroka... Udarari Ganuza etxera etortzen ziren aberatsen umeak ere eurekin ibiltzen ziren jolasean.

### **568. Eskola nazionalean fraideekin (ESK-060/020)**

Eskola nazionalean ibili zen, baina fraideak ziren irakasle ("viatoristak"). Batzuk oso gogorrak ziren. Eskolak gaztelaniaz ziren, euskaraz egitea debekatuta zegoen eta.

### **569. Lantegitik JONSen kanpamendura; euskaraz egitearren zigorak (ESK-060/022)**

Hamalau urterekin lantegian lanean hasi eta berehala JONS talde falangistak Orion zuen kanpamendura bidali zuten. Lantegiak behartuta zeuden langile hasiberriak bidaltzera. TESako langile bat eta biak joan ziren. Ez zuten dirurik jasotzen, baina dena ordainduta zuten. Euskaraz hitz egiten zuena zigortu egiten zuten.

### **570. Lantegitik JONSen kanpamendura, astebeterako (ESK-060/023)**

JONS talde falangistaren kanpamenduan Orion egon zenean eguna nola pasatzen zuten. Jaiki orduko "Cara al sol" kantatu behar. Astebete egin zuen. Lantegiak behartuta zeuden langile hasiberriak bidaltzera. Bera Zubizarreta lantegitik joan zenean, TESako langile bat ere joan zen. Kanpamendua, ohatzeak, jatekoa. Ardorik ez zieten ematen han; ordurako jada hasita zeuden ezkutuan ardoa edaten.

### **571. Udako oporretan, basora, egurretara (ESK-060/026)**

Udako oporretan aitarekin urrun zuten baso batera joaten ziren egurretara. Egun batean egurra prestatu eta hurrengoan etxera ekarri. Egurra behar izaten zen etxeetan, ekonomikarako. Trontza eta aizkora erabiltzen zituzten.

### **572. Etxeko kide guztiak zelaira sahasa eramaten (ESK-060/027)**

Garai batean etxe inguruko lur-sailak zelaiak ziren. Etxetik urrunago zuten zelaira sahasa otarrean eramaten zuten etxeko guztien artean, eguerdietan, lanetik etxeratutakoan. Handik buelta egin eta berriz lanera. Gurdiarekin

joateko bide txarra eta asti gutxi. Astorik ez zuten; beraiek omen ziren orduan astoak. Gogoan du behin bizilagunei eskatu zietela astoa, hesolak basora eramateko.

### **573. Marindik Ubidera oinez, behi bat ekartzera (ESK-060/029)**

Iratara joateko, lanetik bizikletan etxeratu, behiak hartu eta basora. Aita lanetik zuzenean joaten zen basora bizikletan. Ira prestatu, behiak kargatu eta etxera. Berak 9 urte inguru zituela, Ubidera joan zen aitarekin behi bat ekartzera. Marinera trenez; handik oinez. Baimenik gabe ezin zen behirik erosi.

### **574. Eskoriatzako kale-baserrien izenak (ESK-060/033)**

Eskoriatzako kale-baserrien izenak. San Juan kalean 14-15 kale-baserri zeuden.

### **575. San Juan kalekoen batasuna (ESK-060/034)**

Mutikotan San Juan kalekoek beste kaleetakoek kontra egiten zuten futboleak. San Juan kalean abadeak edo deabruak zeudela dio, bertatik eliz-gizon eta moja asko irten baitzen. Familia handiak. Auzokoek arteko harremana: elkarri laguntzen zioten. Zer lan egiten zituzten auzolanean. San Juan kalea eta Hidalgo kalea, "beste San Juan kalia". Herriko bi arrandegiak ere San Juan kalean zeuden. Arraina Ondarroatik ekartzen zieten. Arrasateko "Txantxote".

### **576. Errazionamendu sasoiko trukeak (ESK-060/035)**

Zer gai hartzen ziren errazionamenduan. Erretzen zutenek eta ez zutenek trukeak egiten zituzten. Aitak asko erretzen zuen. Coruña ezkondata zegoen anaiak puruak ekartzen zizkion handik.

### **577. On Fakundo abadeari meza laguntzen ari zela gertatutakoa (ESK-060/037)**

Meza-laguntzaile lanean ibili zen mutikotan. Behin meza erdian on Fakundo abadearekin eztabaida izan zuen, abadeak uste baitzuen ardoari ura nahastu ziola. Ardoa aldatu zutelako izan zen guztia.

### **578. On Agustin parrokoak meza-laguntzaileei soldata jaitsi zienekoa (ESK-060/038)**

Lau meza-laguntzaile egoten ziren. Egutero bat edo bi egoten ziren meza laguntzen eta domeketan laurak. Astean pezeta bana ordaintzen zieten. Behin on Agustin parrokoak pezeta bat eman zien laurentzat, bestetan ere hala egiten zuela esanda. Meza-laguntzaileek idatzi zioten oharra.

### **579. Mojei okerreko mezua eman zienekoa (ESK-060/039)**

Behin on Pedro abadeak mesedeetako mojentzako mezua eman zion. Berak abadea ezin zela konfesatzera joan esan beharrean, ezin zela meza ematera joan esan zien eta mojak abade bila ibili ziren. Abadeak sekulako belarrondokoa eman zion. Gauean barkamen eske joan zitzaion.

### **580. Lau-bost urtean Eskoriatzako Musika Bandan (ESK-060/040)**

15 urtetik 18-19 urte bitartean Eskoriatzako Musika Bandan ibili zen. Klarinetea eta txistua ikasi zituen. Bandako zuzendariak. Astean bitan entseatzen zuten eta, kontzertuak zeudenean, gehiagotan. Futbola ere gustatzen zitzaion eta, 3.mailako Aretxabaleta taldean fitxatzeaz zegoela, peronea puskatu zuen. Orduan dena utzi zuen: futbola eta banda.

### **581. `Gora Euskadi´ jo zuen Eskoriatzako Musika Bandarekin (ESK-060/041)**

Behin Eskoriatzako Musika Bandako zuzendari errioxarra Donostiara joan zen eta Erbiti musika-dendan `Gora Euskadi´ kantaren partitura erosi zuen. Kalejiran jo zuten Eskoriatzan eta jende guztia txaloka. Bandan saxofoia jotzen zuen kide bat karlista zen eta hark ez zuen jo. Haren etxe paretik pasatzean, atea itxi zieten.

### **582. Gau-eskolan hasi zen solfeoa ikasten (ESK-060/042)**

Gau-eskolak egoten ziren marrazketa edo bestelako kontuak ikasteko. Bera solfeoa ikasten hasi zen `Andiketa´rekin eta hortik sartu zen Eskoriatzako Musika Bandan, klarinetea jotzen.

### **583. Marianisten eskola eta behiak (ESK-061/002)**

Eskolan marianistetan ibili zen. Haiek behiak zeuzkaten eta lursail asko. Eskolan ikastearekin batera, behizain ere egon behar izaten zuten. Patatarentzako botikarekin pozoituta hil ziren behiak.

### **584. Arabara erdaraz ikastera joan eta ikasi ez (ESK-061/004)**

Arabara tripa-truke joan zen, erdaraz ikastera, baina ez zuela gehiegi ikasi dio. Gamizko baserri baten egon zen. Ohitura zen, inguruko asko ere joanak ziren.

### **585. Morroi joan zeneko bizimodua Araban (ESK-061/005)**

Ugazabarekin lursailera gerturatzen zen idiekin, goldatzera. Hark erein egiten zuen behor batekin. Domeketan mezetara joaten ziren.

### **586. Gerra garaiko bonbak, sirena eta babeslekuak (ESK-061/009)**

Aldameneko baserrira Untzillatik bonbak bota zituzten gorriek. Gerra garaian, aitari lanpostua eman zioten, gorriak zetozenean sirena jo zezan. Babeslekuak non zeuden kontatzen du.

### **587. Soldaduak eta preso hartutakoak (ESK-061/010)**

Aitzorrotzen nazionalak zeuden eta Aretxabaleta aldetik gorriak. Ez du borroka gogorrik gogoan. Apotzagatik hiru mutil gazte lotuta ekarri zituztela gogoan dauka, eta Degurixara bidali zituztela.

### **588. Gerra osteko gosea (ESK-061/013)**

Gerra ostean, gosea pasatu zuten, errotak itxita zeudelako. Arrasateraino joan behar izaten zuten errotara, baina zatia kentzen zieten.

### **589. Artoa, garia eta patata entregatu behar (ESK-061/014)**

Artoa, garia eta patata entregatu egin behar izaten zuten. Auzo-alkatea ez zuten lagun auzokideek eta zailtasunak sortzen zizkien. Abadearekin gertatutakoa kontatzen du.

### **590. Gari-jotzea behiekin eta trailuarekin (ESK-061/018)**

Auzotarrek makina bat zeukaten garia jotzeko. Behiekin eta trailuarekin larrainak egiten zituzten etxean. 1942an garia jotzeko makina erosi zuten hainbat baserriren artean. 1952an garia ereiteari utzi egin zioten.

### **591. Garia jotzeko makina pisutsua (ESK-061/020)**

Garia jotzeko makinarekin nola lan egiten zuten kontatzen du. Hiru pare ganadu erabiltzen zituzten makina mugitzeko.

### **592. Basoan lanean (ESK-061/022)**

Soldadutza Afrikan egin zuen. Handik etorrita, basoan aritu zen lanean. Argitik argira lan eginda, bost duro irabazten zituen. Gaztainondoa, haritza eta antzekoak bota eta pinua sartzen aritzen ziren; udan, berriz, basoak garbitzen.

### **593. Egurra markatzeko teknika (ESK-061/024)**

Egurrezko teilatuak egiten zituzten. Baserriko egur sendoei forma ematen aritzen zen. Bergarako Uberan ere egin zuten teilatu bat, posterik gabekoa. Egurra markatzeko, lastoa erre, poto batean urarekin nahastu eta haria bertan zikintzen zuten. Arkatzarekin ere markatzen zituen.

### **594. Erromeria gustukoenak (ESK-061/027)**

Auzoetako erromerietara joaten ziren (aipatu egiten ditu). Gutxi lo eginda lanera joan behar izaten zuen. Gustukoenak aipatzen ditu.

### **595. Feria gustukoenak (ESK-061/028)**

Arrasateko feriara beti joaten zen, lantegian ari zenean ere. Zumarragara ere joaten zen tarteka; gerora beti. Abadiñora urtero joan izan da. Lizarrara ere joan izan da.

### **596. Zorrotzako feria (ESK-061/029)**

Ganadua Zorrotzan erosten zuen, baina ingurua parke natural izendatu zuten eta feria kendu egin zuten. Feria eta hiltegia gertu zeuden.

### **597. Eskoriatzako familia baten hazia (ESK-062/002)**

Getariako Garate baserrian jaio zen. Amak ezin zuen Higinio hazi eta Fraisoron utzi zuen. Handik, Eskoriatzako familia batera eraman zuten.

### **598. Fraisoroko haurrak (ESK-062/003)**

Nahiz eta Eskoriatzako familia baten hazi, Foru Aldundiak, Fraisorotik irteten ziren haurren kontrola eramaten zuen. Andres Izaskun zuzendaria, bera ikustera joan zen Eskoriatzara behin, Higinioaren hezkuntzaz berri izateko.

### **599. Ama biologikoak erreklamatua (ESK-062/004)**

Hamar urte zituenean galdategian lan egiten zuen eta ama biologikoak erreklamatu zuen. Nola ezagutu zuen ama. Ez zen guraso biologikoekin bueltatu.

### **600. Arreba biologikoaren bila I (ESK-062/005)**

Familia biologikotik arreba bat zuela jakin zuenean, haren bila joan zen Getariara. Abadeak esan zion zein zen familiaren baserria.

### **601. Familia biologikoaren baserria (ESK-062/006)**

Familia biologikoaren baserria ezagutzen. Nolakoa zen baserria. Aita eta biak joan ziren hara, Higinioaren familia biologikoa ezagutzera. Ama nola jantzita zegoen.

### **602. Arreba biologikoaren bila II (ESK-062/007)**

Familia biologikoaren baserria bisitatzen egon eta gero, Getariako abade zen Telesforo Epeldek ondoko baserriko emakumeari kontatu zion Higinio bertan egon zela arrebaren bila. Bere bitartez jakin zuen Irunen bizi zela eta Bidasoa tabernan lan egiten zuela. Eskutitz bat idatzi zion, ezagutzeko eskatzen. Arreba Zumaiaiko familia batean hazi zen eta hiru urterekin familia biologikoarekin bueltatu zen.

### **603. Arreba biologikoa ezagutzen (ESK-062/008)**

Arreba biologikoak eskutitza erantzun zion eta hitz ordu bat ipini zuten, elkar ezagutzeko. 1956ko abenduaren 23an ezagutu ziren, Donostiako Casa Domingon. Arrebari buruz hitz egiten du.

### **604. Arreba biologikoa ezagutzen II (ESK-062/009)**

Lehenengo aldiz Irunera zihoala arreba ikustera, bere ama biologikoa ezkondu zen. Ezkontzako gonbidatuak bere ondoan jarri ziren trenean eta Higinio dena entzun zien. Ama biologikoa ez zuen gehiago ikusi, gogorra egiten zitzaion.

### **605. Eskoriatzako Maristak eta San Viator eskolak (ESK-062/013)**

Eskoriatzako Maristetan eta gero San Viatorren ikasi zuen. Eskolan gaztelaniaz ziren baina kanta batzuk euskaraz abesten zituzten,.

### **606. Eskolan dotrina bakarrik (ESK-062/014)**

Euskaraz hitz egiteagatik, Espainiako banderari begira jartzen zituzten. Zigor fisikorik ez. Dotrina. Jaunartzea egin aurretik ez zen eskolara joan.

### **607. Hamaiketan etxeratze-agindua (ESK-062/015)**

Umetako jolasak, Auzoetako erromeriak. Gaueko hamaiketan etxeratze-agindua zegoen eta kanpaien bitartez abisatzen zen.

### **608. Uxarte baserriko ganadua (ESK-062/017)**

Familiako Uxarte (Uriarte) baserrian zuten ganadu mota: behiak, idiak, txahalak, ardiak... Ardientzat txabola. Ez da inoiz baserriko lanen zalea izan eta lantegian hobeto moldatu izan da. Artaldea neguan baserrian gordetzen zuten. Baserriko lurzoruak. Morokilak jaten zituzten.

### **609. Asensioko fronteko hildakoak idiekin jaisten (ESK-062/018)**

Asension frontea zegoen eta Higinioaren aitak hildakoak eta zaurituak jaisten zituen Eskoriatzara idi eta gurdiekin. Hiru egunez Peñakulu baserrian izan ziren. Mendiolako auzoan gerrak ez zuen eragin zuzenik egin. Ez zuten seniderik galdu gerran.

### **610. Idiekin ikatza garraiatzen (ESK-062/019)**

Idiak etxeko lanetarako eta Cerrajera-rentzat ikatza garraiatzeko ere.

### **611. Auzolanean garia jotzen (ESK-062/022)**

Bizilagun guztiek laguntzen zuten baserri baten eta bestean garia jotzen. Hamarretako handiak egiten ziren denen artean. Egun bat edo egun bat eta erdian egiten zuten lana.

### **612. Garia ereiten I (ESK-062/023)**

Garia azaroa hasieran ereiten zuten. Artoa eta garia txandaka ereiten zuten. Garia ereiteko egun bat nolakoa zen. Idiak eta goldeak. Lanak.

### **613. Argindarra etxean (ESK-062/025)**

Garia ereiteari utzi ziotenean irina erosten zuten. Umea zenean, argindarra errekararen indarrarekin lortzen zuten. Betidanik argindarra izan dute etxean. Turbina.

### **614. Etxean urik ez (ESK-062/027)**

Etxean ura berandu sartu zuten. Askan garbitzen zuten. Depositu bat eraiki zuten gero, eta ura iturburu batetik lortzen zuten. Baldea berotu eta bertan garbitzen ziren.

### **615. Arropa askan garbitzen zen (ESK-062/028)**

Arropa nola garbitzen zen hiru astetik behin. Lixiba. Erramua. Auzoan ez zegoen arropa garbitzeko labaderorik. Arropa nola garbitzen zen.

### **616. Garai batean txori gehiago zeuden (ESK-062/029)**

Errekara ez ziren joaten. Ehizan berandu hasi zen baina beti egon dira. Txoriak ikustea asko gustatzen zaio. Txori asko galdu egin dira.

### **617. Benita, abadearen astoa (ESK-062/030)**

Ardiak, ganadua eta astoa zuten baserrian. Abadeak ere astoa zuen eta Benita deitzen zen. Emearengatik gehiago ordaintzen zen.

### **618. Fagor Ederlan-en sorrera (ESK-062/033)**

"Fundiciones Esteibar" sortu zuen lagun batzuekin. Comet lantegiarekin lehenengo, eta Ulgorreko galdategiarekin elkartuta geroago, Ederlan kooperatiba sortu zuten 1963an.

### **619. Gaztainak maiatzerarte irauten dute (ESK-062/039)**

Familia bakoitzak 3 astez gaztainak biltzen ditu. Gaztainak maiatzerarte irauten dira. Ilargia ilbeheran dagoenean, buelta eman behar zaie. Gaztainak jateko moduak.

### **620. Oinetako eta olio falta; morokilak (ESK-062/040)**

Goserik ez zuten inoiz falta, baina oinetakoak eta olioak beti falta ziren. Azokan erositako abarketak hurrengo egunean puskatzen zituzten. Morokila asko jaten zen.

### **621. Gosea; tripa-truke lanak (ESK-062/041)**

Gerraostean, Tripa-truke bidez lanera joaten zen jendea. Klean gose handia pasatzen zuen jendeak. Baserrian beti babarruna jaten zen.

### **622. Garia erein ostean, afari berezia (ESK-062/042)**

Garia ereiten bukatzen zutenean, "garafai" afaria egiten zuten etxean. Bildotsa afaltzen zuten.

### **623. Txerriaren puxikatik olioak lortzen (ESK-062/044)**

Txerria hiltzen zenean, puxika ondo garbitu eta olioak lortzen zuten. Gosea ez zuten pasa baina beti berdina jaten zuten. Morokilak, gaztainak, patatak... Eguerdian beti babarrunak.

### **624. Garizuman haragia jateko baimen bat (ESK-062/045)**

Garizuman okela jateko, apaizak baimen bat ematen zien. Baimen hori ordaindu egiten zuten.

### **625. Baserritarren hiletak arratsaldean (ESK-062/048)**

Elizak baserritarrentzat egindako onura onena, hiletak arratsaldera pasatzea izan zen. Garai batean goizez izaten ziren eta gero denak hildakoaren baserrira joaten ziren. Askok mozortu egiten ziren, etxeko janaria jan, liskarrak sortzen ziren... Horrekin amaitzeko, apaizak baserritarren hiletak arratsaldera pasatu zituen. Batzuk baserriaren kostua ordaindu ezin ez eta beste batzuekin trukatzeko zuten etxea.

### **626. Irakasle falangista Maringo eskolan (ESK-063/002)**

Maringo eskolan ibili zen sei urterekin hasi eta 14-15 urtera artean. Berrogei ume inguru ibiltzen ziren batera. Irakaslea Juan Lopez de Letona, falangista arabarra. "Cara al Sol" eta "En pie flechas de España" abestu behar izaten zuten. Euskaraz hitz egiten zuenari, belarrondokoa.

### **627. Irakaslearen belarrondokoak; eskolara joan nahi ez (ESK-063/004)**

Irakasleak belarrondoko gogorrak ematen zizkien, euskaraz eginez gero. Garai hartan isipulak ohikoagoak ziren eta batzuetan odoldu ere egiten zituen.

Irakasten ona zen, hala ere. Bera ganadu-zain geratu behar izaten zen askotan eta gero atzeratuta joaten zenez, ez zuen nahi izaten eskolara joaterik. Hamabi anai-arreba ziren, baina bera bigarrena zen eta beti egoten zen lanen bat etxean.

### **628. Eskolako hiru liburuak buruz ikasten zituzten (ESK-063/005)**

Hiru liburu zeuzkaten eskolan. Eskola gaztelaniaz izaten zen eta dotrina ere bai. Astean behin abadea joaten zitzaien eta dotrina ematen zien elizpean, jaunartzerako prestatzeko. "Alboradas" poesia-liburua. Oraindik gogoan ditu zenbait testu.

### **629. Umetako jolasak; Madalenetan gozoki-saltzailea (ESK-063/006)**

Garizuman txirikilan jolasten zuten. Mutikoak pilotan; neskak txapekin. Mutikoek txapetan nola jolasten zuten txakur handi eta txikiekin. Jaietan, Madalenetan, Txaparro; gozoki-saltzailea joaten zen Arrasatetik Marinera.

### **630. Gerra sasoian lokomotorrak ganadua harrapatu (ESK-063/008)**

Ganaduak zaintzen ibili behar izaten ziren, trenbidera joan ez zitezen. Itxitura beraiek egin behar izaten zuten. Gerra sasoian ez zen egon trenik eta ganaduak libre ibili ziren. Baina egun batean lokomotor bat pasa zen ganadua tunelean zegoela eta idi pareta eta bi behi harrapatu zituen. Auzoko ganadu ermandadean uztarriko ganaduak bakarrik sartzen ziren.

### **631. Auzolanean egiten ziren lanak (ESK-063/010)**

Garia jotzeko, auzokoei laguntza eskatzen zitzaien. Trukean beste lanen batean laguntzen zitzaien baserri hartakoei. Urtean zehar hainbat lan egiten ziren auzolanean. Bidegintza. Aldapan zeuden gurdi -bideetan harriak egoten ziren (galtzada) eta horiek konpondu behar izaten ziren. Elizaren eta eskolaren konponketak ere auzolanean egiten ziren.

### **632. Eskolako kontuak: ikasleen banaketa, mahaia, berogailua... (ESK-063/011)**

Ez du gogoan irakasleari ordaindu egiten ote zitzaion. 15 urte ingururekin gau-eskolara joan zen eta orduan bai. Eskolan neskak alde batean eta mutilak bestean, zaharrenak aurrean eta gaztetxoak atzean. Bakoitzak bere ikasmahaia zuen. Bazkaltzera joan aurretik 'Cara al sol' abesten zuten. Etxean bazkaldu eta buelta. Mutikoek 14-15 urtera arte ez zuten praka luzerik janzen eta elurrarekin txarto. Etxetik bakoitzak bere egurtzua eramaten zuen eskolako berogailuari botatzeko.

### **633. Idiekin basotik egurra garraiatu eta trenera I (ESK-063/014)**

Idiekin egurra garraiatzen zuten basotik, trenera eramateko. Aldatz behera, lera ekartzen zuten egurra, bestela gurdian. Trenbide ondoan pilatzen zuten egurra, gero zazpi bagoi betetzeko. Egurrak diru asko balio zuen orduan. Trenak zer ordutan pasatzen ziren. Bazkalostean trenik gabeko tarte bat egoten zen eta tarte horretarako aparteko tren bat eskatzen zen, egurra garraiatzeko. Auzoko jendea elkartzen zen trena kargatzeko. Laguntzera etortzen zenari hiru ogerleko eta gazta eta ogia ordaintzen zitzaizkion.

### **634. Idiekin basotik egurra garraiatu eta trenera II (ESK-063/015)**

Basotik garraiatzen zuten egurra nolakoa izaten zen. Eskuz kargatzen zuten, baina trenak bereziak izaten ziren, baxuagoak. Trenbide ertzean pilatzen zuten egurra, zazpi bagoi betetzeko adina izan arte. Gasteizera eramaten zen normalean egurra. Urtean hamar tren inguru beteko ziren.

### **635. Aitarekin ikazkintzan ibilia (ESK-063/016)**

Aitarekin ikazkintzan ibilitakoa da. Txondarra egiterakoan, hasierako anpor handiak jartzeko jendea behar izaten zen eta elkarri laguntzen zioten baserritarrek. Nola jartzen ziren egurrak. Amaieran "zopizarra" edo orbela. Gauean ilunpetan orbel bila nola joan zen kontatzen du. Aita eta biak egoten ziren txondorra zaintzen. Txondor handiek dozena bat egun behar zituzten egosteko.

### **636. Ikatza Sarabia ikazdunari saltzen zioten (ESK-063/017)**

Ikatza Gasteizko Sarabia ikazdunari saltzen zioten. Gurdian eramaten zuten Marulandara eta han jasotzen zituen ikazdunak kamioiarekin. Soldadu joan aurretik hasi eta 25-26 urtera arte ibili zen bera ikazkintzan.

### **637. Egin duen txondorrik handiena 40 oinekoa (ESK-063/019)**

Txondor batzuk txikiak izaten ziren. Txondor handiak egiteko, erdian makila bat jartzen zen, eta kako batekin txondorra noraino iritsiko zen markatzen zen. Berak egin duen handiena 40 oinekoa izan zen. Ahal zela leku laua eta sikua behar. Urarekin erre egiten zen ikatza eta haustu.

### **638. Anpor-txondorrak, handienak eta txarrenak (ESK-063/020)**

Anpor-txondorrak izaten ziren handienak eta txarrenak. Anpor handiek barruan hutsuneak izaten dituzte eta egurra gutxitzean, zuloa geratzen da. Gauez tokatuz gero, lan txarra izaten da, bizkarka egurra eraman eta txondorra kargatu behar izaten delako. "Saka-hagia". Gaienean egur xehea, "zopittie" edo "zopizarra" eta gero lurrez estali. Orduan ez zegoen motozerrarik eta ez zen erraza izaten anporrak zatitzea. Batzuetan dinamita ere erabiltzen zen. Aitari entzun izan zion noizbait gizonen bat erre izan zela txondorraren zuloa betetzen zebilela.

### **639. Taloak eta maskeluan esnetan egositako artoa (ESK-063/023)**

Arbia ona zen ganaduarentzat, esnea emateko. Sobratzen zen artoa ere ematen zitzaien, baina artoa asko jaten zen orduan. Goizean taloa eta esnea. Amak egiten zituen taloak "tala-burdiñan". Ogiak egiten zirenean, artoak ere egiten zituzten. Berotasun handiagoa behar izaten zuen artoak. Gero "gelatzuan" (laratzean) maskeluan esnea irakiten jarri eta hara botatzen zen artoa, eskuarekin apurtuta.

### **640. Arto-oreak epeltasuna behar du jaikitzeke (ESK-063/025)**

Gaur egun ferietan ez dela arto onik egoten dio. Nola igartzen den; artoa "jaikita" egon behar da. Amak artoarekin nola egiten zuen ore. Orea jaikitzeke epeltasuna behar da eta su-ontzia jartzen zuen ore-mahaiaren azpian.

### **641. Zer jaten zuten; ogiarekin larri (ESK-063/027)**

Bazkaltzeko, porru-patatak, patatak piper gorriekin... Txorizoa asteburuetan bakarrik. Babak urdai apur batekin. Ogiarekin ibiltzen ziren larri. Eskoriatzatik Marulandara joaten zen okina eta hara joaten ziren oinez, ogi bila. Ezti asko izaten zuten etxean eta edozein ordutan jaten zuten. Afaltzeko, berakatz-zopa edo patata egosiak. Arrautza gutxi jaten zen, saldu egin behar izaten ziren eta. Goserik ez zuten pasa, baina gehiegi ere ez zuten izaten.

### **642. Sagarrak eta gaztainak saltzera Gasteizera; ezti saldu ezinda (ESK-063/028)**

Sagar eta gaztaina denboran Gasteizera joaten ziren saltzera, trenez. Baba ere eramaten zuten. Gasteizen zaldiekin prestatutako garraiolariak egoten ziren zain, elikagaiak plazara eramateko. Bestela, Eskoriatzan eta Arrasaten ezti saltzen zuten, baina, merke egon arren, ezin salduta ibiltzen ziren.

### **643. Erlauntzak nola egiten zituzten laharrarekin (ESK-063/029)**

Ehun erle inguru izaten zituzten lau lekutan banatuta, etzandako enborretan. Zumitzarekin (sahatsa) eta laharrarekin prestatzen zituen etxean erlauntzak. Lahar-makilak aurkitu eta nola prestatzen zituen. Gero ganaduaren gorotzarekin eta karearekin egindako orearekin erlauntza osatu. Azpia nola prestatzen zen. Nola jartzen ziren.

### **644. "Tximitx"ezko eta lastozko erlauntzak (ESK-063/030)**

Laharrarekin egiten zituzten erlauntzei "tximitxezkoak" (zumitzezkoak) esaten zieten. Lastozko erlauntzak ere egoten ziren. Erlekumeak hartzeko jartzen zen "todorra"ren antzekoak izaten ziren. Horren inguruko azalpenak.

### **645. Ihes egindako erleen bila mendira; udazkenean ezti kendu (ESK-063/032)**

Erle askok ihes egiten zutela dio. Erlekumeak hartzearen inguruko azalpenak. Mendira joaten ziren ihes egindako erleen bila. Udazkenean ezti guztia kentzen zieten. Etxean bazuten ezti nahikoa, baina denbora-pasa zen beraientzat.

#### **646. Gerra sasoiko oroitzapenak (ESK-063/034)**

Gerra sasoian hiru urte zituen, baina gogoan du larrainean miliziano kuadrilla nola egon zen aitarekin hizketan. Soldaduak non egon ziren. Gogoan du baita ere milizianoak nola joan ziren euren etxera abadearen sotanarekin eta kristoa hartuta, elizan egon ostean. Milizianoetako batek euren ezkaratzean apurtu zuen kristoa. Sukaldea nolakoa zen.

#### **647. Gerra sasoian erreketeeek eraman eta fusilatutakoak (ESK-063/035)**

Gerra sasoian erreketeeek inguruko pertsonen izenekin zerrenda bat zeukaten. Bere ama, auzoko beste batzuen antzera, Gatzagara joaten zen erosketak egitera eta zerrenda horretan zegoen. Auzoko emakume bat (bederatzi umeren ama) eraman zuten, baina ez ziren ausartu gorago joaten, gorriak zeudelako. Gatzagako abadea eta inguruko artzain batzuk ere eraman zituzten. Hernanin fusilatu zituztela jakin zuten gero. Gatzagako zortzi mutil ere hil zituzten, Batzokira joaten zirelako.

#### **648. Aireplanoak zetozenean, aitajaunarekin zubipera (ESK-063/037)**

Gogoan du gerra sasoian, aireplanoak zetozenean, aitajaunarekin zubipera joaten zela, babestera. Beraiek etxean geratu ziren. Soldaduek ez zieten abere askorik kendu, oiloak bakarrik. Txerriaren bila ibili omen ziren, baina isilik egon zen eta ez zuten ikusi.

#### **649. Milizianoen artean talde desberdinetakoak (ESK-063/038)**

Milizianoen artean talde desberdinetakoak zeuden: CNTkoak, abertzaleak, UHPkoak... Bazeuden gudari batzuk ia egunero joaten zirenak euren etxera gosaltzera. Norbaitek mehatxatu edo estutzen bazituen, leihoan izara zuria jartzeko esaten zioten amandreari. Behin edo behin hala egin eta, goitik tiroka hasten zirenean, "UHP, UHP" deiadarka hasten ziren, ihes egiten zuten bitartean.

#### **650. Gerra sasoian hiltzea "samur" (ESK-063/040)**

Gerra sasoian hiltzea "samur" zegoela dio. Soldadu frankistek harrapatutako bi miliziano euren etxean egon eta biharamunean hil zituztela kontatzen du. Inguruetako jendea gurdiekin munizioa eramatera behartzen zuten.

#### **651. Eztia eta argizaria, urtu eta txanoan pasatu (ESK-063/042)**

Eztia nola prestatzen zuten. Lapikoan urtu eta gero txanoan nola pasatzen zuten. Lurrezko ontzietan gordetzen zuten gero. Eztia sobera izaten zuten. Argizaria saldu egiten zuten. Jendeak zorua garbitzeko erabiltzen zuten. Argizaria ere urtu eta txanoan pasatzen zen. Moldeak.

#### **652. Madalena jaiak eta Gatzagako erromeriak (ESK-063/045)**

Madalenetan jai handiak egiten ziren. Soinua eta dantza. Gazte asko biltzen zen. Domeketan Gatzagara joaten ziren dantzara. Dantza lotua egiten zuten gehienbat. Kalabaza asko jasotzen omen zituzten. Neska-laguntze gutxi egin zutela dio. Urte batean neskei debekatu egin zieten dantza egitea jaietan.

### **653. Inguruko herrietako jaietatik oinez etxera (ESK-063/046)**

Inguruko auzo eta herrietara ere joaten ziren jaietan, baita Araba aldera ere. Arazoa oinez ibili beharra izaten zen. Bideetan lokatzaz eginda. Landatik edo Gatzagatik azkenengo trena zortziak eta erdietan egoten zen. Bestela, oinez itzuli behar. Trenbidetik elkarri helduta nola joaten ziren. Behin ardiarekin hartu zuten sustoa.

### **654. Trena kendu zutenean, artean erreperiderik ere ez (ESK-063/049)**

Trena kendu zutenean, ganaduarentzat onura izan zen, baina artean ez zuten erreperiderik ere. Gurdi-bideak bakarrik. Trena oso garrantzitsua zen beraientzat. Egunean zehar zenbat tren pasatzen ziren. Ganadua oinez eramaten zuten Arrasateraino, hiltegira. Gogoan du behin osabarekin joan zela eta bidean kamioi bakarra ikusi zutela. Arto-soroan zekorrra harrapatzen nola ibili ziren.

### **655. Astoarekin Gatzagara, gatz bila (ESK-063/056)**

Txerria hiltzen zutenean, astoarekin Gatzagara joaten ziren gatz bila. Gogoan du emakumeak nola egoten ziren gatza paketatzen.

### **656. Garai bateko jakiak; ardikiarekin lotutako esaera (ESK-063/058)**

Garai bateko jakiak txerrikia eta ardikia. Zezinarik ez zuten egiten. Udazkenean buzkantzak. Gatzagako esaera: "Samilixen ardixixe jan eta akitixen". "Akitixen" berbaren esanahia.

### **657. Pagadietatik egurra atera eta trenera eraman (ESK-075/003)**

Etxeko basoetan zuhaitzei adarrak mozten ibili izan da, pinua sartzen hasi ziren arte. Dozena bat urtez geroztik, ibili izan zen. Treneko bagoietara kargatzen zituzten adarrak, hogeit bat lagunak artean. Egurra Gasteizen, Arrasaten, Eibarren... saltzen zuten. Idiekin eta lerarekin jaisten zituzten enborrak. Hondarrak etxerako aprobetxatzen zituzten.

### **658. Adar-mozketa udazkenean eta ilbeheran (ESK-075/004)**

Adar-mozketan irailetik aurrera aritzen ziren. Garairik onena abuztutik Gabonetara bitartekoa izaten zen. Ilbehera mozteko hobia zela esaten zuten.

### **659. Pagoen adarrik handienak mozten zituzten (ESK-075/005)**

Zuhaitzak nola mozten zituzten kontatzen du. Adarrik handienak mozten zituzten. Mozketa zuhaitz denei egiten zieten. Zuhaitz bati moztuz gero, hamar-hamabi urtera mozten zituzten berriro.

### **660. Txaria edo txaraka zer den (ESK-075/007)**

Pago guztiak mozten zituzten, egurra bazuten. Txaria edo txaraka esaten zaio berez datozen zuhaitzen multzoari.

### **661. Pagoak mozteko prozesua eta tresnak (ESK-075/008)**

Pagoak moztutakoan, apaindu, lera ibiltzeko neurrietan ipini, eta idiekin trenbidera jaisten zituzten. Aizkorekin ibiltzen ziren gehien bat. Trontza enbor usteletarako erabiltzen zuten.

### **662. Trontza-zerrak eta arpana zertarako erabiltzen ziren (ESK-075/009)**

Trontza-zerrak erabili izan zituen oholetarako enborrak mozteko. Trenerako trabesak egiteko haritza erabiltzen zen eta haiek erabiltzen zuten arpana. Asto bat ipini, enborra bueltaka eraman, gainera jaso eta moztu egiten zuten goitik behera. Aitarekin ibiltzen zen adar-mozketan eta harengandik ikasi zuen.

### **663. Pagoak lepatzea (ESK-075/010)**

Pago gazteak lepatzen ibili izan da. Pagadian bertan irteten ziren pago landare gazteei metro eta erdiko altueran burua moztzen zieten.

### **664. Ismael Lopez de Gauna maisuarekin Eskoriatzako eskolan (ESK-080/002)**

Eskoriatzako eskolan ibili zen Ismael Lopez de Gauna maisu burgostarrarekin. Gerra hasi zenean, eskolak bertan behera geratu ziren 6-7 hilabetez.

### **665. 1934ko grebaren inguruko oroitzapenak (ESK-080/004)**

1934ko urriko iraultzako oroitzapenak. Bera esnea partitzera zihoala, Gasteiz aldetik autobusak ikusi zituen Arrasaterantz pasatzen. Greba egin zen, baina orduan lantegi oso gutxi zegoen: Arrasaten Elma eta Zerrajera; Aretxabaletan Beroa eta Zubia. Arrasaten bi pertsona hil zituzten, baina Eskoriatzan ez zen liskarrik izan.

### **666. Gerra sasoia etxean; zauritutako laguna (ESK-080/007)**

Gerra hasi zenean, eskola kendu egin zuten. Frontea etxetik gertu zuten eta beldurrez etxe barruan pasatzen zuten denbora gehiena. Gogoan du bere aldamenean zegoen lagun bat nola zauritu zuten. Soldaduak hiribururen bat hartu zutela ospatzen ari omen ziren. Gurasoak adinean aurrera zihoazen eta bi anaia nagusienak etxean geratu behar. Gero anaia soldadu joan zen. Lan asko eta dirurik ez.

### **667. 14 urterekin hasi zen lanean (ESK-080/008)**

14 urterekin Guardia Zibilen kuartelaren ondoan zegoen tailer txiki batean hasi zen lanean. 1941ean Gasteizera joan zen tailer hura eta gero itxi egin zen. Aluminiozko ontziak egiten zituzten: lapikoak, platerak... Eskuz moldatzen zuten metala, orduan makinarik ez zegoen eta.

### **668. Garai batean batasun eta laguntasun handiagoa herritarren artean (ESK-080/010)**

Garai batean lan asko auzolanean egiten ziren. Auzo-alkateak egoten ziren eta haiek Udalari eskatzen zioten baimena. Gero merienda ere egoten zen. Lehen herritarrek asko laguntzen zioten elkarri, beharra ikusiz gero. Etxeetako ateak zabalik egoten ziren lehen. Batasun handiagoa zegoen.

### **669. Kintoak Santa Ageda batzen, baserriz baserri (ESK-080/013)**

Soldadutzara joan behar zuten mutilak, kintoak, ibiltzen ziren Santa Ageda batzen. Bezperan hasten ziren, eguerdian eta baserriz baserri ibiltzen ziren. Txorizoak, arrautzak... asko batzen zen orduan. Santa Ageda egunean kalekoak batu eta gero bazkaria tabernan. Sobratzen zena erresidentziara.

### **670. Santa Agedetarako aurrez entseatu egiten zuten mutilek (ESK-080/015)**

Mutilak Santa Ageda batzen ibiltzen zirenean, abestu egiten zuten baserrietan. Aurrez egunetan entseatzen zuten. Herriko batek irakasten zizkien gazteei kantan eta aureskua ere bai.

### **671. Santa Ageda batzen soinu-jotzailearekin (ESK-080/017)**

Santa Ageda batzera akordeoiarekin joaten ziren. Eskoriatzan Musika Banda bazegoen, baina denak sakabanatuta zeuden, gerraren eraginez. Kanpotik ekartzen zen soinu-jotzailea; 'Angiozarko itsua' eta herriko beste soinu-jotzaile bat.

### **672. Santa Ageda batzen ibiltzen ziren mutilen janzkera (ESK-080/018)**

Santa Ageda batzen ibiltzen ziren mutilek zer janzkera izaten zuten: praka eta alkandora zuriak eta txapel eta zapi gorria. Buru egiten zuenak txapel beltza eramaten zuen. Alkateak zenbait jarraibide ematen zizkion eta hura izaten zen arduraduna. Baserri eta auzo guztietara joaten ziren. Bidean suziriak botatzen zituzten, abisu moduan. Jendeak asko ematen zuen.

### **673. Gerra sasoian zapataz betetako trenak hustu zutenekoa (ESK-080/020)**

Gerra sasoian zapataz beteta zihoan tren bat geldik geratu zen Eskoriatza parean. Soldaduek sakeatu egin zuten eta zapatak herri osoan banatu zituzten.

### **674. Santa Ageda batzera oinez (ESK-080/021)**

Santa Ageda batzen baserririk baserri ibiltzen zirenean, denek ematen zuten zerbait, asko eduki ez arren. Oinez joaten ziren. Bizikletarik ere ez zen orduan. Ardoa eramaten zuten botan eta baserrikoei ere tragoa ematen zieten ordainetan.

### **675. Santa Ageda eguneko eskea Eskoriatzako kaleetan (ESK-080/022)**

Santa Ageda egunean, eskea kalean egiten zen. Gerra garaian pare bat urtean ez zen egin, mutikorik ez zen geratzen eta. Kale barrenetik gora joaten ziren. Asko zela iritziz gero, batzuk goitik eta besteak behetik. Poltsa eramaten zuten, dirua batzeko. Baserriko gaiak batzeko, zestoak.

### **676. Santa Agedetako aureskuan mutilak neskak dantzara ateratzen zituzten (ESK-080/024)**

Santa Agedetan aureskua egiten zen eta mutilek neskak ateratzen zituzten. Aukeratutako neska gero afaltzera gonbidatzen zen. Ligatzeko egun aproposa

zen, baina ez zuten gaur bezalako pikardiarik. Dantzak eta kantak aurrez ondo prestatzen zituzten, egunero entseatuta. Dantzak aldatu egin direla dio. Lehen beste grazia bat zuten, ilusioa.

#### **677. Santa Agedetako sokadantza (ESK-080/026)**

Santa Agedako dantzen inguruko azalpenak. Aurrekuari eta atzeskuari neska bana ateratzen zieten beste lau dantzarik. Neska haiek sokan sartzen ziren eta gero mutil guztientzako neska bana sartzen zen sokara. Amaieran dantza soltean egiten zuten denek.

#### **678. Santa Agedako sokadantzan parte hartzen zuten neskak afaltzera gonbidatuta (ESK-080/029)**

Santa Agedetan baserrietan batzen zutenarekin afaria egiten zuten tabernetan edo lokaletan. Gero soinuarekin dantzan. Sokadantzarako aukeratzen zituzten neskak ere gonbidatuta egoten ziren. Baina neskek ez zuten parte hartzen Santa Ageda batzen.

#### **679. Inauterietan "Kukumarru" jantzita (ESK-080/032)**

Inauterietako "Kukumarruak". Arropa zaharrak jantzi eta kalera. Mutiko handienak janzten ziren "kukumarru" eta txikiagoek ihes egiten zuten, ez jotzeko.

#### **680. "Kukumarru"ak puxikarekin umeen atzetik (ESK-080/034)**

Inauterietako "Kukumarruak" umeen atzetik ibiltzen ziren. Txerriaren puxika lehortu, puztu eta hura erabiltzen zuten jotzeko. "Kukumarruek" ez jotzeko, aterpera edo elizpera sartzen ziren, hura errespetatu egiten zuten eta.

#### **681. Gerraostean inauteriak debekatuta (ESK-080/036)**

"Kukumarru"en ohitura galduta egon zen. Gerra ostean inauteriak debekatuta egon ziren urte askoan. Inauterietan bi egunetan mozorrotzen ziren, igandean eta asteartean. Aurkitzen zuten arropa zatarrenarekin mozorrotzen ziren.

#### **682. "Urdelardero" eguneko ohiturak (ESK-080/038)**

"Urdelardero" eguneko ohiturak. Makila mehe batekin joaten ziren umeak baserrietara eta urdaia edo odolkoa edo ematen zutena zirian sartzen zen. Dirua ematen bazuten, poltsara. Bakoitzak bere makila aurkitu behar izaten zuen eta pozik joaten ziren makila bila. Kale inguruko baserrietan ibiltzen ziren beraiek.

#### **683. Ohitura zaharrak eta sinesmenak: ur eta su bedeinkatua, San Kristobal ermita (ESK-080/042)**

Garai bateko ohiturak: ur bedeinkatua, su bedeinkatua. "Illintzixa" zer den. Elizpean sua egiten zuten. Makila bat eraman behar izaten zen eta handik bedeinkatutako sua hartu. Urarekin ere antzera. Su bedeinkatuaren errautsa eta ura ortuan botatzen ziren. Aramaiotik gora dagoen San Kristobal ermitara joaten zen gorrieria edo belarriko mina zuen jendea.

#### **684. Lurrezko pitxarrekin iturrira; urik ez etxeetan (ESK-080/043)**

Uretara joateko lurrezko pitxarra erabiltzen zuten. Uribarri Ganboan egiten zituzten. 1928 inguruan ipini zuten ura kaleetan. Aurretik denak iturrira. Arropak garbitzera erreka joaten zen ama.

#### **685. Besoetakoari "karapaixua" eramateko ohitura (ESK-080/045)**

Umeren baten aita edo ama pontekoa izanez gero, koskortzen zenean, Garizuman "karapaixua" eraman behar izaten zitzaion. "Karapaixua" ogi bat izaten da, baina hainbat gai jartzen zaizkio: arrautza, sagarra, txorizoa... Batzuek etxean egiten zuten eta bestela okindegian erosi.

#### **686. "Karapaixua"ren ohitura, umetako kontua (ESK-080/047)**

Besoetakoari "karapaixua" eramateko ohitura umetako kontua zen, nahiz eta gero batzuek nagusiagotan ere ohiturari eutsi. Normalean 10-12 urte ingurura arte izaten zen.

#### **687. San Juan sua eta "txopua" jartzeko ohitura (ESK-080/049)**

Beti egon izan da San Juan sua egiteko ohitura. Plaza erdi-erdian egiten zen. Mutikoak eskolatik irtendakoan basotik sutarako materiala ekartzera. "Txopua" jartzeko ohitura ere badago Eskoriatzan. Gauez joaten ziren bila eta baserritarrekin beti liskarrean. Nola jartzen zuten. Puntan aza eta tipulak jartzen ziren. Puntara igo eta haiek hartzen zituenari saria ematen zioten.

#### **688. Gorpuzti eguneko ohiturak (ESK-080/052)**

Gorpuzti egunean ira berdea ebaki, ekarri eta etxe aurrean botatzen zuten. Gero, gurutzeak egiten ziren eta ateetan jarri.

#### **689. Medikua izatearren, etxea dohainik (ESK-080/059)**

Goierrri aldekoa zen medikua (ez du gogoratzen izena). Ondoren egon zena Domingo Arrieta gatzagarra. Medikua zelako, etxea dohainik eman zioten. Non zeukan etxea. Opariak ematen zitzaizkien medikuei eta abadeei. Gehien agintzen zutenak ziren.

#### **690. Ume asko hiltzen zen; hil-kanpaiak (ESK-080/060)**

Hil-kanpaiak ezberdinak izaten ziren hildakoa gizonezkoa edo emakumezkoa bazen. Hildakoa umea zenean, kanpai finagoak. Ume asko hiltzen ziren erditzeetan.

#### **691. Santa Ageda batzearen ohitura (ESK-081/002)**

Urte eta erdi egin zuen Afrikan soldadutzan. Santa Ageda batzea kintoek egiten zuten. Umetan amorratuta egoten ziren Santa Ageda batzea egiten zutenen kantak entzuteko. Batutako diruarekin eta janariarekin afaria egiten zuten eta gero ospitalerako ere dirua ematen zuten.

### **692. Santa Ageda batzea, baserriz baserri, dotore jantzita (ESK-081/003)**

Santa Ageda bezperan baserriz baserri ibiltzen ziren, bi taldetan banatuta. Kantuz aritzen ziren, musika tresnarik gabe. Praka eta alkandora zuriekin eta txapel eta gerriko gorriekin ibiltzen ziren. Baserrietarako blusak ere janzten zituzten batzuek. Alkate egiten zuenak txapela urdina edo berdea erabiltzen zuen.

### **693. Santa Ageda batzerako kanten entsegua (ESK-081/004)**

Kantak prestatu egiten zituzten, entseguak eginez. Erakusten Jose Aranburuzabala ibili zen beraiekin.

### **694. Santa Ageda batzeko kopla pareia (ESK-081/005)**

Santa Agedako kopla nagusia erreztatzen du. Dirurik ematen ez zuenari kantatzen zioten kopla erreztatzen du. Norbait hil bazen etxe hartan, kantatu beharrean, errezatu egiten zen.

### **695. Santa Ageda batzean jasotzen zutena (ESK-081/006)**

Baserrietan arrautzak, txorixoak, dirua... ematen zizkieten. Biderako ardoa eramaten zuten zahatoan.

### **696. Santa Ageda egunean, eskea kalean (ESK-081/007)**

Santa Ageda egunean kalean batzen zuten. Kalebarrenetik hasi eta goraino joaten ziren. Etxeetan, dendetan, lantegietan... ibiltzen ziren eskean.

### **697. Santa Ageda egunean, aurrekua eta afaria (ESK-081/008)**

Zuriz jantzita eta txapel eta gerriko gorriarekin ibiltzen ziren kalean, Santa Ageda batzean. Aurrekua dantzatzen zuten, "bana-banakua" eginez neskei. Gero fandangoa eta arin-arina dantzatzen zituzten. Afaltzera neskak ere joaten ziren.

### **698. Santa Ageda egunean, afaria eta parranda (ESK-081/009)**

Santa Ageda batu ostean, afaria etxe partikularrean egin zuten beraiek. Tabernetan gero parrandan aritzen ziren, mutilak bakarrik. Neskak txokolatea hartzera gonbidatzen zituztenik ez dauka gogoan. Lehengo eta oraingo dantza antzekoa dela dio. Orain neskak ere aritzen dira Santa Ageda batzen, baina lehen mutilak bakarrik.

### **699. "Urdelardero" batzen (ESK-081/011)**

"Urdelardero" batzen ibilita dago. Pikuak, laranjak, txorixoak... ipintzen zizkieten makila zorrotzaren puntan. "Urdelardero" kanta erreztatzen du. Etxez etxe ibiltzen ziren horixe kantatuz, neskak eta mutilak batera, normal jantzita. Kanean izaten zen.

### **700. "Urdelardero" umeentzako (ESK-081/012)**

Entseguak egiten zituzten "Urdelardero" kantatzeko. Elizako kantak ere ikasten zituzten. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Hamabi-hamahiru urtera arte aritzen ziren. Adin askotakoak nahasi ibiltzen ziren.

### **701. "Urdelardero" kanta erreztatuta (ESK-081/013)**

"Urdelardero" kanta erreztatzen du, elkarriketatzaillearen laguntzaz.

### **702. Artoa, ogi beltza eta olatak (ESK-081/015)**

"Karapaixo"arekin ez da gogoratzen. Artoa eta ogi beltza jaten zituzten umetan. Olatak, ogiak bedeinkatu egiten ziren elizan. Baserrikoak bazeuden, haiek nola lortuko ibiltzen ziren.

### **703. Zigor-dantza (ESK-081/016)**

San Pedroetan lino-dantza eta zigor-dantza egiten ziren. Zigor-dantzan makilarekin jo egiten zuten. Gauza zakarra zela dio.

### **704. San Juan bezperan sua eta txopoa (ESK-081/017)**

San Juan bezperan sua egiten zen eta txopoa jartzen zuten, nonbaitetik harrapatuta. Arrastaka ekartzen zuten eta txopoaren puntan tipula eta beste zerbait ipintzen zituzten, hara igotzea lortzen zuenak beretzat hartzeko. Egur asko batzen zenez mendian, adarrak ekartzen zituzten.

### **705. San Juan egunean, ira eta belarrak atarian (ESK-081/018)**

San Juan egunean belarrak biltzen ziren eta etxe aurrean zabaltzen ziren. Garoa edo ira zabaltzen zen, beste belar batzuekin batera. Usain ederra egoten zen.

### **706. Gerra hasi aurreko eta gerrako lehenengo egunak (ESK-081/020)**

Gerra hasi zenean, mendian zebiltzan eta kalera etorritakoan jakin zuten Otxandio bonbardatu zutela. Gerra hasi aurretik, karlista batzuk preso eraman zituzten. Gerra hasitakoan, nazionalistak sartu zituzten preso. Soldaduak, falangistak, erreketek eta legionarioak egon zirela kontatzen du, eta bakoitzak egoitza non ezarri zuen ere bai. Elizpean arrantxoak egiten zuten baba gorriekin edo.

### **707. Soldaduekin jolasean (ESK-081/021)**

Tren geltoki parean frontea egon zen gerra garaian. Eliza ondotik tankeekin mendira joaten ziren soldaduak eta mutikoak ere beraiekin ibiltzen ziren.

### **708. Etxea tiroetatik babestuta (ESK-081/022)**

Etxaurrean soroak zeuden eta hango hormaren ostean, milizianoak tiroka aritzen zirela gogoratzen du. Pasarte bat kontatzen du. Sukaldeko leihoa txapa batekin estaltzen zuten eta logeletako leihoetan artilezko koltxoak ipintzen zituzten. Bala askok jotzen zuten han.

### **709. Gerra garaiko errexisak (ESK-081/024)**

Gogoan dauka "Tabolintxeroaren" etxera soldaduak sartu zirela, eta hango pianola etxetik atera eta su eman ziotela plazan. Beste etxe batzuetan ere egin zuten lapurretan.

### **710. Gerra garaian, emakume bati tiro (ESK-081/025)**

Gerrarengatik hildakorik egon zen ez dauka gogoan, baina tiroak botatzen zituztela bai. Emakume bat Gatzagara abiatu zen eta tiroz zauritu zuten.

### **711. Bandoz aldatu nahi izatearren, soldadua fusilatu (ESK-081/026)**

Gau batean, soldadu bat nazionalen bandotik gorrien aldera pasatzen saiatu zen, baina harrapatu eta hurrengo egunean fusilatu egin zuten.

### **712. Ama eta zortzi seme-alabak preso (ESK-082/008)**

Gerra hasi zenean, Kanpazarren (Arrasate) zeuden. Ama eta zortzi seme-alabak preso hartu zituzten, baina Txirritanekoak familia guztia Eskoriatzara eramatea lortu zuen.

### **713. Aita mikeletea, gerran preso (ESK-082/010)**

Aita gerrara eraman zuten, mikeletea zelako. Santoñan harrapatu zuten eta kartzelan sartu. Karlista pare batek lagunduta atera zen kartzelatik. Mikeleteen jantzia, buzo urdina eta txapel gorria ziren.

### **714. Argi-errotak Bekorretan, Olazarren eta Bolibarren (ESK-082/011)**

Argi-errota Olazarren eta Bolibarren ere bazegoen. Nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Bekorreta aspaldi bota zuten.

### **715. Santa Ageda bezperan baserriz baserri (ESK-082/014)**

Kintoa hogeita bat urterekin izaten zen. Santa Ageda batzea egin zutenean, non afaldu zuten kontatzen du. Santa Ageda bezperan baserriz baserri abesten zuten, bi taldetan banatuta. Galarra soinujolea joan zen beraiekin.

### **716. Dirurik ematen ez zuenarentzako kopla (ESK-082/015)**

"Andra mondrongo, mondrongo / hik ez don asko emongo / hik emondako limosniagaittik / ez jonau asko edango". Kopla hori abesten zioten dirurik ematen ez zuenari.

### **717. Santa Ageda batzean ematen zietena (ESK-082/016)**

Arrautzak, txorixoak eta dirua ematen zizkieten Santa Ageda batzean. Dirua poltsarekin batzen zuten.

### **718. Arrasaten, Santa Ageda eskean (ESK-082/017)**

Santa Ageda auzoan (Arrasate) Santa Ageda bezperan ere eskean aritzen ziren, musika irakaslearekin.

### **719. Santa Agedako kantzak eta dantzak entseatzen (ESK-082/018)**

Santa Agedarako kantzak eta dantzak ikasteko entseguak egiten zituzten. Joxe Aranburuzabala "Trankil" izaten zen irakaslea.

### **720. Santa Ageda batzeko koplak (ESK-082/019)**

Santa Agedako koplak abesten ditu.

### **721. Santa Ageda bezperako jantziak (ESK-082/020)**

Santa Ageda bezperan baserrietara blusarekin, zapiekin eta txapelarekin joaten ziren. Biderako zahatoa eramaten zuten.

### **722. Santa Ageda batzea hasteko, etxafuegoak (ESK-082/021)**

Santa Ageda bezperan etxafuegoa bota eta lehenengo alkatearen etxean eta parrokoarenean abesten zuten. Guardia zibilen kuartela izandako lekuan afaldu zuten.

### **723. Santa Ageda eguneko jantziak (ESK-082/022)**

Santa Ageda bezperan baserrietara joaten ziren eta Santa Ageda egunean kalean. Kalerako zuriz jantzita joaten ziren, abarketa zuriei zinta gorriak ipinita, txapel gorriarekin eta lepoan zapi dotorea jarrita. Ospitalera beti joaten ziren.

### **724. Santa Ageda egunean non eskatzen zuten (ESK-082/023)**

Santa Ageda batzean, eskoletara ez ziren joaten. Etxeetara joaten ziren eta balkoietatik ere botatzen zieten zerbait. Dendetara eta lantegietara ere joaten ziren.

### **725. Santa Ageda batzean, etxafuegoak baserrietan (ESK-082/024)**

Baserrietatik etxafuegoak botatzen zituzten, talde batek besteari non zihoazen jakinarazteko.

### **726. Santa Ageda batzean, kantatu edo errezatu (ESK-082/025)**

Ettxeren batean hilberriren bat bazegoen, ez zuten kantatzen, errezatu baizik. Etxekoei galdetu egiten zieten: "kantau edo errezau?".

### **727. Santa Ageda batzean, agintariaren jantzia (ESK-082/027)**

Normalean, taldean agintaria egoten zen eta txapel eta gerriko beltza eramaten zituen.

### **728. Santa Agedatako dantzak (ESK-082/028)**

Aurreskua nola dantzatzen zuten azaltzen du. Soltean egiten zuten ondoren. "Agarrauan" (dantza lotuan) gustura dantzatzen zuten. Aurreskurako neskak bi lagunak aukeratzen zituzten, momentuan bertan.

### **729. Aurreskua dantzatuta, neskentzat txokolatea (ESK-082/030)**

Santa Agedako aurreskuan ateratzen zituzten neskak txokolatea jatera gonbidatzen zituzten.

### **730. Aurreskua, bi egunetan (ESK-082/034)**

Santa Ageda egunean eta hurrengo domekan egiten zen aurreskua.

### **731. "Kukumarruak" (ESK-082/036)**

Inauterietan praka zaharrekin eta zakuekin ibiltzen ziren. Bera umea zela ere baziren "kukumarruak". Zakua burutik behera ipini eta aurpegia margotuta ibiltzen ziren umeak beldurtzen, basotik etorrira. Puxikarekin umeen atzetik ibiltzen ziren, jo nahian.

### **732. "Kukumarru"engandik babestuta (ESK-082/037)**

Leku batzuk babeslekuak izaten ziren. Lehen elizpean ezin ziren sartu "kukumarru"ak, baina orain edozein lekutan.

### **733. "Urdelardero" nola izaten zen (ESK-082/038)**

"Urdelardero" egiten zenean, makila bat hartu eta eskean aritzen ziren. Sagarrak, txorixoak... ematen zizkieten, makilaren puntan sartuz.

### **734. "Urdelardero" kanta (ESK-082/039)**

"Urdeilardero, urdeilardero, urdeixa jan ta bazkaixa gero. Hor goixan iturri, ura pil-pil etorri, etxeikoandre zabala, leku oneko alaba. Etxekoandre zabala!" kanta abesten du.

### **735. "Urdelardero"rako makila eta jantziak (ESK-082/041)**

"Urdelardero"rako erabiltzen zuten makila beraiek prestatzen zuten. Normal jantzita ibiltzen ziren, txapela buruan hartuta. Prakei ebakia egiten zieten, aurrealdean eta atzealdean, txiza eta kaka egiteko.

### **736. Diru-batzeak beharrean zeudenentzat (ESK-082/043)**

Diru-batzeak egiten zituzten, beharrean zeudenentzat. Ateak alde guztietan zabalik egoten ziren.

### **737. "Karapaixoa" besoetakoarentzat (ESK-082/046)**

"Karapaixoa" zer den azaltzen du. Besoetakoari ematen zitzaion, ezkondu artean.

### **738. San Juanetako txopoa (ESK-082/050)**

San Juanetan, soldadu joan behar zuten mutilek ostu egiten zuten txopoa. Txopoaren puntan aza bat ipintzen zen. Geroago, alanbrea ipintzen zuten inor ez igotzeko. Su handia egiten zuten. Ez da esaerarekin gogoratzen.

### **739. San Juanetako gurutzea eta ira (ESK-082/051)**

San Juanetan atean arantza adartxo batekin gurutzea egin eta loretxo batekin ipintzen zen. Etxaurrean ira zabaltzen zen.

#### **740. Ur eta su bedeinkatuak etxera (ESK-082/052)**

Ura bedeinkatu egiten zuten San Juanetan. Etxean gordeta edukitzen zuten. Norbait hiltzen bazen, ereinotza hantxe busti eta zipriztinak botatzen zitzaizkion. Elizan sua hartu eta harekin etxean kandela pizten zuten.

#### **741. San Pedro jaiak (ESK-082/054)**

San Pedroetan musika banda aritzen zen eta bizikleta lasterketak egiten zituzten. Lino-dantza eta zigor-dantza egiten ziren. Txopoa San Juan bezperan eta San Pedroetan ipintzen zuten. Pilota partidak jokatzen ziren. Frontoia eskoriatzarrek egindakoa da. Sokamuturra ere egoten zen. Pasarte barregarria kontatzen du. Aurreskua dantzatzen zuten.

#### **742. Auzolana noiz eta nola egiten zuten (ESK-082/055)**

Udaletxeak ardoa debalde banatzen zuen auzolana egindakoa. Bideren bat hondatutakoa, esaterako. Auzolana borondatez egiten zuten. Gizonek egiten zuten, emakumeek ez.

#### **743. Aita mikelete (ESK-082/058)**

Aurrezki kutxa inauguratu zuen bere aitak, mikeletea baitzen. Aita sidekarrean joaten zen kapitainarekin, Santa Agedako fraide eta mojendako dirua eramatera. Portuetan zerga kobratzen zuen.

#### **744. Morroi eta bizikletan (ESK-082/059)**

Morroi egon zenean Azaoratzen, esnea eta arrautzak banatzen zituen Aretxabaletan. Opila harrapatzen zion abadeari. Bizikleta alokatu egiten zuen. Alokatzeko lekuak non zeuden azaltzen du. Bizikleta noiz erosi zuen kontatzen du.

#### **745. Trenaren prezioa (ESK-082/060)**

Treneko txartelak Eskoriatzatik Bilboraino hamaika pezeta eta hirurogeita bost zentimo balio zituen.

#### **746. Soldadutza, desertoreak eta desfileak (ESK-082/061)**

Soldadutza Bilbon egin zuen. Bi urtez etxera etortzeko baimenik gabe egon zen. Makiak harrapatzera bidali zuten herrikide batek, Leizabalek, maki batekin alde egin zuen. Francoren aurrean desfilatu zuenekoak kontatzen du.

#### **747. Soldadutzako janaria, "txuskoa" (ESK-082/062)**

Soldadutzan "txuskoa" jaten zuen. Orduko jatorduei buruzko esaera bat esaten du gazteleraz.

#### **748. Estraperloan Arabara joanda (ESK-082/064)**

Estraperloan aritzen ziren, Arabara joanda, bizikletaz zein oinez, baina zaindaria kendu egiten zien karga.

#### **749. Etxean edateko ura beti (ESK-082/068)**

Etxean edateko ura beti ezagutu du. Depositu batetik hodi batean ekarrita zeukaten.

### **750. Jose Arana aberatsa (ESK-082/069)**

Jose Arana eskoriatzarra zen. Donostian bizi zen. Eskoletarako eta beste hainbatetarako dirua eman zuen. Aberatsa eta eskuzabala zela dio. Beste aberats batzuk aipatzen ditu: Aranburuzabala, Gaspar, Ganuza...

### **751. Gerra garaiko fusilamenduak eta bando aldaketak (ESK-082/071)**

Gerra garaian zaurituak eta hildakoak izan zirela kontatzen du. Maringo abadea Marinen hil zutela dio. Bandoz aldatutakoak egon zirela dio. Hilerriko zuhaitzean norbait fusilatu zutela kontatzen du.

### **752. Gerra garaian, umeak kartutxoak batzen (ESK-082/072)**

Gerra garaian, kartutxo hutsak batzen zituzten eta Zubizarretak erosten zizkien.

### **753. Lehengusuak gerran hilak (ESK-082/073)**

Lehengusu bat Bilbo aldean hil zen, gerran, baina gorpua ez zuten ekarri. Beste familiako bat ere hil zen.

### **754. Santa Ageda eguna (ESK-084/002)**

Santa Ageda garrantzia handiko eguna da Eskoriatzan.

### **755. Neskak plazara dantzan (ESK-084/003)**

Gadea mutilekin batera dantzan aritu zen lehenengotariko neska izan zen.

### **756. Neska guztiak dantzara irten ziren (ESK-084/005)**

Hurrengo urtean neska guztiak atera ziren dantzara.

### **757. Neskak Banakoa dantzatzeko lehenengoz (ESK-084/007)**

Gadeak eta bere lagunak Santa Ageda egunean mutilek bakarrik egiten zuten ekitaldian parte hartzea lortu zuten, hala ere, egoera ez gaiztotzearen nahiago izan zuten banakoa bakarrik dantzatzeko.

### **758. Santa Ageda bezperan eskean (ESK-084/008)**

Santa Ageda bezperan egiten den eskean neskak eta mutilak joaten dira gaur egun. Antzinan, berriz, mutilak bakarrik joaten ziren.

### **759. Ohiturak aldatzen doaz (ESK-084/009)**

Orain dela gutxira arte, Santa Ageda egunaren inguruko ekintzetan mutilek bakarrik hartzen zuten parte, esaterako plazan egiten den dantza saioa. Gaur egun ordea, neskek ere badute horietan parte hartzeko aukera.

### **760. Santa Ageda bezperan eskean (ESK-084/010)**

Dirua eta jana ematen dizkiete eskean joaten direnei. Jasotakoarekin gero, izugarritzko bazkari edo afaria egin ohi dute.

### **761. Eskean eta kantuan auzoetan zehar (ESK-084/011)**

Eguna luzea den arren ibilbide osoa oinez egitea ezinezkoa dela dio Gadeak.

### **762. Zahatoa eskerrak emateko (ESK-084/012)**

Kantuan egiteagatik jana edo dirua jasotzerakoan eskerrak emateko, zahatoa eskaini izan zaie baserritar zein herritarrei.

### **763. Dantzak eta kantuak entseguetan ikasten dituzte (ESK-084/013)**

Gadeari zailago egin zitzaion kantuen doinuak ikastea dantzak ikastea baino.

### **764. Santa Agedako janzkerak (ESK-084/014)**

Gaur egun guztiak janzten dira berdin. Zuriz jantzita joaten dira gerriko eta txapel gorriarekin eta, "baltzezkuak" direnak, gerriko eta txapel beltzarekin. Aintzinan, ordea, mutilak kinto jantzita eta neskak baserritar jantzita joaten ziren.

### **765. Kukumarruak (ESK-084/016)**

Kukumarruak inauterietan zirikatzen irteten diren pertsonaiak dira. Guztiz estaliak eta puxika edo erratz batekin ateratzen diren horietakoak.

### **766. Kantu-eskean (ESK-084/017)**

Urdelardero kantuekin eskean joaten ziren urtero baserritarrez jantzita.

### **767. "Urdelardero" kantari buruzko azalpenak (ESK-084/019)**

Urdelardero kantua nolakoa den erakusten digu Gadeak.

### **768. Urdelardero kantuan (ESK-084/021)**

Urdelardero kantua abesten du

### **769. Santa Agedetan mutilak eskean; arropak (ESK-086/004)**

Santa Agedetan zuriz janzten ziren, gerriko gorriarekin. Zapiak koloretakoak eramaten zituzten. Mutilak kantuan ibiltzen ziren etxerik etxe. Ondo kantatzen zuten. Gero aureskua egiten zenean, gustuko mutilak dantzara ateratzeko zain egoten ziren. Etxeren batean norbait hil baldin bazen, etxe hartan erreztatu egiten zen.

### **770. Santa Agedetan neskak dantzara irteteko zain (ESK-086/006)**

Santa Agedetan neskak urduri egoten ziren, mutilek dantzara aterako ote zituzten, zain. Neskek ez zuten eskean parte hartzen. Dantzara ateratzen bazituzten, gero zerbait edatera joaten ziren tabernara. Normalean, gaseosa. Botilak nolakoak izaten ziren.

### **771. Markaide soinu-jotzailea bizikletan Arrasatetik (ESK-086/008)**

Luzio Markaide soinu-jotzaile arrasatearra eta herriko txistulariak ibiltzen ziren Santa Ageda eskean ibiltzen ziren mutilekin. Markaide Musika Bandako zuzendaria zen. Bizikletan etortzen zen Arrasatetik. Beste soinu-jotzaile batzuk: Leteko soinu-jotzailea, Gonzalo Cina errioxarra, Gardoki.

### **772. San Pedro jai bereziak Gasparren etorrerarekin (ESK-086/009)**

Lehen ez ziren hainbeste suziri botatzen. Gogoan dute San Pedro jai batzuetan bota zituztela, Gaspar zetorrela eta. Moto lasterketa egin zen eta neskak banderatzoeekin egon ziren. Gizonak bizikletekin maristetara. Kontzejupean ardo zahagiak.

### **773. Garai batean soldadutza luzea (ESK-086/015)**

Duela zenbait urte neskak ere hasi ziren Santa Ageda eskean parte hartzen. Ondo iruditzen zaie, gaur egun soldadutzarik ez dagoenez, denak direlako kintoak. Garai batean soldadutzara zihoazenei despedida egiten zitzaien. Batzuk negarrez joaten ziren. Denbora luzez egoten ziren soldadu. Asko Afrikara. Batzuetan andregaia herrian utzita. Begoñaren senargaia hiru urterako borondatez joan zen. Onuraren bat zuen borondatez joateak.

### **774. "Kukumarru"ak inauterietan I (ESK-086/018)**

Inauterietan "Kukumarruak" ibiltzen ziren, arropa zaharrekin jantzitako bi edo hiru mutil. Ezin izaten ziren komentuko gurutzearen azpitik pasatu, bekatua zelako. Txerrien puxikak gorde egiten ziren inauterietarako. "Kukumarru"ek jo egiten zituzten haiekin. Mendiolatik behera zakua buruan sartuta etortzen zen "Kukumarrua".

### **775. "Kukumarru"ak inauterietan II (ESK-086/020)**

"Kukumarru"ak umeen atzetik ibiltzen ziren korrika. Mojen komentuan ate handi bat zegoen gurutze handi batekin eta handik ezin ziren pasatu "Kukumarru"ak. Elizpera ere ezin ziren sartu, leku sakratua zen eta. Puxikak gogorak izaten ziren eta ondo joz gero, min ematen zuten. Umeek zirikatu egiten zituzten.

### **776. Umetako jolasak: tortoloska, txirikiletan, pote-poteka... (ESK-086/023)**

Umetako jolasak: tortoloska, soka-saltoan, txirikiletan, pote-poteka... Tortolosek lau alde izaten dituzte. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolas batzuetan eta beste batzuetan neskak bakarrik. Udan afalostean San Juan kaleko guztiak elkarrekin jolasean.

### **777. Alokaturako bizikletarekin ikasi zuten bizikletan ibiltzen (ESK-086/024)**

Bizikleta alokairua zegoen herrian. Bizikleta txiki-txiki bat zeukan eta harekin ikasi zuten. Ez zen ibiltzen kotxerik. Harri-harrika jolasean ere errepidean ibiltzen ziren.

### **778. "Urdelardero" egunean eskolatik eskean (ESK-086/025)**

Inauterietan, "Urdelardero" egunean, eskolatik joaten ziren etxerik etxe eskean irakaslearekin. Txorizoa, sagarra edo urdaia sartzen ziren zirian. Kantatu egiten zuten. Abestiaren letra. Ezer ematen ez zuenari zerbait esaten zitzaion, mespretxu gisa.

### **779. "Urdelardero" eguna; San Nikolasetan jaiotzarekin eskean (ESK-086/027)**

"Urdelardero" egunean normal jantzita joaten ziren. Urritzarekin egindako ziriak etxean prestatzen zizkieten. Sagar zatiak, txorizoa, urdaia edo piku melatuak sartzen ziren zirian. Karameluak ere botatzen zizkieten. Gabonetan, San Nikolasetan, jaiotzarekin ibiltzen ziren umeak. Gero merienda egiten zuten.

### **780. San Juanetako ohiturak: sua, "txopua", bedeinkazioak... (ESK-086/029)**

San Juanetako ohiturak: sua eta "txopua". Soldadu joan behar ziren mutilek ipintzen zuten "txopua" San Juan bezperan. San Juanetan erramuarekin eta loreekin egindako sorta bedeinkatu egiten zen eta gero gorde, hurrengo urteko sutara botatzeko. Bedeinkatutako gurutzeak ipintzen ziren ateetan. San Juan egunean ira botatzen zen etxe atarian. "Sakutia"ren (intsusa) lorea uretan eduki eta ur harekin San Juan egunean aurpegia garbitzea ona zela esaten zen.

### **781. Garizuman besoetakoari "karapaixua" eramateko ohitura (ESK-086/032)**

Garizuman ama pontekoak "Karapaixua" eramaten zion besoetakoari. "Karapaixua" ogi bat izaten da, txorizoarekin eta arrautzekin. Batzuek sagarra ere ipintzen diote. Umea txikia zenean hasten ziren ohitura horrekin eta nagusitu arte jarraitzen zuten.

### **782. San Pedro jaiak zetoze eta... zenbat lan! (ESK-086/034)**

San Pedro jaietan gonbidatu asko izaten zituzten. Ama oso goiz jaikitzen zela gogoratzen du Mari Karmenek. Begoñak, berriz, gauza on guztiak San Pedroetarako gordetzen zirela, gonbidatuentzat. Lan askoko sasoia izaten zen: belarrak sartu behar, artajorra... Eta, gainera, etxe osoa zuritzen zuten karearekin. Karobia ere bazegoen, baina, bestela, zakuak erosten ziren.

### **783. San Pedroetako zinta-lasterketa (ESK-086/036)**

San Pedroetan bizikleta lasterketak egoten ziren eta baita zinta-lasterketak ere. Bizikletan joan eta zintzilik zeuden zinten aroan sartu behar zuten makila, zinta eskuratzeko. Gerora, zinten ordeztuak beste arropa batzuk jartzen hasi ziren.

### **784. Blacidak haria egin eta Luis ehuleak ehuna I (ESK-086/038)**

Gogoan dute herriko batek goruetan nola egiten zuen. Lehenbizi kardatu eta gero haria egin. Gero, hari harekin ehuna egiten zuen Luis ehuleak.

### **785. Blacidak haria egin eta Luis ehuleak ehuna II (ESK-086/040)**

Luis ehuleak non zeukan lantokia. Ehuna egiteko makina zeukan. Goruetan egiten zuen emakumea: Blazida Balanzategi. Beraiek nagusia ikusten zuten, baina ez dakite zenbat urte izango zituen. Orduan emakumeak beltzez eta buruko zapiarekin janzten ziren. Baserrietan ere egingo zen goruetan. Artzainek artilearekin galtzerdiak egiten zituzten.

### **786. Artilezko koltxoia, jo eta harrotu egin behar (ESK-086/044)**

Udan lan egin behar izaten zen, negurako prestatzeko: koltxoia garbitu, egurra eta ikatza ekarri... Koltxoia artilezkoa. Azala garbitu eta eguzkitan edukitzen zituzten. Gero, makila batekin jo, harrotzeko. Herriko emakume batek koltxoia jotzen zituen plazan.

### **787. Arropak astintzera garbitokira edo erredera; iturriak (ESK-086/046)**

Bakoitzak bere arropak garbitzen zituen. Arropak etxean xaboiu eta garbitokira edo erredera astintzera. Ontziak bi lagunen artean eramaten zituzten. Ura hotza egoten zenez, batzuetan ur beroa eramaten zuten lapikoan. Etxean urik ez zeukatela ahizpak senargaia aurkitu arte dio Begoña. Iturritik ur freskoa eramateko ohitura. Bi iturri zeuden: ur normala eta metal-ura.

### **788. Bedeinkazioak, umetatik jaso dituzten ohiturak (ESK-086/047)**

Mari Karmenek beti edukitzen du ur bedeinkatua etxean. Pazko egunean bedeinkatzen da. Erramu egunean, erramu bedeinkatua. Etxea bedeinkatzeko erabiltzen ditu. Begoña erramu berria ipintzen duenean, aurrekoa erre egiten du San Juanetan. Umetatik ezagutu dituzten ohiturak dira. Amandreak izaten zuen Jesusen Bihotzaren egutegia.

### **789. Su bedeinkatua (ESK-086/048)**

Su bedeinkatua. Elizpean egiten zen lehen sua eta makilatxo bat eramaten zen etxera. Su berria. Uraren eta suaren bedeinkazioa batera egiten zen. Hauts eguna.

### **790. Mesedeetako mojen eskolan ibiliak (ESK-086/052)**

Mari Karmen mojetan ibili zen eskolan lehenbizi eta gero plazako eskola publikoan. Mojak Berrizera eraman zituzten eta eskola itxita egon zen. Mesedeetako mojak ziren, klausurakoak.

### **791. Eskolak ematen zituzten mesedeetako mojak (ESK-086/054)**

Kristau ikasbidea ondo ikasten zuten. Mojak ziren irakasleak eskolan. Izen batzuk aipatzen dituzte: sor Maria, Inmaculada, Mercedes... Gero moja berriak etorri ziren. Haiek eskola partikularrak ere ematen zituzten.

### **792. Klausurako mojekin harremana; kapera (ESK-086/056)**

Mesedeetako mojen komentuko kapera nolakoa zen. Meza egoten zen. Mari Karmenen aitajaun-amandreak ondoan bizi ziren eta joera handi zuten.

Amandreak fede handia zuen ama birjinarekin. Asentzio egunean 40 kredo errezatza joaten ziren. Gizonek ez ikusteko, aurpegia estaltzen zuten klausurako mojek. Tornu bat zeukaten. Bisitak burdin-hesia tartean zela egiten zituzten.

### **793. Izarak nola konpontzen zituzten (ESK-086/057)**

Mojen eskolan josten ere ikasten zuten. Garai batean izarei zatiak jartzen zitzaizkien apurtzen zirenean. Nolako konponketak egiten ziren. Galtzerdiak konpontzeko, "arrautza". Plantxa egin aurretik "errepasua" egiten zen.

### **794. Lau pezeta ordainduta, zinemara (ESK-086/058)**

Mesedeetako mojak joan zirenean, kapera zegoen lekuan zinema jarri zuten. Nolako pelikulak botatzen zituzten. Zinemako langileek borondatez lan egiten zuten. Domeketan bost pezetako paga ematen zieten. Zinemak lau balio zituen; sobratzen zenarekin gaseosa edo kakahueteak.

### **795. Plazako eskola publikoan zine mutua on Antonio abadearekin (ESK-086/060)**

Mari Karmenek 18 urte inguru zituela ipini zuten zinema. Aurretik plazako eskola publikoan jartzen zizkien pelikula mutuak on Antonio abadeak. Berak ematen zituen pelikularen inguruko azalpenak. Dotrina ondo ikasten zuenari txapa bat ematen zioten eta harekin merkeago izaten zuen zinea.

### **796. Euskarazko izenak debekatuta (ESK-086/061)**

Eskolan ikasi zuten gaztelaniaz. Sasoi batean euskarazko izenak aldatu egin zizkietela azaltzen dute. Esaterako, aurretik Edurne zenari gero Nieves jarri zioten. Bolibar auzoan egon zen maistrak jo egiten omen zuen euskaraz egiteagatik.

### **797. Gerra sasoian bi urtez Gironan; herrira tzulera (ESK-086/064)**

Gerra hasi zenean, amak eta biek alde egin zuten lehenengo Debara, handik Bilbora eta gero Gironara. Bi urte egin zituzten han. Aitak lau urte egin zituen kartzelan. Bisitatzaera eraman zuten, baina berak ia ez zuen ezagutzen, hiru urte zituelako azkenengoz ikusi zuenean. Amandrearen etxearekin, oster, ondo gogoratzen zen. Gironan egon zen denboran euskara ahaztu eta katalana ikasi zuen. Herrira itzultzean, etxeko gauza asko falta zitzaizkien. Aitak beste bati ikusi zizkion berak Ameriketatik ekarritako kataloxak, baina ezin ezer esan.

### **798. Gutxik zeukaten irratia (ESK-086/065)**

Mari Karmenek irratia nahi zuen. Aitajaunak agindu zion bi txahal jaiotzen baziren, bataren diruarekin irratia erosiko zutela, baina ez zen hala izan. Lehenengo irratia. Irratiko nobelak. "Radio Pirenaica" entzuten zuten ezkutuan.

### **799. Trenean asko ibiliak; trenaren azken eguna (ESK-086/067)**

Mari Karmeni amak esaten zion gogoan zuela trena jarri zuten eguna. Gabon zahar egunean, trena azkenengoz pasa zenean, sirena jotzen pasa zen. Tristura handia eman zien. Jende asko ibiltzen zen trenean. Beraiek ere asko ibiltzen ziren. Batzuetan mutil guapoak ikustera ere joaten zirela aitortzen dute. "Bergaresa" autobusak. Trena zergatik kendu zuten.

### **800. Musika eskolaren sorrera (ESK-087/003)**

Umetako oroitzapen oso politak ditu. Eskolara joan eta gero kalean jolasten zuten. Mari Kruz Oianguren lagun mina du eta ikastolaren sortzaileetako bat izan zen. Bion artean musika eskola sortu zuten Eskoriatzan. Bandako zuzendari bila nola ibili zen.

### **801. Musika eskolako tresnak erosten (ESK-087/004)**

Eskoriatzako udaletxeak diru laguntza eman zion musika eskolari eta musika-tresnak erosi zituzten. Lehenengo aldiz Santa Zezilia egunean mutikoak musika jotzen atera zirenean.

### **802. Musika eskolako lehenengo irakasleak (ESK-087/006)**

Maria Estherrek solfeoa ematen zuen, gaur egun unibertsitatea dagoen lekuan. Dalmasio fraideak lokala uzten zieten. Miren Erostarbe (pianoa) eta Araceli (akordeoia) musika irakasleak.

### **803. Laguntasun handia musika eskola sortzeko (ESK-087/007)**

Solfeoa Arrasaten ikasi zuen. Alfredok irakatsi zion pianoa jotzen. Laguntasun handia jaso zuten musika eskola sortzeko orduan. Musika eskola sortzeko ideia. Musika banda beti egon da Eskoriatzan.

### **804. Mesedeetako Karitateko mojak (ESK-087/008)**

Umetan, Mesedeetako karitateko mojekin ikasi zuen. Gerraostean ezer gabe gelditu ziren mojak. Ume asko negarrez joaten ziren eskolara.

### **805. Mojen eskolako zigorrak (ESK-087/009)**

Mojek ipintzen zizkieten zigorrak nolakoak ziren. Eskailerapeko gela txiki baten sartzen zituzten haurrak, baina bera ez zuten inoiz sartu.

### **806. Mojen eskolan ikasten (ESK-087/010)**

Kantuen bidez ikasten zuten. Dena gaztelaniaz zen. Matematikak, erlijioa, Mutil eta neskak, denak batera egoten ziren.

### **807. Eskolako uniformeak; (ESK-087/011)**

Eskolarako hiru uniforme izan ditu. Elizan, mutilak alde baten eta neskak bestean egoten ziren. Uniformeak nolakoak ziren. Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten.

### **808. Sor Josefa eta Sor Klara irakasleak (ESK-087/012)**

Eskolan, arratsaldetan josten ibiltzen ziren. Irakurtzea gehiago gustatzen zitzaion jostea baino. Sor Josefa Juaristi eta Sor Klara Agirre izan ziren lehenengo bere irakasleak. Gero, moja berriak sartu ziren.

### **809. Emakumeak batxilergoa prestatzen (ESK-087/015)**

Batxilergoa ikasteko, akademiara joan behar zen eta gero azterketa Donostian egiten zen.

### **810. Emakumeei lana uzteagatik dirua ematen zitzaien (ESK-087/016)**

Hamalau urterekin lantegiko bulegoan lanean hasi zen. Emakume gehienak ezkondu ondoren lana uzten zuten. Dirua ematen zitzaien dirua uzteagatik.

### **811. Santa Ageda (ESK-087/018)**

Santa Ageda egunean, kalera ateratzen zen korua abestera. Mendiak makilak biltzen ibiltzen ziren, gero kalean abesteko. Soraluzen ere abesten zen eta dirua biltzen ez.

### **812. Kintoak San Agedan (ESK-087/019)**

Santa Ageda baino egun batzuk lehenago, kintoak baserriz baserri joaten ziren abesten eta janaria ematen zitzaien.

### **813. Eskoriatzako korua eta musika banda (ESK-087/021)**

Bera ez da dantzari ibili baina lagunak bai. Koruan ibili da beti, Mari Kruz bere lagunarekin. Elizan entseatzen zuten. Urte batzuetan, ez zegoen musika ikasteko aukerarik eta horregatik pentsatu zuten musika-eskola sortzea.

### **814. Urdelarderoa Eskoriatzan (ESK-087/022)**

Inauterietan Urdelarderoa ospatzen da. Umetan nola ospatzen zuten. Urdelarderoaren kanta.

### **815. Eskoriatzako ikastolaren sorrera (ESK-087/023)**

Mari Kruz Oianguren Bilbon eskola baten irakasle bezala zebilen lanean eta Eskoriatzan ikastola zabaltzeko nahi zuen. Kokapena. Mari Kruzek eta beste batzuek, lan eta diru asko inbertitu zuten ikastolaren sorreran.

### **816. Garai bateko Urdelardero eguna (ESK-087/024)**

Garai batean, Urdelarderoan lortzen zuten txorixoa osorik etxera eramaten zuten. Aitonak egiten zion ziria. Ez ziren arropa bereziekin jantzen.

### **817. Gabonetako prozesioak, kantak, jantziak... (ESK-087/025)**

Gabonetan, baserritarrez jantzen ziren Jesusen prozesioa egiten zutenean. Dirua batzen zuten. Gabonetako kantak ia denak euskaraz ziren.

### **818. Inauterietako Kukumarroak (ESK-087/026)**

Inauterietako Kukumarroak: zer egiten duten, nola janzten diren... Bildotsei "bekereke" esaten zaio Eskoriatzan. Kukumarroekin beldurra pasatzen zuten umetan.

### **819. Dorletako Ama-birjinaren irudia (ESK-087/028)**

Eskoriatzako Dorletako ama-birjinaren arduradunak izan da urte askoan. Etxez-etxe eramaten da ama birjinaren irudia eta limosna botatzen zaio. Diru hori, elizan dauden margolanak eraberritzeko erabiltzen dira.

### **820. Mari Kruz Oianguren andereñoa (ESK-087/031)**

Mari Kruz Oianguren eta Maria Esther, jaiotzetik elkarrekin egon dira: eskolan, kalean... Mari Kruz irakaslea izan zen eta geroago jostuna.

### **821. "Seccion Femenina"-rik ez zegoen Eskoriatzan (ESK-087/032)**

Garai batean josten ikastea oso garrantzitsua zen. "Seccion Femenina"-ra joan behar izaten zen Donostiara.

### **822. Eskoriatzako Iramain baserriaren historia (ESK-089/003)**

Ama eskoriatzarra eta aita Miranda De Ebro ingurukoa zen. Iramain baserrian jaio zen eta bertan bizi da. Bere aitonak erosi zuen 16.000 pezetagatik XX. mende hasieran. Baserria, kuartela izan zen.

### **823. Baserrian jaioa bizilagunen laguntzarekin (ESK-089/004)**

Patxi jaio zenean, baserriko morroi bat bizikletan joan zen Aretxabaletara medikuaren bila. Bizilagunak jaiotzetan laguntzera joaten ziren.

### **824. Gerran ama alargun geratu zen (ESK-089/005)**

Patxi jaio zenean, aita gerrara borrokara joan zen. Zauritua izan zen eta Iruñean hil zen infekzioengatik. Ama bakarrik geratu zen, senar eta familiarik gabe. Bizilagunek baserriko lanetan laguntzeko prest egoten ziren.

### **825. Garia nola ereiten zen (ESK-089/006)**

Hogei urte bete zituen arte, garia ereiten zuten baserrian. Prozesua. Behorrarekin lana errazagoa egiten zen.

### **826. Garia nola jotzen zen; auzolana eta merienda (ESK-089/007)**

Garia harriaren kontra jotzen zen alea ateratzeko. Gero, makina batek egiten zuen. Hamar bat lagun elkartzen ziren eta baserri batetik bestera joaten ziren. Merienda.

### **827. Kontrabandoan gari bila Arabara (ESK-089/008)**

Gariaren alea atera eta gero, errotara eramaten zuten. Gerraostean errotak itxita egon zirenik ez du gogoratzen baina Arabatik kontrabando asko zegoela bai. Beraiek ez ziren inoiz kontrabandoan joan, etxean nahiko produzitzen zutelako.

### **828. Txerriaren aprotxamendua I (ESK-089/009)**

Txerria izaten zuten baserrian. Nola aprotetxatzen zuten: txorixoak, solomoak, izterrak, saihetsak... la dena adobatu egiten zuten. Baserrian ez zuten goserik pasa gerraostean

### **829. Txerriaren aprotxamendua II (ESK-089/010)**

Urdaiazpikoak nola ontzen eta gatzitzen zituzten. Txorizoak leku lehorretan gorde behar zituzten. Odolosteak. Txerria hiltzen zenean, inguruko bizilagunei eta abadeari banatzen zieten.

### **830. Gerraostean, dirua bai baina jatekorik ez (ESK-089/011)**

Garai bateko abadea, bi ahizpa eta haietako baten 4 seme-alabekin bizi ziren. Nahi eta dirua egon, ez zegoen janaririk. Errazionamendua.

### **831. Txarri-boda (ESK-089/012)**

Txarri-boda zer zen eta egun horretan zer egiten zuten. Umeei pezeta pateko paga ematen zitzaien.

### **832. Bihargina eta errementaria (ESK-089/013)**

Pezeta batekin ilea mozten zion Eskoriatzako bizarginak. Errementaria ere bazen.

### **833. Baserriko arrautzak (ESK-089/015)**

Baserrian zituzten animaliak: 4-5 behin, txahalak eta oilo-arrautzak. Oiloei artoa ematen zieten jateko. Gorringoaren kolorea ezberdina da garia edo artoa eman ezker. Arrasateko emakume bat joaten zen haien arrautzak eroatera eta gero kalean saltzen zituen.

### **834. Arrautzak eta txahalak saltzen zituzten (ESK-089/016)**

Oiloak aske izaten zituzten. Esnerik ez zuten saltzen baina txahalak bai. Amak alargun pentsio bat zuen.

### **835. Mazmelako abadea, Juan Jose Idigoras (ESK-089/017)**

Eskolara abadearen etxera joaten ziren eta apaizak ematen zituen klaseak. Patxi zen gazteena. Neska eta mutilak denak batera ikasten zuten eta baserriko animaliak eta batez ere oiloak haien artean ibiltzen ziren. Don Juan Jose Idigoras zen abadea. Tontsura eramaten zuen.

### **836. Ezkutuan sakristian ardoa lapurtzen (ESK-089/019)**

Nahiz eta abadea euskalduna izan, eskolak gaztelaniaz ziren. Dotrina euskaraz. Patxi akolito bezala ibili zen. Zein lan egiten zituen. Ezkutuan ardoa lapurtzen zioten abadeari.

### **837. Soldaduskan irakasle bezala ibilia (ESK-089/020)**

Eskolan, matematikak ikasi zituen. Gero soldaduska egiten zegoela, beste mutil batzuei klaseak emateko eskatu zioten. Lan ezberdinak izan ditu.

### **838. Akolituaren lanak (ESK-089/021)**

Auzoko haur gazteena zenez, urte askoz akolitua izan zen. Garai batean apaizak mezak bizkarrez ematen zituen. Akolituak kapa ondo jartzen zuen, txilina jo... Abadea eta akolitua, gaixo zegoenaren etxera joaten ziren gure jauna ("gurejauna") ematera.

### **839. Elizari lotutako ohiturak eta eginbeharrak (ESK-089/022)**

Garai batean egiten ziren ohitura batzuk gaur egun zentzugabeak direla uste du. Elizak indar handia zuen. Fedea.

### **840. Mazmelako auzoa; baserriak (ESK-089/025)**

Mazmelako San Bartolome ermita. Auzoko parrokia. Pareko auzoko Castañares auzoko parrokia, Mazmelako berdina da. Gaur egun hamabi familia bizi dira auzoan baina denek ez dute baserri moduan funtzionatzen.

### **841. Induspe edo Etxe-zahar baserria (ESK-089/026)**

Etxe-zahar edo Induspe baserriko jabeekin arazoak izan zituzten bizilagunak, haien ganaduak zirela eta.

### **842. Nebera baserria (ESK-089/027)**

Nebera baserrikoek, zulo handi bat egin zuten eguzkiaren kontran eta elurrez betetzen zuten neguan. Auzokoak izotz bila joaten astoarekin, Zuloa nolakoa den.

### **843. Osiñalde baserria (ESK-089/028)**

Osiñalde baserriaren aurrean osin bat zegoen. Gero lurzorua behar zuten, osina hustu egin zuten.

### **844. Mazmemalko tren geltokia; garraioak (ESK-089/030)**

Garai bateko Mazmelako tren geltokia. Jende asko ibiltzen zen trenean baina errepideak garatu zirenean autobusek, kotxeek eta taxiak indarra hartu zuten. Garai batean bideak oso txarrak ziren.

### **845. Gasteizeko merkatuan saltzen (ESK-089/031)**

Trena asko erabiltzen zuten gaztetan, normalean Gasteizera joateko. Gasteizera joateko ohitura asko zeukaten eta merkatu plazan saltzen zituzten produktuak. Gizon batek gurdian eramaten zituen baserritarrek geltokitik azokara.

### **846. Eskoriatzara astoarekin enkarguak egitera (ESK-089/032)**

Azokan irabazitako diruarekin oinetakoak erosten zituzten. Eskoriatzara enkarguak egitera edo olioak erostera joaten zen astoarekin.

#### **847. Bilbora baserriko produktuak saltzera (ESK-089/034)**

Bilbora baserriko produktuak trenean eraman zituenekoa. Astoa, arrautzak, oiloak, intxaurrak... Bilbon, izeba batek itxoiten zion eta Espartero kalera joaten ziren lau otarrekin, genero guztia uztera. Bilbon astebete pasatzen zuen. Bizikletaz ibiltzen bertan ikasu zuen. Zinemara joaten zen lehengusina txikiarekin.

#### **848. Kamioilaria izan da (ESK-089/036)**

Gasteizen atera zuen gidabaimena, soldaduskara joan aurretik. Ondoren, kamioilaria izan da. Gorpila zulatzen zireneko kontuak.

#### **849. Kamioiko gidabaimena ateratzen (ESK-089/038)**

Bergarako Ola auzoko Transgal garraioetan lan egiten hasi zen kamioiarekin. Hasieratik Madrilera bidaiak egiten hasi zen. Kamioiaren gidabaimena Donostian atera zuen.

#### **850. Erromerietara Arabara (ESK-089/041)**

Gazteak zirenean, erromerietara Arabara joaten ziren: Landara, Villarealera, Otxandiora... Eskoriatzako neskek auzoko mutilak gutxiagotzat hartzen zituzten, baina gipuzkoarrak ez, nahiz eta baserritarrak izan. Bizikletan joaten ziren.

#### **851. Dantza lotua bekatua zen (ESK-089/045)**

Amaren garaian dantza lotua bekatua zen.

#### **852. Areano baserria barnetegi gisa (ESK-092/002)**

Gurasoak baserritik bizi ziren eta bere belaunaldiak egin zuela baserrian aldaketa dio. Bera andereñoa izana da. Hizkuntzak irakasten zituen. Baserria barnetegi moduan prestatu zuten. Lehenbizi umeekin hasi zen eta gero helduekin ere bai. Orain baserriaren zati bat landetxea da.

#### **853. Zazpi urterekin Gasteizera; hizkuntzak irakasteko erabakia (ESK-092/004)**

Sei urtetik zazpira Eskoriatzako eskolara joaten zen, oinez. Zazpi urterekin Gasteizera joan zen osabaren etxera eta han hasi zen eskolan. Gogorra izan zen berarentzat euskaratik gatzelaniara kolpetik pasatzea. 15 urterekin hizkuntzak ikasi eta irakatsi behar zituela erabaki zuen.

#### **854. Umetan era askotako jendea baserrira (ESK-092/005)**

Eskoriatzan dena euskaraz egiten zen. Areano baserrian beti ateak zabalik egoten ziren bera umea zenean eta era askotako jendea joaten zen: eskekoak, mojak, fraideak, guardia zibilak, artistak... Horrek aberastasuna eman ziela uste du. Aitajaunaren anaia bat Japoniara joan zen misiolari. Handik itzultzean etxeko umeak eskolara joan behar zirela esan zuen eta denak eskoletara bidali zituzten. Dominikari Gasteizera joatea tokatu zitzaion.

#### **855. Mendiola auzokoek marianistekin egindako trukea (ESK-092/007)**

Anaia nagusia Eskoriatzako marianisten eskolara joan zen. Mendiola auzokoek trukea egin zuten marianistekin: uraren truke baserriko mutilentzat eskola

ireki zuten. Frantziatik etorriak ziren fraideak eta eskolari Sorbona deitzen zioten.

### **856. Lehentasuna lanari ala eskolari? (ESK-092/008)**

Garai batean Arizmendiarieta Arrasateko eskola profesionalera eramateko gazte bila ibili zen baserrietan. Baina baserrietan lan asko zegoen eta jendea behar izaten zen etxean. Familia batzuek lanari ematen zioten lehentasuna eta beste batzuek ikasketei. Euren etxean eskolari eman zioten lehentasuna, Japoniatik etorri zen senideari esker. Berak zortea izan zuen anai-arreba nagusiagoek etxean gurasoei laguntzen zietelako eta osaba-izeben laguntzarekin Magisteritza ikasketak egin ahal izan zituelako.

### **857. Magisteritza ikasi eta lehen urtea Aretxabaletan (ESK-092/009)**

Zazpi urterekin jada andereño izan nahi zuela esan omen zuen. Magisteritza ikasketak egin zituen Gasteizen. Orduan eskola nazionaletan hasten ziren lanean Magisteritza ikasitakoak, baina berak ez zuen garbi eta ez zen apuntatu. Aretxabaletan egin zuen urtebete, mojek parrokoaren laguntzaz martxan jarri zuten eskolan. Eskolak gaztelaniaz ematen zituen.

### **858. Gaztelaniazko klase partikularretatik euskaraz irakastera (ESK-092/010)**

Dominikak unibertsitate ikasketekin jarraitu nahi zuen lan egiten zuen bitartean. Jose Maria Arizmendiarietak klase partikularrak ematea proposatu zion eta halaxe hasi zen Arrasaten matematika, gramatika eta abar irakasten, gaztelaniaz. Laster Oregi eta Amilibia joan zitzaizkion ea euskarazko klaseak emango zituen galdezka. Donostian ikastaro bat egin ostean, Bergaran hasi zen euskaraz irakasten 1959-1960 inguruan.

### **859. Ikastaroa Donostian Elbira Zipitriarekin; metodologia (ESK-092/011)**

Elbira Zipitriarekin ikastaro bat egin zuen Donostian, gero euskaraz irakatsi ahal izateko. Zipitriaren metodologia: ona, praktikoa eta arrazoizkoa. Txotxak nola erabiltzen zituzten.

### **860. Euskarazko eskolak kantu eta jolas bidez (ESK-092/012)**

Gabonetan kantuan irteten ziren etxerik etxe. Elbira Zipitriaren metodologiarekin kantu eta jolas bidez irakasten zituen gauza asko. "Frente de juventudes"en lokalean ematen zituen eskolak Bergaran.

### **861. Hizkuntzen garrantzia (ESK-092/014)**

Euskaraz irakasten hasi zen sasoian jabetu zen hizkuntzen garrantziaz. Hizkuntzen eta pertsonen arteko lotura. Harremanak, errespetua.

### **862. Haurreskola gisa hasi zen euskarazko eskolak ematen (ESK-092/015)**

Josu Oregi eta Jose Amilibia joan zitzaizkion Bergaratik bila, euskarazko eskolak emateko. Amilibiaren emazteak, Lide Mujikak (Oregi diote, baina Mujika da), eta Maria Victoria Arizmendik akademia zeukaten. Berea, euskarazkoa, haurreskola gisa hasi zen.

### **863. Gerraostean euskararen egoera txarra (ESK-092/017)**

Gerraostean euskararen egoera ez zen ona, mugatuta zegoen.

### **864. Euskarazko eskolekin hastean, ez zuen lege kontuetan pentsatu (ESK-092/019)**

Gerraostean euskararen egoera ez zen ona eta ikastolak sortzea legez kanpkoa zen, baina berak une hartan ez zuen halako gauzetan pentsatu. Euskara bere hizkuntza zen eta prest zegoen hori lantzeko. Ez zen erraza euskaraz irakastea. Orduko esperientziak gerora balio izan dio.

### **865. Bergarako eskolak utzi eta Parisera (ESK-092/020)**

Bi ikasturte egin zituen Bergaran euskarazko eskolak ematen. Gero, Arrasatetik etorri zen ordezkoa. Bera Parisera joan zen hiru hilabeterako. Han lan egin eta ikasteko aukera sortu zitzaion

### **866. Lan egin eta ikasteko aukera eman zien gazteei (ESK-092/021)**

Atzerritik itzuli zenean, gazteei lan egin eta ikasteko aukera ematea izan zen bere lana. Berak gaztetan izan zuen ametsa lortzeko bidea eman nahi izan zien gazteei. Gazte horiek hizkuntzak irakasten zizkieten umeei eta diru pixka bat irabazten zuten euren ikasketetarako.

### **867. Parisen lanean eta ikasten geratzeko erabakia (ESK-092/022)**

Ez zen erraza izan gazterik Parisera joatea. Opor sasoian joan zen, hiru hilabetez frantsesa ikasteko asmoz. Hara iristean Magisteritzako ikaskide bat aurkitu zuen eta hark "au pair" gisa lan egiteko aukeraz hitz egin zion. Orduan han geratzeko erabaki zuen, lanean eta ikasten. Amilibiari abisatu zion ez zela itzuliko Bergarara eta Tere Munduate laguna proposatu zion. Baina Arrasateko bat jarri zuen bere ordezkari Amilibiak eta Tere Eibarrera joan zen.

### **868. Arrasateko kooperatiben bitartez Alemaniara (ESK-092/023)**

Urte pare bat Frantzian egin eta gero, Arrasateko kooperatiben bitartez Alemaniara joan zen lanera, fabrika batera, alemana ikasteko helburuarekin. Gorroñogoitia zen arduraduna. Alemanian iragarki batean ikusi zuen bazegoela eskola bat irakasleak prestatzen zituen, atzerrian alemana irakasteko. Zain egon behar izan zen, baina bi urtez ikasi zuen han. Arizmendiarrietarekin harremana. Kooperatibak orduan hasita zeuden kanpo-harremanekin. Berak orduan ez zuen ikusten alderdi hori, berak ikuspegi pedagogikoagoa zuen.

### **869. Alemaniatik Arrasatera itzultakoan, hizkuntzak irakasten (ESK-092/024)**

Alemanian ibili zenean, besteak beste, ikasi zuen dirua bazegoela baina eskatu egin behar zela. Berak ordurako bazuen proiektua buruan eta Arrasatera itzuli zenean hizkuntzak irakasten hasi zen. Lehenbizi atzerriko hizkuntzak eta gero euskara ere bai.

### **870. Alemaniako ikasketak eta lana (ESK-092/025)**

Alemaniarra joan zenean, fabrika batean jardun zuen lanean hasieran. Hango lanak ez zion denbora askorik uzten beste gauza batzuk ikasteko. Orduan, hura utzi eta erresidentziara joan zen. Gero, beka bat lortu eta beste bi urtez alemana ikasten jarraitzeko aukera izan zuen.

### **871. "Centro de Idiomas Mondragón" en sorrera (ESK-092/027)**

Alemaniatik itzuli zenean, hizkuntzak irakasten hasi zen: goizetan ALMENen, arratsaldean Arrasateko eskola profesionalean eta gauean bertan jarraitzen zuen, helduei eskolak ematen. Handik bost urtera CIM (Centro de Idiomas Mondragón) sortu zen. Ingelesa, frantsesa eta alemana irakasten zituzten hasieran.

### **872. Alemanian ikasketak eta metodologia berritzeko aukera (ESK-092/028)**

Arrasaten bost urtez jo eta ke lanean ibili ondoren, beka baten laguntzaz berriz ere Alemanian metodologia eta ikasketak berritzeko aukera sortu zitzaion. Bilboko kontsulatutik joan ziren Arrasatera, lanean ari zela eta nola lan egiten zuten ziurtatzera. Bera Alemanian egon bitartean hango irakasle bat ekarri zuen bere ordezkari eskolak emateko.

### **873. "Centro de Idiomas Mondragón" zabaltzen joan zen (ESK-092/029)**

CIM (Centro de Idiomas Mondragón) sortu zenean hiru hizkuntza irakasten zituzten hasieran. Gero euskara irakasten ere hasi ziren. Haurrentzako eta helduentzako eskolak. Berak haurren irakaskuntzari eman zion lehentasuna. Arrasaten hasi eta zabaltzen joan ziren: Bergara, Oñati, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza. Berak ipintzen zuen martxan eskola eta gero bere ordezkari beste bat sartzen zen.

### **874. Ingelesezko udalekuak eta ikasle-trukea atzerriko ikasleekin (ESK-092/030)**

Ingelesezko Udalekuak antolatzen lehenengoa izan zen. Baserriaren beste bizitza hutsik geratu zenean, zenbait ume eraman zituen, 24 ordu ingelesez pasatzeko, proba gisa. Esperientzia ona izan zenez, nagusiekin gauza bera egitea proposatu zuen, edozein hizkuntzarekin. Gero, ikasle-trukeak ere egiten zituen atzerriko ikasleekin.

### **875. Aitzindaria hizkuntzen irakaskuntzaren esparruan (ESK-092/031)**

Aitzindaria izan da hizkuntzen irakaskuntzari lotutako arlo askotan. Bera izan zen leku askotako lehenengo irakaslea. Horren inguruko hausnarketa.

### **876. Kooperatiban lan egiteko erabakia (ESK-092/032)**

Alemaniatik itzuli zenean, kooperatiban eta sozietate anonimoan lan egiteko aukera izan zuen, baina kooperatiba aukeratu zuen (CIMen lan egitea), sistema sozialena hori zelako. Alemanian gauza asko ikasi zituen.

### **877. Ibilbidean aurrera egiteko, bekak eta eskariak (ESK-092/034)**

Bere ibilbidean aurrera egiteko, hainbat beka edo eskari egin behar izan zituen, eta ikasiz joan zen. Alemanian ikasketak berritzeko aukera zegoela jakin zuen eta Bilboko kontsulatura joan zen ziurtagiria eskatzera. Arrasaten zer lan egiten zuten erakutsi zion horretarako. Orduan mugimendu handia zegoen kooperatiben inguruan. Alemaniara joan zenean ere, han beste eskari batzuk egin zituen aurrera egiteko.

### **878. Baserritik jasotako "kultura" edo filosofia (ESK-092/035)**

Gurasoengandik jasotako "kultura" baliatu du bere bizitzan. Baserrian zerbait erein ostean, landu egin behar da gerora uzta jasotzeko. Bestelako lanetan ere berdin egin behar dela dio.

### **879. Koordinatzaile lana egin beharra, emaitzak lortzeko (ESK-092/037)**

Berak lan asko egin du bizitzan, baina lanean konpentsazio asko jaso du. Nahiz eta berak irakasle lana nahiago izan, koordinatzaile lana egin behar izan zuen bere proiektuak, eskolak, martxan jartzeko. Berak ez zuen horren inguruko unibertsitate-ikasketarik egin eta bere kabuz egin behar izan zuen bidea.

### **880. Arrasaten hizkuntzak irakasten hasi zeneko testuingurua: jendearen interesa, prezioak... (ESK-092/038)**

Arrasaten hizkuntzak irakasten hasi zen garaian, testuingurua nolakoa zen. Hasierako bost urteak gogorak izan ziren. Baina lantegietan hizkuntzak beharrezkoak ziren eta heldu asko hizkuntzak ikastera joaten zen. Orduan, umetatik hizkuntzak ikastearen garrantzia ikusten hasi ziren. Prezioak ere merkeak ziren hasieran; Donostian askoz garestiagoa zen hizkuntzak ikastea. Hizkuntzak umetan ikastearen garrantzia.

### **881. Euskararekiko sentimendua; hizkuntza eta pertsona (ESK-092/042)**

Euskara zer den berarentzat: ama-hizkuntza, indarra, goxotasuna. Baina bere iritziz lehenengo pertsona da eta gero hizkuntza. Nola komunikatzen garen da garrantzitsuena. Berak gaztelaniaz ikasi zuen eta gauza batzuetarako errazago moldatzen da hizkuntza horretan.

### **882. San Juan goizean, landareak jaso eta gurutzeak ipini (ESK-093/003)**

San Juan egunean, goizeko iruntzarekin jasotzen ziren etxe atarian ipintzeko belarrak. Arantza-zuriarekin egiten ziren gurutzetxoak sarrerako ate gainean ipintzen ziren.

### **883. Lore-sendorra eta gurutzeak, etxea eta soloak babesteko (ESK-093/005)**

Lore-sendorra edo sorta lorez apaindutako gurutze bat izaten zen. San Juan goizeko mezan bedeinkatu ondoren, gurutzeak soloetan ipintzen ziren eta landareak etxean gorde. Ekaitza zetorreanean, sendorretik belar apur bat ontzi batera bota eta etxe aurrean erre egiten zen. Etxea babesteko erritoak izaten ziren.

### **884. San Juan eguneko goizean batzen zituzten loreak (ESK-093/006)**

San Juan eguneko goizean jasotzen ziren landare ohikoenak: arrosak, serbilletak, margaritak, herbasantak... Kuku-prakak preziatuak izaten ziren, gutxi egoten baitziren.

### **885. Aurreko urteko lore-sendor eta gurutzeak sutara (ESK-093/009)**

San Juanetan, lore-sendor eta gurutzeak ipintzean, aurreko urtekoak kendu eta gaueko sutan erre egiten ziren.

### **886. San Juanetako lore-sendorra erakutsiz (ESK-093/011)**

San Juanetako lore-sendor bat erakusten du. Erdian gurutzea ipintzen omen zitzairen. Lore bakoitza zein den azaltzen du. San Juan goizeko mezan bedeinkatu egiten ziren, gurutzeak soloetan ipini eta belarrak ganbaran gorde. Ekaitza zetorreanean, lehortutako sendorretik belar apur bat ontzi batera bota eta etxe aurrean erre egiten zen, etxea babesteko.

### **887. Sarrerako ate gainean arantza-zurizko gurutzea (ESK-093/013)**

San Juan egunean etxeko sarrerako ate gainean ipintzen zen gurutzea erakusten du. Arantza-zuriarekin egiten zen. Urte osoan han egon eta gero, hurrengo urteko San Juan suan erretzen zen. Ez zen beharrezkoa gurutzeak San Juan goizean egitea, lehenago egin zitezkeen; belarrak batzea, aldiz, goiz horretan bertan egitea garrantzitsua zen.

### **888. San Juan goizeko iruntza, azalarentzat ona (ESK-093/015)**

San Juan goizeko iruntzarekin aurpegia garbitzea azalarentzat ona zela esaten zen. Zenbait gaixotasun kentzeko ere bai.

### **889. Baserri bakoitzean San Juan su bat (ESK-093/018)**

San Juan bezperan baserri bakoitzak bere sua pizteko ohitura zegoen. Adarra, sasiak... erretzen zituzten. Izpiritu txarrak eta gaitzak uxatzeko egiten omen zen. Ez du gogoan suaren inguruan dantzarik edo kantarik egiten zutenik. Familian ospatzeko gaua izaten zen. Su gaineratik salto egiteko ohitura bazuten. Normalean sua bere kasa itzaltzen lagatzen zen, haizerik ez bazen behintzat. Errautsekin ez zuten ezer berezirik egiten.

### **890. San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohitura (ESK-093/020)**

Eskoriatzan ohitura da San Juan bezperan kintoek baserriren bateko "txopo" (tantai) bat aukeratu eta "lapurtzea". Zuhaitza aizkorarekin botatzen dute.

Gero plazan jasotzen da; garai batean eskuz, sokak erabilia, gaur egun garabiaren laguntzaz. Lehen aza ipintzen zen puntan; gaur egun ere bai, baita ikurrina ere. Neskek ez zuten parte hartzen orduan, mutilek soldaduskara joan aurreko urtean egiten zuten.

#### **891. Asunak hanketan kolpatzea odol-zirkulazioarentzat ona (ESK-093/023)**

Asunak hanketan kolpatzea odol-zirkulazioarentzat ona omen zela esaten zuen Guadaluperen aitak.

#### **892. Zornea garbitzeko, tipula (ESK-093/025)**

Tipula olio tanta batekin berotuta zornea (pus) garbitzeko erabiltzen zen.

#### **893. Astamenda arkakusoak uxatzeko (ESK-093/027)**

Astamenda landarea etxea erraztatzeko erabiltzen zen. Usain ona emateaz gain, arkakusoak uxatzen zituela esaten zen.

#### **894. Garai bateko familia handiak (ESK-094/005)**

Iñakiren 7 anai-arreba fraide/moja izan ziren eta azkar atera ziren etxetik kanpora ikasketak egitera. Areano baserrian ohitura zuten hospiziotik mutikoren bat etxean hartzeko, Mendiolako etxe gehienetan bezala. Bertan bizi eta baserriko lanetan laguntzen zuten urte askoan, ezkontzen ziren arte normalean.

#### **895. Areano baserriaren bilakaera (ESK-094/006)**

Areano baserria asko aldatu da. Azken 300 urtean bi familia bizi izan ziren bertan. 70-80ko hamarkadan beste familiak baserria utzi zuen eta gainera etxea oso egoera txarrean zegoenez, guztiz berritzu zuten. Animaliak kendu eta zati batean landetxea egin zuten.

#### **896. Soroko lanak urteko sasoi bakoitzean (ESK-094/008)**

Soroak txandaka lantzen ziren. Zer landatzen zen urteko sasoi bakoitzean.

#### **897. "Gari-afaria" (ESK-094/009)**

Garia erein ondoren, "gari-afaria" egiten zen. Afari berezia izan ohi zen. Urtean zehar gariarekin lagundu zuten auzokideak ere gonbidatzen ziren.

#### **898. Areano baserrian zeukaten ganadua (ESK-094/010)**

Baserrian izan zituzten animaliak: idiak, behiak, astoa, txerria, untxiak, oiloak... Beranduago ardi gutxi batzuk izan zituzten.

#### **899. Aretxabaletara esnea saltzera (ESK-094/011)**

Baserrian behiak zituzten eta esnea etxerik-etxe saltzen zuten Aretxabaletan.

#### **900. Aretxabaletarekin harreman gehiago, Eskoriatzarekin baino (ESK-094/012)**

Nahiz eta Mendiola Eskoriatzako elizatea izan, harreman gehiago izan dute beti Aretxabaletarekin. Adibide bezala, Mendiolara errepidea egiteko kudeaketa aipatzen du.

### **901. Mendiola auzoaren bilakera (ESK-094/013)**

Iñaki txikia zenean Mendiola nolakoa zen. 70. hamarkadan izan zuen aldaketa handiena. Baserrien gainbehera hasi zen, gazteak fabriketara joan ziren lanera... Gaztainondo eta pagoak kendu eta pinua sartu zen. Bidea egiteak ere bizimodua kalean gehiago egitea ekarri zuen. Familiak seme-alaba gutxiago izaten hasi ziren. Iñaki txikia zela, eskola ezarri zen Mendiolan eta bertako apaizak nahiz Arrasateko Jose Maria Arizmendiarrietak ('Mondragón Corporación Cooperativa' -ren sortzailea) lan handia egin zuen gaztetxoak eskola profesionalera joatera animatuz. Guzti honek ere Mendiolako egoera goitik behera aldatu zuen.

### **902. Mendiolako eskolan euskara galarazita (ESK-094/014)**

Adin desberdinetako 15-20 ume egotera iritsi ziren Mendiolako eskolan. Apaiza zuten maisu. Garai horretan gazteleraz hitz egitera derrigortuta zeuden eta izugarritzko trauma izan zen beraientzat. Euskaraz hitz egiteagatik zigorrak izaten ziren. Goizean goiz, eskolara joan aurretik, meza-mutil eginkizunetan ibiltzen zen egunero.

### **903. Domekak Mendiolan (ESK-094/015)**

Domekak oso garrantzitsuak izaten ziren Mendiolan. Denak joaten ziren mezetara, arratsaldetan neska-mutilek dotrina izaten zuten eta ondoren bezperak izaten ziren. Gero umeak gauerdia arte jolasean ibiltzen ziren.

### **904. Mendiola eta Aria auzoen arteko ezberdintasunak (ESK-094/016)**

Mendiolako patroia San Juan Bautista da. Mendiola eta Aria auzoei buruz. Mendiola "aberatsagoa" zen: errota eta burdinola zeuzkan, animalia gehiago eta parrokia ere bertan eraiki zen. Indar handiagoa zuenez, azkenean dena Mendiola deitzera pasa zen.

### **905. Mendiolako errotak eta burdinola (ESK-094/018)**

Bi errota egon ziren Mendiolan. Olaben baserriaren gainaldean iturria dago (garai batean Aretxabaletako herriak handik hartzen zuen ura) eta hortxe egon zen errota bat. Hura zahartu zenean, beherago beste bat egin zen, "Errotazaharra" izenez ezaguna. Olaben baserria dagoen lekuan errotaz gain burdinola ere egon zen. Bolinaga baserrian ere bazen errota bat (izatez Aretxabaletako Areantza auzoari dagokio baina parrokia bezala beti Mendiola izan da).

### **906. Mendiolako burdinola eta ikatza (ESK-094/019)**

Mendiolako burdinolan baserriko tresnak egiteko burdina lantzen zen batez ere. Harrikatza kanpotik ekartzen zen, bertan ez zegoen askorik. Egur-ikatza berriz asko egiten zen. Iñakiren anaia zaharrenak ikazkinak izan ziren. Aretxabaletako fundizioak ere bertako ikatz asko erabiltzen zuen

### **907. Ikazkintza eta txondorrak (ESK-094/020)**

Iñakiren anaia nagusia ikazkintzan aritzen zen. Txondorra nola egiten zen azaltzen du. Duela urte batzuk txondor txiki bat egin zuten eta bizilagun batek usainarengatik asmatu zuen norbait txondorra egiten ari zela. Txondor handi batean prozesu guztia egiteak 15 egunetik gora iraun dezake. Eguraldiak eragina izaten du. 50. hamarkada izan zen ikazkintzaren garai gorena. Txondorrak neguan egiten ziren.

### **908. Txondorrarekin batera ikazkinaren txabola eraiki behar (ESK-094/022)**

Txondorra nola egiten zen azaltzen du. Honekin batera txabola ere egiten zen, gauzez txondorra zaindu behar baitzen.

### **909. Txondorra nola pizten zen (ESK-094/023)**

Txondorra pizteko, alboan txingarra egiten zen eta tximiniatik goitik behera sartzen zen. Gero zuloa tapatu eta ikatza egosten hasten zen. Alboetan zuloak eginda kontrolatzen zen prozesua. Kearen kolorea ere garrantzitsua zen; oso urdina ateratzen bazen, ikatza egosi beharrean erretzen ari zela esan nahi zuen.

### **910. Ikatza prest zegoela jakiteko adierazleak (ESK-094/024)**

Ikatza egosten amaitu zela jakiteko, hainbat adierazletan jartzen zen arreta: txondorraren bolumena txikitu egiten zen; gainetik botatako lurraren kolorea ilundu egiten zen; kearen kolorea eta usaina. Ikatza nola ateratzen zen. Iturriren bat gertu egotea komenigarria izaten zen

### **911. Anaia ikazkinaren inguruko anekdotak (ESK-094/029)**

Egurra zegoen lekutik hurbil egiten zen txondorra. Batzuetan 2-3 txondor batera ere egin ohi ziren. Mutikoen zeregina izaten zen ikazkinei bazkaria eramatea. Arrebari gertatutako anekdota. Anaia ikazkinaren komeriak bazkariarekin.

### **912. Garai batean Mendiolan gazte asko (ESK-094/031)**

Garai batean Mendiolan ume eta gazte asko zeuden. Beste auzoko gazteei egiten zizkieten bihurrikeriak

### **913. Inguruko auzoetako mutikoekin borrokan (ESK-094/033)**

Bailarara marianistak etorri ziren eta komentua zabaldu zuten. Mendiolarrek erraztasun guztiak eman zizkieten bertatik ura hartzeko. Ordainetan, marianistek bailarako umeentzako eskola ipini zuten. Eskolatik atera orduko, auzoetako mutikoak elkarri harrika aritzen ziren.

### **914. Umetako jolasak (ESK-094/034)**

Umetako jolasak: "Tres Navíos-ka". Txirikiletan. Miruka. Marroka. Normalean neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten. Etxetxoka. Futbola eta pilota.

### **915. San Juan jaien garrantzia Mendiolan (ESK-094/035)**

San Juanak Mendiolan oso garrantzitsuak izan dira beti. Gonbidatu asko etortzen ziren baserri bakoitzera.

### **916. San Juanetan tantaia jasotzearen ohitura I (ESK-094/036)**

San Juanetan tantaia jasotzearen ohitura: nolakoa izan behar zuen, nola bota eta ekartzen zen, puntan zer ipintzen zen, nola jasotzen zen. Kuku-frakaren garrantzia. Tantaia "lapurtu" egiten zen. Jabeekin egoten ziren hika-mikak.

### **917. San Juan goizeko ohiturak: ira, sendorrak eta gurutzeak (ESK-094/037)**

San Juan eguna Mendiolan. Bazkaria prestatzea emakumeen lana izaten zen. Ohitura izaten zen ira eta beste landare batzuk moztu eta lore-sendorrak eta gurutzeak egitea. Sendorretan ipintzen ziren landare eta loreak. Meza nagusia bedeinkatzen ziren eta hurrengo urteko San Juan sua pizteko erabiltzen ziren.

### **918. San Juan sua baserri bakoitzean (ESK-094/038)**

Baserri guztietan egiten zen San Juan sua. Gaztetxoak ahalik eta su ikusgarriena egiten saiatzen ziren. Ez du gogoan su gainetik salto egiten zutenik.

### **919. San Juan eguna Mendiolan: meza eta dantzaldia (ESK-094/039)**

San Juan egunean meza nagusia egiten zen, 3 abaderekin eta korua eta organo-jotzailearekin. Bazkariaren ostean bezperak izaten ziren eta ondoren dantzaldia.

### **920. San Juanetako bigarren eta hirugarren egunak (ESK-094/040)**

San Juan bigarren egunez, hildakoen omenezko meza egoten zen. Hirugarren egunean ganadu feria egiten zen.

### **921. Mendiolako bolatokia (ESK-094/042)**

Garrantzitsua zen Mendiolako bolatokia. Non zegoen aipatzen du. Apustuak eta lehiaketak egiten ziren. San Juan eguneko lehiaketa aipagarria izaten zen. Mendiola kanpotik ere joaten ziren jokalaria. Gaur egun saiatu izan dira berriztu eta martxan jartzen baina ez ei dago dirurik.

### **922. San Juan eguneko bazkaria (ESK-094/045)**

Arroz-esnea postre berezia izaten zen San Juan eguneko bazkarian, baita gatzatua ere. Bazkarirako 3 jangela antolatzen ziren etxean: gonbidatu "garrantzitsuak" edo edadetuak batean, gazteagoak bestean eta umeak azkenekoan.

### **923. San Juanetan tantaia jasotzearen ohitura II (ESK-094/047)**

Tantaia jasotzea Eskoriatzako kalean kintoen artean egiten den ohitura da, baina auzoetan adin desberdinetako mutil taldeek hartzen dute parte. Neskek ez zuten parte hartzen orduan.

### **924. San Juan goizeko ohiturak: landareak eta gurutzeak (ESK-094/048)**

San Juan eguneko lore-sendorra edo sorta zein landare eta lorerekin osatzen den. Bedeinkatzera eramaten zen. Etxe aurrean eta ganadua pasatzen zen lekuetan ere botatzen ziren landareok. Ateetan gurutzeak ipintzen ziren. Etxea babesteko funtzioa izaten zuten.

### **925. 'Leete' auzoa (ESK-095/003)**

Eskoriatzako Lete auzoari bertakoek 'Leete' esaten diote.

### **926. Lete auzoa nola aldatu den (ESK-095/004)**

Orain lehen baino etxe gehiago daude Leten. Juan Felix mutikoa zela, bizilagun asko kalera joan ziren bizitzera, fabriketako lana zela eta. Gaur egun jende asko itzuli da auzora.

### **927. Santa Lutziak Leten (ESK-095/006)**

Lete auzoko ospakizun bakarretakoa Santa Lutzia egunekoa da.

### **928. Letek auzo izaera lortu (ESK-095/008)**

Leten ez da eskolarik egon, Eskoriatzako herriko eskolara joaten ziren. Orain dela 25-30 urtera arte Letek ez du izan auzo izaerarik; kale-baserritzat hartzen ziren bertakoak.

### **929. Mutikotan jolastu baina lan egin beharra ere bai (ESK-095/010)**

Juan Felix mutikoa zenean auzoan bi familia bakarrik bizi ziren. Asteazkenean zehar bizilagunak ziren neskatilekin jolasten zuen. Asteburutan Arkarazo eta Mendiolako lehengusu-lehengusinekin elkartzen zen. Pixka bat hazten zirenean baserrian lagundu beharra izaten zen.

### **930. Baserrian egin beharreko lanak (ESK-095/011)**

Ortuan eta soloan lan egin beharra izaten zen. Behiak zeuzkaten eta ama kalera joaten zen esnea banatzera astoarekin. 14-15 urterekin Juan Felix amari laguntzen hasi zen.

### **931. Kalerako bidea oinez egin behar (ESK-095/013)**

Juan Felix umea zenean ez zegoen errepiderik Letera eta eskolarako bidea oinez egiten zuen. Txabola bat zeukaten alokatuta eta bertan aldatzen zituzten oinetako zikinak. 18 urterekin gidatzeko baimena atera eta kotxea erosi zuen. Errepidea noiz asfaltatu zuten.

### **932. Euren etxea mojen komentua izandakoa (ESK-095/014)**

Euren etxea klausurako mojen komentua izan omen zen. Orduko leiho gotikoak mantendu egin dituzte.

### **933. San Juanetan tantaia jasotzearen ohitura (ESK-095/016)**

Eskoriatzan San Juan bezperan ohitura izaten da kintoek plazan tantaia ("txopua") jasotzea. Mutilentzat egun handia izaten zen. Hurrengo urteko Santa Agedan eskean ateratzen ziren. Zuhaitza "lapurtu" egin behar izaten zen. Botatzeko motozerra erabili zuten bere garaian. Plazara arrastaka eramaten zen. Jasotzeko ere eskuz egiten zen, sokekin. Jaso aurretik zuritu egin behar zen. Puntan aza eta ikurrina ipini zizkioten. Nola jasotzen zen.

### **934. San Juan sua (ESK-095/017)**

San Juan sua Eskoriatzako plazako izkina batean egiten zen, erdian tantaia jasotzen baitzen. Sua piztea "mamu txarrak uxatzeko eta onarekin geratzeko" egiten omen zen. Bera mutikoa zela baserri bakoitzak bere sua egiten zuen. Auzoan bi familia bakarrik gelditu ziren garaian, bizilagunekin batera egiten hasi ziren. Duela urte gutxi, auzokide guztiak batera, ermita ondoan su bakarra egiten hasi ziren.

### **935. Suaren inguruan errezatu, abestu eta salto (ESK-095/018)**

San Juan sua piztutakoan, urte horretan familian edo auzoan hildakoren bat egon bazen, lehendabizi errezatu egiten zen. Gero errezitatu edo kantatu egiten zen. Irene bizilaguna aipatzen du. Aurreko urteko gurutzeak sutara botatzen ziren. Sua bajatzen zenean, gainetik salto egiten zuten.

### **936. San Juan inguruan, abadeak meza eman eta lurrak bedeinkatu (ESK-095/020)**

Bolibarko abadeak, Don Kruzek, San Juan inguruan meza ematen zuen Leten eta meza ostean lurrak bedeinkatzen zituen. Baserritarrek opariren bat ematen zioten.

### **937. Ekaitza zetorrean, kandelak piztu eta errezatu (ESK-095/021)**

Erramu igandean, erramua bedeinkatu ondoren soloan ipintzen zen. Garai batean sinesmen handia zegoen. Ekaitza zetorrean, bizilagunak ermitara joaten ziren korrika kandela piztu eta errezatzera.

### **938. San Juan goizeko ohiturak: lore-sendorra eta ira (ESK-095/025)**

Aintzane Santa Lutzia baserrira iritsi zenean, amaginarrebak azaldu zion tradizioaz "kanpokoari" tokatzen zitzaiola San Juan goizean ira eta landareak etxe-aurrean ipintzea. Lore-sendorra egiteko, arantza-zuriarekin egiten da gurutzea eta inguruan lorez apaintzen da.

### **939. Izpiritu txarrak uxatzea eta norberaren purifikazioa (ESK-095/030)**

San Juan egunean etxe-aurrean ira botatzen zen. Etxe barrua "izpiritu txarrak" ez sartzea zuen helburu. Hori zapaltzeak norberaren "purifikazioa" zekarren.

### **940. San Juan eguneko lore-sendorrak (ESK-095/033)**

Arantza-zuriarekin egindako San Juan eguneko gurutzea erakusten du. Loreekin osatutako sendorrak erakusten ditu.

#### **941. San Juan goizeko ira eta iruntza (ESK-095/037)**

San Juan eguneko egunsentian batzen zen ira. Santa Lutzian Juan Felixek batzen zuen (bertakoa zelako) eta Aintzanek ipini ("kanpotik" etorritakoa baitzen) Garrantzitsua zen iruntza (ihintza) edukitzea. Aitak esaten zuen iruntza hori azalarentzat eta erreumarentzat ona zela. Senideren batzuk oinutsik pasatzen ziren iraren gainetik, urte guztirako osasuna izateko. Behiak ere ira gainetik pasatzen zituzten.

#### **942. Etxe-aurrean ira eta lore-sendorra ipintzen (ESK-095/039)**

Aintzanek Santa Lutzia etxe-aurrean San Juanetan ira nola ipintzen duten erakusten du. Lore-sendorra zintzilikatzen du.

#### **943. San Juanetan gurutzeak egiteko erabiltzen den arantza-zuria (ESK-095/041)**

Aintzanek Santa Lutzia etxe-aurrean San Juanetan gurutzeak egiteko erabiltzen den arantza-zuria erakusten du.

#### **944. Ama arrautzak eta esnea saltzera (ESK-096/002)**

Okaranza baserrian behiak zituzten. Mutikoa zenean ama arrautzak saltzera joaten zen Arrasatera eta Bergarara. Gerora, errepidea egin zenean, Eskoriatzako kalera esnea saltzera joaten hasi zen.

#### **945. Garia jotzeko makina kanpotik ekarri behar (ESK-096/003)**

Garia eta artoa lantzen ziren asko. Eta arto artean, babarruna. Garia jotzeko makinarik ez zegoen Apotzagan eta kanpotik ekartzen zuten. Gerora etxean erosi zuten makina bat. Auzokideek elkar laguntzen zuten orduan. Apotzagako lurren ezaugarriengatik, lana nahiko gogorra izaten zen. Fabriketara lanera hasi arren baserriko lanei eutsi zieten.

#### **946. Mutikotan Apotzaga nolakoa zen (ESK-096/004)**

Umetan Eskoriatzako plazako eskolara joaten zen. Eguerdian marrazketako klaseetan gelditzen zen. Ondoren Apotzagara bazkaltzera bueltatu eta arratsaldean berriz eskolara. Lokatza asko egoten zen Apotzagan. Oinezkoentzako harritzko bidexka egoten zen.

#### **947. Pentsu-zakuak astoarekin etxeraino garraiatzen (ESK-096/006)**

Oilo asko zeuzkaten eta ama arrautzak saltzera joaten zen (Arrasate eta Bergarara). Aitak haienezako pentsua egiten zuen etxean. Osagaiak Donostia eta Gasteizen erosten zituen eta trenez iristen ziren. Mutikoek astoarekin ekartzen zituzten etxera. Noiz edo noiz saskia erori eta Galartzaetxeko Agustini laguntza eskatu behar izaten zioten. Orduan umetatik baserrian lagundu beharra izaten zen.

#### **948. Erdaraz ez jakiteagatik maisuak jo (ESK-096/010)**

Eskolako maisua gogorra zen. Erdaraz ez jakiteagatik jo egiten zituen.

### **949. Apotzagako hilerria I (ESK-096/013)**

Apotzagako hilerria berezia da. 1965 inguruan egin zen eta forma borobila du. Joxe Ramonen osaba zen hilerria egin zuen abadea. Kanposantuei buruzko liburu eder bat zeukan eta ideia handik aterako zuela uste du. Auzokoak ez diren bi elementu daude: bataiarria (Galartzakoa) eta erdiko gurutzadura (Maringoa). Diseinua Arrasateko "cerrajera"-ko delineatzaileak egin zuen, nahiz eta lehen pausoak Joxe Mari Larrañaga eskoriatzarrak eman zituen.

### **950. Apotzagako hilerria II (ESK-096/014)**

Badirudi Apotzagako hilerria dagoen tokian lurpeko ur-korrante batzuk daudela eta arrazoi horregatik eraiki zela hilerria puntu horretan. Baserri bakoitzak dagokion bere zatia dauka eta erdiguneko lau zatiak komunak dira. Gaur egun oraindik hilerri hau erabiltzen da. Etxe bakoitzak bere ikurra ipintzen du hiliarrian.

### **951. Apotzagako hileta tradizionalak (ESK-096/015)**

Garai batean Apotzagan hiletak auzokideen artean egiten zituzten. Hildakoaren aurreko eta atzeko baserrikoak lurperatzaileak izaten ziren; aurreragokoa, kanpai-jotzailea; eta lau atzekoak, andariak (kutxa eramaten zutenak).

### **952. Okarantza, etxe esanguratsua (ESK-096/017)**

1972 inguruan berriztu zen Okarantza baserria, Joxe Ramon eta emaztea ezkondu zirenean. Sarreran armarri esanguratsua dauka. Okarantzatarrak Apotzagako familia garrantzitsuenetakoa izan ziren garai batean, Gaztañaduitarrekin batera. Gaur egun ez dira beste auzokideak baino gehiago.

### **953. Okarantzatarren liburutegia (ESK-096/018)**

Joxe Ramonen aitona arotza zen eta tailer bat zeukan. Hark egindako zenbait eraikin aipatzen ditu. Etxean liburutegi bat egin zuen eta bertan oso aspaldiko liburuak gordetzen dituzte. Joxe Ramonen aita egunero irakurtzen zuen zerbait.

### **954. Baserri bakoitzak bere San Juan sua (ESK-096/021)**

Baserri bakoitzak bere San Juan sua egiten zuen. Aurreko urteko lore-sortarekin pizten zen. Suaren inguruan zer kantatzen zen.

### **955. Aurreko urteko lore-sorta eta erramua sutara (ESK-096/023)**

Aurreko urteko San Juanetako lore-sorta erretzen zuten eta baita Pazko Igandeko erramua ere.

### **956. San Juan, solstizioa eta kristautasunaren nahasketa (ESK-096/024)**

San Juan suarena, kristautasunaren aurreko ohitura bat da. Udako solstizioa izatez ekainaren 21ean izaten da, baina kristautasunak San Juan Bautista jaio zen egunera, ekainaren 24ra atzeratu zuen.

### **957. San Juanetan tantaia jasotzea (ESK-096/028)**

Eskoriatzako San Juan jaietan ohitura da kintoek herriko plazan tantaia jasotzea. Zuhaitza lapurtu egin ohi zen. Trontzaz botatzen zen.

### **958. Tantaia, luzea eta zuzena (ESK-096/030)**

"Txopua jasotia" deitzen zaio Eskoriatzan San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohiturari, baina ziurrenez beste zuhaitz espezie batzuk erabiliko ziren. Jaso aurretik zuritu egiten zen. Joxe Ramonen ustez, plazara eraman aurretik zuritzea akatsa da, labainkorra geratzen baita.

### **959. Tantaia jasotzearen zailtasunak (ESK-096/031)**

Garai bateko kintoak orain baino zaharragoak eta prestatuagoak izaten ziren. San Juan bezperako tantaia jasotzea ez da lan erraza. Sokekin jasotzen zen, eskuz. Serio hartu beharreko lana da.

### **960. Tantaiaren puntan, barazkiak (ESK-096/033)**

San Juan bezperako tantaiaren puntan barazkiren bat ipintzen zen. Orain ikurrina ere ipintzen da.

### **961. San Juan goizeko ohiturak: lore-sortak (ESK-096/037)**

San Juan goizean ira eta basoko loreak batzen ziren. Lore-sortan garia, artoa eta barazkiak ere ipintzen zituzten. Helburua garia eta artoa bedeinkatzea izaten zen, batez ere; loreak gehienbat apaintzeko ipintzen ziren.

### **962. San Juan eguneko loreak erakusten (ESK-096/039)**

San Juan goizean batu eta lore-sortan ipintzen diren basoko loreak erakusten ditu: margaritak, serbilletak eta kuku-frakak. Kuku-frakak ez ziren oso ugariak.

### **963. San Juan goizeko ohiturak: gurutzeak etxeko sarreratan (ESK-096/041)**

San Juan goizean, lore-sorta bedeinkatu ondoren, etxeko sarreretan arantza-zurizko gurutzetxoak ipintzen ziren. Ikuiluan ere ipintzen zen, baina Joxe Ramonek uste du arantza-zuriaren ordeztasun-larrosa erabiltzen zela kasu horretan.

### **964. Erbasantak erakusten (ESK-096/043)**

Erbasanta landarea erakusten du. Lore-sortaren erdian ipintzen zen.

### **965. Lore-sorta hurrengo urtera arte ganbaran gordeta (ESK-096/045)**

San Juan eguneko lore-sorta bedeinkatu ondoren ganbaran gordetzen da hurrengo urteko San Juan sua pizteko.

### **966. San Juan goizeko ohiturak: etxe aurrean ira (ESK-096/048)**

San Juan goizean ohitura da iruntzarekin bustitako ira batzea eta ondoren etxeko sarreretan botatzea.

### **967. Lore-sendorra eta ereinotza erakusten (ESK-096/051)**

Lore-sendor lehorra erakusten du. Zein lore dituen aipatzen du. Pazko Igandeko gurutze eta ereinotza ere erakusten ditu. Biak San Juan suan erretzen dira.

### **968. Eskoriatzan San Juan dantza berreskuratzen (ESK-097/004)**

Eskoriatzan San Juan dantza berreskuratzeko ahalegina egin da azken urteetan. Saioaren kintoei 2019an tokatu zitzaaien tantaia jasotzea eta dantza taldeko kide batzuk zeudenez, San Juan dantza egiteak ilusio berezia egiten zien. Beraz, taldekideekin dantza hori prestatzeari ekin zioten.

### **969. San Juan bezpera Eskoriatzan (ESK-097/005)**

San Juan bezperako ohiturak Eskoriatzan: tantaia jasotzea, San Juan dantza eta sua piztea.

### **970. San Juan bezperako ohitura: tantaia jasotzea (ESK-097/008)**

Eskoriatzan ohitura da San Juan bezperan kintoek baserriren bateko tantai bat bota eta plazan jasotzea. 2019an tokatu zitzaion Saioari kinto ateratzea. Garai batean zuhaitza "lapurtu" egiten zen, gaur egun baserritarrarekin adostuta egiten da. Puntan aza bat ipintzea da ohitura; gero kintada bakoitzak aldarrikatu nahi duena ipintzen du.

### **971. San Juan sua (ESK-097/011)**

San Juan sua pizteko, kintadako pare bat ordezkari aukeratzen dira eta argi-zuzien bidez pizten da sua. Zer erretzen den kontatzen du.

### **972. Eskoriatzako dantza taldeak zein jaietan egiten duen dantza (ESK-097/018)**

Dantza taldearekin zein jaialditan parte hartzen duten kontatzen du. Beste herrietako "dantzari egunera" joan izan dira.

### **973. Dantza taldeko jantziak eta orrazkera (ESK-097/020)**

Normalean baserritar jantzita egiten dute dantza. Hala ere, dantza berezi batzuetarako beste jantzi batzuk erabiltzen dituzte. Bakoitzak bere jantzia eramaten du baina osagarri batzuk denentzat berdinak dira. Orrazkera zapien bildutako mototsa izaten da.

### **974. San Juan bezperako ohitura: tantaia "lapurtzea" (ESK-098/003)**

Eskoriatzan ohitura da San Juan bezperan kintoek baserriren bateko "txopo" (tantai) bat aukeratu eta "lapurtzea". 1988an tokatu zitzaion Joni kinto ateratzea. Tantaia aukeratu, bota eta plazara nola eraman zuten azaltzen du.

### **975. San Juan bezperako ohitura: tantaia plazan jasotzea (ESK-098/004)**

San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohitura. Behin enborra plazaraino eramanda, nola jasotzen den azaltzen du.

### **976. San Juan bezperako ohitura: tantaia jasotzerakoan istripua (ESK-098/005)**

San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohitura. Jon kinto atera zen urtean, 1988an, tantaia jasotzerakoan soka bat apurtu eta Jonen hanka gainera erori zen. Istripua nola izan zen kontatzen du. Hortik aurrera poleak erabiltzen hasi ziren eta geroago garabia.

### **977. San Juan bezperako ohitura: tantaiaren puntan aza (ESK-098/009)**

San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohitura. Puntan aza eta ikurrina ipintzen zen. Jonen garaiko kintoek mojen ortutik lapurtu zuten. Jendea tantaiari gora igotzen ahalegintzen zen eta hori ekiditeko koipea eman eta arantzadun alanbrea ipintzen zitzaion. Istripurik ere egon izan da. San Pedroak arte egoten da tantaia jasota.

### **978. San Juan bezperako ohitura: tantaia jasotzeari buruzko hausnarketa (ESK-098/012)**

San Juan bezperan tantaia jasotzearen ohitura. Jon kinto atera zen urtean, 1988an, tantaia jasotzerakoan soka bat apurtu eta Jonen hanka gainera erori zen. Ohitura honen eboluzioaren inguruko hausnarketa egiten du Jonen. Istripuari buruzkoak.

### **979. Bilbon erizain eta emagin ikasteketak (ESK-099/003)**

Gasteizko Jesusen Bihotzetan ikasi zuen batxilergoa eta gero Basurtun (Bilbo) erizaintza. Erizain (praktikante) eta emagin ikasketak egin zituen.

### **980. Ataunen emagin eta maistra (ESK-099/004)**

Emagin bezala lehen aldiz Ataunen lan egin zuen. Maistra ere izan zen bertan.

### **981. Eibarko lehenengo amategia Dos de Mayo kalean (ESK-099/006)**

Eibarko amategi zaharra Toribio Etxeberria kalean zegoen. Klinika pribatua zen baina erditzeak etxean izaten ziren.

### **982. Don Basilio, Eibarko pediatria (ESK-099/008)**

Praktikante moduan egindako lanez hitz egiten du. Don Basilio pediatriari laguntzen zion. Honek anbulatorioan eta kontsulta pribatuan lan egiten zuen, 14 urtetik beherakoekin.

### **983. Xiringak ur irakinean garbitzen ziren (ESK-099/009)**

Txertoak ematera etxeetara joaten zenean, lehenengo tresnak irakiten jartzen zituen, garbitzeko. Xiringak ez ziren botatzen, berrerabili baizik.

### **984. Praktikantearen lana, medikuaren ostean zetorren (ESK-099/011)**

Kerejeta medikua. Gaixoen ardura medikuena zen eta ez zuten ordutegi zehatzik izaten. Praktikanteen lana, medikoaren ostean heltzen zen.

### **985. Garai batean txerto gehiago ematen ziren (ESK-099/012)**

Txerto batzuk gaizki ematen badira, arazo larriak sor ditzake gaixoarengan. Orain txerto gutxiago ematen dira, ahozko antibiotikoak hartzen direlako.

### **986. Anbulatorioan eta ALFAko kontsulategian lanean (ESK-099/013)**

Batzuetan etxea kontsulta pasatzen zuen, lagun bati. Baina bere lantokia anbulatorioan edo ALFAko kontsulategian egoten zen. Orduetgiak.

### **987. Motorrean bisitatzen zituzten gaixoak (ESK-099/015)**

Normalean gauetan ez zuen lanik egiten. Motor batean mugitzen zen batetik bestera. Aurea Mendizabal praktikantea, takoidun zapatatzen joaten zen. Bai medikuek eta bai erizainek, erdiguinetik mugitzeko motorra erabiltzen zuten, azkarragoa zelako.

### **988. Erizainen lan-tresnak (ESK-099/018)**

Lan-tresnak: xiringak, pintza mota desberdinak, bisturia, tentsiometroa... Pintzak nola erabiltzen ziren. Lan-tresna batzuk erakusten ditu.

### **989. Sorospen gela udaletxe atzean zegoen (ESK-099/020)**

Sorospen-gela ("kuarto-sokorro") udaletxe atzean zegoen eta larrialdietarako izaten zen. Haurren bat erortzen bazen, hara joaten zen lehenengo eta puntuak eman behar bazitzaizkion anbulatorioa bidaltzen zen.

### **990. Gaixoak etxean bisitatzen (ESK-099/021)**

Eibarren anbulatorioz ez zegoenean, etxeetara joaten ziren. Andresik gehienbat zaurietaz arduratzen zen.

### **991. Eibarko medikuak (ESK-099/022)**

Eibarko medikuak: Don Basilio, Don Fernando Zuloaga, Viteri aita-semeak...

### **992. ALFA-ko haurren kontsulategia (ESK-099/026)**

ALFA-ko lantegiak, langileen haurrentzat kontsulategi bat zabaldu zuen Julian Etxeberria kaleko 13. zenbakian eta Andresi bertako erizaina izan zen. Lantegian langileentzat kontsulta zegoen eta Viteri zen medikua. Haurren kontsulategian arratsaldean lan egiten zuen baina etxeko bisitak ere egin behar zituen.

### **993. Eibarko amategia (ESK-099/029)**

Hasieran erditzeak etxean izaten ziren baina amategia zabaldu zenean, denak bertara joaten ziren. Amategian plazadun bi emagin zeuden lanean.

### **994. Osasun-gomendioak eskatzen zizkieten (ESK-099/031)**

Jendeak osasun-gomendioak eskatzen zizkion eta normalean medikura bidaltzen zituen.

### **995. Apotzagan hika nagusi (ESK-100/003)**

Etxean jaso zuen hika Anttonek eta anaiekin eta lagunekin beti hika egin izan du. Emakumezkoekin ez. Apotzaga auzoan hika zen auzokoen arteko hizketa ohikoena.

### **996. Mutikotatik hika (ESK-100/005)**

Mutikotatik egin izan du hika anaiekin eta lagunekin. Gurasoekin eta osaba-izebekin zuka. Eskoriatzan ibili zen eskolan. Gaztelaniarik jakin gabe, eskolan gaztelaniaz hasi behar. Kolean ere adin inguruko mutil guztiekin hika egin izan du. Baserrikoek gehienetan hika, nahiz eta elkarrekin gaztelaniaz egiten duenik ere baden. Kaletarrekin ere hika egiten du, batzuek berari zuka erantzun arren.

### **997. Emakumezkoei beti zuka (ESK-100/006)**

Emakumezkoekin zuka beti. Arrebarik ez duenez, etxean ez zuen jaso nokarik eta sekula ez du egin izan. Arraroa egiten zaio emakumezko bati hika egitea.

### **998. Hizkuntza-erregistroa aldatzea zaila (ESK-100/007)**

Umetatik ikasi ez duenarentzat zaila da hizkuntza-erregistroa aldatzea, hikatik zukara aldatzea. Gaztelanitik euskarara pasatzea are zailagoa. Euskaltegietan ikasten dutenei ez zaiek hika irakasten zuka bezala.

### **999. Mendiolan ikasi zuen hika (ESK-100/010)**

Aitari eta osabari hika entzun arren, etxean zuka jaso zuen Davidek. Anaia nagusia Mendiola ezkondu zen eta hara joaten hasi zen 17-18 urterekin. Han hika egiten zuten bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek eta han ikasi zuen. Pixkanaka hasi zen hika anaiarekin eta koinatuarekin. Eskola nazionalan ibili ziren eta, eskolak gaztelaniaz izaten zirenez, euren lehen harremana gaztelaniaz izango zela diote.

### **1.000. Hizkuntza-ohiturak aldatzea zaila (ESK-100/012)**

Gaztetxotan lagunekin harremana gaztelaniaz izango zela dio Davidek, eskolan gaztelaniaz ikasten zuten eta. Gerora, kuadrillan batzuekin gaztelaniaz, beste batzuekin euskaraz, zuka, eta beste batzuekin hika, 20 urte ingurutik aurrera. Zaila da hizkuntza-ohiturak aldatzea. Davidek koinatuarekin bizi izandakoa azaltzen du.

### **1.001. Eskoriatzan gizonezko gehienekin hika (ESK-100/013)**

Davidentzat naturala da berak hika egitea eta besteek zuka erantzutea, izan ere, ilobei hika egiten die eta haiek normalean zuka erantzuten diote. Gaur egun ia gizonezko guztiekin egiten du hika Eskoriatzan. Hala ere, Mendiola adinekoekin zuka egiten du, ohitura hori hartuta zuelako lehendik. Anttonek auzoan koskortutako mutil gaztetxo gehienei hika egiten die. Davidek behin ilobarekin eta haren lagun batekin gertatutakoa kontatzen du.

### **1.002. Hitanoaren egoera Eskoriatzan (ESK-100/014)**

Hitanoaren egoera Eskoriatzan. Baserri-giroan eta gizonezkoek eutsi diote ondoen. Hala ere, baserriko bizimodua asko aldatu da eta gauzak ez dira lehen bezala.

### **1.003. Euskararen egoera Eskoriatzan (ESK-100/015)**

Kuadrillan batek euskaraz ez badaki, gaztelaniara jotzen da. Daviden iritziz, gazteen artean, adin-tarte batean (20-26) gaztelaniarako joera egoten da eta gero berriz euskaraz egitera itzultzen dira.

### **1.004. Familia batzuetan galdu egin da euskara (ESK-100/017)**

Davidek dio, kaletarra izan arren, berari gurasoek beti euskaraz egin izan ziotela. Familia batzuetan euskara galdu egin zen, baita baserriko familietan ere. Penagarria iruditzen zaio nork bere hizkuntza horrela galtzea.

### **1.005. Hika egiten duten emakumezko gutxi Eskoriatzan (ESK-100/018)**

Daviden aitak anaiekin eta koinatuekin egiten zuen hika, baina arrebeekin zuka. Baserritarren artean hobeto gorde da hika. Davidek dio ez dakiela noka inoiz entzun ote duen Eskoriatzan. Ez dela hika egiten duten emakume asko egongo herrian diote. Mendiolako koinatak hika egin izan dio beti Davidi. Zeintzuk izan daitezkeen emakumeek hika gutxiago egiteko arrazoiak.

### **1.006. Gizonezko ezezagunei ere hika (ESK-100/022)**

Norbaiti hika egiteko konplizitatea behar dela esaten dute, baina ezezagunei ere hika egiten dietela diote, pareko gisa ikusiz gero. Hika egiten ohituta dagoenekin zukara pasatzea ezinezkotzat jotzen du Anttonek.

### **1.007. Hika egitea ez dute konfiantzarekin lotzen (ESK-100/024)**

Hika egitea ez dute konfiantza izatearekin lotzen, ohiturarekin baizik. Davidek Mendiolan aspaldi ezagututako pertsona batzuekin zuka egiten du, baina ez errespetuagatik edo konfiantzarik ez duelako, horrelaxe ohitu zelako baino. Ez zaie iruditzen hika hizkera zakarragoa denik.

### **1.008. Hika dakitenen euskara aberatsagoa? (ESK-100/026)**

Beraiek bi erregistro darabiltzate: hika eta zuka. Beraz, esan daiteke erregistro bakarra darabilenak baino euskara aberatsagoa dutela. Ez dute inor ezagutu berorika egiten, baina Davidek dio aitari entzun izan ziola kontatzen zituen pasadizoetan.

### **1.009. Hitanoaren biziberritzea nola egin (ESK-100/027)**

Hikaren biziberritzea euskara bultzatzearekin batera joan behar litzatekeela uste dute. Gazteek ikasteko interesa zanez gero, ona litzatekeela uste du Davidek. Askok "belarria eginda" izango dutela eta ez litzaiekeela asko kostako ikastea diote. Gero, momenturen batean, bi lagun artean erabakia hartu eta elkarrekin hika hastea onena, eta agian ingurukoak ere hasiko lirateke horrela. Batzuetan hika eta zuka nahastuta erabiltzen dituzte gazteek. Hitanoa galtzea galera handia litzateke euskararentzat.

### **1.010. Eskoletan euskalkia irakastea zaila (ESK-100/029)**

Daviden ustez ez da erraza euskalkiak irakastea eskolan. Gazteak unibertsitatara doazenean, herri askotako ikasleak elkartzen direnean, euskara batua beharrezkoa da. Gainera, irakasleek euskalkiak ezagutu beharko lituzkete edo irakasle bakoitzak bere herrian irakatsi.

### **1.011. Appa hi! aplikazioa; ikasteko, entzutea eta praktikatzea beharrezkoa (ESK-100/032)**

Appa hi! aplikazioaren inguruko iritzia. David Oñatikoa egiten ari da eta ez daki zenbateraino barneratu ote duen ikasitakoa. Hika ikasteko, aplikazioko ariketak egin ostean, behar-beharrezkoa da kalean praktikatzea. Euskaraz ikasteko ere beharrezkoa da entzutea eta hizkuntza pixkanaka barneratzea.

### **1.012. Apotzagan neskekin hika egiteko aukera gutxi (ESK-100/034)**

Hika ikasteko, ezinbestekoa da praktikatzea eta, beraz, norekin egin izatea. Anttonek ziurrenik ikasiko zukeen noka, arrebaren bat izan balu, baina beraiek sei mutil dira eta, kasualitatez, Apotzagan baserri gehienetan mutilak zeuden bere sasoian.

### **1.013. Appa hi! aplikazioa, tresna baliagarria (ESK-100/036)**

Appa hi! aplikazioa tresna baliagarria iruditzen zaie hitanoaren inguruko kontu orokorrak jakiteko eta ikasketan lehen urratsa emateko, eta gazteak animatuko lituzkete probatzera. Gero, hori egin ostean, beharrezkoa litzateke lotsa galdu eta pixkanaka lagunekin hika hastea. Aplikazioak herri desberdinetako hika ikasteko aukera ematen du. Arrasatetik Leintz Gatzagara bitarteko herrietan ez dela alde handirik egongo aditzetan diote. Davidek euskara batukoa ere egin zuen eta Oñatikoarekin ari da orain.

### **1.014. Mugikorrak eragindako aldaketak (ESK-100/038)**

Lehenengo mugikorrak. Eztabaida sortu zen hasieran. Mugikorraren onura: edozein momentutan pertsona batekin harremanetan jartzeko aukera. Nolako erabilera ematen zaion da kontua. Mugikorrik ez zegoenean nolakoa zen harremana lagunekin; aurrez egin behar hitzordua. Gaur egun, momentuan bertan egiten dituzte hitzorduak mugikorretik.

### **1.015. Mugikorrak sortutako mendekotasuna (ESK-100/039)**

Anttonen ustez, hasierako mugikorrek zuten moduan, deiak egin eta mezuak bidaltzeko aukera bakarrik izatea litzateke onena. Gaur egun denetarik dute mugikorrek eta lotura sortzen dute. Mugikorretako aplikazioetan zenbat eta gehiago sartu, mendekotasun handiagoa sortzen dute. Beraiek ez dute sentitzen sare sozialak erabiltzeko beharrik. Daviden ilobak harrituta geratu ziren lau egunean behin kargatzen zuelako mugikorra.

### **1.016. Euskal komunikabideen zale; euskaraz irakurtzea (ESK-100/041)**

Normalean Euskal Telebista ikusten dutela eta Euskadi Irratia entzuten dutela diote. Telebistan gauza bera euskaraz edo gaztelaniaz egonda ere, euskarazkoa aukeratzen duela dio Davidek. Baina euskaraz irakurtzea gehiago kostatzen zaie, gaztelaniaz ikasi dutelako.

### **1.017. Gazteak ordu asko pantailari begira (ESK-100/043)**

Gazteei telebistak ez die ardura, haientzat mugikorra da pantaila nagusia. Ordu asko pasatzen dituzte pantaila aurrean. Davidek astebeteko datuak begiratu zituen eta batez beste egunean 32 minutu egoten zela pantailari begira kalkulatu zuen. Gazteak, berriz, 5-6 ordu egon daitezke. Zenbait aplikazio akaberarik gabekoak direla dio Anttonek.

### **1.018. Mutikotan dantzan ibilia (ESK-100/045)**

David dantza taldean eta txistua ikasten ibili zen mutikotan. 12 urte ingururekin Euskal Herriko aurreko txapelketan bosgarren postuan geratu zen. 16-17 urte zituela, taldea desegin zen, nahiz eta geroago berriz martxan hasi.

### **1.019. Mutikotan kalea gutxi ezagutzen zuen (ESK-100/047)**

Antton mutikotan baseritik eskolara jaitsi eta berriz etxera bueltatzen zen hura bukatutakoan. Kalea ia ez zuen ezagutzen; frontoian zuen muga. Asteburuetan auzoko lagunekin ibiltzen zen. Koskortutakoan kalera jaisten eta auzoetako festetara joaten hasi zen. Anttonek izan zuen lehen kotxea eta matrikularekin egindako hitz-jokoa.

### **1.020. Inguruko herrietakoekin harreman ona (ESK-100/050)**

Gaztetan asko ibiltzen ziren Aretxabaletan. Ondo konpontzen ziren, nahiz eta elkar pixka bat zirikatu. Aretxabaletar batzuek eskoriatzarrak xuhurrak direla esaten omen dute. Arrasatera ere joaten ziren eta haiekin ere ondo. Davidek entzuna du aitaren sasoian batzuek borrokarako prest egoten zirela aretxabaletarrak ikusi orduko. Baserritarrek kaletarrek ere harreman ona izan dute.

### **1.021. Emakumezkoei hika egiteko erronka (ESK-100/055)**

Elkarrekin hika egiten dute ezinezkoa egingo litzaieke elkarrekin zuka egitea. Anttonek erraztasun handiagoa du hika egiteko gizonezkoekin. Batzuei kosta egiten zaie, berari emakumezkoei egitea kostatzen zaion moduan. Emakumezkoei hika hasteko helburua jarri beharko dutela diote. Gehienetan aditzak ez dira hain desberdinak tokatik nokara, baina hizkuntza-ohitura aldatzea da zailena. Praktikatzea da garrantzitsuena.

### **1.022. Gurasoei entzunda ikasi zuen hika (ESK-101/003)**

Umetan gurasoak hika entzuten zituen euren senideekin, baina berari ez zioten egiten. Aitarekin eta aitaren lagunekin mendira joaten zen domekero eta haiei entzunda ikasi zuela dio. 15 urte zituela, Goñira joaten hasi zen udalekuetara eta bertan ezagutu zuen gaur egun bere senarra dena. Harekin hika hasi zen eta hika egin izan dute beti elkarrekin, amari eta amaginarrebari ondo iruditzen ez zitzairen arren.

### **1.023. Alabei hika transmititzeko ahalegina; arauak hautsi beharra (ESK-101/004)**

Alabei hika transmititzen saiatu da Karmele, baina oraindik behintzat ez dute egiten. Alaba zaharrenarekin pixka bat egiten du, baina gazteak ez du nahi. Hala ere, etxean hika entzun dutenez, oraindik badu esperantza noizbait hasiko ote diren. Alabek baimena dute beraiei hika egiteko, izan ere, garai bateko erabilera-ohiturei eutsiz gero, hika galdu egingo litzatekeela uste du. Berak oso jende zehatzarekin egiten du hika. Senar-emazteek elkarrekin hika egitea gaizki ikusita egon da eta beraiek zenbait iruzkin jasan behar izan dituzte.

#### **1.024. Hika ikastaroak eman izan ditu (ESK-101/006)**

Karmelek hika ikastaroak eman izan ditu Leintz Euskaltegian, jendeak eskatuta. Berak euskalkiko hika daki, ez euskara batukoa. Ikastaroko kide asko aurrez euskalkiaren inguruko ikastaroan ibiliak ziren. Hika ikastaroak emateko materialik ez zegoen eta sortu egin behar izan zuen. Zer material erabili zituen laguntza moduan.

#### **1.025. Hika ikastaroetako ikasleak; erregistroa aldatzea zaila (ESK-101/008)**

Hika ikastaroetara doan jendea interesa duen jendea izan ohi da. Oso giro ona izan dute ikastaroetan. Aretxabaletan hikalaguna sortu zuten ikastaroan ibilitako batzuek. Klaseak praktikoak izaten dira. Ez da erraza erregistroa aldatzea eta batzuei asko kostatzen zaie hika hastea. Ikasle baten kasua.

#### **1.026. Gurasoengandik jaso zuen hika (ESK-101/012)**

Gurasoek hika egiten zioten Axuni eta anai-arreben artean halaxe egiten zuten. Bestelako senideekin eta lagunekin ere hika egin izan du. Lagun bati zuka egiten zion, hika egitea errespetu falta iruditzen zitzaiolako. Eskoriatzan kalean gutxi egiten da hika.

#### **1.027. Gazteek ez dute hika norekin egin (ESK-101/013)**

Bilobek hika ikasi nahi dutela esaten diote Axuni, baina kalean inork ez duenez egiten, gazteek ez daukate norekin praktikatu. Hala ere, mutil batzuek egiten dutela dio; neskek ez. Seme-alabei sekula ez die hika egin. Eskoriatzan badaude toka egin izan dioten gizonak ere. Pena ematen dio hika galtzeak.

#### **1.028. Hikaren egoera Eskoriatzan (ESK-101/014)**

Eskoriatzan hika ez dago galduta, baina kalean oso jende gutxik egiten du; baserrietan hobeto gorde da eta batez ere gizonezkoen artean.

#### **1.029. Emakumeek hika gutxiago egiteko arrazoiak (ESK-101/015)**

Karmelek askotan entzun izan du senarrarekin hika egitea ez dela errespetuzkoa. Bestela, ez du inoiz entzun hika ez dela emakumezkoentzako moduko hizkera. Axunen kuadrillako batek ez zela errespetuzkoa esaten zuen. Emakumeek hika gutxiago egitea euskara gutxiago egitearekin lotuta egon daitekeela diote. Garai batean herriko jende inportanteak gaztelaniaz egiten zuenez, emakume askok ere gaztelaniaz egiten zuten, "dotoreagoa" zelakoan. Horrez gain, garai batean gizonek elkartzeko eta lagunartean hika aritzeko guneak zituzten (elkarteak, tabernak) eta emakumeek ez.

#### **1.030. Zukatik hikara pasatzeko zailtasunak (ESK-101/016)**

Oso zaila da erregistro-aldaketa egitea, zukatik hikara pasatzea. Karmelek AppaHi! aplikazioaren bitartez hika ikasten ari den lankide batekin hika egiteko dituen arazoak berri ematen du. Oharkabea irtetzen da hizkera bat edo bestea. Axuni gurasoek hika egiten zioten, aitona-amonek zuka egin arren. Ahizpari ezingo lioke zuka egin.

#### **1.031. Hikak gertutasuna ematen du (ESK-101/020)**

Hikak zukak ematen ez duen gertutasun bat ematen du. Ezezagun bati hika egitea kosta egiten da. Hika egiteko, konplizitatea behar dela uste dute.

### **1.032. Hitanoaren erabilera-arauak malgutzearen alde (ESK-101/021)**

Hitanoaren inguruko "idatzi gabeko erabilera-arauak": senar-emazteen arten ez, seme-alabek gurasoei ez, adinekoei ez... Arauok asko murrizten dute eremua eta malgutu ezean, hika galtzeko arriskua dago.

### **1.033. Euren buruari hika (ESK-101/022)**

Euren buruari hika egiten diote. Zalantza dute euren buruarekin ari direnean toka ala noka egingo ote duten. Zenbait adibide. Axunek dio, gaztelaniaz ikasi zuenez, batzuetan oraindik gaztelania ere etortzen zaiola burura.

### **1.034. Animaliei hika, baina erleei zuka (ESK-101/023)**

Animaliei hika egiten diete: txakur arrei toka; Axunek, berriz, etxean duen katu emeari noka. Karmelek gogoan du aitak erleei zuka egiten ziela.

### **1.035. Seme-alabei hika ez transmititzeko arrazoiak (ESK-101/027)**

Berak gurasoengandik hika jaso arren, Axunek ez die seme-alabei transmititu, baina ez daki ziur zergatik. Senarrak ez zuen hika egiten eta, kalean ere ez zenez egiten, hori izango zela arrazoia uste du. Karmeleren kasuan, senarrarekin hika egiten du, baina, alabak jaio zirenean, haiei zuka egiten hasi ziren eta, nahiz eta koskortutakoan hika hasi, gerora kostatzen dela ohiturak aldatzea dio. Hala ere, euren seme-alabek hika asko entzun dutela eta egiteko gai izango liratekeela uste dute.

### **1.036. Hitanoaren fama garai batetik hona (ESK-101/029)**

Ez dute uste gaur egun hitanoaren inguruko aurreiritzirik dagoenik. Besterik gabe ez da egiten edo dakienak ez dauka norekin egin. Garai batean zuka egitea hika egitea baino dotoreagotzat jotzen zen eta are gehiago gaztelaniaz egitea.

### **1.037. "Hi" gaztelaniazko "tú"ren pareko? (ESK-101/030)**

Axunek aipatzen du hitanoa gaztelaniazko "tu"ren parekoa ote den, baina Karmeleri ez zaio hala iruditzen, ez direla konparagarriak uste du. Euskarazko eta gaztelaniazko tratamenduak.

### **1.038. Irakasle eta abadeei berorika; anekdotak (ESK-101/031)**

Garai batean irakasleei, medikuei eta abadeei berorika egiten zitzairen. Axunek osaba abadearekin eta izeba maistrarekin gertatutako anekdotak kontatzen ditu. Izebarekin hika egiten zuen normalean, baina eskolan zuka egin zionean, izebak berorika egiteko eskatu zion.

### **1.039. Euskalkiaren lanketa ikastetxeetan (ESK-101/033)**

Kike Amunarrizek biraoen inguruan kontatutako anekdota. Euskaraz ez dagoela biraorik esaten da, baina etxeko euskara jatorra duenak asmatzen du nola iraindu edo birao egin. Karmeleren ustez, euskarari bizitasuna emateko eta horrekin gazteen erabilera bultzatzeko, berebiziko garrantzia du euskalkia eskolan lantzeak. Bergarako Aranzadi ikastolako adibidea jartzen du: HHn eta LHn euskalkia erabiltzen dute ahozkorako eta mailetan gora egin ahala txertatzen dute euskara batua.

#### **1.040. Hitanoaren egoera Bergaran; Osintxuko kasua (ESK-101/034)**

Bergaran norekin egiten duen hika Karmelek. Osintxun hika gehiago egiten da, bai gizonetzkoek eta baita emakumezkoek ere. Mutilek hika gehiago egitea kontu orokorra da.

#### **1.041. Hika bultzatzeko, hikalaguna binaka (ESK-101/035)**

Hika biziberritzeko zer egin behar ote litzatekeen. Hikalaguna jarritz gero, bikoteak egin behar lirateke, taldean ez delako hika egiten, biren artean baizik. Hau da, hikalagun bat hartu eta harekin aritu.

#### **1.042. Garbigailua eta igogailua asmakizunik onenak (ESK-101/039)**

Garbigailua sekulako asmakizuna izan zen. Axunen ustez igogailua da beste asmakuntza garrantzitsu bat. Karmelek kontatzen du amaren etxean igogailua jartzeko arazoak izan zituztela, bizilagun batzuek beharrik ez zutelako ikusten. Lehenengo garbigailuak nolakoak ziren. Aurretik etxe aurreko putzuan garbitzen zituzten arropak.

#### **1.043. Garai bateko emakumeen bizimodua (ESK-101/040)**

Garai batean gizonetzkoen lana lantegira joatea zen eta etxeko lanak emakumeek egin behar. Baserrian, gainera, kanpoko lanak ere egin behar izaten zituzten emakumeek. Gizonak siestarako aukera izaten zuten, baina emakumeek segi egin behar. Gauzak asko aldatu dira. Hala ere, gauzak atzerantz ote doazen dute sentipena.

#### **1.044. Teknologia ekarritako aldaketak (ESK-101/043)**

Teknologia berrien eragina. Lehen telefono-zenbakiak buruz jakiten ziren. Edozein tramite egiteko orain ordenagailuz egin behar. Askotan ordenagailuarekin ohituta egon arren, arazoak. Telefono mugikorrek baditu bere abantailak, baina gauza txarrak ere asko. Gainera, mugikorraren bitartez guztiz kontrolatuta gauzkatela dio Karmelek.

#### **1.045. Inteligentzia artifizia (ESK-101/046)**

Unibertsitateetan arazoak sortzen ari omen da inteligentzia artifizia. Karmelek dio berak probatu duela eta harrigarria dela nola funtzionatzen duen.

#### **1.046. Hizkera batzuen fama; oraindik ere konplexuak euskalkiarekin (ESK-101/049)**

Goierrri aldean egiten dela hika gehiago. Bertako euskararen inguruko iritzia: oraindik ere euskara zatarraren konplexua dago. Gipuzkerak hizkera finagoaren fama. Beraiek ez dute Gipuzkoako edozein herriko euskara ulertzeko arazorik, eta alderantziz bai. Karmelek euskaltegiko zuzendaritzako bilera batean gertatutakoa kontatzen du.

#### **1.047. Euskalkien inguruko metafora (ESK-101/051)**

Gotzon Garatek artikulua batean euskalkien inguruko metafora egiten zuela dio Karmelek: euskalkiak Amazonas oihanarekin eta Versalleseko lorategiekin alderatzen zituen. Horren inguruko iritzia.

#### **1.048. Etxean eta lagunartean hika; neska-mutilak hika Marinen (ESK-102/003)**

Maritxu etxean hasi zen hika hitz egiten, senideen artean, eta lagunartean ere halaxe egiten zuten, nahiz eta eskolan gaztelaniaz ikasi. Abadeak ere hika egiten zien. Gurasoek euren anai-arrebekin hika egiten zuten. Seme-alabei zuka egiten zien aitak; amak, berriz, hika. Inguruko senideek (osaba-izebek, aitona-amonek) mutilei hika egiten zieten, baina neskei zuka. Marinen ohikoa zen neska-mutilak hika aritzea. Berak alabei ere hika egiten die.

#### **1.049. Hikaren gainbehera (ESK-102/004)**

Hikaren egoera aldatzen joan zen Marinen. Gazteak Eskoriatzara ikastera joateak izan dezake eragina. Berak alabei hika egiten die, baina ez daki beste etxeetan ere transmisio hori egon ote den. Alabek lagun batzuekin behintzat hika egingo dutela uste du.

#### **1.050. Gaztetako lagunekin hika (ESK-102/005)**

Marin auzoan denekin hika egiten du Maritxuk. Kalera joandakoan, pertsonaren arabera: gaztetatik ezagutzen duen jendearekin hika egiten du. Oharkabea irteten zaio.

#### **1.051. Gaur egun Maringo gazteak zuka (ESK-102/006)**

Marin auzoko gazteek gaur egun ez dute hika egiten. Elkartu ere lehen baino gutxiago elkartzen dira, Eskoriatzan egoten direlako normalean. Bizimodua aldatu egin da. Eskolan ez diete hikarik irakatsi, zuka eta batua baizik.

#### **1.052. Emakumezkoei hika gutxiago (ESK-102/009)**

Lau senidetan gazteena da Ramon eta bera izan zen Bidebeitiagoikoa baserrian jaio zen azkena. Anaia nagusiagoek beti hika egiten zioten eta berak ere umetatik egin izan du. Amak hika egiten zien, baina aitak zuka. Arrebei eta lehengusinei hika egin izan dien arren, lagunartean neskei gutxiago egiten ziela dio. Gaur egun ere oso emakumezko gutxiri egiten die hika. Gizonezkoekin, berriz, askoz gehiago egiten du.

#### **1.053. Euskara batuaren eragina hikaren erabileran (ESK-102/010)**

Ramonek ez du inoiz entzun hika ez dela emakumezkoentzako moduko hizkera eta ez du hala uste, gainera. Bere ustez euskara batuaren etorrerak du zeresana hikaren galeran. Lantegian euskaraz egin izan du beti gazteagoekin, baina haiek euskara batuan egiten zuten, bera ere batura hurbiltzen saiatzen zen, eta, ondorioz, hika alde batera utzita zuka egin izan die gazteagoei. Ingurukoak izanez gero, berriz, mutilei hika, baina neskei zuka. Maritxuk, berriz, beste auzoetako emakumezkoekin hika egiten omen zuen lantegian.

#### **1.054. Ramonek semeei zuka; Maritxuk alabei hika (ESK-102/011)**

Semei beti zuka egin izan die Ramonek, baina ez daki zergatik, etxean eredu hori jaso zuelako edo. Hala ere, Maritxuk alabei hika egiten die.

### **1.055. Bikotearekin zuka (ESK-102/012)**

Euren bikoteekin zuka egiten dute. Inguruan ezagutzen dute elkarrekin hika egiten duen bikoteren bat, baina oso arraroa egiten zaie, hori ez zen izaten ohikoa eta.

### **1.056. Ume txikiei hika ez (ESK-102/013)**

Maritxuk ume txikiei ez die hika egin izan; koskortutakoan bai. Alabei, adibidez, gerora hasi zen hika egiten. Ramonek umeei ez die inoiz hika egin izan eta uste du behin zuka hasiz gero, ohitura hori ez dela aldatzen gerora. Maritxuren alabek normaltasunez hartu izan dute amak hika egitea. Ohituta daude gurasoak euren senideekin hika entzuten. Hikak konfiantza ematen duela dio Ramonek.

### **1.057. Hika konfiantza handiagoa (ESK-102/015)**

Hikak konfiantza handiagoa ematen duela dio Maritxuk; zuka errespetuzkoagoa iruditzen zaio. Ramonek, berriz, gertuko herri batera joanez gero hika egiten duela dio, baina urrunxeago joanez gero, lehenbizi zuka hasten dela. Gazteekin ere zuka, gazteek euskara batuan egiten dutelako.

### **1.058. Animaliei toka (ESK-102/016)**

Animaliei hika egin izan diete; arra zein emea izan, toka hitz egiten diete.

### **1.059. Arrasaten gutxik egiten zioten euskaraz Ramoni (ESK-102/019)**

Ramon 12 urterekin Arrasatera joan zen eskolara eta oso gutxik egiten zioten euskaraz. Besteek ez zekiten edo ez zuten egiten. Horietako asko gerora euskaraz hasi ziren eta euskaraz egiten dute gaur egun. Orduan euskaraz egiten zutenekin hika egin izan du beti; besteekin, berriz, zuka.

### **1.060. Hizkuntza-ohiturak lantegian (ESK-102/020)**

Maritxu Maringo eskolan ibili zen eta 19 urterekin Copreci lantegian hasi zen lanean. Bertan lan egiten zuten emakume asko baserrietakoak ziren eta hika egiten zuten elkarrekin. Ramonek, berriz, Fagorren lan egin izan du Arrasaten. Euskara zen nagusi lantegian. Gizonezkoei hika egiten zien eta emakumezkoei zuka. Gazteak sartzen hasi zirenean, haiei zuka egiten hasi zen. Zaharragoei hika egitea ez da ondo ikusita egon, hala ere, Ramonek ohitura kontua dela gehiago uste du.

### **1.061. Hizkuntza-ohiturak Marin auzoan (ESK-102/021)**

Marin auzoan denek elkar ezagutzen dute. Maritxuk dio batzuei hika egiten diela eta beste batzuei ez, baina ez daki zergatik. Ramonek adin batetik gorako gizonezkoei hika egiten die, baina emakumezkoei ez.

### **1.062. Euskara batuaren eragina hitanoaren galeran (ESK-102/023)**

Hitanoa gainbehera doa Euskal Herri osoan. Ramonen ustez euskara batuaren etorrerak eta horrek sortutako aldaketak izan dezake eragina, euskara batuak gauza oso onak ekarri dituen arren.

### **1.063. Arrasaten emakume gutxik egiten zuen euskaraz (ESK-102/025)**

Ramonek dio, bera gaztea zenean, oso emakume gutxik egiten zutela euskaraz Arrasaten, jakin arren. Zorionez, gaur egun emakume horietako gehienek euskaraz egiten ei dute. Euskaraz egin ezean, hika are gutxiago. Emakumeen artean hikaren egoera okerragoa izatea hortik etor daitekeela iruditzen zaio.

### **1.064. Euskararen egoera Eskoriatzan (ESK-102/027)**

Gaur egun gazteek kalean gaztelaniarako joera dute, ta horrek nahi gabe gaztelaniaz jarraitzera eramaten gaituela. Gainera, euskaraz ez dakienek bat egonez gero, gaztelaniara jotzen dugu. Hala ere, garai batetik euskararen egoera asko hobetu dela iruditzen zaio, nahiz eta erabilera areagotzeko lan handia egin beharra dagoen oraindik ere.

### **1.065. Gizonezkoek hika aritzeko aukera gehiago I (ESK-102/029)**

Garai batean gizonezkoak tabernan edo elkarteetan elkartzen ziren, baina emakumeak ez. Bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek hika erabiltzen zuten lagunekin elkartzean, baina gizonezkoak gehiago elkartuko ziren ziurrenik.

### **1.066. Gizonezkoek hika aritzeko aukera gehiago II (ESK-102/031)**

Gizonezkoek, tabernan elkartzen zirenean, hika egiten zuten elkarrekin eta, laguna izan ez arren, han ezagututakoari hurrengoan ere hika egiten zioten, konfiantza-puntua hartzen zutelako. Maritxuk dio norbaiti hika egin eta zuka erantzuten badu, konfiantza falta iruditzen zaiola.

### **1.067. Hikaren aurkako iruzkinak (ESK-102/032)**

Hika zakarra dela entzun izan dute. Eta hika eginez gero, "hori baserritarra izangon" bezalako iruzkinak ere bai. Pertsona batzuen aurreiritziak direla diote. Ramonek dio berak ez duela izan inoiz ikuspegi hori, berak konfiantza gehien duen pertsonekin egiten duelako hika.

### **1.068. Telebistan eta irrastian hika gutxi (ESK-102/036)**

Zaila izaten da hizkuntza-ohiturak aldatzea. Telebistan eta irrastian ez da hika entzuten eta horrek ere badu eragina. Umeek hika entzuteko eta ikasteko, egokia litzateke marrazki bizidunetan hika sartzea.

### **1.069. Gero eta baserritar gutxiago; Maringo egoera (ESK-102/039)**

Gero eta baserritar gutxiago dago. Etxeek iraungo dutela uste du Ramonek, baina baserritarrek ez. Marinen 1700 inguruan 37 baserri zeuden; gaur egun ez dago baserritik bizi denik. Baserritarren protestak. Egoera okerrera doa. Gazteak auzoetara bizitzera joateko oztopoak: zerbitzurik ez.

### **1.070. Marinen denek euskaraz (ESK-102/041)**

Marinen euskaraz egiten dute, baita gazteek ere.

### **1.071. Baserriko emakumeek lan handia (ESK-102/042)**

Garai batean emakumeek lan asko egin behar izaten zuten baserrian, soroko lanez gain etxeko lan guztiak ere euren gain izaten zituztelako. Gizonek ez zuten etxeko lanik egiten. Gaur egun egoera hobetu da emakume baserritarrentzat. Kanean, oster, egoera ez ote den okertu dio Ramonek: oraindik ere emakumeek izaten dute umeen ardura eta, gainera, etxetik kanpora lan egiten dute.

### **1.072. Garai batetik aldaketa handia; teknologia eta berrikuntzak (ESK-102/043)**

Garai batean errekarra joaten ziren arropak garbitzera. Ur gutxi izaten zen etxeetan eta argia ere gutxi. "Txirristolia" erabiltzen zen argi egiteko. Gauzak asko aldatu dira, teknologia onurak ekarri ditu. Badira okerrerako diren berrikuntzak ere, baina bakoitzak hartu behar neurria. Garai batean, baserri batetik bestera abisua pasatzeko, ulu egin behar. Ordua kanpaiei esker jakiten zuten.

### **1.073. Gaztelaniaz ere egin arren, euskara nagusi gazteen artean (ESK-102/046)**

Beraiek ere izan zuten gaztelaniarako joera, baina euskararen aldeko bultzadari esker euskaraz egiten jarraitu zuten. Gazteek gaur egun gaztelaniaz egiten dutela tarteka, baina euskara dela nagusi iruditzen zaie. Ramonek ez du uste gaztelaniarako joera gehitzen joango denik.

### **1.074. Telefonoa: ez izatetik gabe ezin bizi izatera (ESK-102/048)**

Telefonoa aurrerapen handia izan zen. Maringo lehen telefonoa beraien etxean jarri zuten eta norbaitek deitutakoan etxe hartara abisua ematera joan behar. Mugikorrek hasi aurretik, bidaietara ere telefonorik eta bestelakorik gabe joan behar, baina orduan ez zen horren beharrik sentitzen. Gaur egun, berriz, ez dakigu telefono gabe bizitzen.

### **1.075. Euskal kantak ikasten zituzten `Boga-boga´ liburutik (ESK-102/050)**

Ez dute gaur egungo euskal musika talderik ezagutzen. Garai batean euskal kantak ikasten zituzten abadearekin, maistra etorri aurretik, `Boga-boga´ liburuarekin. Gustuko zuten abestea. Maritxuk dio arrosariotik irteerakoan kantuan joaten zirela basora. Gaur egun gazteek ez dute euskal abestirik abesten. Ramonek dio beraiek tabernarik taberna kantuan ibiltzen zirela.

### **1.076. Meza, jendea elkartzeko aitzakia (ESK-102/053)**

Garai batean auzokoak mezara joaten ziren eta denak elkartzeko aitzakia izaten zen. Gaur egun askoz gutxiago ikusten dute elkar. Gaur egun Whatsapp bidez izaten da gehiago harremana.

### **1.077. Hika etxean (ESK-104/004)**

Etxean beti jaso izan dute hika, amarengandik ez baina inoiz ez du oztoporik jarri. Naturaltasun osoz egin izan dute hika; zuka da, izan ere, anai-arrebekin arrotz zaiona. Beti jaso duen arren, ez dago ziur aitzakiaz zuzenean beraiei hika egiten zien edo ez.

### **1.078. Eskolako kontuak. Hizkuntza eskolan (ESK-104/005)**

Eskolan gaztelaniaz egiten zuten. Ez ditu garai hartako oroitzen bereziki onak. Birkia du Euxebiok eta eskolan, beraz, inoiz ez zegoen bakarrik. Espainolez egiteko arazorik, hala ere, ez dute sekula izan, etxean amarekin ikasi baitzuten. Irakasle batekin harremana mantentzen du oraindik eta, gaur egun, Euxebiorekin bakarrik egiten du euskaraz. Euskaraz egiteko inongo bultzadarik egon gabe euskaraz egiteak ahalegin handia dakar.

### **1.079. Euskarak nola eragin dion (ESK-104/006)**

Euxebiorentzat hizkuntza oso garrantzitsua da eta dudarik gabe euskara da bere hizkuntza afektibo eta garrantzizkoena. Ondo gogoratzen du bere euskal literaturako irakasle bat ere, pertsonalki eragin ziona.

### **1.080. Irakasle lanak (ESK-104/008)**

Ikasketak eta gero, irakasle izan zen Euxebio. Gertutasun handia erakusten zuen, eta erlijio gaiak justiziarekin lotu nahi izaten zituen.

### **1.081. Justizia eta irakaskuntza (ESK-104/010)**

Irakasle izateaz gain, justiziaren aldeko borroka hortan, GKE baten partaide ere bada. "Dena denontzako da" leloa azpimarratzen digu. Balio biblikoak lantzen zituen irakaskuntzan ere. Hala ere, etika irakasten zen egokitasunarekin ere ez dago guztiz ados.

### **1.082. Hika auzoan (ESK-104/011)**

Marin, bizi zen auzoan, hika egin izan da beti. Adin desberdintasunarena garrantzitsua iruditzen zaio, nahiz eta badakien oztopoiz daitekeela. Andre-gizon artean bi kasutan soilik ezagutu du hika hitz egitearena.

### **1.083. Hika familiako gazteenekin (ESK-104/012)**

Hilobekiko hikaren transmisioan egon den etenarekin pena du. Euxebiok egin izan die batzuei. Neska edo mutil izanagatik ere ez du eragozpenik eduki hika egiteko. Baina aitortzen du ohitura falta bai izan duela haietako batzuekin.

### **1.084. Hika eta baserria (ESK-104/013)**

Arrasatera eginiko aldaketa hortan, hika ingurunea ere aldatu zitzaion. Ahizpa zaharrenak izan dira Euxebiorentzat hizkuntzarekiko erreferente. Aldaketa horretan, ahizpetako bat denda baten lanean hasi zenean, euskera makala ikusten zuen Arrasaten. Baserrietan mantentzen da ondoen hizkuntza, Euxebioren usteetan. Kolean gerra osteko kontextua zenez, arrasto handia utzi zuen honek ete hizkuntza kalitatean ere ikusten zen. Normaltasun batean egin zitekeen euskara, baina bazegoen etzekienik. Hika egiteko aukera dutenen kopurua hala ere, aso murrizten da. Hika berreskuratzeke egin den lana txalogarria dela diosku eta bere hiloba bati hika egiten hasi da orain dela gutxi eredu bat izan dezan. Hala ere, badaki arrotz egiten zaiola.

### **1.085. Auzoko hizkuntza-egoera (ESK-104/014)**

Gaur egun, Marin auzoan oso jende gutxi bizi da. Beraz, ez daki hika bizirik dagoen ala ez. Zuka egiten dutela esango luke. Baserritarren kontua izategatik galdu dela uste du, baita arrotz edo baldarra den ideiatatik. Gertutasuna eta konfidantza transmititzen duen hizkera da Euxebiorentzat.

### **1.086. Tokian tokiko euskalkia (ESK-104/016)**

Eibarreko irakasle bat ezagutu zuen, Bizkaiko aditzak eskolan irakasten zituena, eta ezagutu duen bakarra da. Euskalkia erakustea ere garrantzizkoa da, gazteek ez baitaukate erreferentziarik.

### **1.087. Euskalkiak eta konplexuak (ESK-104/017)**

Euskarak lotsatu izan gaitu beti eta errespetu edo desprestigioagatik erdarara jo izan da beti. Inguruko hizkuntzaren konparazioaz gain, beste euskalkiekin konparaketa ere beti izan da, gurea gutxietsiz. Gotzon Garateren artikulua batean irakurrita, egitura aldetik, sintaxi aldetik, bailarako herri batzuk gailentzen direla dio. Herriz herri lexikoa eta hitzak ere aldatzen zaizkigu eta nortasuna ematen digute euskalkiek.

### **1.088. Hika gazteen artean (ESK-104/018)**

Arrasate inguruan ez du hikarik entzuten gazteen artean. Bakar batzuk entzutean ere harritu egiten da. Berreskuratze prozesuan egin den lana benetan miresten du.

### **1.089. Appa Hi! Bideoa (ESK-104/021)**

Appa Hi! aplikaziorako bideoa.

### **1.090. Hika eta hizkuntzarekiko lotura (ESK-104/023)**

Eginiko lana mirestu eta goraipatzen du. Baina garrantzitsuena hika hitz egiten hasteko lotura afektibo hori bilatu eta lortzea dela dio. Hizkuntzarekiko lotura generalean. Etorkin asko etorri dira azken urteetan euskararik ez zekitenak. Hizkuntza komunitatea sortzeko tresna garrantzitsua da eta gaur egun egoerari buelta emateko prozesu luze bat jarri beharra dago martxan. Jakintza eta erabileraren artean ere badago talka. Gure hizkuntza txikia izanik jende asko ez dio beharrezkotasunik ikusten. Euskara hitza bera gutxi erabiltzen du Euxebiok astuna egin ez dadin eta garrantzia emateko.

### **1.091. Hikadunaren perfila (ESK-104/025)**

Baserritarra, gizona eta 50 urtetik gorakoa da gaur egun hitanoz egiten duen pertsonaren perfila. Marinetik Eskoriatzara edo Arrasatera joan zen jende asko trenaren sorrerarekin. Askok dira baserri girotik kalera jeitsi eta hika egiten hasi direnak. Baina Euxebiok bakarren bat bakarrik ezagutzen du eta gustatuko litzaioke gehiago izatea kontzientziadunak.

### **1.092. Badu euskara batuak informalerako espazioarik? (ESK-104/026)**

Baserri giroan erabiltzen diren hitz eta lexiak gero kalean ez dira aurkitzen. Beraz, baserritar bat kalera moldatzean, hizkerek talka egiten dute, bizipenak falta zaizkie. Hutsune nabarmen bat ikusiz. Oñatiko kasua salbuespen bat da beste herri batzuekin alderatuz.

### **1.093. Hika berpizteko ekimenak (ESK-104/032)**

Hikalaguna bezalako ekimenak oso onak iruditzen zazkio eta berak ere hartuko luke parte herrikoan.

### 1.094. Maringo historia (ESK-104/034)

Marinen jauregi bat zegoen, abareak ziren bi anaiena. Jauregia baserri bilakatu zuten. Bost belaunaldiz bertan egon zen eta saldu aurretik Euxebioren familia bertan bizi izan zen, birramona bertan jaioa zen zehazki. Baina gero beste etxe batera joan ziren bizitzera. Baserri hori erre egin zen eta bertako gurutzea Apotzagako kanposanturako erabili zen. Garai batean Marin bertaraino iristen zela uste da. Maringo baserrien berezitasuna da beheko sukaldearen erdian egotea.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-01*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com